# EUSKARAREN TRATAMENDUAK: ERABILERA

USO DE LOS TRATAMIENTOS ALOCUTIVOS EN EUSKARA

EMPLOI DES TRAITEMENTS ALLOCUTIVES EN BASQUE

Jabier Alberdi Larizgoitiak prestatua

IKER 9

EUSKALTZAINDIA /
Real Academia de la Lengua Vasca /
Académie de la Langue Basque
BILBO
1996

© Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

ISBN: 84-85479-80-7
Legezko Gordailua: BI-2107-96

Fotokonposaketa: IKUR, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1.º - 48005 BILBO

RONTEGI, S.A.L. Grafikagintza
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO (Bizkaia)

*Ene emazte Anari, maitasunez, landa-lanean bidaide eta tesian zehar gogaide izan dudalako*

*eta*

*Manuel Estonba zenari, esker onez, euskara--irakasle bikaina izan zelako.*

# AURKIBIDEA
# INDICE
# INDEX

**Hika eta Noka** *(Pello Salaburu)* ..... *17*
**SARRERA** ..... *19*

LEHEN ZATIA: MARKO TEORIKOA
**I. EREDU TEORIKOAK ETA IKERKETA ENPIRIKOAK** .... *25*
**SARRERA** ..... *25*

1. R. Brown & A. Gilmanen (1960) eredu teorikoa: «botere eta elkartasunaren izenordainak» ..... *25*
   1.1. Tren eta Vren bilakabide semantiko orokorra ..... *26*
      1.1.1. Boterearen semantika ..... *27*
      1.1.2. Elkartasunaren semantika ..... *29*
   1.2. Gaur egungo (1960) desberdintasunak frantsesa, italiera eta alemanaren artean ..... *34*
   1.3. Semantika, gizarte-egitura eta ideologia..... *35*
   1.4. Taldearen estiloa eta tratamendu-izenordainak..... *37*
   1.5. Tratamendu-izenordainak jarrera iragankorren adierazgarri ... *38*
2. Brownen eredu teorikoa egiaztatzeko, berritzeko edo gezurtatzeko saioak: ardatz biko ereduaren egokitasunaz ..... *39*
   2.1. Friedrich (1966): hamar bereizkuntzako sistema (unibertsala?) ..... *39*
      2.1.1. Zenbait kultura-gune edo kategoria garrantzitsu ..... *40*
      2.1.2. Tratamendu-izenordainen erabileraren azpian dautzan hamar bereizkuntza ..... *41*
      2.1.3. Bereizkuntza- edo aldagai-kopuruaz ..... *44*
   2.2. Rubin (1962): Brownen eredua eta kodearen hautaketa Paraguaiko elebidunen artean ..... *44*

2.3. Slobin, Miller, Porter (1968): deituren bidezko tratamenduak eta harremanak merkataritzako erakunde batean ..... 45
3. Brownen diakroniazko bi hipotesiak egiaztatzeko edo gezurtatzeko saioak: boterearen kodetzea (tratamendu ez-elkarrekikoa) desagertzear ote? ..... 47
3.1. Lambert eta Tucker ..... 47
3.2. Slobin (1963) ..... 48
3.3. Kocher (1967) ..... 49
3.4. Solé (1970) ..... 49
3.5. Weinberg (1969, 1970) ..... 50
3.6. Weinerman (1976) ..... 50
4. Brown eta Gilmanen eredu teorikoaren ebaluazioa ..... 52
4.1. Eredu teorikoaren baliotasuna eta egokitasuna ..... 52
4.2. Diakroniazko hipotesien ebaluazioa ..... 54

**II. TRATAMENDU-SISTEMAK: MUNDUKO ZENBAIT HIZKUNTZA** ..... 57
**SARRERA** ..... 57

1. TRATAMENDUAK ESPAINIERAZ ..... 57
1.1. Bigarren pertsonako tratamenduen bilakaera ..... 57
1.1.1. Singularreko bigarren pertsonako tratamenduak: «tu»ren ordezko izenordain berriak ..... 57
1.1.1.1. «Vos» solaskide bakarrari zuzendutako begirunezko tratamendu gisa ..... 58
1.1.1.2. Izen abstraktuen bidezko tratamenduak: «Vuestra Merced» > «usted» eta antzekoak ..... 58
1.1.1.3. «Vos»en beheraldia eta galera Espainian ..... 58
1.1.1.4. Ameriketako «voseo»a ..... 59
1.1.1.5. Solaskidea aipatzeko beste tratamendu batzuk .. 59
1.1.2. «Vosotros» eta «Vuestras Mercedes» > «Ustedes» ... 59
1.1.3. Komunztadura tratamenduetan eta tratamenduen laburpen-eskema ..... 60
1.1.3.1. Numeroa
1.1.3.2. Generoa
1.1.3.3. Pertsona gramatikala
1.1.3.4. Espainierazko tratamenduen laburpen-eskema
1.2. Bigarren pertsonako tratamenduen erabilera ..... 60
1.2.1. Joera orokorrak ..... 60
1.2.1.1. Simetriazko eta asimetriazko tratamendu-usarioak ..... 60
1.2.1.2. Testuingurua ..... 62
1.2.1.3. Tratamendu-aldaketak ..... 63

1.2.1.3.1. Harreman baten berregituraketa: aldaketa iraunkorra ..... 63
1.2.1.3.2. Tratamendu-aldaketa iragankorrak: hizkuntza-aldaketa adierazkorrak ..... 63
2. BIGARREN PERTSONAKO TRATAMENDUAK FRANTSESEZ: BILAKAERA ..... 63
2.1. X-XIV mendeak ..... 63
2.2. XIV-XV mendeak ..... 64
2.3. XVI. mendea: Berpizkundea ..... 64
2.4. XVII. mendea ..... 65
2.5. XVIII. mendea ..... 65
2.6. XIX. mendea ..... 65
2.7. XX. mendearen lehen zatia ..... 66
2.8. XX. mendearen bigarren zatia ..... 67
3. TRATAMENDUAK ITALIERAZ ..... 69
3.1. Solaskideari zuzentzeko tratamendu-izenordainen bilakaera ... 69
3.2. Tratamendu-izenordainen banaketa dialektala ..... 71
3.3. Tratamenduen erabilera: aldagai soziolinguistiko erabakigarriak ..... 72
4. TRATAMENDUAK KATALANEZ ..... 74
4.1. Singularreko tratamendu-izenordainen bilakaera: «tu», «vós», «vostè» ..... 74
4.2. «Vós»/«Vostè» aurkakotasuna: bilakaera eta lekuzko banaketa ..... 75
4.3. Tratamenduen erabilera: T-T, T-V, V-T, V-V ..... 76
4.4. Tratamenduak solaskide batekin baino gehiagorekin aritzean ..... 77
5. TRATAMENDUAK PORTUGESEZ ..... 77
5.1. Tratamenduen bilakaera: eskema (Cintra, 1972) ..... 77
5.2. Tratamenduak gaur egungo portugesean ..... 78
5.3. Brasilgo portugesa ..... 81
6. TRATAMENDUAK ERRUMANIERAZ ..... 82
6.1. Tratamenduen bilakaera eta gaur egungo sistema ..... 82
7. TRATAMENDUAK INGELESEZ: BILAKAERA ..... 83
8. TRATAMENDUAK ALEMANEZ ..... 84
8.1. Tratamendu-izenordainen bilakaera ..... 84
8.2. Tratamendu-izenordainen erabilera gaurko alemanean ..... 85
9. TRATAMENDUAK SUEDIERAZ ..... 87
9.1. Tratamendu-erak eta tipoak ..... 87
9.2. Tipoen azterketa: $T_1$-$T_1$, $T_1$-T, T-T, $T_1$-V, V-V ..... 88
9.3. Konparaketa beste hizkuntza batzuekin: asimetriatik simetriarantz? ..... 89
10. TRATAMENDUAK NORVEGIERAZ ..... 89
11. TRATAMENDUAK ERRUSIERAZ ..... 90

11.1. Tratamendu-izenordainak gaurko errusieran ..... 90
11.1.1. T/V sistemaren aldagaiak lehengo eta oraingo errusieran ..... 90
11.1.2. Tratamendu-izenordainen erabilera gaurko errusieran 93
12. TRATAMENDUAK HINDIZ (JAIN, 1969) ..... 95
12.1. Izenordainak eta adizkerak: pluraltasuna begirunearen adierazgarri ..... 95
13. TRATAMENDUAK JAPONIERAZ ..... 96
13.1. Solas-mailak («speech levels») japonieraz ..... 96
13.2. Bigarren pertsonako izenordainak ..... 99
14. TRATAMENDUAK ETA SOLAS-MAILAK KOREERAZ ... 102
15. TRATAMENDUAK TXINERAZ ..... 107
15.1. Tratamenduak 50eko hamarkadan (Chao, 1956) ..... 107
15.2. Berrikuntzak tratamendu-usarioetan: iraultzaren eragina (Fang, 1983) ..... 108

**III. BESTE HIZKUNTZAK ETA EUSKARA** ..... 111

1. TIPOLOGIA ..... 111
1.1. Errespetu-mailak eta unibertsalak izenordainen erabileran .. 111
1.1.1. Ondorioak (Head, 1978) ..... 112
1.2. Tratamenduen tipologia hizkuntza indoeuroparretan (IE) .. 115
2. TRATAMENDUEN BILAKAERA EUSKARAZ ..... 119
2.1. Pluraltasuna begirunearen adierazgarri: «zu» izenordainaren jatorrizko pluraltasun ustezkoa eta haren singulartzea ..... 119
2.2. Hirugarren pertsona begirunearen adierazgarri: «berori» ... 121
2.3. Hikako aditz-joko alokutiboaren sorrera ..... 124
2.4. Tratamendu aditz-joko alokutibodunen bilakaera: hiketa, zuketa eta xuketa alokutiboen hurrenkera diakronikoa ..... 125
2.5. Bigarren pertsonako tratamenduen bilakaera euskaraz: hipotesiak ..... 127
2.6. Euskal tratamendu-usarioen (T/V) iragana, oraina eta geroa 128
3. EUSKARA ETA BESTE HIZKUNTZAK: KONPARAKETA ... 130
3.1. Kidetasunak ..... 130
3.1.1. Tratamendu-izenordainak beste hizkuntza batzuetan ... 130
3.1.2. Euskal tratamendu-izenordainen sistema(k) ..... 134
3.1.3. Kidetasunak ..... 138
3.2. Euskararen berezitasunak ..... 139
3.2.1. Aditz-joko alokutiboak eta hitanozko sexu-bereizketa 139
3.2.2. «Hiru ardatzen teoria» (Comrie, 1976), trataera-motak eta euskal tratamendu alokutiboen berezitasuna ..... 140

## BIGARREN ZATIA: TRATAMENDUEN ERABILERA GAUR EGUNGO EUSKARAN


IV. SARRERA: IKERKETAREN NONDIK NORAKOAK .... *145*

1. Ikerketaren historia ..... *145*
2. Helburuak ..... *145*
3. Ikerketaren metodologia ..... *146*
   3.1. Inkestabidea ..... *146*
   3.2. Erakusgarria: aldagai kolektiboak ..... *146*
   3.3. Inkestagintza: sarea eta herrien hautaketa ..... *148*
   3.4. Egitasmoak eta lorpenak: egindako inkestak eta «hutsuneak» *149*
   3.5. Herriz herriko langintza: metodologiazko xehetasunak ..... *156*
   3.6. Lekukoak ..... *156*
   3.7. Lortutako erakusgarriaren errepresentagarritasunaz ..... *157*
4. Galdekizuna (galde-sorta edo itaunketa-eredua) ..... *157*
   4.1. Familia (ahaidetasunezko harremanak) ..... *158*
   4.2. Barne-bakarrizketa eta beste: Jainkoa, animaliak, solaskidemultzoa ..... *158*
   4.3. Familiaz kanpoko harremanak (adina, sexua, kidetasuna, adiskidetasuna, estatusa) ..... *158*
   4.4. Bestelako aldagaiak (gizarte-testuingurua, euskalkia, gaia) .. *160*
   4.5. Ipar-ekialdeko euskalkiak: zuka eta xuka alokutiboak ..... *160*
   4.6. Sintaxia: alokutiboa adierazpen-perpausetan soilik? ..... *160*
   4.7. Lekukoaren fitxa eta galdera orokor batzuk ..... *161*

V. EMAITZEN AZTERKETA OROKORRA ..... *163*

0. Sarrera ..... *163*
1. Familiaren esparrua: ahaidetasunezko harremanak ..... *165*
   1.1. Emaitzak galderaz galdera ..... *165*
   1.2. Tratamenduzko simetria eta asimetria familian: laburpen-ondorioak ..... *205*
2. Barne-bakarrizketa eta beste ..... *209*
3. Familiaz kanpoko harremanak ..... *215*
   3.1. Emaitzen aurkezpena galderaz galdera ..... *215*
   3.2. Simetria eta simetriarik eza familiaz kanpoko harremanetan: laburpen-ondorioak ..... *257*
   3.3. Aldagaien garrantzi eta eragina familiaz kanpoko harremanetan: kidetasuna, adiskidetasuna, adina, sexua eta maila ... *262*
      3.3.1. Kidetasuna ..... *262*
      3.3.2. Adiskidetasuna ..... *264*
      3.3.3. Adina ..... *267*
      3.3.4. Sexua ..... *270*
      3.3.5. Estatusa (maila) ..... *273*

4. Bestelako aldagaiak: gizarte-testuingurua, euskalkia, gaia ..... 276
5. Alokutiboaren sintaxizko debekuak ..... 284
6. Ondorioak ..... 286

VI. TRATAMENDU BAKOITZAREN EREMUA ..... 297

1. Hiketa ..... 297
2. Beroriketa ..... 299
3. Eztabada ..... 303
4. Zuka eta xuka alokutiboak ..... 306
4.1. L.L. Bonaparte. Zuka eta xuka alokutiboak: isoglosa garbiak ..... 306
4.2. Gure inkestagintzaren emaitzak ..... 309
4.3. Xuka alokutiboa eta «xuketa» ez-alokutiboa ..... 311
5. Ondorioak ..... 315

VII. EKIALDEKO BEHE-NAFARRERAREN BEREIZGARRIA: XUKA ALOKUTIBOA ETA BERE BALIO PRAGMATIKOA ..... 321

1. Familiaren esparrua: ahaidetasunezko harremanak ..... 321
2. Familiaz kanpoko harremanak ..... 333
3. Ondorioak ..... 341

VIII. HIKETAREN ERABILERA: EUSKALKIEN ARTEKO KONPARAKETA ..... 347

Sarrera ..... 347
1. Toketaren erabilera euskalkiz euskalki ..... 348
1.1. Toketa familia barruko harremanetan ..... 348
1.2. Familiaz kanpoko harremanak: adinaren garrantzia sortaldean ..... 351
2. Noketaren erabilera euskalkiz euskalki ..... 352
2.1. Noketaren erabilera euskalkiz euskalki ..... 354
2.2. Noketa familia barruko harremanetan ..... 358
2.3. Noketa familiaz kanpoko harremanetan ..... 360
3. Simetria eta asimetria euskalkiaren arabera: asimetriaranzko joera ekialdeko euskalkietan ..... 361
4. Ondorioak ..... 364

IX. EMAITZEN AZTERKETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA ..... 369

1. Emaitzak sexuaren arabera ..... 369
1.1. Toketa eta noketa: lagunarteko tratamendu parekoak ote? ..... 369

1.2. Emaitza orokorren banaketa lekukoen sexuaren arabera ... 373
1.3. Gipuzkerazko hiztunen jokamoldea noketari buruz bestelakoa ote? ... 374
1.4. Iritzia hitanoaren erabilera ausartei buruz sexuaren arabera 376
1.5. Sexu-kidetasuna eta sexu-desberdintasuna ... 377
2. Emaitzak adinaren arabera ... 378
3. Hipotesia kaletar/baserritar aldagaiari buruz ... 385
4. Ondorioak ... 389

**X. TRATAMENDU-SISTEMAK: MENDEBALDEA/EKIALDEA** ... 393

1. Solas-maila (tratamendua) eta alokutibotasuna ... 393
2. Tratamendu-sistemak. Tipoak Rebuschiren (1984) arabera ... 398
3. Euskal tratamendu-sistemak: lehen hurbilbidea (ikuspegi formal eta pragmatikoa) ... 406
4. Euskal tratamendu-sistema nagusiak erabileraren arabera: eremuak eta kidetasunak ... 410
5. Ondorioak ... 413

**XI. ONDORIOAK** ... 417

**BIBLIOGRAFIA** ... 423

# HIKA ETA NOKA

Pello SALABURU

Beti oroitzen naiz zein gogor egiten zitzaidan neska bati beste norbaitek hika egiten zionean. Edo neskak ere elkarren artean hika, eta ez zuka, ikusten nituenean. Aldiz, nire lagun eta adiskideekin, mutilekin, beti hika ateratzen zitzaidan. Aitortu behar dut oraindik ere, batzuetan bederen, ez naizela batere eroso sentitzen bi andre «etorriko haiz», «han ikusiko haut» edo «eguraldi ederra egiten din» bezalakoak esaka aurkitzen ditudanean. Ttikitan hartutako hazkuntzak halako pisu berezia baitu gure baitan. Baztangoizan mutilen artean bakarrik egiten genuen hika: aita batzuek ere bere seme-alabei. Batzuetan, arras bakanka, gizonak andreari, batez ere ezkondu aitzinetik. Nik ez nuen berorika ezagutzen. Bazenik ere. Ez da harritzekoa, dena dela: urteak eta urteak beranduago, eta euskaltzaleen artean euskarari buruz idatzitakoaren berri izan gabe nonbait, gure herria askatu nahi duten horietako batek eztabaidatzen zion pistolapean bahitua zuen bati berorikaren kontua, berorika eta txinoa parekoak baitzituen hark eta besteak, berriz, euskara gehiago ikasi nahi eta, halako baldintzetan jakin behar izan baitzuen berorikaz egitea ez omen dela euskara batuan egitea.

Liburu hau bere garaian irakurri izan banu konturatuko nintzen ohitura kontua baizik ez dela hau guztia, eta nire sorterrian ez bezala, beste toki batzuetan ez dela inolako eragozpenik izaten ingurune zabalagoetan ere erabiltzeko hika: gazteekin, zaharren artean, andreen artean, etab., sexua, egoera edo adina kontuan izan gabe. Bai, ordea, beste giza baldintza batzuk, gaur aski nahasiak ditugunak, errespetatuz: nolabaiteko konfidantza giroa, andreei eta gizonei dagozkien formen bereizkuntza, etab. Gauza bat baita formak ongi menderatzea (eta, egia esan, honek ere lan ederra ematen du), eta bestea forma horiek, adizki horiek, noiz, nola eta norekin erabil daitezkeen xuxen bereiztea. Hemen, beste gauza anitzetan bezala, zentzu komuna ere beharrezkoa da.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta adiskidea dudan Xabier Alberdik egin duen doktoretza tesi baten ondorioa da lan handi hau. Tesia

handiagoa da, jakina, eta gai gehiago ere aztertzen ditu han. Baina uste dut euskalzale eta ikertzaile guztientzat benetan mesedegarria dela hemen biltzen den informazioa: orain baditugu askoz ere datu fidagarriagoak euskararen tratamentuei buruzkoak. Irakurlea konturatuko denez hemen ez dira hikako formak biltzen, ez baitzen hori lanaren helburua. Euskaltzaindiak proposamen bat egin du batasunaren izenean, euskalki, azpieuskalki eta mintzairen artean, zenbait kasutan herri baten barnean ere, formetan hainbesteko diferentziak daudenez gero, eredu bat bakarra zehaztuz. Hemen egin den azterketak, ordea, hizkuntzaren soziologiarekin du zerikusia: jakin forma hauek erabiltzen diren edo galduak diren; erabiltzen baldin badira, non erabiltzen diren, nork erabiltzen dituen, zein diren aldagarri nagusiak, etab. Nolabait esateko, egileak kanpotik begiratu du hizkuntza.

Alde horretatik uste dut lan ederra dela, eta argia ematen duela orain arte ongi ezagutzen ez zen puntu batean. Nahi nuke euskarari buruzko lanak oro seriotasun honekin eginak izango balira. Urteetako emaitza da: munduan zehar beste hizkuntzekin zer gertatzen den aztertu ondoren (kontu hauetan ere, gainerako guztietan bezala, ez gara bakarrak), Xabier Alberdik Euskal Herriko xokoak kurritu ditu, bere kanpin denda soinean zeramala. Eskolak astean zehar zituenez gero, bidaiak aste hondarretan eta oporretan egin behar izaten zituen. Hori hainbeste urtez. Gero tesiak behar zituen bedeinkazio guztiak izan zituen, eta epai mahaia osatu zutenek biziki goraipatu zuten egindako lana, Alberdiren merezimenduak azpimarratuz. Euskal Herriko Unibertsitateak bere lana bete zuen, azterketa hau bultzatuz eta irakasleari laguntza eskainiz eta Euskaltzaindiak bere lana bete du euskara hobeki ezagutzeko balioko duen lan hau argitara emanez. Uste dut orain irakurleari dagokiola azkena, hemen dagoen informazioa mesedegarri izango baitu, dudarik ez.

# SARRERA

Jabier ALBERDI LARIZGOITIA

Orain liburu gisan argitara ematen den lan hau, 1994an EHUn defenditu nuen doktoretza-tesiaren laburpena duzu, irakurle. Tesiari aho batez «GAI CUM LAUDE» kalifikazioa eman zion hurrengo irakasleek osatutako epahaimahaiak: Patxi Goenaga, Beñat Oihartzabal, Rudolf de Rijk, Ibon Sarasola eta Koldo Zuazo. Zorretan nago eurekin guztiekin, irakurketa-ekitaldian egindako ohar, zuzenketa eta iruzkin kritikoak aberasgarri gertatu zaizkidalako liburu honetarako.

Lan hau, duela urte batzuk Koldo Mitxelena maisuaren zuzendaritzapean egindako lan apalago baten, nire lizentziatura-graduko lana izan zenaren (Alberdi 1986a, 1986b) jarraipena da. Hain zuzen ere, orduan erantzun gabe utzi nituen zenbait galderak eta lan hura aurkeztean epaimahaiko izan nuen Ibon Sarasola irakasleak ikerketa eremu zabalago batera hedatzeko egin zidan iradokizunak bultzatu ninduten berriz ere gai berberari heltzera; oraingo lan hau harako xume haren osagarri gisa aurkezten dut, beraz.

Gure lanaren helburu orokorra euskal tratamenduen gaiarekiko ezagutza osatzea da; eta liburuari jarritako izenburuak berak dioenez, osatze-lan hori, batik bat, erabileraren aldetik egin nahi izan dugu. Zehatzago esateko, gaur egungo euskara mintzatuan diren tratamendu-usarioak deskribatzea da gure ikerketaren helburu behinena. Hortaz, hasieratik argi utzi behar dugu gure ikerlanaren xede apala, abiaburuko asmoa ez baita deskribapenaren mailaz harantzago joatea azalpen, interpretazio edo formulazio teorikoen bila. Izan ere, arlo honetan, bestetan bezala edo areago beharbada, teorien ur handietan sartu aurretik, ezinbesteko deritzogu lehenik gauzak nola diren finkatzeari.

Aurrera baino lehen, 'tratamendu' hitzaren hemengo erabilera zehaztu beharra daukagu. Izan ere, badira gutxienez bi tratamendu-mota, muga hau sarri-askotan nahi baino ahulago eta irristakorragoa bada ere: lexikalak (esate baterako, eskutitzetako agurrak, e.a.) alde batetik eta morfologiko edo morfosintaktikoak (izenordainekikoak, e.a.) bestetik. Lehenak, hiztegiaz baliatzen dira

eta sail irekiago eta aldagkorragoa osatzen dute; bigarrenak, berriz, gramatikaren osagairen bati edo bati baino gehiagori lotuta daude eta, hain zuzen, izaera gramatikal horrek interesgarriago bihurtzen ditu tipologiaren ikuspuntutik. Lan honetan, bada, batik bat euskarari buruz jarduterakoan, 'tratamendu' termino orokorra gehienbat bigarren sailekoez aritzeko erabiltzen dugu.

Terminologiaz ari garenez gero, gogora dezagun gure artean zenbaitek (Rebuschi, 1984; Euskaltzaindia, 1987, 1993) aipaturiko bigarren sail horretako gertakariak izendatzeko 'erregistro' terminoa erabili dutela. Dena den, gure ustez, 'erregistro' hitza hizkuntza baten oinarrizko hizkera-mailak ere (hizkera jaso edo landua, estandarra, lagunartekoa, herrikoia, arrunta, e.a.) izendatzeko erabiltzen denez, nahasgarri gerta daiteke aztergai dugun arloan aplikatuz gero; esate baterako, hitanoa 'erregistro lagunartekoa' dela esateak, hikako tratamendua goi-mailetarako (hizkera estandar edo jasorako) desegokia dela pentsatzera eraman gaitzake eta azken ondorioztapen honek ez du funts handirik. Gure ustez, tratamendu guztiak, benetako eta zinetako tratamendu direnak behinik behin, estilo elkarrizketatuari dagozkio eta aldez aurretik ez dago zertan aurkezturik erregistro jakin bati atxikirik. Horregatik, ari garen gaiaz jarduteko, guk nahiago izan dugu geure tradizio gramatikaleko hitz arruntari (eusk. *tratamendu;* fr. *traitement;* ingl. *address(ing) system...*) eustea eta 'erregistro' terminoa lehengorako, hots, hizkuntza-mailaketarako uztea[1].

Jakina, tratamenduen arloan ageri den aniztasuna zerbait murrizteko eta aldi berean ikergaiaren luze-zabala hobeto zedarritzeko, erabilera markatu, berezi edo ezohizkoak alde batera uztea eta ahalegin handienak tratamenduen erabilera markatugabea argitzera zuzentzea erabaki genuen. Hortaz, noizbehinkako «arau-hauste», arauekiko aldentze eta bestelako bitxikeriak, gaingiroki edo zeharka baizik ez ditugu jaso. Alde horretatik ikertzeko arloa mugatuago geratu bazen, beste alde batetik ikuspegi zabalagoa eskaini beharra ikusi genuen diakroniari ere atea irekiz. Horrela, funtsean ikerketa sinkroniko soila izan behar zuena, hain tentagarri gertatu zitzaigun hurbilketa diakronikoaz osatu genuen, inguruko hizkuntzetan gai honen inguruko literaturan egin ohi denez, bestalde.

Metodologiari dagokionez, datu-bilketa inkesta bidezkoa izan zen ikerketa sinkronikoan. Gure ustez, hala izan behar zuen, hala behintzat euskalki interesgarrienei buruzko informazioa lortuko bazen, zeren hizkera batzuetan testu-urritasuna etsigarria baita. Kontuan hartu behar da zenbait tratamendu, hala nola, xuketa alokutiboa, oso bakan ispilatzen direla testuetan; hortaz, literaturaren testigantzaz baliatzera, oso ondorio murritz eta badaezpadakoak aterako genituen erabilerari dagokionez. Gauzak horrela, inkestagintza, zenbait

[1] Nolanahi ere, jakitun gaude «tratamendu» eta «erregistro» nozioen artean lotura handiak daudela. Mereziko luke bien arteko erlazioa hobeki aztertzea, esate baterako, ea zergatik tratamendu alokutiboak maizenik lagunarteko erregistroan agertzen diren, e.a.

aldagai kolektibo (sexua, adina, jatorria, euskalkia) kontrolatuz burutu zen Euskal Herri osoko 51 herritan; erakusgarriari buruzko xehetasunei eskainitako IV. kapituluan azaltzen denez, guztira 210 lekuko elkarrizketatu genituen aurretiaz hartarako prestaturiko galdekizun batez baliaturik.

Tratamenduen artean bereziki hitanoarekiko usarioak izan ditugu ikusmiran eta ikuspegi honek inkestagintza euskaldun hikatzaileen esparrura mugatzera eraman gaitu (cf. IV.3.6); hots, hikako ohiturei buruzko helburu deskribatzaileari begira, gure lekukoek, hika jakin eta eguneroko bizitzan, noizbait edo norbaitekin, hika aritzen zirenak izan behar zuten. Izan ere, hitanoa aspalditik (Bizkai aldean, Aita Zabalaren arabera[2], gutxienik, XIX. mendetik) atzeraka ari den tratamendua izanik, ezer gutxi aurreratuko genukeen geure galdekizuna hika mintzo ez diren hiztunen artean egin izan bagenu; gauza jakina da hitanoaren eremu geografiko eta sozialean «soilgune» nabarmenak direla (cf. VI.1 eta VIII.2), baina nolanahi ere den, gure helburu nagusia hitanoaren geografia eta hiztuneria zehaztea baino areago, hitanoaren erabilera zehaztea izan da.

Inkestabidea, oro har, probetxugarri gertatu zaigu datuak biltzeko; hala ere, aitortu beharra daukagu galdeketa, zenbaitetan, barne-bakarrizketari buruzko atalean adibidez, motz geratu zaigula. Dena den, akatsak akats, ez genuen bide hoberik ikusi geure lana ondo eta azkar bideratzeko. Euskal tratamenduen bilakaerari buruzko hurbilketa diakronikorako (III.2), berriz, zenbait testuz eta batez ere hiztegigile eta gramatikariek bildutako informazioaz baliatu gara.

Janzkera teorikoari bagagozkio, zoritxarrez, inongo eredurekiko atxikimendurik eza aitortu beharko dugu. Eta horrekin ez dugu dauden ereduekiko geure desadostasuna adierazi nahi; era berean, horrekin ez dugu aditzera eman nahi geure lanari ezerezetik ekin behar izan diogunik ere. Gertatzen da, ordea, tratamenduen erabileraren gaia ez dela garbiro sartzen inongo jakintza-eremutan, edo bestela esan, jakintzarteko gaia da inon halakorik baldin bada. Aski da bukaeran eskaintzen den bibliografiari begiratu bat ematea konturatzeko, lehenik, gaiari berandu heldu zaiola eta bigarrenik, ikuspuntu eta era askotako azterketak eskaini izan zaizkiola. Tratamenduen gaia, berandu bada ere, gutxienik hurrengo jakintzen ikergai bilakatu da: hizkuntzalaritza, filologia, antropologia, etnologia, psikolinguistika, e.a. Are gehiago, beldur gara guri gehien interesatzen zaigun aldetik, linguistikaren adartzat jotzen diren soziolinguistika eta pragmatika jakintza berriak, hizkuntzalaritza bera baino gehiago hurbildu izan direla gai honetara. Areago, beldur izatekoa da ba ote den munduko hizkuntzen tratamendu-sistemak deskribatzeko moduko eraikuntza teorikorik; P. Brown eta S. Levinsonek diotenez,

> «Unfortunately, there is no wide survey of, nor any descriptive apparatus or theory developed for, the honorific systems of the

[2] Honi buruz, besteak beste, Alberdi 1986a, 166.or. ikus daiteke.

> world's languages. Even language-internal descriptions in the most-studied cases are fragmentary and confused.»
>
> (P. Brown; S. Levinson, 1987: 179)

Esanak esan, eta ikuspuntu desberdinetatik bada ere, hemen eta kanpoan aitzindari izan ditugun ikerlanekiko geure zorra aitortu nahi dugu. Euskarri hobeen faltan, ereduzkotzat jotzen ditudan hiru lan aipatzera noa kanpokoen artean. Lehenengo eta behin, bere soiltasunagatik, bere irispide teorikoagatik eta bere balio heuristikoagatik, Brown eta Gilmanen (1960) eredu teorikoa aipatu nahi dugu; psikologia sozialaren ikuspegitik egindako lana izan arren, berari ezagutu behar diogu tratamenduekiko azterketen hazkundearen merezimendua, inolako zalantzarik gabe. Bigarrenik, Friedrichen (1966) ekarpena hartu dugu kontuan, aurreko ereduari buruz dakarren fintze- eta zehaztelanagatik. Hirugarrenik, beste maila batekoa den Headen (1978) tipologiazko lan gogoangarria gogoratu nahi dugu. Jakin, badakigu geroago tratamenduen erabilerari buruzko formalizazio egokietara iristeko saio interesgarriak egin izan direla, Ervin-Trippenak (1972a, 1972b) gehiago ez aipatzearren. Dena dela, euskaraz oraindik uste dugu nahiko lan badugula deskribapenen maila jorratzearekin. Azkenik, gure artean gai honetara hurbildu izan diren ikertzaileen artean ezingo nituzke aipatu gabe utzi Bonaparte, Schuchardt, Lafon, Rebuschi eta Oihartzabal. Jakina, eurak gabe, gure lan hau pentsaezina izango zatekeen. Aipatu autoreak eta gehiago izan dira gure iturri eta zer esanik ez, ez dugu beldurrik izan orotatik edateko.

Liburua bi zatitan egituratuta dago. Lehenak, «marko teoriko» izenburu orokorraz bataitu dugunak, hiru atal nagusi ditu: lehen kapituluan («Eredu teorikoak eta ikerketa enpirikoak»), gai honen inguruko ekarpen teorikoen hasimasiak izan daitezkeen ikerlan oinarrizkoak aztertu dira; bigarren kapituluan («Tratamendu-sistemak: munduko zenbait hizkuntza»), hurbilenak diren hizkuntza erromantzeetatik hasita, hamasei bat hizkuntzaren berri eskaintzen da, Asiako sortaldeko kasu jakingarri batzuk (japoniera, koreera) ahaztu gabe; hirugarrena («Beste hizkuntzak eta euskara»), azkenik, behin-behineko halako hurbilpen-saioa dugu euskal tratamenduei buruzko ikuspegi diakronikorako eta hizkuntza arteko konparaketa sinkronikorako. Bigarren zatia, euskal tratamenduen erabileraz egindako ikerketa sinkronikoari dagokio eta hurrengo atalez osatuta dago: laugarren kapitulua («Ikerketaren nondik norakoak») ikerketaren metodologiari eskainita dago; bosgarren kapitulua, emaitza orokorren azterketa da; seigarrenean, tratamendu bakoitzaren eremu dialektala zedarritzen saiatu gara; zazpigarrenean («Ekialdeko behe-nafarreraren bereizgarria: xuka alokutiboa eta bere balio pragmatikoa»), xuka alokutiboaren balio pragmatikoaz dihardugu; zortzigarrenean («Hiketaren erabilera: euskalkien arteko konparaketa»), hikako usario dialektal desberdinei buruz ari gara; bederatzigarrenean («Emaitzen azterketa sexu eta adinaren arabera»), sexuaren eta adinaren arabera arakatu dira emaitzak; eta hamargarren kapitulua («Tratamendu sistemak: mendebaldea/ekialdea»), azkenik, euskal tratamendu-sistema nagusien azterketa da.

Jakina, ikerkuntzan, oro har, apurka-apurka eta urratsez urrats egiten dira aitzinamenduak; eta alde horretatik gure ikerlana ez da salbuespena izan. Espero zitekeenez, ez dugu agortu ikergaia; gehienez ere, zenbait ikerbide jorratzera eta sakontzera mugatu gara, gehiagoko asmorik gabe. Ondorioz, jorraturiko zenbait gai lanketa xeheago eta sakonagoen zain geratzen direlakoan gaude: eredu teorikoei buruzko lehen kapituluak oraintsuagoko ikerketen ikuspegia beharko luke osagarri; munduko hizkuntzei eskainitako bigarren kapituluak zenbait kasutan ikuspegi axalekoegia ematen du eta, beti ere, interesgarriak zaizkigun askoz ere hizkuntza gehiagorekin osa liteke; diakroniazko azterketa (III.2), gairako hurbilpen bat besterik ez da eta, bistan denez, testuen biluzketa eta ezaguera sakonagoen eske geratzen da; aezkerari eta zaraitzuerari buruz inkesta bidez lorturiko informazioa guztiz urria eta behinbehinekoa da eta lekuan lekuko azterketa monografikoen zain geratzen da eta, zer esanik ez, ikerketa sinkronikoaren emaitzak inkesta-sare hertsiago eta trinkoago batez osa litezke. Aipaturiko osatze-lanez gain, eginkizun geratzen dira, banaka batzuk besterik ez aipatzearren hurrengo lanak: tratamenduen erabilera markatuen azterketa; tratamendu-aldaketen ikerketa estilistikoa; mendez mendeko eta euskalkiz euskalkiko literatura-tradizioaren eta testuen biluzketa sistematikoa; testuetan eta folklorean oinarrituriko euskal «generoari» buruzko teoria bat eraikitzea; euskal tratamenduen erabilera azaltzeko formalizazio teoriko baten eraikuntza; euskal tratamenduen lurraldekako bilakaera, gorabehera sozio-ekonomiko historikoen argitan[3] eta tratamenduen arteko korrelazioen arabera esplikatzea[4]; gaur egungo euskaran komunikabideek eta hezkuntzak izan dezaketen eragina aztertzea, etab.

Bukatzeko, une hau erabili nahi dut, laburki bada ere eta izen asko isilean uzteko arriskuaz bada ere, eskerrak emateko. Lehen-lehenik, eskerrak, tesizuzendari izan dudan Pello Salaburu irakasleari eman behar dizkiot, ikertzelana hurbiletik zuzendu eta jarraitu duelako, noiznahi aholku, laguntza eta erraztasunak emateko prest agertu izan zaidalako eta nekealdietan lanarekin aurrera egiteko kemena eta bultzada eman izan dizkidalako. Bigarrenik, hasierako iparrik gabeko une larrian lehen bibliografia eta aholkuak helarazi zizkidatenei eskertu nahi diet: EUTGko Patxi Altuna, Nancyko Unibertsitateko George Rebuschi, Bartzelonako Unibertsitateko Ibon Sarasola, Chicagoko Unibertsitateko M. Silverstein eta Virginiako Unibertsitateko Dell Hymes irakasleei. Bereziki, zordun sentitzen naiz Leidengo Unibertsitateko Rudolf de Rijk irakaslearekin, lan hau egitasmo hutsa zenetik agertu zidan interesagatik eta aurrerago eman

[3] Tesiaren irakurketa-ekitaldian Koldo Zuazo irakasleak iradoki zuenez, hitanoaren galera —bai Bizkaian, bai Lapurdin— bereziki kostaldean izan da nabarmena eta atzerakada nabarmen hori arrantzaren inguruko euskal burgesia txiki baten sorrerari lotua egon liteke. Bestalde, tratamenduen gai honetan euskal elizak izan duen eragina ere aztertu gabe dago eta zalantzarik gabe horrelako ikerketa batek argitasun ugari ekarriko lituzke arlo honetara.

[4] Nahikoa adierazgarria izan daiteke, adibidez, Ondarroako kasua: herri honetan hitanoaren galera eta beroriketaren iraupena ez dira gertakari isolatuak, zerikusia izan dezaketen fenomeno lotuak baizik. Ohar hau ere Koldo Zuazo irakasleari zor diot.

izan didan laguntzagatik. EHUri, tesia aurrera eramateko emandako dirulaguntzak eskertu beharrean nago eta Jesus Mari Makazaga sailkideari tratamenduen inguruko «corpus» idatziari buruzko xehetasunak bidali izana. Era berean, neure esker ona erakutsi nahi diet inkestagintzaren sarea diseinatzean beren proiektuaren berri emanez lagundu zidaten Rikardo Gomez EHUko Euskal Filologia saileko irakasleari eta Euskaltzaindiaren Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko arduradunei. Zorretan nago, halaber, inkesta banaka batzuk egiten lagundu zidaten Leioako Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultateko ikasleekin eta batez ere Hur Gorostiaga ikaslearekin, beraren familiaren bidez lortu bainituen Ipar Euskal Herriko inkestagintzarako lehen «bitartekoak», hots, lekuko egokiak biltzen lagundu zidatenak. Berebat, ezin ahaztuko ditut hemengo eta mugaz bestaldeko inkestagintzan bitarteko-lana egin zidaten guztiak[5], ezta neure galdeketa nekagarriari erantzun zioten lekukoetariko batzuk ere; denei, lekuko eta bitartekoei eta espazio ezagatik aipatu gabe utzi ditudan era guztietako laguntzaileei, bihoazkie hemendik nire eskerrik zintzoenak.

[5] Esan beharrik ez dago laguntzaileen bitartekotza gabe eta euren dohaineko laguntza eta harrera beroa gabe, «landa-lana» are eramangaitzago bihurtuko zitzaidakeela. Horra hor, bitarteko batzuen izenak, esker onez: Maribi Unamuno (Aulestia), Harkaitz Eguren (Elorrio), Loli Agirre (Abadino: Mendiola), Karmele Angoitia (Zeanuri), Patxi Gezuraga (Larrabetzu), «Navarrito» (Orozko), Mari Karmen Mendiguren (Zeberio), Monika Belaustegi (Bergara), Aitziber Aranburuzabala eta Karmele Agirregabiria (Eskoriatza), Xabier Martin (Lasarte), Joseba Arzelus (Tolosa), Patxi Saez Beloki (Azpeitia), Aitor Calvillo Zurutuza (Ordizia), Mikel Aldasoro (Urdiain eta Etxarri-Aranaz), Puri (Auza), Felix Salaburu (Lekaroz), Juan Migel Almandoz (Arantza), Leire Gaztelumendi (Oiartzun), Baraibarko apaiza, Agurtzane eta Idoia Martinez (Leitza), Sarako apaiza, Henri Duhau (Senpere), Pantxo Dagerre (Ainhoa), Agustin Duperu (Urruña), Eric Dolosor (Arbona), Pantxo Hirigaray (Baigorri), Charles Etche Çaharreta (Hazparne), Michel Sarratia (Uztaritze), Mitchel Etcheberri (Amorotze eta Gamue), Herbe Laborde (Bardoze), Ivette Zaragueta (Irisarri eta Heleta), Filipe Durruty (Aiherra), Marc Eyherabide (Beskoitze), Robert Daguerressar (Mugerre), Urketako apaiza, Uhart alkatea (Donaixti-Ibarre), Marcel Accoceberry (Larrañe), Junes Casenave eta Geannot Aytaberro (Santa Grazi), Marxel Beraxagard (Altzürükü), Leonie Agergaray (Muskildi), Arhauchiague alkatea (Aiñharbe), Pierre Ergui (Espeize-Undüreiñe). Bukatzeko, bereziki neure esker ona erakutsi nahi diet euren herriko inkestagintzan lagundu zidatenei: Monika Belastegi, Xabier Martin, Joseba Arzelus, Patxi Saez Beloki, Aitor Calvillo Zurutuza eta Mikel Aldasorori.

# I. EREDU TEORIKOAK ETA IKERKETA ENPIRIKOAK

## SARRERA

1960an zorioneko artikulu mamitsua («The Pronouns of Power and Solidarity», 1960) eman zuten argitara R. Brown eta A. Gilmanek, artean sortzen ari zen soziolinguistika jakintza berriarentzat guztiz emankor bihurtuko zen arloa jorratuz. Esan bezala, lan hau soziolinguistikaren lehen kimuetako bat edo izan zen eta haren ondoren, han-hemenka beste hainbat fruitu berri ernaldu ziren hastapeneko emaitza oparoari segida emanez.

Bere ekarpenagatik eta gerora izan duen eraginagatik, guztiz egokia iruditzen zaigu aipatu teoriari begiratu arretatsua eta azterketa xehea eskaintzea; hain zuzen ere, lehen kapitulu honetan, zuzenean eta zeharka, eskema teoriko horrexen inguruan jardungo dugu. Lehendabizi, Brown eta Gilmanen (1960) teoria [aurrerantzeaen BG laburdurez adierazia] azalduko dugu; jarraian, BG eredua egiaztatzeko eta zehazteko saio batzuk aztertuko ditugu; ondoren, BG eskemaren hipotesi diakronikoak egiaztatzeko zenbait ikerlanen emaitzak jasoko ditugu; eta azkenik, kritikaren galbahetik pasarazi ondoren, bere osotasunean balioztatuko dugu teoria.

## 1. R. BROWN ETA A. GILMANEN (1960) EREDU TEORIKOA: «BOTEREAREN ETA ELKARTASUNAREN IZENORDAINAK»

Urrutiko hizkuntzez baino areago, elkarrekin kidetasun handiak dituzten Europako bost hizkuntzaz —ingelesaz, frantsesaz, italieraz, espainieraz eta alemanaz— bildutako informazio aberatsaren gainean eraiki zuten R. Brown eta A. Gilmanek beren teoria. Gauzak honela, ikerlan honetako hipotesi eta

tesi gehienak, eremu geolinguistiko berean egoteagatik harreman estuak izan dituzten bost hizkuntza horiei —eta ez besteri— dagozkie.

Europako mendebaldean singularreko tratamendu-izenordainen bikoiztasunaren sorrera eta garapena latinezko *tu* eta *vos* formetan bilatu behar da. Italieraz *tu* eta *voi* (urte askotako lehiaren buruan *lei* formak neurri handi batean zokoratua edo azpiratua izan dena) bilakatu ziren; frantsesez *tu* eta *vous;* espainieraz *tú* eta *vos* (geroago *usted*). Alemanez bereizkuntza *du* eta *ihr* izan zen hasieran; *ihr* gero *er* bilakatu zen eta geroago *shie.* Ingelesez hasieran *thou* eta *ye* bereizten ziren eta gero *ye*-ren ordez *you* nagusitu zen. Gauzak erraztearren artikulu honen egileek *T* eta *V* laburdura-ikurrak (latinezko *tu* eta *vos* izenordainetatik eratorriak) erabiltzea proposatzen dute, oro har, edozein hizkuntzak izan ditzakeen lagunarteko eta kortesiazko izenordain-klase biak izendatzeko.

Horrelako izenordainak, gizarte-bizitzaren azterketan funtsezko diren bi ardatzi —botere eta elkartasunaren ardatzei hain zuzen— daude loturik eta lotura estu horrexek bihurtzen ditu izenordainok interesgarri. Forma hauen azterketa semantiko eta estilistikoak, psikologiaren eta soziologiaren alorrera nahiz literaturaren eta hizkuntzalaritzaren alorrera garamatza.

### 1.1. Tren eta Vren bilakabide semantiko orokorra

Antzinako latinak *tu* forma bakarra zuen singularrerako. Izatez plurala den *vos* izenordaina pertsona bakarrari mintzatzeko erabiltzea, lehen aldiz enperadorearekin gertatu bide zen eta badira gutxienez bi teoria desberdin berrikuntza hau azaltzeko (Byrne, 1936; Châtelain, 1880). Lehen hipotesiaren arabera, baliteke *vos* tratamenduaren erabilera berria bitasun edo pluraltasun historikoaren ondorio izatea. Laugarren mendean hasi omen ziren plurala erabiltzen enperadoreari hitz egiteko. Artean bi enperadore ziren: ekialdeko inperioko buru-agintaria Konstantinoplan zegoen eta mendebaldeko inperiokoa Erroman. Dioklezianoren erreformaz geroztik inperioaren kudeaketa bi bururen esku geratu bazen ere, administrazioz bakarra zen inperioa. Hortaz, batari zuzendutako hitzek, inplikazioz, besteari ere zuzenduak behar zuten, alegia mezuak bi buruei zuzenduak bailiran taiutzen ziren. Bigarren hipotesiaren arabera, tratamendu-berrikuntza hau ez da zertan pluraltasun historikoari lotu, pluraltasuna nonahi boterearen edo agintearen metafora zaharra baita: enperadoreari pluraltasuna egoki datorkio, bere mendeko herritarren ordezkari eta burua den aldetik; erregezkoek sarritan *nos* esaten dute, herri xeheak *Io* esango lukeen lekuan eta zentzu honetan errespetuzko *vos,* aurreko erabileraren ordain edo erantzun logikoa zatekeen. Ikuspuntu honetatik, errespetuzko *vos,* enperadorearen botereak edo aginpideak zuzenean eragindakoa izan zitekeen.

Nolanahi ere den, gerora, sortzez enperadoreari soilik zegokion latinezko *vos* errespetuzkoa bestelako goi-mailako agintarien artera hedatu zen. Hala

ere, mende luzeetan barrena eredu semantiko hau ez zen bat ere egonkor, ziur edo tinkoa izan. Antzinako frantses, espainiera, italiera eta portuges hizkuntzetan (Schliebitz, 1886) eta orobat Erdi Aroko ingelesean (Kennedy, 1915; Stidson, 1917) hainbat duda-muda eta gorabehera ulergaitz gertatu izan ziren *T* eta *V* aukeren artean. Bertsotan behintzat, badirudi gorabehera hauek sarritan errima, neurkera eta asonantziaren beharkizunei zor zaizkiela. Dena dela, hamabigarren eta hamalaugarren mendeen bitartean (Gedike, 1794; Grand, 1930; Kennedy, 1915; Schliebitz, 1886), goizago edo beranduago hizkuntzen arabera, arau-sistema bat gauzatuz joan zen, Brown eta Gilmanek boterearen semantika ez-elkarrekikoa («nonreciprocal power semantic») deritzotena.

### *1.1.1. Boterearen semantika*

Autoreen arabera, pertsona batek botere edo aginpidea du beste baten gain, beste lagun horren jokaera zuzentzeko edo kontrolatzeko gai den neurrian. Boterea, gutxienez bi lagunen artean gertatzen den erlazioa da eta bi lagunek aldi berean eta jokaera-eremu berean boterea ezin izan dezaketelako diote Brown eta Gilmanek ez-elkarrekikoa dela boterezko erlazioa. Boterearen semantika, orobat, ez-elkarrekikoa da: nagusiak edo gorago dagoenak *T* dio, baina *V* jasotzen du besteagandik.

Boterea era askotako arrazoietan oinarrituta egon daiteke: indar fisikoan, osasunean, adinean, sexuan edo elizaren, estatuaren, ejerzitoaren eta familiaren barruan ezarritako paper edo eginkizun desberdinetan. Zenbait hizkuntzatatik hartutako adibide batzuen bidez hobeto edo argiago ikusiko da zertan den boterearen semantika. Bere eskutitzetan Gregorio I Aita Sainduak (590-604) beti-beti *T* erabiltzen du eliza barruko bere agindupekoekin eta berauek inolako hutsik egin gabe *V* itzultzen diote (Muller, 1914). Erdi Aroko Europan eskuarki, aitonen seme-alabek *T* esaten zioten herri xeheari eta beronengandik *V* jasotzen: etxalde baten jabeak *T* esan ohi zien bere esklabo, morroi eta ezkutariei eta hauengandik *V* jasotzen zuen; familia barruan —familia zeinnahi gizarte-mailatakoa izan zedin— gurasoek *T* ematen zieten beren seme-alabei eta haiengandik *V* jasotzen zuten. XV. mendean, Italian aitorleek V esaten zioten abadeari eta honek *T*-z erantzuten (Grand, 1930). Froissart-en (XIV. mendearen bukaerako idazle frantsesaren) idazlanetan Jainkoak *T* esaten die bere aingeruei eta hauek *V* erantzuten; era berean zeruko izaki guztiek *T* esaten diote gizonari eta beronengandik *V* jasotzen. XII. eta XIII. mendeetako frantsesean gizonak *T* esaten zien animaliei (Schliebitz, 1886). XV. mendeko Italiako literaturan, kristauek *T* esaten zieten turkiar eta juduei eta hauengandik *V* jasotzen zuten (Grand, 1930). Corneille-ren eta Racine-ren antzerti-lanetan (Schliebitz, 1886) eta Shakespeare-renetan (Byrne, 1936) noble nagusiek *T* esaten diete beren mendekoei eta hauek V itzultzen haiei.

Errespetuzko *V*, estatuko agintari nagusiei mintzatzeko tratamendu gisa hedatu zen Europako hizkuntzetara eta denboraren poderioz gainontzeko

aginte-guneetara zabaldu zen, harik eta estatuaren mikrokosmoa den gunera iritsi arte, hots, familia-gunera iritsi arte. Orduan, hizkuntzen historiari so eginez gero, gurasoak halako enperadore-irudi edo bihurtzen dira.

Boterearen araberako semantika ez-elkarrekikoak goragokoaren eta beheragokoaren arteko tratamendu-usarioa besterik arautzen ez duenez gero, semantika honek gizabanako bakoitzari aginte-maila bakarra dagokion gizarte-egitura suposatzen du. Erdi Aroko Europako gizarteak ez zeuden hainbesterainoko neurrian egituratuak eta horregatik ez zen sekula izan boterearen semantika *T* eta *V* tratamendu-izenordainen erabilera gidatu zuen arau bakarra. Baziren beste tratamendu-arau batzuk ere, botere berdintsukoen artean, alegia, klase bereko kideen artean aritzeko. Berdinen artean, izenordainen bidezko tratamendua elkarrekikoa, elkarrekiko berdina zen; gizabanakoak, erabilitako forma bera jasotzen zuen solaskidearengandik. Erdi Aroan eta baita geroagoko garaietan ere, goi-klaseetako berdinen artean elkarrekiko V usatzen zen bitartean, behe-klaseetako berdinen artean *T* zen usarioa (ikus beheko irudia).

1 IRUDIA




Gizarte-klaseari loturiko usario desberdin hauen arrazoia, *V* errespetuzkoaren hedatze historikoan bilatu behar da; hain zuzen ere, errespetuzko tratamendu hau beti goi-mailetatik hasita joan baitzen hedatuz gizartera. Erromatar inperioaren garaian, maila gorenekoek eta ez bestek, zuten enperadorea tratatzeko abagunea eta banaka hauek ziren, hasieran bederen, errespetuzko *V* erabiltzen zuten bakarrak. Ondoren, Europako gorte batek edo bestek bereganatuko zuten *V* errespetuzkoa eta geroago imitazioz usario berriaren zabalkundea gertatuko zen gorte desberdinetara. Tratamendu hau astiro astiro gizarteen behe-mailetarantz joango zen lerratzen. Honela, halabeharrez, singularrerako *V* erabiltzea, goi-mailako hiztunaren ezaugarri izatera iritsi zen. XVII. mendeko Frantziako drametan nobleek eta burgesek *V* erabiltzen zuten elkarrekin. Honek hurrengo kasuetarako ere balio zuen: senar-emazteen artean, maitaleen artean, aita eta seme-alaba helduen artean. Madame de Sévigné-k (XVII) ez

du sekula *T* erabiltzen bere gutunetan, ezta bere alaba den Grignan-go kondesarekin ere (Schliebitz, 1886). Zerbitzariek eta nekazariek, ordea, *T* erabiltzen zuten beren artean.

Mende luzeetan barrena frantses, ingeles, italiera, espaniera eta alemanezko izenordain-usarioak, *T-V* ez-elkarrekikoaren arauari lotuta iraun zuen botere desberdineko pertsonen artean, eta *V* edo *T* (gizarte klasearen arabera) elkarrekikoaren arauari lotuta botere berdintsuko pertsonen artean. Hasieran ez zen berdinen arteko tratamenduan bereizkuntzarik agintzen zuen araurik, baina pixkanaka-pixkanaka, bereizkuntza bat mamitu zen hurkotasunezko *T* («the *T* of intimacy») eta formaltasunezko *V* («the V of formality») tratamendu berrietan. Bereizkuntza hau Brown eta Gilmanek «elkartasunaren ardatza» («dimension of solidarity») deritzotenari dagokio. Hona hemen egile hauen hipotesia ardatz berri honen garapenaz.

*1.1.2. Elkartasunaren semantika*

Jatorrizko singularreko izenordaina *T* zen. *V*-ren erabilera singularrerako, botere handiagoko bati mintzatzeko tratamendu gisa hedatuz joan zen. Askotarikoak izan daitezke agintea dakarten ezaugarri pertsonalak. *V* ren eta *T*-ren hartzaileak, besteak beste, indarrez, adinez, osasunez, jaioterriz, sexuz edo lanbidez izan daitezke desberdinak. Bi lagun botere-ardatz hauetan elkarrengandik aldenduz gero, bietako bat *V* erabiltzen hasiko da. Oro har, *V*-ren erabilera pertsonen arteko desberdintasunei dago lotua. Baina desberdintasun-mota guztiek ez dakarte nahitaez botere desberdintasunik. Pertsonak, hiri desberdinetan sortuak, estatus bereko familia desberdinetan haziak, ospe berdineko eskola desberdinetan heziak eta itzal edo ohore berdineko lanbide desberdinetan arituak izan daitezke. Boterearen semantika hedatuz atzeman daiteke berdinen arteko *T*-ren eta *V*-ren erabilera desberdinak gidatzen dituen araua. Botere-desberdintasunek komunikazioaren zentzu batean soilik sortarazten dute *V*; boterearekin zerikusirik ez duten desberdintasunek komunikazioaren zentzu bietan eragiten dute *V*.

*Baino zaharrago, -ren aita, -ren enplegu-emaile, baino aberatsago, baino indartsuago, baino prestuago* tankerako erlazioak, denak asimetrikoak dira. A B baino zaharragoa bada, orduan B ez da A baino zaharragoa. *Baino boteretsuago* erlazioa ere, aurreko erlazio espezifikoen abstrakzioa dena, asimetrikotzat hartzen da. Erlazio hau adierazten duten tratamendu-izenordainen erabilera ere asimetriko edo ez-elkarrekikoa da, goragokoak *V* eta beheragokoak *T* jasotzen dituztela. Orain simetrikoak diren erlazioen multzo berria interesatzen zaigu; adibidez, *eskola berean ibili ziren edo guraso berak dituzte edo lanbide berean dihardute.* A-k B-ren guraso berak baditu, B-k A-ren guraso berak ditu. Elkartasuna deitzen diote Brownek eta Gilmanek erlazio-mota honi eta elkartasuna simetrikoa da. Erlazio honi dagozkion tratamendu-arauak

ere simetrikoak edo elkarrekikoak dira, elkartasuna apaldu ahala *V*-k agertzeko aukera gehiago izanik. Elkartasunezko *T*-k anaia bikien artean edota norberaren barne-bakarrizketan izan behar du agertzeko probabilitaterik handiena.

Ezaugarri pertsonal guztiak ez dira inondik ere pisudunak bi lagunen arteko elkartasuna elkarrekiko *T*-ren eragilea denentz jakiteko orduan. Begien koloreak edo zapata-neurriak, esaterako, ez dute horretan zerikusirik, ez zaizkigu ardura. Ardura zaizkigun antzekotasunak, antzeko pentsakera edota antzeko jokabide-joerak eragiten dituztenak direkte. Antzekotasunok eskuarki hurrengoen tankerakoak izan ohi dira: kidetasun politikoa, familia, erlijioa, lanbidea, sexua eta jaioterria. Hala ere, edozein dimentsiotan muturreko ezaugarri nabarmenak pisudun, esanguratsu edo bereizle bihur daitezke. Altuerak elkartasuna eragin beharko luke erraldoien artean eta orobat gizon nanoen artean. Elkartasunezko *T*, harremanen maiztasunak nahiz antzekotasun objektiboek eragindakoa izan daiteke. Hala ere, harremanen maiztasunak ez du nahitaez elkarrekiko *T*-ra bultzatzen. Elkartasun semantikoaren muina den pentsakera-kidetasuna edo gogaidetasuna sortzeko balio duen neurrian izango da eragile pisuduna maiztasunezko harremana.

Europako izenordainetan elkartasuna, botere berdinekoen arteko tratamenduan bereizkuntzak egiteko modua izan zen. Elkartasunak dimentsio edo ardatz berria txertatzen du lehengo sistema semantikoan botere berdinekoen mailan. Elkartasunaren eragina botere berdinekoen mailara mugatuta egon zen bitartean, ardatz biko sistemak orekan iraun zuen (ikus 2a irudia) eta itxura guztien arabera, hala segitu zuen aski denbora luzean gure inguruko hizkuntza guztietan. Ardatz biko semantikaren «erreinaldi» honetatik dator *T*-ren gaurko definizio arrunta, bai nagusitasunezko, bai hurkotasunezko izenordain gisa eta orobat V-rena, bai errespetuzko, bai formaltasunezko izenordain gisa. Definizio hauek oraindik ere erabili ohi dira, baina usarioa harantzago joan da.

Elkartasunaren ardatza, berez, tratatzen ditugun pertsona-mota guztientzat da aplikagarri. Botere handiagokoekiko harremanak elkartasunezkoak izan daitezke (gurasoekikoak, anaia nagusiekikoak) edo ez (batek bakanka ikusten dituen haundikiekikoak). Botere apalagokoekiko harremanak, halaber, elkartasunezkoak izan daitezke (etxeko otsein zaharrarekikoa) edo ez (jatetxe ezezaguneko zerbitzariarekikoa). Elkartasunaren ardatza marratxoen bidezko lerroetara hedatzerakoan sei harreman-kategoria desberdin sortzen dira (ikus 2b irudia). Tratamendu-arauak auzipean geratzen dira goiko ezkerreko kategoriaren kasuan eta beheko eskuinekoarenean: lehen kasuan botereak *V* eskatzen du, baina elkartasunak *T* agintzen du; bigarren kasuan, botereak *T* agintzen du eta elkartasunak (elkartasun-ezak) *V*.

2 IRUDIA. ARDATZ BIKO SEMANTIKA:
(A) OREKAN ; (B) GATAZKAN.

2a




2b




Goiko 2b irudian aurkezturiko gatazka abstraktua, adibide xeheagoen bidez ikusten da 3a irudian, gatazka hori beren haragian biziko luketen gizartebinako partikularren bidez. Hauetariko bakoitzean, zentzu batean ez da zalantza izpirik usariozko tratamenduaz; baina beste zentzuan kontrajarrita ageri zaizkigu bi indar semantikoak. 3a irudiaren lehen hiru binakoek, beheragoko ezsolidarioekiko tratamenduan sortzen den gatazka islatzen dute (2b irudiaren beheko eskuineko kategoria), eta beste hiru binakoek goragoko solidarioekiko tratamenduan sortzen dena (2b irudiaren goiko ezkerreko kategoria).

3a






3a IRUDIA: GATAZKA SEMANTIKOA DAKARTEN GIZARTE-BINAKOAK

XIX. mendean, bada, boterearen semantika zen nagusi. Zerbitzariek, soldadu arruntek eta enplegatuek *T* jasotzen zuten; gurasoekin, ugazabekin eta anaia nagusiekin, ostera, *V* zen usarioa. Hala ere, informazio askoren arabera badirudi XX. mendean elkartasunaren semantika nagusitu zaiola boterearenari. Gaur egun, 3a irudiak erakusten dituen binakoen tankerakoetan bietatik bat, edo *T*, elkartasunezko izenordain elkarrekikoa nagusitzen da edo bestela *V*, elkartasun-ezaren izenordaina. Egoera gatazkatsua, binako bakoitzean ezpairik gabeko tratamendua zentzu bietan hedatuz konpondu da. Guzti horren ondorio abstraktua, ardatz bakarreko sistema bakuna da: *T* elkarrekikoa elkartasunezko harremanetarako eta *V* elkarrekikoa elkartasunik gabeko harremanetarako.

Gaur egungo erabileran, botere-ezaugarriak elkartasun simetrikoaren ezaugarritzat hartuz berrinterpretatzen dira. *Baino zaharrago, -ren aita, baino nobleago, baino aberatsago* tankerako erlazioak, gaur egun *T*-ri eta *V*-ri dagokienez, bestelakaturik geratzen dira, erlazioak *adin berekoa, familia berekoa, leinu berekoa, irabazi berdinekoak* gisara berrinterpretatuz. Erlazioak mantentzen diren neurrian, gora egiten du *T* elkarrekikoaren probabilitateak; erlazioak hausten diren neurrian, gorago dago V elkarrekikoaren probabilitatea.

3 b




3b IRUDIA: GATAZKAREN SOLUZIOBIDEA

Oraindik ere, bada botere-erlazioaren aztarna interesgarria *T* elkarrekikoarekin hasteko eskubideaz zabaldurik dabilen ustean: uste honen arabera, binako batean *T* ez-elkarrekikoa erabiltzeko moduko botere-oinarri sendoena duenak du *T* elkarrekikoari lehenik eusteko eskubidea, alegia, botere gehiagokoari dagokio *T* elkarrekikoari heltzea. Elkartasuna hautematea eta lehenik erakustea hobeto doakio zaharragoari gazteagoari baino, aberatsagoari pobreagoari baino, enplegu-emaileari enplegatuari baino, hobeto doakio leinu ospetsukoari jatorri ilun eta arruntekoari baino, hobeto andreari gizonari baino.

Elkartasuna botereari nagusitu zaiolako baieztapenaren alde, hizkuntzako testuliburuetatik jasotako zenbait aipamen dakartzate Brown eta Gilmanek. Littré-k (1882), frantsesaren tratamenduez ari dela, honela dio: «Notre courtoisie est même si grande, que nous ne dédaignons pas de donner du *vous* et du *monsieur* à l'homme de la condition la plus vile». Eta Grand-ek (1930) italierazko *V*-z zera dio: «On commence aussi à le donner aux personnes de service, à qui on disait *tu* autrefois». Brownen ustetan, boteretik elkartasunerako aldakuntza da aipatu aldaketen giltzarri edo oinarria.

Baina eskola-liburuak ez ezik, ikerlan honetarako erabilitako bestelako informazio-iturri guztiak ere, aipatu berri dugun bilakaera edo aldakuntzaren alde agertu ziren: elkarrizketak, mende honetako literaturazko oharrak, filmeak eta garrantzitsuago dena, egindako itaunketaren emaitzak. Goragoko 3. irudiaren sei gizarte-binako gatazkatsuak sartu ziren galde-sortan. Iraganean galdera hauek botere asimetrikoaren araberako erantzuna izango zuketen. Sei binako gaztazkatsuok kontuan harturik, botere asimetriko edo ez-elkarrekikoaren araberako emaitzak %11 izan ziren frantsesarentzat, %12 alemanarentzat eta %27 italieraren kasuan. Gainontzeko kasuetan tratamendua elkarrekiko berdina (simetrikoa) da, 3b irudian ikus daitekeenaren araberakoa. Hiru hizkuntzetan, ugazaba eta morroiaren arteko binakoa da botere-zama handiena gordetzen duena. Elkartasuneranzko aldaketen artean batzuk aski oraintsukoak dira gainera. Frantziako armadan, esaterako, Bigarren Mundu Gerratetik honakoa da ofizialek soldadu sartu berriak *V*-z tratatzeko aginduzko usarioa.

Azkenik, aztertutako hizkuntzetan aldakuntza semantikoaren ildo berri bat ikusi uste dute Brown eta Gilmanek. Behin elkartasuna *T* eta *V* artean aukeratzeko irizpide edo ardatz bakar gisa nagusituz gero, orduan *T*-ren eremuak gehiagora jotzen du. Oraingo joera, *T* simetrikoa erraz erabiltzekoa da; *T* elkarrekikoa merezi izateko moduko elkartasunezko erlazioen kopurua gero eta handiagoa da eta batez ere, edozein kidetasun-mota *T*-ren aldeko eragingarritzat hartzeko joera dago. Ildo honetatik gauzatzen ari da oraingo aldakuntza semantiko berria. Hipotesi honen alde, besteak beste, berriemaile frantsesen batzuek jarritako adibide xelebrea gogoratzen digute Brown eta Gilmanek: mendigoizaleen artean behin altuera jakin batetik gora igonez gero (haien bizitzak soka mehe batetik zintzilik arriskatzen diren unetik edo), aski arrunta omen da elkarrekiko *T*-ra aldatzea. Oro har, elkarrekiko *T* aurrera

doa ikaskideen artean, lankideen artean, politika-alderdikideen artean, elkarrekin zaletasunen bat bizi ohi dutenen artean edo bidaide gertatzen direnen artean. Aldakuntza, ildo horretatik gauzatzen ari delakoan daude Brown eta Gilman, joera horretan laburtuta baitago berriemaileek gazteen eta zaharragoen izenordain-erabilera kontrajarriez esandakoa.

### 1.2. Gaur egungo (1960) desberdintasunak frantsesaren, italieraren eta alemanaren artean

Hiru hizkuntzotan *T*-k eta *V*-k bilakabide semantiko orokor bera izan duten arren, egindako itaunketaren emaitzen arabera, badira euren artean zenbait desberdintasun erabilera xehean.

Brownek eta Gilmanek hiru hizkuntza hauen arteko desberdintasun xeheetara jo gabe, haien berri eman diezagukeen eredu edo ikuspegi orokorra eskaintzen digute. Aldera ditzagun lehenik alemana eta frantsesa. Familiaren eremuan alemanezko *T* errazago erabili ohi da frantsesezko *T* baino; alemanezko *T*-k aitonarekin eta anaia zaharragoaren emaztearekin agertzen duen puntuazio askoz altuagoaz gain, badira beste desberdintasun txikiago batzuk alemanezko *T*-ren alde makurtzen direnak, aita, ama, emazte, ezkondutako anaia nagusia eta urrutiko lehengusuaren kasuetan. Frantsesezko *T* ez da automatikoki erabiltzen urrutiko senideekin, baina alemanezkoa baino errazago erabili ohi da kidetasuna adierazteko ikaskideen artean, bulegoko kideen artean, atzerrian dauden herrikideen artean edo soldadu kideen artean. Oro har, alemanezko *T*-k bereganatzen edo kodetzen duen elkartasuna jaiotzetikoa dela eta familiaren eremuko harremanei lotua ageri dela esan daiteke. Frantsesezko *T*-k, neurri handi batean, erdietsitako edo «irabazitako» elkartasuna kodetzen du, familiartekotasunean oinarritzen ez den elkartasuna, eginkizun komun batetik sortu eta garatua. Italierazko *T* izenordainari gagozkiola, familiarteko elkartasunean ia-ia alemanaren pareko eta kidetasunean frantsesa baino aurrerakoiagoa dela esan behar. Italiar mutilaren kidetasuna nesken artera ere hedatzen da; alegia, ikasle frantses eta alemaniarrak ez bezala, italiarrak kasik ikaskide mutilari bezain arin eta erraz esaten dio *T* ikaskide neskari.

Ikertzaile hauen arabera, bada *T* eta *V* gidatzen dituen arau semantiko txit abstraktua, frantses, aleman, italierarentzat eta beste hizkuntza batzuentzat baliagarria dena. Araua hau da: tratamendu elkarrekikoaren (edo simetrikoaren) probabilitatea handiagoa da bi lagunen artean konpartitutako ezaugarri elkartasunezkoen kopurua hazi hala, *T*-ren probabilitatea gorantz eta *V*-rena beherantz doazelarik. Frantses, alemana eta italieraren arteko aldea, hizkuntza hauetako bakoitzean elkartasuna eragiten duten ezaugarri desberdinek hartzen duten pisu erlatibo desberdinean datza. Alemaniarrentzat familiarteko kidetasuna da ezaugarri nagusia elkartasunari begira; frantses eta italiarrentzat, ordea, erdietsitako ezaugarriak dirateke pisu handiena hartzen dutenak.

## 1.3. Semantika, gizarte-egitura eta ideologia

Tratamendu-izenordainen azterketa historikoak semantika eta gizartearen edo psikologiaren arteko kidetasun-multzoa jartzen du agerian. Boterearen semantika ez-elkarrekikoa nahiko gizarte egonkor bati dago lotua, boterea jaiotze-eskubideen arabera banatua dagoen eta botere-banaketa berrietarako aukera handirik ez duen gizarte egonkor bati lotua. Boterearen semantika jaunen sistema feudalari guztiz lotua zegoen. Italian, neurri handi batean *voi* zaharragoa alboratu duen errespetuzko *lei,* jatorriz, *la vostra Signoria* esapidearen forma laburtua da; eta espainierazko *Vuestra Merced* denboraren buruan *usted* bilakatu zen. Gizarte-egitura egonkor honen sendogarri, gizaki orok egoki banaturiko leku finkoa duelako ustea eta bertatik gorago igotzeko mugitu behar ez duelako Elizaren irakatsia zegoen. Elkartasunaren semantika elkarrekikoa («the reciprocal solidarity semantic») gizartearen mugikortasunari eta berdintasunaren ideologiari esker hazi da. Herri eta hiriek, gizartearen mailaketa mugikorrago eta irekiagoa ekartzeaz batera, bidea ireki diote aldakuntza semantikoari.

Kidetasun historiko orokor hauetaz gain, garrantzi gutxiagoko beste emaitza batzuk aipatzen dituzte Brown eta Gilmanek beren tesiaren alde. Frantzian Iraultza arte, boterearen semantika ez-elkarrekikoa izan zen nagusi. Orduan Segurtasun Publikorako Komiteak *T* elkarrekikoaren erabilera orokorra agindu zuen, *V*-rena gaitzetsiz aztarna feudala izateagatik. Garai batez iraultzaren anaitasunezko izpirituaren eraginez tratamendu guztiak aski soilduta geratu ziren, derrigorrezko *citoyen* eta *tu* elkarrekikoak nagusituz. Robespierre-k Asanblearen presidenteari berari *tu* esan zion. Ondorengo urteetan elkartasunak behera egitearekin batera, betidaniko botere-desberdintasunak azaldu ziren berriz ere.

Galde diezaiokegu geure buruari ea zergatik adierazi zen berdintasunasmoa *T* unibertsalaren bitartez eta ez *V* unibertsalaren bitartez edo, hirugarren aukera gisa, ea zergatik ez zen gauzatu semantika-aldakuntza boteretik elkartasunera izenordain biak atxikiz. Erantzuna lehengo goi klasearen *V*-rekiko zaletasun edo atxikimenduari dago lotua. Izenordaina bera gorrotagarri-edo zitzaien iraultzaileei. «Sans-culottes» direlakoen izenordaina *T* zen (Gedike, 1974), beraz, horrexek izan behar zuen Iraultzaren izenordaina.

Gaur egun Frantzian tratamendu-izenordainen erabilera boterearen semantikaren araberakoa ez bada ere, berezko frantses hiztunak aski ohartuta daude lehengo arau semantikoaz. Itaunketaren erantzuleei, zerbitzari bati *T* esateko posibilitateak iradokitzen zien jarrera bereziak agerian jarri zuen boterearen kontzientzia, tratamenduan eragiten duten ezaugarrien artean. Erantzule gehienen iritziz, zerbitzariari tratamendu hau ematea gustu txarreko zakarkeria izugarria litzateke, beste edozein arau-hauste izan litekeen baino are zakarragoa, zerbitzariari *T* esate hori lehengo jaunen eskubidetzat edo hartzen delako, gaurko ideologia igualitarioaren aurka doan botere-asimetria delako. Afrika

frantsesean, ordea, egoki eta bidezkoa da europar eta afrikarraren arteko kasta-desberdintasuna onartzea eta tratamendu ez-elkarrekikoaren bidez adieraztea. Europarrak *T* esaten dio eta *V* eskatzen afrikarrari. Usario hau, noski, erabat mingarri eta hilduragarria da eta 1957an Robert Lacoste-k, Algerian bizi zen Frantziako ministroak, usario hau bertan behera uztera bultzatu zituen bere herritarrak.

XVII. mendean *thou* eta *you* gizartearen ageriko eztabaidagai bihurtu ziren. Mende honen erdialdera «The Religious Society of Friends» (Adiskideen Elkarte Erlijiosoa edo Kuakeroak) elkartea sortu zuen George Foxek. Gainontzeko gizartearen aldean, talde honen usario bereizgarrienetako bat hizkera laua zen eta honek, besteak beste, mundu guztiari *thou* esatea esan nahi zuen. Adiskideen arteko *T* elkarrekikoaren aldeko arrazoiak, neurri handi batean Frantziako iraultzaileenak berak ziren; baina Adiskideak gutxiengoa baino ez ziren eta gainontzeko gizartearen gehiengoa aski minduta zegoen haien gizalegearen haustura zela eta. Gaur egun Adiskide zenbaitek *thee* erabiltzen dute; *thou* nominatiboa ostendu egin da eta bere ordez *thee* erabiltzen da bai nominatiborako, bai (lehenago bezala) akusatiborako. Adiskide frankok, hala ere, *you* ere erabiltzen dute. Litekeena da *thee* Adiskideen artean baizik ez erabiltzea eta Elkarteaz landa *you* erabiltzea kanpotarrekin. Elkartasunaren semantikaren halako aztarna modukoa dirudi. Jakina, ingelesez, oro har, *thou* ez da erabiltzen gaur egun.

Munduan barrena egun badira ideologia eta izenordainen semantikaren arteko kidetasunaren hainbat adibide. Jugoslavian, komunismoa ezarri eta gero, aldi labur batez ba omen zen elkartasunezko *T* elkarrekiko unibertsala. Gaur iraultzaren izpiritua apaldu bide da eta *V* itzuli da italieraz, frantsesez edo espainieraz erabili ohi den egoera berdintsuetarako. Bada (bazen) halako botere-asimetria Jugoslaviako «era sozialistetan»: soldaduak *V* eta *Comrade Jenerala* esaten dituen bitartean, jeneralak *T*-z eta bere deituraz tratatzen du soldadua.

Brown eta Gilmanek Hego Afrikako afrikaans hizkuntzaren eta Indiako gujerati eta hindi hizkuntzen berezitasun azpimarkagarriak gogorazten dizkigute aztertutako gainontzeko mendebaldeko hizkuntzen jokamoldeari kontrajarriz. Itaunketan, afrikar hiztunek botere ez-elkarrekikoaren zortzi kasu bereizi zituzten; haien artean, besteak beste, familia barrukoak, bezero eta zerbitzariaren artekoa eta nagusi eta bulegariaren artekoa ditugu azpimarkagarriak, kasuok, antzina ez bezala, ez baitira gaur ia-ia inoiz kodetzen botere gisa frantsesez, italieraz, alemanez... Afrikaans hizkuntzaren ereduak gehienbat 2 Irudiko binakoen asimetriari eusten dio eta honek gizarte egonkorragoa eta etika berdintzaile ez hain garatua iradokitzen dizkigu. Indiako gujerati eta hindi hizkuntzek ia-ia izenordain-semantika bera dute, boterez guztiz hornitua eta zamatua. Hizkuntzok afrikaans hizkuntzaren erabilera asimetriko guztiak dituzte eta gainera, *T* eta *V* ez-elkarrekikoa erabiltzen dute anaia nagusiaren eta gazteagoaren artean eta senarraren eta emaztearen artean. Brown eta Gilmanen

ustetan, izenordain-eredu erabat feudal hori bat dator indiar gizarte egonkorrarekin. Hala ere, indiar gizartea orain azkar ari da aldatzen eta aldaketa honekin batera, izenordainak erabiltzeko arauak berak ere ari dira aldatzen. Indiar gazte aurrerakoiak *T* erabiltzen du bere emaztearekin.

Egileek uste dute ideologia berdintzailea aldarrikatzen zuten gizarte irekiagoen garapenak boterearen semantika ez-elkarrekikoaren aurka eta elkartasunaren alde jokatu zuela.

Estatu Batuetakoaren tankerako ideologia berdintzaile sendoak botere-asimetriaren ohizko adierazpen oro deuseztatzearen alde jokatzen du. Nolanahi ere den, badira hainbat menpekotasun-adierazpen *T* eta *V*-ren adierazpidearen eredura sortuak. Ez dira izenordainak tratamendu ez-elkarrekikoaren forma bakarrak; hauez gain badira izen bereziak eta titutuak eta hauetako askok botere ez-elkarrekikoaren ereduari jarraitzen diote Amerikan eta Europan, gizarte ireki eta berdinzaleetan. Eta jakina, halako gizarteetan botere-asimetrien kodetzea moteldu arren, botere desberdintasunak ez dira desagertu inola ere.

### 1.4. Taldearen estiloa eta tratamendu-izenordainak

Hizkuntza-ariketaren ezaugarrien eta hiztunen ezaugarrien artean kobariazioa dagoenean izan daitezke adierazkorrak hizkuntza-estiloak. Brown eta Gilmanen berriemaileen arabera, *T* eta *V* izenordainek klase-kidetasunaren salatari edo ezaugarri gisa funtzionatzen dute.

Elkartasunezko *T*-ren erabilera zabalago edo meharragoa, ideologiazko aurrerakoitasunari edo atzerakoitasunari lotua zegokeelako susmoa zuten. Azken dimentsio hau neurtzeko, Eysenck-en *Social Attitude Inventory* (1957) delakoa erabili zuten. Oro har, mailaketa honen arabera erradikala izatea aldakuntzaren aldekoa izatea da eta kontserbadorea izatea *status quo* mantentzearen aldekoa edota lehengora itzultzearen aldekoa izatea da. Gauzak honela, deskribapen honen arabera lortutako puntuazioak eta izenordainen estiloan lortutako indizea alderatzeari ekin zioten.

Galdera bakoitzean *T* erantzunak puntu bat balio zuen eskalan eta *V* erantzunak bat ere ez. Guztira erantzule bakoitzaren puntuazioa 1-etik 7-ra bitartekoa izan daiteke; honek esan nahi du eskala honek zazpi estilo bereiz ditzakeela eta ez gehiago. Estiloaren arabera, erantzuleak zazpi talde homogeneotan banatu ziren eta talde hauetako bakoitzak erdietsitako batez besteko aurrerakoitasun edo atzerakoitasunaren puntuazioa bilatu zen.

1 Taulan izenordain-estilo bakoitzaren aldamenean aurrerakoitasun-puntuazioa ageri da. Lagun bakoitzaren aurrerakoitasun-puntuazioa 2tik 13ra bitartean mugitzen da; pertsona batek zenbat eta puntuazio altuagoa lortu, orduan eta ideologia erradikalagoa edo aurrerakoiagoa izango du. Emaitza harrigarriena zera izan zen: talde bakoitzaren aurrerakoitasun-puntuazioen hurrenkera eta talde bakoitzaren izenordain-puntuazioarena, salbuespen bakar batez, berdin-

-berdinak dira; alegia, hurrenkerari gagozkiola, ia-ia erabat parekoak gertatzen dira talde bakoitzaren bi puntuazioak.

1 TAULA: IZENORDAINEN ESKALAREN ARABERAKO PUNTUAZIOEN ETA ERRADIKALISMOAREN ARABERAKO PUNTUAZIOEN ARTEKO ERLAZIOA.

| Taldearen izenordain-puntuazioa / Taldearen erradikalismo-punt. | | |
|---|---|---|
| 1 | | 5,50 |
| 2 | | 6,66 |
| 3 | | 6,82 |
| 4 | | 7,83 |
| 5 | (salbuespena korrelazioan) | 6,83 |
| 6 | | 8,83 |
| 7 | | 9,75 |

Beraz, badago halako egokitasuna jarreraren eta hizkuntza-jardueraren artean. Ideologia aurrerakoiak jendearen arteko hesi guztiak sendoro gaitzesten ditu: arraza, erlijioa, nazionalitatea, jabetza, ezkontza eta kriminaltasuna bera ere bai. Hesi guztiek dute «barne-talde» solidarioa, «kanpo-talde» ez-solidarioarengandik banatzeko ahalmena. Kideko guztientzat elkartasunezko, lagunarteko *T* hedatu izanak, erradikalarengan anaitasun-izpiritua hedatzeko dagoen asmoa erakusten digu. Hala ere, *T*-ren erabilpen unibertsalak izenordainaren esanahia ezabatzen duela eta aspaldiko arazo bat sortzen duela ohartarazten digute Brown eta Gilmanek. Lagunarteko elkartasuna hainbesteraino heda daiteke? Hain urrutiraino hedatzeko adinako gogo edo nahia ote dago? Etorkizunean nonahi elkartasun berbera, baina inon ere iraganekoaren adinakoa izango ez den elkartasun mehetxo berbera egongo ote da?

### 1.5. Tratamendu-izenordainak jarrera iragankorren adierazgarri

Batzuetan izenordain baten hautuak taldearen araua edo hiztunaren beraren araua bortxatzen ditu. Horrelakoetan arau-haustearen arrazoia hiztunaren jarrera edo emozio berezi batean bilatu behar da. Bidezkoa dirudi bi lagunen arteko ohizko tratamenduaren aldaketa jarrera-aldaketaren baten seinale gisa interpretatzeak. XVII. mendeko antzerti-lan batean bi gizon frantsesek elkarri goimailako klaseko berdinen artean ohizkoa zen *V* esaten badiote eta noizbait haietako batek *T* esaten badio besteari, *T* esate horrek bestea bere menpekoa dela adierazten digu, *T* menpekoei esaten zitzaien eta. Izenordain baten ustegabeko hautaketak, une batez hiztunak solaskidearekiko erlazioa bestelakaturik somatzen duela adierazten digu. Tankera horretako hizkuntza-aldaketek une bateko sentimendu edo jarrera adierazten dizkigute. Aldaketok ez dira

estilo pertsonal iraunkorrak, aldarte-gorabeheraren batek eraginda norberaren edo taldearen ohituratik gertatzen diren aldentzeak baizik.

Bi izan dira *T* eta *V* gobernatu dituzten dimentsio semantikoak eta bi dira esanahi adierazkorraren era nagusiak. Boterearen arauak hausteak gehienetan esan nahi du hiztunak solaskideari goragokoa, beheragokoa edo bere mailakoa balitz bezala begiratzen diola, nahiz eta ohizko irizpideen arabera eta hiztunaren ohituraren arabera solaskidea ez izan hautaturiko izenordainak adierazten duena. Elkartasunaren arauak hausteak gehienetan esan nahi du une batez hiztunak solaskidea kanpotartzat edo hurkotzat hartzen duela; esan nahi du solaskidearenganako begikotasuna hedatu egiten dela edo moztu egiten dela.

Lehengo frantsesezko eta ingelesezko drametan *T* eta *V* era zoragarrian agertzen dira hurbiltze- eta urruntze-sentimenduei lotuak. Hala ere, erabilera adierazkorra gaurko frantsesean, alemanean eta italieran aski gertaera bitxia dela diote Brown eta Gilmanek. Haien berriemaileen informazioaren arabera, behin *T* hedatuz gero, ia sekula ez da erretiratzen, hori egitea estimu guztia erretiratzea bezala izango bailitzateke. Aldaketa adierazkorraren gaurko lekukotasun bakar bat jasotzen dute: Silverberg-ek (1940) dioenez, Alemanian 1940. urtean emagaldu batek eta bere bezeroak elkarri *du (T)* esaten zioten elkartzen zirenean, baina behin sexu-elkartzea bukatuta, berriz ere elkarrekiko *sie (V)*-ra itzultzen ziren.

Tratamendu-izenordainen erabileran gertatzen ari den aldaketa-joera berriak, elkartasunezko etika jende ororentzat zabaltzeko nahia adierazten du.

## 2. BROWNEN EREDU TEORIKOA EGIAZTATZEKO, BERRITZEKO EDO GEZURTATZEKO SAIOAK: ARDATZ BIKO EREDUAREN EGOKITASUNAZ

### 2.1. Friedrich (1966): hamar bereizkuntzako sistema (unibertsala?)

Brown eta Gilmanek beren lanak argitaratu eta berehala, teoriaren kimu berriak sortu ziren han-hemenka. Goizago edo beranduago, arlo desberdinetako hainbat ikertzaile lotu zitzaizkion haiek urratutako ikerbide emankorrari. Ikerlan berritzaile hauen artean ezagunenetarikoa P. Friedrichena (Friedrich, 1966) dugu: «Structural implications of Russian pronominal usage». Lehen begiratuan badirudi ikerketa honek erabat berritzen duela Brownen eredua; dena den, geroago ikusiko dugunez iraulketa ez da erabatekoa edo funtsezkoa, itxurazkoa eta zehaztasunezkoa baizik. Ikus dezagun, bada, zertan den Friedrichen ekarpena.

Hauxe da Friedrichen ikerlanaren helburua: erakustea garai bateko hizketamailako tratamenduak, «kultura sozialaren» —hots, gizabanakoen eta taldeen arteko harremanetan eragina duen kultura-sistemaren osagai baten— zenbait

printzipiok eragindakoak edo determinatuak direla. Gainera, hizkuntza-eredu abstraktuaren eta errusiar kultura sozialaren artean gerta daitezkeen zenbait lotura edo erlazio azpimarratu nahi ditu. Berak dioenez, pertsona-izenordainen eta ahaidetasunezko terminologiaren sailak Janoren antza duten buru bikoitzeko hizkuntza-gertakariak dirateke: alde batetik, gramatikazko paradigmen hizkuntza-matrizari daude lotuak; beste alde batetik, gizarte-mailen eta talde-kategorien kultura-matrizari daude lotuak. Hain zuzen ere, buru-bikoiztasun horrexek egiten du izenordainen ikerketa hain arlo interesgarri eta emankorra.

Zehatzago esateko, Friedrichen ikerketak XIX. mendeko errusierazko tratamendu izenordainen erabilera du aztergai (cf. infra, II.11). Honekin batera, bigarren maila batean, psikologia-, gizarte- eta kultura- aldagaien araberako erabilera ere du aztergai, hots, tratamendu-izenordainen kobariazioa kultura sozialaren aldagaiekin batera.

### *2.1.1. Zenbait kultura-gune edo kategoria garrantzitsu*

Kultura- eta gizarte-aniztasuna gorabehera, errusiar bizitzan baziren eragin handiko kultura-uste, gune edo gai sendo zenbait: 1) etxaldeko familia, aitalehenaren inguruan eratutako senidetasun-sare zabala, zen gizabanakoen elkargunea; 2) nekazariak komunetan eta beharginak kooperatibetan ekonomia-kontratuen bitartez eta elkartasun-sentimendu sendoen bitartez zeuden elkarturik; 3) lankidetasunaren eta anaitasunezko leialtasunaren izpirituak elkartasun-era desberdinak agertzen zituen kategoria askotako adinkideen artean; 4) gizonaren nagusitasunaren sinboloekin batera, emakumearen ekonomiazko beregaintasuna eta psikologiazko indarra ageri ziren; 5) klasezko eta etniazko mugak, agerikoak izan arren, irekiak eta aski mugikorrak ziren; 6) araudi eta dekretuak, gehienetan agintaritzara edo buruzagitzara igondako ofizial «formalista» batzuen emaitzak izaten ziren.

Bestalde, esan beharra dago errusiar herria enperadorearen figuraren inguruan egituratzen zela: gehiago edo gutxiago, denak zeuden haren borondate eta aginduen mendean; gainera, klaseek —sartaldeko herrietan ez bezala— ez zuten benetako klase-izaerarik, hots, ez omen zuten zinezko klase-antolaketarik.

Friedrichen ustetan, tratamendu-izenordainen erabilera determinatzen duten aldagaiak ez daude errusiar gizarteari edo gizarte-jokabideari lotuak, kulturaren osagai bezala aipatu berri diren gune, uste, joera edo gaiei lotuak baizik. Teoria honen alde honako argudiobidea darabil: XX. mendearen erdi alderako funtsezko aldakuntzak mamitu ziren herrietan, ekonomian eta familia edo eliza bezalako erakundeetan; hala ere, aldakuntzok ez omen zuten eragin funtsezko aldaketarik tratamendu-izenordainen erabileran. Hau da, ikertzaile honek defenditzen duen tesiaren arabera, errusierazko tratamendu-izenordainen erabilera elkartasun komunalari, «aitalehengoari», autokraziaren edo enperadorearen zerbitzuari, bikoiztasun estetiko eta kulturalari eta beste zenbait kultura-eredu

abstraktu, zabal eta iraunkorri legoke lotuta, hots, azken batean kultura sozialari[1].

### 2.1.2. *Tratamendu-izenordainen erabileraren azpian dautzan hamar bereizkuntza*

Friedrichek kulturaren bi sistema-mota bereizi beharra azpimarratzen du: jaiotze-hiztun arruntek begi-bistan dituzten eta ulertzen dituzten sistemak, ikertzaileek azterketa bidez ulertzen dituztenetatik bereizi behar dira.

Zentzu honetan, Leon Tolstoi bezelako hizkuntza-sen zorrotzeko hiztunak, tratamendu-izenordainen erabileraren azpian dautzan bereizkuntza guztiak somatu, ulertu eta erabili egiten dituztenak, apartekotzat edo salbuespentzat hartu behar dira. Friedrichek dioenez, errusiar gehienek erabiliko zuten buruan gai hau, errusiar gehienek erreparatuko zuten noizbait tratamendu usarioen inguruko arazoetan, baina hala ere, haietatik gutxi izango ziren erabilera arautzen zuen sistemaz ohartuak. Kontraesana badirudi ere, baieztapen honek ez du esan nahi errusiar hiztunak pisudun gerta zitezkeen sakoneko bereizkuntza guztiak zuzen erabiltzeko gaitasunik ez zuenik; aitzitik, Friedrichek hiztun arruntari ukatzen diona ez da izenordainen bidezko tratamenduen gaineko kontrola edo komunikazio-gaitasun orokorra, gaitasun horren formalizazio teorikoa burutzeko ahalmen zorrotza baizik.

Izan ere, sarritan metaturik agertzen ziren azpiko bereizkuntza edo ezaugarri bereizgarrietako asko eta zenbaitetan denak batera ager zitezkeen sakonean. Are gehiago, izenordainak erabiltzerakoan bereizkuntza pisudun eta eragileak ez ezik, bereizkuntza horiexen ebaluazioa ere badago jokoan: bereizkuntzak edo ezaugarri bereizgarriak ebaluatu ondoren hautatzen ditu hiztunak izenordainak; eta entzundako izenordaina ebaluatuz iristen da solaskidearen bereizgarriak ulertzera edo sailkatzera. Dena den, izenordain-erabileraren azpian zeutzan bereizkuntzak edo osagai bereizgarriak neurri handi batean subkontzienteak ziren, hau da, ez zuten osatzen errusiar hiztunak beregana zezakeen sistema kontzeptual bat. Ondoren datorrena, beraz, ikertzailearen eredua litzateke.

Hamar dira errusierazko tratamendu-izenordainen erabileran pisudun edo eragile diren osagaiak edo bereizkuntzak: 1) gaia edo hizketagaia, 2) hizketaldiaren («speech event» delakoaren) testuingurua; 3) adina, 4) belaunaldia, 5) sexua eta 6) senidetasun-maila; 7) dialektoa, 8) talde-kidetasuna eta 9) eskubide eta betebeharren gaineko aginpidea; 10) sentimendu elkartasuna azkenik, hots, hiztunen arteko sinpatia edo antipatia, begikotasuna edo elkar ezinikusia.

Lehenengo bi bereizkuntzak hitz-ekintza edo hizketa («acts of speech») guztietan sartzen dira. Hiztunak HIZKETAGAIa hartu behar izaten zuen

[1] Friedrichen iritziz, senidetasun eta ahaidetasunezko terminologia —izenordainen saila ez bezala— gizarte-jokabideari (gizarteari) eta kultura sozialari lotua legoke. Izan ere, lexikoaren arlo hori gizarte-aldakuntzekin batera aldatu bide da.

kontuan izenordain-hautaketa egiterakoan: bi ofizialek elkarrekiko *vy (V)* erabil zezaketen taktika militarrez eztabaidatzean, baina ondoren elkarrekiko *ty (T)*-ra itzul zitezkeen emakumeen gaineko solasaldi batean. Gai jakin batzuk — familia edo senideak, eskola-garaiak edo eskolako pasadizoak— informaltasunaren eragile gertatzen ziren bitartean, negozio edo lanbideen inguruko kontuek eta zenbait gai jasok *vy*ren *(V)* aldera makurrarazten zuten hautua. Jakina, gai guztiak ez ziren pisudun, baziren hiztuna zentzu batean edo bestean bultzatzen ez zuten gai «neutro» asko.

Testuinguruak ere, batez ere hizketaldiaren GIZARTE-TESTUINGURUAK, asko baldintzatzen zuen tratamendua: epaile ohoretsu batek epaitegian *vy (V)* tratamendua emango zion eskale bati epaiketan zehar. Jakina, gizarte-testuingurua eta hizketagaia erlazionatuta daude eta askotan zail gertatzen da azterketa batez biak bereiztea.

Friedrichen arabera, ondorengo lau bereizkuntzak, nahiz eta kultura-terminoen bidez definituak egon, berez «biologikoak» edo direteke. ADINA ez zen oso garrantzitsua belaunaldi berekoen artean, baina urruneko ahaideen kasuan edo aginpideak eta begikotasunak anbiguotasuna sortzen zuten kasuetan, guztiz erabakigarria gerta zitekeen. BELAUNALDIA ere, sarritan izaten zen erabakigarria: adibidez, belaunaldi baten edo biren aldea aski izaten zen aristokrazia txikiko kideen artean, berehalako erabilera asimetrikoa nagusitzeko. SEXUAK ere erabaki zezakeen tratamendu-erabilera, lagunarteko tratamendua errazago eta maizago gauzatzen baitzen sexu berekoen artean. SENIDETASUN edo AHAIDETASUN-MAILAK («genealogical distance»), azkenik, zenbait arau ezartzen zuen: neba-arreba adinkideen artean, esaterako, zeinahi gizarte-mailatakoak izan zitezen, ohizkoa zen elkarrekiko *ty (T)*. Lau bereizkuntzok (adina, belaunaldia, sexua eta senidetasun- edo ahaidetasun-maila) errusierazko senidetasun-harremanetarako terminoen erabileraren azpian zeutzan osagai garrantzitsuak ziren.

Hirugarren bereizkuntza-multzoak gizarte- eta talde-gertakari zenbait besarkatzen ditu. AGINPIDEA, lege-aginpidea edo aginpide politikoa, eskubide eta betebeharren banaketari lotuta dago. Esate baterako, aita batek edo etxeko buruak ekonomia eta lege-eskubide asko zeuzkan bitartean, semearen egoera, aitalehenaren (patriarkaren) inguruan eraikitako kultura hartan zituen betebeharren arabera definitzen zen. Zenbaitetan aginpidea, gizabanako bakoitzak boterea erabiltzeko edo gauzatzeko zuen gaitasun edo trebetasunean zetzan: *meshchánstvo* taldekoen etxaldeetan aitalehenak etxeko gazteak jotzeko boterea galdu ahala, aldatuz zihoan tratamenduen erabilera. Zenbaitetan gatazka gertatzen zen botere desberdinen artean, maizenik burokraten agintaritzaren eta nekazarien edo kosakoen herri mailako agintaritzaren artean. Bereizkuntza honek askotan politikaren eta eskubideen arloekin izaten zuen zerikusia.

TALDE-KIDETASUNAren bereizkuntzak oroz gain etxaguntza nozioa besarkatzen du; esaterako, aristokrazia txikiaren etxaguntza berean bizi ziren

adin bereko bi lehengusuk beren artean seguru asko *ty (T)* erabiliko zuten; bi lehengusu adinkideak elkarrengandik urrun samar bizi izanez gero, ostera, ez zen gauza bera gertatuko. Aristokrazia txikikoen artean, familia-kidetasunak ere, batik bat familia entzutetsu batekoa izateak, bere eragina izaten zuen. Nekazarien artean herrikidetasuna gertatu ohi zen erabakigarria: zenbait lurraldetan nagusien artean *ty (T)* ohizkoa izan arren, beste herrietako nagusiei *vy (V)* tratamendua eman ohi zieten. Azkenik, klase- edota kasta-kidetasunak eragin zezaketen tratamenduan: langile, nekazari eta kosako adinkideek elkarren artean *ty (T)* erabili ohi zuten hasiera-hasieratik; aristokrazia txikiko kideen artean, aldiz, derrigorrezkoa izaten zen *vy (V)*-z hastea elkarrizketa.

'DIALEKTO' terminoa, hizkuntza baten —errusieraren— lekuzko aldaeta edo hizkera desberdinez mintzatzeko erabiltzen du Friedrichek. Zentzu horretan diosku Friedrichek ez zegoela dialekto-bereizgarririk merkatarien edo tarteko klaseetakoen artean, baina bazegoela bereizgarri-multzo bat, muga nabarmena alegia, aristokrazia txikiaren eta nekazari, langile eta kosakoen hizkeren artean. Beheko klasekoen hizkera-berdintasuna ez zen ongiegi uztartzen haien arteko bizimodu-desberdintasunarekin, baina gertakari horrek desberdintasunen berritasuna eta harremenanen maiztasuna islatzen zituen. Ondoko adibideak agerian uzten ditu aldagai honen eraginkortasun eta beregaintasuna: odol garbiko aristokrata elebidun bat hainbesteraino ohitu zen *vy (V)* tratamenduarekin, ezen nekazarien seme-alabei ere —euren gurasoengandik *ty* (T) jasotzen zuen arren— aipatu tratamendu formala ematen baitzien (Tolstoi, *Berpizkundea*).

Azkenik, gehienbat psikologiari dagokion osagaia dator, ELKARTASUNA, sentipen-kidetasunaren edo antipatiaren zentzuan. Lagun minek, maitaleek eta eginkizunen batean elkarturiko pertsonek *ty (T)* erabililo zuketen; aitzitik, sentipen mailako kidetasunik eza zenbat eta handiagoa, hainbat eta errazago nagusi zitekeen izenordain formalaren erabilera. Baina «elkartasunak» begirunea eta maitasuna bezalako bi sentipen aski desberdinak besarka zitzakeen: elkarrizketa batean lagun minek elkarrekiko *vy (V)* formalari euts ziezaioketen elkarrenganako begirunearen agerpide gisa eta aldi berean doinu eta keinuen bitartez maitasuna agertu; *ty (T)* hurkotasuna edo maitasuna ez bezalako sentipenak agertzeko erabil zitekeen, hala nola gutxiespena edo bat-bateko indarkeria erakusteko.

Labur esateko, Friedrichen ustetan izenordainen eta elkartasunaren arteko korrelazioa korapilatsua da eta gaur egungo hizkuntza-sistema baten barruan nekez igar dezakegu nolakoa izango den tratamenduekiko jokabidea, «gogaidetasunezko» *ty*-k *(T)* (Brown eta Gilman, 1960) eta elkartasun ahulezko *vy (V)*-k osatutako «continuum» edo ardatz bakarrari soilik erreferentzia egiten diogula[2].

[2] Friedrichek, literaturan oinarrituta, azterketa ezin zorrotzagoa egiten du tratamendu-izenordainen dinamikaz eta aldakortasunaz; biltzen dituen zortzi adibideak tratamendu-aldaketaren eta hausturaren erakusgarri bikainak dira.

### *2.1.3. Bereizkuntza- edo aldagai-kopuruaz*

Ikertzaile honen iritziz, bereizkuntzak azpimarkatzerakoan zehaztasun edo orokortasun handiagoa beharko da ikergaiaren arabera. Alde batetik, azpisistema baten barruan —eta zer esanik ez gizarte oso batean— gerta daitezkeen tratamendu-xehetasun eta gorabehera guzti-guztiei igartzeko, bereizkuntza-kopuru handia zehaztu behar litzateke eta haien arteko erlazio-sarea mugagabea litzateke. Beste alde batetik, Brownen eta Gilmanen ardatz biko («boterea eta elkartasuna») sistemak tratamenduekiko jokabideari igartzeko ahalmen edo gaitasun handia agertzen du kultura arteko mailan. Friedrichek beharrezkotzat jotzen ditu «bere» hamar bereizkuntzak edo aldagaiak, aukeratutako erakusgarriaren emaitzen berri eman ahal izateko eta gaur egungo tratamendu-usarioak nolakoak izan daitezkeen igarri ahal izateko. Bestalde, hamar aldagaien arteko loturak onartzen ditu, bere hamarreko sistema, aldagai biko eredu abstraktuago baten eta aldagai anitzeko sistema partikularista baten erdian koka daitekeen neurrian. Lehen bi aldagaiak hizketaldi guztietan agertzen dira. Bigarren multzoko lau aldagaiek izaera «biologikoa» dute eta haien zehaztapena ikaragarri aldatzen da kultura batetik bestera. Hirugarren sailean talde-kidetasunari dagozkion zenbait ezaugarri biltzen dira. Eta azken bereizkuntza, «elkartasuna», aurreko bederatzietatik aparte jarri behar da, gizabanakoen sentipenei baitagokie eta ez —ez behintzat hain garbiro— kultura-arauei. Hamar aldagai hauen eta Brownen ardatzen (ardatz bietako baten) arteko erlazioak isilduta edo agertu gabe uzten ditu Friedrichek. Garbiago esateko, Friedrichek nahiago du emaitzetatik gertu dagoen bereizkuntza analitiko askoko sistema anizkuna, emaitzen berri emateko tarteko hainbat azpisailkapen eta urrats behar dituen sistema bikoitz bat baino.

Are gehiago, kultura arteko zentzu zabalagoan, baliteke errusierarentzat postulaturiko hamar aldagaiak botere eta elkartasunaren irizpideak erabiltzen dituzten beste hainbat hizkuntzatako tratamendu-erabileraren azpian egotea. Hots, Friedrichen arabera, litekeena da hamar osagaiok tratamendu izenordainen erabilera azaltzeko unibertsalak izatea[3]. Friedrichek, hamar bereizkuntzako eredu anizkunaren bitartez, hautatutako *corpus*-eko emaitzak ez ezik, bestelako testu berrietako tratamendu-kasu guztiak ere besarkatu eta azaldu nahi lituzke.

## 2.2. Rubin (1962): Brownen eredua eta kodearen hautaketa Paraguaiko elebidunen artean

Ikerketa interesgarri batean Joan Rubin (1962), R. Brownen eredu teorikoaren baliagarritasuna bestelako eremu batera, hain zuzen kodearen hautaketaren

[3] Kroeberren (Kroeber, 1909) bederatzi osagaiak ahaidetasunaren arloko izendegiak azaltzeko unibertsalak gertatu diren modu berean. Postdatan ere, ideia berberori iradokitzen du: gizarte-egituraren, hots, kulturaren beste ikerketa osagarriek beharbada ez lizkigukete askoz ere bereizkuntza gehiago eskainiko. Hipotesi gisa, solaskideari mintzatzeko izenordain aukera bikoitza duten hizkuntza gehienetako sistema abstraktuen azpian, beharbada dozena erdia edo dozena bat bereizkuntza besterik ez daudela iradokitzen du.

eremura hedatzen saiatu zen. Rubinek jakin nahi zuen ea Brownen sistemak balio ote zezakeen paraguaitar elebidunen kode-hautaketan (espainiera-guaraniera) eragile gerta zitezkeen hizkuntzaz landako aldagaiak atzemateko. Bestela esateko, amerikarren eredua sortzezko helbururako barik, alegia kode baten barruko tratamendu-izenordainen hautaketa azaltzeko erabili beharrean, kode-hautaketa bera azaltzeko erabili zuen Rubinek.

Emaitzak herrialde horretako hiriburu espainierazaleari (Asuncion) baino gehiago, Paraguaiko barruko aldeari dagozkio. Rubinen emaitzen arabera, elebidunek goragokoekin eta pareko ez-solidarioekin espainiera erabiltzeko joera duten arren, guaranierari heltzen diote beheragoko ez-solidarioekin eta pareko edo goragoko solidarioekin hitz egiteko. Beraz, itxura denez, guaranieraren erabilera *T*-ren ardatz edo aldagai berberei dago lotua eta espainierarena *V*-ren aldagaiei lotua.

Kode bietako baten hautaketarekin zerikusia duten aldagai soziologikoen artean honakook aipatu behar dira: gizarte-klasea, sexua eta bizilekua (nekazari-edo hiri-girokoa). Gizartearen goiko klasekoek maizago erabiltzen dute espainiera, beheko klasekoek baino. Sexuak aurreko baieztapena zehazteko balio digu. Izan ere, emakumeen aldean gizonek —goi-klasekoen artean batik bat— guaraniera maizago erabiltzeko joera dute. Bizilekuari gagozkiola, esan beharra dago botere- eta elkartasun-erlazioak gorabehera, guaraniera maizago erabiltzen dela nekazari-inguruetako eta hiri txikietako hiztunen artean.

Dena den, Rubinek ere —Friedrichek bezala— aldagai gehiagoren beharrizana izan zuen. Nolanahi ere, Brownen bi aldagai edo ardatz semantikoei gaineratutako aldagai berriok ez dagozkie solaskideei, hizketari edo hitz-ekintzari baizik. Haueta-ko bat berbaldiaren gaia dugu: gizon elebidunek txantxetan eta politika, kirola edo emakumeen gaineko autuetan joera dute guaranieraz hitz egiteko; eskola, lege-kontu eta bestelako tratuen gaineko solasetan, ordea, espaniera dute gustokoen. Beste aldagai berria testuingurua da. Oro har, guaraniera maizago erabiltzen da testuinguru informal edo lagunartekoan; espaniera, aldiz, testuinguru formaletan. Kode eta testuinguruaren arteko kobariazio hau Herman-ek (1961) Israelen aurkitu zuenaren antzekoa da.

Ikerlanaren ondorioak labur bilduz, esan dezakegu Brownen eredu teorikoa egoki eta baliagarri gertatu zitzaiola Rubini paraguaitar elebidunen kode-hautaketa azaltzeko. Gehigarri diren pare bat aldagai gehiagoz bada ere, amerikarren ereduaren erabilgarritasuna uste baino zabalagoa (besteak beste, diglosiazko egoera batean bizi diren zenbait gizartetako hiztun elebidunen hizkuntza-jokabidea argitzeko) izan daitekeela erakusten digu Rubinen ikerketa honek.

### 2.3. Slobin, Miller, Porter (1968): deituren bidezko tratamenduak eta harremanak merkataritzako erakunde batean

Slobin, Miller eta Porter (1968) ikertzaileek soziologiaren arloan bilatu zuten Brownen eredu semantikoaren erabilgarritasuna. Emaitzak aski jakinga-

rriak dira. Badirudi tratamenduen ikerkuntza, kultura arteko makroanalisiaren mailan ez ezik, gizarte txikiagoen mikroanalisiaren mailan ere (Kaliforniako San Frantziskoko aseguro-etxe batean) baliagarri edo argigarri gerta daitekeela.

Ikerketa honetan Estatu Batuetako ingelesaren bi tratamendu-era lexikal aztertu ziren (Brown and Ford, 1961): alde batetik, lagunarteko tratamenduari dagokiona, izen berezia *(I)*, gutxi gora-behera beste hizkuntza askotako *T*-ren parekoa; beste alde batetik, titulua eta deitura *(TD)*, Estatu Batuetan gutxi gora-behera sartaldeko herrialde askotako *V* tratamenduaren baliokidea dena.

Autore hauen arabera, Estatu Batuetako *I/TD* deitura-tratamenduen erabilerak, oro har, baieztatu egiten du Brownen ardatz biko ereduaren egokitasuna[4].

Dena dela, hurkotasuna («intimacy») —eta ondorioz elkartasuna— sakontzen duen bestelako jokabide bat, isilmandatua («self-disclosure»), aztertzerakoan ez ziren iritsi Brownen (Brown eta Ford, 1961:383) ondorioetara. Brown eta Ford-en ustez goragoko mailakoak urratzen du besteaganako hurbilbidea, goragokoak ezartzen du erritmoa elkarrenganako hurbiltze-mota guztietan, bai hizkuntza-jokabideari dagozkionetan, bai hurkotasuna sakontzeko bestelako saioetan. Ikerketa honen arabera, aldiz, botere desberdineko pertsonen artean (behe-beheko langileen salbuespenaz) —Brownen teoriaren aurka— maizago egiten zizkioten isilmandatuak hurrengo nagusiari, hurrengo menpekoari baino. Maila bereko langileen artean, *I* tratamendua eta isilmandatuaren maiztasunik gorena uztarturik ageri ziren. Gainerakoan, araua «zenbat eta botere-tarte handiagoa izan, hainbat eta maiztasun txikiagoa isilmandatua gauzatzeko» bazen ere, zenbaitetan goranzko isilmandatua ez zen agertzen goranzko *I*-ri lotua. Slobin, Miller eta Porterren ustez horrelakoetan goranzko isilmandatua, erabateko hurkotasunaren adierazle den *I* simetrikora iristeko bitarteko urrats bat baino ez litzateke. Zentzu horretan ulertu behar da azken emaitzaren itxurazko kontraesana, hots, tratamendu formalaren (TD) eta «konfiantzazko» jokabidearen (isilmandatuaren) artean dagoen adostasunik eza. Hala eta guztiz ere, jokabide berezi honek ez du ukatzen «elkartasuna» izen orokorraz bataiaturiko ardatzaren baliagarritasuna; alderantziz, goragokoari (nagusiari) zuzendutako isilmandatua, askotan berarekiko hurkotasuna (=*I*) lortzeko baliabide gisa ulertu behar da.

[4] Gainera, bidenabar bada ere, komeni da ohartaraztea ikerketa honek baieztatu edo sendotu egin zuela lehenagoko ikerketen hipotesia (Brown and Ford, 1961), alegia, Estatu Batuetako tratamendu-sisteman —sortaldeko kultura batzuetan jazotzen denaz bestaldera— erdietsitako botere-maila jaiotzetikako botere-mailaren gainetik dagoelako hipotesia. Horregatik gatazka-kasuetan, hots, gazteena goragoko mailaren jabe zenean, ez zen adinaren araberako asimetriarik bat ere azaldu: alegia, menpeko zaharragoak nagusi gazteagoari *I* esatea eta beronengandik *TD* jasotzea ez zen behin ere gertatu. Halakoetan tratamendu simetrikoa (maizenik *I* simetrikoa) izan zen nagusi. Beraz, amerikar gizartean tratamenduaren eragileen artean adina lehen mailan ez badago ere, ez dirudi Estatu Batuetako tratamendu-sistemaren berri ematerakoan adinaren aldagaia erabat bazter daitekeenik. Izan ere, zaharragoa beheragoko maila batean dagoenean badirudi —ikerketa honen arabera, bederen— binakoa osatzen duten solaskideak uzkur direla solasaldian tratamendu ez-elkarrekikoari eusteko.

## 3. BROWNEN DIAKRONIAZKO BI HIPOTESIAK EGIAZTATZEKO EDO GEZURTATZEKO SAIOAK: BOTEREAREN KODETZEA (TRATAMENDU EZ-ELKARREKIKOA) DESAGERTZEAR OTE?

Brown eta Gilmanen (1960) hipotesi nagusietako baten arabera XX. mendean elkartasunaren ardatza gailendu da sartaldeko hizkuntzen eremu zabalean. Hots, gaur egun, joan den mendean eta aurreragokoetan ez bezala, botere eta gizarte-mailako desberdintasunak gero eta gutxiago kodetzen bide dira tratamendu ez-elkarrekiko edo asimetrikoen bidez. Beraz, Brownen iragarpenari kasu eginez gero, gaur egungo tratamendu-usarioetan harreman simetrikoak (*T-T* edo *V-V*) nagusitzen ari dira eta botere-desberdintasunak (inola eta inongo gizartetan desagertu ez direnak), elkartasunik ezaren agergarritzat jotzen den *V-V* tratamendu simetrikoaren bidez adierazten dira.

### 3.1. Lambert eta Tucker

Hipotesi hau gezurtatzeko egindako lehen ikerketa enpirikoen artean aipamen berezia merezi dute Lambert eta Tuckerrek bakarka eta elkarlanean burututakoek (Lambert, 1967; Lambert and Tucker, 1976).

1967ko Lamberten ikerketa, ondoren etorriko ziren lanen abiaburu eta eragingarri gertatu zen. Brownen lehen hipotesia Kanadako frantsesean (Quebeceko ikastetxe batean) testatzeko burutu zuen bere lehenbiziko ikerketa, bertako erabileran hutsarteak edo kontradibideak somatu zituen eta.

Lamberten lehen ikerketaren emaitzak ez ziren inola ere erabakigarri gertatu Brownen hipotesiak gezurtatzeko edo baieztatzeko. Alde batetik, badirudi asimetriazko tratamenduen lekukotasunak (biloba eta aitona-amonen artean) gezurtatu egiten duela Brownen diakroniazko lehen hipotesia. Beste alde batetik, tratamendu asimetrikoaren beherakada (aitona-amonen belaunalditik gurasoenera) elkartasuneranzko bilakabidearen aldeko emaitzatzat har liteke. Ondorio garbi bakarra «klase sozioekonomiko» aldagaiaren garrantzia frogatu izana dateke[5].

Urte bat geroago, 1966an[6], Lambertek, bere lehen ikerketaren ondorio urri eta badaezpadakoak sendotu nahirik, beste ikerketa zabalago bati ekin zion Tuckerrekin batera (Lambert and Tucker, 1976an bildua). Oraingoan Kanadako frantsesaren erakusgarri handiago batean oinarritu ziren, bizilekuaren aldagaia ere (hiri- edo nekazari-ingurukoa) besarkatuz.

Emaitzek Lamberten aurreko (1967ko) ikerlanaren ondorio berak baieztatu zituzten. Baina oraingo ikerketa honetan, bizilekuaren aldagai berriari eskerrak,

---

[5] Izan ere, seme eta gurasoen arteko harremanetan gizartearen goi-mailako klaseko familiak dira *T* elkarrekikoaren bultzatzaileak. Behe mailako klaseko gurasoak, aldiz, *T-V* ez-elkarrekikoaren eusle eta defendatzaileak dira.

[6] Quebec-eko ikerketa (Lambert, 1967) 1967an argitaratu bazen ere, bi urte lehenago (1965ean) burutu zen.

gizarte-klasearen eta tratamenduen arteko lotura zehaztea lortu zuten. Izan ere, aita-seme binakoaren harremanetan hirien eremuetako hiztunen kasuan aurreko ikerketan aurkitutako lotura bera (*T*-ren maiztasun handiagoa goimailako klaseko semeen artean) lortu bazen ere, ez zen hala gertatu nekazari-inguruetakoen artean. Bizilekuaren aldagai berria (nekazari- edo hiri-girokoa izatea) erabakigarria izan zen hainbat kasutan. Dena den, oro har, nekazari-giroko hiztunek askoz ere maizago erabiltzen zuten tratamendu asimetrikoa hirietakoek baino.

Ondorio gisa, Kanadako eremu frantsesean tratamendu elkarrekikoranzko joera unibertsal bakunaren alde aurkitutako lekukotasun urriak zirela eta, honako adierazpen ezezkorra aurreratzen zuten:

> «...we do not find a simple universal trend toward reciprocal address usage on the French-Canadian scene as one might expect in light of Brown's theorizing.»
>
> (Lambert and Tucker, 1976:48)

Kanadako frantsesean lortutako emaitza ezezkorrak baieztatu nahirik, beste herrialde batzuetara hedatu zuten ikerkuntza (Lambert and Tucker, 1968a, 1968b; Lambert, 1970; Lambert and Tucker and Viera, 1968c eta aurreko lanen laburpena den Lambert and Tucker, 1976). Oraingo honetan galde-sorta zabalagoa erabili zen eta Frantzia (St. Pierre-et-Miquelon, Laval), Puerto Rico eta Kolonbiako lehen eta bigarren irakaskuntzako ikasle-erakusgarri antzekoak hartu izan ziren.

Ikerkuntza guztiz erabakigarria ez bazen ere, ikertzaile amerikarrek, bestelako emaitzen gainetik, tratamendu-izenordainen erabileran ageri zen arau-aniztasuna eta usarioen arteko desberdintasuna azpimarkatu zituzten. Haien ustez, kultura arteko eta orobat kultura baten barruko aniztasun eta desberdintasunek —tratamendu simetrikoen guztizko nagusitasuna ezeztatzen zuten erabilera asimetrikoekin batera— Brownen diakroniazko lehen hipotesia gezurtatzen zuten. Hots, elkartasunaren ardatza erabat nagusituko zelako baieztapenaren ezeztagarritzat hartu zituzten beren emaitzak.

### 3.2. Slobin (1963)

Slobinek sortaldeko Europako herrialdeetako juduek Bigarren Mundu-Gerra baino lehenagoko garaietan hitz egiten zuten jidish hizkuntza germaniar hebrear mistoan ikertu zuen bigarren pertsonako izenordainen erabilera.

Slobinen iritziz, mende-hasierako jidishean ageri den tratamendu-usarioak badu Brown eta Gilmanek XIX. mendeko sartaldeko hizkuntza europarretan idorotakoaren antza. Hau da, garai hartako jidishean ez da inondik ere somatzen elkartasunaren ardatza nagusitzeko joerarik. Artean bi ardatzak (elkartasuna eta boterea) elkarren lehian zeuden, bietatik bat ere erabat nagusitu gabe. Izan ere, egoera gatazkatsuetan, hala nola goragoko solidario edota beheragoko ez-

-solidarioekikoetan, nahiz botere nahiz elkartasunaren arabera erabakitzen zen tratamendua. Bestalde, jaiotzezko botere-ezaugarriek eta senidetasunezko elkartasun-lokarriek tratamendu-hautaketan jokatzen zuten paper garrantzitsua azpimarkatzen du Slobinek. Hona hemen, ikerketaren ondorio gisa egiten duen adierazpena:

> «In sum, then, it seems that ascribed status, and, if exceptional, achieved status prevail over solidarity in the semantics of pronouns of address in the Yiddish of our informants. The exception is the strong solidarity of kinship, which is also based on ascribed, rather than achieved values. (...) The general picture resembles that drawn by Brown and Gilman for nineteenth century Europe, retaining situations of non-reciprocal address.»
>
> (Slobin, 1963: 201)

### 3.3. Kocher (1967)

Ikertzaile honek gehienbat serbokroazierazko tratamendu-izenordainen azterketa sinkronikoa burutu zuen arren (cf. II.12), zeharka bilakaera edo diakronia ere ikertu nahi izan zuen.

Kocherrek uste du bere ikerketaren emaitzak Brownen hipotesi diakronikoak baieztatzera datozela, asimetriazko ohituren (T-V) beherakada eta bereziki lagunarteko T-T simetrikoaren maiztasunaren hazkundea agerian uzten dituztelako. Ikertzaile honen ustez, tratamendu-usarioetan gertatutako aldakuntza hau Jugoslaviako gizarte berriarekin lotuta dago, hots, ikasteko aukera handiagoekin, berdintasun handiagoarekin eta klase-desberdintasun txikiagoekin (Kocher, 1967:740).

### 3.4. Solé (1970)

Yolanda Solék tratamendu-usarioen ikerketa konparatiboa egin zuen Argentina (Buenos Aires), Peru (Lima) eta Puerto Ricoko hirietako erdi-mailako hiztunen artean. Ikerketa honen helburua, tratamendu-usarioen arloan tratamendu-sistemen eta azterturiko gizarte-egituren arteko korrelazioa baieztatzeko moduko desberdintasunik ba ote zen arakatzea izan zen.

Hiru herrialdeak, gizarte-egitura, hiritarkuntza-maila eta industrializazio-maila kontuan harturik neurtutako moderninazio-mailaren arabera hautatu ziren: Argentina zen herrialderik aurreratuena, Peru modernizazio gutxiena zuena eta Puerto Rico bien bitarteko mailan zegoena. Ikerketaren diseinua sinkronikoa izan zen eta hiru hirietako hiztun-erakusgarri konparagarrietan oinarritu zen (25 eta 35 urte bitarteko 80na hiztun hiri bakoitzean).

Ikerketak agerian jarri zituen tratamendu-usarioetan zeuden desberdintasunak eta baita berauen eta herrialde bakoitzaren ezaugarri soziokulturalen arteko

korrelazioa ere. Perun eta Puerto Ricon, adibidez, T-V asimetrikoa nahiko sustraituta zegoen; Argentinan, berriz, erabilera asimetrikoaren aztarnak aski urriak ziren eta maila desberdineko hiztunen artean V-V zen araua. Lehen bi herrialdeetan, belaunaldi batetik gorako diferentziak V-Vren bidez kodetzen ziren bitartean, Argentinan halakoetan T elkarrekikoa zen nagusi. Sexuaren araberako semantika desberdinak aurkitu zituen Puerto Rico eta Peruko hiztunen artean, bietan gizonari goragoko maila zegokiola: emakumeen aldean, gizonek joera handiagoa zuten emakumeei Tz mintzatzeko, harremanetan T simetrikoari lehendabizi heltzeko eta menpekoekin T-V asimetrikoaz aritzeko.

Beraz, alde batetik, Soléren lanaren antzekoak lagungarriak izan daitezke ikerketa soziologiko konparatuak egiteko. Beste alde batetik, baldin eta desberdintasun soziokultutaralak eta historikoak isomorfoak edo parekagarriak izan daitezkeela onartzen bada, Soléren ikerketa, zeharka, Brownen hipotesi diakronikoen alde mintzo dela pentsa daiteke.

### 3.5. Weinberg (1969, 1970)

Weinbergen ikerketa berariaz Brownen hipotesi diakronikoak Argentinako Buenos Aires probintzian egiaztatzeko xedez burutu zen. Ikerketa bi eratako langaietan oinarritu zen: alde batetik, XX. mendearen lehen hamarkadako 28 antzerki-lan argentinar arakatu ziren; beste alde batetik, Slobinenaren antzeko galde-sorta baten bidez, Bahía Blanca[7] hiriko adin desberdinetako (15-25, 35-45, +55) 60 hiztunen artean bildutako emaitzak ikertu ziren. Ikerketa «pseudo-joerakoa» izan zen, hots, adin-multzo bakoitzeko hiztunen jokaerak euren sozializazio soziolinguistikoaren garai desberdinak eta garaian garaiko tratamendu-usarioak utzi beharko zituen agerian.

Bi datu-multzoen emaitzak bat etorri ziren eta ikerketak, oro har, baieztatu egin zituen Brownen diakroniazko bi hipotesiak: erabilera simetrikoen hedapena, asimetrikoen kaltetan; eta T elkarrekikoaren gorakada nabarmena. Gainera, antzerki-lanen biluzketatik ateratako emaitza lagungarriek bizilekuaren (hiria/herri nekazaria) eta gizarte-klasearen garrantzia utzi zuten agerian: tratamendu asimetrikoa sarriago gertatzen zen nekazari herrietako eta behe-mailako gizarte-klaseetako hiztunen artean. Bahía Blancan bildutako emaitzek, ostera, ez zuten gizarte-klasearen araberako desberdintasunik erakutsi.

### 3.6. Weinerman (1976)

Weinermanek (1976) ikerketa zorrotza burutu zuen Brown eta Gilmanen bi hipotesi diakronikoak Buenos Airesko hizkeran egiaztatzeko. Ikerketak bi oinarri ditu: alde batetik, antzerkigintza argentinarraren (109 literatura-lanen) «joerako azterketa», bigarren eskuko datuetan oinarritua (1850, 1900 eta 1950

[7] Gizarte-egituraz eta hizkeraz, Buenos Airesekin kidetasun nabariak dituen hiria.

aldietako erakusgarri banarekin); beste alde batetik, modernizazio-maila desberdina duten Catamarca («atzeratuagoa») eta Buenos Aires («aurreratuagoa») hirietan, klase desberdinetako hiztun gizon helduen artean egindako inkestagintza, bestetik.

Funtsean, emaitzak bat datoz Weinbergenekin. Literaturan oinarritutako joerako ikerketa diakronikoak baieztatu egin zituen Brownen bi hipotesiak:

> «Los hábitos de habla reflejados por la literatura argentina han experimentado un cambio sustancial durante los últimos cien años. En dicho lapso se ha producido un incremento en el uso de las pautas simétricas de tratamiento (sobre todo del tipo informal) acompañado por una disminución del uso de la pauta asimétrica.»
> (Weinerman, 1976:148)

Gainera, bigarren eskuko emaitzek honako hau erakutsi zuten: Buenos Airesko hirian V-V simetrikoaren hedapena familiatik kanpoko esparruetan bultzatu zen; T-V asimetrikoaren gainbehera, aldiz, familiaren esparruan areagotu zen eta, hain zuzen ere, goi-mailako klaseetako familietatik hasita.

Inkestagintzan oinarritutako azterketaren helburua, Brownen hipotesi diakronikoak, sinkronian, aurrerapen-maila desberdineko hizkuntza-komunitateen artean egiaztatzea zen. Abiaburuko hipotesia honako hau zen: tratamendu simetrikoek eta bereziki T-T, hedatuago egon behar zuten komunitate aurreratuan (Buenos Aires), gizarte tradizionalean baino (Catamarca). Catamarcan 112 eta Buenos Airesen 120 hiztun elkarrizketatu ziren eta erakusgarri bakoitzean, behe-, erdi- eta goi-mailako 40na lekuko inguru hartu ziren. Emaitzek, bada, baieztatu egin zuten hasierako hipotesia: T-Tren maiztasuna askoz handiagoa izan zen komunitate aurreratuenean (Buenos Aires) eta alderantziz, asimetriazko ohiturak (T-V) errotuago zeuden gizarte tradizionalean (Catamarca). Hona hemen, Weinermanen ondorioen laburpena:

> «En resumen, en términos de las tendencias propuestas por Brown, la distribución global de las pautas actuales de tratamiento de la ciudad de Catamarca está retrasada respecto de la de la ciudad de Buenos Aires. Se encontraron tendencias similares entre las dos comunidades manteniendo constantes la clase de relación social y el origen socioeconómico de los interlocutores. Por tanto, el análisis comparado de dos comunidades contemporáneas que comparten la misma lengua pero que están ubicadas en estadios muy diferentes del proceso de modernización reproduce, en cierta medida, las tendencias diacrónicas encontradas dentro de una única comunidad a lo largo del tiempo.»
> (Weinerman, op. cit. 200)

## 4. BROWN ETA GILMANEN EREDU TEORIKOAREN EBALUAZIOA

Atal honetan auzipean jarriko dugu Brown eta Gilmanen (1960) sistema teorikoa [aurrerantzean, BG laburdurez aipatua], beronen lorpenak eta alderdi ahulak agerian uzteko asmoz. Kritikaren eta analisiaren ikuspegitik, beharbada, amerikarren ikerlanean maila desberdineko bi ekarpen bereiz daitezke: bata, ekarri teorikoa da, ardatz biko sisteman oinarritua («elkartasuna» eta «boterea»); bestea, tratamendu-usarioen bilakaerari buruzkoa da, diakroniazko hipotesi bitan bildua eta funtsean aurreko eraikuntza teorikoari lotua. Bereizketa metodologiko hau onartuta, lehenengo, BGren ekarpen teorikoa balioztatuko dugu eta gero, hipotesi diakronikoen egiaztapen-saioez arituko gara.

### 4.1. Eredu teorikoaren baliotasuna eta egokitasuna

Lehen auziari dagokionez, autore hauen ardatz biko sistema teorikoaren baliotasuna neurtzerakoan, besteak beste, ondoko alderdiak izan behar ditugu kontuan (Weinerman, 1976:72):

a) pertsonen arteko jokaeren inguruko bestelako eraikuntza teorikoekiko koherentzia,
b) bere soiltasuna eta irispide teorikoa,
c) mundu enpirikoarekiko adostasuna, eta
d) bere balio «heuristikoa».

a) Tratamendu-izenordainekiko jokaera, begirunezko jokaeren azpimultzo gisa ikus daiteke; eta hain zuzen ere, bata (BG) eta bestea (Goffman, 1956) aztertzeko sistema teorikoak nahiko antzekoak eta koherenteak gertatu dira. Beste alde batetik, pertsonen arteko jokaerari buruzko beste ikerketa psikosozial zabalago batzuetan, BGren antzeko sistema bikoitzetara heldu izan dira, boterearen eta elkartasunaren antzeko ardatzak azpimarkatuz (ik. Weinerman, 1976:75-76). Hitz laburrez, tratamenduekiko jokaera pertsonen arteko jokaeretariko bat izanik, badirudi arlo zabal horretako aitzinagoko eraikuntza teorikoekiko adostasuna, zeharka, BG sistemaren egokitasunaren alde mintzo dela; hots, aipatu adostasuna Brownen ardatz biko sistemaren aldeko zeharkako euskarritzat jo daiteke.

b) BG eskema teorikoa erakargarri egiten duten arrazoien artean, bere soiltasuna eta bere irispide teoriko zabala aipatu behar dira. Popperrek erakutsi duenez, bi ezaugarri hauek elkarren eskutik doaz, edo zehatzago esateko, lehen ezaugarriak (soiltasunak) bigarrena (irispide teoriko zabalagoa) dakar. BG eskema teorikoak ardatz bi besterik ez darabil, eta soiltasun hori azpimarkatzekoa da solaskide biren arteko tratamendu jokaeran eragiten duten aldagaien aniztasuna kontuan hartzen bada. Teoria honen irispide eta erakarpen zabalaz jabetzeko, aski da ikustea lehenik munduko hainbat tratamendu-sistemari

aplikatzerakoan eman dituen fruituak eta, bigarrenik, bestelako hizkuntza-jokaerak (kodearen hautaketa) argitzeko frogatu duen ahalmena.

c) BG eskema teorikoaren balioa neurtzerakoan, gutxienik, epistemologiazko hiru arazo hauei eskaini behar diegu arreta: termino teorikoen egokitasuna, terminoen zehaztapen-maila eta eraikuntza teorikoaren egokitasuna mundu enpirikoa azaltzeko.

Labur bilduta, honako puntu hauek azpimarkatu nahi ditugu ardatz biko sistemaren ebaluazioan:

1) Akatsak akats, ikerketa gehienek, BG eredu teorikoaren baliotasunaren aldeko emaitzak erakutsi dituzte.

2) Autoreek «elkartasuna» deritzoten ardatzak definizio kontzeptual zehatzagoa behar du.

3) «Botere» eta «elkartasun» terminoen zehaztapen-maila egokia izan daiteke kultura arteko mailako makro-azterketetarako, baina zehaztapen handiagoaren eske geratzen da lekuan lekuko azterketa eta aplikazio zehatzetarako.

4) BG eredua egokia izan daiteke tratamenduen inguruko usario markatugabe edo estatikoen azterketarako, baina testuingurua, hizketagaia edo dialektoa bezalako aldagaiak jaso ez dituen heinean, motz geratzen da tratamenduen dinamika zehatz-mehatz azaltzeko.

Esan bezala, hirugarren puntuko «ahulezia» ez dagokio teoriaren baliotasun edo baliogabetasunari, teoriaren abstrakzio- edo konkretutasun-mailari baizik eta horregatik, zentzu hertsian, ez dugu uste ahuleziatzat jo behar denik. Laugarren puntuko ohar kritikoak BG eredu teorikoa baliogabetu beharrean, mugatu egiten du bere irispide teorikoa erabilera markatugabeen azterketara.

Gauzak horrela, beharbada, punturik ahulena bigarrena dateke, hots, «elkartasuna» terminoaren definizio kontzeptual ilun eta zehaztugabearena. Izan ere, Brown eta Gilmanek «elkartasunaren» gakotzat jotzen duten «like-mindedness» delakoaren anbiguotasunaren ondorioz (pentsakera-kidetasuna, iritzi-kidetasuna, kidetasun emozional-psikologikoa, jarrera-kidetasuna, interes-kidetasuna...?) sortu izan dira hain interpretazio desberdinak: batzuek (Friedrich, 1966) gertakari psikologikotzat daukate; beste batzuek, berriz, gertakari sozialtzat hartu dute. Terminoaren definizio zehaztugabeak, beharbada, bi irakurketak zilegiztatzen ditu.

d) Balio heuristikoa aipatzerakoan, formulazio teorikoen eraginkortasunaz ari gara, hau da, arazo konkretuak konpontzeko eta arazo berriak plazaratzeko ahalmenari gagozkio. BG teoriaren balio heuristikoa ukaezina da eta hori arrazoi batzuengatik: lehenik, 1960z geroztik munduko hainbat hizkuntzatan tratamendu-usarioen inguruan loratutako ikerketen ugaritasuna garbiro mintzo da teoria honen balio eragileaz (aski da Braun et al., 1986 ikuskatzea);

bigarrenik, BG teoria erabakigarria izan da soziolinguistikaren sorrerarako eta lagungarri psikologia sozial, soziologia eta antropologiaren garapenerako.

## 4.2. Diakroniazko hipotesien ebaluazioa

Lehenengo eta behin, gaizki-ulerturako bidea eman dezakeen puntu bat argitu nahi dugu. BGren diakroniazko hipotesiek tratamendu-izenordainen mailan boterearen ardatz semantikoa desagertzeko joera iragartzen dute, baina hizkuntzaren arlo jakin horretan boterezko ezaugarriak gero eta gutxiago kodetzeko joera postulatzean ez da adierazi nahi gizarte-sistemen mailan boterezko desberdintasunak desagertzeko bidean daudenik. Hau da, autoreek somatu duten aldakuntza ez da gizarte-egiturazkoa, (sozio)linguistikoa edo kulturala baizik; hots, diakroniazko hipotesien aurrikuspena ez da gizarte-sistemaren mailako gertakaria, gizarteko tratamendu-izenordainekiko usarioen —eta ondorioz, zenbaitetan tratamendu-sistemaren— mailako aldaketa baizik. Beraz, arau soziolinguistikoen aldaketa, gizarte-sistemaren mailako beste aldagai batzuei lotuta egon daitekeen arren, funtsean gertakari kulturala da. Ondorioz, tratamenduaren arloan boterezko ezaugarriak gero eta gutxiago kodetzeko joera dagoela onartuta ere, hortik ezin da ondorioztatu boterezko desberdintasunen desagerpena; eta era berean, mendebaldeko hizkuntzetan elkartasunaren ardatza nagusitzen ari dela onartzeak ez du esan nahi gizartean elkartasunak gora egin duenik.

Hurrengo bereizketak ondorio berberera eramango gaitu: BGren eredu teorikoa *binakoen* hizkuntza-jokaeraren behaketan oinarrituta dago eta BGren diakroniazko hipotesien azterketa *kolektiboen* jokaeraren behaketan oinarritzen da. Hortaz, binako konkretuen mailan tratamendu-izenordainen erabileratik hiztunen arteko harremanaren ezaugarriak ondoriozta badaitezke ere, kolektiboen mailan ezin da antzeko ondorioztapenik egin. Alderantzizkoa ere ez da egia; hau da, ezin da esan tratamendu-izenordainen erabileran gertatzen diren aldaketek gizarte-egiturarekin zerikusirik ez dutenik. Tratamendu-izenordainekiko usarioen aldaketak gizarte-mailako aldaketen eta balio-aldaketen adierazle izaten dira; dena dela, gizarte-sistemaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa ez da zuzena, ez epe laburrekoa, ezta inongo determinismoren araberakoa ere.

Bigarrenik, BGren diakroniazko hipotesiak gezurtatzeko egindako ikerketa enpirikoak (supra I.3) ebaluatu beharra daukagu. Gorago aurkezturiko ikerlanetariko batzuek BGren aldeko emaitzak eskaini dituzte: Slobin (1963), Kocher (1967), Weinberg (1969) eta Weinerman (1976). Lambert eta Tuckerrek, berriz, BGren hipotesi diakronikoen aurkako emaitzak aurkitu uste dituzte.

Edozein modutan ere, batzuetan eta besteetan, alde eta aurkako emaitzak eskaini dituzten ikerketa enpiriko batzuetan metodologiazko huts nabariak daude. Izan ere, BGk bilakaerazko joera jakin bat iragartzen du, eta Kocher, Slobin eta Lambertek bilakaera diakronikoa barik, gauzen egoera jakin bat

ikertu zuten; hau da, diakroniazko ondorioetara iristen diren ikerketa sinkronikoak dira. Alde horretatik, ikerketa hauen metodologiak neurri batean baliogabetu egiten ditu ateratako ondorioak. Bilakaera behar bezala gezurtatzeko, ikerketak gutxienez XIX-XX mendeen bitarteko epealdia besarkatu behar luke eta horretarako hiru eratako diseinuak lirateke erabilgarriak: a) «panel» tankerako ikerketa, aldi desberdinetan lekuko berengandik emaitzak jasoz; b) «joerako» ikerketa, aldi desberdinetan erakusgarri desberdinak erabiliz; c) «pseudo-joerakoa», aldi batean belaunaldi desberdinetako lekukoak erabiliz. Diseinu horietariko batez baliatu diren ikerketa diakroniko zorrotz bakarrak Weinberg eta Weinermanenak dira eta biek BGren diakroniazko hipotesien aldeko emaitzak erakutsi dituzte.

Gauzak horrela, ikerketa enpiriko gehienak BGren diakroniazko hipotesiak baieztatzera datozela ematen du. Are gehiago, Lambert eta Tuckerren emaitzak, simetriazko joeraren edo baieztapenaren ildotik interpreta daitezke, baldin eta hizkuntzekiko gure ikuspegiak faktore- eta maila-aniztasuna onartzen baditu.

Munduko zenbait tratamendu-sistemari eskaini diogun bigarren kapituluan aipatzen diren ikerketa gehienak BGren ildotik doaz, hots, metodologiazko gorabehera handiekin bada ere, gehienek Brown eta Gilmanen diakroniazko hipotesiak baieztatzen dizkigute.

Nolanahi ere den, bilakaera historikoari bagagozkio, puntu ilunena, beharbada, «elkartasuna» ardatzaren sarrera-aldiari dagokiona da (Wales, 1983). BGn «boterea» Erdi Aroan sartu zela zehazten da, baina ez da behar bezala zehazten noiztik aurrera sartu zen jokoan elkartasunaren ardatza.

Akatsak akats, gu geu, gehienbat BG eredu teorikoaz eta Friedrichen zehaztapenez baliatu gara geure ikerketan.

# II. TRATAMENDU-SISTEMAK: MUNDUKO ZENBAIT HIZKUNTZA

## SARRERA

Kapitulu honetan, gaingiroki bada ere, munduan barrena diren tratamendu sistema batzuk erakutsi nahi ditugu, hurrengo kapituluan eta liburuan barrena ikergai nagusitzat dugun euskal tratamenduen sistema, inguruko eta urrutiko sistemen argitan hobeki ulertu ahal izateko.

Jakina, ezinezkoa zitzaigun munduko hizkuntza anitz biltzea eta horregatik nahitaez hautatu beharrean aurkitu ginen; beraz, azkenean, gure ikuspegia hizkuntza gutxi batzuetara mugaturik dago. Nolanahi ere, hautaketa ez da guztiz arbitrarioa izan; gehienbat, nazioarteko kultura-hizkuntza ezagunenak izan ditugu gogoan eta batez ere, bi irizpide nagusik gidatu dute gure aukera: alde batetik, inguruko hizkuntzen berri, batik bat gurean eragin ukaezina izan duten frantses eta gaztelaniaren berri eman nahi izan dugu; beste alde batetik, tratamenduen ikuspuntutik deigarriak iruditu zaizkigun urrutiko hizkuntza batzuen gutxi-gorabeherako irudikapena eskaini nahi izan dugu.

Munduko beste hizkuntza batzuei buruzko xehetasunetarako, besteak beste, Braun et alii (1986) autoreek hizkuntzaz hizkuntza eskaintzen duten bibliografia zehatza eta bukaerako bibliografia ikus daitezke.

## 1. TRATAMENDUAK ESPAINIERAZ

### 1.1. Bigarren pertsonako tratamenduen bilakaera

#### 1.1.1. Singularreko bigarren pertsonako tratamenduak: «tú»ren ordezko izenordain berriak

1.1.1.1. *«Vos» solaskide bakarrari zuzendutako begirunezko tratamendu gisa*

«Vos» izenordainaren erabilera solaskide bakar bati begirunez zuzentzeko aski gauza zaharra da; erabilera hau Inperio erromatarraren bukaeratik (IV. mendetik) dokumentatuta dago eta ordutik erromantzezko literatura idatzira arte mamituz eta garatuz joan zen. Erabilera honen lekukotasunak gaztelaniaz aspaldikoak ditugu (*Cantar de Mío Cid,* +/-1140).

Juan Valdésen lekukotasunaren arabera, XVI. mendearen bigarren herenerako erabilerazko bilakaera garrantzitsua burutua zegoen: «vos» azpikoekin erabiltzen hasita zeuden; eta «vos» elkarrekikoa, konfiantzako berdinen arteko tratamendua zen. Hots, «vos» mintzaira herrikoian zabaltzerakoan eta begirunezko formula berriek ordezkatua izaterakoan, ahulduta geratu zen «tú» eta «vos»en arteko aurkakotasuna eta ahulduta, orobat, «vos»en hasierako begirunezkotasuna.

1.1.1.2. *Izen abstraktuen bidezko tratamenduak: «Vuestra Merced» > «usted» eta antzekoak*

Gaztelaniaz XIII. mendetik aurrera bakan aurkitzen ditugun izen-esapide goragarriak (hala nola, *vuestra manificencia, la vuestra prudencia, la vuestra nobleza...*) ikaragarri hazten dira XV. mendean. Formula guztiotatik hurrengo izenez osatutakoek lortu zuten arrakastarik handiena: *merced, señoría, excelencia, alteza, majestad, paternidad, reverencia.* Errespetuzko esapide hauetatik guztiotatik *vuestra merced* izan zen erabiliena, harik eta begirunezko tratamendu gisa orokortu arte. Halaxe gertatzen zen 1530 aldera; berdinen artean, konfiantza handia egon ezean, derrigorrezkoa izaten zen eta legezkoa menpeko hurbil batzuekin. Formula hain erabilia izanik, higadura fonetikoak forma eboluzionatuagoak sortu zituen, batzuk arrunt baina onartuak, hala nola, *vuessa merced, vuessarced, vuessansted, vuessasted, vuessasté...* eta beste batzuk erabat arruntak, hala nola, *voarced, voacé, vucé, vuested, vosted, vusted,* e.a.[1] Arruntkeriazko giro horretatik sortu zen *usted,* zeinen lehen agerraldi ezaguna 1620koa baita; aldaera hau, Espainian XVII. mendearen azken aldera eta XVIII. mendearen hasiera aldera nagusitutako arruntkeriazko giroan zabaldu zen. 1739an Akademiaren Autoritate Hiztegiak usted hitzaren arrakasta baieztatu zuen, «voz del tratamiento cortesano y familiar» bezala definitzerakoan.

1.1.1.3. *«Vos»en beheraldia eta galera Espainian*

Esan bezala, *vuestra merced* begirunezko esapideak XVI. mendetik aurrera lortutako arrakastaren eta herritartzearen ondorioz, *vos,* konfiantza handiko berdinekiko edo menpekoekiko tratamendu bihurtu zen eta kasu bietan *tú*rekin lehian sartu zen. Espainian *tú* izenordainak ospe hobea lortu zuen eta denboraren poderioz *vos* tratamenduari nagusitu zitzaion, erabat bazterreratu arte konfian-

[1] Bilakaera fonetikoaz ik. Plá Cárceles (1923:280).

tzazko berdinen artean. XVIII. mendearen bukaera aldera burutua bide zegoen Espainiako hirietako lagunarteko hizkeran *vos* begirunezkoaren galera.

1.1.1.4. *Ameriketako «voseo»a*

Honetaz, azalpen xeheagoak Lapesa (1969), Kany (1945), Torrejón (1986) eta batez ere Paéz Urdaneta (1981) ikerlanetan ikus daitezke.

Leongo erromantzean eta judu-gaztelaniaz *vos* begirunezkoak gaur arte iraun badu, Ameriketako lurralde zabaletan *vos,* lagunarterako edo konfiantzarako gorde dute eta Espainian guztiz galdu da.

Metropoliko eta erregeorderrietako gorteetako espainierak, konfiantzazko pareko bi tratamenduetariko bat *(vos)* galtzen utziz konpondu zuen bi formen arteko lehia *(tú/vos)*; Ameriketako lurralde apartatuetako espainierak, ostera, batetik eta bestetik eratorritako formak uztartuz eta biekin paradigma bakarra osatuz konpondu zuen izenordain-bikoiztasunaren arazoa: *vos, te, tu, tuyo* gorde eta *tú, ti, os, vuestro* baztertu zituen[2].

1.1.1.5. *Solaskidea aipatzeko beste tratamendu batzuk*

Behin izen-esapideak erabiliz gero, nahiko normala zen gero haien ordezko izenordainak erabiltzea; zeregin horretarako *él* eta *ella* anaforikoak erabili izan ziren eta baita tratamendu bihurtu ere. Beraz, guztira, XVI eta XVII. mendeko espainieran honako lau tratamendu hauek bereizten ziren:

Mailaketa: 1 < 2 < 3 < 4

1. *Tú* edo «tuteo»;
2. *vos* + 2. pertsonako adizkera plurala;
3. (*él, ella*) + 3. pertsonako adizkera singularra;
4. *vuestra merced* + 3. pertsonako adizkera singularra.

1.1.2. «Vosotros» eta «Vuestras mercedes» > «USTEDES»

«Vosotros»/«Ustedes» aukeren arteko zalantzen ondorioa, estimu edo banaketa geografiko desberdineko soluziobideak izan dira, hots:

a) *Vosotros-as/ustedes* aurkakotasunaren finkapena, singularreko *tú/usted* aurkakotasunarekin korrelazioan. Espainiako soluziobide orokorra izan da.

b) *Vosotros-as, os* eta pluraleko bigarren pertsonako adizkiak galtzea eta haien ordez, *ustedes, se, les, los, las* eta hirugarren pertsonako adizkiak erabiltzea. Mendebaldeko Andaluziako soluzio jasoena da eta baita Kanarietakoa eta Ameriketakoa ere.

[2] «Voseoaren» sailkapenerako, besteak beste, Torrejón (1986:676) ikus daiteke; banaketa geografikoaz Lapesa (1962:578) eta Páez Urdaneta (1981) ikus bitez.

c) *Ustedes* eta pluraleko bigarren pertsonako adizkiak batera erabiltzea: *ustedes tenéis, ustedes vais.* Mendebaldeko Andaluziako soluziorik arruntena da, *ustedes tienen* baino apalagoa; Salamancako La Ribera izeneko eskualdean ere badago soluzio hau.

### 1.1.3. TRATAMENDUEN LABURPEN-ESKEMA (Lapesa, 1970:161)

TRATAMENDUAK ESPAINIERAZ: II. PERTSONAKO IZENORDAINAK ETA ADIZKIAK

| XVI-XVII | PENIN-TSULA | ANDAL1. KANARIAK AMERIKA1 | ANDAL2. | AMERIKA2 (Voseo) | SALA-MANCA1 | SALA-MANCA2 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| tú te sientas | tú te sientas | tú te sientas | tú te sientas | vos te sentás | tú te sientas | tú te sientas |
| vos os sentá-(i)s | ////// | ////// | ////// | | él | |
| él, ella se sienta | ////// | ////// | ////// | ////// | hacéis | ////// |
| Vuestra Merced se sienta | usted se sienta | usted se sienta | usted se sienta | usted se sienta | ///// | usted hacéis |
| vosotros os sentáis | vosotros os sentáis | ////// | ustedes os sentáis | ////// | vosotros os sentáis | ustedes os sentáis |
| V. mercedes se sientan | Ustedes se sientan | Ustedes se sientan | Ustedes se sentáis | Ustedes se sientan | ////// | |

## 1.2. Bigarren pertsonako tratamenduen erabilera

### 1.2.1. Joera orokorrak

#### 1.2.1.1. *Simetriazko eta asimetriazko tratamendu-usarioak*

Oro har, badirudi tratamenduaren arloan ikuspegi berdintzailea edo joera simetrikoa nagusiagoa izaten dela hiri handi eta metropolietako erdi eta goi-

mailako gizarte-klaseen artean, nekazari-guneetako klase apalen artean baino (Solé, 1978:943).

*Tú* eta *usted*en arteko aukera, besteak beste, hurrengo faktoreen ondorioa izango da: hiztunen arteko harremanaren, euren arteko distantzia afektibo eta sozialaren eta hizketaldia gauzatzen den testuinguruaren emaitza. Bada, *usted* markatugabea izaten da aukera egokia, kasualitatez elkarrekin hitz egin beharrean egokitzen diren hiztun helduen artean, behin-behineko edo halabehar hutsezko hartueman batek elkartzen dituen helduen artean, alegia: medikueri, saltzaile-erosle, irakasle-ikasle, kamarero-bezero, abokatu-bezero... eta antzerako bikoteen artean. *Tú* elkarrekikoa, bestalde, haur eta gazteen artean, odolezko, ezkontzazko, adiskidetasunezko loturak dituzten helduen artean, —gero eta gehiago— lankideen artean, eta zer esanik ez, alderdi politiko iraultzaileetako kideen artean gertatzen da, non adinezko belaunaldi-tarterik edo aginpidezko «amildegirik» ez dagoen. Adiskideen artean, belaunaldi baten edo gehiagoren aldea edo «status»-alde nabarmena izanez gero, tratamendu simetrikoa (*tú-tú* edo *usted-usted*) nahiz asimetrikoa (*tú-usted*) nagusi daiteke. Halakoetan, hiztunaren izakerak eta adinak balantza alde batera edo bestera makurraraz dezakete. Goi-mailako klaseetako gazteen artean, adibidez, elkarrekiko *tú* izan liteke soluziobidea. Erdi- eta behe-mailako klaseetako belaunaldi zaharragoen artean simetriarik eza izan liteke soluziobiderik ziurrena. Litekeena da epe laburrean belaunaldi gazteen usario *tú*-zalea nagusitzea[3] (Marín, 1972:906).

Tratamendu-desorekak, batez ere belaunaldi aldetiko edo aginpide aldetiko desberdintasun handia dagoenean sortzen dira eta nagusiki halakoetan izaten dira begi onez ikusiak eta onartuak gizartean, bereziki bestelako gizarte-aldagaiak ostenduta bezala geratzen badira. Tratamendu-desorekak familiaren eremuan, bereziki behe- eta erdi-mailako nekazarien artean edo berrikitan hiritartutako nekazari-jatorrikoen artean gertatu ohi dira, belaunaldi batetik gorako aldea izanez gero. Horrela, gurasoek, aitona-amonek, osaba-izebek, aita-amaginarrebek-eta *tú* esan diezaiekete beren seme-alaba, biloba, iloba eta suhi-errainei eta azken hauengandik *usted* tratamendua jaso. Erdi- eta goi-mailako klaseetako hiztun hiritarren artean, ostera, nahiko bakanak izaten dira

[3] Azken hamarkada hauetan somatzen den *tuteo*aren zabalkuntza berdintzailearen aurkako iritzien artean, orain «Real Academia de la Lengua Española»ren lehendakaria den Fernando Lázaro Carreterrena (1990) azpimarkatuko genuke. Hona hemen, artikulu-bukaerako bi pasarte interesgarri: «¿Somos capaces de calcular cuánto ha costado a la humanidad elaborar el código de conducta civilizado que ahora se desmorona? (...) El tuteo, pavorosamente extendido, es una de las manifestaciones más visibles de esa crisis. (...). Tal allanamiento empezó entre comunistas y fascistas. La distinción en el trato basada en la distinción entre personas era injusta, liberal y elitista. Los *camaradas* quedaban igualados mediante esa ficción verbal; por supuesto, sólo mediante ella, pero satisfacían el resentimiento contra lo superior que nutre tales ideologías. Poco a poco, el igualitarismo de trato ha empapado la sociedad entera, ya sin significado político, pero sí psicosocial. (...). El tuteo indiscriminado: anulación de diferencias naturales, trivialización de las relaciones humanas, falso desmantelamiento de la intimidad, destrucción de señales imprescindibles para el funcionamiento civilizado de la (sociedad).»

asimetriak familia barruan, bertan familiaren egitura igualitarioagoa izaten da eta. Familiaz kanpoko tratamendu-asimetriak gizarte-klase guztietako ezagun eta are adiskideen artean ere gerta daitezke, baldin eta belaunaldi-tarteak — belaunaldi batek edo gehiagok— tratamenduzko berdintasunik eza bidezko bihurtzen badu. Bestalde, oro har, helduek *tú* ematen diete haur eta gazteei eta berauengandik *usted* jasotzen dute. Ez dago ondo ikusita simetriarik eza familiartetik eta adiskidantzatik kanpo eta jarrera aitatiar edo amatiarrez soilik onar daiteke nagusiagoaren libertatea bere azpikoari (medikuak bere eriarekin, abadeak bere elizakoarekin, irakasleak bere ikaslearekin...) *tú-usted* harremana ezartzeko.

Ezagunen arteko harremanetan, gaur egun —lehen ez bezala— ez da normalean *tú/usted* asimetriarik sortzen beheragoko mailakoekin edo behemailako klase sozialetakoekin hirietako belaunaldi gazteen artean. Hala ere, oraindik ere asimetriazko usarioak bizirik irauten du nekazari-giroko herrietako eta hiri txikietako behe-mailako hiztunen artean. Ondorioz, klase edo arrazako bereizgarririk izan ezean, *usted* elkarrekikoa gailendu ohi da adin berdintsuko nagusi eta menpekoen artean.

1.2.1.2. *Testuingurua*

Tratamendu-aukeraren egokitasunak aurreko aldagaiekin ez ezik, testuinguruarekin ere badu zerikusia. Espainierazko munduan era horretako testuinguru formalak hurrengoen modukoak izan daitezke: epaiketak, legebiltzarreko bilkura eta eztabaidak, negozio-biltzar handiak, goi-mailako gizarteko ospakizunak eta elkarretaratzeak...[4]. Bi hiztunen arteko harremana normalean *tú* bidez gauzatzen bada, halako testuinguruetan «legezkoa» izaten da *usted* izenordainaren aldeko aldaketa behin-behinekoa.

Kristautasunezko anaitasunaren nozioa azpimarkatzen duten errito eta sakramentu kristauetan eta, oro har, jende aurreko erlijio-ospakizunetan, *tú* errituala gailentzen da.

Espainierazko errefrauetan, helburu didaktiko, jatorri herrikoi eta hartzaile orokorra izateagatik, *tú* tratamendua gailentzen da. Iragarkietan, bestalde, bai *tú,* bai *usted* erabiltzen dira iragarki-egile, mezu eta iragarkiaren hartzailearen arabera.

Norberaren barruko hizketaldietan, hala nola, errezu isilean, barne bakarrizketan eta are poesia lirikoan ere, *tú* izaten da legea.

[4] Duela gutxi arte formaltasuna nagusi zen testuinguru batzuetan *tú* elkarrekikoa sartu da edo sartzen ari da *usted* elkarrekikoaren lekuan. Halaxe gertatzen ari da bigarren eta goi-mailako irakaskuntzan eta agian baita, irakaskuntza-munduko abiada azkarraz ez bada ere, goian aipaturiko testuinguruetako batzuetan ere.

1.2.1.3. *Tratamendu-aldaketak*

*Harreman baten berregituraketa: aldaketa iraunkorra*

Pertsona biren arteko harremana estuagotzen bada, normalean aldaketa horrekin batean *usteo*tik *tuteo*rako aldaketa gauzatu ohi da, hiztunak belaunaldi batez edo gehiagoz edo boterezko desberdintasun nabarmenez bereizirik ez badaude. Ezkontzaren kasuan, aldaketa berehalakoa eta behin-betikoa izaten da, adinezko aldea gorabehera.

Harremanaren estutze edo hurbiltzeari tratamendu-aldaketa iraunkorra badagokio, ezin da gauza bera esan alderantziz gertatzen denean. Behin guraso eta ondorengoen artean, ezkonduen artean, adiskideen edo maitaleen artean *tuteozko* harremana ezarriz gero, nekez jotzen dute *ustedera* harremana ahuldu eta gaiztotu arren ere.

*Tratamendu-aldaketa iragankorrak: hizkuntza-aldaketa adierazkorrak*

*Gehienetan tú* elkarrekikoa erabiltzen duten pertsona oso hurbilen artean gertatu ohi da tratamendu-aldaketa iragankorra. Beraz, aldaketa *tuteo*tik *usteo*ra izaten da eta haserre, etsaitasun edo amorrualdietan gauzatzen da. Halakoetan, aginpide handiena duen hiztunak *tuteo*a bertan behera utzi eta *usteo*ari heltzen dio, bere autoritatea ezarri nahirik bezala. Aldaketa-mota hau maiz guraso eta seme-alaben artean eta inoiz senar-emazteen artean gerta daiteke; behin aldaketa gertatuta, «menpekoak» (seme-alabek...) ere *usted* tratamendura jo behar du harik eta nagusiagoa (aita edo ama) lehengora, *tuteo*ra itzuli arte. Zenbaitetan *usted* elkarrekikotik tratamendu asimetrikora (T/V) aldatzea gerta daiteke, batez ere, sentipen bortitzen eraginez, maitasunezko edo gorrotozko sentipenen eragin pean; horrelako jokaerak gizalegearen urratze seriotzat hartzen dira eta horregatik gutxitan gertatzen da T/V asimetrikoranzko aldaketa, literaturan ez bada[5].

## 2. BIGARREN PERTSONAKO TRATAMENDUAK FRANTSESEZ: BILAKAERA

### 2.1. X-XIV mendeak

Bakos-ek (1955) dioenez, *tu* eta *vous* gizarte-mailaren arabera erabiltzen ziren X-XIII mendeetako frantsesean: nagusiagoak menpekoari *tu* eta azpikoak nagusiagokoari *vous* esaten zioten; gizarte-maila berekoen artean bietarik gerta zitekeen, baina *tutoiement* delakoa askoz sarriagotan gertatzen omen zen behemailakoen artean, nobleziakoen edota burgesiakoen artean baino (Bakos, 1955,

[5] Izenordainen bidezko tratamenduen (*tú, usted*) eta izenen bidezko tratamenduen (izen ttipia, deitura, *don, doña...*) arteko korrelazioari dagokionez, Solé (1978:946-947) ikus daiteke.

325). Arau honekiko salbuespen nagusiak Jainkoarekin eta santuekin gertatzen ziren, berauekin, *tu* orokorra baitzen legea jende-mota ororentzat.

## 2.2. XIV-XV mendeak

Literaturan oinarrituta, ondoko joerak azpimarka daitezke XIV eta XV. mendeetako tratamendu-usarioetan (Schliebitz, 1886): 1) *tu* eta *vous*en arteko ziurtasunik eza eta txandakatzea ez da erabat desagertu, baina ez da aurreko mendeetan bezain sarri gertatzen; 2) gizarte-klase bereko adiskideen artean (erdi- eta goi-mailakoen artean) *vous* elkarrekikoa erabiltzen da oro har, sentipen handiko une markatuetan izan ezik; 3) behe-mailako jendeak, oro har, *tu* elkarrekikoa erabiltzen du. Garai honetan oraindik aipatu hiru joera nagusien aurkako salbuespen ugari dauden arren, aurrera-pauso handia egin da tratamendu-izenordainen kodifikaziorantz (Schliebitz, 1886:26-27).

## 2.3. XVI. mendea: Berpizkundea

Pasquier tratatu-egileak (1529-1615) azaltzen duenez (Maley, 1974:23), *tu*, beheragokoekin eta (klase bereko) konfiantzazko pertsonekin erabiltzen zen eta *vous*, norberaren kategoriakoekin eta maila handikoekin (printze edo jaun handiak). Salbuespen gisa, poesian idazleak *tu* erabil zezakeen errege, printze edota jaun handi bati zuzentzeko; baina literaturatik kanpo, erabilera hori ausarta gertatuko zatekeen. Bestalde, —eta hau ohitura berria da lehengo usarioekin konparatzen bada— berdin eta goragokoekin ez ezik, noizean behin hiztunaren izakeraren eta testuinguruaren arabera, beheragokoekin ere gerta zitekeen *vouvoiement* delakoa begirunea adierazteko.

## 2.4. XVII. mendea

XVII. mendean, azkenik, *tutoiement* deritzon tratamenduak atzera egin zuen literaturan eta, neurri handian gortearen eraginez, *vous* izenordaina gailendu zen kortesiarako (Maley, 1974:24).

XVII. mendearen hasieran, *tu* beheragokoekin eta Jainkoarekin erabiltzen zen eta ez zegoen ondo ikusia pertsona berarekin mintzatzean tratamenduz aldatzea (Maupas, 1618:84)[6].

XVII. mendearen bigarren zatian, *tu* konfiantzazkoei eta menpekoei (morroi eta laguntzaileei) ematen zitzaien; baina ez haurride, seme-alaba eta gurasoei

[6] Azpimarkatzeko da XVII. mendean *vous* soila ez zela tratamendu gorena edo begirunezkoena. Goragokoari mintzatzeko, honako hiru mailok bereizten ziren begirunezko tratamenduaren barruan (Andry, 1692:404): 1) zeharkako estiloko hirugarren pertsona eta titulua (adibidez, *Plaist-il à Monsieur?*) zen tratamendu goren edo begirunezkoena; 2) ondoren, estilo zuzenari jarraitzen zion «*vous* + titulua» zetorren (adibidez, *voulez-vous, Monsieur?*); 3) eta azkenik, «estilo zuzena baina titulua isilduta» zetorren (adibidez, *Comment vous portez-vous?*), gorteko gizalegearen aurkako tratamendu onartezina.

(Bellegarde, 1697:449). Beraz, erdi- eta goi-mailako gizarte klaseetakoen artean gutxi erabiltzen bide zen *tutoiement* delakoa.

Beraz, itxura guztien arabera, XVII. mendearen bukaerarako *tu-vous* izenordainen gizarte-erabilera nahiko finkatuta eta araututa zegoen; gainera, gorteko gizartea erne zegoen erabilera arautuaren aurka gerta zitekeen edozein saiheste edo urratzeri buruz.

## 2.5. XVIII. mendea

XVIII. mendean ez zen aldaketa handiegirik gertatu frantsesaren erabilerari zegokionez. Hala ere, protestanteen Erreformaren ondorioetariko bat, katoliko eta protestanteak *tutoiement* eta *vouvoiement* zirela medio elkarrengandik bereiztea izan zen: Erromako Elizakoak *vous* tratamenduaz baliatu izan ziren Jainkoari zuzentzeko eta protestanteak *tutoiement* delakoaz.

Hortik kanpo, gizarte-klasearen arabera banatuta jarraitzen zuten tratamendu-usarioek. Behe-mailakoen artean *tu* izaten zen tratamendu orokorra eta goi-mailakoen artean *vous,* maitasuna edo hurbiltasuna adierazteko *tu* erabiltzen bazuten ere.

Iraultzarekin batean (1789-V-5), ordura arteko tratamendu-usarioak ere irauli ziren (Aulard, 1914:28; Maley, 1974:32: Brunot, 1966, IX:690). *Tutoiement* zen 1793an Frantziako espiritu eta era demokratikoen tratamendua. Garai horretan (1789tik 1795era bitartean) *tutoiement* derrigorrezkoa zen gaztearen eta zaharraren artean, ikaslearen eta maisuaren artean eta etxeko zerbitzariaren eta etxeko andrearen artean; ministro bati mintzatzean ere, hasierako *citoyen ministre* agur-hitzak salbu, *tu* erabili beharra zegoen. Usario horiek Robespierreren agintealdi guztian iraun zuten eta *vous* begirunezkoa ez zen azaldu berriro harik eta Robespierreren peko *izualdia* bukatu arte. 1795eko urriaren 26an Konbentzioa eta Komitea deuseztu ziren eta eurekin batera lehengo usario *tu*zale derrigorrezkoak.

## 2.6. XIX. mendea

Frantziako Iraultzak, beraz, ez zuen lortu *vouvoiement* lurperatzea. Inperioaren garaian (1804-1815) eta Errestaurazioan bereziki (1815-1840) Iraultza Frantzesaren aurreko egoerara itzuli zen tratamenduen arloan.

Iraultza-denborako *tutoiement* zabalaren ondorioz edo (Ford, 1974:1149), XIX. mendearen erdian edo bukaeran familien arabera, guraso eta seme alaben artean goitik beherako *tu-vous* asimetria hedatu zen eta zerbitzariekin *vous* simetrikora itzuli zen. Garai horretakoak dira lehen saioak guraso eta semealaben artean *tu* elkarrekikoa zabaltzeko. Bestalde, *vous* simetrikotik urruntzearren eta klase-desberdintasunak azpimarkatzearren, etxeko jaun-andreek hirugarren pertsonako tratamendua (*Monsieur, veut-il me permettre de lui faire une*

*observation?*) ezartzen zieten beren zerbitzariei. Bestalde, sexuak paper garrantzitsua jokatzen zuen XIX. mendean: *tutoiement* batez ere sexu bereko adiskideen artean gertatzen zen, baina ez gizon eta emakume adiskideen artean, halako erabilera sexuzko harremanaren ezaugarritzat hartzen baitzen artean. XIX. mendearen bukaera aldera *tutoiement* elkarrekikoa ohizkoa zen senar-emazteen artean, eta baita armadako kideen, adiskideen eta haurren artean ere. Batzuetan *tu* biziki beheragokoekin ere erabiltzen zen. XIX. mendearen hirugarren herenerako, *tutoiement* elkarrekikoa zen ohitura guraso eta seme-alaben artean (Dauzat, 1912:173).

## 2.7. XX. mendearen lehen zatia

Hona hemen, tratamenduzko joera nagusiak XX. mendearen lehen herenean, C.M. Robert (1917) eta K.R. Nyrop (1925) ikertzaileek bildutako emaitzen arabera.

Erdi- eta behe-mailako gizarte-klaseetako senar-emazteen artean *tu* elkarrekikoa izaten zen araua; hala ere, *vous*, pedantekeriaz edota ardura gehiegizkoaz azal daiteke. Goi-mailako senar-emazteen artean *vous* elkarrekikoa nagusitzen zen jende arrotzen edota zerbitzarien aurrean eta *tu* elkarrekikoa bakarrean edo hurkoen aurrean. Klase-bereizketok gorabehera, «il est cependant hors de doute que le tutoiement entre mari et femme est devenu général.» (Robert, 1917:85; ikus baita Nyrop, 1925, V:236). Ezkongaien artean *vous* elkarrekikoa zen ohitura, *tu* elkarrekikoa hurbiltasun handiegiaren adierazgarri gertatuko zen eta. Guraso eta seme-alaben artean *tu* elkarrekikoa zen legea, aristokrazia, militarren eta burgesia zaharraren ohiturak gordetzen zituzten handikien familietan ezik; hauetan, seme-alabak *vous* izenordainaz zuzentzen zitzaizkien gurasoei eta alderantzizko zentzuan *tu* izaten zen ohitura. Aitagin-amaginarreba eta suhi-errainen artean *vous* elkarrekikoa zen araua. Neba-arreben artean *tu* elkarrekikoa zen ohizko tratamendua eta berebat gertatzen zen haurren artean. Zerbitzariaren eta haurraren artean *vous* elkarrekikoa erabiltzen zen. Maisu-maistrek *tu* esaten zioten ikasle gaztetxoari eta *vous* adineko ikasleari; alderantzizko zentzuan, *vous* zen edozein kasutan irakasleari zor zitzaion tratamendua. Ikasle txiki eta gaztetxoen artean *tutoiement* zen legea, baina adinekoen artean *vouvoiement* begirunezkoa, helduen artean bezalaxe. Adiskideen artean *tu* elkarrekikoa izaten zen ohizkoa, baina horrek ez du esan nahi *vous* ezinezkoa zenik. Biak ziren posible ñabarduraren arabera, baina oro har *vous* mintzamolde zainduari zegokion eta *tu* lagunartekoari. *Vous* zen legea etxeko zerbitzariekin eta huts barkaezina *tutoiement.*

Soldaduen artean honako bereizketa hauek egin daitezke: a) tropako soldaduen artean *tu* elkarrekikoa erabiltzen zen; b) soldadu eta beraren nagusiagoen artean edota ofizial eta beraren nagusiagoen artean *vous* elkarrekikoa.

Beraz, XX. menderako nahiko garbi somatzen da *vouvoiement* tratamenduaren atzerakada.

## 2.8. XX. mendearen bigarren zatia

XX. mendearen bigarren zatiari dagokionez, Maley-k (1974) frantses gazteriaren artean egin zuen ikerketaz baliatuko gara bereziki. Ikerketa aspaldi (1969) burutu zen arren, garai hartako ikasle gazteen (9-12 eta 13-19 urte bitartekoen) joerari oso adierazgarri deritzogu, emaitza horiek neurri handi batean geroagoko bilakaeraren zantzua dakarkigutelako.

Aitona-amona eta biloben artean, *tutoiement* elkarrekikoa da joera nagusia; simetriarik eza (T/V=*tu/vous*) gutxitan gertatzen da eta *vous* elkarrekikoa are gutxiagotan. Era berean, *tu* elkarrekikoa familiaren eremuko hurrengo harremanetan gailentzen da: guraso eta seme-alaben artean, lehen eta bigarren mailako gusu-gusinen artean, osaba-izeben eta iloben artean, aitabitxi-amabitxien eta semebitxi-alababitxien artean eta koinatu-koinaten artean. Beraz, familian oro har T-T tratamendu simetrikoa gailentzen dela ematen du, senide hurbilak izan edo urrutikoak izan (Maley, 1974:67 68). Lambert eta Tucker-en ikerketak (1976:60-75) ondorio berberak baieztatu zituen.

Familiaren eremutik kanpo, emakume eta gizon (zaharrago) ezagunekin zaharragoaren aldeko *tu-vous* asimetria gertatzen da gehienetan. Emakume eta gizon zaharrago ezezagunekin, ostera, *vous* elkarrekikoa da aukera nagusia. Neska edo mutil ezezagun gazteagoekin *tu* elkarrekikoa gailentzen da gehienetan.

Ikasgelako irakasleekin, *vous* elkarrekikoa da aukera nagusia 13-19 urte bitartekoen arabera eta T/V asimetria gaztetxoen arabera (9-12). Dena den, kontu honetan Maleyren emaitzak zaharkituta geratu bide dira, zeren aspalditik jasota baitago irakasleei ere *tu* zuzentzeko joera (Calvetek,1976:16).

Fordek (1974) Frantziako Iraultza eta 1968ko Maiatza konparatu ditu, esanez aldi bietan, epe luzerako aldaketa sakonen hazia erein zuen *status quo*aren iraulketa iragankorra gertatu zela. Autore honen ustez, 1968ko maiatzeko giroan asko zabaldu zen T ikasle, lantegietako langile, alderdi politikoetako kide, *hobby*ren bat konpartitzen zutenen artean eta bide edo bidaikide suertatzen zirenen artean. Orduko erabilera ausart eta arbuiozko asko joan ziren, baina iraulketa haren ondoriozko beste batzuk geratu dira: harrezkero, bigarren irakaskuntzako ikasleen artean eta adin horretako gazteen artean, T zabaldu zen ikaskideen kide edo lagunen lagun ezagutu berriekin (mutilen artean lehenik, nesken artean geroago eta neska-mutilen artean azkenik); areago oraindik, harrezkero, ikastegi berean egote hutsa edo «gaztetasun» hutsa, ezagutzak egin gabe edo aurkezpenik gabe, nahikoa izan daiteke gazteek elkarrekin T-T erabil dezaten.

Etxeko zerbitzariekin, gizon nahiz emakumeekin, harremanak T/V nahiz V/V binakoen bidez gauzatzen dira eta erantzun duten gazteen adina igon ahala, nagusien arteko ereduari jarraituz, harremana gero eta gehiago makurtzen da V-V simetriaren alde. Jakina, adiskideen artean *tu* elkarrekikoa da nagusi.

Adinak eragina du ondorengo zentzuan: alde batetik, hiztuna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta aiseago eta gehiago baliatzen da *tu* tratamenduaz bere adineko ezagun eta ezezagunekin.

Sexuari dagokionez, badirudi oro har neskek mutilek baino joera handiagoa dutela *vous* erabiltzeko; eta alderantzizko zentzuan ere neskei mutilei baino maizago mintzatzen zaie *vous* tratamenduaz (Lambert eta Tucker, 1976:74).

Jatorri edo inguru hiritar edo baserritarrari bagagozkio, baserri-girokoen artean T/V asimetriak aiseago gertatzen direla ematen du.

Orain, lehenagoko garaietan ez bezala, gizarte-klasea ez da aldagai erabakigarria tratamenduari begira.

Testuinguruak, zer esanik ez, garrantzi izugarria du. Gazteen arteko *tutoiement* ez da orokorra eta zenbait testuingurutan (dendan, neska saltzailearekin edo metroan ikuskatzailearekin) *vouvoiement* azaltzen da, horrelakoetan «gazte-izate» hutsaren gainetik, bakoitzaren unean uneko gizarte-zeregina dagoelako eta kontrako jokaerak gaizki-ulertuak sor ditzakeelako. Eta alderantziz, beste testuinguru edo jarduera batzuetan *tutoiement* berezkoa izaten da; hala gertatzen da politikan alderdi batzuetan (aspalditik komunistan, adibidez), motorista, mendizale edota txirrindularien artean elkar ezagutzen ez badute ere (Calvet, 1976:15). Errefrau askotan ere *tu* azaltzen da.

Roland Barthesek (1971) esan duenez, «Les signes doivent être maniés *sur fond neutre*, et en français le vouvoiement est ce fond»; beraz, frantsesezko publizitatean, *vous* «bigarren pertsonaren maila zeroa» dela esan genezake eta *tu*k beste formarekiko aurkakotasunaz hartzen du esanahia. Ondorioz, frantsesez familiaren eremutik kanpo, oro har, *tu* dateke oraindik forma markatu eta adierazkorra, *vous*en neutraltasunaren eretzean, adiskidetasun, harreman estuak eta era askotako kidetasunak adieraztekoa eta *vous* forma neutroa, harreman berrien hasieran erabiltzekoa (Bryan, 1972: 1010). Dena den, joera orokor horrek salbuespen ugari izan ditzake, adin, talde, inguru eta testuinguru konkretuetan *vous* forma markatu bihurtuz (Calvet, 1976:16). Tratamenduen erabilera, etengabe aldatzen ari den zerbait da eta belaunaldi berrien oldarraz baliteke *vous*en neutraltasunetik *tu*ren neutraltasuneranzko bilakaera uste baino aurreratuago egotea.

Ondorioz, XIX. mendearen bukaeraz geroztik joera-aldaketa garrantzitsua somatzen da tratamenduen arloan, eta gizarte-mailaren ordez hurbiltasuna edo etxekotasuna («familiarity») nagusitzen dira aldagai eragile funtsezko gisa. Joan zen mendearen bukaeratik hona, *vous* tratamenduak hurbiltasunik eza eta *tu*k hurbiltasun edo etxekotasuna adierazten dute. Joera hori areagotuz joan da XX. mendean eta etxekotasunean oinarritutako *tutoiement* delakoa eremu gero eta handiagoa bereganatuz joan da[7]: oraingo gazteak «esku-zabalagoak» izaten

[7] Jakina, frantsesa hedapen handiko hizkuntza izanik, asko aldatzen dira tratamendu-usarioak lurralde batetik bestera. Kanadan, esate baterako, *tutoiement* delakoaren aurrerakada astiroago dator kontinenteko frantsesean baino.

dira *tu* erabiltzerakoan, batez ere, adin edota sexu berekoen artean eta kidetasunen bat konpartitzen dutenen artean (lankide, ikaskide, *club*-kide, alderdikide, erlijiokide edo lanbidekideen artean...).

## 3. TRATAMENDUAK ITALIERAZ

### 3.1. Solaskideari zuzentzeko tratamendu-izenordainen bilakaera

Italiera zaharrean ere, inguruko hizkuntza erromantzeetan bezalatsu, *voi* begirunezkoa sartu zen begirunea adierazteko. Itxura guztien arabera, italierak XIII. mendearen bukaerarako *tu/voi* aurkakotasunean oinarritutako tratamendu-sistema gorabeheratsua bereganatua zeukan. Sistema hau ez zen bat ere egonkorra hasiera batean eta XIV. mendera arte itxaron behar da halako egonkortasuna lortu arte.

XV. mendean izen abstraktuez osatutako begirunezko formula hanpatuak (*vostra signoria...*) ugaldu ziren eta haiekin batera *voi* begirunezkoaren erabilera ere erabat indarrean egon zen; garaiko eleberrigintzak *voi*ren erabilera zabala ispilatzen du gizarte-maila gehienetan. Joera hau, hurrengo mendean aregotu egin zen, harik eta lagunarteko hizkeran *voi* begirunezko tratamendu guztiz normala bilakatu arte. XVI. mendera arte kortesiazko izenordain bakarra izan zen *voi*ren «higadura» sozial honek berebiziko garrantzia izan zuen tratamendu-sistemaren bilakaeran eta berregituraketan.

XV eta XVI. mendean italieraz begirunea adierazteko bi sistema kontrajarri eta bereiziak zeuden: alde batetik, ofizialtasun edo formaltasunaren maila hanpatua [+hanpadura] zegoen, «*vostra signoria* + A3s» sekuentziaz; beste alde batetik, begirunearen maila pragmatiko, normal edo arrunta [-hanpadura] zegoen, «*vostra signoria* + A3s/A2p» eta «*voi* + A2p» sekuentziez osatua.

Tratamenduen bilakaera ez zen horretan gelditu, hala ere. XV eta XVI. mendean baliabide berri bat sartu zen tratamendu-sisteman: begirunezko izen-esapideen pronominalizazioa, hain zuzen. Urrats berria, *vostra signoria* eta antzeko esapideen zabalkundeari lotua dago. Behin testu batean *Signoria, Magnificenzia, Eccellenza...* tankerakoak erabiliz gero, nahiko logikoa zen geroago (aurrerako pronominalizazioa) haien ordez *quella (Quella)* erakuslea edo *ella (Ella), essa (Essa)* pertsona-izenordainak erabiltzea. Izenordain femenino hauen erabilera XV. mendearen bigarren zatian hasi eta hurrengo mendean zehar finkatu zen. Eta hain zuzen ere, orduantxe, *quella* eta *ella* izenordain femeninoak sortuak zirela, garatu zen begirunezko izenordain berria: *lei. Lei*ren erabilera nominatiborako XIV. mendeaz geroztik dokumentatuta dago eta XVI. mendean zabaldu egiten da. Ageri denez, *lei* izenordain berriaren sorrera pronominalizazio bikoitz baten ondorioa da: 1) lehenik, *ella, quella, essa* testubarneko balio anaforikoaz *vostra signoria* eta abarren ordainetan sartu ziren

(*vostra signoria* → *ella, quella, essa*); 2) eta bigarrenik, *lei* kasu zehiarra *ella* nominatiboaren ordez zabaldu zen, solaskidea aipatzeko (*ella, quella, essa* → *lei*). Edozein modutan, bilakaerak jatorri jasoa du, hizkera idatziari lotua agertzen delako («paper and pencil performance», Brown-Ford, 1961).

XVI. mendearen bukaera aldera beste pronominalizazio bat burutu zen, izen-esapide abstraktuetatik abiatuta (*Vostra Signoria* → *vossignoria*). XVIII. mendean *vossignoria* eta *ella, lei* nahiko parekoak baziren ere, *ella* zerbait jasoagoa zela dirudi: gizonek *ella* zuzentzen zieten emakumeei eta berauengandik *vossignoria* jasotzen zuten. Beraz, *ella*, bere jatorri idatzi eta formalagatik tratamendu-izenordain hanpatua zen eta *vossignoria* tratamendu apalxeagoa bere ahozko jatorriagatik agian.

Ondorioz, XVIII. mendea zeharkako alokuzio-izenordainak hedatu ziren garaia da: izen-esapide abstraktuen ordezko $ella_2$, $quella_2$, $essa_2$ deiktikoekin eta *vossignoria, vossuria* izenordainekin batera, *lei* [+nominatiboa] begirunezkoaren idatzizko eta ahozko erabilera gero eta zabalagoa da emaitzarik garrantzitsuena. XVIII. mendearen bukaerarako edo XIX. mendearen hasierarako bukatutzat eman daiteke *lei* formaren pronominalizazioa begirunezko izenordain gisa. Une horretatik aurrera (XIX. mendearen bigarren zatia), italierazko tratamendu-izenordainen sistemaren finkatzea burutu dela esan daiteke (Niculescu, 1974:118).

Pluralean, bestalde, *loro* (3pl.) izenordain begirunezkoaren sorrera aipatu beharra dago. *Loro*ren sorrerak tratamendu-bereizketa ezarri zuen neutralizazioa zegoen lekuan, pluralean alegia: ordura arte *voi* zen solaskide-multzo bati zuzentzeko era bakarra eta *loro* pluraleko izenordain begirunezko eta markatuaren hutsunea betetzera etorri zen. *Loro* tratamenduak, *lei* baino gutxiagotan erabiltzen den neurrian, begirunezko kutsu markatuagoa du; izan ere, *lei* begirunezkoaren plurala *voi* izan daiteke eta *loro*, solaskide-multzo bati zuzentzeko forma markatua, menpekotasunezkoa gehienetan.

XV-XVII mendeetan tratamendu-sistemaren berregituraketak *voi* forma bigarren mailara bultzatu zuen eta apurka-apurka bazterrean geratuz joan zen. Hala eta guztiz ere, garai berean bazegoen *voi* begirunezkoaren bestelako erabilera bat, herrikoia: batzuentzat *voi* kortesia edo begirune hanpatugabeari zegokion tratamendua zen eta senide, adiskide eta ezagunekin erabiltzen zuten; *voi*, era berean, senitartekoekiko gutun pribatuetako tratamendua zen. Gauzak horrela, batzuentzat *voi* begirunezko tratamendu apalena baitzen, konnotazio txarreko *voi*ren erabilera berriak sortu ziren ($voi_2$): *voi* nagusitasunezkoa (goragokoak azpikoari emana), *voi* errespetu gutxikoa, *voi* herrikoia... Menpekotasunezko $voi_1$ (goragokoari zuzendua) eta nagusitasunezko $voi_2$ (azpikoari zuzendua) bikotearen sorrera, batera gertatu ziren beheko tratamendu-eredu bien arteko lehiaren ondorioa da:

(1)

| 2. pertsona pluralekoa |
|---|
| 2. pertsona singularrekoa |

(2)

| 3. pertsona |
|---|
| 2. pertsona |

*Voi*$_2$ren sorrera, bi ereduen arteko interferentziaren erakusgarri ona da. XV-XVII mendeetan bi ereduak uztartu egin ziren eta horrela, hurrengo sistema hirukoitza sortu zen:

(3)

| 3. perts. sing. (*vostra signoria...lei*) [+begirunea, +hanpadura] |
|---|
| 2. perts. plur. (*voi*) [+begirunea, -hanpadura] |
| 2. perts. sing. (*tu*) [-begirunea] |

Sistema hirukoitz hau XVIII. mendean finkatu zen.

XVIII. mendetik aurrera, tratamendu-sistemaren bilakaera *voi* izenordainaren zorteari lotua dago: Italia osoan ezaguna izanda ere, atzeraka hasi zen hizkera herrikoi eta lagunartekoan. Gaur egun, *voi*ren erabilera, lurraldearen araberako banaketari lotua dago neurri handi batean: Italiaren hegoaldeko dialektoetan, *voi* da oraindik begirunezko izenordain bakarra; iparraldeko dialektoetan, berriz, *voi*ren erabilera oso mugatua da, sarritan gutxiespenezko edo amorraziozko konnotazioez hornitutako erabilera markatua. Italiera estandarrean, aldiz, *voi* nekez erabiltzen da.

### 3.2. Tratamendu-izenordainen banaketa dialektala

Honako hiru eredu nagusiok agertzen zaizkigu dialektoen arabera (Niculescu, 1974:73-74):

(1)

| 3. pertsona sing. (*lei*) |
|---|
| 2. pertsona sing. (*tu*) |

(2)

| 2. pertsona plurala (*voi*) |
|---|
| 2. pertsona sing. (*tu*) |

(3)

| 3. pertsona sing. (*lei*) |
|---|
| 2. pertsona plurala (*voi*) |
| 2. pertsona sing. (*tu*) |

($3_1$)

| 3. pertsona sing. (*vossignoria, vossia...*) |
|---|
| 2. pertsona plurala |
| 2. pertsona sing. |

(4)

| *ssignirì* + 2 pertsona sing. |
|---|
| *tu* + 2. pertsona sing. |

(3) eredua honako lurraldeetan agertzen zaigu: iparraldeko Italia, Emilia Romagna eta Toskana. Toskana eta Emilia-Romagnan, gainera maila gorenean *lei<ella* bereizketa dute.

($3_1$) eredua, Siziliakoa da, maila gorenean bereizketa soziokulturalak dituztela: *voscenza* > *vossia* > *vossignoria.*

(2) eredua, Italiako erdi eta hegoaldeko dialektoena da.

Abruzzin, azkenik, (4) (*ssignirì/tu*) eta (2) (*voi/tu*) ereduak agertzen zaizkigu batera, soziolektoaren arabera.

Bestalde, gaineratu beharra dago *lei* dela gaur egungo italieraz tratamendu izenordain begirunezko estandarra; Toskanatik hizkuntza orokorrera pasa zen eta egun, gehiago edo gutxiago, dialekto guztietara zabaldu da. Beraz, nonahiko hiztun italiar ikasiak, ahozko hizkeran zein idatzian, erabiltzen duen kanpotikako tratamendua da.

### 3.3. Tratamenduen erabilera: aldagai soziolinguistiko erabakigarriak

Brown eta Gilmanek (1960) erabilitako galde-sortaren antzeko batez baliaturik, adina (15-35/45-65), sexua eta gizarte-klasea aldagaien garrantzia argitu

nahi zuen ikerketa interesgarri bat burutu zen Erromako 117 biztanleren artean (Bates; Benigni, 1975). Aipatutako ikerketaren arabera, adina eta gizarte-klasea uztartuta daude ondorengo zentzuan: goi-mailako gizarte klaseko gazteek tratamenduen erabilera «aurrerakoiaz» bereizten den aparteko taldea osatzen dute; baina ezin da esan jeneralean gazteria aurrerakoi(ago)a denik, tratamenduaren orduan behe-mailako klaseetako gazteek goi-mailako klaseetako helduek baino joera nabarmenagoa baitute formaltasuna gordetzeko. Itxura batean, goi-mailako gazteek gidatu edo bultzatutako *tu* «demokratikoagoaren» aldeko aldakuntza orokor baten aurrean gaude.

Dena den, familiaren eremuan ez zuten aurkitu hainbesteko desberdintasunik adin- eta klase-multzoen artean; hala ere, bada datu aipagarririk. Familian, goi-mailakoen artean T-T omen zen arau orokorra; behe-mailakoen artean, berriz, askoz maizago gertatzen ziren asimetriak.

Azpimarkagarria da *voi* erabiltzen zuten behe-mailako gehienek —jatorriz, nekazari-girokoak edo hegoaldekoak—, *lei* ere erabiltzen zutela, hots, sistema hirukoitza (*tu* < *voi* < *lei*) zutela. Halakoek, familiaz kanpoko harremanetarako gordetzen zuten tratamendu gorena (*lei*), nagusientzat eta ezagun urrunentzat batik bat.

Gazte hiritar askorentzat, *lei* da begirunezko forma bakarra eta erabilgarria, soilik, pertsonen artean «hesiren» bat baldin bada. 1920ko hamarkadan Mussoliniren diktaduraren pean *voi* ezartzeko egin zen saioa gorabehera, gaurko gazte hiritarrek ozta-ozta dute *voi* tratamenduaren oihartzunik.

Aipatutako ikerketaren arabera, badirudi oro har bete egiten dela iritzi politikoak eta tratamenduekiko jokaera lotu nahi dituen harako korrelazio hura: zenbat eta «atzerakoiagoa», hainbat eta formaltasun gehiago tratamenduan. Baina edozein modutan, erlazio hori, salbuespen ugari dituena da eta uste baino askoz korapilatuagoa.

Sexuak, ez dirudi paper garrantzitsua jokatzen duenik; edozein kasutan, adinak, iritzi politikoak eta gizarte-klaseak baino askoz garrantzi gutxiago bide du (Bates; Benigni, 1975:281).

Bestalde, aipatutako ikerketak baieztatu egin zuen italierarentzat Brown eta Gilmanen (1960) hipotesi nagusia, tratamendu asimetrikoen (T/V) desagerpena iragartzen zuena. Asimetriazko kasuak oso bakanak dira eta gehienbat familiaren esparrura mugatuak (guraso eta aitona-amonekin). Familiatik kanpo, azpimarkatzekoa da zaharrenganako errespetuak erabat neutralizatzen dituela mailazko desberdintasunak: horrela, asimetriarik gertatzekotan zaharragoaren alde gertatzen dira (neskame zaharraren alde, adibidez) eta nekez maila edo estatusaren arabera (Bates; Benigni, 1975:285). Beraz, solaskideen artean mailazko desberdintasun soila dagoenean (bezero/zerbitzaria, langile/ nagusia...), *lei* elkarrekikoa nagusitzen da. Gizarte-klasearen arabera, honako hau da desberdintasun nagusia: behe-mailakoek V-V (*voi-voi* edo *lei-lei*) erabiliko luketen kasu anitzetan, goi-mailakoek (gazteek batik bat) T-T erabiliko lukete.

Parametro berberak erabiliz, oraintsuago egin den beste ikerketa batek (Danesi; Lettieri, 1983: 331) puntu batean zuzendu du aurreko autoreen lana: tratamenduak erabiltzerakoan gordetzaileen edo atzerakoienak ez lirateke behemailako gazteak izango, behe-mailako zaharrak baizik. Izan ere, talde honek gordetzen du ondoen *voi* begirunezkoa (sistema hirukoitza: *tu/voi/lei*) eta bera da beheragoko mailakoekin (zerbitzari eta antzekoekin) asimetriarako joera handiena agertzen duena (T/V=%55). Lortutako emaitzen arabera, italieraz *tu* simetrikoa da ohitura adin berdintsuko adiskide, kide, senide eta ahaideen artean; eta orobat, Jainkoarekin eta Ama Birjinarekin. Bestalde, *voi* begirunezkoaren gainbehera ondorioztatzen dute autoreek: kasurik onenean, hiru italiarretik batek erabiliko luke *voi* begirunezkoa (Danesi; Lettieri, 1983:330). *Lei,* banaketa osagarrian azaltzen da *tu*rekin eta batez ere, ezezagun eta goragoko mailakoekin erabiltzen da. Behe-mailakoen arabera, goragokoekin (nagusiarekin edo unibertsitateko irakasleekin, adibidez) asimetriak gerta daitezke, baina goi-mailakoen arabera *lei* elkarrekikoa litzateke aukera egokia.

Azkenik, pluraleko tratamendu-aukeren auzia argitu beharra dago. Italierazko gramatika eta hiztegi gehienetan singularreko *tu/lei* begirunezko dikotomiaren parean, *voi/loro* bikotea aurkeztu ohi da pluralerako, sistema biribil eta orekatu baten aurrean egongo bagina bezala. Edozein modutan ere, sistema ez da dirudien bezain orekatua; izan ere, solaskide anitzi ematen zaien *loro* begirunezkoa solaskide bakarrari dagokion *lei* baino askoz markatuago eta bakanagoa da; are gehiago, teorian laukote horrezaz [*tu/lei, voi/loro*] osatutako sistemak «perfektoa» dirudien arren, praktikan «hankamotz» geratzen hasi da pluralean, honetan begirunezko aurkakotasuna *voi* bakarraren alde neutralizatzeko joera baitago (Heyman, 1972:62; Sabatini, 1980:112). Ondorioz, gehienetan begirunearen araberako dikotomia bakarra legoke, hots, singularrekoa eta neutralizazioa pluralean (Danesi; Lettieri, 1983:330-331):

| | |
|---|---|
| *tu* [-formala, +singularra]<br>→<br>*lei* [+formala, +singularra] | *voi* [+/-formala, -singularra] |

## 4. TRATAMENDUAK KATALANEZ

### 4.1. Singularreko tratamendu-izenordainen bilakaera: «tu, vós, vostè»

Katalanez latinetiko hizkuntza gehienetan bezala, antzinatik (XIII-XIV) pluraleko bigarren pertsona (*vós*) erabili izan zen solaskide bakar bati errespetua adierazteko. Baina alde batetik, beste hizkuntza hispaniarretan (espainieraz, portugesez) ez bezala, *vós* izenordainak ez zuen galdu bere balio begirunezkoa; eta beste alde batetik, *vostra mercè* izen-esapidetik eratorria den begirunezko

bigarren izenordain bat ere garatu zuen geroago (XVII), *vostè* forma ( < *vostra mercè*), hain zuzen ere (ik. Guiter, 1959; Montagut, 1973).

Gaurko hizkuntzalarien iritziz (Vallverdú, Buxó, Coromines), lagunartekoak ez diren bi izenordainak (*vostè/vós*) solaskide desberdinei ematekoak dira eta ez solaskide berari konfiantzaren arabera ematekoak (Robinson, 1978:50; 56). XX. mendean, Antoni M. Alcover (1930) eta Pompeu Fabra (1912) hizkuntzalari handiak bat datoz *vós*en bitarteko lekua azpimarkatzerakoan eta M. Grandia da lehena XX. mendekoen artean (*Gramática etimológica catalana,* 1901) *vós*en bitarteko zeregina azpimarkatzeko («tractament i carinyo» adierazteko tratamendu gisa definituz). Edozein modutan ere, kataluniar herrietako *vós* tratamenduak ez zuen ezagutu gaztelerazko *vos*ek izan zuen bilakaeraren antzekorik.

Batzuen ustez, *vostra mercè* berez katalanaren baitatik sortua dateke; beste batzuen ustez, ordea, *vostra mercè,* artean kultura-hizkuntza zenaren, hots, gaztelerazko eredura sortua dateke. Badia i Margarit (1962:168) eta Robinson (1978:52-53) azken iritzi horretakoak dira, iritzi horrek terminoaren erabilera gaitzestera eramaten ez baditu ere («castellanismo universalizado» dio Badiak).

## 4.2. «Vós/vostè» aurkakotasuna: bilakaera eta lekuzko banaketa

Zenbait ikerlarik (Badia i Margarit, 1974; Vallverdú, 1973; Riera, 1935) ingurunea azpimarkatu dute bi izenordainen banaketa azaltzerakoan: hizkuntzalari hauen arabera, *vós* herri nekazarietako tradiziozko forma begirunezkoa dateke eta *vostè* jatorri hiritarreko berrikuntza[8].

Vallverdú (1973) eta Buxóren (1973) ustez, gizarte-klasea edo gizarte-papera da aldagai erabakigarria bi tratamendu hauen erabileran: *vós,* jaiotzezko ezaugarrietan, adinean batik bat, oinarritutako begirunea agertzeko erabiltzen da eta *vostè,* ordea, solaskidearen gizarte-zereginean oinarritutako begirunea agertzeko. Corominesek, ordea, ez du ingurunean bilatzen *vós* eta *vostè*ren arteko bereizketa, forma bakoitzaren berezko eduki semantikoan baizik: hizkuntzalari honen ustez, *vós* «adiskidetasunezko begirunea» adieraztekoa dateke eta oso egokia da lankideen artean edota erlijiozko anaidi batzuetako kideen artean, sexuzko, adinezko edota gizarte-mailako diferentzia nabarmenik ez badago; *vostè*-k, aldiz, «tartea» baizik ez du adierazten eta batzuetan indiferentzia edo hoztasuna[9].

1978an Robinsonek (1978:162) hurrengo adierazpena egin zuen *vós/vostè* bikotearen etorkizunaz: «On the one hand, it is obvious that there has been a spontaneous tendency towards the generalization of *vostè* on the part of the population as a whole since at least the end of the last century. On the

[8] Ik. Badía Margariten azalpena in Badía Margarit (1980:168).

[9] Katalanezko tratamendu-izenordainen azterketa semantikoaren dinamikaz eta gaurko eboluzioaz ikus Robinson 1978 (136-162).

other, as the restrictions on Catalan continue to be lifted and the language comes to be used in an ever greater variety of domains, the national identity motivation for *vós* will reach an increasingly wider audience, perhaps favoring its adoption.»

Azken urteetan, hizkuntza idatzian behinik behin, *vós* bultzatu izan da harreman formaletarako[10].

*Tu/vós/vostè* tratamendu-izenordainen geografiazko banaketa honako hau da, oro har:

Rosselló: *tu/vós;* Katalunia: *tu/vós/vostè;* Valentzia: *tu/vostè*

### 4.3. Tratamenduen erabilera: T-T, T-V, V-T, V-V

Espero zitekeenez, familiaren eremuan T-T eta V-T motakoak dira harreman gehienak, solaskidearen adinak berebiziko garrantzia izanik. Oro har, senide zaharragoekin V-T izan da orain arteko araua, baina joera hori zenbait harreman esturen kasuan apurtzen hasi dela ematen du. Familiako kidekoekin (koinatu-koinaten artean, senar-emazteen artean...) T-T izaten da aukera ia-ia segurua.

Familiaz kanpo ere, beste aldagai batzuekin alderatzen bada (sexua, estatusa...), solaskidearen adinak jokatzen du paperik garrantzitsuena. Betidaniko auzoko zaharrarekin, adiskide baten aitarekin eta abade zaharrarekin asimetria (V-T) da aukera nagusia. Neskame zaharrarekin eta maistra zaharrarekin V-V da adinekoek nagusiki egiten duten aukera eta V-T gazteek egiten dutena; neskame gaztearekin eta maistra gaztearekin, ostera, T-T da gazteen joera. Lankide hamar urte zaharragoarekin V-V izaten da tratamendua adinekoen artean eta T-T gazteen artean. Gainerako harremanetan (nagusi zaharragoa, unibertsitateko irakasle zaharra, nekazari zaharra mendiko herri batean...), adinezko diferentziak asimetriak eragiten dituen arren, V-V izaten da gailentzen den bikotea. Lankide eta adiskideekin, mailazko edota sexuzko desberdintasunak izanda ere, T-T izaten da nagusitzen den aukera.

Labur bilduz, etxekoen eta senideen eremutik kanpo, ez da asimetria garrantzitsurik sortzen adinaren aldeak eraginda ez bada. Sexuak ez du eraginik ia-ia eta estatusak ez du V-T eragiteko bezainbesteko pisurik, ezta gutxiagorik ere. Ezezagunekin V-V izaten da ohizkoa eta adin berdineko lankide, nagusi eta adiskideekin T-T. Jainkoari eta Ama Birjinari V (*vós*) ematen zaio nagusiki.

Emaitzak, Brown eta Gilmanek iragarritako hipotesiak (simetriaranzko joera eta T-Tranzko joera) baieztatzera datozela pentsa daiteke: belaunaldi gazteen eraginez, pixkana-pixkana, T-T aukera gero eta eremu zabalagoak bereganatuz joango da (Robinson, 1978:105-106).

[10] Hizkera juridiko-administratiboari dagokionez, ik. Duarte; Broto i Ribas (1990:18).

### 4.4. Tratamenduak solaskide batekin baino gehiagorekin aritzean

Lurraldez lurralde honako hauek dira hiztunak solaskide bakar bati edo bati baino gehiagori zuzentzerakoan eskura dituen tratamendu-izenordainak (Robinson, 1978:163):

| Bartzelona, Katalunia | | Valentzia | | Rosselló | |
|---|---|---|---|---|---|
| II | II' (plurala) | II | II' (plurala) | II | II' |
| *tu* | *vosaltres* | *tu* | *vosaltres* | *tu* | *vosaltres* |
| *vós* | | //// | | *vós* | |
| *vostè* | *vostès* | *vostè* | *vostès* | //// | //// |

Ikus daitekeenez, gehienez ere pluralean singularrean bezainbeste tratamendu-aukera gerta daitezke (Valentzia), baina gehienetan tratamendu-aukera gutxiago egoten dira. Badirudi joera hori hizkuntza-unibertsaltzat jo daitekeela (Robinson, 1978; Head, 1978).

## 5. TRATAMENDUAK PORTUGESEZ

### 5.1. Tratamenduen bilakaera: eskema (Cintra, 1972:106-108)

A) Portuges zaharra (XIV. mendera arte):

Singularrean:
Hurkotasunari lotua: *tu* (A2s.)
Begirunezko forma: *vós* (A2pl.)

Pluralean:
Forma neutroa: *vós* (A2pl.)

B) Portuges klasikoa (XV-XVIII, XVIII. mendearen lehen zatia):

Singularrean:
Hurkotasunari lotua: *tu* (A2s.)
Begirunezko formak: *vós* (A2pl.)
*vossa mercê/vossa senhoria/vossa alteza/vossa majestade/vossa excelência/ vossa reverência/...* + (A3s).

Pluralean:
Forma neutroa: *vós* (A2pl.)
Begirunezko forma: *vossas mercês...* (A3pl.)

C) Portuges modernoa (XVIII.mendearen bigarren zatiaz geroztik):

Singularrean:

Hurkotasunari lotua: *tu* (A2s.)

Begirunezko formak (+A3s.):

a) *vossa mercê/você/vossa senhoria/vossa alteza/vossa majestade/vossa excelência/vossa reverência/...*

b) *o senhor, a senhora/o senhor doutor/...o senhor director.../o senhor ministro.../o senhor presidente/*

c) *o Antonio, o Sr. Antonio, o Sr. Dr. Antonio, o Sr. D. Antonio/a Maria, a D. Maria, a Sr.ª Maria, a Sr.ª D. Maria, a Sr.ª Dr.ª D. Maria/*

d) *o pai, a mâe, o avô, o avó, o tio... o meu filho...*

e) *o meu amigo, o patrâo, o cavalheiro, a «madame»...*

f) Hirugarren pertsonako adizkera («zero» izenordaina)

Pluralean:

Forma neutroa: *vós* (A2pl.)

Begirunezko formak:

a) *vossas mercês...* (A3pl.)

b) *os senhores...*

c) *os pais, os avós...*

d) *os meus amigos...*

e) 3. pertsonako adizkera

## 5.2. Tratamenduak gaur egungo portugesean

Europako hizkuntza modernoetariko batean mintzatzen den hiztunaren ikuspuntutik, tratamendu-sistema korapilatua izatea da portugesaren bereizgarrietariko bat.

Cintrak (1972), Portugalgo hiri handietako goi-mailako jendearen hizkerara mugatuz, honela sailkatzen ditu tratamendu zuzenean edo alokuzioan —hau da, ez bokatibo gisa, baizik eta enuntziatuko subjektu gisa— erabiltzen diren forma nagusiak:

1. Tratamendu-izenordainak:

| | |
|---|---|
| *tu* + 2s. | *vós* + 2pl. |
| *você* + 3s. | *vocês* + 3pl. |
| *V. Ex.*$^{A}$ + 3s. | *VV. Ex.*$^{AS}$ + 3pl. |

2. Tratamenduzko izen-esapideak (+3.pertsona aditzean):

| | |
|---|---|
| A) | |
| *o senhor/a senhora* | *Os senhores/as senhoras* |
| B) | |
| *o/a senhor/-a doutor/-a* | *Os/as senhores/-as doutores/-as* |
| *o senhor engenheiro* | ... |
| *o senhor arquitecto* | ... |
| ... | |
| *o senhor director* | |
| *o senhor reitor* | |
| ... | |
| *o senhor Ministro* | |
| *o senhor Presidente da República* | |
| C) | |
| *o Antonio/ a Maria* | |
| *o/a senhor/-a Antonio/Maria* | |
| *o/a sr./-a dr./-a Antonio/Maria* | |
| *o/a senhor/-a D. Antonio/Maria* | |
| ... | |
| *o Sousa* | |
| *o senhor Sousa* | |
| *o senhor doutor Sousa* | |
| D) | |
| *o pai/a mâe* | *os pais* |
| *o avô/a avô* | *os avós* |
| *o tio/a tia* | *os tios* |
| ... | ... |
| *o menino/a menina* | *os meninos/as meninas* |
| *o meu filho/a minha filha* | *os meus filhos/as minhas filhas* |
| *o meu neto/a minha neta* | *os meus netos/as minhas netas* |
| E) | |
| *o meu amigo* | *os meus amigos* |
| *o patrâo* | |
| *o cavalheiro* | *os cavalheiros* |
| *a «madame»* | |
| ... | |

3. Tratamenduzko aditzak (aditz soila, subjekturik gabe):

| | |
|---|---|
| 2s.: *Queres* ir passear? | 2pl.: Nâo *queirais!* |
| 3s.: *Quer* ir passear? | 3pl.: Nâo *queiram!* |

Aurrera baino lehen, bigarren saileko tratamenduzko izen-esapideen izaera pronominala azpimarkatu beharra daukagu, berau baita portugesak duen tratamendu-sistemaren bereizgarrietariko bat.

Bigarren bereizgarria aurrekoaren ondorioa da eta tratamendu-sistemaren egiturari dagokio. Hizkuntza erromantze gehienetan egun singularrean bi tratamendu-maila bereizteko joera dago; portugesez, berriz, *gutxienez* hurrengo hirurak leudeke singularrean (Cintra, 1972:15):

| | |
|---|---|
| 1) Hurkotasuna adieraztekoak | *tu* |
| 2) Berdinen artean erabiltzekoak (edo goitik behera) eta hurkotasunik adierazten ez dutenak | *você* |
| 3) Begirunezko tratamendu mailakatuak | a) *o senhor/a senhora*<br>b) *o/a senhor/-a doutor/-a*<br>c) *o Antonio/ a Maria*<br>d) *o pai/a mâe*<br>e) *o meu amigo* |

Medeirosek. Honela izendatzen eta sailkatzen ditu portugesezko tratamenduak (Medeiros, 1985:41-42):

a) izenordain «hutsak» (tratamendu-izenordainak)
b) «pro-izenordainak» (=tratamenduzko izen-esapideak)
c) «zero» forma (=3. pertsonako adizkera soila, izenordainik gabe)

Dena den, hiztun guztiak ez dira baliatzen tratamendu guztiez. Beraz, hiztunen arabera, tratamendu-sistema bakunago edo korapilatuagoak gertatzen dira. Denetarik hurrengo mailak dira hiztun gehienek «prest», «eskura» dituztenak:

1) *tu, você,* hirugarren pertsonako adizkera soila (A3s.), *senhor, senhor* + deitura (D), *senhora, dona* + izen ttipia (IT), *menino, menina.*

Ondoren, aurreko sistema bakuna osatzera datozenak ditugu:

2) *senhora dona* + IT, *senhor/-a doutor/-a, doutor* + D, *doutora* + IT eta lanbide- edo kargu-titulu batzuk.

Azkenik, idiosinkratikoenak edo «arraroenak» datoz:

3) *mestre, vizinho/-a, Vossa Excelência, camarada, ti, mano, vossemecê.*

Alde horretatik, gaurko portugesean dagoen tratamendu-sistema ez da zerbait bukatu eta egonkorra, pixkanaka-pixkanaka eta batez ere goi-mailako belaunaldi gazteen eraginez aldatzen ari den sistema aldakorra baizik. Ildo horretan, Cintrak (1972:34-35) hurrengo bilakaera-joerak somatu ditu:

1) *Vossa Excelência* terminoaren gainbehera, ahozko mintzairan bereziki. Dena den, ahozko hizkeraren ingurune batzuetan, hala nola, akademietan, epaitegietan, diplomazian, lanbide batzuetan (merkataritzan, telefono zerbitzuetan, etab.) eta zer esanik ez, hizkuntza idatzian bizirik irauten du.

2) *Tu*ren eta bigarren pertsonako adizkeren ugaltze nabaria, are sexu desberdineko gazteen artean eta adin desberdinekoen artean ere.

3) *Você* izenordainaren erabilera gero eta zabalagoa, duela gutxi arte izan duen gaitzespenezko kutsurik gabe, noski. Bestalde, *tu* zabaldu ahala eta hurkotasunezko zentzua galdu ahala, *você* hurkotasunezkoa zabaltzen ari da gazte batzuen artean. Dena den, indartsuagoa iruditzen zaio *tu* zabaltzeko joera, *você* hurkotasunezkoa zabaltzeko joera baino.

4) Izen-esapideek osatzen duten tratamendu-mailadi konplexuaren barruan, aurkakotasunak eta ñabardurak galtzeko joera somatzen du: adibidez, *a senhora Maria* (beheko maila) < *a senhora D. Maria* (goi-maila) aurkakotasuna, termino gorena nagusiaraziz galtzen ari da.

## 5.3. Brasilgo portugesa

Brasilgo portugesaren bereizgarrietako bat, hiri handietan ia-ia *tu* izenordainaren galera eragin duen *você* izenordainaren erabilera orokorra da (Cintra, 1972:11). Beraz, hiri handietako hiztun ikasi eta erdi-ikasien ahozko hizkeran, ondoko tratamendu-sistema bikoitza —kontinenteko portugesarena baino bakunagoa— nagusitu dela dirudi:

| | Sg. | Pl. |
|---|---|---|
| «T» | *você* | *vocês* |
| «V» | *o senhor*<br>*a senhora* | *os senhores*<br>*as senhoras* |

T: «lagunartekoa»; V: «begirunezkoa»

Ikuspegi orohartzaile batetik, goiko eskema baliagarria izan daiteke, baina errealitatea konplexuagoa da: kontinenteko portugesean bezala, aipatutako tratamenduez gain, badira begirunezko balioko (= V) eta *o senhor* formularen tankerakoak diren beste izen-esapide asko (ik. Jensen, 1981:56).

## 6. TRATAMENDUAK ERRUMANIERAZ

### 6.1. Tratamenduen bilakaera eta gaurko sistema

Errumanieraz tratamendu-izenordainen arteko bereizketa ez da gauzatu pertsonako aurkakotasunaren bidez (3. pertsona = +begirunea/2. pertsona = -begirunea), ezta numerozkoaren bidez ere (plurala = +begirunea vs singular = -begirunea) oraintsu arte, XIX. mendera arte. Honelakoa izan bide da errumanierak egin duen bidea (Niculescu, 1974:131):

(1)

| | | |
|---|---|---|
| +begirunea | $DUMNEATA_1$ | A2s |
| -begirunea | *TU* | A2s. |

(2) XIX. mendean:

| | | |
|---|---|---|
| +begirunea | *DUMNEAVOASTRA* | A2pl. |
| -begirunea | *TU* | A2s. |

(3)

| | | |
|---|---|---|
| [+begirunea, +hanpadura] | *DUMNEAVOASTRA* | A2pl. |
| [+begirunea, -hanpadura] | $DUMNEATA_2$ | A2s. |
| [-begirunea] | *TU* | A2S. |

Beraz, errumaniera zaharra berezia da latinetiko hizkuntza gehienen aldean, *vos* begirunezkoa (2pl./2s-begirunezkoa) garatu ez zuelako.

Begirunea adierazteko, *dumneata* (*d-ta* laburduraren bidez emana) forma sortu zen, hots, «hire jauntasuna» (hitzez hitz, *domnia* «jauntasuna» izen femeninoaz eta ta «hire», *tu* izenordainaren edutezko enklitiko femeninoaz osatua) (Pop, 1948:206; Lombard, 1974:121).

Eta XIX. mendean, frantsesezko ereduaren eraginez, pluraltasunera jo zuten begirunea adierazteko. *Dumneata* izen-esapidean, *ta* (< *tu*) enklitikoaren ordez, *voastra* (< *voi*) enklitiko plurala sartuz, sortu zuten izenordain berria: *dumneavoástra* (*d-voastra* laburduraz emana; *dumneavoastre* genitiboan eta datiboan).

Hala ere, baliabide horien ondorioa oso bestelakoa izan da errumanieraz. Lehenengo eta behin, izen-esapideetatik ez da hirugarren pertsonako izenordainik sortu, hau da, ez da pertsona-aldaketarik (3/2-begirunezkoa) gertatu. Beste

alde batetik, hizkuntza erromantze batzuetan sistema hirukoitz batera iritsi denean (it. *tu/voi/lei;* gazt. zaharra, *tu/vos/usted...*), soluziobidea tratamendu gorena [+begirunea, +hanpadura] bultzatzea (gazt. *usted,* it. *lei*) eta bitarteko tratamendua (gazt. *vos,* it. *voi*) galtzen uztea izan da; errumanieraz, bitarteko tratamendua (*dumneata*$_2$) ez da galdu tratamendu hanpatu berriaren bultzadaz; aitzitik, *dumneata* asko hazi da etxekoekiko harremanetan eta lagunarteko hizkeran (*dumneata* > *mata, mataluta...*)[11].

Sinkroniari bagagozkio, mailarik apalena *tu* (+A2s.) da eta lagunartean, etxekoekin eta auzoko hurbilenekin erabiltzen da: adiskideekin, haurrekin eta otoitzetan. Hizkera begiratuan edo kortesiazkoan, berdinekin, gazteagoekin edo beherago mailakoekin *dumneatá* (+A2s.) erabiltzen da, lagunarteko hizkeran *dumeata* bilakatua. Eta maila begirunezkoenean *dumneavoástra* (lagunarteko hizkeran, *dumeavoástra*) erabiltzen da. Berdinekin eta batez ere zaharragoekin eta goragoko mailakoekin edo pertsona batzuekin hitz egiterakoan, *dumneavoástra* erabiltzen da (Lombard, 1974:121).

Ondorioz, bi maila barik, hiru solas-maila bereizten ditu singularrean gaurko errumanierak[12]: *tu* < *d-ta* < *d-voastra.* Pluralean, berriz, bi maila besterik ez dira bereizten: *voi* (A2pl)/*dumneavoastra* (A2pl).

## 7. TRATAMENDUAK INGELESEZ: BILAKAERA

Antzinako ingelesean ez zen bigarren pertsonako izenordain plural begirunezkorik pertsona bakar bati mintzatzeko. Sartaldeko Europako beste hizkuntzen aldean, erabilera hau (V) nahiko berandu dokumentatzen da ingelesez eta, gainera, gorabehera handiekin hasieran. V, ingeles ertainean garatu zen, baina literatura latindar eta frantsesaren (anglo-normandiarren eta anglo-frantsesen) eragina garrantzitsua izan zen garaira arte, hots, XIII. mendearen bigarren zatira arte, plural begirunezkoak ez zuen aztarnarik utzi (Kennedy, 1915:12).

XIV. mendeko ingelesean, bigarren pertsonako izenordain plurala zerbait gehiago erabiltzen da begirunezko tratamendu gisa, baina oraindik berritasun kutsua galdu gabe. Gehienbat, erregezkoei, gurasoei eta, oro har, begirune bereziaz goragokoei zuzentzeko erabiltzen zen. Dena den, XIV. mendean V (*ye* nominatiborako, *you/ye* zeiharrerako...) begirunezkoaren hazkundea nabarmena bada ere, oraindik T (*thou*) da forma erabiliena, ohizkoa edo markatugabea eta V, azaldu beharreko erabilera berezia edo markatua (Stidson, 1917:81).

XVI. mendearen bukaerarako, *you* eta *thou* tratamendu-izenordainen izaera,

[11] Katalanez eta portugesez ere, zalantzazko aldi baten ondoren, bitarteko tratamenduei (kat. *vós;* port. *você*) eusteko joera nagusitu dela dirudi. Niculescuren (1974:132) ustetan, bitarteko tratamenduaren arrakasta errumanieraz «è la prova di una struttura sociolinguistica non-urbana. I pronomi reverenziali sono una covariante della divisione della Romania tra l'*urbanitas* e la *rusticitas.*»

[12] Hungarieraz, oraindik maila bat gehiago bereizten da (ik. Hollos, 1977:222-223).

lehengoaren (XIII. eta XIV. mendeetakoaren) alderantzizkoa zen: *you*, tratamendu markatua izan zena markatugabea zen orain eta alderantziz, tratamendu ohizkoa izandakoa (*thou*) berezia izatera pasa zen XVI. mendearen azkenetarako (Wales, 1983:116-117).

Aldaketa horren alde jokatu zuten eragingarrietariko batzuk dira: hizkera estandarraren ideala, erdi-mailako gizarte-klasearen sorrera (Mills, 1988:89), Kuakeroen bereizgarri bihurtutako *thou*ren estigmatizazoa, *thou*ren erabilera estandarizatua erlijioko hizkeran eta XVII. mendean aditz-inflexioetan izandako aldaketak (Wales, 1983).

XVII. mendean barrena azkartu egin zen *thou*ren gainbehera eta XVIII.ean gutxi-gorabehera galera gauzatu zen (Yong-Lin, 1988:164). Eta XIX eta XX. mendeetan *thou*ren erabilerak ingeles estandarretik kanpo baizik ez du iraun.

Beraz, ingelesezko *you* izenordainaren bilakaera hiru urratsetan gauzatu da: ingeles ertainean duala galdu zen; geroago, mendeen joan-etorriaz, objektu-funtziorako erabilia zen *you, je* nominatibo zaharraren ordez nagusitu zen subjektu- eta objektu-zereginetarako; eta azkenik, *thou* zaharra ingeles estandar modernotik kanpo (kuakeroen hizkeran, zenbait dialektotan eta erlijiozko erregistroetan) geratu zen. Azken ondorioa ezaguna da: T/V bereizketaren galera forma begirunezkoaren alde eta izenordain bakarra singular eta pluralerako.

## 8. TRATAMENDUAK ALEMANEZ

### 8.1. Tratamendu-izenordainen bilakaera

Honelakoa izan bide da bilakabidea (Curme, 1905; Metcalf, 1938):

1) Erdi Aroan (IX-XIV),

| | SINGULARRA | PLURALA |
|---|---|---|
| LAGUNARTEKOA | *du* (As) | *Ihr* (A2pl) |
| BEGIRUNEZKOA | *Ihr* (A2pl) | *Ihr* (A2pl) |

2) XIV-XVI,

| | SINGULARRA | PLURALA |
|---|---|---|
| LAGUNARTEKOA | *du* (As) | *Ihr* (A2pl) |
| BEGIRUNEZKOA | *Ihr* (A2pl) | *Ihr* (A2pl) |
| BEGIRUNEZKOENA | *TITULUA(K) + A3 (s/pl)* | |

3) XVI-XVII,

| | SINGULARRA | PLURALA |
|---|---|---|
| LAGUNARTEKOA | *du* (A2s) | *Ihr* |
| BEGIRUNEZKOA | *Ihr* (A2pl) | *Ihr* |
| BEGIRUNEZKOENA | *Er* (mask.)-*Sie* (fem.) + A3 | *Sie* |

4) XVIII-XIX,

| | SINGULARRA | PLURALA |
|---|---|---|
| LAGUNARTEKOA | *du* (A2s) | *Ihr* |
| | *Ihr* (A2pl) | *Ihr* |
| | *Er* (mask.)-*Sie* (fem.) + A3s | *Sie* |
| BEGIRUNEZKOENA | *Sie* + A3pl. | *Sie* |

5) XX,

| | SINGULARRA | PLURALA |
|---|---|---|
| LAGUNARTEKOA | *du* | *Ihr* |
| BEGIRUNEZKOA | *Sie* (A3pl) | |

Beraz, lehen urratsa begirunea adierazteko pluraltasunaz baliatzea izan zen (Erdi Aroa); ondoren, izen-esapideak eta tituluak bitarteko, hirugarren pertsonara (A3s.) jotzen da (XVI-XVII) eta azkenean (XVIII. mendearen bukaeratik aurrera), berriz ere pluraltasunera (A3pl.) jotzen da (Silverberg, 1940:510). Azpimarkagarria da bilakabidean beti maila begirunezkoenari dagokion berrikuntza nagusitzen dela forma higatuen kaltetan.

## 8.2. Tratamendu-izenordainen erabilera gaurko alemanean

Honelatsu labur daitezke XX. mendearen lehen zatiko usario «zaharrak» (Clyne, 1973:212): 1. *Sie* da tratamendu-izenordain markatugabea eta *du* termino markatua; 2. familia barruan gehienbat *du* erabiltzen da (Brown eta Gilmanen arabera —1960—, frantsesez edo italieraz baino aiseago); 3. *du,* 15 urtetik beherako haurrekin erabiltzen da; 4. otoitzetan (Jainkoarekin eta Santuekin), poesian, bakarrizketan eta hartzaile jakin bati zuzendu gabeko adierazpen orokorretan (errefrauak...) *du* erabiltzen da nagusiki; 5. animaliekin, gauzekin eta kontzeptu abstraktuekin *du* erabiltzen da; 6. *du* da adiskideen arteko

tratamendua. Lagun hurbilek, elkar hartuta, *du* erabiltzeko erabakia har dezakete. Zenbaitetan aldaketa, edaterakoan egiten den erritual batekin lotua dago. *Du*ren erabilera hau simetrikoa da; 7. adineko jendeak (goi-mailakoak bereziki) tratamendu asimetrikoa erabiltzen du gazte jendearekin (maila apalekoekin bereziki), hau da, zaharragoak *du* zuzentzen dio gazteagoari eta *Sie* jasotzen du beragandik (honelakoetan, zaharragoaren esku geratzen bide da gazteagoari tratamendu simetrikorako gonbitea egitea eta ez alderantziz).

Dena den, gaurko autore gehienak (Clyne, 1973; Clemmer, 1968; Delisle, 1986; Stoffel, 1983; Kempf, 1985...) bat datoz erabilera tradizionalaren izaera aldakorra eta usario berrien bilakaera azkarra aipatzerakoan. Oraintsuko ikerketa batean Delislek (1986) honako bi ondorio nagusiok azpimarkatu ditu sartaldeko alemanari buruz[13]: a) *du* izenordainaren erabilerazko maiztasun gero eta altuagoa[14]; b) bi tratamendu-sistema kontrajarrien ($T_1/T_2$) aldiberekotasuna. Gutxi-gorabehera, $T_1$ bat dator gorago zirriborratu den erabilera tradizionalarekin, hots, *Sie* markatugabe eta *du* markatuaren araberako sistemarekin. Honelako zerbait genuke (Delisle, 1986:6):

---

$T_1$ 1) *du*ren esparrua[15]: familia; adiskideak; haurrak.
2) *Sie*ren esparrua: gainerako helduak.

---

$T_2$ 1) *du*ren esparrua: familia; adiskideak; haurrak; hiztunaren «taldekoak» («taldekideak»).
2) *Sie*ren esparrua: Gainerako helduak.

---

Jakina, Delislek ohartarazten digunez, bietatik $T_1$ da sistemarik orokorrena edo zabalena, ez baita talde batzuetara mugatua. Zentzu horretan, $T_2$, $T_1$en azpisistematzat jo daiteke eta bereziki elkartasun eta berdintasuna bezalako balioak azpimarkatzen dituzten taldeetan nagusitu ohi da, hau da, talde aurrerakoietan, talde sozialistetan eta antzekoetan. Gauzak horrela, alemanezko hiztunak hiru multzo nagusitan sailka daitezke: 1) $T_1$ baizik erabiltzen ez dutenak; 2) $T_2$ baizik erabiltzen ez dutenak; 3) $T_1$ eta $T_2$, biak, erabiltzen dituztenak. Zaharren belaunaldietako hiztun gehienek $T_1$ sistema bakarraren barne jokatzen dute, *du*, senide, haur eta adiskide banaka batzuekin erabiliz. Beste muturrean, ikasleetariko batzuek daude, $T_2$ soilik erabiltzen dutenak; ikasle apurrok *du* euretarikoentzat eta *Sie* besteetarikoentzat gordetzen dituzte. Eta bitartean sistema biekin aritzen direnen multzo zabala dago; badirudi gazte gehienak

[13] Itxura denez, Alemaniako Errepublika Demokratikoa zeritzonean egoera bestelakoa da, *du*ren zabalkuntza motelago dator eta (ik.Kempf, 1985:225).

[14] Clyneren (1973:212) ustez, *du* sexu desberdinekoen arteko harremanetara zabaldu izana dateke aldaketaren alderdi azpimarkagarriena: «The greatest change is in intersex communication where a spontaneous *duzing* would have been most unusual until recently.»

[15] Emagalduaren eta bezeroaren artean *du* simetrikoa omen da betidaniko tratamendu ohizkoa (Silverberg, 1940:511).

hirugarren multzo honetan sar daitezkeela. Beraz, gazte gehienek sistema biak ($T_1$ eta $T_2$) erabiltzeko gaitasuna dute eta bataz edo besteaz baliatzen dira testuinguruaren eta solaskidearen arabera.

Testuinguru batzuetan garbiro nagusitzen da $T_1$ eta beste batzuetan $T_2$, baina zenbaitetan zalantzazkoa gerta daiteke lotura. Esate baterako, erostetxeak, oro har, $T_1$-testuinguruak izaten dira, hau da, saltzaile eta bezeroen artean *Sie* erabiltzen da; baina denda batzuetan (motodenda eta diskodendetan, adibidez) $T_2$ izan daiteke nagusi, horrelako lekuak $T_2$-bezeroen elkargunea izaten direlako.

Delisleren ustez (1986:13), gaurko alemanez somatzen den sistema bikoiztasuna ez da oraintsuko berrikuntza. $T_1$ eta $T_2$ aspalditik bizi izan dira elkarren aldamenean alemanez. $T_2$ren erabilera, 60ko hamarkadako ikasleen mugimendu aurrerakoiaren ondorioz, ordura arte $T_1$enak ziren eremu batzuetara zabaldu zen eta gaur egun, hainbat testuingurutan sistema biak elkarrekin bizi beharrean aurkitzen dira. $T_2$ sistema gorantz doan arren (*du*ren erabilerak publizitatean —30 urtetik beherakoei zuzendutakoan batik bat— izan duen gorakada lekuko, gaur-gaurkoz ez dirudi suedieraz eta danieraz gertatutakoaren antzeko bilakaera burutuko denik; hots, ez dirudi $T_1$ desagertzeko bidean dagoenik, ezta gutxiagorik ere. Dena den, $T_2$ren hazkundea iragar daiteke.

Bukatzeko, esan dezagun, gure iritziz, tratamendu-sistema biren ($T_1$ eta $T_2$) aldiberekotasunean oinarritzen den Delisleren azterketa erabat baliagarria izan daitekeela espainiera, frantsesa edo italiera bezalako hizkuntzetan.

## 9. TRATAMENDUAK SUEDIERAZ (Lind, 1971)

### 9.1. Tratamendu-erak eta tipoak

Suedieraz hurbiltasuna, lagunarteko izenordainaz adierazten da (*du*=T), baina begirunea adierazteko bigarren pertsonako izenordain plurala baino gehiago, tituluak erabiltzen dira, hala nola, *Herr Berg* «Berg jauna», *min herre* «jauna» (hitzez hitz, «ene jauna»), *doktorn* «doktore(a)». Suediera, hortaz, aldendu egiten da hizkuntza indoeuropar gehienen eredu bikoitzetik (T/V), tituluak izen edo bokatibo gisa ez ezik, perpausaren subjektu gisa ere erabiltzen direlako (ik. Paulston, 1976:362-363). Alde horretatik, portugesa dakarkigu gogora (supra.II.5.).

Honako hauek dira suedieraz dauden tratamendu-aukera nagusiak: *ni* (2pl. izenordaina = V); *du* (2sing. izenordaina = T); tituluak (T1); izena (Iz.); deitura (D).

Teorian, goiko bost elementuak (V, T, $T_1$, Iz., D) binaka harturik 15 konbinaketa posible ateratzen zaizkigu hiztun-solaskide harremanean; baina denetarik hurrengo bost tipoak dira gertagarrienak: (I). $T_1$-$T_1$; (II). $T_1$-T; (III).

T-T; (IV). $T_1$-V; (V). V-V (asimetriazko bikoteetan, lehenik jartzen den tratamenduak maila gorena adierazten du). Are gehiago, goiko bost tipoetatik, badirudi lehen hirurak ($T_1$-$T_1$, $T_1$-T, T-T) direla onargarrienak; laugarrena ($T_1$-V) eta bosgarrena (V-V), ez daude hain ongi ikusita, beharbada *ni* (V) izenordain begirunezkoa galzorian dagoelako.

## 9.2. Tipoen azterketa: (I) $T_1$-$T_1$; (II) $T_1$-T; (III) T-T; (IV) $T_1$-V; (V) V-V

Itxura batean, I tipoak, hiztunen arteko «berdintasuna eta elkartasunik eza» adieraz lezake, frantsesez *vous-vous* bikotearen bidez adierazten dena, alegia. Baina gehienetan, titulu desberdinen bidez mailazko asimetria (*doktorn/advocaten; professor/Miss...*) adierazten da. Beraz, I tipoa batzuetan Brown eta Gilmanen ereduko V-V (fr. *vous-vous,* gazt. *usted usted,* alem. *Sie-Sie,* it. *lei-lei...*) harremanaren parekoa izan badaiteke ere, gehienetan harreman asimetrikoa (Brown eta Gilmanen V/T, hots, fr. *vous/tu,* gazt. *usted/tu,* etab.) adierazten du, suedierazko tituluen bidez kodetzen den mailazko informazioagatik.

Bigarren tipoan (II) ere ez dago erabateko parekotasunik tratamenduan, lagunarteko izenordainaren (*du*) aurrez aurre senidetasunezko tituluak (*farfar* «aitona»; *farbror* «osaba»...) azaltzen zaizkigulako.

Hirugarren tipoari (III) dagokionez, honako joera hau dugu: *du* elkarrekikoa, gehienbat, ikasleen artean, neba-arreben artean, oraingo gurasoen eta seme-alaben artean eta adiskideen artean erabiltzen da. Gaur egun, adiskideen arteko T-T urte askotako harremanaren edo une bateko ezagutzaren ondorioa izan daiteke. Gaurko erabilera ulertzeko historiara jo behar da: «ni» (V) bultzatzeko ahalegin askoren (XIX) ondoren eta XX. mendearen hasierako *ni*zaleen «erreformari» erantzunez, XX. mendeko seigarren hamarraldian *du*ren aldeko «kontrarreforma» arrakastatsua bultzatu zen instituzio publikoetatik. Harrezkero, *du* simetrikoa enpresa handietara zabaldu da buru, kargudun eta maila guztietako langileen artean eta alde horretatik, lan-esparru eta alor publiko batzuetan «*du* instituzionalizatu» batez hitz egin daiteke (Paulston, 1976:364-367).

Laugarren tipoa (T1-V) nahiko bakana izaten da: zerbitzariak *herrn* («jauna») edo *min herre* («ene jauna») erabil dezake eta bezeroak *niz* erantzun; hasierako harreman asimetriko hau, gero hizketaldian zehar, orekatu egin daiteke V-Vra igaroz.

Bosgarren tipoan (V), V simetrikoaz gauzatzen den harremanean, berdintasuna eta elkartasunik eza dagoela pentsa daiteke. Baina suedieraz *ni* (V) izenordainak konnotazio txarrak ditu. Zakartasun- edo hoztasun-kutsua itsatsi zaio nonbait, eta berdintasunaren izenean V-Vren alde egin diren kanpainek ez dute bat ere arrakastarik izan (Paulston, 1976:377-378).

### 9.3. Konparaketa beste hizkuntza batzuekin: asimetriatik simetriarantz?

Lehen begiratuan, lagunarteko izenordaina (T) nahiko zabaldu den neurrian eta V (*ni*) baztertuxe geratu den neurrian, suedieraz simetriaranzko joera nabaria dagoela iduri luke. Hala ere, sartaldeko Europako hizkuntzetan harreman gatazkatsu batzuetan (ofiziala/soldadua, bezeroa/saltzaile zerbitzaria...) V-Vren bidez gertatu den orekatzearen antzekorik ez dago suedieraz: suedierazko $T_1$-$T_1$ bikoteetan berdintasuna (V-V) dagoela dirudien arren, ondo arakatuz gero, halako bikoteek $V_1$-$V_2$ tankerako asimetria ispilatzen dute, non indizeek mailazko diferentzia adierazten duten. Beraz, suedieraz ez dago T/V (gazt. *tu/usted*, fr. *tu/vous*, errus. *ty/vy*...) bezalako sistema bikoitz eta erraz batez tratamendu-aniztasunaren berri ematerik.

Bestalde, suedieraz tratamendua aukeratzerakoan zalantzak sortuz gero, nahiko normala omen da tratamenduen aztarnarik ez uztea perpausean; hitz egiteko era horri Lindek «zeharkako diskurtsoa» deritzo eta trebetasun handia behar omen da eusteko.

Harrigarri samarra da Suediakoa bezalako gizarte batean hain tratamendu sistema korapilatsua izatea (ik. Lind, 1971:127; Paulston, 1976:360).

## 10. TRATAMENDUAK NORVEGIERAZ (Mills, 1988; Haugen, 1978)

Norvegieraz, belaunaldi baten buruan bigarren pertsonako V (*De*) izenordain kortesiazkoaren gainbehera ia erabatekoa eta T (*du*) izenordain lagunartekoaren hedapen orokorra burutu dira. (*De*) tratamendu begirunezkoak merkataritzan, administrazioan eta hizkera hiperkortesiazkoan baizik ez du iraun. Beraz, aldakuntza horretan, Brown eta Gilmanen (1960) hitzez esateko, elkartasunaren ardatza nagusitu da eta ez boterearena.

Hizkuntza ofizial bietan (*nynorsk* eta *bokmal*) agertzen da T/V bereizketa singularrean. Baina pluralean neutralizatu egiten da aipatu aurkakotasuna (Mills, 1988:86-87).

XX. mendearen hirugarren herenean batik bat, erabateko aldakuntza burutu da norvegieraz *du* elkarrekikoaren alde eta gaur egun, zaharrenen harridurarako, gazte orok T erabiltzen du nornahirekin; are gehiago, telebistatik lagunarteko tratamendua bultzatu da elkarrizketa guztietan, baita gobernu-buruarekin ere (Haugen, 1978:91). Jaiotzezko hiztunen arabera, V baztertu eta T orokortzeko ohitura, Norvegiaren iparraldetik hasi zen zabaltzen hegoalderantz eta egun nagusi da ia leku guztietan. Danimarkan, aldiz, ez bide dira hain urruti joan eta oraindik T/V bereizketak zutik irauten du (Mills, 1988:90-91).

Brown eta Gilmanen hipotesi diakronikoen arabera, Millsek uste du lagunarteko tratamenduranzko aldaketaren sustraietan elkartasunaren ardatzaren nagusitzea dagoela. Haugenek uste du (1978:94) bi tratamendu-araudi daudela gizartean, bata oinarrizkoa, haurrak eta herri xeheak erabiltzen duena (markatu-

gabea), eta bestea, gainegiturazkoa, gizarte landuan sartzen den helduak beregana-tzen duena (markatua). Norvegiar gazteek kortesiazko tratamendu-izenordaina baztertzerakoan, gizarte landuaren araudia eta berau oinarritzen den gizarte-dikotomia baztertzen ari dira.

## 11. TRATAMENDU-IZENORDAINEN ERABILERA ERRUSIERAZ

### 11.1. Tratamendu-izenordainak gaurko errusieran

Jakina denez, errusieraz tratamendu-izenordainen sistema frantsesarena bera da. Hots, singularrean egiten den tratamendu-bereizketa neutralizatuta geratzen da pluralean, honela beraz:




Errusieraz tratamenduen arloa oso korapilatsua da, baina zailtasunak batez ere tituluen (izena, patronimikoa, deitura, *tovarisch* ingl.«comrade», *grazhdanin* «hiritarra»...) mailan aurkitzen dira (honetaz, besteak beste, Nakhimovsky, 1976 eta Kirk, 1979 ikus daitezke), baina hemen tratamendu-izenordainetara mugatuko dugu geure azterketa.

#### 11.1.1. T/V sistemaren aldagaiak lehengo eta oraingo errusieran

XIX. mendetik hona funtsezko bi aldaketa hauek gertatu dira tratamendu izenordainen erabileran (Corbett, 1976:5):

1. XIX. (ik. Friedrich, 1966) mendean *vy* zen legea senide nagusiagoekin, tratamendu asimetrikoa, beraz; gaur egun, ordea, *ty* simetrikoa nagusitzen da familiakoen artean.
2. *vy*ren erabilera ezagutu berriekin behe-mailetara zabaldu da XX. mendean. Izan ere, aurreko mendean *vy* goi-mailakoen bereizgarria zen: goitar

ez zirenek *vy* goragoko mailakoekin erabiltzen zuten, baina nekez beren artean. Gaur egun, *vy* soziolekto gehienetan hedatuta dago.

Beraz, begien bistan dago tratamendu begirunezkoa (*vy*) errusieraz, hizkuntza erromantze eta anglogermaniarretan baino beranduago garatu dena. *Vy* begirunezkoaren lehen lekukotasunak XV. mendearen bukaerakoak dira; lehen mendeetan (XV-XVII) diplomaziako gutunerian azaltzen da gehienbat eta Pedro I.a Handiaren garaian (XVII. mendearen bukaeran eta XVIII. mendearen hasieran) gehiago zabaldu zen sartaldeko ohituren eraginez. *Vy* begirunezkoaren hedatze-prozesuak aurrera jarraitu zuen XVIII. mendean barrena eta XIX. mendearen hasierarako finkatuta geratu zen (Corbet, 1976:5). Ondorioz, frantsesaren ereduak XVIII. mendean goi-mailakoen gizarteko errusieran izan zuen eragin garrantzitsua ukatuezina bada ere, ez da hori kanpoko eragin bakarra, *vy* begirunezkoa bi mende lehenagotik dokumentatzen baita (Kirk, 1979:38). Dena den, errusieraz, hizkuntza indoeuropar askotan bezala, *vy* begirunezkoaren garapena atzerriko tratamendu-usarioen eraginari loturik azaltzen zaigu.

Bestalde, Friedrichen arabera XIX. mendeko errusierazko tratamendu-izenordainen erabileraren berri emateko behar omen diren hamar aldagaietatik batzuk ez dira pisudun gaur egun. Friedrichek honako hamar aldagaiok azpimarkatu ditu (supra I.2.1):

I. 1. (hizketa)gaia
   2. testuingurua

II. 3. adina
   4. belaunaldia
   5. sexua
   6. senidetasun-maila

III. 7. dialektoa
   8. talde-kidetasuna
   9. aginpidea
   10. elkartasuna (kidetasun psikologikoaren zentzuan)

Bada, gaurko errusieraz, adina, belaunaldia, «elkartasuna» eta senidetasuna bezalako faktoreek garrantzitsuak izaten segitzen duten arren, beste batzuk erdi ezabatuta geratu dira T/V tratamendu-izenordainen hautaketari begira. Gaur egun, dialektoak, adibidez, ez du indarrik, iraultza aurreko gizarte-klaseak desagertu direlako. Eta badago halako joera, gero eta zabalagoa, boterezko eta klasezko desberdintasunak berdintzeko. Beste alde batetik, tratamendu-izenordainen oraingo erabilera ez da XIX. mendekoa bezain aldakorra eta ondorioz gaia bezalako faktoreak eta joko adierazkorrak baztertuxeak geratu dira[16].

[16] T/V izenordainen sisteman indarra galdu duten zenbait aldagaik garrantzitsuak izaten segitzen dute bestelako tratamendu-sistemen mailan (tratamendu-izenetan edo tituluetan, adibidez) eragina izan dezaketela dirudi (Kirk, 1979:46-47).

Kirken (1979:48) arabera, honako hauek dira gaurko errusierazko tratamendu izenordainen erabileran pisudun gertatzen diren aldagaiak:

| T-ren alde eragiten dutenak | V-ren alde eragiten dutenak |
|---|---|
| A. HURBILTASUNA | W. DISTANTZIA* |
| 1. Ahaidetasunezko loturak | 1. Loturarik eza |
| a. Odolezko loturak | a. Guztiz ezezaguna |
| b. Ezkontzazko loturak | b. Uneko ezagutza |
| 2. Hurbiltasun pertsonala | 2. Distantzia pertsonala |
| a. Adiskidetasuna | a. Etsaitasuna |
| b. Amodiozko lotura | b. Ironia |
| c. Luzaroko kidetasuna | |
| d. Jainkoa eta animaliak | |
| B. ELKARTASUNA | X. BOTEREA |
| C. BEGIRUNERIK EZA | Y. BEGIRUNEA** |
| 1. Beheragoko maila | 1. Formaltasuna |
| 2. Amorrua, iraina* | 2. Iragankortasuna |
| | 3. «Gurtasuna» (=begirune handia) |
| | 4. Begirunea ez-hurbilarengana |
| | 5. Artifizialtasuna edo ofizialtasuna*** |
| D. GAZTEAGOTASUNA | Z. ZAHARRAGOTASUNA |
| 1. Oso gaztea, haurra | 1. Oso zaharra |
| 2. Belaunaldi gazteagoa | 2. Belaunaldi zaharragoa |

* Aldaketa iragankorretan bakarrik.
** Neurri handi batean, X eta Z faktoreak honen azpian daude.
*** Aldaketa iragankorretan erabilia.

Corbett-ek (1976:3-4), Geogheganen (1971) ereduari jarraituz, beheko diagrama proposatzen du errusierazko tratamendu-izenordainen gaurko erabileraren berri emateko. «S» diagramaren sarrera da; plus (+) ikurrak «bai» esan nahi du; minus (-) ikurrak «ez» esan nahi du; berdin (=) ikurrak «ez bata, ez bestea» esan nahi du. Solaskidea gizakia ez bada, hau da, Jainkoa, animalia edo gauza bada, zuzenean *ty* hautatzen da. Era berean, solaskidea 12-14 urtetik beherakoa bada, zuzenean *ty* hautatzen da. Testuinguru markatuak, harreman pertsonalak ezabatuta uzten dituzten egoerak dira (*vy*), epaitegi edo ekitaldi ofizialetakoak, adibidez. Senide edota senar-emazteen artean *ty* da tratamendua. «Beheragoko mailakoa» tasuna, mailaketa estu eta garbia ezartzen duten testuinguruetan (armadan, espetxean edo lantegi batzuetan) aplikatzen da. «Etxekotasu-

na» adiskide, maitale eta ikaskideen arteko harremanei dagokie. Eta «solaskide zaharragoa» ezaugarriak belaunaldi baten edo gehiagoren aldea adierazten du.

TRATAMENDU-IZENORDAINEN ERABILERA GAURKO ERRUSIERAZ (CORBETT, 1976:4)




Funtsean hiztun guztiek aldagai berak aplikatzen dituzten arren, alde handia egon daiteke hiztunen artean aldagai bakoitzaren luze-laburra neurtzerakoan: esate baterako, zaharragoek «etxekotasuna» adiskide banaka batzuentzat murriztua ulertzen dute; gazteagoentzat, berriz, askoz ere kontzeptu laxoagoa da.

11.1.2. Tratamendu-izenordainen erabilera gaurko errusieran (Mayer, 1975)

*«Vy» elkarrekikoa*

Gaurko errusiera estandarrean, *vy* erabiltzen da adin berdintsuko heldu ezezagunekin, euren gizarte-maila edo aginpidea kontuan hartu gabe (Mayer, 1975:436).

Adinak paper garrantzitsua jokatzen du hiztunen portaeran: 30 bat urtetik beherako gazteak, ezezagunak izanda ere, beren artean *ty* elkarrekikoaz mintzatzen dira elkartasunezko ingurunean (ikastegian, lagunartean...) baldin badaude, baina elkartasunezko ingurunetik kanpo *vy* simetrikoaz; adin horretatik gora *vy* elkarrekikoa izaten da arau orokorra pertsona ezezagunen artean (Kirk, 1979:52).

Sexuak zenbaitetan *ty* simetrikoaren aurka joka dezake. Esate baterako, 16-17 urteko neska eta mutila hasieran *vy* simetrikoaz arituko dira, sexu berekoen artean legea *ty-ty* bada ere (Nakhimovsky, 1976:87).

Familiakoekin araua *ty* simetrikoa izaten den arren, ahaide urrunen artean edota ezkontzazko senideen artean *vy* simetrikoa maiz gertatzen da. Esate baterako, amaginarrebaren eta suhiaren arteko harremana sarritan *vy-vy* erakoa izaten da.

Idatzizko hizkuntza jasoan (merkataritzako eta administrazioetako gutunerian, publizitatean eta propagandan) *vy* da aukera ia bakarra (Kirk, 1979:113).

*«Ty» elkarrekikoa*

Oro har, heldu ezezagunekin *ty* elkarrekikoa gaizki ikusita baldin badago, bigarren irakaskuntzako edo unibertsitate-mailako ikasleen artean ez dago horrelako debekurik eta usu gertatzen da ikastegiaren ingurunean. Unibertsitateko ikasleak adinekoak edo sexu desberdinekoak badira, ez omen da hain erraz gertatzen *ty* elkarrekikoa.

*«Ty-Vy» asimetrikoa*

Asimetria gehienak adinezko aldearen eraginez gertatu ohi dira. Horrela, elkarrengandik hurbil dauden pertsonen artean adinezko alde handia badago, gazteagoak *ty* jasotzen du eta *vy* begirunezkoa ematen dio zaharragoari. Hala ere, aurreko araua baliorik gabe geratzen da bi pertsonak senar-emazteak edota maitaleak badira, horrelakoetan *ty* simetrikoa nagusitzen da eta; laneko ingurunean ere goiko araua ez da beti gordetzen. Haurrekin asimetria, 4-5 urteetatik aurrera hasten da familiatik kanpo, heldutasuna iritsitakoan, berriz ere *vy* elkarrekikoaz orekatzeko. Era berean, *ty-vy* desoreka ahaide urrunekin (urrutiko amonarekin, adibidez) jazo daiteke, batez ere harremana oso estua ez bada.

Mailari dagokionez alde handia badago elkar ondo ezagutzen duten bi pertsonaren artean, nagusiagoak *ty* eman diezaioke beheragokoari eta *vy* jaso berarengandik. Asimetria hau maiz gertatzen omen da lan-munduan eta burulana egiten dutenen artean; eta zer esanik ez, are gehiago armadan eta espetxeetan. Dena den, mende honetan egindako kanpaina arrakastatsuen ondorioz, *vy* elkarrekikoa asimetria baino normalagoa izatera heldu omen da nagusien eta menpekoen artean (Kirk, 1979:68-69).

Esanak esan, XX. mendean barrena joera, tratamenduzko asimetriak desagertzekoa izan da; bestalde, badirudi aspaldi honetan *ty* simetrikoa esparru gero eta zabalagoak beraganatuz joan dela (Mayer, 1976:441; Kirk, 1979:319)[17].

[17] Tratamenduen erabilerari bagagozkio, hizkuntza eslaviar batzuetan bederen (Stone, 1977:500), sartaldeko Europako hizkuntzetarako (Brown and Gilman, 1960) iragarritako joeren antzekoak somatzen omen dira: alde batetik, tratamendu asimetrikoen (T/V) atzerakada nabarmena; eta bestetik, elkartasunezko Tren zabalkundea, Vren kaltetan. Serbokroazieraz ik. Kocher (1967) eta eslovenieraz Kess, Juricic (1978).

## 12. TRATAMENDUAK HINDIZ (Jain, 1969)

Begirunea da, zalantzarik gabe, hindiz mintzatzen diren hiztunen gizartebizitzaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Begirunea agertzeko hizkuntzabaliabideen artean honakook aipa daitezke: tituluak erabiltzea; besteak jasotzen edota norbera beheratzen dituzten hitzak erabiltzea; tonu apalean mintzatzea; kortesiazko (pluraleko) izenordain eta adizkerak erabiltzea; eta, batzuetan, hitzik ez esatea ere bai. Hindiaren beste ezaugarri bat, begirunea solaskidearengana ez ezik, aipagai edo hizketagaitzat hartzen den pertsonarenagana ere agertu ahal izatea da.

### 12.1. Izenordainak eta adizkerak: pluraltasuna begirunearen adierazgarri

Hindiak, maskulino nahiz femeninorako balio duten bigarren pertsonako hiru izenordain ditu: *ap* > *tum* > *tu*. Berez, *tu* singularra da eta aditza ere halaxe hartzen du; *tum* eta *ap* pluralak dira eta adizkera plural bana hartzen dute, nahiz eta iraganeko formetan adizkera bera dagokien. Oro har, esan daiteke *tu* [-begirunezkoa] dela eta *tum* eta *ap* [+begirunezkoak] direla, baina bakoitzaren benetako balioa argituko bada, testuinguru eta harreman konkretuetara jo beharko dugu.

Puntu honetan hindia, Indiako hizkuntza indoario eta dravidiar gehienekin batera dabil. Izan ere, Indiako hizkuntza gehienetan (maharashtrera, gujaratiera, bengaliera, tamilera, teleguera, kannada, malayalam) «singular < plurala$_1$ < plurala$_2$» izenordain-hirukotea dago. Kaxmirerak bi izenordain, baina hiru aditz-atzizki bereizten ditu. Panjabierak bi izenordain besterik ez ditu (*tu* singularra eta *tusi* plurala).

Hurbilen arteko harreman simetrikoetan adiskideek, gizon nahiz emakumeek, *tu* erabiltzen dute. Hala ere, jendaurrean, hots, goragoko mailako baten aurrean, adiskideek *tum* esaten diote elkarri. Adinak berebiziko garrantzia du auzi honetan: adiskidantza 25 urte bete baino lehen egin dutenek *tu* elkarrekikoa erabiltzen dute eta adiskide geroago bilakatu direnek *tum* simetrikoa. Lehen kasuan, harremana *tum* izenordainaz hasten da eta handik lasterrera *tu*ra jotzen da; bigarren kasuan, *ap* izenordain begirunezkoenaz hasten dira, geroago beheragoko mailara pasatzeko. Harreman arruntetan aldaketak normalean beheragoko mailaren aldera gertatzen dira eta nekez alderantziz.

Ohizko erabileraren iraulketa edo desbideratzeak adierazkorrak izaten dira. *Tum* elkarrekikoaz baliatzen diren adiskideen artean, *tu*rako jauziak hurbiltasun handiagoa adierazten du; haserrealdiko *tu* iraingarria izaten da. *Tu*tik *tum*era aldatzea, solaskidea baretzeko edo balakatzeko era izan daiteke. *Tu* edo *tum* simetrikoaz baliatzen diren adiskideen artean, *ap* izenordaina haserre edo agiraka egiteko xedez baizik ezin da erabili.

Harreman simetrikoa hurbiltasunezkoa ez bada, elkarrenganako begirunea izaten da ohitura; horrela, maila bereko bi ezezagunek *ap* simetrikoa erabiltzen

dute beren artean. Baina ezezagunen artean mailazko (lanbidezko) desberdintasun nabarmenik izanez gero, *ap/tum* asimetria gerta daiteke; eta are asimetria gehiago, lanbidezko desberdintasunari adinezkoa gehitzen zaionean. Bata zaharragoa bada eta bestea goragoko mailakoa, orduan *tum* edo *ap* simetrikoa gerta daiteke.

Hezierak ere badu zerikusirik: zenbat eta heziera hobea, orduan eta joera gehiago ezezagunen artean *ap* erabiltzeko; hiztunak zenbat eta landugabeagoak izan, hainbat eta aiseago baliatuko dira *tum* elkarrekikoaz.

Hurbiltasunezko harreman asimetrikoetan (gurasoak/seme-alabak, senarra/emaztea...) tratamenduzko desberdintasuna nagusitzen da: beheragokoak *ap* ematen badu, *tum* jasotzen du; *tum* ematen badu, *tu* jasotzen du; eta inoiz *ap/tu* tankerako asimetriak gerta daitezke. *Ap/tum* asimetria, dotoreziazkotzat jotzen da eta *tum/tu* dotorezia gabekotzat. Aitaren zeregina da semeari begirunearen legea erakustea eta horregatik, aitek 5 urte bete arte *tum* izenordaina ematen diete beren semeei, handik aurrera *tu*ra igaroz.

Hurbiltasunezko harremanetatik kanpo asimetria ugari daude. Adibidez, lanbide batzuetako pertsonek ez dute begirunezko tratamendurik jasotzen (*tum* nagusi ongi heziengandik eta *tu* gainerakoengandik) eta beti *ap* eman beharra daukate. Horixe gertatzen zaie zerbitzari, garbitzaile eta zapatariei. Ikasleek eta enplegatuek, aldiz, ez dute *tu* jasotzen beren irakasle eta nagusiengandik, *tum* baizik. Zenbaitek *ap* eta *tum* dotoreziazkoa erabiltzen dute beheragokoekin.

Besteak beste, honako aldagaiak kontuan hartu behar dira hindizko tratamenduen berri ematerakoan: aginpidezko desberdintasuna, harreman pertsonala, gizarte-egoera edo testuingurua, jendaurreko hizketa den ala ez, heziketa-maila...

Komunztaduraren aldetik, *tum* eta *ap* izenordainek aditz plurala hartzen dute, baina «izan» laguntzailearekin forma bana dagokie, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez: *tum bolte ho/ap bolte hae* ('you speak Aux.: to-be') «you speak». Orain *ap* izenordain begirunezkoena, beheragoko mailako *tum*-i dagokion *ho* laguntzailearekin elkartzen hasi da. Ondorioa, *ap* eta *tum* formen bitarteko solas-maila berria da, *tum* baino begirunezkoagoa eta ap baino begirune gutxiagokoa (*ap hae* > *ap ho* > *tum ho*).

## 13. TRATAMENDUAK JAPONIERAZ

### 13.1. Solas-mailak («speech levels») japonieraz

Euskaraz bezala, japonieraz predikatu soilak, eta sarri aditz soilak, perpausa osa dezake; subjektua, beraz, maiz geratzen da isilduta. Baina aditzaren hautaketa solas-mailaren («speech level») hautaketaren mende geratzen da eta alde horretatik, tratamenduen erabileraren ikuspuntutik, bigarren pertsonako izenordainen

auziari bezain garrantzitsu edo garrantzitsuago deritzogu lehenik solas-mailen korapiloa handi-handika erakusteari.

Aditzera mugatzen den beheko eskeman ikus daitekeenez, japonieraz oinarrizko bi ardatz daude: alde batetik, tratamenduaren ardatza dago; beste alde batetik, erreferentziaren ardatza. Lehen ardatza, tratamenduarena, hiztun-hartzaile harremanari dagokio eta solaskidearenganako begirunezko jarrera adierazteko erabiltzen da; hau da, lagunarteko (laua), kortesiazko edo begirunezko ESTILOaren hautaketa, hiztunak solaskidearen aurrean duen jarreraren arabera egiten da. «Gorria da» bezalako esaldi kopulatibo batek, adibidez, honako itxura hartzen du estiloaren arabera (Gardner; Martin, 1952:8):

| Lagunartekoa | Kortesiazkoa | Begirunezkoa | Esanahia |
|---|---|---|---|
| *akai* | *akai désu* | *akoo gozaimásu* | *«gorria da»* |

Bigarren ardatza, erreferentziarena, hiztun-erreferente harremanari dagokio eta horren arabera, hiru estiloetariko edozeinetan ADIERAZPIDE (beste batzuek *honorific* deitua) apal, neutral edo jasoaren hautaketa, gehienbat hiztu-

SOLAS-MAILAK JAPONIERA ESTANDARREAN (Martin, 1964:408)

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. TRATAMENDUAREN ARDATZA: | | | |
| | LAGUNARTEKOA (LAUA) | KORTESIAZKOA | BEGIRUNEZKOA |
| | («plain») | («polite») | («deferential») |
| | Kopula: *dá* | *désu* | ---------- |
| | *de áru* | *de arimásu* | *de gozaimásu* |
| | (formala) | (formala) | |
| | Aditzak: *...-(r)u* | *...(i)-másu* | ---------- |
| | | | *(gozaimásu)* |
| 2. ERREFERENTZIAREN ARDATZA: | | | |
| | | Kopula | Aditzak |
| | Apala: | ------ | *o-...-i suru* |
| | Neutrala: | *dá* | *...(r)u* |
| | Jasoa («exalted»): | *de irassyáru* | *o-...-i ni náru* |
| 3. «EMAN» ESANAHIKO ADITZAK: | | | |
| | Apala | *ageru* | «kanpotarrekiko ematea» |
| | | *yaru* | |
| | Neutrala | *kureru* | «barrukoekiko ematea» |
| | Jasoa | *kudasáru* | |
| 4. ADITZ LEUNGARRIAK (EUFEMISTIKOAK): | | | |
| | «Egin» | «Esan» | (etab.) |
| | Apala *itasu* | *moósu* | |
| | Neutrala *suru* | *iu* | |
| | Jasoa *nasáru* | *ossyáru* | |

nak perpauseko subjektuaren aurrean duen jarreraren araberakoa izaten da («...depends primarily on the speaker's attitude toward the subject of the expression»). Hala ere, gaurko japonieraz berrikuntzak gertatu dira eta Inouek (1971:19) azaltzen duenez «Roughly speaking, the decision wether to use honorifics or not is made on the basis of consideration wether the subject, or the direct or indirect object is superior to the speaker in his social status and/or age.»

Japonieraz estiloari dagokion «lagunartekoa/kortesiazkoa» bikoiztasuna, Europako sartaldeko hizkuntzetan ageri den T/V aurkakotasunaren antzekoa bide da («...is analogous to the use of the pronouns *du* and *Sie* in modern German or *tu* and *vous* in modern French.», Martin, op. cit. 409).

Inouek azaltzen duenez (1971:19), estiloan egiten den hautaketak baldintzatzen du zein adierazpide-maila erabili. Horrela, lagunarteko estiloan bakan eta kortesiazkoan erruz erabiltzen dira ohoragarriak (ingl.'honorifics'). Gardner eta Martinen (1952) arabera, zaharragoekin, agintariekin, ezezagunekin, jende ikasiarekin eta kanpoko gonbidatuekin erabili ohi den begirunezko estiloan, adibidez, hiztunak apaltasunezko hitzak (aditzak...) erabiltzen ditu bere buruaz, bere ekintzez edota bere familiako gazteen ekintzez diharduela, baina begirunezko estilotik irten gabe, hiztunak hitz (aditzak...) jasoak erabiltzen ditu bigarren eta hirugarren pertsonei (solaskideari eta beraren familiakoei) eta haien ekintzei erreferentzia egiteko. Oso gaizki ikusita dago begirunezko estiloaren barruan nork bere buruari edo bere familiako senide gazteagoei buruz hitz jasoez mintzatzea.

Kortesiazko estiloa maila berekoekin erabiltzen da eta orduan hiztuna gehienbat hitz neutralez baliatzen da bere buruaz aritzeko; baina kasu berean hiztunaren ekintzetara solaskidea edo beraren familia edo gauzak biltzen baldin badira, hiztunak apaltasunezko hitzak erabiltzen ditu bere ekintzetarako eta hitz jasoak beste pertsonentzat. Baina solaskideen artean mailazko alde handia baldin bada (neskamea eta enplegu-emailea, adibidez), beheragokoak beti ere apaltasunezko hitzak erabili behar ditu bere buruaz eta ekintzez jarduteko, bere ekintzetara beste pertsonarik biltzen den ala ez begiratu gabe (Gardner; Martin, 1952:4-5).

Lagunarteko estiloa, elkarrengandik oso hurbil sentitzen diren japoniarren artean erabiltzen da.

Goiko eskeman ikus daitekeenez, kopulak (*dá, désu, de irassyáru...* «da») eta aditzak forma berezia hartzen dute ESTILOaren (lagunartekoa, kortesiazkoa, begirunezkoa) eta ADIERAZPIDEaren (apala, neutrala, jasoa) arabera. Sistema horretan badira zenbait hutsune, hala ere: ez dago apaltasunezko kopularik, ezta aditz arrunta begirunezko gisa bereizteko erabiltzen den hizkirik (*áru* «izan» aditzaren salbuespenaz, begirunezko estiloan *gozaimásu* bihurtzen baita). Gauzak horrela, gaurko joera, lauki hutsen desoreka pairatzen duen goiko sistema honela berregituratzea izan bide da: *de gozaimásu* kopula begirunezkoak bere tokia utzi (solaskidearenganako «begirunezkotasuna») eta apaltasunezko

adierazpidean zegoen hutsunea betetzera etorri da; ondorioz, begirunezko estiloa ezabatuta geratu da predikatuetatik eta hiru «estilotatik» bitara jaitsi da. Berregituraketa honen ondorioa ardatz biren araberako aurkakotasun bikoitz bana izan da: «lagunartekoa/kortesiazkoa» estilozko aurkakotasuna, alde batetik; eta forma neutralaz neutralizatzen den adierazpide apal eta jasoaren arteko aurkakotasuna (apala/jasoa), beste alde batetik. Hona hemen, irudi bidez (Martin, 1964:409):




Martinek dioenez (1964:410), ez dago japonieraz dialektorik estandarrak baino askoz sistema bakunagoa duenik.

Martinen (1964:410-411) arabera, honako lau aldagaiok dira erabakigarriak tratamendu-maila (estiloa) eta erreferentzia-maila hautatzerakoan: adinezko desberdintasuna, sexuzko desberdintasuna, gizarte-maila, eta «taldez kanpokotasuna» («outgroupness»). Aldagai hauen garrantzia honela mailakatzen du japoniera estandarrean eta Okinawakoan:

ALDAGAIEN GARRANTZIAREN MAILAKETA (Martin, 1964:411)

| | Tratamendua | Erreferentzia |
|---|---|---|
| Japoniera estandarra | 1. taldez kanpokotasuna | 1. gizarte-maila |
| | 2. gizarte-maila | 2. adinezko desberd. |
| | 3. adinezko desberdintasuna | 3. sexuzko desberd. |
| | 4. sexuzko desberdintasuna | 4. taldez kanpokotas. |
| Okinawako japoniera | 1. adinezko desberdintasuna | 1. adina |
| | 2. taldez kanpokotasuna | 2. maila |
| | 3. gizarte-maila | 3. taldez kanpokoa... |
| | 4. sexuzko desberdintasuna | 4. sexuzko desberd. |

### 13.2. Bigarren pertsonako izenordainak

Japoniera ikasteko esku-liburuetan maiz bigarren pertsonako izenordain bakarra eskaintzen zaio ikasle atzerritarrari, honako baliokidetasun hau ezarriz:

jap. *anata* ing. «you». Eta ikuspegi hori nahasgarria izan daiteke ondoko arrazoiengatik (Russell, 1981:116): a) japonieraz pertsona izenordainak oro har eta bereziki bigarren pertsonakoak bakan erabiltzen dira; b) *anata,*«you» posibleetariko bat baizik ez da eta aldamenean dituen forma horien argitan ulertu behar da; c) solaskideari erreferentzia egiteko, bigarren pertsonako izenordainen ordez, bestelako kategoriak erabil daitezke, hala nola, ahaidetasunezko tituluak, lanbide-tituluak, izena edo deitura gehi *san, sama, kun* edo *chan* bukaerak, eta lehen pertsonako izenordaina (*boku*) (nahiz eta ordezko hauek guztiok, berez, hirugarren pertsonari erreferentzia egitekoak izan).

Gaur egungo japonieran bigarren pertsonako izenordain ugari daude, baina denen artean lau hauek dira maiztasun altuena dutenak: *anata, kimi, anta, omae.* Jatorriz, lau izenordainok, izenordain izatera heldu diren hitz errespetuzkoak dira. Lau era hauek bilakaera semantiko izugarria izan dute eta gaur zalantzak sortzen dira bakoitzaren kortesia-mailaz; hain zuzen ere, horixe da hain sarri isilpean uzteko arrazoietariko bat (Fischer, 1964:121). «Edo Garaiko» japonieran (1603-1867) 110 izenordain inguru omen zeuden eta gaur egun, 59 inguru.

Peng-ek (1973) ikerketa bat egin zuen batxilergoko ikasketak burutzen ari ziren ikasleen artean, izenordainen erabileraren eta sexuaren arteko lotura argitzeko. Hemen, bigarren pertsonako izenordainei buruzko emaitzak besterik ez ditugu jasoko. Hona hemen (Peng, 1973:37):

MUTILEN IZENORDAIN-HAUTAKETA (Peng, 1973:37):

| | *Kimi* | *Omae* | *Kimi/Omae* | *Anata* | *Isildu* |
|---|---|---|---|---|---|
| Goragoko mailako mutilari | %14 | %0 | %0 | %0 | %58 |
| Goragoko mailako neskari | %9 | %2 | %0 | %7 | %71 |
| Maila bereko mutilari | %22 | %27 | %25 | %0 | %23 |
| Maila bereko neskari | %43 | %12 | %7 | %7 | %29 |
| Beheragoko mail. mutilari | %23 | %37 | %14 | %0 | %25 |
| Beheragoko mail. neskari | %44 | %15 | %5 | %3 | %31 |

NESKEN IZENORDAIN-HAUTAKETA (Peng, 1973:37):

| | *Kimi* | *Anata* | *Anta* | *Isildu* |
|---|---|---|---|---|
| Goragoko mailako mutilari % | 0 | %15 | %0 | %83 |
| Goragoko mailako neskari | %0 | %12 | %0 | %86 |
| Maila bereko mutilari | %7 | %23 | %2 | %68 |
| Maila bereko neskari | %0 | %34 | %5 | %59 |
| Beheragoko mail. mutilari | %26 | %11 | %2 | %56 |
| Beheragoko mail. neskari | %0 | %48 | %6 | %46 |

BIGARREN PERTSONAKO IZENORDAINEN BATEZ BESTEKO MAIZTASUNA SEXUAREN ARABERA (PENG, 1973:37):

| GIZONEK | | EMAKUMEEK | |
|---|---|---|---|
| Isilpean utzi | %39,5 | Isilpean utzi | %66,3 |
| *kimi* | %25,8 | *anata* | %23,5 |
| *omae* | %17,1 | *kimi* | %5,5 |
| *kimi/omae* | %8,5 | *anta* | %2,5 |
| *anata* | %2,8 | | |

Pengek uste du izenordainen arloan japoniarren haurtzaroko hizkuntzan sexuaren mugarria oso tinkoa dela (*kimi* mutilen ahotan eta *anata* neskenean), baina gero adinean aurrera joan ahala (gaztaroan) muga hori urratzen hasten dela eta heldutasunera iritsitakoan inoiz baino gehiago gainditzen direla mugak.

Solaskidearen sexuari dagokionez, Pengek uste du goiko emaitzek gezurtatu egiten dutela harako topiko zabaldu hura, alegia, gizonek emakumeei tratamendu eskas(ago)a ematen dietela dioen estereotipoa. Izan ere, neska ikasleek berdintsu jokatzen dute neska eta mutilekin, baina mutilek kortesia gehiago (*kimi* gehiago eta *omae* gutxiago) erakusten dute neskenganako.

Adinak eta mailak —institutuko testuinguruan batera doazenak, txanpon beraren bi alderdiak baitira— funtsezko eragina dute hiztuna eta solaskidea sexu berekoak badira. Sexu desberdinekoak direnean, adina da aldagai garrantzitsuagoa solaskidea nagusiagoa bada eta sexua da garrantzitsuagoa solaskidea gazteagoa bada. Adibidez, mutil batek *omae* erabil dezake bere adineko mutilekin, baina *kimi* erabili beharrean aurki daiteke solaskidea neska bat bada, nahiz eta gazteagoa izan.

Sexua, adina eta maila berdinak izanik, tratamendu-izenordain bera (simetria) nagusitzen da hiztunaren eta hartzailearen artean. Baina desberdintasun bakarra sexuarena bada, inoiz izenordain bera erabiltzea (*kimi* —eta bakanago *anata*— simetrikoa) gertatzen bada ere, gehienetan asimetria gertatzen da.

Bigarren pertsonako izenordainei dagokienez, neskek eta mutilek hurrengo izenordainak —eta ematen diren hurrenkeran— erabiltzen dituzte gehien (Russell, 1981):

NESKEK:

*anata, anta, otaku;* eta noizbait *kimi* eta *omae.*

MUTILEK:

*omae, kimi, anata, anta.*

Hona hemen, bigarren pertsonako izenordainen mailaketa kortesia-mailaren arabera eta erabil-maiztasunak (zenbatek erabiltzen duten noizbait izenordain jakin bat) sexuaren arabera (Russell, 1981:120):

| | | Mutilek | Neskek |
|---|---|---|---|
| Kortesia handiena | otaku | %46,5 | %52,4 |
| | anata | %76,6 | %75 |
| | anta | %39,9 | %57,5 |
| | kimi | %79,9 | %25 |
| | omae | %89,9 | %22,5 |
| | omaesan | %16,6 | %7,5 |
| | omee | %16,6 | %0 |
| | temee | %19,9 | %2,5 |
| Zakartasuna | kisama *(sotchi, sochi, sochira...)* | %19,9 | %2,5 |

Honako hauek dira tratamendu-erak familiakoen artean (Fischer,1964:118):

| Hiztuna | Solaskidea | | |
|---|---|---|---|
| | Senarrari | Emazteari | Semeari |
| Senarrak | -------- | (izena) edo *OMAE* | (izena) edo *OMAE* |
| Emazteak | *Anata* edo *too-chan* | ---------- | (izena laburtua-*chan*) edo *anta* |
| Semeak | *too-chan* | *kaa-chan* | ---------- |

*Kaa-chan* eta *too-chan* terminoen gutxi-gorabeherako esanahia «aita» eta «ama» da hurrenez hurren. Ikus daitekeenez, behetik gora (semeak gurasoei) ez da izenordainik erabiltzen, horrelakoetan senidetasunezko hitzak ia derrigorrezkoak direlako; bestalde, senidetasunezko terminoak nagusiagoekin baizik ez dira erabiltzen. Goitik behera, tratamendua aldatu egiten da hiztunaren sexuaren arabera: aita, *omae* izenordainaz baliatzen da semeari zuzentzeko; amak *anta, anata* baino kortesia gutxiagoko forma eratorria, erabiltzen du semeari zuzentzeko. Azpimarkatzeko da gizona izenordain berberaz *(omae)* zuzentzen zaiela bai semeari eta bai emazteari.

## 14. TRATAMENDUAK ETA SOLAS-MAILAK KOREERAZ

Nahiko nabarmenak dira koreeraren eta japonieraren arteko antzekotasunak, bereziki solas-mailen arloan. Koreeraz, japonieraz bezala, subjektuak ez du zertan azaldu perpausean eta beraz, aski da aditza perpausa osatzeko. Baina hiztun korearrak, japoniarrak bezala, aditza eman aurretik, solas-maila hautatu beharra dauka. Japonieraz bezala, tratamenduaren ardatza eta erreferentziaren ardatza bereizten dira, beheko eskeman ikus daitekeenez (Martin, 1964:408).

Japoniera eta koreera alderatuz gero, lehen desberdintasun deigarria apaltasunezko formen eza da. Bigarren desberdintasun nabaria tratamenduaren ardatzean ageri zaigu: japonierak bira murrizteko bidean dauden hiru estilo bereizten ditu eta koreerak sei estilo bereizten ditu. Martinen (1964) arabera, lehenengo hirurak (laua, hurbiltasunezkoa eta lagunartekoa) norberaren taldekoentzako tratamenduak lirateke eta beste hirurak (kortesiazkoa, aginpidezkoa, begirunezkoa) norberaren taldeaz kanpokoentzat.

Dena den, koreeraren tratamendu-sistema tradizional konplexua aldatuz joan da eta orain badirudi «estiloen» berregituraketa baten aurrean gaudela (Sohn, 1981). Hurrengo aldaketak sistema jasaten ari den eraberritzearen adierazle bikainak dirateke.

KOREERA ESTANDARRA

1. TRATAMENDUAREN ARDATZA (ESTILOAK):

NORBERAREN TALDEKOAK ('ingroup')

| Laua | Hurbiltasunezkoa | Lagunartekoa |
|---|---|---|
| ('plain') | ('intimate') | ('familiar') |
| *-ta* [T] | *-na* [N] | *-e* [E] |
| | *-ney* | *-ei* |

NORBERAREN TALDEAZ KANPOKOAK ('outgroup')

| Kortesiazkoa | Aginpidezkoa | Begirunezkoa |
|---|---|---|
| ('polite') | ('authoritative') | ('deferential') |
| *-e yo* [Y] | *-(s)o* [S] | *-(su)p.nita* [P] |
| *-ci yo* | | |

2. ERREFERENTZIAREN ARDATZA (ADIERAZPIDEAK):

| | |
|---|---|
| NEUTRALA: | *-ta* |
| JASOA: | *-(u)si-* |

3. ADITZ EUFEMISTIKOAK EDO LEUNGARRIAK:

| | «jan» | «lo egin» | «egon» |
|---|---|---|---|
| NEUTRALA: | *mek-* | *ca-* | *iss-* |
| JASOA: | *capsw-(si-)* | *cwumusi-* | *keysi-* |

Lehenengo eta behin, koreeraren garai modernoaren hasieran (XIX-XX mendeen bitartean) solas-mailarik gorena izan zena (*-NAITA* aditz-bukaeraduna) eta kaleko hizkeran 1945 arte erabili izan zena, aztarna zaharkitua besterik ez da gaurko belaunaldientzat. Gaur egun, estilo zaharkitu hori drama eta eleberri historikoetan, begirune edo menpekotasun ikaragarria adierazten duten gutun-mota batzuetan eta otoitzetan baizik ez da erabiltzen. Ondorioz, garai modernoan bigarren solas-maila izandakoa, hots, begirunezko *(-SU)PNITA* aditz-bukaeraduna (hemendik aurrera [P]) da gaur sistemaren mailarik gorena.

Bigarren, *-YO* aditz-bukaeradun estilo kortesiazkoak (aurrerantzean [Y]), garai modernoan *-(S)0* aditz-bukaerako estilo aginpidezkoarekin batera (hemendik aurrera [S]) begirunezkoen barruan hirugarren eta azken solas maila zenak, solas-maila gorena erdietsi du [P] estiloaren aldaera informal gisa edo [P]ren noizbehinkako aldaera gisa. Lehen, [Y] estiloa, emakumeek eta umeek erabiltzen zuten eta nekez gizonek; gaur egun, berriz, erruz entzuten da gizonen eta emakumeen ahotan. Bestalde, [Y], begirunezko estilo bakar bilakatu da koreera estandarrean mintzatzen diren emakumeentzat (Seulgo dialektoa), hauek ez baitute [P] estilorik erabiltzen. [Y] estiloaren igoera [P] estiloaren mailara oso nabarmena da, maiz hiztun beraren hizketaldian zehar bata eta bestea txandakatzen baitira. Txandakatze horrek (3P:4Y edo 4P:6S *ratio*koa izan daitekeena), bi estiloak solas-maila berean daudela adierazten du, nahiz eta bakoitzaren formaltasun-maila desberdina izan. Beraz, edozein pertsona helduk ez luke eragozpenik jarriko, [P] nahiz [Y] emango baliote: lehen kasuan, formaltasun-kutsua nabarituko luke eta bigarrenean etxekotasuna-edo. Estilo bi hauen arteko maila-parekotasuna nabariagoa bide da gazteagoen artean.

Helduei soilik ematen zaizkien [P], [Y] eta [S] estiloetatik, [Y] askoz maizago gertatzen da gazteagoen artean eta horrek informaltasuneranzko joera adierazten du (Sohn, 1981:434)

Hirugarren, [S] estiloaren hartzailea ez da lehengo bera. Garai modernoaren hasieran, estilo hau heldu berdinen artean eta goitik behera erabiltzen zen. Gaur egun, ordea, goitik beherako erabilera baizik ez da gertatzen eta haren ordez [P] eta [Y] erabiltzen dira. Gainerako estiloak simetrikoak nahiz asimetrikoak izan daitezke; [S] estiloa da simetrikoa ez den bakarra eta belaunaldi zaharretako hiztun bakar batzuen artean dago bizirik. Batez ere, mailazko desberdintasun handia duten gizonen artean gertatzen da eta normalean [S]/[P] asimetriaz[18], testuinguru formaletan azaltzen delako. Dena den, senar-emazteen kasuaren salbuespenaz, [S] estiloa oinarritzen den boterezko asimetria ez da adinezkoa edo senidetasunezkoa, erdietsitako mailari dagokiona baizik (lanbidea, gizarte-maila, aberastasuna...). Nolanahi ere, goiko taulako emaitzetatik ondoriozta daitekeenez, [S] erabat galzorian dago.

Laugarren, guztiz azpimarkagarria da *-NEY* bukaeradun estiloaren (aurrerantzean [N]) maiztasun gero eta txikiagoa. Garai modernoaren hasieran, solas maila hau, gazteen artean ez ezik, era asimetrikoan erabiltzen zen goragoko pertsonaren eta adin erdiko beheragokoaren (senide gazteagoekin...) artean. Gaur egun ez da erabiltzen gazteen artean eta, [S] bezala, galzorian dago; [N] estiloaren ordez, [Y] eta lagunarteko estiloa [E] erabiltzen dira.

Bosgarren, *-E* aditz-bukaeradun estilo lagunartekoak [E] zabalera handia izan du azken aldi honetan. Badirudi [E]ren zabalkundea eta [Y]rena elkarren eskutik doazela. [E] estiloa, umeek lehenen ikasten zuten eta gehien erabiltzen

[18] Hala ere, senar-emazte zahar batzuen artean [S]/[Y] asimetria gertatzen da, emakumeek ez baitute [P] erabiltzen.

zuten tratamendua zen, baina gaur gazteei zuzentzeko era egokiago bihurtu da, [N] formalegiaren aldean. Beraz, neskei zuzentzeko [E] hobesten da eta emakumeek berek oro har nekez hobesten dute [N], [E] eskura izanik. Nolanahi ere, oraindik [N]ri eusten diotenek, maiz [E]rekin nahasten dute, [P]/[Y]ren parekoa den [N]/[E] alternantziaren arabera.

Bestalde, [E], maiz, *-TA* aditz-bukaerako estilo lauaren (aurrerantzean [T]) aldaera informal gisa erabiltzen da. [T] estilo laua, batez ere haurren artean, haurrekin eta txikitatik adiskide izandako heldu edo gazteen artean erabiltzen da; [T], era berean, familian goragokoak gazteagoari ematen dion tratamendua da (gurasoek seme-alabei edo haurride zaharragoak gazteagoari). Sohnen (1981:435) ustez, [T] formalagoa da eta horregatik azaltzen da [E] baino maizago helduen hizkeran haurrei zuzentzerakoan; baina haurren artean alderantziz gertatzen da: haurrek beren artean maizago erabiltzen dute [E]. Ondorioz, formaltasunaren (+/-) araberako (T/E) bikote edo alternantzia berria dugu, lehengo P/Y eta Y/N alternantzien parean.

Beraz, [P] : [Y] = [N] : [E] = [T] : [E] bikoteen artean parekotasuna dago formaltasunean (formala/informala) eta kookurrentzian oinarrituta.

Koreeraren deskribapen gehienetan hurrengoaren antzerako sei solas-mailako sistema aurkeztu ohi da:

| SOLAS-MAILA | ADITZ-BUKAERA | | TRATAMENDU-TERMINOAK |
|---|---|---|---|
| 1. begirunezkoa | *-(su)pnita* | [P] | *sensayngnim* («mr.»), etab. |
| 2. kortesiazkoa | *-(e)yo* | [Y] | *sensayngnim,* etab. |
| 3. aginpidezkoa | *-(s)o* | [S] | *tangsin* («you»), etab. |
| 4. hurbiltasunezkoa | *-ney* | [N] | *caney* («you»), etc. |
| 5. lagunartekoa | *-e* | [E] | *caney/ne,* etab. |
| 6. laua | *-ta* | [T] | *ne* («you»), etab. |

Dena den, Sohnen ustez, seiko sistema hori, belaunaldi zaharrena da (45 urtetik gorakoena 1981ean), baina inola ere ez gazteena. Gauzak horrela, Sohnek (1981:437) sistema bana bereizten du gazteen eta zaharren belaunaldietakoentzat:

A. 45 URTETIK GORAKOEN BELAUNALDIA: «LEHEN HARREMANA»

| | [+formala/-formala] | [+boterea/-boterea] |
|---|---|---|
| Helduak: | [P/Y] <-----> [P/Y] | [P/Y] <-----> [S] |
| Adoleszenteak: | [N/E] <-----> [N/E] | |
| Haurrak: | [T/E] <-----> [T/E] | |

B. GAZTEEN BELAUNALDIA: «LEHEN HARREMANA»

| | |
|---|---|
| Helduak: | [P/Y] <-----> [P/Y] |
| Adoleszenteak: | [ /E] <-----> [ /E] |
| Haurrak: | [T/E] <-----> [T/E] |

C. SISTEMA BERRIA: «LEHEN HARREMANA»

| | |
|---|---|
| +Helduak: | [P/Y] <-----> [P/Y] |
| -Helduak: | [T/E] <-----> [T/E] |

Garai modernoaren hasieran lau adin bereizten bide ziren pertsona baten bizitzan, [T], [N], [S] eta [P] solas-mailen arabera. Gaurko belaunaldi zaharragokoentzat honako bilakabide hau ezar daiteke pertsona baten bizitzan barrena: haurtzaroan [T/E] eta *ne* «you»... jasotzen ditu; adoleszentzian [N/E] eta *caney* «you»... jasotzen ditu; heldutasunera iritsitakoan, [P/Y] edo [S] eta *sensayngnim* «you»... Baina hiztuna gazteen belaunaldikoa bada, adoleszentzian [E] besterik ez du jasotzen, tratamendu-terminorik gabe. Eta etorkizunean (ikus bedi goian C.), heldutasuna mugarritzat duten bi garai bereizteko joera somatzen da.

Koreeraz funtsezkoa da harremana, adiskidetasuna edo ezagutza noizkoa den jakitea, horrexen arabera erabakitzen baita bizitzan zehar erabiliko den solas-maila. Horrela, bi helduren artean [T/E], [N/E] edo [P/Y] gerta daiteke, euren arteko harremana noiz hasi zen kontuan harturik: bi helduk, [P/Y] erabili beharra daukate, euren adiskidetasuna heldutasun-arokoa baldin bada; [T/E] erabiliko dute, harremana haurtzarotikakoa baldin bada; eta [N/E], azkenik, txikitako lagunak baldin badira. Hortaz, tratamenduari begira ez da lortutako adiskidetasun-maila axola duena, adiskidetasuna noiz egina den baizik. Hasierako harremanetako tratamendua izango da bizitza guztirako solas-maila aldagaitza; Sohnek horri «hasierako harremanaren printzioa» deritzo («the principle of initial acquaintance»). Goiko sistema, adin horretan lehen harremana dutenen kasuari dagokio, noski.

Belaunaldi zaharragoen artean oraindik irauten duen [P/Y] <---> [S] da adinezko asimetriarekin zerikusirik ez duen asimetria bakarra. Dena den, esan bezala, erdietsitako botereak eragindako asimetria hau galzorian dago. Gainera, «hasierako harremanaren printzipioaren» arabera, ez dirudi [S] berriro piztu daitekeenik. Gaur egun, adina da, inolako zalantzarik gabe, botere-elementurik garrantzitsuena; gaurko koreeraz, beraz, adinezko desberdintasunik izan ezean, simetria da joera nagusia.

Hurrengo aldaketak ere zentzu berean ulertu behar dira, hots, elkartasuna (tratamendu simetrikoa) eta informaltasuna boterearen (tratamendu asimetrikoa) eta formaltasunaren gainetik zabaltzeko joeraren erakusgarritzat hartu behar dira. Lehenik, senar-emazteen artean gertatzen ari den ohitura-aldaketa aipatu behar da: senar-emazteen artean asimetriatik ([Y] <--> [S] edo [Y] <---> [N/E]) simetriara ([Y] <---> [Y]) pasatu da belaunaldi gazteetan. Bigarren, botereären ardatzean gertatzen ari den ohitura-aldaketa aipatu behar da: Korean, tradizioaren arabera, boterearen ardatzean senidetasunezko loturak pisu handiagoa du, adinak baino; hau da, heldu gazteago batek, arbola genealogikoan goragoko mailan egoteagatik, [N/E] eman diezaioke bera baino zaharragokoari eta [P/Y] jaso dezake beragandik; baina gazteagoen artean usario horrek pisua galdu du eta joera simetrikoa nagusitzen da adinak jokatzen duen paperaren ondorioz eta tratamendu berdintasuneranzko joeraren ondorioz. Hirugarren, 30 urte inguruko enpresaburu gazte asko daude eta gazteok [P/Y] simetrikoa erabiltzen dute enplegatu zaharragoekin. Laugarren, gazteek nekez erabiltzen

dituzte apaltasunezko forma bakanak. Bosgarren, gazteak «lehen harremanaren printzipioa» urratzen hasi dira eta zenbaitetan harremana estutu ahala, ageriko edo isileko akordio batez, hasierako [P/Y] simetrikoari estilo simetriko lauagoa ([E] edo [T/E] simetrikoa) jarraitzen zaio. Dena den, estilo-beheratze hori gerta dadin, adinean ezin da bi edo hiru urtetik gorako alderik egon.

Elkartasun eta informaltasunaren ildotik gertatzen ari diren aldaketen beste aldean, aurkako joeraren indarra erakusten duten usarioak aipatu behar dira. Tratamendu-asimetriak, adibidez, maiz gertatzen dira maila desberdinetako ikasleen artean ([T/E] <---> [P/Y]), armadan, enpresa pribatuen munduan eta administrazioan mailazko desoreka dagoenean eta solaskideetariko bat gaztea denean, poliziaren eta bide-araudiaren urratzailearen artean, eroslearen eta saltzailearen artean, taxistaren eta pasaiariaren artean, poliziaren eta konbiktuaren artean...

Koreeraz ageri den estilo-ugaritasuna, hierarkia zurruneko gizartekera tradiozonalari eta familiaren egituraketa gogorki mailakatuari lotuta esplikatu ohi da. Iragan horren aztarnak nabari-nabariak dira gaurko gizarte eta hizkuntzan. Hala eta guztiz ere, ez dago dudarik Koreako gizarteak azken hamarkadetan bilakaera izugarria izan duena era demokratikoetarantz eta egitura «horizontalagoetarantz»; hain zuzen ere, bertikaltasunetik horizontaltasunerantz egiten ari den bilakabide horren adierazle dira orain arte aipatutako aldaketa gehienak (Sohn, 1981:445).

## 15. TRATAMENDUAK TXINERAZ

### 15.1. Tratamenduak 50eko hamarkadan (Chao, 1956)

Chaoren azterketak 1950eko hamarkadako usarioak jasotzen ditu eta dagoeneko zaharkitua geratu da, Txinako iraultzaz geroztik aldakuntza ugari izan baita bai gizartean eta bai tratamenduen arloan. Nolanahi ere, lehendabizi Chaoren ikuspegia jasoko dugu, gertatutako bilakaeraz hobeto jabetzeko.

Txineraz, honako hauek dira izenordainak, oinarrizkoak letra larriz emanak (Chao, 1956):

| | 1 | 2 | | 3 |
|---|---|---|---|---|
| Sing. | *WOO* | Lagunartekoa *NII* | Begirunezkoa *Nin* | *TA* |
| Pl. | *WOO.MEN* (inklusiboa)<br>*TZAR.MEN* (esklusiboa) | *NII.MEN (Nin.men)* | | *TA.MEN* |

Izenordainok nekez erabiltzen dira bokatibo gisa. Eta pertsona guztietan, singularreko forma arruntaren aldamenean aldaera «ohorezko» bana dago,

pluraletik hartua; guk aztergai dugun bigarren pertsonari dagokionez, *Nin* (**nii.men* > *niin* > *nin*) da *nii* izenordainaren aldaera «ohorezkoa» edo begirunezkoa. *Nin* begirunezkoaren pareko forma plurala *Nin.men* da, ahozko hizkeran tradiziorik ez duena eta gutunetan inoiz erabilia. Beraz, normalean pertsona batzuei begirunez zuzentzeko beste era batzuk erabiltzen dira eta ez izenordainak; edo beste hitzez esateko, pluralean ez dago T/V aurkakotasunaren antzekorik.

Aurrera baino lehen, portugesez edo suedieraz bezalatsu, bestelako tratamendu-erek (tituluek...) begirunezko izenordaina (*Nin*) ordezka dezaketela azpimarkatu behar da.

Aipatutakoez gain, bada forma «ohoragarri» bat, ezezagunei zuzentzekoa: *gershiah* «under (your) tower». Eta gutunetako estiloan, beste era bat ere bada, ahozko hizkeran jasotzen ez dena: *tzwushiah* «under (your) feet». Chaok dioenez (1956:220), «These are comparable to *Bihshiah* "under (your) steps_Your Majesty", the idea being that I do not dare to address you directly and dare only to direct my speech to a lower level or to the subordinates at that level.» *Gershiah* terminoa *Nin*en ordez erabiltzen da —Txinako iparraldean eta bereziki Yangtze haranean— eta begiruneari bagagozkio, gutxi-gorabehera *shian.sheng* tratamenduaren («Mr./Sir», ik. beherago) baliokidea da.

Tratamenduen barruan izenordainena da sistema bakunena, baina izenordainekin batera hurrengo kategoria zein baino zein korapilatuagoak kontuan hartu behar dira tratamenduen arloa bere osotasunean besarkatzeko: izen bereziak, tituluak eta ahaidetasun-terminoak (ik. Chao, 1956:234).

### 15.2. Berrikuntzak tratamendu-usarioetan: iraultzaren eragina (Fang, 1983)

Txinako Herri-Errepublika sortu ondoren (1949), aldaketa garrantzitsuak izan dira tratamendu-usarioetan. Berrikuntzarik deigarriena bigarren pertsonako izenordainen mailan gertatutakoa da, zalantzarik gabe. Iraultzaren aurretik, honela erabiltzen ziren T (*nii=ní*) eta V (*nín*):

T (*nii=ní*)

1. Etxekotasuna zutenen artean: ikaskide, ikasle lagun, lankide eta adiskideak...
2. Beheragoko mailakoei: enplegatu, morroi, langile, nekazari, soldaduei...
3. Parekoen artean familian: senar-emazteak, neba-arrebak, lehengusu-lehengusinak...

V (*nín*)

1. Maila gorenekoei: estatuburua
2. Goragoko mailakoari: ofizial, epaile, lurjabe, negozio-gizon aberatsei...
3. Jende ospetsuari: irakasle, maisu eta idazle famatuei...
4. Aurreko belaunaldikoei: aitona-amonei, gurasoei, aitagin-amaginarrebei, osaba-izebei, jende zaharragoari...
5. Ezezagunei

Baina Txinako Iraultzaren ondorioz, T (*ní=nii*) zabaldu da noranahiko eta V (*nín*) ia erabat baztertuta geratu da. Gaur egun, agintari handienak ere ez omen luke V itxarongo bere menpekoengandik, horrelakoetan tituluen bidez T-T zuzenegia saihesteko joera egon daitekeen arren. V (*nín*) begirunezkoaren aztarna bat, gutunetan ageri da, baina goiburuko agurrean bakarrik (*Nín hao* «How are you»), gutunean zehar T (*ní=nii*) izaten baita hasierako tratamenduaren jarraipena. Beraz, bigarren pertsonako izenordainen sistema soilduta geratu da, T/V gisako aurkakotasunik gabe[19].

[19] Bestalde, Chaok (1956) aipatzen dituen beste tratamendu ohorezko edo begirunezkoak zaharkituta geratu dira Txina berrian: *géxià (=gershiah)* «under (your) tower», *zúxià (= tzwushiah)* «under (your) feet»... Agian gutunetan *bixià* (=*Bihshiah* «maiestate») atzerriko errege-erreginentzat eta *géxià* estatuburuentzat izan daitezke erabilgarri, baina gaur egun, txinatarren harremanetan eta tratamendu zuzenean ez dago horrelakorik. Gainerako trataeretarako ik. Fang, 1983.

# III. BESTE HIZKUNTZAK ETA EUSKARA

## 1. TIPOLOGIA

### 1.1. Errespetu-mailak eta unibertsalak izenordainen erabileran (Head, 1978)

Hizkuntza batetik bestera aldatu egiten dira izenordainen jokoan sartzen diren eta tratamendua (errespetu-maila edo gizarte-tartea) bereizteko baliatzen diren tasun gramatikalak. Batzuetan, izenordainen arteko alternantzia errespetu-maila edo gizarte-tarte desberdinak adierazteko, tasun gramatikal bakar baten arabera gertatzen da (numeroaren arabera edo pertsonaren arabera, adibidez); beste batzuetan, gramatikazko tasun-multzo baten arabera (batera numerozko eta pertsonazko tasunen gorabehera, adibidez) gertatzen da tratamenduen arteko alternantzia; zenbaitetan, izenordain-motaren arabera (pertsona-izenordainak *versus* izenordain erakusle edo bihurkariak) gertatzen da alternantzia; eta, azkenik, tasun gramatikalen eta izenordain-motaren arabera (esate baterako, bigarren pertsonako pertsona-izenordain singular eta plurala, alde batetik; eta hirugarren pertsonako izenordain erakuslea, bestetik) gerta daiteke izenordainen arteko alternantzia tratamendua adierazteko.

Tratamendu-sistema batean, beraz, balio sozial desberdina duten izenordainen arteko alternantzietan bi eratako aldagaiak sartzen dira jokoan: alde batetik, numeroa eta pertsona bezalako tasun edo kategoria gramatikalak; beste alde batetik, izenordain-mota (pertsona-izenordaina/izenordain erakuslea/izenordain bihurkaria, e.a.) bezalako bereizgarriak.

Azpiatal honetan izenordainetara, edo zehatzago esateko, izenordainen arteko alternantzia soziolinguistikoki esanguratsuetan gramatikazko tasunen aldaketak (numero- edo pertsona-aldaketak) izan dezakeen eragina aztertzera mugatuko garen arren, ez da pentsatu behar tasun gramatikal horien eragina izenordainen sailera edo kategoriara murriztua dagoenik. Pertsona edota numeroa aldatzea errespetu-mailak bereizteko, adibidez, hizkuntzen arabera aditz-sisteman (euskara, espainiera, frantsesa...) edo —bakanago— izenen sailean

(Amharic, Hebraiera, Hausa) ere gertatzen da. Bestalde, izenordainen sailean aurkitzen ez diren hizkuntza-tasunen artean ere gorabeherak gerta daitezke esanahi edo ñabardura soziala adierazteko (agintera-mota desberdinen artean, esaterako; edo agintera eta funtzio berbera betetzen duten bestelako adizkeren artean).

Beraz, oraingo ikusmoldeak tipologia du oinarri eta izenordain edo tratamenduei buruzko unibertsalak ezartzea helburu. Hizkuntza-unibertsalen bilaketan kokatu behar den ikuspegi hau, liburuan zehar nagusi den ikuspuntu soziolinguistikoa osatzera eta argitzera datorrela uste dugu. Azpiatal honetan ikuspuntu berezi batetik aztertuko dugu izenordainen bidezko tratamenduen erabilera (B.F. Head, 1978).

### 1.1.1. Ondorioak

Hurrengo ondorioak, hizkuntza-kopuru mugatu(egi) baten azterketatik atereak diren heinean, guztiz behin-behinekoak dira eta hizkuntz unibertsalen bilaketaren ildoan kokatu behar dira saiakera modura. Hortaz, ikerketa gehiagoren eske geratzen dira orain datozenak (Head, 1978: 190).

Arakatutako langaietan oinarriturik, Headek hurrengo hipotesiak plazaratu ditu izenordainen bidezko erreferentzian errespetu-mailak edo gizarte tartea adierazteko xedez ageri diren joera unibertsalei buruz.

1. Numeroa da izenordainen ezaugarririk erabiliena hainbat hizkuntzatan pertsona-izenordainen bidezko erreferentzian errespetu-mailak edo gizarte tartea adierazten dituzten alternantziak sortzeko.
2. Izenordainen bidezko erreferentzian numeroa aldatzea errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazteko, banakoei zuzentzerakoan gertatzen da soilik eta sekula ez multzo bati zuzentzerakoan.
3. Izenordainen bidezko erreferentzian numeroa aldatzen baldin bada errespetu-mailak edo gizarte-tartea agertzeko, orduan ez-singularrak (plural edo dualak) singularrak baino errespetu-maila edo gizarte-tarte handiagoa adierazten du erreferentearen eretzean.
4. Izenordain bi bider pluralak (plural berrituak edo bikoitzak) plural soilak (jatorrizkoak edo arkaikoak) baino errespetu-maila edo gizarte tarte handiagoa adierazten du, baldin eta biak alternantzian badaude errespetu-mailak edo gizarte-tartea bereizteko.
5. Erreferentzian, izenordainen kategoria (gramatika-ezaugarri) bat baino gehiago erabil daitezke batera hizkuntza berean errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazteko.

   Arakatutako hizkuntzen artean, numeroa eta pertsona dira kategoria-bikote erabiliena esanahi soziala bereizteko. Bestelako kategoria-konbinaketarik egotea ezinezkoa ez bada ere (eta izan, badira halakoak), aipatutako bikotea

da gertagarriena, numeroa eta pertsona izenordain-sistema orotan agertzen diren kategoria unibertsalak direlako.

6. Maila sinkronikoan nahiz diakronikoan, pertsona-aldaketarekin batera numero-aldaketa erabili ohi da izenordain-sisteman errespetu-mailak edo gizarte-tartea erakusteko.

7. Errespetu-mailak edo gizarte-tartea erakusteko pertsona-aldaketaz baliatzen diren hizkuntzetan, solaskideari eta hiztunari erreferentzia egiteko hirugarren pertsona erabiltzeak bigarren eta lehen pertsona, hurrenez hurren, erabiltzeak baino gizarte-tarte handiagoa adierazten du.

8. Izenordainen bidezko erreferentzian pertsona-aldaketak numero-aldaketak baino tarte handiagoa adierazten du errespetu-mailaketari edo gizarte-tarteari dagokionez. Ondorioz, tratamendua bereizteko numero-aldaketa eta pertsona-aldaketa erabiltzen dituzten hizkuntzetan, errespetu-mailaketa honako hau izango da behetik hasita: bigarren pertsona singularra < bigarren pertsona plurala < hirugarren pertsona singularra < hirugarren pertsona plurala.

9. Solaskideari buruz, bigarren pertsonako izenordainak baino errespetu maila edo gizarte-tarte handiagoa erakusten duen hirugarren pertsonako pertsona-izenordainaren erabilerak, sarritan, izenez edo izen-esapideez osatutako errespetuzko trataerak ordezkatuz izan du sarbidea tratamendu-sisteman. Jakina, baieztapen honek ez du ezertarako ukatzen kutsapenaren bidezko sarbide edo hedabidea hizkuntzen artean.

10. Hirugarren pertsonako izenordainetan genero-bereizketa duen hizkuntza batean solaskideari zuzentzerakoan hirugarren pertsonako pertsona-izenordainaren generoa aldatzen ez bada, orduan genero aukeratua izenordain berriak ordezkatu duen izen-esapidearen buruarena izango da.

11. Genero nozionalaren aldaketa, adibidez, erreferentearen sexuarekin bat ez datorren generoa erabiltzen denean, ez da gertatzen genero «berezkoaz» baino errespetu-maila handiagoa erakustearren. Aitzitik, horrelako erabilera «desbideratuak» gutxiespena edo errespetu-galtzea adierazten du maizenik, zenbaitetan samurtasuna adieraz dezakeen arren.

12. Izenordain-sisteman errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazteko hurbiltasun-kategoria edo maila desberdinez baliatzen diren hizkuntzetan, diskurtsoan tarte fisiko handiena (edo handiagoa) adierazteko erabiltzen den kategoria erabiliko da gizarte-tarte handiagoa agertzeko.

13. Izenordain-sisteman errespetu-mailak edo gizarte-tartea bereizteko zehaztasun-kategoria desberdinez baliatzen diren hizkuntzetan, zehaztasun-maila gutxieneko (edo gutxiagoko) izenordaina edo zehaztugabeena izango da errespetu edo gizarte-tarte handiagoa agertzeko erabiliko dena.

14. Erreferentzian, izenordain bihurkariek, erakusleek eta izenordain bilakaturiko izen-esapideek numero bereko pertsona-izenordainek baino errespetu-

maila edo gizarte-tarte handiagoa adierazten dute gehienetan. Bestalde, izenordain-moten artean badirudi bihurkari eta erakusleek, izenordain bilakaturiko izenek baino probabilitate handiagoa dutela errespetu-maila edo gizarte-tarte handia adierazteko.

15. Hirugarren pertsonako izenordain-moten arteko alternantzia ez da izaten baliabide oso erabilia errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazteko. Adibidez, hirugarren pertsonako pertsona-izenordainen eta izenordain erakusle edo bihurkarien arteko alternantzia edo azken hauen artekoa gutxitan gertatzen da. Hipotesi hau benetako izenordainei dagokie eta ez izenordain bilakaturiko izenei; azken hauek ugari dira hizkuntza batzuetan eta euren arteko alternantzia aski arrunta errespetu-mailak bereizteko.

16. Izenordainen kategorietako baten (numero, pertsona...) aldaketa errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazteko hedatuago dago (eta beraz gertagarriagoa da edozein hizkuntzatan) solaskideari erreferentzia egiterakoan, solaseko gainerako partehartzaileei (hiztunari eta hirugarren bati) erreferentzia egiterakoan baino.

    Guztiz segurua ez bada ere, litekeena da numeroaren kategoria aurreko baieztapenetik kanpo geratu ahal izatea, numero-aldaketa oso maiz erabiltzen baita esanahi sozialaz hiztunari erreferentzia egiterakoan. Solaskidearekiko tratamendu-aldaketa bezainbeste arakatu ez bada ere, nork bere buruari erreferentzia egiterakoan oso hedatua dago lehen pertsonako izenordainen arteko alternantzia errespetu-mailak edo gizarte-tartea bereizteko. Horrela, hizkuntzaren historialari batzuen ustetan, bigarren pertsonako alternantzia lehen pertsonakoaren oihartzuna, hots, azken honen ondokoa izango zatekeen. Bestalde, izenordain-sistemen ezaugarri unibertsalen arabera, gertagarriago dirudi numeroaren aldaketak lehen pertsonako izenordainetan bigarrenekoetan baino: izan ere, numeroaren aldaketa lehen pertsonan izenordain-sistema guztietan agertzen den bitartean, hizkuntza guztietan ez da antzeko bereizketarik egiten bigarren pertsonan. Zoritxarrez, hiztunak bere buruari erreferentzia egiteko eskura dituen formen arteko alternantzia sozialak solaskidearenganako tratamendu-erak baino askoz ere arreta gutxiagoz ikertu izan dira hizkuntza gehienetan. Ondorioz, numeroa aurreko baieztapenaren salbuespena izan daitekeelakoa, gezurtatu gabeko hipotesi hutsean geratu behar da oraingoz.

17. Erreferentzian izenordain-motaren aldaketa errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazteko maizago gertatzen da solaskideari erreferentzia egiterakoan, solaseko gainerako partehartzaileei (hiztunari eta hirugarren bati) erreferentzia egiterakoan baino.

18. Izenordainen bidezko erreferentzian, errespetu-mailak edo gizarte tartea adierazteko xedez burutzen diren bilakabideak maizago gertatzen dira banakoei erreferentzia egiterakoan bati baino gehiagori erreferentzia egiterakoan baino.

19. Izenordainei sarriagotan eransten zaizkie ohorezko hizkiak, hizki gutxiesgarriak baino; eta hizkuntza batek izenordain-hizki gutxiesgarriak baldin baditu, orduan ohorezkoak ere baditu.

20. Hizkuntza batean errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazteko hurbiltasuna, inklusibotasuna eta zehaztasuna bezalako kategoriak erabiltzen badira, orduan gehienetan ez-hurbilak, esklusiboak eta zehaztugabe edo inpertsonalak, aurkako kategoriek baino errespetu-maila edo gizarte tarte handiagoa adierazten dute.

21. Errespetu-maila edo gizarte-tarte handiagoa erakusteko erabilia den izenordaina ez da sekula ezabatzen erreferentzia-sistematik errespetu edo distantzia gutxiagoko forma batez ordezkatua izateko.

    Errespetu-maila edo gizarte-tartea adierazten duten forma bat baino gehiagoren arteko alternantzia badago eta denboraren poderioz haietariko bat bere esanahi soziala galduta orokortzen bada, orduan lehenagoko denboretan kortesiazkoa edo errespetuzkoa izandakoa izaten da beti erabilera neutrorako zabaltzen dena eta ez alderantziz.

## 1.2. Tratamenduen tipologia hizkuntza indoeuroparretan (Joseph, 1987)

Historiari eta aldagai sozialei lehentasuna ematen dieten ikerketa askotan ez da funtsezko bereizketa hau egiten: ez dira behar bezala bereizten hiztegiaren bidez adierazten den begirunea (lexikala) eta morfologiaren bidezkoa (morfologikoa). Jakina denez, lehenengoa, hiztegiko begirune-formei dagokiena unibertsala da; adibide bat ematearren, ahaidetasun-sistema gehienetan ageri da lehenbiziko begirune-mota hau. Bigarrena, begirune morfologikoa, morfologia-sisteman eragiten duena da, interesgarriena egituraren eta tipologiaren ikuspuntutik; begirune lexikala, morfologian eta bereziki inflexioan aldaketak eragiten dituenean igotzen da maila lexikaletik maila estrukturalera.

Beheko taulan, laurogei bat hizkuntza eta dialekto indoeuroparrek bigarren pertsonan dituzten begirunezko tratamenduen tipologia ageri da (Joseph, 1987). Aurreko azpiatalean ikusi denez (Head, 1978), pluraltasunera jotzea da begirune edo errespetu handiagoa adierazteko lehen baliabide oinarrizkoa; bestelako baliabideak (pertsona-aldaketa, etab.) geroago garatzen dituzte hizkuntza gehienek, lehenbiziko fase horretatik pasa ondoren. Bada, hipotesi honek oraindik sinesgarriago dirudi hizkuntza indoeuroparrei bagagozkie; latinetikako hizkuntzen adarrean bereziki beste inon baino hobeto —hirugarren mendeko latinezko lekukotasunetatik hasita (Maley, 1974)— ageri da egiaztatuta pluraleranzko aldaketa lehenengo eta bigarren pertsonetan (1p/1s-begirunezkoa eta 2p/2s-begirunezkoa, hots, pluraleko lehenengo eta bigarren pertsonak singularrekoen ordez) begirunea adierazteko.

Lehen egoera edo fase horretatik, hau da, 1p/1s- eta 2p/2s-begirunezkoetatik harantzago doazen hizkuntzetan baliabide lexikaletara jotzen da begirunezko

tratamendu morfologikoa ordezkatzeko eta hurrengo maila batean aukera lexikalak morfologiko bilakatzen dira, hau da, begirunezko aukera lexikal berriak hirugarren pertsonako izenordain bihurtzen dira: beheko (3a,b) sailetako hizkuntzetan, adibidez. Begiruneranzko bilakaera-zikloaren azken urratsa, berriz ere pluraltasunera jotzerakoan burutzen da, hots, hirugarren pertsonako izenordain pluralak bigarren pertsonako izenordain singularra ordezkatzen duenean (beheko 3c tipoan ageri denez: 3p/2s begirunezkoa). Hizkuntza-baliabideari dagokionez, beraz, honako hau da zikloa: numero-aldaketa (pluraltasuna/singulartasuna), pertsona-aldaketa (3/2) eta pluraltasuna, berriz ere.

Beheko taulako (2b-e) sailetako hizkuntzek, zikloaren lehenengo urratsetik pasa arren, oso bestelako emaitzak ageri dituzte gainera. Islandieraren kasua (2c) berezi samarra da saileko gainerakoen aldean, hots: 2p ===> 2-begirunezkoa; 2-duala ===> 2p (begirunerik gabea). Germaniar, eslaviar eta baltikoko hizkuntza zenbaitek bilakabide bera izan zuten dualean, baina geroago jatorrizko IE plurala(k) galduta, jatorrizko 2-duala 2p izatetik 2p/2-begirunezkoa izatera pasa zen. Eta islandiera bera ere ildo beretik abiatzeko seinaleak agertzen hasi da azken aldi honetan (Joseph, 1987:263).

Ingelesak eta beste hizkuntzaren batzuek oso bilakaera bitxia izan dute, begiruneranzko bidea egin ondoren (2p ===> 2p/2s-begirunezkoa) berriz ere tratamendu-soiltasun edo bakartasunerantz itzuli baitira (2p/2s begirunezkoa ===> 2), tratamendu-bereizketa ikasi eta desikasi egin baitute jatorrizko izenordain singularraren galeraren ondorioz. Brasilgo portugesezko dialekto batzuek (4e), bigarren eta hirugarren pertsonaren arteko morfologiazko bereizketak oro galtzeraino iritsi dira, begiruneranzko bilakabideen ondorioz.

Italieraz, XV. mendeaz geroztik hizkuntza estandarrean sartu arte, bigarren pertsonaren ordezko hirugarren pertsona begirunezkorantz gertatu diren bilakaerak espainieraren eraginari egotzi dizkio Rohlfs-ek (1968:182). Siziliako dialektoetan *vossía* (< *vossignuría*) sortu zuten lehenik. Berrikuntza laster zabaldu zen iparralderantz eta Toskanarantz, harik eta hirugarren pertsonako izenordain femenino *ella*-k *vostra signoría* izen-esapidea ordezkatu arte. Hain aspaldi ez dela, it. *ella* forma beherantz egiten hasi zen 3s eta 2s-begirunezkoa adierazteko eta bere ordez kasu zeiharra (*lei*) nagusituz joan da. Geroago, Siziliako dialektoek urrunago jo zuten espanierazko eta portugesezko dialekto batzuetan bezala: *vossía* forma hain ohizko bilakatu zen, ezen *voi* eta *tu* izenordain zaharrak sistematik kanpora jaurti baitzituen; gaur, *vossía* are jende xehearen artean eta beheragoko eta zerbitzariekiko harremanetan ere erabiltzen da (Rohlfs, 1968:183).

Espainierari gagozkiola, bilakaera korapilatuaren bi alderdi besterik ez ditugu gogoratuko oraingoz. Alde batetik, 3s/2s-begirunezkoa (*usted*) erabat errotuta dagoen arren, han-hemenka 2p/2s-begirunezko arkaikoaren aztarna ugari geratzen direla esan beharra dago. Eremu handietan lehengo 2p izenordain (*vos*) zaharra, 2s-ez-begirunezko erabiliena da, hurrengo lurraldeetan *tú* izenordaina ia erabat bazterreratu duelarik: Mexikoko Chiapas lurraldea, Erdialdeko

Amerika, Uruguai, Paraguai eta Argentina. Beste batzuetan, hala nola, Panama, Kolonbia, Venezuela, Ekuador, Txile, Peruko ipar eta hegoaldean eta Bolivian (Lapesa, 1980:577-578), *vos* eta *tú* elkarren lehian ari dira. Beste alde batetik, begirunezko izenordainen aditzarekiko komunztaduraren auzia dugu (Lapesa, 1980:579): batzuetan adizkeraren pertsona-inflexioa izenordainaren pertsona gramatikalari dagokio (*vos* + 2p adizkera; *ustedes* + 3p adizkera); beste batzuetan, komunztadura izenordainaren pertsona erreferentzialari dagokio (*vos* + 2s adizkera; *ustedes* + 2p adizkera).

(1. TAULA) BEGIRUNEZKO TRATAMENDUEN TIPOLOGIA IE HIZKUNTZETAN (JOSEPH, 1987)

(1) TIPOA: BEGIRUNEZKO TRATAMENDU MORFOLOGIKORIK EZA

(1a) *IE hizkuntza arkaikoak:*
Prusiera zaharra; elizako eslaviera zaharra/bulgariera zaharra; frisiera zaharra, ingeles zaharra, saxoi zaharra, ipar aleman zaharra, suediera zaharra, daniera zaharra, norvegiera zaharra, islandiera zaharra; gaeliko zaharra; latin klasikoa, osko-unbriera; armeniera zaharra; greko klasikoa; sanskritoa, persiera zaharra, avestera; hatiera; tokhariera.

(1b) Gaur egungo zenbait dialekto, hala nola, Italian Abruzzikoak, Markak (hegoald.), Unbria (hegoald.), Sabina mendiak, Puglia (hegoald.), Campania eta Calabriako zatiak; errumaniar eta Danubioz azpiko dako-errumanieraren dialekto kolonialak.

(2) TIPOA: PLURALA BEGIRUNEZKO TRATAMENDURAKO

(2a) *2p ===> 2p/2s-begirunezkoa:*
letoniera (*jus*); bulgariera, mazedoniera, serbokroaziera, esloveniera (*vî*), txekiera (*vy*), eslovakiera (*vy*), lusaziera (*wy*), errusiera eta bieloerrusiera; albaniera (*ju*); suediera (*ni*), jidish (*ir*); bretoiera (*c'hwi*), eskoziar gaelera (*su*); latin berankorra (*vos*), Erdi Aroko espainiera (*vos*), Erdi Aroko italiera (*voi*), frantsesa (*vous*); gaurko grekoa (*eseîs*); mendebaldeko erdialdeko farsiera (erdialdeko parsiera eta partiera), gaurko parsiera.

Tipo honek oraindik ere bizirik irauten du (3) tiporantz lerratu diren hizkuntzetan, estandarretik kanpoko azpisistema gisa: adibidez, italierazko *voi* Calabriako hegoaldean, Napolesko lurraldean, Pugliako iparraldean, Erroman, Tesinoko Kantoian, Korsikan; eta Italiako iparraldeko landa eremuetan, Emilia Romagna aldean bereziki.

(2b) *2p ===> 2p/2s-begirunezkoa ===> 2:*
ingelesa (*you*), bretoieraren (*c'hwi*) dialekto batzuetan, batez ere Kornuallesko hegoaldean eta Vannes-ko eremu batean (zehatzago esateko, Pontivy-tik Qimper-era eta Carhaix-etik Lorient-era).

(2c) *2p ===> 2-begirunezkoa; 2-duala ===> 2p (ez-begirunezkoa):*
Islandiera

(2d) *2s (begirunezko izenordain bereziaz) ===> 2s-begirunezkoa;*
*2p (begirunezko izenordain bereziaz) ===>*
*2p-begirunezkoa /2s-hiperbegirunezkoa:*
*dako-errumaniera (dumneata* begirunezkoa, *dumneavoastra* hiperbegirunezkoa).

(2e) *2p ===> 2p; 2p (begirunezko izenordain bereziaz) ===> 2s-begirunezkoa:*
frisiera (*jo:* 2s-begirunezkoa; *jimme:*2p)

## (3) TIPOA: 3. PERTSONA BEGIRUNEZKO TRATAMENDURAKO

(3a) *3s ===> 3s/2s-begirunezkoa; 3p ===> 3p/2p:*
Andaluziako mendebaldeko espainiera, Kanariak, Amerika (*vose*orik gabeko lurraldeak) (*usted; ustedes*).

(3b) *3s ===> 3s/2s-begirunezkoa; 3p ===> 3p/2p-begirunezkoa:*
poloniera; italiera (*lei; loro*); XVIII. mendera arteko alemana (*er; shie*); Espainiako espainiera (Andaluziako mendebaldea eta Kanariak salbu) (*usted; ustedes*); kontinenteko portugesa (*você; vocês*) lagunarteko *tu* gordetzen duten dialektoetan, haietariko batzuetan 2s-hiperbegirunezkoa (*vossemecê*) ere izanik.

(3c) *3p ===> 3p/2-begirunezkoa:*
alemana eta mendebaldeko jidish (*sie*); daniera eta norvegiera (*de*).

## (4) TIPOA: SISTEMA NAHASIAK

(4a) *2s (edo 3s)* (biak begirunezko izord. bereziz) *===> 2-begirunezkoa:*
nederlandera (*u:*adizkera singularraz beti).

(4b) *2p ===> 2p/2s-begirunezkoa; 3p ===> 2-hiperbegirunezkoa:*
hindi.

(4c) *2p ===> 2p/2s-begirunezkoa ===> 2 ===> 2p/2s-hiperbegirunezkoa; 3s ===> 3s/2s-begirunezkoa; 3p ===> 3p/2p-begirunezkoa:*
juduen espainiera (*vos; el/eya; eyos/eyas*); urrezko aroko espainiera (*vos; él/ella; ellos/ellas*).

(4d) *2p ===> 2p/2s-begirunezkoa ===> 2s-begirunezkoa ===> 2s-ez-begirunezkoa; 3s ===> 3s/2s-begirunezkoa; 3p ===> 3p/2p:*
Amerikako espainiera (*vose*oa duten lurraldeak).

(4e) *3s ===> 3s/2s; 3p ===> 3p/2p; 2p ===> 2s-hiperbegirunezkoa:*
Brasilgo portugesa (*você; vocês; vós*).

## 2. TRATAMENDUEN BILAKAERA EUSKARAZ[1]

> «De ce que la méthode comparative est la seule qui permette de faire l'histoire des langues il résulte que, tant qu'une langue est isolée, elle est dénuée d'histoire. Entre l'état du basque au XVI[e] siècle et l'état du basque aujourd'hui, il y a des différences; mais les changements ne sont pas essentiels; en substance, la langue est restée la même.»
>
> (Meillet, Michelena 1986tik jasotako aipamena)

> «De ninguna manera se puede decir, por lo tanto, que el vasco carezca de historia: hablando con exactitud, lo más que se puede decir es que esa historia es corta en comparación con la de muchas otras lenguas y también, si se quiere, menos completa dentro del período sobre el cual nos informan los textos a causa de la escasez relativa de éstos. (...) Decir que los cambios documentados no son esenciales y que la lengua, en sustancia, sigue siendo la misma es otra manera de decir —mucho más expuesta a malentendidos— que esos cambios son pequeños, siendo así que habrían sido mayores de estar fechados los textos más antiguos cinco o diez siglos antes.»
>
> (Michelena, 1986:12)

### 2.1. Pluraltasuna begirunearen adierazgarri: «zu» izenordainaren jatorrizko pluraltasun ustezkoa eta haren singulartzea

Lehenengo eta behin, euskararen garai historikoan tratamendu-sisteman eragin duten aldaketarik gutxi izan direla gogoratu behar da. Bestalde, idatzizko lekukotasunen berritasunagatik (1545) eta haien izaera jasoagatik, izan diren aldaketa apurrak dokumentuen bidez egiaztatzeko zailtasuna azpimarkatu behar da. Gauzak horrela, euskal tratamenduen bilakaerari buruz esango ditugunak, gezurtatze-prozesu baten ondorioztapen garbi eta sendoak barik, nahi baino sarriagotan usteen mailako hipotesi ahulago edo sendoagoak baizik ez dira izango.

Azpimarkatzekoa da euskal tratamendu-izenordainen bilakaeran, oro har, bete egiten direla Headek (1978) «hizkuntza-unibertsaltzat» aurkezten dituen joerak, eta bereziki, gure ustez euskarari dagozkion hurrengoak (supra III.1.1): (2), (3), (5), (6), (7), (8), (9) eta (18).

Gure ustez, gaurko *zu* izenordain begirunezkoaren bilakaera honelakoxea izan da:

[1] Xehetasun gehiagotarako ik. Alberdi (1994).

*II' ===> *II'/II-begirunezkoa ===> II-begirunezkoa
1. *II' ===> *II'/II-begirunezkoa
2. *II'/II-begirunezkoa ===> II-begirunezkoa
[* ikurrak «hipotetikoa» edo «dokumentatugabea» esan nahi du]

Euskaraz, hizkuntza indoeuroparretan bezalaxe (Joseph, 1987:261), abiapuntuko izenordain-sisteman tratamenduzko bereizketa morfologikorik eza edo mailaketarik eza postulatzea dateke hipotesirik sinesgarriena. Gure hipotesiaren arabera, beraz, bilakaera bi urratsetan burutuko zatekeen: 1) lehen urratsa, begirunea adierazteko pluraltasunaz baliatzea izango zen, izenordain bera zeregin bitarako erabiliz (II'/II-begirunezkoa); 2) bigarren urratsa *zu*ren singulartzea izango zen, hots, lehen urratsaren ondorioz sortutako sinkretismo edo anbiguotasuna ($zu_1$=II-begirunezkoa; $zu_2$=II') saihestea izango zuen helburu eta *zuek* izenordain plural berrituaren sorrerari lotua egongo zen.

Headen arabera (1978:190), euskal bilakabidearen lehen urratsa, hau da, pluralera jotzea begirunea adierazteko, hizkuntza-unibertsala izan daiteke, elkarren artean ahaidetasunezko harremanik ez duten familia desberdinetako hizkuntza anitzetan gertatu baita. Gainera, euskalari begi-zorrotz guztiek ohartarazi dutenez, gaurko *zu* izenordain begirunezkoaren (II-begirunezkoa) antzinako pluraltasunaren (II') eta *zuek* pluralaren berritasunaren aldeko arrazoiak nahiko pisutsuak dira:

1) -i-/-u- erro desberdinak: *ni, hi/ gu, zu, zuek.*
2) *zu* izenordainari dagozkion adizkietako hizki pluralgileak: *zatzaizkio, zoaz, zabiltza, zaitu...*
3) *zuek* izenordain plurala, erakusleen deklinabide pluralari jarraitzea.
4) *zuek* izenordainari dagozkion adizkerak, *zu* izenordainari dagozkionen gainean pluralgile bidez —(t)e— eraikita egotea: *zabiltzate, zenuten...*
5) *zu* izenordainari dagozkion adizkien esanahi pluralaren (=II') idatzizko lekukotasunak, batzuk nahiko zaharrak (XVII).

Bigarren urratsa, hots, izenordain-sistemaren berregituraketa (*zu*ren singulartzea eta II' plural berrituaren —*zuek*— sorrera), egiturazko arrazoiengatik, hau da, lehen urratsak sisteman eragin zituen egonkortasun eza eta numerozko anbiguotasuna saihestearren helduko zen. Bigarren maila batean, anbiguotasuna deuseztera eraman zuten bultzagarrien artean, agian kanpoko eraginak aipatu behar dira, euskal bilakaerak katalanarena (cf. II.4.4) eta gaztelania zaharrarena baitakarzkigu gogora (*hi-zu/zuek*: gazt. zah. *tú-vos/vosotros*: kat. *tu-vós/vosaltres*)[2].

Kontuak kontu, garai historikoan *zu* singular begirunezkoa (II-begirunezkoa) besterik ez dago dokumentatuta eta ondorioz, goiko bilakaerak hipotesi-

[2] Headek (1978:161)) turkieraz, bengalieraz eta Indiako zenbait hizkuntzatan izandako bilakaerarekin (II' ===> II'/II-begirunezkoa ===> II...) parekatzen duen arren, euskararen bilakabidea bestelakoa da, begirunezko aurkakotasuna singularraren eta plural singulartuaren artean (*hi/zu*) dagoelako eta ez plural singulartuaren eta plural berritu baten artean (**zu/zuek*).

usteen mailan jarri behar dira; hots, bilakaeraren urratsak eta bilakaera bera datatzeko eta egiaztatzeko ezintasuna gaindiezina da gaur-gaurkoz.

Usteen ildotik jarraituz, tratamendu-izenordainen bilakaeran hizkuntzen arteko ukipenaren, elebitasunaren eta elkar-eraginen garrantzia azpimarkatu ohi direnez, hipotesi nahiko arrazoizkoa izan daiteke pentsatzea euskarak bere bilakabidea [II'===> II'/II-begirunezkoa] alboko hizkuntza goitarragoen eraginez egin zuela, hau da, Erdi Aroko frantsesaren (*vous* begirunezkoa, *Chanson de Roland*) eta gaztelaniaren (*vos* begirunezkoa, *Cantar del Mío Cid* =1140) eraginez. Autore batzuek azaldu dutenez (Brown eta Gilman, 1960), Europan V begirunezkoa gorteetatik, goi-mailakoen artera eta hemendik herri xehera, hots, gizarte-gune oso hierarkizatuetatik hasita zabaldu baldin bazen, pentsatzeko da euskarak T/V bereizketa Euskal Herrian bertan arrotzak ez ziren erdal hizkuntzetatik «hartu» zuela.

Beste hizkuntza batzuek aurrerago jo dute, tratamenduen higadura-prozesuek eta adierazpen-premia berriek bultzatuta sistema osoa erabat berregituratzeraino: pluraleko izenordainek, solaskide bakarrari mintzatzerakoan begirunezko tratamendu gisa erabiliek, beren hasierako esanahi soziala (begirunea) eta beren hasierako numeroa (plurala) galduta, erabat hedatu dira hiztun bakarrarekin aritzeko (II' ===> II'/II-begirunezkoa ===> II); jakina, halakoetan, izenordain jatorriz plurala singular bihurtzean sortutako hutsunea, plural berri batez edota jatorriz plurala zenari pluralgileak erantsiz bete behar izan da. Orduan, plural berri edo berritua berriz ere errespetua adieraztera irits daiteke solaskide bakarrari mintzatzerakoan[3]. Halako bilakaera gertatu bide da turkieraz, bengalieraz eta Indiako beste zenbait hizkuntzatan.

## 2.2. Hirugarren pertsona begirunearen adierazgarri: «berori»

Hegoaldeko euskal tratamendu-izenordainen bilakaera, begirunea adierazteko numero-aldaketaz eta pertsona-aldaketaz baliatu diren hizkuntzen diakroniarako ezarritakoaren araberakoa da (Head, 1978:189): hots, lehendabizi, bigarren pertsona pluralekora jotzen da begirune handiagoa adieraztearren eta gero, baliabide hau agortutakoan premia berririk sortuz gero, hirugarren pertsonara jotzen da (singularra zein plurala edo lehenengo singularra eta gero plurala). Ziklo hau hizkuntza indoeuroparretan bete bide da ondoen (Joseph, 1987:263) eta hegoaldeko euskarak hurrenkera diakroniko berber horri jarraitu dio bere bilakabidean.

XVI. mendeko euskal testu batzuetatik (Micoleta, 1653; Floristán Imízcoz, 1993; Satrustegi, 1993) ondoriozta daitekeenez, hirugarren pertsonako adizkerez eta izen-esapideez osatutako tratamendu jasoak (*zure mesedeori, zure mesedea,*

[3] Euskal Herrian hitanoa galdu eta bigarren pertsonako izenordain bakarrarekin (*zu*) geratu diren hiztun ugarientzat lehen urratsa burutu den arren (II' ===> II'/II-begirunezkoa ===> II-begirunezkoa ===> II), ez dirudi bigarrena (*zuek* ===> *zuek*/II-begirunezkoa) gauzatuko denik.

*zure senoria...* + 3As) sortu ziren garaiko euskaran, orduko gaztelaniaren eredu hanpatuari jarraituz, seguruenik[4]. Hirugarren pertsonako tratamenduok erdizka garatutako berrikuntzak dirudite, bigarren pertsonako tratamendu begirunezkoarekin batera txandakatzen direlako (... *non escouac apazen batizquizut... mila bider nitzas douen couidadoas,* Floristán Imízcoz, 1993).

Mendeen joan-etorrian hegoaldeko euskararen *hi/zu* bikoteari hirugarren maila bat erantsi zaio: *berori* izenordain «hiperbegirunezkoarena», hain zuzen ere. Edozein modutan ere, Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* (OEH) arabera XVI. mendeko testuetan ez bide dago beroriketaren aztarnarik, eta XVII. mendearen erdi aldera arte (Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua vizcaína,* 1653) itxaron behar da *berori* tratamenduaren lehen lekukotasunak aurkitzeko. Micoletaren liburuan hiru gauza dira azpimarkagarriak: a) testua, euskara-gaztelania elebiduna da eta gaztelaniaz zekitenei euskara irakasteko asmoz egina; b) Micoletak *berori* ez ezik, *z(e)ure mesedeori* esapide gaztelaniatik kalkatua ere badarabil balio berberaz; c) esapide biak (*berori* eta *z(e)ure mesedeori*) gaztelaniazko *Vuestra Merced* (V.Md. nahiz V.M.) tratamenduaren baliokidetzat ematen ditu.

Mitxelenaren *OEH*ren arabera, XVII. mendeko testuetan bi *berori*-mota daude: alde batetik, $berori_1$ dugu, erakusle indartu eta anaforikoa, XVII.aren lehen zatiaz geroztik gehienbat hegoaldeko literatura-tradizioan dokumentatua; beste alde batetik, $berori_2$ dugu, tratamendu «hiperbegirunezkoa», XVII. mendearen bigarren zatitik aurrera dokumentatua eta hegoaldeko tradiziora mugatua. Gure hipotesiaren arabera, $berori_2$ tratamendua, balio anaforikodun $berori_1$ erakusle indartutik eratorria litzateke, hain zuzen ere, XVI. mendetik jasota dauden *zure senoria, zure mesedeori, zure mesedea...* bezalako izen-esapideen ordezkapena bitarteko zelarik (Capanagaren hurrengo adibideak erakusten duenez, *Alan daukat konfianzea zure Illustrisima Señoriak; faboreziduko dabela bein berorren; besoetara egotzi ezkero*). Euskal $berori_2$ izenordain hiperbegirunezkoa ez litzateke inola ere gaztelaniari zuzenean hartutako mailegua, XVI. mendeko gaztelaniaren eragin zuzenez euskaraz garatutako hirugarren pertsonako tratamendutik (*zure mesedea...*+ 3.eko adizkera) eratorritako tratamendu berria (+/-XVII) baizik. Gaztelaniaren eragin garbia onartuta ere, beroriketa ezin da azaldu kalkoaren edo interferentziaren ondorio zuzena balitz bezala; aitzitik, uste dugu $berori_2$ izenordain begirunezkoaren sorrera euskararen barnebilakaeraz esplika daitekeela, kortesiazko formulen ordezko erakusle indartu-anaforikotik ($berori_1$) abiatuta, hain zuzen.

Hortaz, gure hipotesia euskarari buruz, funtsean Headen (1978) bederitzagarren ondorioaren (supra III.1.1) ildotik doa. Hala ere, hegoaldeko euskaran gertatutako bilakaera konkretua, hots, erakusleetara jotzea begirune handiagoa erakusteko, nahiko soluzio bakana da tipologiaren ikuspuntutik. Dena den, hirugarren pertsonako izenordainik ez duen eta erakusleak balio anaforikoaz

[4] Xehetasun gehiagotarako ik. Alberdi 1994.

erabiltzen dituen euskara bezalako hizkuntza batean ez da hain harrigarria hirugarren pertsonara jotzean erakusleez baliatu izana. Bestalde, ordezkapen-prozesuetara jo gabe, euskaraz solaskideari zuzentzeko bigarren pertsonatik hirugarrenera aldatzea errazago esplikatzen da, solaskideari dagokion bigarren graduko erakusle indartua (*ber-ori*) hautatu dela kontuan hartzen bada; hots, jauziak txikiagoa dirudi bigarren graduko erakuslearen aukera egiten bada, hirugarren pertsonako izenordaina hautatzen bada baino.

Gauzak horrela, badira arrazoiak beroriketa tratamendua hegoaldeko euskararen berrikuntza ez oso antzinakotzat hartzeko: lehenik, hegoaldeko euskalkietara mugatua egotea[5]; bigarrenik, XVI. mendeko literatura-tradizioan aztarnarik ez izatea; hirugarrenik, hegoaldeko euskal tratamendu-sistema hirukoitzaren (*hi/zu/[berori]* + 3.eko adizkera singularra) eta XVI-XVII mendeetako gaztelaniazkoaren (*tú* < *vos* < [él, élla] + 3As < *vuestra merced*+ 3As) arteko antzekotasuna. Hegoaldeko bilakaera honen aurrez aurre iparraldekoa dugu, zeinetan —frantsesez bezala— XVI. mendean hirugarren pertsonako izenesapideak agertu arren (Floristán Imízcoz, 1993), horietatik ez baita sortu edo garatu (hiper)begirunezko izenordainik.

Guk geuk susmatzen dugu *berori*$_2$ren lehen datazioa (1653) ez dabilela oso urruti bere sorreratik; hots, edozein kasutan, bere bilakaera gaztelaniazko hirugarren pertsonako tratamenduen bilakaerari (XVI) lotua somatzen dugunez, ez dugu uste euskal *berori* hiperbegirunezkoa data hori baino lehenagokoa denik. Ondorioz, Azkuek ez bezala, *zu* izenordainaren singulartzea *berori*$_2$ tratamenduaren sorrera baino biziki antzinagokoa dela deritzogu: lehen bilakaera Erdi Aroan-edo gauzatuko zen; bigarrena, aldiz, XVII. mendean edo goitik jota XVI.ean.

---

[5] Hizkuntzaren garai historikoko lekukotasunei bagagozkie (Mitxelena, 1987), esan beharra daukagu *berori*, Duvoisinen adibideren bat kenduta, ez dela behin ere sartzen mugaz bestaldeko literatura-tradizioan. *Berori*-ren lehen lekukotasunak errespetuzko izenordain gisa XVII. mendearen erdialdera agertzen dira Micoleta bizkaitarraren *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* (1653) idazlanean. Azpimarkatu behar da Micoletak *berori* formarekin batera, *z(e)ure mesedeori* esapide kalkatua ere erabiltzen duela gaztelaniazko «Vuestra Merced» (V.Md. nahiz V.M.) tratamenduaren baliokidetzat (*Que vestido se quiere poner V. Md.?= Seyn soyñeco asseguin dau ymini seure meçede orec?; Esso fuera si V.M. fuesse persona sospechosa, que no se ha de mentar la soga en cassa del ahorcado= Ori lisate, valiz sure meçedeori persona sospechacoa, serren esta aytatuco soquea vrcatuen esean).* XVII. mendean bertan bizkaierazko beste bi idazlanetan agertzen da (Capanaga, 1656; eta bizkaierazko dotrina batean). XVIII. mendean gipuzkerazko eta hegoaldeko goi-nafarrerazko idazleen lehen lekukotasunak agertzen dira Larramendi eta bere eskolako batzuen inguruan (Larramendi, Cardaberaz; Lizarraga Elkanokoa). XIX. mendean, Duvoisinen salbuespenaz, bizkaierazko (J.A. Moguel, V. Moguel, J.J. Moguel, P. Astarloa, J.A. Uriarte, Arrese Beitia, A. Iturzaeta) eta gipuzkerazko (Iztueta, I. Bizcarrondo «Bilintx», G. Arrue, J.I. Arana, J.J. Alcain «Udarregi», M. Soroa, A.M. de Zabala, C. Beovide, A. Apaolaza, P.M. Urruzuno) idazleen artean agertzen da bakarrik eta antzera gertatzen da XX. mendean. Era berean, hiztegigileen artean, Larramendi (1745) eta Añibarrorenak (1800) dira lekukotasunik zaharrenak (gazt. «Usted, Vuesa merced»). Bestalde, Duvoisinen hitzetatik («... en usage dans la Vasconie espagnole») beroriketa hegoaldera mugatua zegoela ondoriozta daiteke. Beraz, *berori* izenordain hiperbegirunezkoak hegoaldean baizik ez du izan tradiziorik, eta berau, gainera, ez dirudi oso antzinatik datorrenik (1653z geroztik), ezta hegoaldean bertan ere errotuegia egon denik.

Etorkizuneko bilakaerari bagagozkio, hala ere, ez dirudi Headen (1978) hogeita batgarren hipotesia, alegia, begirune-maila desberdineko izenordainen arteko lehian beheragoko mailakoari gailentzeko posibilitatea ukatzen diona, beteko denik. Hain zuzen ere, euskaraz *zu/berori* bikotean, bietariko bat nagusitzekotan, gizarte-tarte txikiagoa adierazten duena (*zu*) nagusituko litzateke erabilera neutrorako eta ez alderantziz. Nolanahi ere den, Headen adierazpenaren azalpenari lotuz, ez dirudi euskal *zu* eta *berori* izenordainen artean sekula zinezko alternantziarik egon denik. Gure ustez, behin ere gizarte-esparru handiegia izan ez bide duen *berori*ren gainbehera neurri handi batean beraren erabilera asimetrikoagatik esplika daiteke; suedieraz pluraleko bigarren pertsonako *ni* izenordain begirunezkoak izan duen zorte bera (cf. II.9.2.5) izan du gure *berori*k, alegia, botere-zama handiegia zeraman itsatsita erabilera neutroan arrakasta izateko.

## 2.3. Hikako aditz-joko alokutiboaren sorrera

Hikako aditz-joko alokutiboaren antzinatasunari dagokionez, Azkuek besterik uste zuen arren (Azkue, 1923-1925: § 826-§ 834), alde batetik, ez dago zalantzarik bere zaharkotasunaz, lehenbiziko testuetatik dokumentaturik dugulako eta halako sistema morfologiko korapilatua goizetik gauera ezin eraiki daitekeelako (Altube, 1934:154-185); beste alde batetik, adizkera neutroak eta alokutiboak aurrez aurre jartzen baditugu, alokutiboen «geroagokotasuna» eta izaera markatua azpimarkatu beharrean gaude. Izan ere, definizioz eta morfologiaz adizkera alokutiboa konplexuagoa da; hikako alokutiboak zerbait gehiago du, eztabadakakoak ez duena. Ondorioz, hikako aditz-joko alokutiboaren izaera markatua eta erakarria nabarmena da aditz-joko neutroaren aldean.

Hikako aditz-joko alokutiboaren sorrera eta bilakaera azaltzeko egin den saiorik trinkoena Schuchardt erromanista eta euskaltzalearena (*Baskische Estudien, I*,1893) da, neurri handi batean geroagoko euskalari entzutetsuenek onartua (Gavel, 1928; Lafon, 1944; Altube, 1934). Hizkuntzalari germaniarrak inguruko hizkuntzetan «datibo etiko» deritzon baliabide adierazkorraren argitan azaldu du hikako alokutiboaren sorrera, baina hura eta alokutiboa ongi bereiziz eta edozein kasutan euskararen barneko adierazkortasun-gertakarietatik irten gabe.

Interpretazio diakroniko honen arabera, adizkera alokutiboen lehenengo erabidea (*nator* ===> *niatorrek*) datibo etikoaren antzeko zerbaiten («bigarren datibo», «datibo berretu» edo «datibo aizunaren») ondorio ihartua dateke eta bigarren erabidea (*naiz* ===> *nauk*) «ergatibo etiko» dei genezakeenaren ondorioa. Hau da, edozein kasutan, aditz-joko alokutiboa, jatorriz, solaskidea azpimarkatzeko eta hizketaldiaren harira biltzeko enuntziazio-eragiketa adierazkor baten emaitza ihartua litzateke.

Gaurko euskaran enuntziazio-eragiketa adierazkor berberaren ondorioz egitura «biltzaile» edo «inplikatzaileak» eratzen dira, adizkera biltzaileen gainean

eraikiak (*gure baserritarra zintzoa da ===> gure baserritarra zintzoa duzu*). Sinkroniaren ikuspuntutik, adizkera «biltzaileak» eta «alokutiboak» fenomeno desberdinak eta ongi bereizi beharrekoak badira ere (Rebuschi, 1984: 567-600), diakroniaren ikuspuntutik, beti ere Schuchardten interpretazioaren arabera, solaskidearen «bilketa» edo «inplikazio-eragiketa» egongo zen aditz-joko alokutiboen sustraian («un suffixe qui désigne l'interlocuteur pris à témoin», «interlocutor taken as witness» Lafonen hitzez esateko).

Guk geuk, ez dugu eragozpen larriegirik ikusten Zabalaz geroztik egin izan den interpretazio diakroniko schuchardtarra onartzeko. Proposamen hoberik ez den bitartean, 'biltzaileak ($N\text{-}N_{K2}$) ===> alokutiboak' eratorbidea eta *nauk* (alok.) = *nauk* (**edun*: $N\text{-}N_{K2}$) ekuazioa onartuko genituzke; hots, gure aburuz, bigarren erabideko alokutiboak (*nauk, duk, gaituk, dituk*) **edun* aditzaren forma biltzaile edo inplikatzaileak direlateke *jatorriz*.

Alokutiboetan ageri den —i— bokalaren kontua (*d-i-a-tor-re-k*) gertakari morfologizatutzat hartu behar delakoan gaude; edozein modutan ere, Rosen (1987) proposamen konkretuak guztiz asetzen ez bagaitu ere, bere hipotesiaren muinari (gertakari fonologiko adierazkor baten —palatalizazio adierazkorraren— morfologizazioa) nahikoa arrazoizkoa deritzogu (Oñederra 1990:59). De Rijk-ek uste duenez, baliteke euskalki batzuetan agertzen den —i— zorioneko hori despalatalizazioaren ondorio izatea ([L] *niagok*< [B] *ñagok*) eta ez alderantziz (*n-i-a-go-k*> (...) > *ñagok*) orain arte uste izan denez.

## 2.4. Tratamendu aditz-joko alokutibodunen bilakaera: hiketa, zuketa eta xuketa alokutiboen hurrenkera diakronikoa

Bat gatoz euskalari gehienekin[6] tratamendu aditz-joko alokutibodunentzat ondorengo hurrenkera diakronikoa ezartzerakoan: lehenbizi, singularreko bigarren pertsonako adizkerak (*hi haiz*) eta pertsona bereko adizkera alokutiboak (*hura duk/-n*) uztartuz, hikako tratamendua (*hi haiz-hura duk/-n*) sortuko zatekeen euskara guztietan; ondoren, behin *zu* izenordainaren singulartzea gertatu eta gero, sortaldeko euskalki batzuek (EBN, Zar., Z, Err.), hikako tratamenduan oinarrituta eta alokutibotasuna mimetikoki bigarren pertsona begirunezkora hedatuz, zuketa alokutiboa garatuko zuketen; eta azkenik, aipatu euskalki berritzaile horietariko batzuek (EBN, Zar.) aurrerago jo zuten beren bilakabidean eta, zuketa alokutiboari bustidura adierazkorra sistematikoki ezarriz «xuketa alokutiboa» aurreko bi tratamenduen bitarteko zeregin pragmatikoa betetzen duen tratamendua sortuko zuten. Ondorioz, eztabaida handiegirik gabe onartu ohi den goiko hipotesiaren arabera lehenik hitanoa dugu, ondoren zutanoa (alokutiboa), aurrekotik analogia bidez sortua eta azkenik, xuketa (alokutiboa), zuzenean zutanotik palatalizazio bidez erakarria.

[6] Hurrengoak, besteak beste: Schuchardt (1893:258); Lafon (1959:124 129); Rebuschi (1984:534-535); Ros (1987:31-33); Alberdi (1986b: 422 424); etab.

Lehen testuetatik ageri zaizkigun hitano eta zutano alokutiboen antzinatasun erlatiboari dagokionez, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*tik batez ere zutanoaren zalantzakortasuna, finkotasunik eza (Lafon, 1959:120) eta hautazkotasuna[7] ondorioztatzen dira antzinako testuetarako, are hurkotasun edo familiartekotasun handiko pasarte eta testuinguruetan[8]. Beraz, gure ustez, XVI. mendeko hitanoaren finkotasunari kontrajartzen zaion zutanoaren egoera ezegonkorrak agerian jartzen du azken tratamendu honen «berriagotasuna». Bestalde, zuketa alokutiboaren berriagotasunaren alde, esandakoaz gainera, bere izaera dialektal marjinala erantsi behar da, ipar-sortaldeko (EBN, Z) eta hegosortaldeko (Zar., Err.) euskalkietara mugatua dago eta. Ondorioz, ezaugarri hau, hizkuntza-sistemaren barne zegoen gaitasun baten (solaskidearen inplikazioa edo agian alokutibotasuna) garapenaren eta hedapenaren ondorioz sortutako berrikuntza dialektala delakoan gaude eta ez arkaismoa. Lafonek aditzera eman duenez (Lafon, 1959:128), baliteke hitanoaren leungarri gisa eta haren eredura sortu izana, lagunarteko tratamenduari itsatsitako gordintasun edo zakartasuna saihestearren.

EBNren eta zaraitzueraren bereizgarria den xuketari dagokionez, zuketatik zuzenean palatalizazio bidez eratorria dirudi eta ondorioz, oraindik zuketa baino berriagoa. Oro har, aditz-joko alokutibodun tratamenduei etxekotasun-

---

[7] Etxepareren bertsogintzan zehar toketa (*hi haiz-hura duk*), eztabada (*zu zara-hura da*) eta zutano alokutiboa (*zu zara-hura duzu*) mintzamoldeak ageri zaizkigu. Baina hiru molde horien artean tratamenduzko aurkakotasun garbi bakarra dago: *hi* eta *zu* pertsona-izenordainen artean dagoena, hitano eta hitano ez denaren artekoa, alegia. Lagunarteko tratamendu gisa finkatutako hikako mintzamolde egonkorraren aurrez aurre, *zu*-kako mintzamolde biak (eztabada eta zutanoa) agertzen zaizkigu begirunezko tratamenduaren adierazgarri. Esaterako, badakigu jeneralean Ama Birjinari, Jainkoari eta bere maitaleei eta inoiz bere irakurleari *zu* izenordaina ematen diena, baina hortik aurrera oso zaila da zehaztasun gehiagorik ematea; haietako bakoitzarekin zutanoka ala eztabadaka aritzen den zorrotz zehazterik ez dago, bakoitzarekin bi eratara aritzen delako eta sarri bertso berean. Kantu batzuek (VIII, IX, X, XII) berebiziko balioa dute auzi hau argitzeko, elkarrizketa-eran idatzita daudelako eta maitaleen arteko tratamendua erakusten digutelako; bada, guztietan daude gorabeherak zutano eta eztabadaren artean eta zenbaitetan «hutsak» *zu*-kako alokutiboen erabileran.

[8] Badirudi zukako adizki alokutiboen erabilera edo erabilerarik eza erregistroari lotua egon izan dela lehenbiziko dokumentuetatik (Lafon, 1959:120). Azpimarkatzekoa da testuinguru formaletan eztabada nagusitzen dela eta zutanoak ozta-ozta duela sarbiderik. Horrela, Etxepare, bere liburuaren sarrerako gutunean apal-apalik eta begirune handiz, eztabadaka mintzatzen zaio erregearen abokatu zen eta bere bertsoak argitaratzeko ardura eta ahalmena zituen Bernard Lehete jaunari. Era berean, XVI. mendearen bukaeran (1595?) Espainiako erregearentzat espioitza-lana egiten duen lekuko baxenabartarrak (Charles de Luxe) ere hartzailearenganako begirune handia erakusten du bere gutunean eta oro har ez du zutanorik erabiltzen (*hil aniz bi aldetaric: hamasei mila baratu dituçu canpouan*), eztabadaz (*eremerçiazen derautzut-Heben beri bazu ditugu*) eta hirugarren pertsonaz (*çoure merchediac baitu*) oratutako tratamendu nahasia baizik. Aitzitik, formaltasunezko edo ofizialtasunezko erregistrotik urrundu ahala, aukera gehiago bide dago zutanoa erabiltzeko; adibidez, Bertrand d'Echauzek 1584ean bere anaiari igorritako gutun laburrean (Mitxelena, 1964:154-157) zukako alokutiboak besterik ez ditu erabiltzen perpaus nagusietan. Beraz, Bonapartek jarritako deitura gorabehera («traitement respectueux») eta hitanoaren aldean dituen kortesiazko edo begirunezko konnotazioak gorabehera, badirudi zutano tratamenduak betidanik lagunartekotasun edo etxekotasun-kutsu berezia izan duela eta «+alokutibotasuna = +hurbiltasuna, etxekotasuna, lagunartekotasuna» berdinketa nahiko arrazoizkoa izan daitekeela.

kutsu nabaria badarie, xuketari are handiagoa jatorriz eta sortzez hizkera maitakor eta adierazkorraren fruitu delako. Zoritxarrez, lekukotasun zuzen eta zeharkako (Bonaparte) zaharrenak, XIX. mendekoak ditugu eta ondorioz, oso zaila da tratamendu berriaren sorrera datatzea.

Azkenengo bilakaera hau (*zu* ==> *xu*, *-zu-* ==> *-xu-*) oso interesgarria da, sortzez palatalizazio adierazkorrari lotua badago ere, leku batzuetan adierazkortasun fonetikotik harantzago joan den bilakaera izan duelako. Tratamendu biak, zuketa eta xuketa, gordetzen dituzten eskualdeetan badirudi benetako hots-sinbolismo edo adierazkortasun fonetikoaren aurrean egon gaitezkeela (Oñederra, 1990:74), xuketaren erabilera-esparrua zuketarena baino zertxobait mugatuagoa izan daitekeen neurrian. Nolanahi ere den, bigarren urratsa, morfologizazioa, oso nabarmena da gaur Arbelako eskualdean edo Donibane-Garazin, non galdu egin baita xuketaren abiapuntu izan den zukako aditz-joko alokutiboa; horrelako eskualdeetan palatalizazioa morfologizatu[9]-edo egin dela esan daiteke: zeregin gramatikal-enuntziatiboa bereganatu du, hiketa eta eztabadaren bitarteko tratamenduaren bereizgarria izateraino.

Dena den, palatalizazio adierazkorrak euskaraz oro har fenomeno zaharra dirudien arren, ez dugu uste xuketa, tratamendu finkatu gisa, oso antzinakoa denik, bere lekukotasunak aski berriak direlako, zuketaren (EBN, Zar., Z, Err.) bustiduraren ondorioz sortua delako, hau da, are marjinalagoa delako (EBN, Zar.) eta zuketak berak gorago aipatu arrazoiengatik oso antzinakoa ez dirudielako.

## 2.5. Bigarren pertsonako tratamenduen bilakaera euskaraz: hipotesiak

Hiketa, gaurko eran nahiz aditz-joko alokutiborik gabe, izango zatekeen tratamendu antzinakoena eta hasiera batean bakarra. Ondoren, *zu* izenordainaren singulartzeaz, hiketa/eztabada (*hi haiz-hura duk/zu zara-hura da*) bikoiztasuna sortuko zatekeen euskara osoan. Estadio horrexetan gelditu ziren lapurtera eta mendebaldeko behe-nafarrera. Handik aurrerako berrikuntzen ondorioz euskalkiak elkarrengandik aldenduz joan ziren.

Alde batetik, sortaldeko euskalkietan (EBN, Zar., Z, Err.) hiketaren eta eztabadaren bitarteko solas-maila sortu zuten mendeen buruan: zukako aditz-joko alokutiboaren erabilera hedatu eta etxekotasun-kutsua bereganatzerakoan, *hiketa* < *zuketa* < *eztabada* tratamendu-hirukoiztasunerako atea irekiko zen, beti ere «alokutibotasuna/alokutibotasunik eza» edo zuketa/eztabada aurkakotasuna nahiko labankorra izanik; zentzu estuan, sortaldean benetako tratamenduak familiartekotasunez jantzitako hiketa eta zuketa alokutiboak ziren eta eztabada «tratamendurik eza» edo izango zen, hurbiltasunik izan ezean eta erregistro goitarretan erabiltzekoa.

[9] Rebuschik dioenez «La difference entre le BN oriental [EBN] et les autres dialectes consiste en ce fait que la palatalisation s'est grammaticalisée dans le premier, (...), car elle a éliminé les formes non palatalisées du traitement allocutif proprement dit.» (Rebuschi, 1984:520).

Beste alde batetik, hegoaldeko euskalkiek hiketaren eta eztabadaren gainetik dagoen hirugarren pertsonako tratamendu hiperbegirunezkoa sortu zuten, beroriketa (*hiketa* < *eztabada* < *beroriketa*).

Hegoaldeko sortaldeko euskalkietan (Zar., Err.) berrikuntza biak (zuketa eta beroriketa) gertatuko ziren eta horixe da, hain zuzen, erronkarierak eskaintzen duen irudia: *hiketa* < *zuketa* < *eztabada* < *beroriketa.*

Azkenik, sortaldeko euskalkien artean EBN eta zaraitzuera urrunago joan ziren eta bitarteko hirugarren tratamendu alokutibo bat sortu zuten zuketaren palatalizazio adierazkorraren bidez (*hiketa* < *xuketa* < *zuketa* < *eztabada*). Beraz, berrikuntza guztien hartzaile izan zen XIX. mendeko zaraitzuerak beharbada bost tratamendu bereiziko zituen: *hiketa* < *xuketa* < *zuketa* < *eztabada* < *beroriketa.* Edozein modutan ere, zuketa/eztabada aurkakotasuna iraganean eta duela gutxi arte erronkarieraz baliagarri gertatu bada ere, gaur egun guztiz ahuldua dago sortaldeko euskalkietan.

Egia aitortzeko, iraganerako, aurreko puntuan proposaturiko bilakabideetatik harantzago joan ahala edo hizkuntzaren historiaurrean gora igon ahala, hipotesi gero eta ahulagoak, gezurtagaitzagoak alegia, adierazi beharrean aurkituko gara. Horrela, hitanoaren antzinatasunaz ez dago eztabaida handiegirik, baina proposamen desberdinak egin dira antzinako egoera eta geroagoko bilakabidea azaltzeko. Besteak beste, Lafon (1959:124-126), Rebuschi (1984:534-535), Alberdi, (1986b:422-424) eta Ros (1987:31-33) aipa daitezke; nolanahi ere den, azken hipotesi hauek, antzinako denbora ilunetan murgiltzen diren neurrian, tentagarri bezain ahulak iruditzen zaizkigu, ez baitago berauek gezurtatzeko modurik edo bata edo bestea aldezteko irizpide irmorik. Hortaz, bigarren mailako hipotesi gisa aitortzen diegun balio murritzagatik, bere horretan utziko ditugu iruzkin kritiko handirik gabe.

## 2.6. Euskal tratamendu-usarioen (T/V) iragana, oraina eta geroa

Familiaren esparruan, oro har, Brown eta Gilman-ek *elkartasuna* deritzoten ardatzaren hedapena hurbileko hizkuntzetan baino astiroago, motelago eta atzeratuago dator euskaraz. Familiaz kanpoko harreman asimetrikoetan, ordea, bilakaera tratamenduzko simetriaren aldekoa izan da oro har. Beraz, lehen ondorio gisa, zera aurrera genezake: Brown eta Gilmanen (1960; cf. I.1) lehen hipotesia (asimetriatik simetriaranzko bilakaera, hots, T/V ===> T-T nahiz V-V) oro har betetzen ari dela dirudi, familiaren eremuan aldameneko hizkuntzetan baino dexente asimetria gehiago gertatzen badira ere edo *boterearen semantikaren* aztarna gordinak gordetzen badira ere (infra V).

Brown eta Gilmanen bigarren iragarkizunari buruz, alegia, lagunarteko tratamenduaren orokortzeari buruz (T-T), zoritxarrez ezezko erantzuna eman beharrean aurkitzen garela deritzogu. Salbuespenak salbuespen, gaur egungo euskaran, ez dugu somatzen elkarrekiko hitanoa (T-T) orokortzeko joerarik eta are gutxiago hitanoaren aldeko ordezkatze-prozesurik. Beldur izatekoa da

alderantzizko ordezkatzea ez ote datorkigun gainera: batak bestea menderatzekotan, gure artean, eztabadak (V-V) ahantzaraziko liguke hikako tratamendua eta ez alderantziz. Izan ere, bietatik hiketa da erabilera murritzagokoa edo tratamendu markatua eta eztabada (edo zuketa ez-alokutiboa) tratamendu markatugabea edo «neutroa», ia-ia edozein testuinguru eta egoeratan erabilgarria (De Rijk, 1991). Horrela, euskal hitanoa frantsesezko *tutoiement* baino gutxiago erabiltzen da eta, zer esanik ez, gaztelaniazko edota espainierazko *tuteo* baino dexente gutxiago; eta alderantziz, euskal eztabada (edo zuketa ez-alokutiboa) oro har frantsesezko *vouvoiement* baino maizago erabiltzen da eta gaztelaniazko edota espainierazko *usteo* baino biziki sarriago. Bestalde, ez da pentsatu behar gaurko egoera hau, hitanoak azken mendeetan jasan izan duen atzerakaren ondorio zuzena denik, XVIII. mendearen lehen herenerako Larramendi gramatikari zorrotzaren lekukotasunak («es un tratamiento medio entre el *usted* y *tú*» Larramendi, 1728:127-130; «...es del modo y trato medio entre *usted*, y *tú*...», Larramendi, 1729:62) argiro mintzo baitira euskarazko *zu* izenordainaren erabilera zabalaren alde.

Gavelen ustetan (1928), hegoaldeko gaurko egoera, «hitanoa < eztabada < beroriketa» tratamendu-hirukoteaz horniturikoa, XVI. mendeko espainieraz zegoenaren antzekoa eta neurri handi batean garai hura baino zerbait lehenagoko erabileraren ispilua edo gordailua dateke. Beste alde batetik, Gavelek, iparraldeko euskalkietako gaurko egoera inguruko erromantzeen (gaskoia, bearnesa, frantsesa) eraginaren bidez esplikatu nahi du; horren arabera, iparraldeko euskalkiek antzinako frantses-usarioen eta frantses-usario modernoen bitarteko egoera gordetzailea erakusten dute («c'est un état intermédiaire entre la practique française ancienne et la practique française moderne.»). Bere ustez, gaurko iparraldeko tratamendu-usarioak (hitanoaren erabilera oso mugatuaz eta *zu* izenordainaren erabilera zabal eta kortesiazkoaz) hurbilago daude antzinako frantsesean eta zeudenetatik, XX. mendean mendebaldeko hizkuntzetan hedatutako usarioetatik baino. Hurbiltasuna, batez ere, hitanoaren erabilerari dagokionez ikusten du.

Guk geuk, *berori*-ren sorrera alde bat utzita, ez dugu ikusten hain argi Gavelek mugaz haraindiko eta mugaz honaindiko euskalkien artean egiten duen bereizketa, ez eta albo-hizkuntza erromantzeen eraginpeko bilakaera kontrajarria. Gure ustez, hegoaldeko euskarak gazteleraren eraginez edo garatu duen *berori* berrikuntza bereizlea alde batera utziz gero, gainerakoan eta funtsean bat datoz ipar eta hegoaldeko euskararen tratamendu-usarioak (infra VIII).

XVI. mendeko gaztelaniaren eta garai bereko hego-euskararen arteko antzekotasunak uste baino txikiagoak direlako. Alde batetik, gaztelerazko *vuestra merced* esapidea eta euskal *berori* hiperbegirunezkoa garai desberdinekoak direlako eta bakoitzaren erabilera, gizarte-esparrua eta arrakasta oso desberdinak izan direlako. Beste alde batetik, dokumentuen bidez frogatzerik ez daukagun arren, gazteleraz eta frantsesez garai hartan gertatzen zenaz

bestaldera, ez du ematen hitanoa XVI. mendean behe-mailakoen arteko tratamendu ohizkoa zenik, ez eta *zu* izenordaina goi-mailakoen artekoa zenik.

Gure ustez, hitanoaren erabilera XVI. mendean, beharbada, ez zen hain desberdina gaurkoarekin alderatzen bada, alegia, nahiko markatua edo urria izango zen orduan ere. Garai hartan, beharbada, tratamendua hautatzerakoan gaurkoen antzeko aldagaiak izango ziren pisudunak, hala nola, sexua, adina eta harremana[10]. Etxepareren olerkietako (1545) maitaleak, adibidez, *zu* elkarrekikoaz (V-V) edo *hi/zu* (T/V) asimetrikoaz baliatzen dira, baina ez hitano elkarrekikoaz (T-T); erabilera horrek gaur egun Euskal Herri osoan noketak toketaren aldean duen izaera oraindik markatuagoa gogorazten digu: EBNz xuketak noketa bazterreratzeko bidea hartu du; Zuberoan noketa galtzear dago gaur eta, erdialdeko euskalkietan izan ezik (G, IGN), antzeko joera nabari da gainerako hizkeretan (cf. VI, VIII).

Beraz, gure hipotesiaren arabera, euskal tratamendu-usarioek azken bostehun urteotan ez dute gorabehera handiegirik edo funtsezkorik izan, edo ez behintzat, inguruko erdaretan gertatutakoen parekorik. Puntu honetan, beste batzuetan bezala, euskara gordetzaileagoa izango zen. Euskal gizartea klase- eta maila-desberdintasun gutxikoa izanik, sinesgaitza gertatzen zaigu gizarte-klaseen araberako tratamendu-banaketa (*hi* behe-mailakoen artean eta *zu* goi-mailakoen artean) XVI. mendeko euskaran; ondorioz, garai historikoko *hi* eta *zu* izenordainekiko usarioak lehenagoko egoera baten aztarnak direteke. Bestalde, gure ustetan, euskal tratamendu-usarioetariko asko[11] beregainak dira eta euskararen beraren baitatik eta euskal gizartekeratik azaldu behar dira, eta ez nahitaez kanpoko eraginen bidez.

## 3. EUSKARA ETA BESTE HIZKUNTZAK: KONPARAKETA

### 3.1. Kidetasunak

#### 3.1.1. Tratamendu-izenordainak beste hizkuntza batzuetan

Morfologiaren aldetik, pluraleko tratamendu-izenordainak lau eratara egon daitezke lotuta singularrekoekin (cf. II.4.4):

1. Singularrak eta pluralak erro lexikal desberdina izan dezakete (fr. *tu/vous,* alem. *du/ihr*).
2. Singularrari morfema pluralgilea erantsita sor daiteke plurala (port. *você/vocês*).

[10] Hots, hurbiltasun psikologikoan edo adiskidetasunean ez, baizik eta gizarte-bizitzako harremanetan oinarrituriko elkartasuna (De Rijk, 1991:376-377).

[11] Esate baterako, oraindik ere bizi-bizirik dagoen senar-emazteen arteko eztabada, XVI. mendeko ezkontza-agintzetatik (Irigaray, 1934; Fagoaga, 1961) egiaztatua; edo haur txikiei *zu*-ka egiteko ohitura.

3. Plurala, singularrari pluralgilea ez den beste morfemaren bat erantsita sor daiteke: hain zuzen ere, horixe izan da gaztelaniaz eta katalanez gertatu dena, *vos* singulartuari *otros/-as* eta *altres* hitzak erantsi baitizkiote[12].

4. Plurala eta singularra ez bereiztea gerta daiteke, aleman estandarrean gertatu denez (*Sie*).

Antzinako euskaran II eta II' pertsonek erro lexikal desberdina zuketen (*hi/*zu*), baina gaurko euskaran pluralak atzizki pluralgileen bidez eratuta daude (*zu* ===> *zuek; berori* ===> *beroriek*). Dena den, hiztunaren eta tratamenduen erabileraren ikuspuntutik, tratamendu-bereizketak eta haien egitura formala interesgarriagoak izaten dira morfologiazko eraketa edo etimologia baino (ikus bedi cf. III.1.2, hizkuntza indoeuroparren bilakaerari buruzko xehetasunetarako).

Tipologiaren aldetik, hizkuntzak, solaskide bakarrarekin eta solaskide batekin baino gehiagorekin aritzeko bereizten dituzten tratamendu-izenordainen kopuruaren arabera sailka daitezke; hots, pluraleko eta singularreko bereizketa-kopuruaren arabera. Robinsonek (1978:165-167), singularreko eta pluraleko izenordain-aukerak kontuan harturik, honako sailkapen hau ematen du:

I. Aukera bakarra singular eta pluralerako 1/1 (hots, begirunezko bereizkuntzarik eza):

| INGELESA | |
|---|---|
| Sing. | Pl. |
| you | |

| LATIN KLASIKOA | |
|---|---|
| Sing. | Pl. |
| tu | vos |

II. Aukera bikoitza singularrerako, bakarra pluralerako (2/1):

| FRANTSESA (cf. II.2) | |
|---|---|
| Sing. | Pl. |
| tu | |
| | vous |

| SUEDIERA (cf. II.9) | |
|---|---|
| Sing. | Pl. |
| du | |
| | ni |

| NORVEGIERA (cf. II.10) | |
|---|---|
| Sing. | Pl. |
| du | |
| | De |

[12] Ingelesezko *you-all* aldaera dialektala ere pareko gertakaria dateke.

JIDISH ESTANDARRA

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| du | ir |

LEHENGO INGELESA (II.7)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| thou | ye |

*ERRUSIERA (II.11)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| ty | vy |

*Eta beste hizkuntza eslaviar batzuk.

Robinsonen arabera (1978:166), eredu berber honi jarraitzen zaizkio greko modernoa, turkiera (*sen/siz*) eta estoniera (*sina/teie*).

AMERIKETAKO ESPAINIERA$_1$ *voseo*gabea, Kanariak eta mendeb. Andaluzia (I)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | ustedes |
| usted | |

AMERIKETAKO ESPAINIERA$_2$ *voseo*duna (cf. II.1.1.1.4)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| vos | ustedes |
| usted | |

AMHARERA

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| antɛ$^{(m)}$, anci$^{(f)}$ | ∂nnantɛ |
| ∂rswo | |

ITALIERA1$_1$ (cf. II.3)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | voi |
| lei | |

ROSSELLOKO KATALANA (cf. II.4)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | vosaltres |
| vós | |

III. Bina aukera singular eta pluralerako (2/2):

GAZTELANIA (cf. II.1.1.3.4)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | vosotros/-as |
| usted | ustedes |

ITALIERA2 (cf. II. 3)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | voi |
| lei | loro |

BRASILGO PORTUGESA (soildua) (cf. II.5.3)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| você | vocês |
| o/a senhor/a | os/as senhores/as |

VALENTZIAKO KATALANA (cf. II.4.4)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | vosaltres |
| vostè | vostès |

ALEMANA (cf. II.8.1)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| du | ihr |
| Sie | |

NEDERLANDERA

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| jij, je | jullie |
| U | |

IV. Hiru aukera singularrerako eta bat bakarra pluralerako (3/1):

AMERIKETAKO ESPAINIERA3, DIALEKTALA (cf. II.1.1.1.4)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | ustedes |
| vos | |
| usted | |

V. Hiru aukera singularrerako eta bi pluralerako (3/2):

HINDIA (cf. II.13.3)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | tum |
| | ap |

TAMILERA

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| nii | niir |
| | niinkal |

Tipo honetakoak dira hizkuntza indoario eta dravidiar gehienak (cf. II.12).

KATALANA (cf. II.4.4)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | vosaltres |
| vós | |
| vostè | vostès |

ERRUMANIERA (cf. II.6)

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tu | voi |
| dumneata | dumneavoastra |
| dumneavoastra | |

VI. Hiruna aukera singular eta pluralerako (3/3):

BENGALIERA

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| tui | tora |
| tumi | tomra |
| apni | apnara |

HUNGARIERA

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| te | ti |
| maga | maguk |
| ön | önök |

Nolanahi ere, ikus daitekeenez, pluralean gehienez singularrean beste tratamendu-bereizketa gerta daitezke, baina ez gehiago. Badirudi joera hori hizkuntza-unibertsaltzat jo daitekeela (Robinson, 1978; Head, 1978).

3.1.2. Euskal tratamendu-izenordainen sistema(k)

Euskarak berez lehen eta bigarren pertsonako pertsona-izenordainak baizik ez ditu, funtsean hurrengo bostak:

1. TAULA

| OINARRIZKO PERTSONA-IZENORDAINAK | | | |
|---|---|---|---|
| Perts.* erref. | singularra | «plurala» | Perts. erref. |
| I | NI | GU | I' |
| II | HI | ZUEK | II' |
| | ZU | | |

*Perts. erref.= pertsona erreferentzial edo nozionala

Goiko taulan ikus daitekeenez, euskara osoan oinarrizko bi izenordain bereizten dira solaskide bakarrari erreferentzia egiteko: *hi* (gazt.«tú») lagunartekoa eta *zu* (gaztelania zaharreko «vos» edo fr. «vous») begirunezkoa.

Dena den, orokorra den oinarrizko bereizkuntza hau korapilatu egiten da euskalkia kontuan hartzen bada: horrela, alde batetik, *hi/zu* bikoteari, iparraldeko euskalkietan korritzen ez duen «hiperbegirunezko» izenordain bat (*berori*, hitzez hitz, gazt. «ese —*(h)ori*— mismo —*ber*—», lat. «ipse») gaineratu behar zaio hegoaldeko euskaran (*hi* < *zu* < *berori*); eta beste alde batetik, II. pertsonako oinarrizko bi izenordainen bitartean *zu* begirunezkoaren forma palatalizatu eta adierazkorra den *xu* txertatu behar da ekialdeko behe-nafarreraz (EBN) eta eguzki aldeko beste hizkeraren batzuetan (*hi* < *xu* < *zu*). Hortaz, izenordainak soilik kontuan hartuko begenitu, gehienez ere hiru mailako izenordain-sistemak gerta litezke gaurko euskaran solaskide bakarrarekin aritzeko. Ondorioz, singularreko bigarren pertsona erreferentzialari (II) dagokion laukia ondoko erara zatikatuta geratzen da euskalkien arabera:

2. TAULA

Singularreko bigarren pertsona erreferentzialia (II):

| Hegoaldeko euskara | Iparraldeko euskara | EBN... |
|---|---|---|
| HI | HI | HI |
| ZU | | XU |
| BERORI | ZU | ZU |

Singularrean (II. pertsonan) aipatu dugun oinarrizko aurkakotasuna (lagunarteko *hi/zu* begirunezkoa) neutralizatu egiten da pluralean (ikus beheko 3. taula), *hi* izenordainak kideko pluralik ez duelako (Schuchardt, 1893:229). Gramatikariek hiperbegirunezko *berori* singularraren aldamenean *bero(r)iek (berok, eurok...)* plurala ematen dute; baina egia esateko, singularra *(berori)* galduxea edo galzorian badugu, plurala *(beroriek)* oraindik nekezago erabiltzen dela aitortu beharra dago: plurala ozta-ozta agertzen da literatur-tradizioan aipatu balioaz[13]. Bestalde, *xu* izenordain palatalizatuak ez bide du kidekorik pluralerako. Gauzak horrela, teorian ez, baina praktikan pluralean aurkakotasunen ezabatzea edo neutralizazioa *zuek* formaren alde ia erabatekoa dela dirudi. Ondorioz, aurrerantzean, gehienbat singularreko bigarren pertsona erreferentzialera (II) mugatuko dugu geure azterketa.

Dena den, aurrera baino lehen, ia euskalki guztietan izenordain-sistema bikoitzaz (*hi/zu; zu/berori; xu/zu...*) eta are sistema bakunaz ere (*zu...*) baliatzen

[13] Michelenaren *Orotariko Euskal Hiztegian*, «ustedes» esanahiaz, *beroriek* izenordainaren pare bat adibide besterik ez daude jasota eta biak Berrondok egindako Kijoteren itzulpenetik atereak dira.

diren euskaldunak anitz direla ohartarazi beharra dago. Hots, *hi* eta *berori* izenordainei loturiko tratamenduak aspalditik atzeraka ari dira euskaldunen ahotan eta horregatik, asko dira bata edo bestea edo biak «falta» dituzten hiztun euskaldunak. Dena den, konparaketetara jotzen badugu, bietatik beroriketa da, askozaz, galera handiagoa izan —eta aurrerantzean ere izango— duena. Lekuan lekuko tratamendu markatuaren galera adierazi nahirik, beheko 3. taulan, eremu dialektal bakoitzean izan daitekeen paradigmarik osoen edo aberatsena eskaintzen da lehendabizi (A, B, C) eta ondoren, paradigma horren aldaera bakunagoak ($A_1$, $A_2$...; $B_1$, $B_2$...; $C_1$...). Aniztasun hori guztiz azpimarkagarria da euskaraz, zeren dialekto guztietan anitz baitira neurri handiago edo txikiagoan paradigma soilduaz baliatzen diren euskaldunak: datu estatistikorik ez bada ere, hegoaldean, esate baterako, seguruenik sistema bakunena ($A_3$) dateke hiztun gehien dituena eta sistema korapilatuena (A), hiztun gutxien dituena.

3. TAULA

Bigarren pertsona erreferentziala (II/II'):
Hegoaldeko euskalkiak (B, G, IGN, HGN...)

«A» ——————————— >

| Sing. | Plurala |
|---|---|
| HI | ZUEK |
| ZU | |
| BERORI | BERORIEK* |

*Aldaerak: *berok, eurok...*

| «$A_1$» | | «$A_2$» | | «$A_3$» | |
|---|---|---|---|---|---|
| Sing. | Pl. | Sing. | Pl. | Sing. | Pl. |
| HI | ZUEK | ZU | ZUEK | ZU | ZUEK |
| ZU | | BERORI | (BERORIEK) | | |

*Iparraldeko gainerako euskalkiak (L, MBN, Z, EBN-Amikuze...)*

«B»

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| HI | ZUEK |
| ZU | |

«$B_1$»

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| ZU | ZUEK |

Ekialdeko behe-nafarrera (EBN)

«C»

| Sing. | Plurala |
|---|---|
| HI | ZUEK |
| XU | |
| ZU | |

«$C_1$»...[14]

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| XU | ZUEK |
| ZU | |

[14] Baliteke euskalki honetan hurrengo sistema bakunagoez baliatzen den jendea izatea:

«$C_2$»

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| HI | ZUEK |
| XU | |

«$C_3$»

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| XU | ZUEK |

Ez du ematen, hala ere, euskalki honetan hurrengo konbinaketa gerta daitekeenik (infra VI, X):

«$C_4$»

| Sing. | Pl. |
|---|---|
| HI | ZUEK |
| ZU | |

3.1.3. Kidetasunak

Hegoaldeko euskal tratamendu-izenordainen sisteman, hiru maila bereizten dira singularrean eta bi pluralean. Beraz, singular eta pluralaren arteko erlazioari begira, Robinsonek aipatzen duen V. tipokoa (3/2) dateke. Hala eta guztiz ere, ez du Indiako hizkuntzen (hindia, tamilera...) antzik eta formari begiratuta, hizkuntzaren batekin parekatzekotan, errumanierarekin baino aiseago, katalanarekin (*tu-vós-vostè/vosaltres-vostès*) parekatuko genuke. Begirunea adierazteko hizkuntza-baliabideen erabilpenari begira, Josephek (1987:262) hizkuntza indoeuroparretan aipatzen duen laugarren tipokoa litzateke, hots, sistema «nahasia», batera numero-aldaketaz (pluraltasuna) eta pertsona-aldaketaz (bigarrenetik hirugarrenera) baliatzen delako.

Edonola ere, erabileraren ikuspuntutik, hegoaldeko euskararen hirugarren maila (beroriketa) ez da parekagarria beste hizkuntza batzuetako «hiperbegirunezko» tratamenduarekin. Izan ere, beste hizkuntzetan tratamendu-izenordainak (adibidez, katalanezko *vostè*, errumanierazko *dumneavoastra*, hindizko *ap*, Ameriketako espanierazko$_3$ *usted*) nagusiki erabilera simetrikoaren arabera erabiltzen dira eta ez, gaurko euskal beroriketa bezala, nahitaez harreman asimetrikoetan.

Ekialdeko behe-nafarreraren paradigma (*hi-xu-zu/zuek*) Robinsonen IV. tipoari (3/1) dagokio; eta egituraz, *tute*oa eta *vose*oa gorde dituzten lurralde amerrikarretako sistemaren (*tu-vos-usted/ustedes*) antzekoa da.

Gainera, hegoaldeko eremu dialektalean badira «A»ren paradigma «soildu» edo «bakunduez» («$A_1$», «$A_2$», «$A_3$») baliatzen diren euskaldun ugari. Beroriketa galzorian dela kontuan izanik, aipagarriak dira bereziki «$A_1$» (*hi-zu/zuek*) eta «$A_3$» (*zu/zuek*) azpisistema bakunagoak. Izan ere, hegoaldeko bi paradigma hauek iparraldeko eremu handi bateko (L, MBN...) berberak dira eta, zalantzarik gabe, euskal hiztun-kopuru handiena bereganatu dutenak.

Labur bilduz, tratamendu-izenordainen sistemari gagozkiola, euskarak ez du berezitasun nabarmenegirik sartaldeko hizkuntzen aldean. Alde horretatik, askozaz deigarriagoak begitantzen zaizkigu japoniera bezalako sortaldeko zenbait hizkuntza, non tratamendu-izenordainen jokoa askoz ugariago eta korapilatuagoa baita (cf. II.13.2). Dena dela, hala hegoaldeko euskalkietan nola EBNz azpimarkatzekoa da singularrean egiten den bereizketa hirukoitza; bereizketa hirukoitz hau inguruko hizkuntza ezagun gutxitan ageri da (katalana, errumaniera, Ameriketako espainiera dialektala, hindia, tamilera, hizkuntza dravidiarretan eta hungarieraz) eta haietariko batzuetan (italiera dialektala, katalana, poloniera) egonkortasun eza eta bitasuneranzko joera nabaritzen da sisteman. Hegoaldeko euskaran ere —eta ondorioz, euskararen eremu zabalenean—, inguruko hizkuntza indoeuropar gehienetan bezala, oso nabaria da eredu bikoitzeranzko joera singularrean (*hi/zu/berori* > *hi/zu*); pluralean, tratamendu-bereizketarik eza (*zuek*) da arau hedatuena.

Izenordainen mailan, dena dela, azpimarkagarria da euskalkiaren eta hiztu-

naren araberako paradigma-aniztasuna, dialekto berean (demagun bizkaieraz) Robinsonek aipatzen dituen tipo ia guztiak gertatzen direlako: I (1/1): *zu/zuek;* II (2/1): *hi-zu/zuek;* III (2/2): *zu-berori/zuek-beroriek;* IV (3/1): *hi-zu-berori/zuek;* V (3/2): *hi-zu-berori/zuek-beroriek.*

Bukatzeko, gainera dezagun euskaraz,

a) sortaldeko hizkuntza batzuetan ez bezala, bigarren pertsonan baizik ez dagoela izenordain-mailaketarik;

b) nahitaez, izenordain-hautaketa (aditzaren inflexioan ageri dena) egin beharra dagoela edo bestela esateko, Brasilgo eta sortaldeko hizkuntza batzuetan ez bezala (japoniera, kasu), «zero» izenordainik ez dagoela.

c) portuges, suediera eta sortaldeko hizkuntza batzuetan ez bezala, tratamendu-izenordainen zeregina betetzen duen izenordain «aizunik» (titulu, ahaidetasun-termino eta antzekorik) ez dagoela.

## 3.2. Euskararen berezitasunak

### 3.2.1. Aditz-joko alokutiboak eta hitanozko sexu-bereizketa

Sexu-bereizketa, zalantzarik gabe, euskararen berezitasun nabarmenenetariko bat dugu (Lafon, 1944:407). Inguruko erdaretan ez bezala, lagunarteko bigarren pertsona argumentalari (*hi* izenordainari) adizkeran dagokion komunztadurako pertsona-indizearen bidez, ergatibo edo datiboarekiko komunztadurakoa bada —hots, aurrizkia ez bada—, solaskidearen sexua ere bereizten da: *-k (-k-)* erabiltzen da gizonentzat eta *-n (-n-)* emakumeentzat, adibidez, *(hik) dakik/dakin, (hiri) datorkik/datorkin.* Bereizketa hau ez da generozkoa, trataera linguistikoa duen sexuzko bereizketa bat baizik (gizonekikoak dirudi termino markatugabea eta emakumeekikoak termino markatua, Lafon, 1944; 1957; 1959); izan ere, bigarren pertsonako adizkera batzuetara mugatua dago —ez da izen eta izenordainetan ageri— eta horrek ezinezkoa egiten du genero gramatikalaz mintzatzea (Rebuschi, 1984:506).

Aipatu sexu-bereizketa euskararen bereizgarria bada, alokutibotasuna da bereizgarriena[15] (Bonaparte, 1862:21; Schuchardt, 1925 —*Primitiae...*—:68; Azkue, 1923:§ 828; Lafon, 1951a:22; etab.). Komunztadura-gertakari bitxia da eta honetan datza: bigarren pertsonakoak ez diren adizkera jokatuetan ere, hots, solaskidea perpauseko partehartzaile ez den kasuetan ere, bigarren pertsonaren (*hi*-ren) indizea (ergatibo edo datiboarekiko komunztaduran agertzen den berbera: *-k/-n*) agertu behar da, mintzoa edo jarduna, solaskideari zuzentzen zaiola agertarazi nahiko balitz bezala: adibidez, *dago* → *zagok/zagon.* Azken adizkera jokatu hauek «alokutiboak» deituko ditugu eta zehatzago honela

[15] Fenomenoaren funtsa beste hizkuntza batzuei arrotz gertatzen ez bazaie ere, japoniera, koreera eta antzeko beste hizkuntza batzuetako 'solas-mailak', solaskideari begira egituratzen diren heinean, antzeko fenomenoak dira.

definitzen dira: bigarren pertsonari dagokion pertsona-indizea agertzen dutenak, bigarren pertsona hori, berez, aditzari dagozkion argumentuetarik bat ez izanik ere (Oihartzabal, 1992).

*Hi* izenordainaren aukerak berekin, nahitaez, besapean bezala, komunztadura alokutiboa dakar; hau da, adizkera alokutiboaren erabilera ez da aukerakoa, *hi*-kako tratamenduaren hautaketari itsatsita bezala doan zerbait baizik. Horregatik, *hirekin etorri nauk* (*nauk* = alokutiboa) ongi eratuta dago, baina gaizki eratuta legoke adizkera alokutiboa erabili ezik: **hirekin etorri naiz*. Beraz, hikako alokutiboek solaskidearen sexua bereizteaz gain, lagunartekotasuna adierazteko zeregina betetzen dute.

Euskal aditzaren morfologia deskribatzerakoan funtsezkoa da alokutiboak eta bigarren pertsona argumentala duten adizkerak elkarrengandik bereiztea. Izan ere, bigarren pertsona alokutiboaren eta bigarren pertsona argumentalaren artean morfosintaxizko desberdintasun nabarmenak daude (Oihartzabal, 1992). Ondorioz, alokutibotasuna irizpidetzat harturik, bi gabe, hiru adizkera-mota bereiztea komeni da; hurrengo hirurak, hain zuzen (Lafon, 1959:106; Oihartzabal, 1992): a) alokutiboak, bigarren pertsona alokutiboaren indizea dutenak (*nauk/-n, duk/-n...*); b) eztabadakakoak edo neutroak, bigarren pertsonako indizerik ez dutenak (*naiz, da...*); c) bigarren pertsona argumentalaren indizea dutenak (*haiz, zarete...*).

Orain arte pertsona-izenordainak eta hikako alokutibotasuna aipatu ditugu, baina egoera korapilatuago bihurtzen da ekialdeko euskalkietan, non alokutibotasuna, hikakoaren ereduari jarraituz, *zu* eta *xu* pertsona-izenordainetara zabaldu baita. Hizkera hauetako adizkera jokatuetan ageri den bigarren pertsona alokutiboaren indizea, ergatibo edo datiboarekiko komunztaduran agertzen den berbera da: *-zu* (*-zü, -zi* euskalkien arabera) eta *-xu*. Horrela, *dago* adizkera neutroaren hikako forma alokutiboa (*zagok*) / (*zagon*) baldin bada, zukako eta xukako adizkera alokutiboak *diagozu* eta *diagoxu* ditugu hurrenez hurren, solaskidearen sexuaren araberako bereizketa morfologikorik gabe.

Beste hizkuntza batzuetan, adibidez indonesieraz edo portugesez, tratamendu-bereizketak neurri handi batean baliabide lexikalei loturik daude; euskaraz, berriz, tratamenduen adierazpena gehienbat baliabide morfologikoen bidez —bereziki komunztadura-gertakarien bidez— gauzatu da eta hain zuzen ere, morfologizazio horrexek bihurtzen du euskal tratamenduen gaia hain interesgarri egitura eta tipologiaren ikuspuntutik.

### 3.2.2. «Hiru ardatzen teoria» (Comrie, 1976), trataera-motak eta euskal tratamendu alokutiboen berezitasuna

Gaur egun, badugu tratamendua(k) solaskidearekiko harremanaren arabera egituratzen d(it)u(z)ten hizkuntza batzuen berri. Ildo horretan, autore batzuek

(Comrie, 1976; Brown and Levinson, 1987:180) hiru trataera- edo ohoragarrimota[16] bereizi dituzte ondoko hiru ardatzen arabera:

1) 'hiztun-solaskide' ardatza: hiztunak solaskidearekin duen harremana (*addressee honorifics:* solaskidearekiko ohoragarriak).
2) 'hiztun-erreferente' ardatza: hiztunak erreferentziagai edo aipagai dituen gauza edo pertsonekin duen harremana (*referent honorifics:* erreferentearekiko ohoragarriak).
3) 'hiztun-zirkunstante (*bystander*)' ardatza: hiztunak (edo entzuleak) zirkunstanteekin edo hirugarrengoekin duen harremana (*bystander honorifics:* zirkunstanteekiko edo hirugarrenekiko ohoragarriak).

Comrieren arabera (1976), hainbat hizkuntzaren deskribapen tradizionaletan nahastean edo bereizkuntzarik egin gabe aipatu izan dira lehen eta bigarren ohoragarri-motak. Esaterako, solaskidearekiko ohoragarrien artean japoniar (cf. II.13.1), javatar, korear (cf.II.14) eta maduratarren «estiloak» edo «solas-mailak» («speech levels») dirateke aipagarri (Comrie, 1976; Brown; Levinson, 1987:180); baina hizkuntza berberetan «ohoragarrriak» deiturikoak (japonierazko adierazpide apal, neutral eta jasoa, adibidez), bigarren sailekoak dirateke, hots, erreferentearekiko ohoragarriak. Zirkunstante edo hirugarrenekiko ohoragarrien artean, Qweensland-eko Dyirbal hizkuntzan, amaginarreba aurrean dagoela erabiltzen den hizkera-moldea dateke aipagarri.

Europako T/V (latinezko *tu/vos* izenordainen laburdura sinbolikoak lagunarteko eta begirunezko tratamenduak adierazteko, Brown and Gilman, 1960) izenordainen bidezko tratamenduak direla eta, Comriek uste du bigarren sailekoak, hots, erreferentearekiko ohoragarriak direla eta ez, lehen begiratuan pentsa litekeenez, lehen sailekoak. Hona hemen, Comrieren ustea laburbiltzen duen Brown eta Levinsonen iruzkina:

> «More surpresingly, Comrie points out that the familiar T/V pronouns alternation in European languages is in fact a case of referent honorifics, and not addressee honorifics as might be supposed. For *in these European T/V systems,* as in all systems based on the speaker-referent axis, it is not possible to express respect to H (hearer) without *reference* to him or to her, in contrast to the South Asian 'speech levels' mentioned above.»
>
> (Brown and Levinson, 1987:180; azpimarkatua geurea da)

Esate baterako, tamilera hizkuntzan ba omen da zukako alokutiboaren oihartzuna dakarkigukeen era alokutibo berezi bat (aditzarekikoa soilik ez bada ere). Hona hemen, haren deskribapena:

[16] Ohoragarri edo trataera ohoragarrien kontzeptua honela zehazten dute Brown eta Levinsonek (op. cit. 179): «By 'honorifics' in an extended sense we understand direct grammatical encodings of relative social status between participants, or between participants and persons or things referred to in the communicative event.»

> «The distinction is neatly exemplified in Tamil, where the plurality of the T/V distinction carries over into third-person pronouns, *avaanka* ('they') being used to refer respectfully to him or (specially) her. It carries over as well into the first person, with the use of the 'royal' *we*. Thus plurality signifies respect throughout the pronominal paradigm of reference (...). *In contrast, there is one particle, -nka, which occurs freely attached to the constituents of a sentence, and which signifies respect to the addresse only, not to any referents (i.e., it involves the speaker-addressee axis), regardless of its location(s) in the sentence.* This particle is probably an emancipated token of the standard plural marker, which is normally bound as a suffix on plural noun phrases or their agreeing predicates.»
>
> (Brown and Levinson, 1987:180; azpimarkatua geurea da)

Comrieren azalpen-sailkapena gaizki ulertzeko arriskua dagoenez, esan dezagun aurrera baino lehen, berak bereizten dituen hiru ardatzak (hiztun solaskide, hiztun-erreferente, hiztun-zirkunstante), trataerak edo ohoragarrimotak bereizteko, mugatzeko eta sailkatzeko irizpide bat besterik ez direla; hots, sailkapen hirukoitz horrek ez du balio tipologikorik izan nahi. Ondorioz, hizkuntza jakin batean sail bateko baino gehiagoko trataerak ager daitezke: japonieraz, adibidez, estiloak edo solas-mailak (lagunartekoa edo laua, kortesiazkoa, begirunezkoa) 'solaskidearekiko ohoragarriak' dira eta adierazpideak (apala, neutrala, jasoa) 'erreferentearekiko ohoragarriak'. Bigarrenik, gainera dezagun Europako hizkuntzei buruzko oharpena guztiz zehatza dela, T/V sistemara, hots, izenordainen bidezko tratamenduen sistemara murriztua baita.

Gure ustez, Comrieren (1976) hiru ardatzen eta hiru ohoragarri-moten teoriaren argitan, euskarak salbuespena dirudi bere inguruko hizkuntzen aldean, hiztunak T/V sistemaren barne solaskidearenganako begirunea adieraz dezakeelako eta alokutibotasunaren bidez (+/-: baia/eza) sistematikoki horixe adierazten duelako solaskidea erreferentetzat hartzeko beharkizunik gabe. Alde horretatik, nahiko harrigarria da japonierazko eta euskarazko (EBN, cf. X) hurrengo perpaus kopulatiboen arteko parekotasuna:

| | LAGUNARTEKOA | KORTESIAZKOA | BEGIRUNEZKOA | Esanahia |
|---|---|---|---|---|
| JAPONIERA | *akai* | *akai désu* | *akoo gozaimásu* | *«gorria da»* |
| EUSKARA | *gorria duk/n* | *gorria duxu* | *gorria duzu* | *«gorria da»* |

Antzekotasunak antzekotasun, euskara ezin da jarri 'solaskidearekiko ohoragarriez' horniturik dauden sortaldeko hizkuntzen maila berean. Eta hori arrazoi nagusi batengatik, hots, 'alokutibotasuna' eta 'tratamendua' maila desberdineko nozioak direlako edo, beste hitzez esateko, aditz joko alokutiboak berez tratamenduak ez direlako (cf. X.1): japoniera bezalako hizkuntzetan tratamendu-izenordainen sistema eta solas-mailena autonomoak dira, elkarren

artean loturaren bat izan badaiteke ere; euskaraz, berriz, aditz-joko alokutiboak ez dira tratamendu-izenordainen sistemarekin zerikusirik ez duten baliabide beregainak, guztiz alderantziz baizik. Hain zuzen ere, aditz-joko alokutiboak, tratamendu-izenordainen mailan egindako aukerari (*hi/xu/zu*) loturik dauden elementuak izaten dira gehienetan. Beraz, euskalki guztietan *hi* izenordainaren aukerak ezinbestean dakar berekin hikako aditz-joko alokutiboarena, EBNz *xu* izenordainaren aukerak xukako alokutiboarena dakar eta zuberoeraz *zu* izenordainaren aukerak zukako alokutiboarena (cf. X.).

Gauzak horrela, oro har, argi dago euskal T/V sistema berezia dena: batetik, inguruko hizkuntzetan aurki daitezkeenen tankerakoa da, izenordainetan eta 'hiztun-erreferente' ardatzaren arabera eraikitzen delako; bestetik, badu Asiako hego-sortaldeko hizkuntza batzuen antza, aditz-joko alokutiboen bidez 'hiztun-solaskide' ardatzari sarbidea ematen diolako. Beraz, aditz alokutibodun euskal tratamenduak, oro har, ez lirateke bete-betean Comrieren lehen sailean sartuko (hiztun-solaskide ardatzaren araberako 'solaskidearekiko trataerak'), ezta bigarren sailaren barruan ere (hiztun-erreferente ardatzaren araberako 'erreferentearekiko trataerak'). Hau da, Comrieren lehen eta bigarren ohoragarrimotetatik zerbait duen bitarteko eredua litzateke euskararena.

Morfosintaxiaren ikuspegitik euskararen tratamenduen berri ematerakoan, pertsona-izenordainak eta bigarren pertsona argumentalarekiko komunztadura ez-ezik, alokutibotasuna ere kontuan hartu beharko da. Are gehiago, pragmatikaren ikuspegitik ere funtsezko gerta daiteke bi alderdiok gogoan hartzea (cf. X.1). Pertsona-izenordainak eta alokutibotasuna direla bide, hainbat konbinaketa eta tratamendu-bereizketa sortzen dira euskalki desberdinetan (cf. X). Tratamendu-ugaritasun eta aniztasun hau euskararen ezaugarrietako bat da, joera, sortaldeko beste hizkuntza batzuetan bezala (Jensen, 1981:53), tratamendu-sistema korapilatuak bakuntzekoa bada ere.

# IV. SARRERA: IKERKETAREN NONDIK-NORAKOAK

## 1. IKERKETAREN HISTORIA

Lan honen lehen hazia 1985ean Lizentziaturako gradua erdiesteko egin nuen ikerketa xumeago batean bilatu behar da. Orduan Markina aldeko kasua izan nuen aztergai (Alberdi, 1986a eta 1986b) eta lan haren kariaz ohartu nintzen tratamenduen erabileraren esparruan eginkizun zegoen langintzaz.

Hasteko, oso nabarmenak ziren deskribapen-mailako hutsuneak. Oro har, lekuan lekuko tratamendu-usarioen informazio zehatza falta zen eta hutsune hori inon baino areago ipar-ekialdeko euskalkietako egoera nahasian atzeman genuen. Ekialdeko tratamenduen inguruko azken informazio xehea, L.L. Bonaparte printzeak duela ehun urtetik gora emandakoa zen. Berau, bi aldetatik begiratuta, ez zen behar adinakoa: batetik, Bonaparteren argibideak zenbaitetan nahasgarri samarrak gertatzen ziren; bestetik, bistan zegoen XIX. mendeko datuak baieztatu edo gaurkotu beharra.

Susma daitekeenez, egitekorik behinena eta lehena tokian tokiko informazio-bilketak izan beharko zuen; horra hor, burutu beharreko lehen urratsa, inkestagintza alegia.

## 2. HELBURUAK

Ikerketa honen helburu orokor nagusia honako hau da: egungo eguneko euskara mintzatuan —pertsona-izenordainen bidezko— tratamenduen gizarte-erabilera deskribatzea eta interpretatzea, hots, tratamenduen erabilera gizarteko harremanetan aztergai duen ikerketa sinkronikoa da lan honetan aurkeztu behar duguna.

Hortaz, helburuetako bat deskribapena da, gaur egungo tratamendu-usarioen deskribapena, hain zuzen. Euskararen egoera dialektala kontuan hartu-

rik, lehenbiziko helburu orokor honek dialektologiaren eremura garamatza nahi eta nahi ez. Zentzu horretan euskalki-mailako berezitasunak-eta bildu behar ditu, hots, euskalkien araberako deskribapena du helburu lan honek.

Interpretazioaren helburu orokorrari dagokionez, lehenik, euskaraz tratamendu-usarioen azpian dautzan funtsezko aldagaien berri (euskalkia, adina, sexua...) ematea da ikerketa honen zeregin espezifikoetako bat, beti ere, erabilera markatu eta markatugabeak bereiziz.

Ildo berean jarraituz, gure ikerketaren beste helburu nagusi bat, euskararen tratamendu-sistema marko teoriko baten barruan eta aspaldi honetako ikerketen argitan interpretatzea da.

## 3. IKERKETAREN METODOLOGIA

### 3.1. Inkestabidea

Oraingo honetan ere, Markina aldeko tratamenduen erabilerari buruzko ikerketa hartan egin genuen bezala, tokian tokiko xehetasunak biltzeko elkarrizketa egituratuaz, hots, inkestabideaz baliatzea erabaki genuen. Informazioak lehen eskukoa izan behar zuen eta tokian tokiko berezko hiztun helduengandik jaso izan genuen, aurretiaz diseinaturiko erakusgarri baten arabera. Orotara, 210 lekuko elkarrizketatu genituen galdekizun batez baliatuz.

Ikerbide honek, zuzeneko behaketan barik bitartekoen gogoeta-lekukotasunetan oinarriturik dagoen heinean, bere arriskuak izan ditzake, besteak beste, errealitate zertxobait desitxuratua jasotzeko arriskua, lekukoaren gaiarekiko aurreritzi posibleak direla medio. Edozein kasutan ere, ikerketaren helburua izenordainen bidezko tratamenduen erabilera ohizko edo markatugabea jasotzea dela kontuan hartzen bada, oro har, ez dugu uste elkarrizketatuak aparteko arrazoirik izan dezakeenik bere tratamendu-usarioak ezkutatzeko, desitxuratzeko edo erdizkako egia-gezurretan ibiltzeko. Bestalde, akatsak akats eta arriskuak arrisku, ez dugu beste modu egingarririk ikusten tankera honetako ikerketa deskriptibo bat burutzeko. Hizkuntza gehienetan inkestabideaz baliatu izan dira gai honi buruzko ikerketak egiteko eta horregatik, gu geu ere, inkestagintzaren arrisku, muga eta alde txarrak ezagututa ere, metodologia berberori erabiltzera makurtu ginen.

### 3.2. Erakusgarria: aldagai kolektiboak

Geure hizkuntza-gaitasunean, gaiari buruzko bibliografian eta lehenago egindako behaketa-ikerketetan oinarriturik, funtsezko eta erabakigarri iruditu zitzaizkigun zenbait aldagairen arabera zirriborratu genuen inkestagintzako erakusgarria. Gure iduriz, funtsezko aldagai independenteen artean ondoko laurak bereziki ezin ahaztuzkoak ziren:

1) Sexua
2) Adina
3) Kaletar/baserritar jatorria
4) Dialektoa

Aurrez bagenekien euskarazko usarioan sexuak eragin ikaragarria duela tratamenduen erabileran. Hortaz, bai gizonak eta bai emakumeak, kopuru berdintsuan galdekatu beharko ziren.

Adinak ere paper garrantzizkoa bete dezake aldagai independiente modura. Hots, tratamenduen erabilera zabalago edo meharragoari gagozkiola, zitekeena zen belaunaldi batetik bestera alde nabarmena egotea. Aldameneko hizkuntzetako usarioen arabera, *T*-ren erabilera «ausartagoa» postula zitekeen belaunaldi gazteagoen artean eta usario gordezaleagoak nagusiagoen artean.

Beste alde batetik, gure ikerketaren helburuetako bat, Brownen (cf. I.1.) diakroniazko hipotesien egokitasun enpirikoa baieztatzea edo gezurtatzea zen. Horretarako hiru metodologia erabil zitezkeen (Labov, 1966): *joerakoa, panel* deiturikoa eta *pseudojoerakoa.* Joerako ikerketa batean gutxienez bi erakusgarri independiente erabili behar dira, biak komunitate linguistiko beraren barruan eta aldi desberdinetan hautatuak. Labov-ek «panel» deritzan ikerketan, erakusgarria osatzen duten komunitate linguistiko bereko hiztunei euren bizitzako aldi desberdinetan errepikatu behar izaten zaie galdeketa. Pseudojoerako ikerketa batean, gutxienez bi erakusgarri erabiltzen dira, erakusgarri bakoitza hurrenkeran doazen adin desberdinetako hiztun-multzoen artean eta denboraren une jakin batean hautatua izanik. Lehenengo biak, metodologiaren ikuspuntutik fidagarriagoak badira ere, denbora- eta diru-kostuengatik ez ziren bat ere bideragarriak gurea bezalako ikerketa mugatu batean. Hau dela eta, pseudojoerako ikerketaren alde makurtu eta «a priori» bi belaunaldi bereizi genuen: gazteen belaunaldia (18 urtetik 35era bitartekoak) eta helduen belaunaldia (45 urtetik gorakoak).

«Kaletar/baserritar» jatorriari dagokionez, baserri-girokoen artean hitanoak bizitza eta gizarte-esparru askoz ere zabalagoak izan zitzakeela susmatzen genuen. Hipotesi hau frogatzeko edo gezurtatzeko asmoz, herri bakoitzean lekuko kaletar eta baserritarrak bereiztea komeni zitzaigun.

Aipatu berri ditugun hiru aldagaiok kolektiboak dira, esan nahi baita «hiztun-talde desberdinak» bereizten dituztela. Tratamenduekiko usarioetan elkarrengandik urruntzen eta bereizten diren neurrian, gizonena eta emakumeena, kaletarrena eta baserrikoena, gazteena eta nagusiena aurrez aurre jarri beharreko multzoak ziren. Hipotesi honen arabera, multzo desberdin guztiok hartu behar ziren kontuan erakusgarrian. Gauzak horrela, lekukoak bilatzerakoan hiru aldagai independenteok (sexua, baserritar/kaletar jatorria eta adina) kontrolatzea erabaki genuen. Horretarako herri bakoitzean bosna lagun elkarrizketatzea pentsatu genuen ondorengo banaketaren arabera:

LEKUKOEN BANAKETA ETA INKESTA-KOPURUA HERRI BAKOITZEAN HASIERAKO EGITASMOAN

1) Neska, kaletarra (18-35 urte)
2) Mutila, kaletarra (18-35 urte)
3) Gizona, kaletarra (45tik gorakoa)
4) Emakumea, kaletarra (45tik gorakoa)
5) Baserrikoa (neska, mutila, gizona, emakumea)

### 3.3. Inkestagintza: sarea eta herrien hautaketa

Aintzakotzat hartu behar genuen beste aldagai independiente funtsezko bat (laugarrena) dialekto edo hizkerarena zen. Tratamendu-usario desberdinen banaketa dialektala aztertzeko, euskalki, azpieuskalki eta hizkera guztietako lekukoak galdekatu behar genituen. Tamalez, dialektologiazko proiektu handietan (hizkuntza-atlasetan) hartu ohi diren sare hertsien aldean, aski sare zabala —zabalegia gure gusturako— hautatu beharrean aurkitu ginen. Kontuan eduki behar da lan hau ez dela erabat dialektologiazkoa, zenbaitetan noraezean dialektologiaren eremuan sartzen bada ere. Horrela, erabakitzeko lehenengo auzi korapilatsua, inkestagintzaren eremua edo sarea geografikoki mugatzea izan zen. Euskaltzaindiak egiten diharduen EHHAn (Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa) orotara 145 inkestaleku hautatu ziren, bakoitzean bana edo bina inkesta eginez. Guk —gurea bakarkako lan askoz ere apalagoa izanik— ezinbestean nahi baino askoz ere eremu meharragora mugatu behar izan genuen geure bilketa eta murrizte «lazgarri» batzuen ondoren, azkenean berrogeita hamarren bat herritara iristea pentsatu genuen.

Herriak hautatzerakoan Bonaparteren 1869ko sailkapena izan genuen gidari, ahal izan zen neurrian «herri bat hizkera bakoitzeko» irizpideari jarraituz. Bestalde, oso-oso kontuan hartu genituen Yrizar-en herriz herriko lekukotasunak tratamendu bakoitzaren zabaleraz eta bizitzaz (Yrizar, 1981, II. lib.: 375-380).

Zenbait puntutan, hala ere, aldendu egin ginen ezarritako irizpide orokorretik. Hasteko, bizkaieraren eremuan ez genuen Bermeoko hizkera aintzakotzat hartu, inguru horretan galduxea baitago hikako tratamendua. Hegoaldeko goi-nafarrera, aezkera, zaraitzuera eta erronkariera behar bezala aztertzea ia-ia eginkizun ezina izango zatekeen lekuko ezagatik, are gehiago gurea bezalako metodologia bat (inkestak lekukoei) erabiliz. Zailtasunak gorabehera, saiotxo batzuk egin genituen bai hegoaldeko goi-nafarreran, bai Aezkoan eta bai Zaraitzun ere eta espero zitekeenez ez genuen behar besteko lekuko egokirik aurkitu.

Ekialdeko euskalkien eremuan (behe-nafarrera eta zuberera), ostera, alderantziz jokatu genuen eta berariaz leku gehiago hautatu ziren, tratamenduen gaiari dagokionez bertako informazioa aski urria izateaz gain, nahaspilatua delako. Oroz gain, Bonaparteren argibideak eta Yrizarrek, *Atlas Sakaze* delakoan oinarrituta, zukako eta xukako tratamendu alokutiboen hedadura dialektalaz ateratzen dituen ondorioak (Yrizar, 1981: 380-387) zehaztu, baieztatu edo

gezurtatu nahi izan ditut. Ekialdeko behe-nafarrerari dagokionez, hizkera bakoitzeko bana, bina edo hiruna herri hautatu genituen, Bonapartek bereizi zituen hizkerei Ostibarrekoa gaineratuz. Zuberoan, lurraldean barrena sakabanaturiko zazpi herri hartu ziren.

Beste alde batetik, herrien hautaketa inoiz aski arbitrarioa izan bada ere (adibidez, Lasarteren aukera), esan beharra dago gehienetan berariaz euskara bera (eta ondorioz hitanoa ere) ongi atxikitzen duten herrietara jo izan dugula.

Beraz, diseinatutako erakusgarriaren arabera, 50 herri hartu eta haietako bakoitzean bosna inkesta egiteko asmoa genuen. Orotara, 250 inkesta.

### 3.4. Egitasmoak eta lorpenak: egindako inkestak eta «hutsuneak»

Asmoak gorabehera, praktikan uste eta nahi baino gehitxoago urrundu behar izan genuen ezarritako erakusgarritik. Hasteko, zenbaitetan ez dira bete adinaz eta sexuaz ezarritako parametroak; horrela, «neskatzat» emakumea eta «mutiltzat» gizon adinekoa hartu beharrean suertatu ginen edo, besterik gabe, neskaren edo emakumearen hutsunea nabari da.

Beste alde batetik, herri txiki batzuetan «kaletar/baserritar» bereizketa aski artifiziala gertatzen da, zentzugabea ez esatearren. Gainera, iparraldean, nagusiki herri laboraria izanik, oso zaila gertatuko zatekeen aurretiazko banaketa ideala («4 kaletar/ 1 baserritar») lortzea; izan ere, berez edozelango lekukoak bilatzea egiteko erraza ez bada, hiztun gutxi geratzen den tokian halako eta holako baldintza betetzen dituen lekukoa bilatzea etsitzeko moduko eginkizuna bihur daiteke edozeinentzat. Hortaz, iparralde osoan herri bakoitzean bost lekuko (lau, kalekoak eta bat, baserri ingurukoa) elkarrizketatu beharrean, laurekin (kaletar nahiz baserritar) konformatu beharra izan genuen. Guk erabiltzen genituen parametroen araberako lekuko egokiak aurkitzeko zailtasunen aurrean, hegoaldeko beste hainbat herritan ere iparraldeko irtenbidea hartzea erabaki genuen, launa inkesta egitea, alegia. Guztira, hegoaldeko hamar herritan bakarrik lortu genuen bostekoa: bizkaierazko eremuan hirutan (Otxandio, Bergara eta Eskoriatza); gipuzkerazko eremuan bostetan (Lasarte, Tolosa, Azpeitia, Ordizia, Urdiain); eta goi-nafarrerazkoan bitan (Lekaroz eta Leitza).

Alderantzizkorik ere bada, hala ere. Esate baterako, batzuetan —zatika bada ere— herri gehiagotara (Elorrio, Senpere) iritsi ginen inkesta bat edo beste lortuz eta beste batzuetan, lekuko bat baino gehiago lortu genuen multzo bakoitzeko (gizon bi, emakume bi, e.a.). Inkesta gehigarri hauek kontuan hartu dira emaitzen azterketa orokorrean (beheko tauletan ageri da lortutako inkesten banaketa).

Beraz, inkestagintzan «aurretiazko» diseinua oinarritzat hartu bagenuen ere, gerora maiz aldendu ginen «a priori» ezarritako eredu hartatik (beheko tauletan ikus daiteke lortutako erakusgarria).

1. TAULA: LORTUTAKO INKESTAK, EUSKALKIZ EUSKALKI ETA HIZKERAZ HIZKERA*

| | BIZKAIERA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **MARKINA** | NESKA | MUTILA | GIZONA | EMAKUMEA | OROT. |
| AULESTIA | N-32 | M-35 | G-46 | E-52 | 5 |
| ELORRIO | — | — | — | E-59(b) | |
| **GERNIKA** | | | | | |
| ABADINO (Mendiola) | N-30(b) | M-27(b) | G-65(b)<br>E-59(b) | E-55(b) | 5 |
| **PLENTZIA** | | | | | |
| LAUKIZ | — | M-34(b) | G-60(b)<br>G-78(b) | — | 3 |
| **ARRATIA** | | | | | |
| ZEANURI | N-36(?) | M-30 | G-61<br>G-83 | E-62(b) | 5 |
| LARRABETZU | — | M-29(b) | G-47 | — | 2 |
| **OROZKO** | | | | | |
| OROZKO | N-35 | M-30(b) | G-59(b) | E-50(b) | 4 |
| **ARRIGORRIAGA** | | | | | |
| ZEBERIO | N-27 | M-31(b) | G-51(b) | E-68(b)<br>E-62(b) | 5 |
| **OTXANDIO** | | | | | |
| OTXANDIO | N-44 | M-34 | G-61<br>G-51(b) | E-57 | 5 |
| **BERGARA** | | | | | |
| BERGARA | N-21<br>N-23(b) | M-24 | G-59 | E-44 | 5 |
| **GATZAGA** | | | | | |
| ESKORIATZA | N-27 | M-20<br>M-28(b) | G-67 | E-61 | 5 |
| **BERMEO** | | | | | |
| | — | — | — | — | — |

44

*N=NESKA, M=MUTILA, G=GIZONA, E=EMAKUMEA; (B)=BASERRITARRA, (?)=ZALANTZA BASERRITAR ALA KALETARTZAT HARTZERAKOAN; ZENBAKIEK ADINA ADIERAZTEN DUTE.

TAULA: LORTUTAKO INKESTAK, EUSKALKIZ EUSKALKI ETA HIZKERAZ HIZKERA

## GIPUZKERA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **HERNANI** | NESKA | MUTILA | GIZONA | EMAKUM. | OROT. |
| LASARTE | N-22 | M-19 | G-41 | E-39<br>E-65(b) | 5 |
| **TOLOSA** | | | | | |
| TOLOSA | N-22 | M-23 | G-57 | E-49<br>E-47(b) | 5 |
| **AZPEITIA** | | | | | |
| AZPEITIA | N-24 | M-27 | G-46 | E-57<br>E-45(b) | 5 |
| **ZEGAMA** | | | | | |
| ORDIZIA | N-20 | M-18 | G-54<br>G-57(b) | E-58 | 5 |
| **BURUNDA** | | | | | |
| URDIAIN | N-20(?) | M-21 | G-49(?)<br>G-62(b) | E-53(?) | 5 |
| **ETXARRI** | | | | | |
| ETXARRI | — | M-18 | G-55<br>G-71<br>G-40 | E-55 | 5 |
| | | | | | 30 |

## IPARRALDEKO GOI-NAFARRERA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **LIZASO** | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
| AUZA | N-48(?) | M-35(?) | G-74(?) | E-66(?) | 4 |
| **BAZTAN** | | | | | |
| LEKAROZ | N-37 | M-21 | G-62<br>G-45(b) | E-59 | 5 |
| **BORTZERRI** | | | | | |
| ARANTZA | N-32(b) | M-29(?) | G-56(b)<br>G-56(b) | E-42(b) | 5 |
| **IRUN** | | | | | |
| OIARTZUN | N-34(b) | M-34(b) | G-59 | E-64 | 4 |
| **HUARTE-ARAKIL** | | | | | |
| BARAIBAR | — | M-41(?) | G-69(?) | E-50(?) | 3 |
| **INZA** | | | | | |
| LEITZA | N-22 | M-23 | G-63<br>G-65(b) | E-58 | 5 |
| | | | | | 26 |

TAULA: LORTUTAKO INKESTAK, EUSKALKIZ EUSKALKI ETA HIZKERAZ HIZKERA

**HEGOALDEKO GOI-NAFARRERA**

| ERRO | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| EUGI | — | — | G-77(?) | — | 1 |

**AEZKERA**

| ABAURREGAINA | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| | —— | (G-81) | E-58 | 1 | |
| | | | | | 1 |

**ZARAITZUERA**

| OTSAGI | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| | — | — | G-76(?) | — | 1 |
| | | | | | 1 |

**LAPURTERA**

| SARA | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| SARA | N-40(b) | M-31(b) | G-45(b) | E-64(b) | 4 |
| SENPERE | — | — | G-67(b) | E-68 | 2 |
| **AINHOA** | | | | | |
| AINHOA | N-40(b) | M-29(b) | G-59<br>E-49(b) | E-63(b) | 5 |
| **DONIBANE-LOHITZUNE** | | | | | |
| URRUÑA | — | M-23(b) | G-57(b) | E-62(b) | 3 |
| **ARRANGOITZE** | | | | | |
| ARBONA | — | M-24(b) | G-51(b) | E-63(b) | 3 |
| | | | | | 17 |

**MENDEBALDEKO BEHE-NAFARRERA**

| BAIGORRI | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| BAIGORRI | N-24(b) | M-33(b) | G-48(b) | E-60(b) | 4 |
| **UZTARITZE** | | | | | |
| UZTARITZE | N-37(b) | M-36(b) | G-48(b) | E-71(b) | 4 |
| **MENDIONDO** | | | | | |
| HAZPARNE | N-32(b) | M-44(b) | G-50(b) | E-50 | 4 |
| | | | | | 12 |

TAULA: LORTUTAKO INKESTAK, EUSKALKIZ EUSKALKI ETA HIZKERAZ HIZKERA

## EKIALDEKO BEHE-NAFARRERA

| | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| **GARAZI** | | | | | |
| GAMARTE | N-29(b) | M-31(b) | G-56(b)<br>G-54(b) | E-64(b) | 5 |
| UHARTE-GARAZI | N-23(b) | M-30(b) | G-61(b)<br>G-57(b) | E-60(b)<br>E-55(b) | 6 |
| **AMIKUZE** | | | | | |
| AMOROTZE | N-39(b) | M-25(b) | G-54(b) | E-52(b) | 4 |
| GAMUE | N-47(b) | M-22(b) | G-60(b) | E-51(b) | 4 |
| **BARDOZE** | | | | | |
| BARDOZE | N-56(b) | M-36(b) | G-64(b) | E-81(b) | 4 |
| **ARBEROA** | | | | | |
| HELETA | N-19(b) | M-34(b) | G-54(b) | E-43(b) | 4 |
| IRISARRI | N-49(b) | M-34(b) | G-55(b) | E-62(b) | 4 |
| AIHERRA | N-30(b) | M-24 | G-68(b) | — | 3 |
| **BESKOITZE** | | | | | |
| BESKOITZE | N-35(b) | M-31 | G-63(b) | E-57 | 4 |
| MUGERRE | — | M-47(b) | G-73(b) | E-68(b) | 3 |
| **URKETA** | | | | | |
| URKETA | N-53(b) | M-57(?) | G-74(b) | E-88(b) | 4 |
| **OSTIBARRE** | | | | | |
| DONAIXTI-IBARRE | N-35(b) | M-37(b) | G-52(b) | E-64(?) | 4 |

## ZUBERERA

| LARRAÑE | NESKA | MUTILA | GIZON. | EMAKUM. | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| | N-32(?) | M-27(b) | G-84(b) | E-47(b) | 5 |
| | | | | E-77(?) | |
| SANTA-GRAZI | N-32(?) | M-34(b) | G-57(b) | E-75(?) | 4 |
| ALTZÜRÜKÜ | N-20(?) | M-35(?) | G-69(?) | E-63(?) | 4 |
| BARKOXE | N-32(?) | M-40(b) | G-55(b) | E-64(?) | 4 |
| MUSKILDI | N-31(?) | M-35(b) | G-66(?) | E-66(?) | 4 |
| AIÑHARBE | N-23(b) | M-33(b) | G-63(b) | E-45(b) | 4 |
| EZPEIZE- | | | | | |
| ÜNDÜREIÑE | — | — | G-70(?) | E-66(b) | 4 |
| | | | G-53(?) | E-78(?) | |
| | | | | | 29 |

2. TAULA: INKESTA-KOPURUA EUSKALKIZ EUSKALKI

| | | |
|---|---|---|
| BIZKAIERA (B) | 9 herri/hizkera: = | 44 |
| GIPUZKERA (G) | 6 herri/hizkera: = | 30 |
| IPARRALDEKO GOI-NAFARRERA (IGN) | 6 herri/hizkera: = | 26 |
| HEGOALDEKO GOI-NAFARRERA (HGN) | 1 herri/hizkera: | 1 |
| AEZKERA: | 1 herri/hizkera: | 1 |
| ZARAITZUERA: | 1 herri/hizkera: | 1 |
| LAPURTERA: | 4 herri/hizkera: = | 17 |
| MENDEBALDEKO BEHE-NAFARRERA (MBN) | 3 herri/hizkera: = | 12 |
| EKIALDEKO BEHE-NAFARRERA (EBN) | 12 herri/hizkera: = | 49 |
| ZUBERERA (Z) | 7 herri/hizkera: = | 29 |
| 50 HERRI/HIZKERA. INKESTAK 210 | | |

3. INKESTA-KOPURUA SEXUAREN ARABERA

| EUSKALKIA | GIZONAK | EMAKUMEAK | OROTARA |
|---|---|---|---|
| B | 24 | 20 | 44 |
| G | 16 | 14 | 30 |
| IGN | 15 | 11 | 26 |
| HGN | 1 | — | 1 |
| Aezk. | — | 1 | 1 |
| Zar. | 1 | — | 1 |
| L | 9 | 8 | 17 |
| MBN | 6 | 6 | 12 |
| EBN | 26 | 23 | 49 |
| | 112 | 98 | 210 |

4. INKESTA-KOPURUA KALETAR/BASERRITAR ALDAGAIAREN ARABERA

| EUSKALKIA | KALETARRAK | BASERRITARRAK | ZALANTZAK | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| B | 22 | 21 | 1 | 44 |
| G | 22 | 5 | 3 | 30 |
| IGN | 10 | 8 | 8 | 26 |
| HGN | — | — | 1 | 1 |
| Aezk. | 1 | — | — | 1 |
| Zar. | — | — | 1 | 1 |
| L | 2 | 15 | — | 17 |
| MBN | 1 | 11 | — | 12 |
| EBN | 3 | 44 | 2 | 49 |
| Z | — | 13 | 16 | 29 |
| | 61 | 117 | 32 | 210 |

### 3.5. Herriz herriko langintza: metodologiazko xehetasunak

Herriz herriko langintza edo tokian tokiko inkestagintza neuk burutu nuen 1991. urte osoan. Herri banaka batzuetan herriko laguntzaile desberdinak izan nituen inkestagile, zatika bederen (Abadiñon inkesta bat, Zeanurin beste bat, Bergaran lau, Lasarten beste lau, Tolosan bi, Azpeitian lau, Ordizian hiru, Urdiainen lau eta Etxarri-Aranazen beste lau). Halakoetan beti, galdekizunaren inguruko zailtasun eta zalantza guztiak argitu ondoren, neuk egiten nuen lehen galdeketa inkestagilea izango zenaren aurrean. Gainontzeko herri guzti-guztietan neu bakarrik[1] aritu izan nintzen inkestagintzan. Ahal izan nuen guztietan, herriko bitartekoen laguntzaz baliatu izan nintzen lekuko egokiak aurkitzeko, baina zoritxarrez beste askotan, bitartekorik ezean, ate-joka hastea beste irtenbiderik ez zitzaidan geratu. Edozein kasutan ere, beti saiatu izan ginen elkarrizketa-eguna eta ordua aldez aurretik finkatzen.

Aurrez aurre eta banan-banan egindako euskarazko elkarrizketa izan zen inkesta egiteko modua eta berriemaileei behin ere ez zitzaien irakurtzeko testurik edo galderarik eman. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagututa, hemen pentsaezina izango zatekeen inkestagintza posta bidez, hots, inkestak lekukoen artean banatuz, burutzea. Gauzak horrela, ezinbestekoa izan zen lekuko guztiak banan-banan eta euren gustuko tokian eta tenorean elkarrizketatzea.

Galdeketak ordubete inguru (zerbait gehiago edo gutxiago lekukoaren arabera) irauten zuen eta bizia izan zedin, denbora guztian zehar kodeak markatzera eta oharren bat edo beste idaztera mugatzen nintzen, ahalik eta gutxien idatziz. Gainera, magnetofoiz pare bana edo hiruna elkarrizketa —gehienetan berriemaile nagusienak, azken hauenak gazte jendearenak baino interesgarriagoak eta xehetasunez hornituagoak izaten dira eta— jasotzen nituen herri guztietan.

### 3.6. Lekukoak

Gure lekuko-hautagaiak berezitasun batzuk eduki behar zituen hizkuntza-atlasgintzan erabili ohi direnen aldean. Goraxeago esan bezala, berriemaileek berezko euskal hiztunak, tokian jaiotakoak, adin, sexu eta bizigiroari dagokienez, aipatu parametroen barruan egon eta gainera eguneroko harremanetan norbaitekin hika aritzen zirenak izan behar zuten. Azken baldintza hau funtsezkoa zen gure ikerketarako, galdeketa osoan zehar halako eta holakorekin, halako eta holako egoeratan egingo lukeen tratamendu-hautaketaz jardun beharko baikenuen elkarrizketatuarekin. Hortaz, gure ikerketako lekuko hautagaiak gutxienez bi tratamendu erabiltzeko ohitura izan behar zuen, osterantzean ez zen lekuko aproposa izango eta. Bestalde, gure ikerketan, hizkuntza-atlasgintzan ez bezala, ez zegoen lekuko alfabetatugabe eta kutsatugabeetara mugatu beha-

[1] Emaztea lagun iparraldeko inkestagintzan.

rrik. Berdin-berdin balio ziezagukeen alfabetatuak eta alfabetatugabeak, berdin pertsona ikasiak eta ezikasiak. Hona hemen, lekukoak hautatzerakoan kontuan hartu genituen baldintza edo ezaugarriak:

LEKUKOEN EZAUGARRIAK:

1) Euskaldun berezkoa eta hika (gutxienez toka) egiten duena izatea.
2) Hautatutako herrian sortua izatea.
3) Ahal dela, gurasoak ere, bertakoak izatea.
4) Beste herri batean luzaroan bizitzen egondakoa ez izatea.
5) Hizkuntza-komunikazioa zail edo eragotz dezakeen akats fisikorik ez edukitzea: gorra ez izatea, aginik ez izatea...
6) Buruz argia izatea.
7) Lasaia (eta kanporakoia).
8) Gutxi «erabilia».
9) Alfabetatua nahiz alfabetatugabe edo ezikasia.
10) Prest egotea.

### 3.7. Lortutako erakusgarriaren errepresentagarritasunaz

Orain arte esandako guztia kontuan hartzen bada, begi bistan geratzen dira ikerketaren metodologiazko zailtasunak. Lehenengo eta behin, erakusgarrirako hiztuneria osoari buruzko informaziorik eza azpimarkatu beharra daukagu; izan ere, gaurkoz ez daukagu bat ere informazio estatistikorik hika aritzen diren euskaldunei buruz, ezta gutxi gorabeherako hurbilpen baterako daturik ere. Eta beste herrialde batzuetan ez bezala, gurean ezin dira bi populazioak (euskaldunena eta hika noizbait aritzen direnena) identifikatu, eskualde batzuetan hikako tratamendua galduta eta beste askotan erdi galduta edota hiztunmultzo jakin batzuetara (gizonen multzora, nagusien multzora...) mugatua dagoelako. Gauzak horrela, honelako ikerketa errepresentagarri bat burutzeko zailtasun enpirikoa azpimarkatu nahi dugu lehenik. Inkestatutako hiztuneria osoari gagozkiola, nekez ziurta genezake gure lana errepresentagarria denik, baina nolanahi ere errealitate orokorraren ispilu adierazgarria izan daitekeela susmatzen dugu.

## 4. GALDEKIZUNA (GALDE-SORTA EDO ITAUNKETA-EREDUA)

Informazioa biltzeko asmatutako galdekizuna 116 galderaz eta zortzi atalez dago osatuta (ik. V. kpt.). Erantzuteko launa aukera jarri genituen galdera gehienetan, honako laurok, hain zuzen ere:

*A) Normalean*____ *B) Noizean behin*____ *C)*____ *Nahiz*____ *D) Segun*____ ____

Lehenbiziko aukera (*normalean*) ohizko erabilerari dagokio; bigarrena noizean behingo edo ohiz kanpoko usario markatu adierazkorrari; hirugarrena (*_nahiz_*), pertsona berberarekin tratamendu bat baino gehiago erabiltzen direnerako pentsatu zen eta azkenengoa, senidetasunezko harremanetan pertso-

naren arabera tratamenduz aldatzen den kasuetarako (adibidez, lehengusu batzuekin hitanoka eta beste batzuekin eztabadaka).

### 4.1. Familia (ahaidetasunezko harremanak)

Sarreran, lekukoari tokian tokiko tratamenduez eta berak erabiltzen dituenez galdetzen zaio. Lehenbiziko atala (39 galderaz osatua), ahaidetasunezko harremanen inguruan dago egituratua eta familiaren esparruari dagokio bere osotasunean. Atal honetako galdera gehienak bikoitzak dira, hots, igorlearengan soilik oinarritu beharrean, igorle eta hartzailearengan, binakako harremanetan oinarritzen dira. Horrela, galdera zentzu bietan zuzentzen zaio elkarrizketatuari: alde batetik, berak halako pertsonari zein tratamendu ematen dion, eta beste alde batetik, solaskide horrengandik zein tratamendu jasotzen duen. Oker ez bagaude, ahaidetasunezko ohizko harreman garrantzizkoenak daude bilduta galde-sorta honetan. Lehen ataleko azken galderetan (31-38), adinaren aldeak familiako harremanetan sortaraz ditzakeen gatazka batzuk jasotzen dira.

### 4.2. Barne-bakarrizketa eta beste: Jainkoa, animaliak, solaskide-multzoa...

Bigarren atalean (40-46), bakarrizketako, Jainkoarekiko eta animaliekiko tratamendu-usarioez galdegiten da. Hemen bereziki toketa/noketa tratamenduen balio markatugabe edo markatua dugu aztergai. Atal honetako azken galderan, solaskide-aniztasunaren auzia aurkezten da. Alegia, gaur egun, tratamendu alokutiboen erabilera solaskide bakarraren kasura al dago murriztua?

### 4.3. Familiaz kanpoko harremanak (adina, sexua, kidetasuna, adiskidetasuna, estatusa)

Hirugarren atalean, familiaz kanpoko gizarteko harremanak ditugu aztergai eta funtsean hurrengo aldagaien gainean eraikita dago: adina, sexua, estatusa (maila), kidetasuna eta adiskidetasuna. Bost aldagai independenteok ez dira kolektiboak, indibidualak baizik eta binakoen bereizgarriak (ezaugarri pisudunak) izan daitezke tratamendu-hautaketari begira.

Adinaren aldagaia honako bi balioen arabera sartu genuen: adin bera (=); adin desberdina (#).

Sexuaren aldagaiak bi balio har ditzake gure azterketaren arabera: sexu berekoak izatea (=); sexu desberdinetakoak izatea (#).

Estatusa, elkarrekiko jardueraren eremuan kokatzen dugu eta ez da gizarte-maila edo gizarte-klasearekin nahastu behar. Adibidez, gizarte-klasez maila desberdinetakoak diren bi adiskide, adiskidetasunezko harremana besterik ez duten neurrian, estatus edo maila berekotzat hartuko ditugu. Baina langile bat eta karguren bat duen langile burua, gizarte-klasez maila berean egon litezkeen arren, estatus desberdinekotzat hartuko ditugu lan-munduan lehenak bigarrena-

ren gain nolabaiteko boterea duen neurrian. Eman dezagun mediku bat eta gaixo bat ditugula; gizarte-klasez maila berean egon daitezkeen arren, zein bere lanbide-eremuan estatus handiagokotzat hartuko dugu. Estatusak bi balio hartzen ditu gure azterketan: estatus berdina (=) eta estatus desberdina (#).

Kidetasuna, harremanaren maiztasunaren zentzuan interpretatu dugu eta bi balio hauek eman dizkiogu: kidetasunik eza (-); kidetasun altua (+).

Adiskidetasunari —konfiantza edo hurbiltasun psikologikoaren arabera definituta— ondorengo balioak eman dizkiogu: adiskidetasuna bai (+); adiskidetasunik ez (-).

Beheko taulan aipatutako bost aldagaien konbinaketa posible guztiak agertzen zaizkigu. Gure ikerketaren helburuetako bat deskribapen mailan kokatu behar da eta ildo horretan deskribapen xehea bilatzen genuen. Horregatik, familiaz kanpoko harremanen ataleko galdekizuna prestatzerakoan, posibilitate guztiak agortzen saiatu ginen eta beheko taulako lauki bakoitzari galdera edo item bana egokitzeko ahalegina egin genuen. Susma daitekeenez, 32 konbinaketa posibleetariko batzuk praktikan arraro samarrak edo zalantzazkoak iruditzen zaizkigu, batez ere [kidetasuna-, adiskidetasuna+] matrizari dagozkionak (beheko taulako 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30 eta 32 laukiak). Ez da oso ohizkoa kidetasunik gabe (harremanik gabe), adiskidetasun nabarmenik (hurbiltasun psikologikorik edo konfiantzarik) sortzea eta, seguru asko, alferreko lana izateaz gain, itaunketa nekagarriegi eta astunegia gertatuko zatekeen aukera guztiok agortuz gero. Gertagarritasun urria zela eta, azken aukera horiek (18, 20, 22...) ezabatzea erabaki genuen.

5. TAULA: BOST ALDAGAI INDIBIDUALEN KONBINAKETA ANALITIKOAK

| | | ADINA= | | | | ADINA# | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD- | E# | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| AD- | E= | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| AD+ | E# | 17 | ----~~18~~ | 19 | ----~~20~~ | 21 | ----~~22~~ | 23 | ----~~24~~ |
| AD+ | E= | 25 | ----~~26~~ | 27 | ----~~28~~ | 29 | ----~~30~~ | 31 | ----~~32~~ |

LABURDURAK:A=ADINA; S=SEXUA; K(ID)=KIDETASUNA. AD= ADISKIDETASUNA; E=ESTATUSA;

### 4.4. Bestelako aldagaiak (gizarte-testuingurua, euskalkia, gaia...)

Laugarren atal honetan, gai honen inguruko literaturan funtsezko bost aldagaiekin batera aipatu ohi diren beste aldagai batzuk ditugu aztergai. Aldagai hauetako bat gizarte-testuingurua da. Badirudi zenbait hizkuntzatan tratamendua gizarte-testuinguruaren arabera alda daitekeela. Horrela, gizarteko ekitaldi formaletan edo ospakizunetan *V*-ranzko joera omen dago halako hizkuntzetan. Faktore horren eragina frogatzeko 75. galdera otu zitzaigun.

Beste aldagai bat dialektoa da. Daitekeena da tratamendu-aldaketa solaskidearen dialekto edota hizkeraren arabera jazotzea. Euskarari dagokionez, interesgarria iritzi genion distantzia dialektalak tratamenduaren hautaketan izan dezakeen eragina neurtzeko ahaleginari (76. galdera).

Azkenik, gizarte-klasearen eraginaz ere, beste galdera bat asmatu genuen, agian ez oso aproposa edo ez oso adierazgarria (84. galdera).

Tratamenduen erabileraren inguruko beste arazo bat, hautatutako tratamenduaren jarraipenarena da eta azken honi lotua, tratamendu-aldaketarena. Hemen bi gauza bilatzen genituen: alde batetik, ea hizketaldian zehar tratamenduari eusten zaion ala ez argitzea (80. galdera); eta beste alde batetik, gaia edo sinpatia bezalako aldagai hipotetiko batzuen (gaia 81. galderan eta sinpatia 80.ean) eragina frogatzea edo gezurtatzea.

Beste alderdi bat, inoiz eztabaidatua gure artean, solas-mailan *hi* izenordainak eskatzen dituen adizkera alokutiboena da, hots, singularreko bigarren pertsona aktante ez delarik, izenordainaren eta aditz jokatuaren artean sortzen den komunztaduraren berezitasuna. Euskararen bereizgarri hau ukatu edo baztertu nahi izan dutenei datu enpirikoez erantzuteko, beste galdera bat egin genuen (82. galdera).

Halaber, garrantzizkoa iruditu zitzaigun ezagutzea euskal hiztunen jarrera tratamendu-usarioen aldakuntzari buruz. Euskaldunek, beste hizkuntza batzuetan iragarritako *T* simetrikoranzko joera euskaran gertatzeko posibilitateari zer irizten zioten aztertu nahi izan genuen (77(?), 78 eta 79. galderak).

Azkenean, galdera ireki bat dugu berorika tratamenduaren erabileraz eta iraupenaz (85.a) eta beste bat (86.a) alokutiboa ez den xukako hizkeraz.

### 4.5. Ipar-ekialdeko euskalkiak: zuketa eta xuketa alokutiboak

Gauzak argi uztearren, badaezpada ere, beste lau galdera ireki gehiago (87-90) erantsi ziren ipar-ekialdeko euskalkietako egoeraz.

### 4.6. Sintaxia: alokutiboa adierazpen-perpausetan soilik?

Galdekizunaren bosgarren atala sintaxiari dagokio eta honen barruan hizkuntza mintzatuaren alderdi bat baino ez dugu argitu nahi, alegia, ea alokutibotasuna sintaxi aldetik perpaus asertiboetara («enuntziatiboetara»)

mugatuta dagoen ala ez, eta holako perpausetara soilik mugatuta ez badago, ea zein murriztapen dituen hizkera edo eskualde bakoitzean. Informazio honetaz jabetzeko, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasekoen bideari jarraituz, erdarazko galderetara jo genuen. Berriemaileei hurrengo perpaus-motak eman zitzaizkien euskaratzeko:

1. Galderazkoak
2. Konpletiboa (*-LA*)
3. Konpletiboa (*-LA/-N/-NIK*)
4. Baldintzazkoa indikatiboan
5. Denborazkoa (*-NEAN*) + Subjuntibozko konpletiboa (*«Subjuntiboa»/ -TZEA/ TZEKO*)
6. Erlatibozkoa (*-NA*)
7. Kausala (*-LAKO/-BAIT*)
8. Konpletibo zehar galderazkoa (*-N/ -NE(NT)Z*)

### 4.7. Lekukoaren fitxa eta galdera orokor batzuk

Itaunketa edo galdeketa euskaraz egin zen kasu guztietan eta inkestagilea (neu, ehuneko larogeita hamarrean) beti eztabadaka mintzatu zen elkarrizketatuekin. Inkestaren bukaeran lekukoaren datu pertsonal batzuk (izen-deiturak, helbidea, telefonoa...) biltzen genituen. Bestalde, esan beharra dago, aldagai kolektiboen artean, lehen aipatu bost haietaz gain, ikasketak, lanbidea eta egoera zibila ere jaso zirela.

Elkarrizketari bukaera emateko, zenbait galdera orokor prestatu genuen lekukoaren ikuspegia eskatuz tokian tokiko tratamenduen etorkizunaren eta erabileraren gainean.

# V. EMAITZEN AZTERKETA OROKORRA

## SARRERA

Atal honetan inkestagintzan bildutako emaitzen azterketa orokorrari ekingo diogu. Orokortasunari begira hobe delakoan, datuak xehatuta eman beharrean multzokaturik eskainiko ditugu oraingoz. Alegia, euskalki, sexu, adin eta abarren araberako aurkezpen xeheagoak geroko uzten dira, hurrengo ataletan puntu horiexek izango baititugu aztergai.

Gai honi buruzko literaturan jarraitu ohi den ohitura bakuntzaileari jarraituz, orokorki hitanoa (toketa eta noketa) *T* laburduraz (latinezko *Tu* izenordainetik) izendatu dugu eta eztabada, zuka alokutiboa eta beroriketa tratamenduak *V* laburduraz (latinezko *Vos* izenordainetik). Ildo horretatik jarraituz, emaitzak aurkezteko eta aztertzeko eredurik opagarriena *T/V* aurkakotasunaz baliatzea eta tratamendu-aniztasunean halako bitasuna (hiketa *-T-versus* gainerako tratamendu guztiak *-V-*) bilatzea izan liteke; dena den, Nafarroa Behereko xuka (alokutiboa zein ez-alokutiboa) ez da erraz plegatzen goiko eredu bikoitz horretara. Hau da, xuka berez ez da *T*, ezta *V* ere, zenbaitetan eskualdearen eta harremanaren arabera bataren edo bestearen balio pragmatikoa izan dezakeen arren. Hortaz, oro har hitz egiterakoan ez deritzogu egoki xuka *V* sailaren pean sailkatzeari[1].

Gauzak horrela, euskararen zazpi tratamenduak bitara barik (*T/V*), hirutara bildu ditugu (*T/X/V*): alde batetik, hitanoa (*T*) dugu, oraingoz toketa/noketa aurkakotasunean gehiegi sakondu gabe; beste aldetik, formalki tarteko tratamendu gisara aurkezten zaigun xuka dugu (alokutiboa nahiz ez-alokutiboa) (*X*); eta azkenik, pragmatikaz neurri handi batean baliokide diren eztabada eta zuka alokutiboa, eta urruntasuna adieraztekoa den beroriketa (hirurak V

[1] Bitasunean oinarrituriko halako ikuspegi batek errealitatea itxuragabetuko luke, EBNz berdinen arteko xuka batzuetan hitanoaren ordezkoa edo baliokidea delako (cf. infra VII. kapt.).

laburdurapean bilduak). Hortaz, emaitzak abstrakziozko hiru sail nagusi horien arabera aurkeztuko ditugu.

Edozein kasutan ere, gure datuen irakurketa, xuka euskalki jakin batera mugaturiko tratamendua dela kontuan harturik egin behar da.

Aurrera baino lehen, emaitzak aurkezteko moldeaz zenbait ohar egin beharrean aurkitzen gara. Erabilitako galdekizunean lau ihardespen-aukera eskaintzen zaizkio lekukoari: *A) normalean__; B) noizean behin__; C)__nahiz__; D) segun__/__*. Lehenengo ihardespen-aukera (*normalean*) ohizko tratamenduari dagokio, bigarrena (*noizean behin*) ezohizko tratamenduari, hirugarren ihardespen-aukera (*__nahiz__*) pertsona berarekin tratamendu bi neurri berdintsuan erabiltzen direnerako pentsatu zen eta laugarrena (*segun__/__*), azkenik, harreman jakin bati pertsonaren arabera tratamendu desberdinak dagozkionean[2] edota lekukoa zalantzan dagoenean aukeratu beharko zatekeen. Lau ihardespen-aukera ditugu, beraz; eta emaitzen taulak ere, lau hautabide horien arabera eraiki ditugu.

Galdekizunak lau ihardespen-aukera eduki arren, guretzat lehena (*normalean*) da erabilgarriena eta erabakigarriena emaitzen azterketaren orduan; hortaz, ihardespen-aukera horixe eta ez besterik hartu dugu kontuan portzentaiak eta guztizkoak egiterakoan. Praktikan, honek esan nahi du jasotako badaezpadako erantzunak (*noizean behin/nahiz/segun*) erabilgaitzak gertatu zaizkigula gehienetan.

Hala eta guztiz ere, zalantzazko erantzunotatik zenbait ondorio atera daiteke. Lehengo eta behin, esan behar da nekez gertatzen dela pertsona berarekin tratamendu bat baino gehiago maiztasun berberaz erabiltzea (hirugarren ihardespen-aukera gure galdekizunean, *_nahiz_*). Maizago gertatzen dena zera da: tratamendu bietatik nagusiki bat erabiltzea eta noizbehinka tratamenduz aldatzea. Horrelakoetan, hitanoa izaten da beti noizbehinkako tratamendua. Esan nahi baita hiketa tratamendu markatua, ohiz kanpokoa edo adierazkorra izan ohi dela. Horrela, senar-emazte batzuek, normalean eztabadaka edo zuka aritzen badira ere, tarteka —txantxetan edo jai-giroan, adibidez— hiketara jo dezakete zerbait berezia adierazteko. Laugarren ihardespen-aukerari dagokionez (*_segun_*), ahaidetasunezko zenbait harremanetan pertsonaren arabera tratamendu bata edo bestea erabiltzen dela ikusten da, adibidez, hurbileko lehengusuekin hitanoa eta urrutikoekin eztabada.

Emaitzak bi eratara aurkeztu ditugu galdera bikoitzen kasuan (*a-aitak semeari/b-semeak aitari* bezalakoetan). Lehenbizi, zentzu bateko (a) eta besteko (b) emaitzak eman ditugu datu atsolutu eta portzentaien bidez; ondoren, banaka gabe, binaka arakatzen dira galdera bikoitz hauek. Bigarren aurkezpen hau binakoan oinarriturik dago, zentzu bietako erantzun seguruak jasotzen ditu eta oso argigarria gertatzen da begi-kolpe batez tratamenduzko berdintasu-

[2] Adibidez, lekukoa lehengusu batzuekin hika eta beste batzuekin eztabadaka ohituta baldin badago edota anaien artean gorabeherak baldin badaude tratamenduan.

nari edo berdintasunik ezari erreparatzeko. Guztira, sei aukera hauek ditugu: simetriazko *V-V, T-T, X-X,* alde batetik eta asimetriazko *T-V, X-T* eta *X-V,* beste alde batetik. Dena den, xukakoa tratamendu eremuz aski murritza denez gero, aukerak bitan banatu ditugu: ezkerraldean, orokorrak edo euskalki guztietakoak direnak (*V-V, T-T* eta *T-V*); eta eskuinaldean, ekialdeko behenafarrerazkoak direnak (*X X, X-T, X-V*).

## 1. FAMILIAREN ESPARRUA: AHAIDETASUNEZKO HARREMANAK

### 1.1. Emaitzak galderaz galdera

**3A- SENARRAK EMAZTEARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 26<br>%12,5 | 36<br>%17,3 | 146<br>%70,1 | 208 | | 6 | — | — |

**3B- EMAZTEAK SENARRARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 44<br>%21,4 | 21<br>%10,2 | 140<br>%68,2 | 205 | | 7 | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

3-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 134<br>%65,5 | 23<br>%11,2 | 14<br>%6,8 | | 21<br>%10,2 | 10<br>%4,8 | 3<br>%1,4 | 205 |

## 3. SENAR - EMAZTEAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




Tauletan ageri diren emaitzen arabera eta gure esperientziaren arabera, zera baiezta dezakegu huts egiteko beldur handirik gabe: euskaraz ohizko tratamendu orokorra senar-emazteen artean *V-V* da (%65,3[3] eztabadaka eta zuka mintzatzen dira).

Senar-emazteen artean hika egiteko ohitura gutxiengo (*T-T*=%11,2) batena da inolako zalantzarik gabe, hortaz, gertakari nahiko mugatu eta bazterrekoa[4]. Gainera, esan beharra dago gure sarean eskualde jakin batzuetara dagoela mugatua (cf. infra. VIII.1.1), eremu horietatik kanpo senar-emazteen arteko *T* nahiko gauza bitxi eta bakana baita.

Bestalde, simetriari bagagozkio, ohizkoena *V-V* (%65,3) eta *X-X* (%10,2) bada ere, sarritan, hautsi egiten da tratamendu-berdintasuna ezkonduen artean. Horrela, eskualde hiketazaleetan simetriazko hitanoaren aldamenean (T-T=%11,2), ez dira falta *T-V* kasuak (%6,8), gehienetan berdintasunik ezaren arrazoia emaztearenganako V izanik. Hots, itxura denez, simetriarik eza ia beti emakumearen alde gertatzen da.

[3] Tauletan erakusten ditugun *V-V, T-T, T-V, X-X, X-T* eta *X-V* portzentzaiak ateratzeko binakoetan oinarritu gara, erantzun seguruak soilik kontuan harturik. Zalantzazko erantzunak (c) ___ *nahiz* ___, d) ___ *segun* ___ ) zein aldetara makurtuko diren jakiterik ez dagoenez gero, ez dira aintzakotzat hartu eta horregatik binakako erantzunen guztizkoa ez dator bat egindako inkesta kopuru orokorrarekin, hots, ez da berrehun eta hamarrera iristen. Bestalde, galdera erantzungabeen multzoa ez da inoiz aintzakotzat hartu portzentaiak egiterakoan.

[4] Noski, portzentzaia hau eta aurrerantzean emango ditugunak, gure ikerketaren populazioari dagozkio, hau da, euskaldun «hikalari» edo «hikatzaileen multzoari» eta ez euskaldunen multzo osoari. Azken honi bagengozkio, gure hikako portzentaia guztiak ikaragarri jaitsiko lirateke.

**4A- AITAK SEMEARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 139<br>%69,8 | 6<br>%3 | 54<br>%27,1 | 199 | | 4 | — | 2 |

**4B- SEMEAK AITARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9<br>%4,3 | 25<br>%12 | 173<br>%83,5 | 207 | | 3 | 3 | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

4-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 54<br>%27,9 | 9<br>%4,6 | 111<br>%57,3 | | 5<br>%2,5 | 15<br>%7,7 | — | 194 |

4. AITA - SEMEA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**5A- AITAK ALABARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 56<br>%28 | 34<br>%17 | 110<br>%55 | 200 | | 10 | 1 | 6 |

**5B- ALABAK AITARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5<br>%2,4 | 32<br>%15,6 | 167<br>%81,8 | 204 | | 2 | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

5-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 107<br>%55,3 | 5<br>%2,5 | 45<br>%23,2 | | 24<br>%12,3 | 5<br>%2,5 | 8<br>%4,1 | 194 |

5. AITA - ALABA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**6A- AMAK SEMEARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 123<br>%63 | 5<br>%2,5 | 67<br>%34,3 | 195 | | 8 | 5 | 6 |

**6B- SEMEAK AMARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6<br>%2,9 | 33<br>%16,3 | 163<br>%80,6 | 202 | , | 1 | | |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

6-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 68<br>%36 | 5<br>%2,6 | 86<br>%45,6 | | 4<br>%2,1 | 24<br>%12,6 | 2<br>%1 | 189 |

6. AMA - SEMEA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**7A- AMAK ALABARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 58<br>%30,3 | 32<br>%16,7 | 101<br>%52,8 | 191 | | 10 | 4 | 12 |

**7B- ALABAK AMARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5<br>%2,4 | 37<br>%18,1 | 162<br>%79,4 | 204 | | 1 | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

7-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 95<br>%53 | 5<br>%2,7 | 44<br>%24,5 | | 24<br>%13,4 | 7<br>%3,6 | 5<br>%2,7 | 180 |

7. AMA - ALABA: Simetria-asimetriak tratamenduan



Aita eta semearen arteko harremanari gagozkiola, simetriarik eza (*T-V*= %57,2; *X-T*=%7,7) azpimarkatu behar dugu lehen-lehenik: aita batek bere semeari hika maiz egiten dion bitartean (%69,8), alderantzizko zentzuan *V* suertatzen da ia-ia derrigorrez (%83,5). Gure sareko eskualde batean tratamendu-berdintasuneranzko joera nimiñoa somatzen bada ere, Euskal Herri osoko arau orokorrak -salbuespenak salbuespen- debeku larria ezartzen du semeek beren aitak hika trata ditzaten.

Beste alde batetik, komeni da gogoratzea semeenganako hitanoa ez dela arau unibertsala hika mintzatzen diren euskaldunen artean. Hots, aldameneko erdaren aldean, «goitik behera ere» oso nabaria da *V*-ren agerpena (%27 inguru). Emaitza hau adierazgarria izan daiteke hizkuntza arteko konparazioaren ikuspuntutik.

Bosgarren galderako emaitzetatik ondoriozta daitekeenez, noizbait hika diharduten euskaldunei gagozkiela ere, ez da bat ere orokorra aita bat bere alabarekin hika mintzatzea (%28an), are gutxiago euskaldunen multzo osoa kontuan hartuko bagenu. Aurreko galderarekin alderatuz gero, begi bistan ageri da hartzailearen sexuaren eragin garrantzizkoa: oro har, aitak —amez ere, gauza bera esan liteke— nekezago (bi bider gutxiago) aritzen dira hika beren alabekin, beren semeekin (%69,8) baino.

Seigarren galderako emaitzak laugarren galderakoekin alderatzen baditugu, nahiko antzekoak direla ohartuko gara. Semeekiko harremanetan, toketaren portzentaia zerbait jaisten bada ere (%69,8tik %63ra), ez dugu pisuzko aldaketarik aitengandik amengana.

Zazpigarrenean ere ez gara nabarmenki aldentzen bosgarren galderako emaitzetatik, amek eta aitek antzera jokatzen bide dute alabekin eta berauek ere orobat haiekin. Guraso eta seme-alaben arteko harremanen esparruan ez dirudi sexu-kidetasunak edo sexuzko diferentziak eragin nabarmena dutenik tratamendua aukeratzerakoan.

Aurrera jarraitu baino lehen, badaezpada ere, komeni da ohartaraztea ez dela nahitaez bat bera eta bakarra, gurasoek seme guztiekin edo alaba guztiekin jarraitzen duten jokabidea. Behin baino gehiagotan gertatzen da seme-alaba batzuekin tratamendu bat eta beste batzuekin bestelakoa erabiltzea.

**8A- AITONAK BILOBARI (MUTILARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 124<br>%64,9 | 9<br>%4,7 | 58<br>%30,3 | 191 | | 2 | — | 6 |

**8B- BILOBAK (MUTILAK) AITONARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2<br>%1 | 19<br>%9,8 | 172<br>%89,1 | 193 | | 1 | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

8-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 58<br>%31,4 | 2<br>%1 | 107<br>%58 | | 7<br>%3,7 | 10<br>%5,4 | 1<br>%0,5 | 185 |

8. AITONA - BILOBA MUTILA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**9A- AITONAK BILOBARI (NESKARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 50<br>%26,4 | 38<br>%20,1 | 101<br>%53,4 | 189 | | 2 | — | 8 |

**9B- BILOBAK (NESKAK) AITONARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1<br>%0,5 | 24<br>%12,3 | 170<br>%87,1 | 195 | | 1 | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

9-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 103<br>%55,8 | 1<br>%0,5 | 43<br>%23,3 | | 19<br>%10,2 | 3<br>%1,6 | 16<br>%8,6 | 185 |

9. AITONA - BILOBA NESKA: asimetria-asimetriak tratamenduan



**10A- AMONAK BILOBARI (MUTILARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 97<br>%51 | 19<br>%10 | 74<br>%38,9 | 190 | | 2 | 1 | 8 |

**10B- BILOBAK (MUTILAK) AMONARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1<br>%0,5 | 25<br>%12,8 | 169<br>%86,6 | 195 | | — | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

10-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 75<br>%40,4 | 1<br>%0,5 | 81<br>%43,6 | | 13<br>%6,9 | 10<br>%5,3 | 6<br>%3,2 | 186 |

10. AMONA - BILOBA MUTILA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**11A- AMONAK BILOBARI (NESKARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 47<br>%24,6 | 40<br>%20,9 | 104<br>%54,4 | 191 | | 5 | 1 | 4 |

**11B- BILOBAK (NESKAK) AMONARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2<br>%1 | 30<br>%15,3 | 163<br>%83,5 | 195 | | — | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

11-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 109<br>%57,5 | 2<br>%1 | 42<br>%22,2 | | 24<br>%12,6 | 3<br>%1,5 | 10<br>%5,2 | 190 |

11. AMONA - BILOBA NESKA: Simetria-asimetriak tratamenduan



Oro har, ez dugu diferentzia nabarmenegirik aurkitzen aita-amen jokamoldetik aitona-amonenera. Hikako joera zertxobait apaltzen bada ere, gutxi gorabehera lehengo emaitza berdinak errepikatzen dira. Hala ere, badira datu adierazgarri eta azpimarkagarriak.

Hasteko, itxura denez, amonak ez dira aitonak bezain hiketazaleak beren biloba mutilekin (14 punturen aldea dago portzentaian) eta, alderantziz, aitonak baino V-ren zaleagoak dirudite.

Hiketaren portzentzaia seme eta biloba mutikoekin, aitaren belaunalditik aitonarenera zertxobait jaisten da (%69,8tik %64,9ra) eta dexente gehiago amarenetik amonarenera[5] (%63tik %51ra).

**12- ANAIAK (ADIN BERDINTSUKO) ANAIARI:**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 177<br>%90,4 | 2<br>%1 | 17<br>%8,6 | 196 | | 1 | 1 | 9 |

12. ANAIAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




[5] Horrekin ez dugu esan nahi gazteak «hikatzaileagoak» direnik. Izan ere, joera alderantzizkoa da. Ikusi ahal izan dugunez, familiaren esparruan sarritan eteten da hitanoaren jarraipena belaunaldi batetik bestera. Esate baterako, guraso askok beren gurasoengandik hitanoa edoski duten arren, eurak ez dira gisa berean aritzen beren seme-alabekin, etxetik kanpoko adiskideekin hika mintzatzen badira ere.

**13- AHIZPAK (ADIN BERDINTSUKO) AHIZPARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 83<br>%49,4 | 25<br>%14,8 | 60<br>%35,7 | 168 | | 1 | 3 | 22 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

13. AHIZPAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




**14A- NEBAK (ADIN BERDINTSUKO) ARREBARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 92<br>%50,2 | 26<br>%14,2 | 65<br>%35,5 | 183 | | 4 | — | 20 |

**14B- ARREBAK (ADIN BERDINTSUKO) NEBARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 136<br>%72,3 | 9<br>%4,7 | 43<br>%22,8 | 188 | | 4 | — | 15 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

14-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 43<br>%24 | 87<br>%48,7 | 27<br>%15 | | 9<br>%5 | 13<br>%7,2 | — | 179 |

14. NEBA - ARREBAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




Brownek dioenez (Brown & Gilman, 1960), haurrideen artean[6] beste inorekin baino probalitate handiagoa legoke *T* simetrikoa azaltzeko. Euskarazko emaitzak ildo horretatik doaz eta anaien arteko hitanoaren maiztasun altua (%90 inguru) nabarmendu behar dugu (ikus bedi beherago 2.taula anaia, lehengusu eta koinatuen arteko hikako emaitzen konparaketaz).

Simetriazko harremana izan ohi da hau ia-ia salbuespenik gabe, *T-T* motakoa, alegia. Hala ere, simetriari eusten bazaio ere, ez dirudi anaien arteko hiketa arau guztiz orokorra denik: hika egiteko ohitura duten gizonetariko batzuk (%12,1 gure emaitzen arabera) ez dira toka mintzatzen anaiekin eta bai etxetik kanpo, adiskideekin edo.

Ahizpen arteko harremanari dagokionez, emaitzak oso bestelakoak direla esan beharra dago. Ahizpen artean, hiketaren maiztasuna %49,4ren ingurukoa besterik ez da eta emaitza honek ageri-agerian jartzen du noketa tratamenduaren bizitza makalagoa. Elkarrizketatutako emakumeetariko asko —eta gizonetarik are gehiago— toka aritzen dira, baina ez noka.

[6] T simetrikoaren gertagarritasuna areagotu egiten omen da haurride bikien artean.

Neba-arreben arteko tratamendu-usarioak, lehengo emaitza eta ondorio orokorrak sendotzera datoz: arrebarekin noka, gizonen erdia (%50,2) baizik aritzen ez den bitartean, emakumeen artean ia-ia hiru laurdenak (%72,3) dira nebarekin toka mintzatzen direnak. Hortaz, emaitza honek lehengora garamatza, hau da, noketaren esparru (are) meharragoaren hipotesira (ikus bedi beherago VIII.2 eta IX.1).

Bestalde, sexu-desberdineko haurrideen artean ez ezik, anaien artean ere ez da bat ere harrigarria tratamenduzko diferentziak egotea pertsonaren arabera. Hor adina, izakera eta ohitura sartzen dira tartean eta askotan lekukoek berek ere ez dakite ongi trataera desberdinaren arrazoia.

**15A- OSABAK ILOBARI (MUTILARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 135<br>%70,3 | 11<br>%5,7 | 46<br>%23,9 | 192 | | 2 | 1 | 15 |

**15B- ILOBAK (MUTILAK) OSABARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9<br>%4,4 | 24<br>%11,8 | 169<br>%83,6 | 202 | | 2 | — | 6 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

15-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 45<br>%24,4 | 7<br>%3,7 | 110<br>%59,6 | | 9<br>%4,8 | 11<br>%5,9 | 3<br>%1,6 | 185 |

15. OSABA - ILOBA MUTILA: Simetria-asimetriak tratamenduan




**16A- OSABAK ILOBARI (NESKARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 45<br>%23,9 | 41<br>%21,8 | 102<br>%54,2 | 188 | | 2 | 2 | 18 |

**16B- ILOBAK (NESKAK) OSABARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4<br>%1,9 | 30<br>%14,4 | 173<br>%83,5 | 207 | | — | — | 1 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

16-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 101<br>%54,4 | 4<br>%2,1 | 38<br>%20,4 | | 27<br>%14,5 | 2<br>%1 | 14<br>%7,5 | 186 |

16. OSABA - ILOBA NESKA: Simetria-asimetriak tratamenduan




**17A- IZEBAK ILOBARI (MUTILARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 101<br>%54,5 | 13<br>%7 | 71<br>%38,3 | 185 | | 4 | — | 21 |

**17B- ILOBAK (MUTILAK) IZEBARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2<br>%0,9 | 33<br>%16 | 171<br>%83 | 206 | | — | — | 2 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

17-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 71<br>%39,12 | 2<br>%1 | 81<br>%44,63 | | 11<br>%6,02 | 15<br>%8,2 | 2<br>%1 | 182 |

17. IZEBA - ILOBA MUTILA: Simetria-asimetriak tratamenduan




**18A- IZEBAK ILOBARI (NESKARI):**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 37<br>%20,9 | 37<br>%20,9 | 103<br>%58,1 | 177 | | 4 | — | 27 |

**18B- ILOBAK (NESKAK) IZEBARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5<br>%2,5 | 32<br>%16,1 | 161<br>%81,3 | 198 | | 1 | — | 3 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

18-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 103<br>%60 | 4<br>%2,3 | 29<br>%16,8 | | 28<br>%16,3 | 1<br>%0,5 | 7<br>%4 | 172 |

18. IZEBA - ILOBA NESKA: Simetria-asimetriak tratamenduan




Ikus daitekeenez, osaba-izeben eta iloben artean, guraso eta seme-alaben arteko neurri berdintsuan azaltzen dira tratamenduak, oro har, hiketa gutxitxoago erabiltzen delarik. Hitanoari dagokionez, orokorra ez izan arren, erruz agertzen zaigu «goitik behera» eta oso nekez alderantzizko zentzuan.

Hartzaileari begiratzen badiogu, hitanoa errazago edo maizago (hiru bider gehiago, gutxi gorabehera) egiten zaio mutilari, iloba neskari baino. Eta, oro har, gizonek hiketazaleagoak dirudite. Iloba mutikoari zuzentzerakoan, esate baterako, osabarengandik izebarengana beherakada nabarmena igartzen da (%70,3tik %54,5era) hitanoaren erabileran.

Bestalde, izebak gutxiagotan mintzatzen dira hika beren ilobekin, amak beren seme-alabekin baino (hamarna bat punturen aldea: semeen kasutik iloba mutilenera %63tik %54,5era jaisten da portzentaia eta alabenetik iloba neskenera %30,3tik %20,9ra). Gizonen artean (aita-semeen eta osaba iloben artean), ordea, senidetasunezko urruntasuna gorabehera, ez bide dago horrelako beharakadarik. Itxura batean, emaitzok ere lehengo baieztapenaren alde mintzo dira: emakumeak kontuzago edo tentu handiagoz ibiltzen dira tratamendu-kontuetan eta, hitz batez esateko, ez dira hain aise aritzen hikako tratamenduan.

Senidetasunezko erlazio honetan harremanak ere ikaragarrizko eragina dauka. Osaba-izebak herrikoak edo urrutikoak izan, konfiantzazkoak izan edo ez, haiekiko harremana egunerokoa edo noizpehinkakoa izan, asko aldatzen dira gauzak. Horrexegatik agertzen zaizkigu hainbeste zalantza (laugarren ihardespen-aukera galdekizunean, *segun__/__* ). Beherago ikusiko denez, lehengusuen artean ere antzeko zerbait jazotzen da.

**19- LEHENGUSUAK (ADIN BERDINTSUKO) LEHENGUSUARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 155<br>%84,4 | 4<br>%2,1 | 25<br>%13,5 | 184 | | — | — | 23 |

19. LEHENGUSUAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




**20- LEHENGUSINAK (ADIN BERDINTSUKO) LEHENGUSINARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 55<br>%31,5 | 33<br>%18,9 | 87<br>%49,6 | 175 | | 1 | — | 31 |

20. LEHENGUSINAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




**21A- LEHENGUSUAK (ADIN BERDINTSUKO) LEHENGUSINARI:**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 50<br>%27,7 | 34<br>%18,8 | 96<br>%53,3 | 180 | | — | — | 26 |

**21B- LEHENGUSINAK (ADIN BERDINTSUKO) LEHENGUSUARI:**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 89<br>%51,4 | 13<br>%7,5 | 71<br>%41 | 173 | | — | — | 32 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

21-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 68<br>%45,3 | 46<br>%30,3 | 23<br>%15,2 | | 12<br>%7,9 | 2<br>%1,3 | — | 151 |

21. LEHENGUSU - LEHENGUSINAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




Emaitzak, oro har, lehengo bidetik azaltzen dira. Sexu-aldetiko debeku edo tabuak direla eta, toketak bizitza osasuntsuagoa dauka noketak baino. Bada, hala ere, pare bat gauza interesgarri.

Lehenengo datu azpimarkagarria, ahaidetasunezko urruntzeak dakarren *T*-ren beherakada nabaria da (ikus bedi beheragoko 2. taula). Izan ere, lehengusuen arteko hitanoaren proportzioa (%84,2-%87,2ren ingurukoa), anaien artekoa (%90,3) baino dexente apalagoa da eta askoz ere urriagoa da lehengusinen artean (%31,4), ahizpen artean baino (%49,4). Orobat, neba-arrebengandik lehengusu-lehengusinengana bagoaz, nabarmenki egiten du behera hitanoaren maiztasunak; lehengoaren antzeko beherakada larria aurkitzen dugu (noka %50,2tik %27,7ra jaisten da eta toketa %72,3tik %51,4ra).

Beraz, emaitza hauetatik zera ondorioztatzen da: ahaidetasunezko lokarriak ahuldu ahala, apaldu egiten da T-ren maiztasuna.

## 22A- AITAGINARREBAK SUHIARI:

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 80<br>%43,9 | 12<br>%6,5 | 90<br>%49,4 | 182 | | — | — | 21 |

## 22B- SUHIAK AITAGINARREBARI:

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3<br>%1,4 | 14<br>%6,9 | 184<br>%91,5 | 201 | | 1 | — | 1 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

## 22-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 97<br>%53,1 | — | 72<br>%39,4 | | 10<br>%5,4 | 3<br>%1,6 | 1<br>%0,5 | 183 |

22. AITAGINARREBA - SUHIA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**23A- AITAGINARREBAK ERRAINARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 14<br>%7,2 | 35<br>%18 | 145<br>%74,7 | 194 | | — | — | 6 |

**23B- ERRAINAK AITAGINARREBARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| — | 16<br>%8 | 183<br>%91,9 | 199 | | — | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

23-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 144<br>%77,2 | — | 13<br>%6,9 | | 14<br>%7,4 | 1<br>%0,5 | 15<br>%8 | 187 |

23. AITAGINARREBA - ERRAINA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**24A- AMAGINARREBAK SUHIARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 49<br>%26 | 17<br>%9 | 122<br>%64,8 | 188 | | — | — | 13 |

**24B- SUHIAK AMAGINARREBARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| — | 14<br>%7 | 184<br>%92,9 | 198 | | — | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

24-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 121<br>%66,2 | — | 47<br>%25,7 | | 13<br>%7,1 | — | 2<br>%1 | 183 |

24. AMAGINARREBA - SUHIA: Simetria-asimetriak tratamenduan



**25A- AMAGINARREBAK ERRAINARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 14<br>%7,3 | 37<br>%19,4 | 139<br>%73,1 | 190 | | — | 1 | 6 |

**25B- ERRAINAK AMAGINARREBARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| — | 22<br>%11,1 | 175<br>%88,8 | 197 | | — | — | — |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

25-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 125<br>%76,4 | — | 8<br>%4,8 | | 21<br>%12,8 | — | 10<br>%6 | 164 |

25. AMAGINARREBA - ERRAINA: Simetria-asimetriak tratamenduan



Emaitzok agerian jartzen dute odolezko loturaren garrantzia. Suhi eta errainarekiko harremanei so egiten badiegu, denetan V suertatzen dela nagusi konturatuko gara. Izan ere, «goitik behera», lehengo pareko harremanekin (seme, biloba eta ilobekikoekin) konparatuta, ikaragarri jaisten da hiketaren batez-bestekoa (ikus bedi 1. taula).

1.TAULA: HITANOAREN BEHERAKADA ODOLEZKO ETA EZKONTZAZKO LOTURAREN ARABERA

| | SEMEARI | BILOBARI (G) | ILOBARI (G) | SUHIARI |
|---|---|---|---|---|
| GIZONAK | %69,8 | > %64,9 | %70,3 | > %43,9 |
| EMAKUMEAK | %63 | > %51 | %54,5 | > %26 |

| | ALABARI | BILOBARI (E) | ILOBARI (E) | ERRAINARI |
|---|---|---|---|---|
| GIZONAK | %28 | > %26,4 | %23,9 | > %7,2 |
| EMAKUMEAK | %30,3 | > %24,6 | %20,9 | > %7,3 |

G=Gizonari; E=Emakumeari

TOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(gizonen artean)



TOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(emakumeak gizonari)




NOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(gizonak emakumeari)



NOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(emakumeen artean)




Alderantzizko zentzuan, *V* derrigorrezkoa da: aitagin-amaginarrebekin noketa pentsaezina da eta toketa ezina errainentzat eta ia ezina suhientzat.

Gainerakoan, orain arte bezalako jokamoldeak ageri zaizkigu: hitanoari buruz, gizonak aurrerakoiagoak eta emakumeak atzerakoiagoak izaten dira. Halaber, noketaren aldean, toketak askoz ere bizitza zabalagoa daukala baiezta dezakegu.

**26- KOINATUAK (ADIN BERDINTSUKO) KOINATUARI:**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 156<br>%84,5 | 2<br>%1 | 27<br>%14,5 | 185 | | 2 | — | 19 |

26. KOINATUAK: Simetria-asimetriak tratamenduan




**27- KOINATAK (ADIN BERDINTSUKO) KOINATARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 48<br>%27,1 | 38<br>%21,4 | 91<br>%51,5 | 177 | | 2 | 1 | 21 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

27. KOINATAK: Simetria-asimetriak tratamenduan



**28A- KOINATUAK (ADIN BERDINTSUKO) KOINATARI:**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 42<br>%21,8 | 42<br>%21,8 | 108<br>%56,2 | 192 | | 2 | — | 12 |

**28B- KOINATAK (ADIN BERDINTSUKO) KOINATUARI:**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 85<br>%46,7 | 13<br>%7,1 | 84<br>%46,1 | 182 | | 1 | — | 21 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

28-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 75<br>%44,2 | 32<br>%18,8 | 25<br>%14,7 | | 12<br>%7 | 19<br>%11,1 | 7<br>%4,1 | 170 |

28. KOINATU - KOINATAK: Simetria-asimetriak tratamenduan



Koinatuen arteko harremanak hika gauzatzen dira nagusiki (%84,3), lehengusuen artekoak bezainbeste, bederen. Hemen beherakada garrantzizkorik ez dagoen bitartean, ez da gauza bera gertatzen nesken artean edota koinatu eta koinaten artean. Beheko taulan ikus daitekeenez, azkenengo bi kasuotan, lotura eta harremana moteldu edo urrundu ahala, behera egiten du hitanoaren probabilitateak. Horrela, koinatak beren artean lehengusinak baino gutxitxoago eta ahizpak baino dexente gutxiago aritzen dira noka. Eta orobat agitzen da aipatu harremanetan sexu desberdinekoak elkarrekin arituz gero.

2.TAULA: HIKETAREN MAIZTASUNA AHAIDETASUNEZKO HARREMANAREN ARABERA

| | EMAKUMEARI | | GIZONARI | |
|---|---|---|---|---|
| EMAKUMEAK | %49,4 | (AHIZPARI) | %72,3 | (NEBARI) |
| GIZONAK | %50,2 | (ARREBARI) | %90,3 | (ANAIARI) |

| | EMAKUMEARI | | GIZONARI | |
|---|---|---|---|---|
| EMAKUMEAK | %31,4 | (LEHENGUSINARI) | %51,4 | (LEHENGUSUARI) |
| GIZONAK | %27,7 | (LEHENGUSINARI) | %84,2 | (LEHENGUSUARI) |

| | EMAKUMEARI | | GIZONARI | |
|---|---|---|---|---|
| EMAKUMEAK | %27,1 | (KOINATARI) | %46,7 | (KOINATUARI) |
| GIZONAK | %21,8 | (KOINATARI) | %84,3 | (KOINATUARI) |

TOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(gizonen artean)




TOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(emakumeak gizonari)



NOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(gizonak emakumeari)




NOKETA AHAIDETASUNAREN ARABERA
(emakumeen artean)




**29A- SENARGAIAK ANDREGAIARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 41<br>%21,1 | 36<br>%18,5 | 117<br>%60,3 | 194 | | 2 | — | — |

**29B- ANDREGAIAK SENARGAIARI:**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 64<br>%33,5 | 21<br>%10,9 | 106<br>%55,4 | 191 | | 2 | — | 11 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

29-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 100<br>%53,6 | 36<br>%19,3 | 18<br>%9,6 | | 21<br>%11,2 | 11<br>%5,8 | 1<br>%0,5 | 187 |

29. SENARGAI - ANDREGAIAK: simetria-asimetriak tratamenduan




Emaitza hauen arabera, egin daitekeen lehen baieztapena honako hau da: oro har, ezkongaien artean *V-V* eta *X-X* (eztabada, zuka nahiz xuka) dira ohizko tratamenduak (%64,6 guztira). Asimetria gertatzekotan (*T-V*=%9,6), normalean emakumearen alde gertatzen da, hika senargaiari emaztegaiari baino errazago edo gehiago egiten zaio eta. Eztabadakako edo zukako ohitura hau antzinakoa bide da euskaran: ezkontza-hitza jasotzen duten XVI. mendeko lekukotasun gehienetan eztabadaka daude ezkongaiek elkarri egindako adierazpenak[7].

Nolanahi ere, konparazioetara jotzen badugu, hiketa, ezkongaien artean senar-emazteen artean baino maizago (10 bat punturen aldea) azaltzen dela

[7] Ikus bitez A. Irigaray (1933; 1934), B. Fagoaga (1961) eta salbuespena erakusten duen J. Mª. Satrustegi (1977).

ageri da. Gainera, senar-emazteen artean ez bezala, oraingoan ez dirudi hikako ohitura hain bazterreko gertakaria denik, ez baita pare bat euskalkitara mugatua dagoen usarioa. Izan ere, ezkongaiak lagun-taldean elkarrekin ibilitakoak baldin badira, ez da harritzekoa batak besteari *to* eta *no* esatea; baldintza hau bete ezean, eztabadaka edo zuka arituko dira, noski.

Hortaz, orain arte esandakotik zera ondoriozta daiteke: Euskal Herriko zenbait eskualdetan izan ezik, ezkontza -eta zenbaitetan ezkondu aurreko harreman formal serioak- mugarria izan ohi da tratamenduari begira; alegia, aldameneko hizkuntza gehienetan gertatzen denaren aurka, euskaraz ezkongaietan *T* ohizkoa baldin bada, ezkontzarekin batera, kosta ahala kosta[8], *T-T* bertan behera utzi eta elkarrekiko *V-V* usarioari ematen zaio hasiera.

**31- Noiztik aurrera, zer adinetik aurrera uste duzu hasten direla anaiak beren artean hika egiten?**

| A) txikitatik | B) 6-10 | C) 11-15 | D) 16-20 | E) 21-25 | F) +25 | Orot. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 152<br>%85,3 | 7<br>%3,9 | 13<br>%7,3 | 6<br>%3,3 | — | — | 178 |

Lekukoek diotenez, txikitatik aritzen omen dira hika anaiak elkarrekin.

**32a- Nola hitz egiten diozu, edo nola uste duzu hitz egiten diola anaia batek, 6 edo 10 urte zaharragoa den anaiari?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 136<br>%74,7 | 7<br>%3,8 | 39<br>%21,4 | 182 | | — | — | 16 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**32b- Eta anaia nagusiak (6-10 urte zaharragoak) gazteagoari?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 165<br>%88,2 | 5<br>%2,6 | 17<br>%9 | 187 | | 1 | — | 8 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

[8] Tratamendua, euskaraz, oroz gain, ohiturazko zerbait da; esan nahi baita ohiturak ikaragarrizko pisua duela tratamendu-hautaketan. Sarritan «nola hasi, hala segi» izan ohi da jarraibidea edo inertziazko araua. Hau dela eta, ezkontza ondoko tratamendu-aldaketa ez omen da bat ere gauza samurra izaten. Urdiaingo bikote batek, ezkondu eta erdara egiteari ekin omen zion, beti hiketan ohituta, ikaragarri zaila gertatzen omen zitzaielako bat-batean zuka hastea.

32-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 15<br>%8,4 | 130<br>%73 | 25<br>%14 | | 5<br>%2,8 | 3<br>%1,6 | — | 178 |

**33a- Nola hitz egiten diozu, edo nola uste duzu hitz egiten diola arreba batek bera baino 6-10 urte zaharragoa den bere nebari (anaiari)?**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 111<br>%62,7 | 12<br>%6,7 | 54<br>%30,5 | 177 | | — | — | 14 |

**33b- Eta nebak (anaiak) 6-10 urte gazteagoa den arrebari?**
A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 90<br>%50,5 | 33<br>%18,5 | 55<br>%30,8 | 178 | | — | — | 10 |

33-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 39<br>%23,3 | 71<br>%42,5 | 27<br>%16,1 | | 11<br>%6,5 | 18<br>%10,7 | 1<br>%0,5 | 167 |

Adinaren *T-T*-ren aurkako eragina inon neutralizatzekotan, anaien artean neutralizatu beharko litzateke. Hala ere, goiko tauletan ikus dezakegunez, euskaraz adinaren aldea eragozpen handia izan daiteke elkarrekiko *T* gerta dadin. Goiko emaitzak 12. eta 14. galderetakoekin alderatuz gero, agerian geratzen da euskaldunak, pertsona biziki zaharragokoari *T* emateko sentitu ohi duen herabetasun edo zailtasuna, are anaien artean ere.

Adin-desberdintasunak tratamendu aldetiko simetriarik eza eragin dezake zenbaitetan; horrela, adin bereko anaien artean asimetriarik bat ere suertatzen ez den bitartean, urte batzuen aldea egonez gero %14an gertatzen da *T-V*. Orobat, 12. galderako emaitzekin konparatuz, anaia adintsukoa izatetik (%90,3), nagusiagoa izatera (%74,7) hamabost puntuko beherakada dago hitanoaren

erabileran eta antzeko beheratzea somatzen dugu neba-arreben kasuan (%72,3tik adin bereko nebarekin, %62,7ra zaharragoarekin). Aitzitik, «goitik behera» haurrideen artean ez dirudi adinaren diferentziak *T*-ren agerpen askoz ere ugariagoak eragiten dituenik (aski da 32b -%88,2- eta 12b -%87,5-, alde batetik, eta 33b -%50,5- eta 14a -%50,2- emaitzak alderatzea).

**34-Nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke, 7-8 urteko mutiko ezezagun bati?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 87<br>%45,7 | 13<br>%6,8 | 90<br>%47,3 | 190 | | 1 | — | 8 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

| V-V: +-%47,3 (90); | T-T: 0?; | T-V: +-%45,7 |
|---|---|---|

**35- Nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke 7-8 urteko neskato ezezagun bati?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 21<br>%10,3 | 44<br>%21,7 | 137<br>%67,8 | 202 | | — | — | 4 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

| V-V: %67,8 | T-T: 0? | T-V: %10,3 |
|---|---|---|

Galderan, adinaren eta begirunearen artean sortzen den gatazka aurkezten da. Adinezko asimetria gorabehera, emaitzek *T-V* eta *V-V*-ren arteko gatazka erakusten digute mutikoaren kasuan[9], kortesiazko tratamendua nagusituz. Familiaren esparruan *T-V* maiz agertzen den arren, ez dirudi adinezko nagusigo hutsak, besterik gabe —elkartasunezko harremanik gabe—, sistematikoki alde

[9] Behetik gora, galderarik egin ez badugu ere, pentsatzekoa da mutikoa eta neskatoa ez liratekeela hika arituko eurak baino askoz ere zaharragoko pertsona ezezagun batekin. Balizko jokaera horren arabera atera ditugu simetriazko emaitzak, *T-T*, *V-V* eta *T-V*-renak, alegia.

bakarreko *T* ezartzeko gaitasuna duenik. Emaitza hauen bidez argi eta garbi azaltzen zaigu hiketa tratamenduaren izaera berezi eta markatua.

Era berean, galdera honen bidez frogatuta geratzen da noketa tratamenduaren izaera markatua toketaren aldean. Izan ere, haurra mutikoa izatetik neskatoa izatera, laurdenera (%45,7tik %10,3ra) jaisten da hitanoaren maiztasuna. Beste atal batean ikusiko denez, baieztapen honek, oro har, Euskal Herri osorako balio duela ematen du.

**36- Noiztik edo zer adinetik aurrera hitz egingo zenioke zeure semeari hika?**

| A) txikitatik | B) 5-9 | C) 10-14 | D) 15-19 | E) 20-24 | F) +24 | Orot. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 99<br>%55,6 | 36<br>%20,2 | 32<br>%17,9 | 11<br>%6,1 | — | — | 178 |

Itxura batean, erantzunak hemen aski sakabanatuta agertzen zaizkigu. Gehiengoa (%55,6) haurra txikia denetik arituko omen litzateke hika semearekin, baina kontuan hartzeko moduko beste talde handi bat (orotara %44,2), behin semea kozkortuz gero (adin desberdinetan familien arabera) hasiko omen litzateke hika semearekin, *V* (eztabada, zuka) eta xuka behin betiko utziz[10].

Lekuko askok adierazitakoaren arabera, umea bihurrikerietan eta gaixtakerietan hastearekin batera gertatu ohi da *T*-ranzko aldaketa. Eta Lafittek (1977) erakutsi zuenez, umearen itxurak eta izakerak ere badute zer esana: haur potolo, handi samar eta astotxo samarrari aiseago mintzatzen zaio hika, mutiko erkin, gaixo eta lotsatiari baino.

**37- Zure semeak edota zure bilobak inoiz hika egingo balizu, txartzat hartuko zenuke hika hitz egite hori?**

| GAIZKI | EZ GAIZKI | ED/EE | OROTARA |
|---|---|---|---|
| 101<br>%62,7 | 60<br>%37,2 | 49 | 161 |

Lehenengo eta behin, familia barruko tratamendu-usario zaharrak azpikoz gora jartzeko joera hori, euskaldun gehienei aski sinesgaitza begitantzen zaiela aitortu beharra dago. Galderan iradokitzen den balizko egoera horretan jarrita,

[10] Galdera egiteko modu alegiazkoa ez da egokiena eta agian horregatik zerbait desbideratu dira erantzunak errealitatetik eta benetako usariotik. Horrelako susmoa hartu dugu, 38ko emaitzekin konparatu ondoren.

dirudienez, euskaldunak nahiko gordezale edo atzerakoiak gara. Alde batetik, gehiengo garbiak (%62,7ak) gaizki ikusten du joera hiketazale iraultzailea. Beste alde batetik, kontuan hartu behar da semeek gurasoei «inoiz» hika egiteari gaizki ez irizteak (%37,2) ez duela esan nahi jokabide hankaz-goratzailea onesten denik. Noizbehinkako hiketa txartzat hartzen ez dutenetariko askok ez lukete begi onez ikusiko gertaera hori, behin eta berriro errepikatuko balitz.

**38- Nola hitz egingo zenioke, edo nola uste duzu hitz egiten diotela gurasoek, 3-4 urteko semeari?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 82<br>%45 | 26<br>%14,2 | 74<br>%40,6 | 182 | | 1 | 1 | 6 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

Galdera honetako emaitzak, 36ko erantzunak zuzentzera datozela deritzogu. Oraingo emaitzen arabera, ematen du haur txikiari (hiruzpalau urtekoari) maizago eman ohi zaiola *V* eta *X* (biak batera %54,8), *T* baino (%45).

Berriemaileetariko batzuen iritziz, *T-T* eragoztea izan liteke haur txikiari eztabadaka edo zuka eta ez hika mintzatzeko ohituraren arrazoia.

**39a-Jo dezagun ezkontza batean lehendik ezagutzen ez zenuen zure sexuko eta adineko lehengusu (edo lehengusin) bat ikusten duzula. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 54<br>%27,4 | 13<br>%6,5 | 130<br>%65,9 | 197 | | — | — | 4 |

**39b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 54<br>%27,5 | 13<br>%6,6 | 129<br>%65,8 | 196 | | — | — | 5 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

39-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 129<br>%66,1 | 54<br>%27,6 | — | | 12<br>%6,1 | — | — | 195 |

Elkarrekiko *T*-ren aldeko baldintza batzuk bete arren (adinkidetasuna, sexu-kidetasuna), ahaidetasunezko lokarriek ez dute ziurtatzen berez hitanoaren erabilera, ezta hurrik eman ere. Alegia, familiaren esparruan harremana ere funtsezko aldagaia izan daiteke. Hori dela eta, ez da harritzekoa lehengusu-lehengusina guztiekin edota iloba guztiekin tratamendu bera ez erabiltzea. Esate baterako, jasotako erantzunen arabera, maiz gertatzen da herriko edota aitaren aldeko senideekin hika aritzea eta urrunagoko (edo harreman gutxiagoko) beste batzuekin eztabadaka jardutea. Familia barruan, beraz, ez dira sexua eta adina eragina duten aldagai bakarrak.

### 1.2. Tratamenduzko simetria eta asimetria familian: laburpen-ondorioak

TRATAMENDUAK FAMILIAKO BERDINEN ARTEAN (ADIN BERETSUKOEN ARTEAN)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (G-3) | SENAR-EMAZTEAK | | %21,4<---> %12,5 | | | |
| | *V-V*<br>%65,3 | *T-T*<br>%11,2 | *T-V*<br>%6,8 | *X-X*<br>%10,2 | *X-T*<br>%4,8 | *X-V*<br>%1,4 |
| (G-29) | SENARGAI-EMAZTEGAIAK | | | %33,5<--->%21,1 | | |
| | *V-V*<br>%53,4 | *T-T*<br>%19,2 | *T-V*<br>%9,6 | *X-X*<br>%11,2 | *X-T*<br>%5,8 | *X-V*<br>%0,5 |
| (G-12) | ANAIAK | %90,3 | | | | |
| | *V-V*<br>%9,7 | *T-T*<br>%90,3 | *T-V*<br>— | *X-X*<br>— | *X-T*<br>— | *X-V*<br>— |
| (G-13) | AHIZPAK | %49,4 | | | | |
| | *V-V*<br>%35,7 | *T-T*<br>%49,4 | *T-V*<br>— | *X-X*<br>%14,8 | *X-T* | *X-V* |
| (G-14) | NEBA-ARREBAK | | %72,3<---->%50,2 | | | |
| | *V-V*<br>%24 | *T-T*<br>%48,6 | *T-V*<br>%15 | *X-X*<br>%5 | *X-T*<br>%7,2 | *X-V*<br>— |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (G-19) | LEHENGUSUAK %84,2 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %13,5 | %84,2 | — | %2,1 | — | — |
| (G-20) | LEHENGUSINAK %31,4 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %49,7 | %31,4 | — | %18,8 | — | — |
| (G-21) | LEHENGUSU-LEHENGUSINAK %51,4<--->%27,7 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %45,4 | %30,4 | %15,2 | %7,9 | %1,3 | — |
| (G-26) | KOINATUAK %84,6 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %14,5 | %84,6 | — | %1 | — | — |
| (G-27) | KOINATAK %27,1 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %51,4 | %27,1 | — | %21,4 | — | — |
| (G-28) | KOINATU-KOINATAK %46,7<--->%21,8 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %44,1 | %18,8 | %14,7 | %7 | %11,1 | %4,1 |
| (G-32) | ANAIA NAGUSIA/ANAIA GAZTEA %74,7<--->%88,2 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %8,4 | %73 | %14 | %2,8 | %1,6 | — |
| (G-33) | ARREBA NAGUSIA/ NEBA ZAHARRAGOA %50,5<--->%62,7 | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %23,3 | %42,5 | %16,1 | %6,5 | %10,7 | %0,5 |
| (G-39) | LEHENGUSU EZEZAGUNAK | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %55,2 | %43,8 | — | %0,9 | — | — |
| (G-39) | LEHENGUSIN EZEZAGUNAK | | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %80 | %8,8 | — | %11,1 | — | — |

## TRATAMENDUAK FAMILIAKO ADIN DESBERDINEKOEN ARTEAN

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (G-4) | AITA-SEMEA | %4,3<--->%69,8 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %27,8 | %4,6 | %57,2 | %2,5 | %7,7 | — |
| (G-5) | AITA-ALABA | %2,4<--->%28 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %55,1 | %2,5 | %23,1 | %12,3 | %2,5 | %4,1 |
| (G-6) | AMA-SEMEA | %2,9<--->%63 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %35,9 | %2,6 | %45,5 | %2,1 | %12,6 | %1 |
| (G-7) | AMA-ALABA | %2,4<--->30,3 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %52,7 | %2,7 | %24,4 | %13,3 | %3,8 | %2,7 |
| (G-8) | AITONA-BILOBA MUTILA | %1<--->%64,9 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %31,3 | %1 | %57,8 | %3,7 | %5,4 | %0,5 |
| (G-9) | AITONA-BILOBA NESKA | %0,5<--->%26,4 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %55,6 | %0,5 | %23,2 | %10,2 | %1,6 | %8,6 |
| (G-10) | AMONA-BILOBA MUTILA | %0,5<--->%51 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %40,3 | %0,5 | %43,5 | %6,9 | %5,3 | %3,2 |
| (G-11) | AMONA-BILOBA NESKA | %1<--->%24,6 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %57,3 | %1 | %22,1 | %12,6 | %1,5 | %5,2 |
| (G-15) | OSABA-ILOBA MUTILA | %4,4<--->%70,3 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %24,3 | %3,7 | %59,4 | %4,8 | %5,9 | %1,6 |
| (G-16) | OSABA-ILOBA NESKA | %1,9<--->%23,9 | | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %54,3 | %2,1 | %20,4 | %14,5 | %1 | %7,5 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (G-17) | IZEBA-ILOBA MUTILA | | %0,9<--->%54,5 | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %39 | %1 | %44,5 | %6 | %8,2 | %1 |
| (G-18) | IZEBA-ILOBA NESKA | | %2,5<--->%20,9 | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %59,8 | %2,3 | %16,8 | %16,2 | %0,5 | %4 |
| (G-22) | AITAGINARREBA-SUHIA | | %1,4<--->%43,9 | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %53 | — | %39,3 | %5,4 | %1,6 | %0,5 |
| (G-23) | AITAGINARREBA-ERRAINA | | %0<--->%7,2 | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %77 | — | %6,9 | %7,4 | %0,5 | %8 |
| (G-24) | AMAGINARREBA-SUHIA | | %0<--->%26 | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %66,1 | — | %25,6 | %7,1 | — | %1 |
| (G-25) | AMAGINARREBA-ERRAINA | | %0<--->%7,3 | | | |
| | *V-V* | *T-T* | *T-V* | *X-X* | *X-T* | *X-V* |
| | %76,2 | — | %4,8 | %12,8 | — | %6 |

Bistan denez eta espero izatekoa zenez, adin beretsukoen artean tratamenduzko kidetasuna edo simetria (*V-V, T-T, X-X*) da nagusi harreman guztietan. Nolanahi ere, inkestaturikoak hikalariak direla kontuan harturik, nahiko harrigarria da simetriazko hiru aukeren artean lehenak (*V-V* binakoak) bereganatzen duen pisu berezia. Izan ere, elkarrekiko hitanoaren nagusitasuna haurrideen artera eta kideko gizonen artera mugaturik dagoela ematen du, esparru murritz horretaz landa —hots, ezkondu, ezkongai, lehengusin, lehengusu-lehengusin, koinaten eta koinatu-koinaten artean— *V-V* nagusitzen da eta.

Beste atal batean (cf. VIII. eta IX. kapt.) hobeto ikusiko denez, pareko edo kideko askoren artean gertatzen den *V-V* binakoaren nagusitasuna sexuari lotua dago eta nahi eta nahi ez hartzailearen sexuaren araberako hitanozko bi tratamenduak elkarrengandik bereiztera bultzatzen gaitu. Hikako tratamenduaren barnean, alde batetik, toketa dugu, gizonei zuzentzekoa eta askotan erabilia; beste alde batetik, noketa dago, emaztekiekin erabiltzekoa eta usarioz aurrekoaren aldean askoz ere markatuago edo bakanagoa. Hortaz, atal honetan zehar hitanoaz orokorki mintzatu arren, ez da ahaztu behar deitura horren

pean bi errealitate desberdin ezkutatzen direla eta usario oso desberdina duten bi tratamendu bereziren aurrean gaudela.

Esan bezala, asimetriarik gutxi gertatzen da familiako kidekoen artean. Dena den, aski deigarria da sexuzko desberdintasunak eta adinezkoak eragiten dituzten asimetrien kopurua. Esate baterako, ezkondu, ezkongai edota neba-arreben artean asimetria ugari (%13, %15,9 eta %22,2) sortzen da sexu-desberdintasunaren eraginez. Halaber, harrigarria da anaien artean adinaren aldeak (10 bat urteren aldeak) eragin dezakeen (zezakeen) tratamenduzko desoreka (*T-V* + *X-T*= %15,6), ia-ia biderkatua (%27,3) adin desberdineko neba-arreben artean sexuzko eta adinezko diferentzia bikoitzagatik.

Parekotasunean oinarritzen ez diren ahaidetasunezko harremanetan, oroz gain, seme, iloba eta biloba mutilarekin nagusitzen den tratamenduzko berdintasunik eza da azpimarkagarria. Hala ere, asimetria ez da orokorra inola ere, neskekin eta suhi-errainarekin simetria gailentzen baita. Hots, noketaren erabilera urriagoaren ondorioz, neskekin *V-V* eta *X-X* aukera simetrikoak gailentzen dira asimetriazkoen gainetik.

## 2. BARNE-BAKARRIZKETA ETA BESTE

**40- Pentsatzen zaudenean, zeure buruari nola egiten diozu hika edo zuka?**
a) *Txabi, Txabi... ederra* egin duk!/*Nekane, Nekane...ederra* egin dun!
b) *Txabi, Txabi...ederra* egin duzu!/*Nekane, Nekane...ederra* egin duzu!

GIZONEK:

| *HIKA* | *V* | *BIETARA (T ETA V)* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 86<br>%79,6 | 10<br>%9,2 | 12<br>%11,1 | 108 |

EMAKUMEEK:

| *HIKA* | *X* | *V* | *BIETARA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|---|
| 43<br>%64 | 10<br>%10,6 | 25<br>%26,5 | 16<br>%13,7 | 94 |

X=xuka; V=eztabada, zuka.

Hitanoa noiz edo noiz erabiltzen duten euskaldun gehienek hika hitz egiten diote bere buruari. Barne-bakarrizketan inoiz baino hitanozko emaitza altuagoak espero zitezkeen eta gure datuek hipotesi hori baieztatzen dute.

Hala ere, barne-bakarrizketan *T* maiz azaltzen bada ere, ez da inola ere euskaldun hikatzaileak bere buruarekin aritzeko erabiltzen duen tratamendu bakarra. Jokaera zerbait aldatzen da sexuaren arabera.

Gizonetan, gehiengoa hika aritzen omen da nagusiki barne-bakarrizketan (%79,6); multzo txiki batek (%11,1), ordea, bietara egiten omen du. Bereizi ditugun bi jokamoldeok ez dira elkarren aurkakoak, elkarren osagarriak baizik. Barne-bakarrizketan batzuetan nor bere buruari mintzatzen zaio, espreski hartzen dugu geure burua solaskidetzat; halako alegiazko bakarrizketa elkarrizketatuetan *T* izaten da derrigorrezko tratamendua. Beste batzuetan, ordea, geure artean, inori zuzendu gabe aritzen gara hizketan; horrelakoetan ez da harrigarria eztabadaka aritzea.

Gauzak horrela, normalean hika aritzen direnen multzoa (%79,6) eta noizbait hala mintzatzen direnena (%11,1) batuz gero, hikako emaitza aski orokorra ateratzen zaigu: elkarrizketatutako lekuko gizonetarik %90,7, hika (berau bakarrizketako tratamendu bakarra ez bada ere) mintzatzen zaizkio bere buruari.

Emakumeen kasuan hikako portzentaiak dexente apalagoak dira. Hala ere, nagusiki hika aritzen direnak (%64) eta bietara aritzen direnak (%13,7) batuz gero, T garbiro nagusitzen da (%77,7) emakumeen bakarrizketan ere. Zalantzarik gabe, hau da nokako emaitzarik altuena, ahizpen artekoa (%49,4) baino dexente altuagoa.

Beraz, bai gizonen kasuan, bai emakumeenean, bete egiten da psikologiazko printzipio oinarrizkoenek bakarrizketarako aurrikusten duten joera hikatzailea; aurrikuspen horren arabera, hiketaren probabilitateak bakarrizketan beste inon baino handiagoa izan behar luke. Euskaldunen jokamoldea psikologiak aurrikusitakoaren araberakoa da, hikako emaitzak bakarrizketan inoizkorik altuenak baitira (anaien eta ahizpen artekoak baino are altuagoak).

Esanak esan, elkarrizketaturiko hiztunak hikatzaileak direla gogoan hartzen bada, daturik harrigarriena *V*-ren maiztasun handitxoa (%9,2koa gizonetan eta %26,5ekoa emakumeetan) izan daiteke. Emaitza hau azaltzeko, agian, *T*-ren izaera markatuegia postulatu beharko genuke.

**41- (Emakumeei, bakarrizketan hitanoa erabiliz gero) Jo dezagun pentsatzen zaudela: hurrengo bietatik zein aukeratzen duzu zeure buruari mintzatzeko, nola esaten diozu zeure buruari?**

A) «Nekane, Nekane, zergatik esan duk hori? Zer egin duk? Orain egin duk egitekoa! Nekane, Nekane, ederra egin duk orain!»

B) «Nekane, Nekane, zergatik esan dun hori? Zer egin dun? Orain egin dun egitekoa! Nekane, Nekane, ederra egin dun orain!»

| *A) TOKA* | *B) NOKA* |
|---|---|
| *3* | *43* |

Inoiz —Mitxelenaren eta Lafonen esanak gaizki ulertuta— bestelakorik esan bada ere (Kintana, 1992), emakumeen artean noka da usarioa nor bere buruari mintzatzeko[11]. Gure emaitzek ez dute zalantza-izpirik uzten. Goikoa bezalako bakarrizketa «elkarrizketatu» batean, emakumeak nahi eta nahi ez islatu behar du sexua, bere burua solaskidetzat hartu duela konturatzen den neurrian, behintzat. Fikziozko elkarrizketa horretan hiztuna bitan banatzen da eta ezin dio ez-ikusi egin bere «alter ego»aren sexuari. Bestelako kontua dugu, hiztuna bere buruari ez, baizik eta inori bereziki zuzendu gabe bere buruarekin[12] bakarrizketan ari denean. Auzi horixe dugu aztergai hurrengo galderan.

**42- (Emakumeei, bakarrizketan hitanoa erabiliz gero) Jo dezagun pentsatzen zaudela: hurrengo bietatik zein erabiliko zenuke?**

A) «Ene, gaizki egin diat!»

B) «Ene, gaizki egin dinat!»

| *A) TOKA* | *B) NOKA* | *C) EZTABADAKA* |
|---|---|---|
| 11 | 34 | 5 |

Egia aitortzeko, neure zalantzak agertu behar ditut galdekizunaren egokitasunaz[13], esku artean darabilgun auzi korapilatsu hau erabakitzeko. Izan ere,

[11] Emakume baxenabartarretariko zenbaitek (bizpahiruk) xuka egiten diote beren buruari. Portzentaia horrek gora egiten du, noski, eztabadaka eta xuka baizik mintzo ez diren emakumeen artean.

[12] I. Segurolak dioen moduan (Segurola, 1992) «(...) hiztuna, aurrean duen mintzalagunarekin ari delarik alegiazko beste bat hartzen duenean mintzalagun (aparte moduan "honek jo ziguk adarra!" edo antzeko zerbait esateko), orduan beti forma k-dunak dira erabiltzen direnak, sekula ez n-dunak, hiztuna izan dadin gizon ala emakume. (Bidenabar, honi dei lekioke agian nor *bere buruarekin* mintzatzea, buru hori bitan zatitzen delarik noski; ez, ordea, nor *bere buruari* mintzatzea: hor baitezpada emakumeak noka behar baitu egin, Kintanak besterik uste badu ere).»

[13] Eta honekin ez dut auzipean jarri nahi inkestabidearen baliagarritasuna, ez baitut uste bakarkako jardun bat-batekoen behaketak bide askoz ere emankorragoa izan behar duenik. Auzi honetan, pentsamenduaren eta gogoeten leize sakonera lerratzen garen heinean, ezinbestekoa egiten da barneratze psikologikoa eta introspekzioa. Kanpotik egindako behaketan gaizkiulertuak eta okerreko interpretazioak sortzeko arrisku bera ikusten dugu. Arazoa emaitzen edo datuen interpretazioan datzala deritzogu.

bakarrizketarena, uste baino askozaz ere arazo konplexuago eta abstraktuagoa da[14].

Itxuraz, goiko emaitzetan bi joera aurkako azaltzen zaizkigu. Alde batetik, barne-bakarrizketan toka arituko liratekeen emakumeen joera dugu (11 erantzun); beste alde batetik, noka mintzatuko liratekeena (34 erantzun). Kontraesanezko emaitzok ez dira bat ere argigarriak eta are gutxiago erabakigarriak.

Gakoa erantzunen interpretazioan egon litekeela uste dugu. Bakarrizketa deritzoguna, funtsean, ez da elkarrizketa berezi bat baizik, norbera bitan banatzen den halako fikziozko elkarrizketa, alegia. Gauzak horrela, litekeena da hiztunak bakarrizketan alegiazko erdibitze desberdinak irudikatu ahal izatea bere gogoan eta gero, sortutako barne-irudi horren arabera jokatzea: hiztunak alegiazko solaskidearen kontzientzia argia izan dezake, hots, bere «alter ego»ari zuzentzen ari zaiola pentsa dezake edota inori bereziki, inongo solaskideri zuzendu gabe mintzo den irudipena izan dezake. Hiztun emakumeak, lehenengo kasuan, noketa tratamendua aukeratuko luke eta bigarrenean toketa edo eztabada mintzamoldeak. Hau da erantzunen arteko aurkakotasuna argitzeko bururatu zaigun azalbide bakarra.

Lortutako behin-behineko emaitza hauen arabera, denetarik aurki dezakegu emakumeen bakarrizketan:

a) Gaizki egin dut (EZTABADAKA)
(Inongo pertsona konkreturi zuzendu gabe)

b) Gaizki egin diat (TOKA)
(Hika, baina inongo pertsona konkreturi zuzendu gabe)

c) Gaizki egin dinat (NOKA)
(Bere buruari zuzentzen ari zaiola jakitun egonda)

Hona hemen, emakume lekukoei hartutako esaldi batzuk:

TOKA

— *Mamalatu e(g)in nok?!* (Zeanuri)
— *(H)auxe (d)ok lelokeria egitea!* (Zeanuri)
— *Zer egin yoat?!* (Zeberio)
— Ah, zer ari nauk?! (Auza)
— *Hola egin banian!* (Ainhoa)
— *Hori erranen nian, to!* (Bardoze)

[14] Gure berriemaileetariko asko ezbaian egon ziren bakarrizketari buruzko galdera hauen aurrean eta uste baino gehiagok ez zuten jakin ziurtasunez erantzuten. Gainera, haietariko askok gure galdera zela medio erreparatu zuten lehen aldiz eta harriduraz bakarrizketan erabiltzen zuten tratamenduan.

NOKA

— *A ze lanaldija egin diñaun!* (Etxarri-Aranaz)
— *Zer ari ote nunen pentsatzen gauzak horren gaizki egiteko!* (Lekaroz)

Goiko hipotesiaren arabera, erantzun hauek ez dira bata bestearen ukatzaile, batak ez du ezeztatzen bestea. Berez, bakarrizketa-aukera desberdinen aurrean gaude eta, hain zuzen horregatik, ez litzateke aurkakotasunik bilatu behar lekukoen erantzun itxuraz kontraesanezkoetan.

**43- Jainkoari hitz egiten diozunean, baina ez buruz ikasitako errezuen bitartez, nola egiten diozu?**

A) NORMALEAN B) Inoiz C) nahiz D)Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T* | *T/V* | *T/V* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3<br>%1,6 | — | 184<br>%98,3 | 187 | | — | — | 2 |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

Leizarraga Beskoitzekoak (XVI) Jaungoikoari beti-beti hika egiten badio ere, joera hikatzailea salbuespena besterik ez da gure hizkuntzaren literatura-tradizioan. Gaur egungo euskaldunen artean, agian hemengo elizaren mendeetako arau zukazale orokorraren ondorioz, erabat sustraituta dago zukako usarioa. Frantsesezko eta espainierazko egungo usarioaren aurka, euskaldunak *V*-ri eusten dio ia-ia salbuespenik gabe.

**44- Abere eta animaliei nola hitz egiten diezu?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 158<br>%93,4 | 2<br>%1,1 | 9<br>%5,3 | 169 | | 31 | |

T*=hika (toka, noka); X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

Gehiengo garbiak (%93,4ak) gehienetan hika egiten du animaliekin. Hika egiteko uzkur direnek ere (hitanozko mintzaira esparru ikaragarri mugatu batera murriztu dutelako edota tratamendu hau bat ere gogoko ez dutelako), aise onartzen dute tratamendu hau animaliekin mintzatzeko.

Kontuan hartzekoa den kopuru batek, ordea, egoera animikoaren arabera eta baita animalia-moetaren arabera[15] ere, bi tratamendu (hiketa/ zuka-eztabada; hiketa/xuka) erabiltzen omen ditu animaliekin. Bereizkuntza adierazgarriak atzeman ditugu hemen. Batzuk, esate baterako, umore onez, maitasunez edo berarengandik zerbait ona eskuratzeko asmoz zuka/eztabadaka mintzatuko zaizkio animaliari eta hika umore txarrean edo haserrealdian. Beste zenbaitetan, gizarteko arauak mimesi hutsez hedatzen dira animalien mundura edo psikologiazko irizpide bitxiak ezartzen dira. Horrela, ez dira gutxi «animalia handi gazteari toka eta txiki-xahar-maite-eriari xuka/zuka» irizpide xelebre eta mimetikoari lotzen zaizkionak[16].

**45- Nola hitz egiten diezu emeak diren animaliei (behiak, txakurremeak, astemeak...)?**

| TOKA | NOKA | X | V | OROT. |
|---|---|---|---|---|
| 135<br>%74,1 | 24<br>%13,1 | 11<br>%6 | 12<br>%6,5 | 182 |

X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

Erantzunetatik ondoriozta daitekeenez, hiketaren barruan toketa da tratamendu markatugabea eta noketa markatua. Emetasuna agerian ez bada edota sexu bereizkuntzarik egin nahi ezean, toketa da erabili ohi den tratamendua.

Hortik aparte, Nafarroa Beherean dexente dira animalia emeekin xuka aritzen direnak. Bistan denez, gizarteko araua ezartzen da hemen, xuka tratamendua errotik emetasunari lotua baitago.

Ildo beretik, banaka batzuek, gizarteko arauari jarraituz, V-ra jotzen dute animalia emeekin mintzatzeko.

**46- Aurrean entzule bat baino gehiago dituzula, denentzat (ez bakar batentzat) hitz eginez gero, hika (zuka alokutiboa, xuka alokutiboa) egiten duzu?**

| *BAI* | *BATZUETAN* | *EZ* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 172<br>%88,6 | 1<br>%0,5 | 21<br>%10,8 | 194 |

[15] Herri batetik bestera, etxe batetik bestera eta are pertsona batengandik beste batengana ere, aldatu egiten dira animalia bakoitza tratatzeko ohiturak. Denetariko gustuak daude eta aitortu beharra daukat ez dudala lege finkorik aurkitu tratamenduak animalien arabera sailkatzerakoan.

[16] Hona hemen, garaztar baten azalpen adierazgarria: *Nik nere etxe ondoko zakurrer, zakur handiari to erraten dakot eta ttipiari, pastor zahartoa baita hura, hari errespetu gehiago merezi dielakotz, hari xu.*

Berez, hiketa, zuka eta xuka, mintzalagun bakarrari zuzentzeko tratamenduak dira, jakina denez, pluralean (bai pertsona-izenordainean, bai aditzean) haien arteko aurkakotasuna neutralizatuta geratzen baita. Hori dela eta, batek baino gehiagok gaitzestekoa iritzi izan dio aipatu tratamenduak solaskidemultzo bati zuzenduta erabiltzeari.

Gaitzespenak gaitzespen, egun oso hedatuta dago adizkera alokutiboez baliatzeko joera talde bati zuzendutako jardunetan. Halakoetan, adizkera alokutiboak direla medio, hiztunak agerian uzten du solas-mailan egindako tratamendu-hautaketa. Horrela, *izan nauk, joan nauk, ikusi diat.../izan nixi, ikusi dixit...* bezalakoak erabiliz, hitanoa edo xuka aukeratu duela erakus dezake hiztunak.

Honelako forma alokutiboak maiz erabiltzen dira adiskideez osatutako talde bati mintzatzerakoan. Gure emaitzen arabera, gauzak horrela dira, baldin eta mintzalagunen taldea aski homogeneoa bada eta taldekide bakoitzari bakarka hika edo xuka mintzatzen bazaio, alegia, baldin gizon eta emakumeak edo kategoria desberdinetakoak (zaharrak eta gazteak, adiskide eta ezezagunak...) batera ez badaude. Azken baldintza hau bete ezean, tratamendu neutrora (eztabada) jotzen da.

## 3.-FAMILIAZ KANPOKO HARREMANAK

### 3.1. Emaitzen aurkezpena galderaz galdera

3.TAULA: FAMILIAZ KANPOKO HARREMANAK.
BOST ALDAGAI INDIBIDUALEN KONBINAKETA ANALITIKOAK

| | | ADINA= | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD- | E# | 1 (48) | 2 (54) | 3 (49) | 4 (55) |
| AD- | E= | 9 (58) | 10 (63) | 11 (60) | 12 (65) |
| AD+ | E# | 17 (52) | -~~10~~-- | 19 (53) | -~~20~~-- |
| AD+ | E= | 25 (70) | -~~26~~-- | 27 (71) | -~~28~~-- |

| | | ADINA# | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD- | E# | 5 (50) | 6 (56) | 7 (51) | 8 (57) |
| AD- | E= | 13 (61) | 14 (64) | 15 (62) | 16 (66) |
| AD+ | E# | 21 (68) | -22-- | 23 (69) | -24-- |
| AD+ | E= | 29 (72) | -30-- | 31 (73) | -32-- |

- Laburdurak: A=adina; S=sexua; K(ID)=kidetasuna; AD= adiskidetasuna; E=estatusa.
- Parentesi artean dagoen zenbakia galderari dagokio.

1 LAUKIA [A=, S=, K+, Ad.-, E#]: 48. galdera

**48a- {1.laukia} Jo dezagun enpresa handi batean egiten duzula lana: zure lantokiko nagusia lanetik aspalditik ezagutu arren, ez duzu guztiz gogoko edo berarekin ez duzu konfiantza handirik: zure adin eta sexukoa da. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 35<br>%17,7 | 7<br>%3,5 | 155<br>%78,6 | 197 | | 8 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**48b- Eta berak zuri nola hitz egingo lizuke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 38<br>%19,6 | 7<br>%3,6 | 148<br>%76,6 | 193 | | 10 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

48-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 148<br>%77,2 | 34<br>%17,7 | 3<br>%1,5 | | 7<br>%3,6 | — | — | 192 |

48. LANGILEA - NAGUSIA (A =, S =, K +, AD. - E#)




Ageri denez, adiskidetasunik izan ezean, gehienetan kortesiazko tratamendu simetrikoaz (V-V=%77) gauzatuko omen lirateke langile eta nagusiaren arteko harremanak.

Balizko egoera horretan, gehiengoarentzat kidetasuna edo harremanaren maiztasuna ez da aski elkarrekiko *T*-ra jotzeko, adiskidetasunik ezak eta maila-desberdintasunak halakorik egitea eragozten baitute. Hala ere, bada multzo garrantzitsu bat (%17,7), zeinentzat maila-desberdintasuna eta konfiantzarik eza ez baitira eragozkarri nagusiari hika egiteko.

Edozein modutan ere, ez du ematen inondik inora mailazko desberdintasuna tratamenduen bidez agertzeko joerarik dagoenik, hikako emaitzak nahiko orekatuta baitaude zentzu bietan (*T-V*=%1,5).

Beraz, botere edo maila aldetiko desberdintasuna tratamenduen bidez kodetzeko uzkurtasuna azpimarkatu behar dugu ororen gainetik.

3 LAUKIA [A=, S#, K+, Ad.-, E#]: 49.galdera

**49a- {3.laukia}Aurreko egoeran (duela urteak ezagutu arren): lantokiko nagusiarekin ez duzu konfiantza handirik, zure adinekoa da, baina ez zure sexukoa. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 12<br>%5,9 | 12<br>%5,9 | 178<br>%88,1 | 202 | | 3 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**49b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 19<br>%9,5 | 7<br>%3,5 | 173<br>%86,9 | 199 | | 6 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

49-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 169<br>%86,5 | 7<br>%3,5 | 6<br>%3 | | 6<br>%3 | 6<br>%3 | 2<br>%1 | 196 |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

49. LANGILEA - NAGUSIA (A =, S#. K +. AD. - E#)




Emaitza hauek agerian jartzen dute sexu-kidetasunaren garrantzia tratamendua hautatzerakoan. Nagusiarekin mintzatzerakoan, sexu berekoak izatetik sexu desberdinekoak izatera izugarri jaisten da hiketaren batez bestekoa (*T-T*=%17,7tik %3,5era).

Goiko datuen okerreko irakurketa bat eginez gero, nagusiarekiko harremanetan botere edo mailaren asimetria islatzen dela pentsa liteke, hiketa maizago zuzentzen baitio goikoak behekoari (%9,5) alderantziz baino (%5,9). Hala eta guztiz ere, gure ustez oraingo asimetria ez da boterearena, sexuari dagokiona baizik. Alegia, alde batetik, toketa askoz maizago jazotzen da noka baino, hiztuna gizon nahiz emakume izan dadin; bestetik, aski da oraingo emaitzak 48. galderakoekin alderatzea, ikusteko gizonek errazago onartzen dutela tratamenduzko asimetria sexu-desberdintasunagatik, maila-desberdintasunagatik baino.

5 LAUKIA [A#, S=, K+, Ad.-, E#]: 50. galdera

**50a- {5.laukia} Nola hitz egiten dio, edo nola hitz egingo lioke etxekoandreak berarekin urteak daramatzan neskame gazteari, euren arteko harremanak azalekoak izanez gero edo euren artean adiskidetasunik egon ezean?**
**A) NORMALEAN** **B) Segun /**

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 31<br>%18 | 25<br>%14,5 | 116<br>%67,4 | 172 | | 15 | |

**50b- Eta neskameak andreari?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3<br>%1,6 | 11<br>%5,9 | 170<br>%92,3 | 184 | | 2 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

50-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 114<br>%71,9 | 3<br>%1,8 | 21<br>%13,3 | | 6<br>%3,7 | 3<br>%1,8 | 12<br>%7,5 | 159 |

50. ETXEKO ANDREA - NESKAME GAZTEA (A#. S = K +. AD. - E#)




Langilearen eta nagusiaren artean bezalatsu, etxeko andrearen eta neskame gaztearen artean ere *V-V* suertatzen omen da maizenik (%71,6).

Nolanahi ere, oraingoan badirudi asimetriaranzko joera apur bat dagoela (guztira %22,5: *T-V*=%13,2; *X-T*=%1,8; *X-V*=%7,5). Etxekoandreak, hika egin diezakioke bere neskame gazteari (%18), baina nekez gertatzen da gauza bera alderantziz (%1,6). Neskameak baitezpada (%97,8) eztabadaka, zuka edo xuka mintzatu beharra dauka bere etxeko andrearekin.

Gaingiroki begiratuta, etxeko andre eta neskamearen arteko tratamenduzko asimetria mailazko desberdintasunari zor zaiola pentsa liteke. Hala ere, kasua sakonago arakatuz gero, bestelako ondorioetara iritsiko gara. Batetik, gure emaitzen arabera noketa gutxitan zuzentzen zaio zaharragoari lagun-mina izanda ere (ezezagunari %0,9an eta adiskide-adiskideari %11an). Bestetik, kasu honetan adinaren aldea gainerako galderetan (10-15 bat urteren aldea) baino handiagoa dela ohartzen bagara, susmoa har dezakegu neurri handi batean asimetria hau adinaren alde nabariak eragindakoa ez ote den. Gainera, kontuan hartzen baldin bada adinaren aldea handitzearekin batera *T-V* maizago gertatzen dela (ikus beherago 4. taula), sendotuago geratzen da oraingo asimetria adinari zor zaiolako ustea.

7 LAUKIA [A#, S#, K+, Ad.-, E#]: 51. galdera

**51a- {7.laukia} Nola hitz egiten dio, edo nola hitz egingo lioke neskame zahar batek etxeko jabe (gizon) dexente gazteagoari, etxean urteetan neskame egon ondoren, euren arteko harremanak azalekoak (lanekoak) izan badira edo euren artean adiskidetasunik ez bada?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 32<br>%19 | 13<br>%7,7 | 123<br>%73,2 | 168 | | 19 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**51b- Eta gizonak neskame zaharrari?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3<br>%1,6 | 14<br>%7,7 | 164<br>%90,6 | 181 | | 2 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

51-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 121<br>%74,3 | 3<br>%1,8 | 23<br>%14,1 | | 8<br>%4,9 | 4<br>%2,4 | 4<br>%2,4 | 163 |

51. NESKAME ZAHARRA - ETXEKO GIZON GAZTEA (A#.S#.K+.AD.-.E#)




Galdera honetan, batez ere, adina eta maila ditugu aurrez aurre. Ondorengo zentzuan sortzen da gatazka: adinaren arabera, neskameak *T* esan liezaioke nagusi gazteari; mailaren arabera, ostera, *V* esan beharko. Oro har, euskarazko joera zailtasunen aurrean elkarri *V* esatekoa bada ere, goiko tauletako emaitzetatik adinaren garrantzia ondorioztatzen da nagusiki. Euskaldunak, adina jartzen bide du gizarte-mailaren edo lan-mailaren gainetik eta horrela, neskame adinekoak T esan diezaioke bere nagusi gazteari, baina oso nekez gertatuko da gauza bera alderantziz[17]. Hortaz, tratamenduen arloan adinaren eta mailaren artean suertatzen den gatazkan, euskaldunarentzat lehenbizikoak du lehentasuna.

17 LAUKIA [A=, S=, K+, Ad.+, E#]: 52. gald.

**52a- {17.laukia} Jo dezagun lantokiko nagusia zure adineko eta sexukoa dela eta lagun handiak zaretela, konfiantza handia dago zuen artean. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 112<br>%57,7 | 16<br>%8,2 | 66<br>%34 | 194 | | 13 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

[17] Sexua dela eta, baliteke konparazio horretan desbiderapen txiki bat egotea. Behin eta berriro esan dugun bezala, oro har, ez baitira konparagarriak toketa eta noketaren gertagarritasuna. Edozein modutan, sexuaren eragozpena kontuan hartuta ere, adinaren pisu espezifiko handiagoa ondoriozta daitekeelakoan gaude.

**52b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 113<br>%58,5 | 15<br>%7,7 | 65<br>%33,6 | 193 | | 13 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

52-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 65<br>%34,1 | 109<br>%57,1 | 1<br>%0,5 | | 15<br>%7,8 | 1<br>%0,5 | — | 191 |

52. LANGILE ETA NAGUSI ADISKIDEAK (A=, S=, K+. AD.+.E#)




Nagusi adiskidearekin *T-T* aukeraren aldera makurtzen da balantza (%56,1). Nagusia adiskidea izan edo ez, alde nabarmena dago (konparatu 48.eko emaitzekin). Horrek esan nahi du konfiantzak eta adiskidetasunak zer esan handia daukatela eta mailazko menpekotasuna ez dela adinezkoa bezainbesteko eragozpena hika egiteko (alderatu 72rekin).

Esanak esan, multzo handi batentzat —nagusiarekin *T* erabiliko ez lukeen multzoarentzat (%42,2)—, badirudi konfiantza gorabehera, nagusia beti dela

nagusi. Horietako askoren ikuspuntutik, haur-denborako, auzoko edota herriko harremanetatik ez datorren konfiantzak ez luke aise leunduko nagusi eta langilearen arteko «amildegia».

19 LAUKIA [A=, S#, K+, Ad.+, E#]: 53. gald.

**53a- {19.laukia} Jo dezagun zuk lan egiten duzun enpresako burua (jabe eta nagusia) zure adinekoa dela, baina ez zure sexukoa. Urteak daramatzazu lanean berarekin eta oso laguna zara berarekin, konfiantza daukazue, alegia. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 59<br>%30,1 | 27<br>%13,7 | 110<br>%56,1 | 196 | | 8 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**53b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 71<br>%37,1 | 14<br>%7,3 | 106<br>%55,4 | 191 | | 12 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

53-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 97<br>%52,9 | 43<br>%23,4 | 16<br>%8,6 | | 10<br>%5,4 | 16<br>%8,6 | 2<br>%1 | 184 |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

53. SEXU DESBERDINEKO LANGILE ETA NAGUSI ADISKIDEAK (A=, S#, K+, AD.+,E#)




Galdera honen interesa, aurrekoarekiko konparazioan datza. Hots, sexuak zenbaterainoko aldaketak eragin ditzakeen tratamendu-hautaketan ikustea da galdera honen helburua.

Ikus dezakegunez, lehenbiziko aldaketa nabarmena *T*-ren beherakada da. Oro har, elkarrekiko hiketa erdira edo gehiago jaisten da (%56,1etik %23,3ra) sexu-kidetasuna izatetik ez izatera. Oraingoan, elkarrekiko *V* gailentzen da langile eta nagusi adiskideen artean, sexu-desberdintasunaren ondorioz, hain zuzen ere.

2 LAUKIA [A=, S=, K-, Ad.-, E#]: 54. galdera

**54a- (2.laukia) Jo dezagun zure semearen institutuko zuzendariarekin hitz egin behar duzula: bera zure adinekoa eta zure sexukoa da, baina guztiz ezezaguna. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10<br>%4,8 | 2<br>%0,9 | 193<br>%94,1 | 205 | | 2 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**54b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9<br>%4,4 | 2<br>%0,9 | 190<br>%94,5 | 201 | | 2 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

54-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 191<br>%95,1 | 9<br>%4,4 | — | | 1<br>%0,5 | — | — | 201 |

54. AITA EDO AMA ETA INSTITUTUKO ZUZENDARIA
(A=, S=, K-, AD.-, E#)




**94a- {2. laukia} Jo dezagun jatetxe batean bazkaltzen zaudela. Nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke, zerbitzariari zure sexukoa eta zure adinekoa bada, eta lehenagotik elkar ezagutzen ez baduzue?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 25<br>%12,9 | 5<br>%2,5 | 163<br>%84,4 | 193 | | 5 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**94b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 17<br>%8,8 | 5<br>%2,6 | 170<br>%88,5 | 192 | | 5 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

94-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 152<br>%85,6 | 16<br>%8,9 | 4<br>%2,2 | | 4<br>%2,2 | 1<br>%0,5 | 1<br>%0,5 | 178 |

94. BEZEROA ETA ZERBITZARIA JATETXEAN (A=, S=, K-AD.-, E#)



4 LAUKIA [A=, S#, K-, Ad.-, E#]: 55. galdera

**55a- {4.laukia} Aurreko egoeran (54. galderakoan): institutuko zuzendaria ez da zure sexukoa. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 5<br>%2,4 | 3<br>%1,4 | 199<br>%96,1 | 207 | | — | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**55b-Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4<br>%1,9 | 2<br>%0,9 | 197<br>%97 | 203 | | — | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

55-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 194<br>%96,5 | 3<br>%1,4 | 1<br>%0,5 | | 2<br>%1 | — | 1<br>%0,5 | 201 |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

55. AITA EDO AMA ETA INSTITUTUKO ZUZENDARIA. SEXU DESBERDINEKOAK (A=, S#, K-, AD.-E#)




Goiko emaitzetatik *V-V* soluziobidearen neutraltasun edo markagabetasuna azpimarkatu behar da lehenik. Ageri denez, egoera formaletan hitanoak ez du tokirik, are gutxiago aldagai garrantzitsuenek (kidetasunak eta adiskidetasunak, alegia) bere alde jokatzen ez badute. Hortaz, zalantzaren aurrean elkarrekiko *V* izan ohi da arau orokorra (%85ean edo gehiagotan).

Xehetasunetara joz gero, interesgarria izan daiteke 54 eta 94. galderen arteko konparaketa. Bietan, *V-V* da nagusi (%95 eta %85,3), baina bada desberdintasunik. Gure ustez, konparaketa honetatik bi gauza ondoriozta daitezke: alde batetik, testuinguruaren garrantzia; beste alde batetik, tratamenduaren bidez mailazko nagusitasuna eta menpekotasuna agertzeko edo erakusteko uzkurtasuna.

Institutuko testuinguru formal samarrean hitanoaren aukera oso-oso zaila gertatzen den bitartean (%4,8-%4,4), jatetxeko egoerak bide gehitxoago ematen du hitanoa maiztxoago (%12,9-%8,8) azal dadin. Bestalde, guraso eta zuzendariaren arteko harremana eta orobat bezero eta zerbitzariaren artekoa tratamenduzko simetriaren arabera kodetzen dira (*V-V* %96,5 eta *T-T* %1,4)[18].

Xehetasunak alde batera utziz gero, hizkuntza arteko konparazioaren ikuspuntutik, interesgarria izan daiteke ohartaraztea euskal *T* erabat markatua

[18] Zuzendaria bere lantokian eta bere esparruan ari denez gero, mailazko nagusitasuna berari dagokiola postula daiteke. Alegia, oraingo mailazko desberdintasuna langile eta bere nagusiaren artekoa bezain garbia ez bada ere, egoera honetan zuzendaria «buru» dela esan liteke eta gurasoak haren «menpeko». Era berean, jatetxeko testuinguruan bezeroa «buru» eta zerbitzaria haren «menpeko» lirateke.

eta esparru txiki-txikikoa dela. Zalantzaren aurrean *V* izan ohi da irtenbiderik erosoen, neutroen eta ohizkoena.

6 LAUKIA [A#, S=, K-, Ad.-, E#]: 56.galderA

**56a- {6.laukia} Nola hitz egiten dio, edo nola hitz egingo lioke etxean sartu berri den adineko neskameak bere etxekoandre dexente gazteagoari?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 6<br>%3,2 | 8<br>%4,2 | 173<br>%92,5 | 187 | | 3 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**56b- Eta etxekoandre gazteak adineko neskameari?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3<br>%1,6 | 9<br>%4,8 | 174<br>%93,5 | 186 | | 4 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

56-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 169<br>%93,5 | 3<br>%1,6 | 2<br>%1,1 | | 7<br>%3,8 | — | — | 181 |

## 56. ADINEKO NESKAME SARTU BERRIA ETA ETXEKO ANDRE GAZTEA (A#, S=, K-, AD.-,E#)




**95a- {6. LAUKIA} Jo dezagun jatetxe batean bazkaltzen zaudela. Nola hitz egiten diozu zerbitzariari, zure sexukoa bada eta zu baino dexente gazteagoa bada?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 32<br>%16,4 | 9<br>%4,6 | 154<br>%78,9 | 195 | | 6 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**95b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10<br>%5,1 | 6<br>%3,1 | 177<br>%91,7 | 193 | | 4 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

95-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 152<br>%80,9 | 9<br>%4,8 | 19<br>%10,1 | | 5<br>%2,7 | 1<br>%0,5 | 2<br>%1,1 | 188 |

95. BEZEROA ETA ZERBITZARI GAZTEAGOA JATETXEAN
(A#, S=, K-, AD.-, E#)




8 LAUKIA [A#, S#, K-, Ad.-, E#]: 57. galdera

**57a- {8.laukia} Aurreko (56.eko) egoeran: nola hitz egiten dio, edo nola hitz egingo lioke adineko neskame sartu berriak etxeko gizon gazteari?**
A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10<br>%5,3 | 5<br>%2,6 | 173<br>%92 | 188 | | 5 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**57b- Eta gizon gazteak adineko neskameari?**
A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3<br>%1,5 | 6<br>%3,1 | 180<br>%95,2 | 189 | | 3 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

57-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 169<br>%92 | 2<br>%1 | 8<br>%4,3 | | 5<br>%2,7 | — | — | 184 |

57. ADINEKO NESKAME SARTU BERRIA ETA ETXEKO GIZON GAZTEA (A#, S#, K-, AD.-, E#)




Teorian, 56a eta 57a galderetan, adinagatik neskameak *T* eman liezaioke bere nagusiari, baina gainerako aldagaiek (kidetasunik eza, adiskidetasunik eza eta menpekotasunak) *V* esatera behartzen dute. Teorian, 56b eta 57b galderetan, mailaren arabera, etxeko nagusiak *T* esan liezaioke bere enplegatuari, baina gazteagotasunak eta kidetasunik ezak halakorik egitea eragozten diote.

Beraz, 56 eta 57. galderetan gatazka, teorian, adinaren eta mailaren artean suerta liteke. Praktikan, bistan denez, ez dago bat ere zalantzarik elkarri *V* emateko (%93,3 eta %91,8).

95.ean ere, adinezko eta mailazko nagusitasunaren eraginez hiketa gehiagotan azaltzen bada ere, *V-V* da ohizko araua (%80,8). Adina eta maila batera ere ez dira aski goitik behera hitanoa nagusi dadin. Bestalde, 64. galderarekin alderatzen badugu (*T-V* %14,3an gertatzen da), ohartuko gara jatetxeko egoeran gertatzen diren *T-V* asimetriak (%10,1) neurri handi batean adinezko nagusitasunari zor zaizkiola eta ez hainbeste mailazko desberdintasunari.

Beraz, 56, 57 eta 95.eko emaitzetatik hitanoaren izaera markatua ondorioztatzen da berriro ere. Adinezko eta mailazko nagusitasuna gorabehera, kidetasunik eta adiskidetasunik gabe, nekez suertatzen da nagusi hiketa; alderantziz, aipatu bi ezaugarri horiek gabe, joera garbia dago *V-V*-ren alde. Gainera, tratamenduzko simetria edo simetriarik ezari bagagozkio, esan beharra dago aldagaien arteko aurkakotasunak *V-V* emaitzaz konpondu ohi direla gehienetan; *T-V* soluziobide asimetriazkoa, oro har, gutxitan jazotzen da eta jazotzekotan, gehienbat adinezko nagusitasunaren ondoriozkoa izaten da.

9 LAUKIA [A=, S=, K+, Ad.-, E=]: 58. gald.

**58a- {9.laukia} Zure sexuko eta adineko ikaskide edo lankide bati, berarekin konfiantza eta harreman estuak ez badauzkazu, nola hitz egiten diozu?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 111<br>%59,3 | 17<br>%9 | 59<br>%31,5 | 187 | | 19 | |

T*=HIKA; X*=XUKA (ALOK.+-); V*=EZTABADAKA, ZUKA, BERORIKA.

**58b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 111<br>%59,6 | 17<br>%9,1 | 58<br>%31,1 | 186 | | 20 | |

T*=HIKA; X*=XUKA (ALOK.+-); V*=EZTABADAKA, ZUKA, BERORIKA.

58-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 58<br>%31,4 | 110<br>%59,5 | — | | 17<br>%9,1 | — | — | 185 |

58. LANKIDE EDO IKASKIDEAK (A=, S=). SIMETRIA-ASIMETRIAK TRATAMENDUAN




Oro har, hiketak hain bizitza mugatua eta hain erabilera urria izanik, hika egiteko harremanaz edo kidetasunaz gain beste zerbait gehiago ere (konfiantza edo adiskidetasuna) behar dela pentsa liteke. Uste hori frogatzea zen aurreko galderaren helburua, hots, adiskidetasuna deitu dugun aldagaiaren balio erabakitzailea gezurtatzea.

Goiko emaitzen arabera, zera aurrera dezakegu: oro har, konfiantza eta adiskidetasuna ez dira ezinbesteko baldintzak hika egiteko, ezta hurrik eman ere. Izan ere, gainerako ezaugarrietan oztoporik ez badago, konfiantzarik gabe ere, maiz gertatzen da *T-T* tratamendua. Gehiengo garbiak (%59,4) hitanora jotzen du kideekin mintzatzeko eta gutxiengoa da —gutxiengo garrantzitsua, nolanahi ere (%31,3 inguru)— *V*-ren alde makurtzen dena.

Esandakoaz, ez diogu adiskidetasunari bere hitanoaren aldeko pisu eragilea ukatu nahi, ezta gutxiagorik ere. Askotan esan izan da euskal hitanoa konfiantza edo adiskidetasunaren agergarria dela. Baieztapen zehaztugabe hori gezurra ez bada ere, gaizki-ulertuen hazia darama bere baitan. Horrela, adierazpen horreta-

tik, konfiantza eta adiskidetasuna hiketaren baitezpadako baldintzak direla uste izatera igarotzen da sarri-askotan, azken uste hau erdi ustela izanik.

Esanak esan, ez dirudi emakumeen jokamoldea ildo beretik doanik. Hitanoaren erabilerari begira, emakumeek askoz ere begiratuagoak dirudite (cf. infra VIII.2.3).

11 LAUKIA [A=, S#, K+, Ad.-, E=]: 60. gald.

**60a- {11.laukia} Zure adineko lankide edo ikaskide bati, zure sexukoa ez bada eta bere adiskidea ez bazara, nola hitz egiten diozu?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 59<br>%30,8 | 25<br>%13 | 107<br>%56 | 191 | | 13 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**60b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 61<br>%33,3 | 16<br>%8,7 | 106<br>%57,9 | 183 | | 17 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

60-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 92<br>%52 | 40<br>%22,6 | 19<br>%10,7 | | 11<br>%6,1 | 13<br>%7,4 | 3<br>%1,3 | 178 |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

## 60. SEXU DESBERDINEKO LANKIDE EDO IKASKIDEAK




Sexukideen artean ez bezala, sexu desberdineko kideen artean *V-V* ateratzen da garaile (%51,6). Oso nabaria da sexu-desberdintasunak hitanoaren erabileran eragiten duen murrizketa. Sexu-desberdinaren ondorioz (konparatu 58.eko emaitzekin), 37 bat puntu (T-T:%59,4tik %22,4ra) jaisten da elkarrekiko hitanoaren gertagarritasuna.

13 LAUKIA [A#, S=, K+, Ad.-, E=]: 61. gald.

**61a- (13.laukia) Zu baino dexente gazteagoa den lankide bati, bere adiskidea ez bazara, nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 110<br>%57,2 | 19<br>%9,8 | 63<br>%32,8 | 192 | | 13 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**61b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 56<br>%29,9 | 18<br>%9,6 | 113<br>%60,4 | 187 | | 15 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

61-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 63<br>%35,8 | 55<br>%31,3 | 38<br>%21,6 | | 16<br>%9 | 2<br>%1,1 | 2<br>%1,1 | 176 |

61. ADIN DESBERDINEKO LANKIDEAK (S=)




Emaitza hauetatik zera ondorioztatzen da: adinezko menpekotasuna galga garrantzitsua da kideen artean *T-T* simetria gerta dadin.

Bestalde, kideen artean adinezko nagusitasunak ez bide du aparteko eraginik; alegia, mintzalaguna gaztegoa izanagatik, ez du gora egiten *T*-ren probabilitateak (58.ekoaren guztiz antzerakoa, %59,3 lehen, %57,2 orain). Alderantzizko zentzuan, ordea, bai, hitanoaren erabilera erdira (%59,6tik

%29,9ra) jaisten baita; alegia, gazteagoak nekezago egiten dio hika kide nagusiagoari. Hortaz, adinezko desberdintasunak maiz (%23,8an) eragiten omen ditu tratamenduzko asimetriak (*T-V, X-T, X-V*) kideen artean.

| 15 LAUKIA [A#, S#, K+, Ad.-, E=]: 62. gald. |
|---|

**62a- {15.laukia} Zu baino dexente gazteagoa den lankide bati, zure sexukoa ez bada eta bere adiskidea ez bazara, nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 60<br>%31,2 | 26<br>%13,5 | 106<br>%55,2 | 192 | | 13 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**62b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| **T*** | **X*** | **V*** | **OROT.** | | **T/V** | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 29<br>%15,1 | 17<br>%8,9 | 145<br>%75,9 | 191 | | 10 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

62-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 104<br>%56,7 | 20<br>%10,8 | 33<br>%18 | | 13<br>%7 | 6<br>%3,2 | 8<br>%4,3 | 184 |

62. ADIN ETA SEXU DESBERDINEKO LANKIDEAK




61.eko emaitzekin alderatuz gero, lehengo joera berdintsuak baiezta ditzakegu: kideen artean nagusiagotasunak ez du areagotzen *T*-ren maiztasuna, baina gazteagoaren ikuspuntutik gazteagotasuna galga garrantzitsua izan daiteke hitanoa erabiltzeko.

Adinagatik hitanoaren erabilera murriztu egiten baldin bada, adinezko diferentziari sexuzkoa gaineratzen baldin bazaio, are murrizketa lazgarriagoa gertatzen da. Adinezko eta sexuzko desberdintasun bikoitzaren ondorioz, orain *V-V* gailentzen da (%56,5) *T-T* eta *T-V* aukeren gainetik.

Gainerakoan, hitanoaren murrizketarekin batera, ugaldu egiten dira tratamenduzko asimetriak sexuaren ondorioz.

10 LAUKIA [A=, S=, K-, Ad.-, E=]: 63. gald.

**63a- {10.laukia} Jo dezagun kalean zaudela autobusari itxaroten: bertan, itxaroten, zure adineko eta sexuko ezezagun bat dago eta zuk zerbait esan nahi diozu. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 29<br>%14,3 | 9<br>%4,4 | 164<br>%81,1 | 202 | | 5 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**63b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 29<br>%14,4 | 9<br>%4,4 | 163<br>%81 | 201 | | 5 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

63-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 162<br>%81 | 28<br>%14 | — | | 10<br>%5 | — | — | 200 |

63. EZEZAGUNAK KALEAN: simetria-asimetriak




Emaitza hauek erakusten dutenez, kidetasuna desagertzearekin batera (konparatu 58.arekin) elkarrekiko *V* nagusitzeko joera (%81) somatzen da. Hots, elkar ezagutu gabe zail samarra (%14) gertatzen da hikako tratamendua euskaraz. Adiskidetasuna nahitaezkoa ez bada ere, gehiengo garbiarentzat elkar ezagutzea edo harremana (kidetasuna) ezinbesteko baldintza da hitanoa sarritan ager dadin. Hortaz, gure azterketaren arabera, bereizkuntza edo aldagai guztien artean kidetasunak berebiziko papera jokatzen duela esan daiteke.

14 LAUKIA [A#, S=, K-, Ad.-, E=]:64. gald.

**64a- {14.laukia} Kalean zaude autobusari itxaroten: zure ondoan zu baino dexente gazteago den (sexu bereko) ezezagun bat dago. Zerbait esatekotan, nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 55<br>%27,9 | 16<br>%8,1 | 126<br>%63,9 | 197 | | 10 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**64b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 19<br>%9,7 | 14<br>%7,1 | 162<br>%83 | 195 | | 8 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

64-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 124<br>%66 | 19<br>%10,1 | 27<br>%14,3 | | 11<br>%5,8 | 3<br>%1,6 | 4<br>%2,1 | 188 |

## 64. ADIN DESBERDINEKO EZEZAGUNAK KALEAN




Emaitzok lehen aipatutako joerak baieztatzen dizkigute. Alde batetik, kidetasuna desagertzearekin batera elkarrekiko *V* nagusitzeko joera (%65,9an) somatzen da. Bestetik, adinezko desberdintasuna oso garbi islatzen da tratamendu-hautaketan (*T-V*=%14,3 eta asimetriak orotara %18).

Hala ere, lankideen artean gertatzen denaz bestaldera (61. galdera), adinezko nagusitasuna hiketaren bultzagarri gertatzen bide da ezezagunen artean (%14tik %27,9ra igotzen da hitanoaren erabilera).

Gainerako aldagaietan berdintasuna edo kidetasuna izanik, adinaren gorabeherak funtsezkoak dira; halako moldez dira erabakigarriak ezen adinaren aldea handitzeaz batera gora egiten baitu hitanoaren gertagarritasunak. Adinaren garrantziaz ohartzeko, aski da 63, 64 eta 34. galderetako hitanozko emaitzak alderatzea (ikusi beheko taula). Ezezagunen artean, adinezko nagusitasunak erraztu egiten du hiketaren erabilera, eta alderantziz, gazteagotasunak zaildu egiten du elkarrekiko hitanoaren aukera.

4.TAULA: ADINEZKO NAGUSITASUNAREN ERAGINA HITANOAREN ERABILERAN EZEZAGUNEN ARTEAN

| | 63A GALD. ADIN BERDINEKOA | 64A GALD. 10-15 URTE GAZTEAGOA | 34A/B GALD. 7-8 URTEKO MUTIKO/NESKATOA |
|---|---|---|---|
| HIKA | %14,3 (<--%14,4) | << %27,9 (<--%9,7) | << %42,6 (<--%0?) |

12 LAUKIA [A=, S#, K-, Ad.-, E=] : 65. gald.

**65a- {12.laukia} Batzar edo bilera batean zure adinekoa bai, baina zure sexukoa ez den pertsona bat aurkezten dizute. Nola hitz egingo zenioke?**
A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 12<br>%6,1 | 14<br>%7,2 | 168<br>%86,5 | 194 | | 6 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**65b- Eta berak zuri?**
A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 15<br>%7,9 | 8<br>%4,2 | 166<br>%87,8 | 189 | | 9 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

65-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 161<br>%87,3 | 7<br>%3,7 | 4<br>%2,1 | | 7<br>%3,7 | 3<br>%1,6 | 3<br>%1,6 | 185 |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

## 65. SEXU DESBERDINEKOAK AURKEZTERAKOAN




Sexu berdineko ezezagunen artean hiketa nekez (%14an) azaltzen baldin bada, *T* are nekezago (%3,7 inguruan) jazotzen da ezezagunak sexu berekoak ez badira. Zalantzarik gabe, sexu desberdinekoen artean aurkezpenaren orduan eta ezagutzak egiterakoan, elkarrekiko *V* da aukera neutroen eta ohizkoena (%87).

Beraz, esan beharra dago sexu-desberdintasunak eragin murriztaile nabaria duela hitanoaren erabileran.

16 LAUKIA [A#, S#, K-, Ad.-, E=]: 66. gald.

**66a- {16.laukia} Jo dezagun medikuarenean zaudela: bertan zure sexukoa ez, baina zu baino dexente gazteagoa den ezezagun bat dago. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 27<br>%13,4 | 19<br>%9,4 | 155<br>%77,1 | 201 | | 5 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**66b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 11<br>%5,5 | 14<br>%7 | 173<br>%87,3 | 198 | | 3 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

66-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 152<br>%79,0 | 5<br>%2,5 | 17<br>%8,8 | | 11<br>%5,6 | 3<br>%1,5 | 5<br>%2,5 | 193 |

66. SEXU ETA ADIN DESBERDINEKO EZEZAGUNAK




Emaitzok hiketa tratamenduaren izaera markatuaren eta *V*-ren izaera markatugabearen hipotesia sendotzera datoz. Tratamendu-hautaketaren egokitasunaz zalantzarik eragiteko moduko asimetria, oztopo edo eragozpenik sortuz gero, *V-V* izan ohi da erdibide zuhurren eta ziurrena.

Gainera, sexu-diferentzia hitanozko erabileraren murrizgarri handienetako bat dela ageri da berriro ere. 64a galderarekin alderatuta, sexu-desberdintasuna ren eraginez hitanoaren portzentaia erdira jaisten dela dakusagu (%27,9tik %13,4ra).

**67- {adiskidetasun moztua: tratamendu-aldaketa?} Jo dezagun urte luzeetan ikusi ez duzun herriko «indiano» bat aurkitzen duzula ustekabean kalean: zure gazte-denborako adiskide ona da bera. Lehen hika ohituta baldin bazeunden, orain aldatuko zenuke tratamendua?**

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROT.* |
|---|---|---|---|
| 17<br>%8,9 | 167<br>%87,4 | 7<br>%3,6 | 191 |

Harreman jakin baten etenaldiak tratamenduan eraginik izan ote dezakeenentz argitzea da goiko galderaren helburua. Gorago esan dugun moduan, euskaraz ohiturak berebiziko garrantzia du tratamendu-kontuetan. Tratamendua —gogokoa nahiz gogoz kontrakoa, hautatua nahiz halabehar hutsezkoa—, aukera iraunkor eta aldagaitza izan ohi da, hasitako harremanaren bizitzan zehar bere horretan segitzen duena.

Gehiengo garbiak adierazitakoaren arabera, galderan aurkezten den bezalako egoera batean, lehengo (gazte-denborako) tratamenduari eustea litzateke aukerarik arruntena edo seguruena. Beraz, harremana moztua izan arren, denbora luzearen buruan hiztunari ez zaio zalantza handiegirik sortzen hartu behar duen tratamenduaz; «lehen nola, orain hala» irizpide irmoari lotu ohi zaio euskalduna.

21 LAUKIA [A#, S=, K+, Ad.+, E#]: 68. gald.

**68a- {21.laukia} Jo dezagun banku handi batean zabiltzala lanean, nagusiei mandatuak, enkarguak egiten. Zuzendarietako bat zu baino dexente gazteagoa, zure sexukoa da eta berarekin oso laguna zara, konfiantza handia daukazue auzokoak zaretelako. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 105<br>%56,7 | 15<br>%8,1 | 65<br>%35,1 | 185 | | 15 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**68b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 90<br>%50,2 | 16<br>%8,9 | 73<br>%40,7 | 179 | | 17 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

68-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 66<br>%36,6 | 89<br>%49,4 | 7<br>%3,8 | | 14<br>%7,7 | 4<br>%2,2 | — | 180 |

68. MORROIA ETA NAGUSI GAZTEAGOA (ADISKIDEAK).
(A#.S=,K+,AD.+,E#)




68a galderan, adinezko nagusitasunak eta adiskidetasunak langilea *T* erabiltzera bultzatzen duten bitartean, mailazko urruntasunak *V*-ren alde jokatu beharko luke. Hala ere, menpekotasuna gorabehera, *T* nagusitzen da (%49,4) *V*-ren gainetik (%36,6).

Harreman honetan tratamendu simetrikoa nagusitzen da gehienetan. Gainera, asimetriarik gertatzekotan, adinaren (zaharragoaren) alde gertatzen dira eta ez boteretsuagoaren alde. Gauzak horrela, langile zaharragoak maizago egiten

dio hika bere nagusi adiskide gazteagoari (%56,7), alderantziz baino (%50,2). Beraz, adiskideen artean menpekotasunezko harremanaren eragina kontuan hartzeko modukoa bada ere, ez da *V-V* eta are gutxiago boterearen araberako *V-T* nagusiarazteko adinakoa.

68b galderako emaitzetatik adiskidetasunaren pisu nabarmena ondorioztatzen da, bera bakarrik gauza baita adinaren *V*-ren aldeko eragina neutralizatzeko.

Hala ere, ezin ukatuzkoa da maila-desberdintasunak *T*-ren aurka duen eragina. Eragin honen lekuko, berriemaileetariko batzuek (goiko taulan zalantzazkoen sailean agertzen direnek) galdera honetako auziaren aurrean hautatu zuten erdibide zuhurra dugu: lantokian *V* eta lanetik kanpo *T* edota lankideen aurrean *V* eta bakarrean *T*. Erantzun hau guztiz adierazgarria da eta *T*-ren erabileran maila-desberdintasunak duen eragin murrizgarria frogatzen digu. Gainera, 68 eta 72.eko emaitzak alderatuz gero, ondorio bera ateratzen da: zaharrak gehiago hikatzen du bere mailako gaztea (72b-ren arabera %63,4), bere nagusi gaztea baino (68a-ren arabera %56,7); eta alderantziz, gazteak gehiago hikatzen du zaharragoa, bera nagusi edo buru izanda (68b-ren arabera %50,2), maila berean egonda baino (72a-ren arabera %43,1).

23 LAUKIA [A#, S#, K+, Ad.+, E#]: 69. gald.

**69a- {23. LAUKIA} Jo dezagun zure enpresako burua (jabea eta nagusia) zu baino dexente gazteagoa dela; ez da zure sexukoa eta lantokian elkarrekin urteak egin ondoren, laneko adiskide onak izatera iritsi zarete. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 51<br>%26,1 | 27<br>%13,8 | 117<br>%60 | 195 | | 8 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**69b-Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 53<br>%28,1 | 18<br>%9,5 | 117<br>%62,2 | 188 | | 11 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

69-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 108<br>%58 | 38<br>%20,4 | 12<br>%6,4 | | 15<br>%8 | 9<br>%4,8 | 4<br>%2,1 | 186 |

69. LANGILEA ETA NAGUSI GAZTEAGOA (A#, S#, K+, AD.+ E#)




Aurreko galderarekin konparatuta, sexuaren eragin murriztailea ikusten dugu berriro ere. Sexu-desberdintasunaren ondorioz erdira jaisten da hitanoaren portzentaia (%56,7tik %26,1era eta %50,2tik %28,1era).

25 LAUKIA [A=, S=, K+, Ad.+, E=]: 70. gald.

**70a- {25.laukia} Jo dezagun beste kide edo sozio batekin negozio batean sartuta zabiltzala. Negoziokidea zure adineko eta sexukoa izateaz gain, adiskidea duzu. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 150<br>%77,7 | 14<br>%7,2 | 29<br>%15 | 193 | | 5 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**70b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 148<br>%76,2 | 15<br>%7,7 | 31<br>%15,9 | 194 | | 4 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

70-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 30<br>%15,7 | 145<br>%76,3 | 1<br>%0,5 | | 14<br>%7,3 | — | — | 190 |

70. LANKIDE ADISKIDEAK




Ageri denez, hitanoa da ohizko tratamendua (%76,3an gutxi gorabehera) sexu bereko adiskideen artean. Hala eta guztiz ere, oraingo hikako maiztasuna ez da anaien artekoa (%90,3 ingurukoa) bestekoa, ezta aldameneko erdaretakoaren neurrikoa ere.

Aldagaien pisu erlatiboari bagagozkio, emaitza hauetatik adiskidetasunaren garrantzi handia ondorioztatzen da. Gorago esan dugun moduan, euskaraz

adiskidetasuna ez da ezinbesteko baldintza elkarri hika egiteko, hala ere, kidetasunarekin batera *T*-ren eragingarri garrantzitsuenetako bat da.

Azpimarkatzekoa da, halaber, *V-V* aukera neutroagoaren aldeko erantzunen kopuru altua (%15,7). Emaitza honek hitanoaren izaera markatua erakusten digu berriz ere: anaien artean *T-T* guztiz seguru eta orokorra ez baldin bada, ez da bestela gertatzen adiskideen artean.

27 LAUKIA [A=, S#, K+, Ad.+, E=]: 71. gald.

**71a- {27.laukia} Zure sexukoa ez, baina zure adinekoa den adiskide bati, nola hitz egiten diozu?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 89<br>%48,1 | 29<br>%15,6 | 67<br>%36,2 | 185 | | 22 | |

T*=HIKA; X*=XUKA (ALOK.+-); V*=EZTABADAKA, ZUKA, BERORIKA.

**71b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 95<br>%52,7 | 20<br>%11,1 | 65<br>%36,1 | 180 | | 26 | |

T*=HIKA; X*=XUKA (ALOK.+-); V*=EZTABADAKA, ZUKA, BERORIKA.

71-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 54<br>%32,4 | 66<br>%39,6 | 16<br>%9,5 | | 11<br>%6,5 | 20<br>%11,9 | — | 167 |

## 71. SEXU DESBERDINEKO ADISKIDEAK




Lagunak sexu berekoak ez badira, nahiko orekatuta geratzen da *T-T* eta *V-V*-ren arteko lehia, gutxigatik lehena nagusituz.

Konparazioetara jotzen badugu, begi bistan geratzen da hitanoaren erabileran sexu-desberdintasunak duen eragin murriztailea. T eta V-ren arteko lehian, adiskideak sexukideak izatetik ez izatera, hiketaren erabateko nagusitasunetik *T* eta *V*-ren arteko berdintasunerantz igarotzen gara.

Azpimarkatzekoa da baita ere, sexu-diferentziak emakumearen alde (emakumekoari *V!*) eragiten dituen asimetrien kopuru nabarmena (%9,5).

Zalantzen kopurua (%10-12 ingurukoa) sexuaren garrantzia azpimarkatzera dator. Norberaren sexuko ez diren guztiekin berdin jokatzen ez delako sortzen dira hainbeste zalantza. Eta hemen bereizketa interesgarri bat egin beharra dago: tratamenduari dagokionez, zenbaitentzat ez da berdina betidaniko adiskidantza eta geroago erdietsitakoa; bereizketa hori egiten duen jendeak, lehenbiziko kasuan hitanoa atxikitzen duen bitartean, bigarrenean *V* nahiago izaten du. Zalantzagarritasuna zentzu horretan ulertu behar delakoan gaude.

29 LAUKIA [A#, S=, K+, Ad.+, E=]: 72. gald.

**72a- {29.laukia} Zu baino 10-15 urte zaharragoa den adiskide on, guztiz konfiantzazko bati, nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 82<br>%43,1 | 18<br>%9,4 | 90<br>%47,3 | 190 | | 17 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**72b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 123<br>%63,4 | 17<br>%8,7 | 54<br>%27,8 | 194 | | 12 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

72-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 54<br>%27,4 | 91<br>%46,1 | 33<br>%16,7 | | 14<br>%7,1 | 3<br>%1,5 | 2<br>%1 | 197 |

72. ADIN DESBERDINEKO ADISKIDEAK



Lehenengo eta behin, adinaren aldetiko desberdintasuna, oro har, hitanozko erabileraren murrizgarri gertatzen dela esan behar dugu. Adin berdinekoak izanik maizago egiten da hika, bestetara baino. Lagunen artean, gazteagotasuna traba garbia baldin bada (%76tik %43,1era egiten du behera), zaharrago izatea ere ez da bat ere lagungarri gertatzen hitanoka maizago aritzeko (%76 ingurutik %63,4ra).

Adin-kidetasuna funtsezkoa da mintzalagunen artean tratamendu-berdintasuna egon dadin. Adiskidantza gorabehera, adin-diferentzia nabarmenik izanez gero, asimetria ugari sortzen da (*T-V + X-T + X-V* = %19,2) zaharragoaren alde. Izan ere, zaharragoak biziki gehiago eta aiseago egiten dio hika gazteagoari (%63,4), azken honek zaharragoari baino (%43,1).

31 LAUKIA [A#, S#, K+, Ad.+, E=]: 73. gald.

**73a- {31.laukia} Zure sexukoa ez den eta zu baino 10-15 urte zaharragoa den auzoko adiskide bati nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke?**
A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *34*<br>*%18* | *24*<br>*%12,7* | *130*<br>*%69,1* | *188* | | *13* | |

*T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.*

**73b- Eta berak zuri?**
A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 74<br>%39,5 | 20<br>%10,6 | 93<br>%49,7 | 187 | | 13 | |

73-SIMETRIA ETA SIMETRIARIK EZA: EMAITZAK BINAKOEN BIDEZ

| *V-V* | *T-T* | *T-V* | | *X-X* | *X-T* | *X-V* | *OROT.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 85<br>%47,4 | 26<br>%14,5 | 39<br>%21,7 | | 12<br>%6,7 | 11<br>%6,1 | 6<br>%3,3 | 179 |

## 73. ADIN ETA SEXU DESBERDINEKO ADISKIDEAK




Adinezko desberdintasunari sexuzkoa gaineratzen bazaio, ondorioa hikako portzentaia apaltxoak izaten dira. Oro har, horrelako solaskideen artean elkarrekiko *V* izaten da arruntena (V-V=%47,4).

Hala eta guztiz ere, lehengo galderan bezalatsu, tratamenduzko asimetriak zaharragoaren alde gertatu ohi dira (*T-V*+ *X-T* + *X-V* =%31,2). Zaharragoa sarriagotan mintzatuko da hika gazteagoarekin (%39,5), alderantziz baino (%18).

## 3.2. Simetria eta simetriarik eza familiaz kanpoko harremanetan: laburpen ondorioak

TAULAK: TRATAMENDUAK FAMILIAZ KANPOKO HARREMANETAN

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD- | E# | 1 (48.gald.) | 2 (54. gald.) | 3 (49.gald.) | 4 (55. gald.) |
| | | Langile/Nagusi<br>%19,6<-->%17,7<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%77 %17,7 %1,5<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%3,6 — — | Aita/Zuzendari<br>%4,4<-->%4,8<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%95 %4,4 —<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%0,5 — —<br>(94.gald.)<br>%8,8 <--->%12,9<br>V-V T-T T-V<br>%85,3 %8,9 %2,2<br>X-X X-T X-V<br>%2,2 %0,5 %0,5 | Langile/Nagusi<br>%9,5<--->%5,9<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%86,2 %3,5 %3<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%3 %3 %1 | Aita/Zuzendari<br>%1,9<-->%2,4<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%96,5 %1,4 %0,5<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%1 — %0,5 |

LABURDURAK:A=ADINA, S=SEXUA, KID=KIDETASUNA, AD=ADISKIDETASUNA, E=ESTATUSA (MAILA)
IRAKURBIDEA: <---> IKURRAREN EZKERREKO PORTZENTAIAK, ELKARRIZKETATUAK SOLASKIDEARENGANDIK JASOKO LUKEEN HIKAKO EMAITZA ADIERAZTEN DU; ETA ALDERANTZIZ, ESKUINEKOAK, BERAK BERE SOLAS KIDEARI EMANGO LIOKEENA.

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD- | E= | 9 (58.gald.)<br>LANKIDEAK<br>%59,6<-->%59,3<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%31,1 %59,4 —<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%9,1 — — | 10 (63.gald.)<br>EZEZAGUNAK<br>%14,4<-->%14,3<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%81 %14 —<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%5 — — | 11 (60. gald.)<br>LANKIDEAK<br>%33,3<--->%30,8<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%51,6 %22,4 %10<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%6,1 %7,3 %1,6 | 12 (65.gald.)<br>EZEZAGUNAK<br>%7,9<-->%6,1<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%87 %3,7 %2,1<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%3,7 %1,6 %1,6 |

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD+ | E# | 17 (52.gald.)<br>LANGILE/NAGUSI<br>%58,5<-->%57,7<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%34 %57 %0,5<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%7,3 — — | 18 | 19 (53.gald.)<br>LANGILE/NAGUSIA<br>%37,1<--->%30,1<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%52,7 %23,3 %8,6<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%6,5 %11,9 — | 20 |

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD+ | E= | 25 (70.gald.)<br>ADISKIDEAK<br>%76,2<-->%77,7<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%15,7 %76,3 0,5<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%7,3 — — | 26 | 27 (71.gald.)<br>ADISKIDEAK<br>%52,7<--->%48,1<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%32,3 %39,5 %9,5<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%6,5 %11,9 — | 28 |

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD- | E# | 5 (50.gald.)<br>Etxekoandrea/<br>Neskame gaztea<br>%1,6<-->%18<br>*V-V T-T T-V*<br>%71,6 1,8 13,2<br>*X-X X-T X-V*<br>%3,7 %1,8 %7,5 | 6 (56. gald.)<br>Neskame zaharra/<br>Andre gaztea<br>1,6%<-->%3,2<br>*V-V T-T T-V*<br>%93,3 %1,6 %1,1<br>*X-X X-T X-V*<br>%3,8 — —<br>(95.gald.)<br>%16,4<--->%5,1<br>*V-V T-T T-V*<br>%80,8 %4,7 %10,1<br>*X-X X-T X-V*<br>%2,6 %0,5 %1 | 7 (51.gald.)<br>Neskame zahar/<br>Etx. gizona<br>1,6%<--->%19<br>*V-V T-T T-V*<br>%74,2 %1,8 %14,<br>*X-X X-T X-V*<br>%4,9 %2,4 %2,4 | 8 (57. gald.)<br>Neskame zahar/<br>Etx. gizona<br>1,5%<-->%5,3<br>*V-V T-T T-V*<br>%91,8 %1 %4,3<br>*X-X X-T X-V*<br>%2,7 — — |

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD- | E= | 13 (61.gald.)<br>Kide/<br>Kide gazteagoa<br>%29,9<-->%57,2<br>*V-V T-T T-V*<br>%35, 31,2 21,5<br>*X-X X-T X-V*<br>%9 %1,1 %1,1 | 14 (64. gald.)<br>Ezezaguna/<br>Ezez. gazteagoa<br>%9,7<--->%27,9<br>*V-V T-T T-V*<br>%65,9 %10,1 %14,<br>*X-X X-T X-V*<br>%5,8 %1,6 %2,1 | 15 (62.gald.)<br>Kidea/<br>Kide gazteagoa<br>%15,1<-->%31,2<br>*V-V T-T T-V*<br>%56,5 %10,8 %17,<br>*X-X X-T X-V*<br>%7 %3,2 %4,3 | 16 (66.gald.)<br>Ezezaguna/<br>Ezez. gazteagoa<br>%5,5<--->%13,4<br>*V-V T-T T-V*<br>%78,7 %2,5 %8,8<br>*X-X X-T X-V*<br>%5,6 %1,5 %2,5 |

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD+ | E# | 21 (68.gald.)<br>Langile zahar/<br>Nagusi adisk.<br>%50,2<-->%56,7<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%36,6 49,4 3,8<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%7,7 %2,2 — | 22 | 23 (69.gald.)<br>Langile zahar/<br>Nagusi adisk.<br>%26,1<--->%28,1<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%58 %20,4 %6,4<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%8 %4,8 %2,1 | 24 |

| | | ADINA= (ADIN BERDINEKOEN ARTEAN) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | SEXUA= | | SEXUA# | |
| | | KID+ | KID- | KID+ | KID- |
| AD+ | E= | 29 (72.gald.)<br>Adiskide/<br>Adisk. zaharra<br>%63,4<-->%43,1<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%27,4 46,1 16,7<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%7,1 1,5 %1 | 30 | 31 (73.gald.)<br>Adiskide/<br>Adisk. zaharra<br>%39,5<--->%18<br>*V-V* *T-T* *T-V*<br>%47,4 14,5 21,7<br>*X-X* *X-T* *X-V*<br>%6,7 %6,1 %3,3 | 32 |

Gizarteko harremanetan, familiakoetan ez bezala, tratamenduzko asimetria ez da sekula nagusitzen simetriazko aukeren gainetik. Estatus edo mailazko berdintasunik ezak, esate baterako, ez du tratamenduzko desorekarik (*T-V, X-T, X-V*) eragiten, *V-V* binakoaren nagusigoa baizik. Horrela, (lan)kideen artean *T-T* aukera (%59,4) gailentzen den bitartean, langilearen eta nagusiaren artean *V-V* (%77) da nagusi, gutxiengo batek hautatuko lukeen *T-T* (%17,7) binakoaren aurrez aurre.

Asimetriaren eragile, edo hobeto esan, lagunarteko tratamenduzko simetriaren (*T-T*-ren) eragozle gertatzen diren aldagaiak, adina eta sexua dira. Sexu desberdineko adiskideen artean, adibidez, %21,4an gertatzen omen dira asimetriazko *T-V* eta *X-T*, eta ondorioz sexu bereko adiskideen artean (%76,3) baino askoz ere apalagoa da *T-T* (%39,5) aukeraren gertagarritasuna. Adin desberdineko (lan)kideen artean %23,7an gertatzen da asimetria eta sexu eta adin desberdineko adiskideen artean are maizago (%31,1). Hortaz, sexuzko eta adinezko desberdintasuna eragozpen garrantzitsua izaten da hitano elkarrekikoaren aurka.

Lagunarteko tratamenduaren nagusitasuna honako kasuetara murriztua dago: sexu bereko (lan)kideak (9. laukia); adiskideak (25. laukia), nahiz eta maila desberdinekoak (17. laukia: langilea/nagusia), sexu desberdinekoak (27. laukia), adin desberdinekoak (29. laukia) edota aldi berean maila eta adin desberdinekoak izan (21. laukia: adin desberdineko langile/nagusia).

Gainerako harreman edo bikoteetan *V-V* simetrikoa gailentzen da. Maila eta sexuzko diferentziak batera daudenean edota adin eta sexuzko desberdintasunak batzen direnean *T-T* aukera ateratzen da galtzaile V-Vren aldean eta, zer esanik ez, berebat jazotzen da maila, adin eta sexuzko hiru desberdintasunek batera dihardutenean. Hots, oro har, *V-V* dugu aukera gertagarriena bezero eta zerbitzari ezezagunen artean, ikastetxeko zuzendari eta gurasoen arteko lehen ikustaldietan, neskame zahar eta etxeko enplegatzaileen artean, ezezagunen artean, nagusiaren eta langilearen artean, etxekoandrearen eta neskamearen artean, sexu desberdineko lankideen artean, sexu desberdineko nagusi eta langile adiskideen artean, adin eta sexu desberdineko adiskideen artean eta adin eta sexu desberdineko nagusiaren eta langilearen artean.

### 3.3. Aldagaien garrantzi eta eragina familiaz kanpoko harremanetan: kidetasuna, adiskidetasuna, adina, sexua eta maila

#### *3.3.1. Kidetasuna*

6. TAULA: KIDETASUNAREN ERAGINA. KIDETASUNAREN ARABERAKO AURKAKOTASUNAK.

| KIDETASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| EZ- | | | BAI+ | | |
| GURASOAK/ZUZENDARIA 2 (54.GALD.) %4,4<----->%4,8 | | | °1 (48.GALD.) LANGILEA/NAGUSIA %19,6<--->%17,7 | | |
| V-V %95 | T-T %4,4 | T-V — | V-V %77 | T-T %17,7 | T-V %1,5 |
| X-X %0,5 | X-T — | X-V — | X-X %3,6 | X-T — | X-V — |
| S# GURASOAK/ZUZENDARIA 4 (55) %1,9<----->%2,4 | | | 3 (49) S# LANGILEA/NAGUSIA %9,5<------->%5,9 | | |
| *V-V* %96,5 | *T-T* %1,4 | *T-V* %0,5 | *V-V* %86,2 | *T-T* %3,5 | *T-V* %3 |
| *X-X* %1 | *X-T* — | *X-V* %0,5 | *X-X* %3 | *X-T* %3 | *X-V* %1 |
| NESKAME ZAHARRA/ETXEKOAND. 6 (56) 5 (50) ETXEKOANDREA/NESKAME GAZT. EZ DIRA PAREKAGARRIAK | | | | | |
| S# NESKAME ZAHARRA/GIZONA 8 (57) %1,5<---------->%5,3 | | | 7 (51) S# NESKAME ZAHARRA/ GIZONA %1,6<----------->19 | | |
| V-V %91,8 | T-T %1 | T-V %4,3 | V-V %74,2 | T-T %1,8 | T-V %14,1 |
| X-X %2,7 | X-T — | X-V — | X-X %4,9 | X-T %2,4 | X-V %2,4 |

| KIDETASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | EZ- | | | BAI+ |
| EZEZAGUNAK 10 (63)<br>%14,4<---->%14,3 | | | 9 (58) KIDEAK<br>%59,6<---->%59,3 | | |
| V-V<br>%81 | T-T<br>%14 | T-V<br>— | V-V<br>%31,3 | T-T<br>%59,4 | T-V<br>— |
| X-X<br>%5 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%9,1 | X-T<br>— | X-V<br>— |
| S# EZEZAGUNAK 12(65)<br>%7,9<--->%6,1 | | | 11 (60) S# KIDEAK<br>%33,3<--->%30,8 | | |
| V-V<br>%87 | T-T<br>%3,7 | T-V<br>%2,1 | V-V<br>%51,6 | T-T<br>%22,4 | T-V<br>%10,6 |
| X-X<br>%3,7 | X-T<br>%1,6 | X-V<br>%1,6 | X-X<br>%6,1 | X-T<br>%7,3 | X-V<br>%1,6 |
| EZEZAGUNA/EZEZAG. GAZTEAGOA 14(64)<br>%9,7<----->%27,9 | | | 13 (61) KIDEA/KIDE GAZTEAGOA<br>%29,9<--->%57,2 | | |
| V-V<br>%65,9 | T-T<br>%10,1 | T-V<br>%14,3 | V-V<br>%35,7 | T-T<br>%31,2 | T-V<br>%21,5 |
| X-X<br>%5,8 | X-T<br>%1,6 | X-V<br>%2,1 | X-X<br>%9 | X-T<br>%1,1 | X-V<br>%1,1 |
| S# EZEZAGUNA/EZEZAG.GAZT. 16 (66)<br>%5,5<--->%13,4 | | | 15 (62) S# KIDEA/KIDE GAZTEAGOA<br>%15,1<--->%31,2 | | |
| V-V<br>%78,7 | T-T<br>%2,5 | T-V<br>%8,8 | V-V<br>%56,5 | T-T<br>%10,8 | T-V<br>%17,9 |
| X-X<br>%5,6 | X-T<br>%1,5 | X-V<br>%2,5 | X-X<br>%7 | X-T<br>%3,2 | X-V<br>%4,3 |

IRAKURBIDEA: <---> IKURRAREN EZKERREKO PORTZENTAIAK, ELKARRIZKETATUAK SOLASKIDEARENGANDIK JASOKO LUKEEN HIKAKO EMAITZA ADIERAZTEN DU; ETA ALDERANTZIZ, ESKUINEKOAK, BERAK BERE SOLASKIDEARI EMANGO LIOKEENA.

Goiko taulan ageri denez, kidetasuna —harremana eta ezagutzaren zentzuan ulertuta— funtsezkoa da hitanoa maiz ager dadin. Elkar ezagutu ezik edo harremanik gabe bakan (%14an sexukide ezezagunen artean) azaltzen da hitanoa eta salbuespen bakarrak adinezko nagusitasunak eragindakoak (64. galdera; 34. galdera) izaten dira. Beste alde batetik, esan beharra dago oso desberdina dela emakume eta gizonen jokamoldea tratamendu-arloan: gizonak, kidetasunik gabe, erruz ez bada ere, aiseago lerratzen dira hiketara.

Goiko taulan ageri diren aurkakotasun guztietan —hirugarrena ez da baliagarria—, kidetasunarekin batera gora egiten du hiketaren agerpenak. Hala eta guztiz ere, kidetasunaren eragina nabariagoa da solaskideen artean mailaberdintasuna dagoenean (taulako azken lau aurkakotasunak) eta are nabariagoa bat ere eragozpenik edo trabarik ez dagoenean, bosgarren aurkakotasunean, alegia (%14tik %59,4ra igotzen da hitanoaren batez bestekoa).

Beraz, kidetasuna, hiketa eragiten duten aldagai funtsezkoetariko bat da. Baia eragingarri pisuzkoa baldin bada hiketarako, eza (kidetasunik eza), galga edo eragozpen garrantzitsua izaten da gehienetan *T* gerta dadin.

Bestalde, esan beharra dago kidetasunak eta kidetasunik ezak ez dutela asimetriarik sortarazten; aldagai honen ondorioz *T-T* edo *V-V* nagusitzen dira eta sekula ere ez *T-V*. Bestela ematen badu ere, goiko taulan ageri diren tratamenduzko asimetriak ez dira kidetasunak eragindakoak, bestelako aldagaien ondorio baizik. Hortaz, kidetasuna gorabehera, asimetriak ez dira leuntzen, hots, ez dirudi kidetasunaren eragina bestelako tratamenduzko asimetriak ezabarazteko lain denik.

### *3.3.2. Adiskidetasuna*

7.TAULA: ADISKIDETASUNAREN ERAGINA. ADISKIDETASUNAREN ARABERAKO AURKAKOTASUNAK

| ADISKIDETASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | EZ- | BAI+ | | |
| LANGILEA/NAGUSIA %19,6<--->%17,7 | | 1 (48) | 17 (52) LANGILEA/NAGUSI ADISKIDEA %58,5<--->%57,7 | | |
| V-V | T-T | T-V | V-V | T-T | T-V |
| %77 | %17,7 | %1,5 | %34 | %57 | %0,5 |
| X-X | X-T | X-V | X-X | X-T | X-V |
| %3,6 | — | — | %7,8 | %0,5 | — |

IRAKURBIDEA: <---> IKURRAREN EZKERREKO PORTZENTAIAK, ELKARRIZKETATUAK SOLASKIDEARENGANDIK JASOKO LUKEEN HIKAKO EMAITZA ADIERAZTEN DU; ETA ALDERANTZIZ, ESKUINEKOAK, BERAK BERE SOLASKIDEARI EMANGO LIOKEENA.

| ADISKIDETASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | EZ- | | BAI+ | |
| S# LANGILEA/NAGUSIA 3 (49)<br>%9,5<------->%5,9 | | | 19 (53) S# LANGILEA/NAGUSI ADIS.<br>%37,1<--->%30,1 | | |
| V-V<br>%86,2 | T-T<br>%3,5 | T-V<br>%3 | V-V<br>%52,7 | T-T<br>%23,3 | T-V<br>%8,6 |
| X-X<br>%3 | X-T<br>%3 | X-V<br>%1 | X-X<br>%5,4 | X-T<br>%8,6 | X-V<br>%1 |
| ETXEKOANDREA/NESKAME GAZTEA 5 (50) 21 (68) LANGILEA/NAGUSI GAZTEAGOA EZ DIRA PARKAGARRIAK | | | | | |
| S# NESKAME ZAHARRA/GIZONA 7 (51)<br>%1,6 (NOKA)<----->%19 (TOKA) | | | 23 (69) S# LANGILEA/NAGUSI GAZTEAG<br>%11,2 (NOKA)<--->%14,8 (TOKA) | | |
| V-V<br>%74,2 | T-T<br>%1,8 | T-V<br>%14,1 | V-V<br>%60 | T-T<br>%22,2 | T-V<br>%6,6 |
| X-X<br>%4,9 | X-T<br>%2,4 | X-V<br>%2,4 | X-X<br>%2,2 | X-T<br>%1,1 | X-V<br>%7,7 |
| KIDEAK 9 (58)<br>%59,6<--->%59,3 | | | 25 (70) KIDE ADISKIDEAK<br>%76,2<---->%77,7 | | |
| V-V<br>%31,2 | T-T<br>%59,4 | T-V<br>— | V-V<br>%15,7 | T-T<br>%76,3 | T-V<br>%0,5 |
| X-X<br>%9,1 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%7,3 | X-T<br>— | X-V<br>— |
| S# KIDEAK 11 (60)<br>%33,3<--->%30,8 | | | 27 (71) S# ADISKIDEAK<br>%52,7<--->%48,1 | | |
| V-V<br>%51,6 | T-T<br>%22,4 | T-V<br>%10,6 | V-V<br>%32,3 | T-T<br>%39,5 | T-V<br>%9,5 |
| X-X<br>%6,1 | X-T<br>%7,3 | X-V<br>%1,6 | X-X<br>%6,5 | X-T<br>%11,9 | X-V<br>— |

| ADISKIDETASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | EZ- | BAI+ | | |
| KIDE GAZTEAGOA/KIDEA 13 (61) %57,2<--->%29,9 | | | 29 (72) ADISKIDEA/ADISK.ZAHARRAG. %63,4<------>%43,1 | | |
| V-V %35,7 | T-T %31,2 | T-V %21,5 | V-V %27,4 | T-T %46,1 | T-V %16,7 |
| X-X %9 | X-T %1,1 | X-V %1,1 | X-X %7,1 | X-T %1,5 | X-V %1 |
| S# KIDE GAZTEAGOA/KIDEA 15 (62) %31,2<------->%15,1 | | | 31 (73) ADISKIDEA/ADISK. ZAHARRAG. %39,5<----->%18 | | |
| V-V %56,5 | T-T %10,8 | T-V %17,9 | V-V %47,4 | T-T %14,5 | T-V %21,7 |
| X-X %7 | X-T %3,2 | X-V %4,3 | X-X %6,7 | X-T %6,1 | X-V %3,3 |

Lankideen artean eta, adiskideak izan ez arren, maiz hika egiten bada ere (*T-T*=%59,4), ez dago bat ere dudarik adiskidetasunak hiketaren erabileran duen balio eragileaz. Are gehiago, esan daiteke adiskidetasuna dela hitanoaren bultzagarri edo eragingarririk garrantzizkoena. Izan ere, hikako maiztasunik altuenak adiskideen artean azaltzen dira.

Goiko taulan ikus daitekeenez, adiskidetasunaren ondorioz asko igotzen da hiketaren batez bestekoa aurkakotasun guztietan (hirugarrena ez da parekagarria). Oso nabarmena da hiketaren igoera nagusiarekiko harremanetan (7. taulako lehenengo bi aurkakotasunak, batik bat) eta are nabarmenagoa maila berdinekoen artean (7. taulako azken lau aurkakotasunak).

Familiaren esparrua alde batera uzten badugu, sexu bereko adiskideen artean beste inongo harremanetan baino maizago (%76 inguru) azaltzen da hitanoa, anaien artean (%83-86 inguru) eta senide batzuen artean baino neurri apalagoan, hala ere.

Lehen eta bosgarren aurkakotasunetako binakoetatik ondoriozta daitekeenez, adiskidetasunak ez du asimetriarik sortarazten. Tratamendua hautatzerakoan, adiskidetasunak asko leuntzen du mailazko, sexuzko eta adinezko desberdintasunen eragozpena, hala ere, ez da aski aipatu asimetriak orekatzeko. Hori dela eta, adiskidetasuna gorabehera, tratamenduzko asimetriak ez dira ezabatzen, ezta gutxiagorik ere. Oro har, asimetriari eusten zaio.

### 3.3.3. *Adina*

8. TAULA: ADINAREN ERAGINA. ADINAREN ARABERAKO AURKAKOTASUNAK

| ADINA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINTASUNA = | | | DESBERDINTASUNA # | | |
| LANGILEA/NAGUSIA 1 (48)<br>%2(noka)<---->%2 (noka) | | | 5 (50) ETXEKOANDREA/NESKAME GAZT.<br>%1,6<-------->%18 | | |
| V-V<br>%87,2 | T-T<br>%4,6 | T-V<br>— | V-V<br>%71,6 | T-T<br>%1,8 | T-V<br>%13,2 |
| X-X<br>%8,1 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%3,7 | X-T<br>%1,8 | X-V<br>%7,5 |
| GURASOAK/ZUZENDARIA 2 (54)<br>%0,4(noka)<-->%0 (noka) | | | 6 (56) NESKAMEA/ETXEKOANDRE GAZT.<br>%3,2<----->%1,6 | | |
| V-V<br>%99 | T-T<br>— | T-V<br>— | V-V<br>%93,3 | T-T<br>%1,6 | T-V<br>%1,6 |
| X-X<br>%1 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%3,8 | X-T<br>— | X-V<br>— |
| S# LANGILEA/NAGUSIA 3 (49)<br>%1(noka)<--->%2,9 (toka) | | | 7 (51) S# NESKAME ZAHARRA/GIZONA<br>%1,6<---------->%19 | | |
| V-V<br>%89,3 | T-T<br>%2,1 | T-V<br>%%2,1 | V-V<br>%74,2 | T-T<br>%1,8 | T-V<br>%14,1 |
| X-X<br>%4,2 | X-T<br>%1 | X-V<br>%1 | X-X<br>%4,9 | X-T<br>%2,4 | X-V<br>%2,4 |
| S# GURASOAK/ZUZENDARIA 4 (55)<br>%0,4(noka)<-->%0,4 (toka) | | | 8 (57) S# NESKAME ZAHARRA/GIZONA<br>%1,5<---------->%5,3 | | |
| V-V<br>%98 | T-T<br>%1 | T-V<br>— | V-V<br>%91,8 | T-T<br>%1 | T-V<br>%4,3 |
| X-X<br>%1 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%2,7 | X-T<br>— | X-V<br>— |

| ADINA | |
|---|---|
| BERDINTASUNA = | DESBERDINTASUNA # |
| KIDEAK 9 (58)<br>%59,6<---->%59,3<br>V-V %31,8 T-T %59,4 T-V —<br>X-X %9,1 X-T — X-V — | 13 (61) KIDEA/KIDE GAZTEAGOA<br>%29,9<----->%57,2<br>V-V %35,7 T-T %31,2 T-V %21,5<br>X-X %9 X-T %1,1 X-V %1,1 |
| EZEZAGUNAK 10 (63)<br>%14,4<---->%14,3<br>V-V %81 T-T %14 T-V —<br>X-X %5 X-T — X-V — | 14 (64) EZEZAGUNA/EZEZ. GAZTEAG.<br>%9,7<-------->%27,9<br>V-V %65,9 T-T %10,1 T-V %14,3<br>X-X %5,8 X-T %1,6 X-V %2,1 |
| S# KIDEAK 11 (60)<br>%33,3<--->%30,8<br>V-V %51,6 T-T %22,4 T-V %10,6<br>X-X %6,1 X-T %7,3 X-V %1,6 | 15 (62) S# KIDEA/KIDE GAZTEAGOA<br>%15,1<------>%31,2<br>V-V %56,5 T-T %10,8 T-V %17,9<br>X-X %7 X-T %3,2 X-V %4,3 |
| S# EZEZAGUNAK 12 (65)<br>%7,9<---->%6,1<br>V-V %87 T-T %3,7 T-V %2,1<br>X-X %3,7 X-T %1,6 X-V %1,6 | 16 (66) S# EZEZAGUNA/EZ. GAZTEAG.<br>%5,5<---------->%13,4<br>V-V %78,7 T-T %2,5 T-V %8,8<br>X-X %5,6 X-T %1,5 X-V %2,5 |

| ADINA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINTASUNA = | | | DESBERDINTASUNA # | | |
| LANGILEA/NAGUSI ADISKIDEA 17 (52) %58,5<----->%57,7 | | | 21 (68) LANGILE ZAHARRA/NAGUSI A. %50,2<---------->%56,7 | | |
| V-V %34 | T-T %57 | T-V %0,5 | V-V %36,6 | T-T %49,4 | T-V %3,8 |
| X-X %7,8 | X-T %0,5 | X-V — | X-X %7,7 | X-T %2,2 | X-V — |
| S# LANGILEA/NAGUSI ADISK. 19 (53) %37,1<----->%30,1 | | | 23 (69) S# LANGILE ZAHARRA/NAGUS. %28,1<------------>%26,1 | | |
| V-V %52,7 | T-T %23,3 | T-V %8,6 | V-V %58 | T-T %20,4 | T-V %6,4 |
| X-X %5,4 | X-T %8,6 | X-V %1 | X-X %8 | X-T %4,8 | X-V %2,1 |
| KIDE ADISKIDEAK 25 (70) %76,2<---->%77,7 | | | 29 (72) ADISKIDEA/ADIS. ZAHARRAG. %63,4<------>%43,1 | | |
| V-V %15,7 | T-T %76,3 | T-V %0,5 | V-V %27,4 | T-T %46,1 | T-V %16,7 |
| X-X %7,3 | X-T — | X-V — | X-X %7,1 | X-T %1,5 | X-V %1 |
| S# KIDE ADISKIDEAK 27 (71) %52,7<---->%48,1 | | | 31 (73) S# ADISKIDEA/AD. ZAHARRA %39,5<-------->%18 | | |
| V-V %32,3 | T-T %39,5 | T-V %9,5 | V-V %47,4 | T-T %14,5 | T-V %21,7 |
| X-X %6,5 | X-T %11,9 | X-V — | X-X %6,7 | X-T %6,1 | X-V %3,3 |

IRAKURBIDEA: <---> IKURRAREN EZKERREKO PORTZENTAIAK, ELKARRIZKETATUAK SOLASKIDEARENGANDIK JASOKO LUKEEN HIKAKO EMAITZA ADIERAZTEN DU; ETA ALDERANTZIZ, ESKUINEKOAK, BERAK BERE SOLASKIDEARI EMANGO LIOKEENA.

Esan liteke adin-berdintasunak hitanoaren alde jokatzen duela eta alderantziz, adin-desberdintasunak, oro har, kontra egiten duela. Oso nabaria da adinaren pisua zentzu bietan.

Goitik behera, adinezko nagusitasunak hikako emaitza altuagoak eragiten ditu ezezagunen artean (34, 64 eta 66. galderak) eta maila desberdinekoen artean (50 eta 51. galderak). Hala ere, ez da gauza bera gertatzen kide eta adiskideen artean (61, 62, 68, 72 eta 73. galderak); azken kasuotan, adinezko nagusitasuna gorabehera, ez du gora egiten hiketaren maiztasunak.

Behetik gora, adinezko azpikotasuna traba garbi eta galanta gertatzen da ia beti nagusiagoari *T* emateko. Goiko taulako azken zortzi aurkakotasunak konparatzea besterik ez dago, adinezko menpekotasunaren eragozpenaz jabetzeko. Zaharragokoari biziki gutxiago mintzatu ohi zaio hika, adin berdinekoari baino.

Begi bistan dago esandakoaren ondorioa: adin-desberdintasunak eragiten dituen tratamenduzko asimetrien ugaritasuna, hain zuzen ere. Adinezko nagusitasunak erraztu egiten du hiketaren erabilera eta adinezko gutxiagotasunak oztopatu. Geroago frogatuko denez, adin-desberdintasuna tratamenduzko asimetrien eragile garrantzitsuena da euskaraz.

### *3.3.4. Sexua*

9. TAULA: SEXUAREN ERAGINA. SEXUAREN ARABERAKO AURKAKOTASUNAK

| SEXUA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINA = | | | DESBERDINA # | | |
| LANGILEA/NAGUSIA 1(48) %19,6<----->%17,7 | | | 3(49) LANGILEA/NAGUSIA %9,5<----->%5,9 | | |
| V-V %77 | T-T %17,7 | T-V %1,5 | V-V %86,2 | T-T %3,5 | T-V %3 |
| X-X %3,6 | X-T — | X-V — | X-X %3 | X-T %3 | X-V %1 |
| KIDEAK 9(58) 59,6<-->%59,3 | | | 11(60) KIDEAK %33,3<-->%30,8 | | |
| V-V %31,3 | T-T %59,4 | T-V — | V-V %51,6 | T-T %22,4 | T-V %10,6 |
| X-X %9,1 | X-T — | X-V — | X-X %6,1 | X-T %7,3 | X-V %1,6 |
| LANGILEA/NAGUSI ADISKIDEA 17(52) %58,5<--->%57,7 | | | 19(53) LANGILEA/NAGUSI ADISKIDE %37,1<--->%30,1 | | |
| V-V %34 | T-T %57 | T-V %0,5 | V-V %52,7 | T-T %23,3 | T-V %8,6 |
| X-X %7,8 | X-T %0,5 | X-V — | X-X %5,4 | X-T %8,6 | X-V %1 |

| SEXUA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINA = | | | DESBERDINA # | | |
| KIDE ADISKIDEAK 25(70)<br>76,2<-->%77,7 | | | 27(71) KIDE ADISKIDEAK<br>%52,7<-->%48,1 | | |
| V-V<br>%15,7 | T-T<br>%76,3 | T-V<br>%0,5 | V-V<br>%32,3 | T-T<br>%39,5 | T-V<br>%9,5 |
| X-X<br>%7,3 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%6,5 | X-T<br>%11,9 | X-V<br>— |
| GURASOAK/ZUZENDARIA 2(54)<br>%4,4<---->%4,8 | | | 4(55) GURASOAK/ZUZENDARIA<br>%1,9<---->%2,4 | | |
| V-V<br>%95 | T-T<br>%4,4 | T-V<br>— | V-V<br>%96,5 | T-T<br>%1,4 | T-V<br>%0,5 |
| X-X<br>%0,5 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%1 | X-T<br>— | X-V<br>%0,5 |
| EZEZAGUNAK 10(63)<br>14,4<-->%14,3 | | | 12(65) EZEZAGUNAK<br>%7,9<-->%6,1 | | |
| V-V<br>%81 | T-T<br>%14 | T-V<br>— | V-V<br>%87 | T-T<br>%3,7 | T-V<br>%2,1 |
| X-X<br>%5 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%3,7 | X-T<br>%1,6 | X-V<br>%1,6 |
| ETXEKO ANDREA/NESKAME GAZTEA 5(50) 7(51) NESKAME ZAHARRA/GIZONA<br>EZ DIRA PAREKAGARRIAK | | | | | |
| KIDE/KIDE GAZTEAGOA 13(61)<br>%29,9<-->%57,2 | | | 15(62) KIDEA/KIDE GAZTEAGOA<br>%15,1<-->%31,2 | | |
| V-V<br>%35,7 | T-T<br>%31,2 | T-V<br>%21,5 | V-V<br>%56,5 | T-T<br>%10,8 | T-V<br>%17,9 |
| X-X<br>%9 | X-T<br>%1,1 | X-V<br>%1,1 | X-X<br>%7 | X-T<br>%3,2 | X-V<br>%4,3 |
| LANGILE ZAHAR./NAGUSI ADISK 21(68)<br>%50,2<----------->%56,7 | | | 23(69) LANGILE ZAHAR./NAGUSI AD<br>%28,1<----------->%26,1 | | |
| V-V<br>%36,6 | T-T<br>%49,4 | T-V<br>%3,8 | V-V<br>%58 | T-T<br>%20,4 | T-V<br>%6,4 |
| X-X<br>%7,7 | X-T<br>%2,2 | X-V<br>— | X-X<br>%8 | X-T<br>%4,8 | X-V<br>%2,1 |

| SEXUA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINA = | | | DESBERDINA # | | |
| ADISKIDEA/ADISK. ZAHARRAGOA 29(72) %63,4<--->%43,1 | | | 31(73) ADISKIDE/ADISK. ZAHARRAG. %39,4<----->%18 | | |
| V-V %27,4 | T-T %46,1 | T-V %16,7 | V-V %47,4 | T-T %14,5 | T-V %21,7 |
| X-X %7,1 | X-T %1,5 | X-V %1 | X-X %6,7 | X-T %6,1 | X-V %3,3 |
| NESKAME ZAHARRA/ETXEKOANDREA 6(56) 8(57) NESKAME ZAHARRA/GIZONA EZ DIRA PAREKAGARRIAK | | | | | |
| EZEZAGUNA/EZEZAGUN GAZTEAG. 14(64) %9,7<----->%27,9 | | | 16(66) EZEZAGUN/EZEZAG. GAZTEAG %5,5<---->%13,4 | | |
| V-V %65,9 | T-T %10,1 | T-V %14,3 | V-V %78,7 | T-T %2,5 | T-V %8,8 |
| X-X %5,8 | X-T %1,6 | X-V %2,1 | X-X %5,6 | X-T %1,5 | X-V %2,5 |

IRAKURBIDEA: <---> IKURRAREN EZKERREKO PORTZENTAIAK, ELKARRIZKETATUAK SOLASKIDEARENGANDIK JASOKO LUKEEN HIKAKO EMAITZA ADIERAZTEN DU; ETA ALDERANTZIZ, ESKUINEKOAK, BERAK BERE SOLASKIDEARI EMANGO LIOKEENA.

Taulako emaitzen arabera, sexu-desberdintasuna eragozgarri astuna izaten da gehienetan hitanoaren erabileran. Goiko aurkakotasun guztietan (parekagarriak ez direnak baztertuta) sexu-kidetasuna galtzearekin batera, nabarmenki egiten du behera hikako tratamenduak. Adinaz esandakoa errepika daiteke sexuaren eraginaz hitz egiterakoan: *T* maiz agertuko bada (eta are gehiago *T-T*), solaskideek sexu berekoak izan behar dute. Gure erakusgarriaren arabera, adibidez, sexu desberdineko adiskideen artean nahiko orekatuta dago *T-T* eta *V-V*-ren arteko lehia.

Bestalde, sexu-desberdintasuna tratamenduzko asimetrien eragile gertatzen da sarri —ikus bitez *T-V* portzentaiak maila berdinekoen artean—. Lehen aurreratu dugun bezala, sexuak eragindako asimetria emakumearen alde gertatu ohi da, hainbatetan gizona «beldur» baita emakumeari *T* esateko. Esate baterako, adiskideen artean neskak mutilari %29,9an hitz egiten omen dio hika, baina mutila neskari %13an bakarrik mintzatzen omen zaio noka (*T-V*= %10aren ingurukoa). Dena dela, honetaz luzeago eta sakonago jardungo dugu beste atal batzuetan (ik. VIII.2 eta IX.1).

### *3.3.5. Estatusa (maila)*

10. TAULA: ESTATUSAREN (MAILAREN) ERAGINA. ESTATUSAREN ARABERAKO AURKAKOTASUNAK

| MAILA (ESTATUSA) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINTASUNA= | | | DESBERDINTASUNA # | | |
| LANKIDEAK 9(58) | | | 1 (48) LANGILEA<NAGUSIA | | |
| %59,6<-->%59,3 | | | %19,6<--->%17,7 | | |
| V-V | T-T | T-V | V-V | T-T | T-V |
| %31,3 | %59,4 | — | %77 | %17,7 | %1,5 |
| X-X | X-T | X-V | X-X | X-T | X-V |
| %9,1 | — | — | %3,6 | — | — |
| EZEZAGUNAK 10(63) | | | 2(54) GURASOAK<ZUZENDARIA | | |
| %14,4<-->%14,3 | | | %4,4<---->%4,8 | | |
| V-V | T-T | T-V | V-V | T-T | T-V |
| %81 | %14 | — | %95 | %4,4 | — |
| X-X | X-T | X-V | X-X | X-T | X-V |
| %5 | — | — | %0,5 | — | — |
| S# KIDEAK 11(60) | | | 3(49) S# LANGILEA<NAGUSIA | | |
| %33,3<-->%30,8 | | | %9,5<---->%5,9 | | |
| V-V | T-T | T-V | V-V | T-T | T-V |
| %51,6 | %22,4 | %10,6 | %86,2 | %3,5 | %3 |
| X-X | X-T | X-V | X-X | X-T | X-V |
| %6,1 | %7,3 | %1,6 | %3 | %3 | %1 |
| S# EZEZAGUNAK 12(65) | | | 4(55) S# GURASOAK<ZUZENDARIA | | |
| %7,9<-->%6,1 | | | %1,9<---->%2,4 | | |
| V-V | T-T | T-V | V-V | T-T | T-V |
| %87 | %3,7 | %2,1 | %96,5 | %1,4 | %0,5 |
| X-X | X-T | X-V | X-X | X-T | X-V |
| %3,7 | %1,6 | %1,6 | %1 | — | %0,5 |

| MAILA (ESTATUSA) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINTASUNA= | | | DESBERDINTASUNA # | | |
| KIDE/KIDE GAZTEAGOA 13(61)<br>%5,8(noka)-%10,9(noka) | | | 5(50) ETXEKO ANDREA>NESKAME GAZT.<br>%1,6<----------->%18 | | |
| V-V<br>%58,2 | T-T<br>%13,9 | T-V<br>%10,1 | V-V<br>%71,6 | T-T<br>%1,8 | T-V<br>%13,2 |
| X-X<br>%17,7 | X-T<br>— | X-V<br>— | X-X<br>%3,7 | X-T<br>%1,8 | X-V<br>%7,5 |
| EZEZAGUNA/EZEZ. GAZTEAGOA 14(64)<br>%1(noka)<-->%3,5(noka) | | | 6(56) NESKAME ZAHAR.< ANDRE GAZT.<br>%1,6<----------->%3,2 | | |
| V-V<br>%75,9 | T-T<br>%2,4 | T-V<br>%2,4 | V-V<br>%93,3 | T-T<br>%1,6 | T-V<br>%1,1 |
| X-X<br>%13,2 | X-T<br>%1,2 | X-V<br>%4,8 | X-X<br>%3,8 | X-T<br>— | X-V<br>— |
| S# KIDE/KIDE GAZTEAGOA 15(62)<br>%5,2(noka)<--%20,8(toka) | | | 7(51)S#NESKAME ZAHARRA< GIZONA<br>%1,6<----------->%19 | | |
| V-V<br>%52,3 | T-T<br>%11,9 | T-V<br>%21,4 | V-V<br>%74,2 | T-T<br>%1,8 | T-V<br>%14,1 |
| X-X<br>%9,5 | X-T<br>%3,5 | X-V<br>%1,1 | X-X<br>%4,9 | X-T<br>%2,4 | X-V<br>%2,4 |
| EZEZAGUNA/EZEZ. GAZTEAGOA 16(66)<br>%0,5(noka)-%10,3(toka) | | | 8(57) NESKAME ZAHARRA< GIZONA<br>%1,5<-------->%5,3 | | |
| V-V<br>%78,2 | T-T<br>%1 | T-V<br>%11,9 | V-V<br>%91,8 | T-T<br>%1 | T-V<br>%4,3 |
| X-X<br>%6,5 | X-T<br>%2,1 | X-V<br>— | X-X<br>%2,7 | X-T<br>— | X-V<br>— |

| MAILA (ESTATUSA) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERDINTASUNA= | | | DESBERDINTASUNA # | | |
| KIDE ADISKIDEAK 25(70) %76,2<-->%77,7 | | | 17(52) LANGILEA<NAGUSI ADISKIDEA %58,5<----->%57,7 | | |
| V-V %15,7 | T-T %76,3 | T-V %0,5 | V-V %34 | T-T %57 | T-V %0,5 |
| X-X %7,3 | X-T — | X-V — | X-X %7,8 | X-T %0,5 | X-V — |
| S# KIDE ADISKIDEAK 27(71) %52,7<-->%48,1 | | | 19(53) S# LANGILEA<NAGUSI ADISK. %37,1<----->%30,1 | | |
| V-V %32,3 | T-T %39,5 | T-V %9,5 | V-V %52,7 | T-T %23,3 | T-V %8,6 |
| X-X %6,5 | X-T %11,9 | X-V — | X-X %5,4 | X-T %8,6 | X-V %1 |
| ADISKIDEA/ADISK. ZAHARRAG. 29(72) %63,4<--->%43,1 | | | 21(68) LANGILE ZAHARRA<NAGUSI AD. %50,2<---------->%56,7 | | |
| V-V %27,4 | T-T %46,1 | T-V %16,7 | V-V %36,6 | T-T %49,4 | T-V %3,8 |
| X-X %7,1 | X-T %1,5 | X-V %1 | X-X %7,7 | X-T %2,2 | X-V — |
| S#ADISKIDEA/ADISK. ZAHAR. 31(73) %39,5<----->%18 | | | 23(69)S#LANGILE ZAHAR.<NAGUSI AD. %28,1<---------->%26,1 | | |
| V-V %47,4 | T-T %14,5 | T-V %21,7 | V-V %58 | T-T %20,4 | T-V %6,4 |
| X-X %6,7 | X-T %6,1 | X-V %3,3 | X-X %8 | X-T %4,8 | X-V %2,1 |

IRAKURBIDEA: <---> IKURRAREN EZKERREKO PORTZENTAIAK, ELKARRIZKETATUAK SOLASKIDEARENGANDIK JASOKO LUKEEN HIKAKO EMAITZA ADIERAZTEN DU; ETA ALDERANTZIZ, ESKUINEKOAK, BERAK BERE SOLASKIDEARI EMANGO LIOKEENA.

Oro har, maila-desberdintasuna eragozpen handia da elkarrekiko *T* gerta dadin. Goiko taulako aurkako binakoetan ageri denez, maila berdinekoen aldean, mailazko diferentziak hitanozko portzentaien beheratzea dakar. Alegia, maila-kideen artean maizago gertatzen da *T-T*, menpekotasunezko harremanetan baino.

Hala eta guztiz ere, komeni da azpimarkatzea hitanoaren beherakada *V-*

*V* simetrikoaren mesedetan gertatzen dela. Hots, menpekotasuna ez da islatzen tratamenduan, nagusiak ez baitio hika sarriago egiten bere menpekoari, azken honek bere ugazabari baino. 48, 54, 52 eta 68.eko emaitzek frogatzen dutenez, sexu-desberdintasunari eta adin-desberdintasunari zor zaizkien asimetriak alde batera uzten badira, ez dago tratamenduzko desorekarik nagusiaren alde. Salbuespen bakarra, etxeko andre eta neskame gaztearen arteko harremanari dagokiona da (50.galdera); kasu horretan, etxeko andrearen aldeko asimetria garbia, neurri handi batean adinari zor zaio (alderatu 61.eko nokako emaitzekin) eta neurri apalagoan boterezko erlazioari. Hots, adinak eragindako asimetria (61), areagotu egin bide da maila-desberdintasunaren ondorioz.

Zalantzazko salbuespen horretatik aparte, menpekotasunezko harremanetan *T-T* nahiz *V-V* azaltzen dira, adiskidetasuna egon ezean (52 eta 68. galderak) bigarrena (*V-V*) nagusi izanik.

Beraz, gehienetan, maila-desberdintasunaren ondorioz ez da tratamenduzko asimetriarik sortzen euskaraz; alegia, adinezko desberdintasunak sarri kodetu arren, estatus edo mailazko desorekak normalean ez dira kodetzen tratamenduaren bidez.

## 4. BESTELAKO ALDAGAIAK: GIZARTE-TESTUINGURUA, EUSKALKIA, GAIA...

**75a- {GIZARTE-TESTUINGURUA} Jo dezagun zure lagun minari, zure adiskide on bati ama hil zaiola eta beraren hileta-elizkizunetara zoazela. Eliza-atarian aurkitzen duzu adiskidea. Nola hitz egiten diozu, edo nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 152<br>%77,5 | 11<br>%5,6 | 33<br>%16,8 | 196 | | 8 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

**75b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 143<br>%72,5 | 13<br>%6,5 | 41<br>%20,8 | 197 | | 7 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

Emaitzok lehen esandako zerbait baieztatzen digute, alegia, euskaraz tratamendua ohiturari dagoela lotua eta nekez apurtzen dela ondo errotutako

trataerazko usarioa. Hiletaren egoera horrek, bederen, ez dirudi eraginik bat ere duenik tratamenduaren hautaketan. 70.eko emaitza berdina (150ek hika lankide adiskideari) dugu orain. Beraz, tristura eta samintasun handiko testuinguru horretan lehengo neurri berdinean mintzatzen omen da hika euskalduna. Hizkuntzaren batzuetan *V*-ranzko aldaketa adierazgarria jazotzen omen da halako egoeretan; euskaraz, ordea, alderantziz gertatzen da eta une goibel horietan are arrazoi gehiagoz egiten zaio hika adiskideari, berarenganako hurbiltasuna erakustearren.

Edozein modutan ere, horrek ez du esan nahi euskaraz egoerak eta testuinguruak inolako eraginik ez dutenik. Izan ere, hitanoaren erabilera alde askotatik dago lotua testuinguruari.

Hasteko 46. galderan ikusitakoaren arabera, hiketa jatorriz bi solaskideren arteko kontua da; ondorioz, solasa taldean gertatuz gero, ikaragarri murrizten da hitanoa egiteko aukera. Entzulego-motak neurri handi batean baldintzatzen du lagunarteko tratamenduaren hautaketa eta taldeari mintzatuz, solaskidemultzoa sexu bereko adiskideez osaturik egon ezean, nekez azaltzen da hiketa.

Bestalde, 54.ean ikusi dugunez, hiketak ez du aukera handirik edo toki erosorik testuinguru formaletan; gizalegearen araberako formaltasuna derrigorrezkoa gertatzen den egoeretan (adibidez, guraso eta institutuko zuzendariaren arteko bileran) elkarrekiko begirunezko edo kortesiazko tratamendua (*V-V*) da aukerarik neutroen eta egokiena.

Ildo beretik, froga askorik eduki ez arren, senaz, taberna batean edo mendian hiketak beste inongo testuingurutan baino probabilitate handiagoa daukala iragar daiteke; tabernan eta mendian desberdintasunak ezabatuta bezala geratzen baitira eta inguruneak halako kidetasuna sortarazten baitu bertan batzen diren lagunen artean. Hitz batez esateko, testuinguruak zer esan handia dauka tratamendua hautatzerakoan.

**{EUSKALKIA-HIZKERA}**

**76a-Hika hitz egingo al zenioke zure auzokoa ez den adiskide bati?**

| *BAI* | *AGIAN* | *EZ* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| *190*<br>*%97,9* | *1*<br>*%0,5* | *3*<br>*%1,5* | *194* |

**76b-Hika hitz egingo al zenioke zure herrikoa ez den adiskide bati?**

| *BAI* | *AGIAN* | *EZ* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| *160*<br>*%82* | *13*<br>*%6,6* | *22*<br>*%11* | *195* |

**76c-Hika hitz egingo al zenioke zure euskalkikoa ez den adiskide bati?**

| *BAI* | *AGIAN* | *EZ* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| *144*<br>*%74,6* | *18*<br>*%9,3* | *31*<br>*%16* | *193* |

Aurrera baino lehen, ohar bat egin beharra daukagu goiko datuez. Galdera, balizko eran dago adierazita eta horregatik bildu dira hitanozko emaitza hain altuak. Erantzunok ondorengo zentzuan ulertu behar direlakoan gaude: lekukoak, praktikan bere adiskideekin hika aritzen dena izan dadin edo ez, bere ustea adierazten du hizkeraren edo muga dialektalen baldintzapenaz hitanoa erabiltzeko. Hortaz, auzokide, herrikide edo dialektokide ez den adiskidearekin hika arituko omen liratekeela erantzun dutenek esan nahiko lukete auzokidetasuna, herrikidetasuna edo dialektokidetasuna ez direla ezinbesteko baldintza hika egiteko.

Bistan denez, hizkerak badu eraginik tratamenduaren hautaketan. Hizkerazko urruntasun edo desberdintasuna handitu ahala, behera egiten du hiketaren maiztasunak. Nolanahi ere, oro har, euskalkizko desberdintasuna ez omen litzateke eragozpen larriegia, ez behintzat, adiskidearekiko hitanoa[19] (%74,6) eragozteko adinakoa. Gure emaitzen arabera, zenbaitentzat (%11-17,6) hiketa herrira mugatua legoke eta multzo handi samar batentzat (%16-25,3) euskalkira.

Emaitzok, neurri batean hizkuntzaren egoera normalizatugabearekin eta euskalkien arteko ulergarritasunaren arazoarekin zerikusia badute ere, hiketaren izaera markatuaren alde mintzo dira. Izan ere, zenbait euskaldunen ohituraren arabera, familiatik kanpo hiketak esparru mugatu-mugatua du; halako euskaldunek betiko lagunekin, txikitatik jostetan hazitakoekin, adineko edo gazteagoko adiskideekin baizik ez dute erabiltzen hitanoa.

**77- {«tratamenduaren negoziaketa»?} Jo dezagun zu fabrika baten jabea zarela eta zu baino dexente gazteagoko langile batek, berarekin konfiantza handia eduki gabe, hika egiten dizula. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 132<br>%73,7 | 4<br>%2,2 | 43<br>%24 | 179 | | 4 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

[19] Hitanoaren erabileran joera mimetiko nabaria dago. Horrela, adiskidea hika egiten duena baldin bada, hiketa simetrikoa nagusituko da; osterantzean, askotan *V-V* simetria nagusitzen da adiskideen artean.

Maila berdinekoen artean tratamendua nahiko gauza mimetikoa izaten da: «solaskidea nola aritzen den, norbera ere hala» izan ohi da legea. Galderan aurkezten den balizko kasu horretan jokaera horixe ageri da. Berriemaile gehienen arabera, solaskide gazteak nagusi adinekoa hikatzeko konfiantza hartu baldin badu, nagusia ere, adinez eta mailaz gainetik egonda, lagunarteko tratamenduari eutsi beharrean aurkitzen da. Gutxiengoak, hala ere, bestelako jokaera hartuko omen luke, *V*-ren bidez urruntasuna adieraziz bere solaskideari. Batera zein bestera jokatu, gaztearen ausardia ez da begi onez ikusia eta gaitzespen horren lekuko, berriemaile askoren joera zuzentzailea dugu: haietariko asko mintzalagun gazteari gizalegezko «zu» esanarazten ahaleginduko omen lirateke.

Gauzak horrela, bi ondorio nagusi atera daitezke goiko emaitzetatik: batetik, gehienetan estrategiazko jokaera ez da ausardiazko *T*-ri urruntasunezko *V*-z erantzutea, joera mimetikozko *T*-z ihardestea baizik; bestetik, aginpidea duenari bide dagokio konfiantzazko tratamendua ematea edo kentzea eta ez azpikoari.

**78- {IRITZIA} Jo dezagun zure adineko ezezagun batek hika egiten dizula. Zer deritzozu hika hitz egite horri?**

| *ONGI* | *GAIZKI* | *OSO GAIZKI* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| *140*<br>*%71,7* | *53*<br>*%27,1* | *2*<br>*%1* | *195* |

**79- {IRITZIA} Jo dezagun gazte ezezagun batek hika egiten dizula. Zer deritzozu?**

| *ONGI* | *GAIZKI* | *OSO GAIZKI* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| *87*<br>*%45* | *92*<br>*%47,6* | *14*<br>*%7,2* | *193* |

Galdera hauen helburua, balizko joera hikatzaile iraultzaileen aurrean gure lekukoek har zezaketen aldeko edo aurkako jarrera neurtzea zen. Gehienek (%71,7) hiketa adineko ezezagunarengandik ongi hartzen badute ere, ez da gauza bera gertatzen hiketa gazteagoko ezezagunengandik datorrenean. Orduan gehiengoak (%54,8) ez dio ondo irizten gaztearen joera hikatzaile ausartari.

Euskaraz *T-T* orokortzeko bidean jarriko lukeen tratamenduzko ohituren iraulketa, posibilitate aski urruna edo balizkoa izateaz gain, gaur-gaurkoz ez da gertagarria, oro har euskaldunak ez baitu begi onez ikusten —ez familiaren

esparruan, ezta etxetik kanpo ere— usarioekiko joera hankaz goratzailea. Gaur-gaurkoz ezin da ahaztu hitanoak *V*-ren aldean duen izaera markatua.

**80- {T-ranzko aldaketa, sinpatia? Alderatu 10. laukiarekin!} Jo dezagun pertsona berri bat ezagutzen duzula non edo non (afari batean edo), zure adineko eta sexukoa. Ezagutu eta berehala konturatzen zara begiko, gogoko duzula eta berak zu ere gogoko zaituela. Zuka hasi baldin bazarete, hikara lerratuko zinatekete?**

| *BAI* | *EZ* | *AGIAN* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 108<br>%52,6 | 83<br>%40,4 | 14<br>%6,8 | 205 |

Zalantzarik gabe, psikologiak badu eraginik tratamenduan. Ezagutu berriak izanda ere, izakeraz solaskideak elkarren antzekoak edo elkarrekin ondo moldatzen direnak baldin badira, orduan aiseago lerratzen dira hiztunak hiketara (ezezagunen artean %14koa zen hiketaren portzentaia, orain %52,6koa). Esan liteke solaskidea norberaren araberakoago eta probabilitate gehiago dagoela arinago hika egiteko.

Esanak esan, euskaldun-kopuru aski handi batentzat (%40,4-%47,2), zukatik hitanorako aldaketa ez da gauza samurra. Hauetako askoren arabera, ez da erraza goizetik gauera hika hastea, ezagutzak eta adiskidantzak bezala, hitanoak bere denbora behar baitu. Beste zenbaitek, ordea, hitanoa betiko adiskideentzat gordetzen dute, geroago egindako lagunekin hika nekez egiten dutela. Beraz, edozein kasutan ere, euskaraz aldemeneko erdaretan baino nekezagoa bide da *T*-ranzko aldaketa.

**81- {GAIA?} Jo dezagun zure adiskide batekin zaudela hizketan: zuen artean hika egiteko ohitura duzue. Aldatu egiten duzue tratamendua gaiaren arabera?**

| *BAI* | *EZ* | *AGIAN* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 4<br>%1,9 | 193<br>%96 | 4<br>%1,9 | 201 |

«Beti bat» izan ohi da tratamenduzko ohitura pertsona bakoitzarekin eta ohitura hau ez bide da aldatzen gaiagatik. Hortaz, salbuespenak salbuespen, ez dirudi euskaraz gaia aldagai garrantzitsua denik tratamendua aukeratzerakoan.

**82- {HI ---> ALOKUTIBOA} Adiskide batekin hika egiten ari zarela, ondo edo normal deritzozu ondoko esaldiari?:**

**«Zer edo zer badakik hik, baina nik gehiago dakit»**

| *ONDO* | *GAIZKI* | *OROTARA* |
|---|---|---|
| — | 206<br>%100 | 206 |

Berriemaile guztiek aho batez esandakoaren arabera, ez da zilegi «hi» izenordainak adizkeran sortarazten duen morfologiazko komunztadura aintzakotzat ez hartzea, hikako tratamenduari ez eustea esan nahiko bailuke komunztadurari ez ikusi egiteak. Solas-mailan hitano tratamendua hautatzeak nahitaez dakar aditz alokutiboen erabilera; hots, bigarren pertsona alokutiboa, bigarren pertsona argumentala bezalaxe islatu behar da aditzean[20]. *Hi*-ren aukera eta adizkera alokutiboena ezin askatuzko eran daude uztarturik euskaldun hikatzailearen gogoan.

**83- {TRATAMENDUARI EUTSI?} Hika egiten diozun adiskide batekin ari zarela, denbora guztian, kontu guztietarako hitanoa erabiltzen duzu?**

| *BAI* | *EZ* | *EZ BETI* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 185<br>%93,4 | — | 13<br>%6,5 | 198 |

Itxura batean ez da tratamenduzko gorabehera handirik egoten pertsona berarekin solasean aritzean. Tratamenduari eustea izaten omen da gehiengoaren (%93,4) jokabidea. Hala ere, badira baten batzuk (%6,5) hizketaldian zehar konturatu gabe edo arrazoi jakinik gabe tratamendua aldatzen dutenak.

**84a- {KLASE SOZIALA} Jo dezagun herriko «jauntxo edo handikien artean» (halakorik balego), edo herriko dirudunen artean adiskide bat duzula: zure sexukoa eta adinekoa da. Nola hitz egingo zenioke?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 156<br>%85,7 | 12<br>%6,5 | 14<br>%7,6 | 182 | | 5 | |

[20] Hala ere, susmoa dugu komunztadurazko hutsegiteak alokutiboan sarriago gertatzen direla, bigarren pertsona argumentala adizkeran islatzen denean baino.

**84b- Eta berak zuri?**

A) NORMALEAN B) Segun /

| *T** | *X** | *V** | *OROT.* | | *T/V* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 153<br>%84,5 | 13<br>%7,1 | 15<br>%8,2 | 181 | | 6 | |

T*=hika; X*=xuka (alok.+-); V*=eztabadaka, zuka, berorika.

Galdera hau agian ez da egokiena klase sozialaren eragina neurtzeko, adiskideen artean gizarte-mailazko eta ondasunezko desoreka handiak ezabatuta edo neutralizatuta bezala gera daitezkeelako. Beharbada, zerbait desberdinak izango ziratekeen emaitzak, baserri-jabe eta maizterraren arteko harremanaren adibidea jarri izan balitz; hala ere, hala jokatzera, gizarte-maila baino areago, estatusa edo maila egongo ziratekeen jokoan.

Dena dela, ez du ematen gaur egun gizarte-maila garrantzi handikoa denik tratamendua aukeratzeko. Ageri denez, adiskide arruntari bezainbeste edo gehiago egingo liokete hika adiskide aberatsari, berarengandik laguntzaren bat edo onuraren bat lortzearren dirudienez. Kontuan hartu behar da historikoki euskal gizartea ez dela izan bere barruan maila gehiegi bereiztekoa, alderantziz, nahiko gizarte berdinzalea izan dela esan daiteke. Hortaz, hitanoaren erabilerari bagagozkio, zerikusirik gutxi bide du gizarte-mailak euskaldunen artean eta egun agian inoiz baino gutxiago.

**85- Nori esaten diozu zuk «berori(ka)», edo (nortzuk) nori esaten diote «berori» zure herrian?**

NORK:
NORI:

*1. Abadeari* ..... *(53)*
*2. Apezpikuari* ..... *(9)*
*3. Medikuari* ..... *(26)*
*4. Albaiteroari* ..... *(12)*
*5. Abokatuari* ..... *(7)*
*6. Notarioari* ..... *(7)*
*7. Lehendakariari* ..... *(5)*
*8. Alkateari* ..... *(4)*
*9. Jende ikasiari edo letradunari* .. *(10)*
*10. Aiton-amona zahar-zaharrari* .. *(7)*
*11. Zahar-zaharrari* ..... *(8)*

Lehenengo eta behin, egungo egunean berorikako tratamendua inor gutxik erabiltzen duela esan beharra dago. Gure erakusgarriaren arabera, 210 lekukotatik 4k baino ez dute erabiltzen gaur tratamendu hau. Beraz, lehenengo ondorioa begien bistan dugu: hil zorian dago beroriketa.

Jakina denez, mugaz bestaldeko euskalkietan ez dute ezagutu ere egiten berorikako tratamendua eta alde honetan ezaguna bada ere, salbuespenak

salbuespen, galdutzat eman daiteke, zahar-zaharretatik kanpo ia-ia inork erabiltzen ez duelako.

Hortaz, goiko emaitza gehienak iraganari dagozkio, lekukoen haur- edo gazte-denborako gogorapenak, etxeko zaharragokoei entzundakoak edota herriko zahar-zaharrei ikusitakoak islatzen dizkigute.

Egungo erabilerari gagozkiola, berorika inori egitekotan apaizari egiten zaiola esan daiteke. Lehengo ohiturei jarraituz, zaharren batzuek oraindik ere berorika egiten diote apaizari, berau oso gaztea ez bada[21]. Hortik kanpo ez da bat ere normala beroriketa entzutea[22], gainerako jende goi-mailakoa edo begirune berezikoa sarri-askotan erdalduna izaten delako (mediku, abokatuak eta abar).

Iraganean araua bestelakoa izan zen itxura denez. Denbora asko ez dela —duela 25, 30, 40 edo 50 urte herrien arabera—, zabalagoa omen zen beroriketaren erabilerazko esparrua: hegoaldeko hainbat herritan orduan ugari zen apaizari ez ezik, mediku, albaitari eta, oro har, jende ikasiari ere (maisu eta karreradunari) berorika zuzentzen zitzaien jendea. Zenbait tokitan aitona-amonei eta are jende zahar-zaharrari ere berorika egiteko ohitura omen zegoen.

Berorikako harremanari, beste batzuei ez bezala, simetriarik eza dagokio. Hau da, ez dirudi elkarrekiko beroriketa posibilitate oso gertagarria denik; beroriketak errotik islatzen du berdintasunik eza edo asimetria, inoizko asimetriarik handiena, hain zuzen ere. Desberdintasun edo urruntasuna nabarmen-nabarmena da berorika mintzatzen zaion (zitzaion) apaizak[23] *T*-z erantzuten duenean (zuenean).

Ez da bat ere erraza jakitea aurreko garaietan beroriketa zenbateraino egon zen sustraituta eta gogo onez onartua euskal gizartean. Edozein kasutan ere, mende baten buruan ikaragarri murriztu da berorikako lehengo ohitura mailakatzailea, gure garaian tratamendua ia erabat galtzeraino. Desagertzerainoko bilakaera azkar hau ikusita, zalantza sortzen zaigu euskal gizartean beroriketak inoiz erro sakonak egin ote dituen eta ea ez ote den izan goitik (jauntxo eta elizgizonen eraginez, agian) bultzatutako usario berri eta erdi ezarria.

---

[21] Apaiz gaztea baldin bada, orduan eztabadaka arituko dira nagusiki. Banaka batzuen lekukotasunaren arabera, oraingo apaizarekin eztabadaka mintzatzen badira ere, duela gutxi arte berorika aritu izan dira umetatik ezagututako lehengo apaiz zaharrarekin.

[22] Hona hemen pasadizo bat beroriketaren egungo salbuespenezko izaeraren agergarri. Elorrioko emakume adineko batek harriduraz kontatu zidan beste emakume zaharrago bat berrogei urte inguruko alkate gazteari berorika zuzendu zitzaiola ekitaldi batean. Jokaera horri gehiegizkoagatik susmagarria iritzi zion, alegia, portaera lausengatzaile eta balakatzailetzat jo zuen. Kontuan hartu behar da alkateari ez dagokiola beste herritar nabarmen batzuei (apaiz, mediku eta jende ikasiari) zor zaien (zitzaien) trataerazko begirune apartekoa.

[23] Hala ere, apaizarekiko harremanean ikaragarri aldatu dira gauzak. Izan ere, gaur egun ez dira gutxi herriko apaiz gaztearekin toka aritzen direnak.

## 5. ALOKUTIBOAREN SINTAXIZKO DEBEKUAK

**91- {Alokutiboa galderazko perpausetan} Jo dezagun hika egiten diozun adiskide batekin zaudela eta galdera batzuk egin nahi dizkiozula. Nola esango zenioke zeure adiskideari...?**

a) Ha venido Mikel?/ Est-ce que Michel est venu?
b) Quién ha venido?/ Qui est venu?

**92- {Alokutiboa galderazkoetan} Mikel etorri duk? Nor etorri duk?...bezalakoak esaten dituzue?**

| *BAI* | *EZ* | *BATZUEK BAKARRIK* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 134<br>%64,4 | 70<br>%33,6 | 4<br>%1,9 | 208 |

Goiko taulako ezezko erantzun gehientsuenak (70etatik 66) eguzki aldeko euskalkietako berriemaileenak dira. Hortaz, aski banaketa dialektal garbia ageri da kontu honen inguruan. Gure erakusgarriaren arabera, ekialdeko behenafarrera eta zuberera salbuetsita, guztiz orokorra da alokutiboen erabilera galderazko perpausetan. Gauzak horrela, esan daiteke euskal literatura-tradizio landuena eta gaurko ahozko hizkera gehienak ez datozela bat adizkera alokutiboen sintaxizko puntu honetan.

**93- Eman euskaraz ondoko esaldiak, hitanoa erabiliz (adiskide batekin arituko bazina bezala):**

{Alokutiboa konpletiboetan: -LA}
*a) Ha dicho que vendrá tarde/Il a dit qu'il viendra tard.*

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 22<br>%10,5 | 186<br>%88,9 | 1<br>%0,4 | 209 |

{Alokutiboa konpletiboetan: -NIK, -N, LA}
*b) No creo que venga/ Je ne crois pas qu'il vienne.*

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 13<br>%6,3 | 193<br>%93,6 | — | 206 |

{Alokutiboa baldintzazkoetan: BA-}

*c) Si viene, quiero verle/ Si il vient je veux le voir.*

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 76<br>%36,5 | 130<br>%62,5 | 2<br>%0,9 | 208 |

{Alokutiboa denborazkoetan: -NEAN, -LARIK}

*d) Cuando venga, dile que me llame/ Quand il viendra, dit lui de m'appeler.*

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 20<br>%9,9 | 180<br>%89,1 | 2<br>%0,9 | 202 |

{Alokutiboa erlatibozkoetan:-N}

*e) El que ha llegado ahora es mi cuñado/ Celui qui est arrivé maintenant est mon beau-frère.*

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 26<br>%12,5 | 178<br>%85,9 | 3<br>%1,4 | 207 |

{Alokutiboa kausaletan: -lako/bait-}

*f) No ha venido porque no le han llamado/ Il n'est pas venu parce qu'Ils ne l'ont pas appelé.*

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 12<br>%6,1 | 178<br>%90,8 | 6<br>%3 | 196 |

{Alokutiboa zehar galderetan: -N, -NENTZ}

*g) No se si vendrá/ Je ne sais pas s'il viendra*

| *BAI* | *EZ* | *ZALANTZA* | *OROTARA* |
|---|---|---|---|
| 23<br>%11,1 | 183<br>%88,4 | 3<br>%1,4 | 207 |

Goiko emaitzetatik ondoriozta daitekeenez, adizkera alokutiboak sintaxizko debeku larria du: bigarren pertsona alokutiboa ez da islatzen menpeko perpausetako adizkera jokatuetan. Debeku honi gagozkiola, esan daiteke oro har bat datozela literatura-tradizioa eta egungo euskara mintzatua.

Gure datuen arabera, urrezko lege sintaktiko horren urratze edo hutsegiteak (%6-12ren ingurukoa perpaus-motaren arabera) mendebaldeko euskalkietako 45 urtez azpikoetan gertatzen dira nagusiki. Hortaz, gure ustez, halako kasuak arau nagusiarekiko desbideratze hutsak baino ez dira, gehienetan hiperzuzenketaz eta ezjakintasunez hedaturiko salbuespenak, alegia.

Esanak esan, bada kasu zalantzazko bat, *ba-* aurrizki baldintzazkoaz hornituriko perpausena, hain zuzen ere. Ekialdeko euskalkietan izan ezik, perpaus-moeta honetan maiz sartu ohi da adizkera alokutiboa. Erabilera okerra izan daiteke, baina ekialdeko behe-nafarrera eta zuberera alde batera utziz gero, maizegi (130etatik 75etan, %57,6an) gertatzen den «hutsegitea» izaten da, nolanahi ere. Maiztasunez gertatzen bada ere, joera berri hau hiperzuzenketaz zabaldutako kutsapentzat har liteke, sartaldeko euskalkietako zaharretan (45 urtetik gorakoetan) gehiengo garbiak (%76,3) ez baitu alokutiborik erabiltzen baldintzazkoetan.

## 6. ONDORIOAK

0) Euskaraz ez da bat ere ohizkoa pertsona berarekin tratamendu bat baino gehiago maiztasun berberaz erabiltzea; normalean tratamendu berbera erabili ohi da pertsona bakoitzarekin. Hau da, gorabehera handirik gabeko kontua izaten da tratamendu-aukerarena.

Gainera, euskal tratamendua sarritan ohiturazko zerbait izaten dela dirudi. Egiten den aukera egiten dela, hasierako hura bihurtzen da gero ohiturazko, «nola hasi hala segi» printzipioaren arabera.

Esanak esan, tratamendu-aldaketaren posibilitatea ez dago itxita, ezta gutxiago ere. Hala ere, noizbehinka gertatzen diren aldaketak gehienetan adierazkorrak izaten dira, aldarte edo testuinguru berezi baten ondorio, alegia.

Gure ikerketa honetan zeharka baizik ez dugu ematen halako erabilera ohiz kanpoko edo markatuen berri.

1) Oro har, familiaren esparruan beste inon baino maizago ager daiteke hiketa. Edozein kasutan ere, aurreko baieztapenaz ez dugu esan nahi familia barruan hiketa arau guztiz orokorra edo unibertsala denik, ezta gutxiagorik ere.

Hasteko, senide nagusiek gazteagokoei hika egiteko joera badute ere, hori ez da inondik inora arau orokorra, hiketaren maiztasuna kasurik onenean (semearekiko harremanean) %70ren ingurukoa baita eta alabaren kasuan %30ren ingurukoa. Hortaz, «goitik behera» ere hiketa ez da arau guztiz orokorra familian. Alderantzizko zentzuan, ordea, senide gazteak beren nagusiagoei

zuzentzerakoan, *V* (eztabada, zuka) eta xuka alokutiboa ia-ia derrigorrezkoak gertatzen dira. Beraz, tratamenduen erabileraren azterketa zentzu bakar batean egin beharrean, zentzu bietan egiten bada, hots, binakoetan oinarritzen baldin bagara, bistara ateratzen da aurreko baieztapenen ondorio garbia: familiaren esparruko tratamenduzko ohitura aski asimetrikoa da, gazteak nagusiagoari *V* esan beharra baitauka eta berarengandik *T* jasotzen baitu maiz. Beherago ikusiko denez, familian beste inon —familiatik kanpo— baino asimetria (*T-V, T-X, X-V*) gehiago gertatzen dira euskaraz.

Are gehiago, adin berdintsuko senideen artean beti tratamenduzko simetria nagusi (*T-T, V-V* edo *X-X*) ateratzen den arren, aski deigarria da sexuzko desberdintasunak eta adinezkoak eragiten dituzten asimetrien kopuru altu samarra (%13, %15,9 eta %22,2 ezkondu, ezkongai eta neba-arreben artean; %15,6 adin desberdineko anaien artean eta %27,3 adin desberdineko neba-arreben artean).

Edozein modutan ere, aipaturiko asimetriazko joera ez da erabatekoa edo orokorra, erdizkakoa baizik. Parekotasunean oinarritzen ez diren ahaidetasunezko harremanetan, oroz gain, seme, iloba mutil eta biloba mutilarekin nagusitzen den tratamenduzko berdintasunik eza (*T-V* eta *X-T*, batik bat) da azpimarkagarria. Hala ere, neskekin (alaba, iloba, biloba) eta suhi-errainarekin simetria gailentzen da; hots, noketaren erabilera urriagoaren ondorioz, neskekin *V-V* eta *X-X* aukera simetrikoak gailentzen dira asimetrikoen gainetik.

2) Euskaraz, mendebaldeko hizkuntza gehienetan ez bezala, *V-V* da legea ezkonduen artean. Hauen lehengo ohitura hikakoa baldin bazen, tratamenduaren aldetik ezkontza halako mugarria izan daiteke, ezkontzaz geroztik eta sarriaskotan ezkontza-atariaz geroztik elkarrekiko *V*-ra aldatu behar izaten baitute ezkongaiek. Legeak lege, han-hemenka ez dira falta *T-T* simetrikoaz edota *T-V* asimetrikoaz aritzen diren gune bakartuak, salbuespenak, alegia. Ezkonduei buruz aipatu «legea» ez da hain urrezkoa ezkongaien artean, senargai eta emaztegaien artean aiseago (%19,2) urratzen baita *V-V*-ren aldeko joera. Nolanahi ere, oso adierazgarria izan daiteke hurrengo konparazioa: senargai eta andregaiak gutxiago aritzen dira hika elkarren artean (%19,2), sexu desberdineko adiskideak beren artean baino (%39,5).

3) Iragarpenen arabera, hitanoa eta, zehatzago esateko, elkarrekiko hitanoa (*T-T*) haurrideen artean gerta omen daiteke beste inon baino gehiago. Euskarazko emaitzak, oro har, ildo horretatik doaz; hala ere, hikako maiztasuna oso desberdina da sexuaren arabera: %90,3 anaien kasuan (toka-toka), %48,6 neba-arrebenean (toka-noka) eta %49,4 ahizpen artean (noka-noka). Sexua kontuan hartzen baldin bada, portzentaiok, euskaraz gerta daitezkeen altuenak dira, adiskideen artekoak baino altuxeagoak, alegia. Datu erlatiboak eta konparaketa hasierako hipotesia sendotzera datoz, beraz.

Hala ere, goiko hikako portzentaiak erlatiboki altuenak badira ere, datu atsolutuak aztertzen baldin badira, konturatzen gara hitanozko emaitzak ez

direla altuegiak. Gainera, begi bistan geratzen da toketa eta noketa tratamenduen erabilera desberdina: tokako tratamenduak, guztiz orokorra ez bada ere (kasurik onenean, anaien artean, %90,3), bizitza zabala eta osasun ona dituen bitartean, nokakoak, askozaz ere bizitza makalago eta murritzagoa du (kasurik onenean, ahizpen artean, %49,4).

4) Familiaren barruan gaudela, lotura handiagoko eta lotura makalagoko senidetasunezko harremanak bereiz daitezke hitanoaren erabilerari begira. Goitik behera, adibidez, hika gehiago egiten zaie seme-alabei, biloba eta ilobei baino eta askozaz ere gutxiago suhi-errainei. Berdinen artean, adibidez, haurrideen artean biziki gehiago mintzatzen da hika, lehengusuen eta koinatuen artean baino.

Ematen du, beraz, senidetasun-mailak paper garrantzitsua bete dezakeela hitanoaren erabileran. Itxura denez, guraso eta seme-alabek osatutako familiagunean beste inon baino aiseago azaltzen da hitanoa eta alderantziz, ahaidetasun-mailan urrundu ahala, beherantz egiten bide du *T*-ren gertagarritasunak. Joera honek nahiko logikoa dirudi, senidetasunezko hurbiltasunak berezko kidetasunak eta adiskidetasunak sortarazten dituela kontuan hartzen bada.

5) Familiarteko esparruan adina, sexua eta ahaidetasun-maila ditugu bereizkuntzarik erabakigarrienak tratamenduaren hautaketari begira. Aipatu hiru aldagaien artean adinak berebiziko pisua du. Adinaren aldea, bereziki gazteagotasuna, traba larria izaten da hitanoa erabiltzeko, are ahaidetasun-mailaz berdinak direnen artean ere. Teorian adinaren eragozpena inon ezabatzekotan, anaien artean ezabatu beharko litzateke; hala ere, euskaraz anaitasunak ez du guztiz neutralizatzen adinaren eragozpena, anaia dexente zaharragokoarekin jaitsi egiten baita hikako portzentaia.

Familiartean adinak jokatzen duen paper garrantzitsua ikusita, familiatik kanpo ere adinezko nagusitasun nabarmenak hiketa berez lekarkeela pentsa liteke. Hala ere, gaztetxo ezezagunari helduak ez dio *T* ematen familiarteko gaztetxoari ematen dion erraztasunarekin. Hortaz, adinezko nagusitasun hutsa ez da aski hiketa nagusitzeko; kidetasuna, ezagutza edo familiartekotasuna ere ezinbestekoak dira goitik behera hitanozko joera gailen dadin.

Adin, sexu eta ahaidetasun-mailarekin batera, zenbaitetan harremanaren maiztasunak ere eragin handia izan dezake tratamenduan. Alegia, tratamenduak ez du zertan berdina izanik lehengusu guztiekin, iloba guztiekin edo koinatu guztiekin; ahaidetasun-maila beraren barruan egonda ere, harremanaren maiztasun eta nolakotasunaren arabera (harreman gehiagokoei *T* eta gutxiagokoei *V*), maiz aldatzen da tratamendua.

Bigarren maila batean, familiarteko erabilera arauz kanpoko, ezohizko eta markatuen berri eman nahi izanez gero, bestelako aldagai erdi psikologikoak aipatu behar lirateke, hala nola, izakera, osasuna, itxura, e.a. Era berean, ohizko tratamenduaren aurka altxatzen diren noizbehinkako hikako erabilera markatuak esplikatzeko, testuingurura jo beharra dago. Senar-emazte batzuek, adibidez,

normalean eztabadaka aritu arren, jai-giroan edo txantxetan hitanora jo dezakete solasari umorezko ikutua ematearren. Orobat, semearekin hika aritzen den amak *V*-ra jo lezake haserrealdi batean urruntasun psikologikoa adierazteko eta, alderantziz, eztabadaka aritzen dena une jakin batean hiketaz balia liteke lagunarteko kidetasuna edo hurbiltasun psikologikoa adierazteko. Hauek guztiok, adierazkortasuna bilatzen duten erabilera markatuak dira eta gure ikerketan zeharka baizik ez ditugu jaso.

6) Haurrekiko jokabidean ez dago batasunik tratamenduaren erabileraz. Askok txikitatik egingo omen lioke hika bere semeari; beste askok kozkortu artean ez lukete hitanorik erabiliko beren semearekin. Asmoak asmo, errealitatean *V* omen da gurasoen artean usario zabalduena hiruzpalau urteko seme txikiarekin aritzeko. Hiketa geroztik omen dator, haurra hazitakoan, gizonkeriak edo okerkeriak egiten hasterakoan. Salbuespen ugari duen ohitura honen arrazoia ez dago guztiz argi, baina edozein kasutan ere, herriko jende xehearen ustetan, haurraren ahotik hitanorik ez entzutearren egiten omen zaio eztabadaka edo zuka haur txikiari. Hots, arrazoi psiko-soziolinguistikoak omen dira hasiera batean gurasoak beren semearekin *V* erabiltzera bultzatzen dituztenak.

7) Espero zitekeenez, barne-bakarrizketan beste inon eta inoiz baino gehiago erabiltzen bide da hiketa: gizonen kasuan, anaien artean bezainbeste edo maizago eta emakumeenean, ahizpen artean baino dexente gehiago. Hala ere, beren buruarekin hika aritzen diren euskaldunentzat *T* ez da aukera bakarra, bakarrizketan hikako eta eztabadakako tratamenduak, biak, aukera logikoak direlako.

Bestalde, bada kontuan hartzeko moduko euskaldun-kopuru bat —emakumeen artean, bereziki—, bakarrizketaz landa hika noizbait egin arren, bere buruarekin hika mintzatzen ez dena. Datu hau nahiko harrigarria da eta agian hiketaren eta bereziki noketaren izaera markatuarekin du zerikusia.

Hortik aparte, bakarrizketan hika aritzen diren emakumeen artean noka da usarioa nor bere buruari mintzatzeko. Hau da, hiztuna bitan banatzen den bakarrizketa elkarrizketatuan nahitaez islatu behar da emakumearen sexua (*zer egin dun?*); emakumea noketa erabili beharrean gertatzen da, solaskide bere burua hartu duela eta bere buruari zuzentzen ari zaiola konturatzen den neurrian. Aitzitik, bakarrizketa den alegiazko elkarrizketan solaskidearen kontzientzia argirik ez baldin badago, hots, hiztun emakumea inori bereziki —ezta bere buruari ere— zuzendu gabe ari baldin bada, orduan toketa nagusitzen da bakarrizketan eta eztabada ere ez da ezinezkoa.

8) Animaliekin mintzatzeko hiketa da berezko tratamendua euskaldun hikatzailearentzat. Pertsonekin hika nekez edo kostata aritzen direnek ere, aise onartzen dute tratamendu hau animaliei zuzentzeko.

Bestalde, sexuaren araberako hautaketari bagagozkio, animalia emeekin erabilera arruntena eta zabalduena toketa denez gero, esan daiteke noketa dela tratamendu markatua toketaren aldean. Emetasuna ageri-agerian ez bada eta

berariaz azpimarkatu nahi ez bada, toketa da aukera seguruena eta ohizkoena animalia emeekin.

Edozein modutan, animaliei mintzatzeko ohizkoena *T* bada ere, zenbait euskaldun bi tratamenduez (*T* eta *V*) baliatzen dira bereizketa bitxi eta xelebreak ezarriz. Zenbaitetan, tokian tokiko gizarteko erabilerazko arauak animalien mundura mimetikoki islatuz edo beste irizpideren batez, animaliaren arabera *T* edo *V* erabiltzen da, lege finkoegirik gabe gehienetan. Beste zenbaitetan, bien arteko aukera adierazkortasunaren araberakoa izaten da, hiztunaren aldartearen araberakoa, adibidez, hitanoa umore txarrez eta *V* maitekiro edo aniamaliagandik zerbait ona eskuratzekotan.

9) Hiketa (euskararen gainerako tratamenduak bezala) berez eta jatorriz solaskide bakarrari mintzatzeko tratamendua izan arren, gaur egun guztiz hedatuta dago adizkera alokutiboen erabilera talde bati mintzatzeko. Erabilera hau berezi samarra da eta gramatikaren ikuspuntutik begiratuta, ez dirudi zuzenegia.

Berez, gramatikaz, bat baino gehiagori zuzentzerakoan, pluralean neutralizatuta geratzen da tratamenduen arteko aurkakotasuna, pluralean bigarren pertsonako izenordain bakarra (*zuek*) eta adizkera bakarra (*zarete*) baitauzka euskarak. Hala eta guztiz ere, gramatikalki kontraesana bada ere, adizkera alokutiboen bidez posible da adieraztea zein tratamenduri loturik ari den burutzen jarduna. Talde bati zuzendutako jardunean ezagun da hika ari dela hiztuna, ez pertsona-izenordainengatik (*ni, zuek, gu...*), ezta bigarren pertsona argumentala islatzen duten adizkerengatik (*zarete, duzue, dakizue...*) ere, adizkera alokutiboengatik baizik (*izan nauk, joan nauk, ikusi diat...*). Jende aurreko hikako solasetan, alokutiboa ez da komunztadurazko gertakari gramatikal hutsa (gramatikaz ezkontezinak baitira entzule-aniztasuna eta alokutiboak islatzen duen bigarren pertsona singularra), solas-mailan egiten den tratamendu-hautaketaren agergarria baizik.

10) Oro har, familiaz kanpoko gizarteko harremanetan hitanoa tratamendu markatua da, V-ren aldean ozta-ozta erabiltzen da eta. Beti ere, euskaldun hikatzaileek osatzen duten gutxiengoari gagozkiola, ondoko datu orokorrak azpimarka daitezke.

Elkarrekiko hitanoak (*T-T*), sexu bereko adiskide adinkideen artean du azaltzeko probabilitaterik handiena (%76,3 inguru). Adiskidetasuna garrantzi handikoa da, maila desberdineko, sexu desberdineko eta adin desberdineko adiskideen artean eta are batera mailaz eta adinez kidekoak ez diren adiskideen artean *T-T* izaten baita aukera nagusiena. Lankide eta ikaskideen artean ere *T-T* erabiltzen da nagusiki (%59,4 inguru), baldin sexukide eta adinkideak badira.

Bestela, maila eta sexuzko diferentziak batera daudenean edota adin eta sexuzko desberdintasunak batzen direnean *T-T* aukera ateratzen da galtzaile *V-V*-ren aurka eta zer esanik ez, gauza bera jazotzen da maila, adin eta

sexuzko desberdintasunak batera daudenean. Adibidez, adiskideak sexu-desberdinekoak izatera, hitanoak nabarmenki egiten du behera, emaitzak *T-T, V-V* eta *T-V* aukeren artean banatzen eta zatikatzen direlako. Hortaz, aipatu bi kasuez landa (kide eta adiskideez landa), ez da bat ere ohizkoa hiketa simetrikoa.

Gizarteko harremanetan, familiakoetan ez bezala, tratamenduzko asimetria ez da sekula nagusitzen aukera simetrikoen gainetik. Gizarteko harremanetan, adinezko nagusitasunak eragindako *T-V* erabilera asimetrikoak behin ere ez du lortzen familiaren eremuko nagusitasun garbia *V-V* aukeraren gainetik. Familia barruan mutilekiko harremanetan *T-V* aukera *V-V* baino biziki maizago gauzatzen den bitartean, familiatik kanpo aurki daitekeen asimetriarik handiena —mutiko kozkorrarekikoa— ez da hain nabaria, orduan ere *V-V*, *T-V* baino maizago gertatzen baita. Bestalde, mailazko berdintasunik ezak ez du tratamenduzko asimetriarik eragiten.

Ondorio gisa, euskal gizarteko harreman gehienetan (adiskide eta kideen artekoetan eta agian besteren batean izan ezik) kortesiazko tratamendu simetrikoa (*V-V*) jaun eta jabe dela esan dezakegu.

Adibidez, adiskidetasunezko lotura eduki ezik, sexu eta adin bereko langile eta nagusiaren arteko harremanak nagusiki (*V-V*=%77) *V* simetrikoaz gauzatu ohi dira; era berean, ezagutzak egiten dituzten ezezagunen artean *V-V* nagusitu ohi da (%81). Eta egoera formaletan zer esanik ez, hitanoak ez du ia-ia tokirik horrelakoetan; esate baterako, aita-ama baten eta institutuko zuzendariaren arteko bileraren kasuan (*V-V*= %95) edo bere nagusia izango dena (etxeko andre nahiz etxeko gizon gaztea) ezagutzen duen neskame zaharrarenean (*V-V*, %93,3 eta %91,8). Salbuespenak salbuespen eta asimetria posibleak gorabehera, gauza bera esan liteke ikasle eta maisuaren arteko harremanaz, apaizarekikoaz, jatetxeko bezeroaren eta zerbitzariaren artekoaz (*V-V*= %85,3), etxeko andre eta neskame gaztearen artekoaz (*V-V*= %71,6) edota neskame zaharraren eta etxeko gizon gaztearen artekoaz (*V-V*= %74,2). Aipaturiko kasu guztiotan, hiztunak sexu desberdinekoak izatera, areagotu egiten da *V-V* eta *T-V* aukeren gertagarritasuna eta murriztu, erabat, hitanoarena (*T-T*). Orobat, ezezagunen artean, are adinaren alde nabarmenena egonda ere, joera *V-V* nagusitzekoa da (%65,9, hamar-hamabost urte gazteagokoari mintzatzerakoan eta %50,4 mutiko kozkorrari zuzentzerakoan).

Hitanoa tratamendu markatua baldin bada, are markatuago gertatzen da beroriketa. Mugaz bestaldean ezezaguna den tratamendu hau ongi ezagut ezin dezakegun iraganaren aztarnatzat har daiteke, hain da hilzorizkoa bere gaurko egoera. Galdutzat eman daiteke, zahar-zahar batzuetatik kanpo inor gutxik erabiltzen duelako. Salbuespenak salbuespen, gaur egun, apaizarekin baino ez da erabiltzen, baina duela zenbait hamarkada zabalagoa izan omen zen bere eremua (mediku, albaitari, maisu eta gainerako jende ikasiak osatua). Beroriketak, euskararen gainontzeko tratamendu guztiek ez bezala, nahitaez islatzen du mailazko menpekotasuna, beroriketa simetrikoa ez baita aukera erreala edo gertagarria. Tratamendu honi asimetria dagokio, inoizko asimetriarik handiena,

hain zuzen ere. Bere iraganaz ezer gutxi dakigun arren, azken mende honetako galtze-bilakaera azkarra ikusita, zalantza sortzen zaigu ea beroriketak inoiz erro sakonak izan dituen euskal gizartean eta ea ez ote den izan goitik (jauntxo eta elizgizonek) bultzatutako usario berri eta erdi ezarria.

11) Familiaren eremutik at, honako hauek dira tratamenduaren erabilera ohizko, neutro edo markatugabea baldintzatzen duten aldagai nagusiak: kidetasuna, adiskidetasuna, adina, sexua eta maila.

Oro har, gutxi dira kidetasunik gabe hika aritzen diren euskaldunak, kidetasuna ezinbesteko baldintza baita elkarrekiko hitanoa (*T-T*) maiz (*V-V* baino maizago) gerta dadin. Elkarrekiko harremana —berau lanekoa, auzokoa, herrikoa edo jolasekoa izan dadin— aski izaten da berdinen artean, adiskidetasunik gabe ere, hitano simetrikoa maiz jazotzeko. Lankidetasuna, auzokidetasuna, herrikidetasuna eta jolaskidetasuna, besteak beste, *T-T*-ren bultzagarri izaten dira sarritan eta are sarriago, aspaldidanikako edo betidanikakoak baldin badira. Honek guztiak esan nahi du hurbiltasun psikologikoa, elkarrenganako estimua edo adiskidetasuna ez direla baitezpadako baldintzak hitanorako, guztiz lagungarri gertatzen badira ere. Kidetasunak hitano simetrikorantz (*T-T*) bultzatzen baldin badu, kidetasunik ezak ez du asimetriarik (*T-V*) eragiten, elkarrekiko kortesia (*V-V*) baizik.

Kideen artean hiketa sarri jazotzen bada, adiskideen artean inoiz baino sarriago azaltzen da. Hortaz, kidetasunarekin batera, adiskidetasuna hiketaren eragile garrantzitsuenetariko bat da, garrantzitsuena ez bada. Adiskidetasunak, kidetasunak bezalaxe, simetriak (*T-T*, bereziki) sortarazten ditu eta sekula ez asimetriarik. Hala ere, familian bezala, hitanoaren aldeko baldintza guztiak bete direlarik ere, ez da guztiz segurua hikako tratamendua; alegia, adiskidetasunak ez dakar beti eta nahitaez hitanoa.

Azpimarkatzekoa da kidetasunak eta adiskidetasunak *T-T* aukeraren alde izan dezaketen eragina ez dela albo-hizkuntzetakoa bezain nabaria, ez baita adinaren eta sexuaren ondoriozko asimetriak erabat berdintzeko edo ezabatzeko lain.

Tratamenduari begira, adina funtsezko aldagaia gertatzen da euskaraz. Azken batean, kidetasuna eta adiskidetasuna neurri handi batean adinari lotuak azaltzen zaizkigu: kideak normalean adinkideak izan ohi dira eta etimologiaren arabera adiskideak ere bai, «adinez kideak», alegia. Adinkidetasuna ez da izaten aski *T-T* nagusitzeko eta gehienez ere, hitano elkarrekikoaren gutxienezko baldintzen artean aipatu beharra dago. Adin-desberdintasunak, ordea, *T-T* aukeraren aurka jokatzen du, zenbaitetan tratamenduzko asimetriak sortaraz ditzakeela. Oro har, adinezko nagusitasunak erraztu egiten du hitanoaren erabilera eta gazteagotasunak oztopatu. Ondorio garbia asimetriaren posibilitatea da; posibilitate nahiko urria, nolanahi ere, familiaren esparrukoarekin alderatzen badugu.

*T-T* maiz gertatuko bada, sexukidetasuna egon behar du. Sexuzko desberdintasunak garbiro jokatzen du elkarrekiko hitanoaren aurka eta *V-V*/*T-V*

soluzioen alde; horrela, kasurik onenean, sexukide ez diren adiskideen artean lagunarteko tratamendua (*T-T*= %39,5) eta kortesiazkoa (*V-V*= %32,3) nahiko parekatuta geratzen dira. Beraz, oro har sexuzko desberdintasuna *T-T* aukeraren eragozgarri galanta izaten da. Bestalde, ondorengo atal batean hobeto ikusiko denez, toketa eta noketa tratamenduen bizitza eta erabilera erabat bestelakoak dira. Toketak askoz ere bizitza eta eremu oparoagoak dauzka, noketak baino eta ondorioz, sarritan gertatzen dira asimetriak (*T-V, T-X*) emakumearen alde, are neba-arreben eta adiskideen artean ere.

Mailak ere bere garrantzia dauka. Aski ez bada ere, mailazko parekotasuna nahitaezkoa da *T-T* maiztasun handiz azal dadin eta alderantziz, mailazko desberdintasunak elkarrekiko hiketaren aurka jokatzen du. Hala ere, nagusitasuna eta menpekotasuna normalean ez dira kodetzen *T-V* asimetriaren bidez. Alegia, adinak eta sexuak ez bezala, mailak ez du asimetria narbarmenik eragiten, mailazko desberdintasunaren aurrean gehienetan *V-V* nagusitzen da eta.

Maila edo estatusa garrantzitsua bada ere, ezin esan daiteke gauza bera klase sozialaz edo klase sozioekonomikoaz; historikoki euskal gizartea ez da izan hierarkiazalea eta egun, agian, are inoiz baino gutxiago. Ondorioz, tratamenduak ez dira bereizten solaskidearen ondasunen, jatorri prestuaren edo leinu argiaren arabera, berarekiko menpekotasunezko edo berdintasunezko harremanaren (maila edo estatusaren) arabera baizik. Alde horretatik, esan daiteke euskal gizartea gizarte tradiziozalea dela, jaiotzezko ezaugarriak (adina, sexua, etab.), erdietsitako ezaugarriak (jakintza, ondasunak, lanbidea, maila...) baino pisudunagoak direlako (ik. Brown and Ford, 1961:377).

12) Aipaturiko bost aldagai nagusiez gain, badira kontuan hartu beharreko bestelako aldagai eta bereizgarri pisuzkoak.

Lehenengo eta behin, testuingurua aipatu behar da. Euskaraz tratamendua, erabileraren erabileraz errotutako ohitura den neurrian, nekez aldatzen da testuinguruagatik. Hala ere, oso kontuan hartu behar da nortzuen aurrean burutzen den solasaldia, entzulego-motak neurri handi batean baldintzatzen du tratamendua eta. Talde baten aurrean mintzatzerakoan nekez agertuko da hitanorik, taldekide guztiekin bakarka hika aritu ezik. Bestalde, tartean ohituraren indarra ez baldin bada, asko igartzen da testuinguruaren eragina. Harreman baten hasieran, esate baterako, egoera formalek ez dute inolako biderik ematen hitanorako; aitzitik, erabat oztopatzen dute lagunarteko tratamenduaren aukera. Zenbait egoeratan eta lekutan alderantziz gertatzen da; mendian eta tabernan, adibidez, agian beste inon baino berezkoago eta egokiago gauzatzen da *T-T*, tokiak desberdintasunak ezabatu eta kidetasunak sortarazten baititu.

Hizkuntzazko urruntasunak eta jatorriak eragin meharra omen dute tratamenduaren gain. Hala ere, kontuan hartzeko moduko gutxiengo batek (%11-%17,6) bere herrira mugatzen du hitanoaren erabilera eta beste multzo handiago batek (%16-%25,3) bere euskalkira. Ez da erraza jakitea mugatze horien zioa,

hala ere, pentsatzekoa da bietariko arrazoiak egon daitezkeela kanpotarrekin hiketa ez erabiltzeko: alde batetik, hiketaren ikuspegi meharregia, betidaniko ezagun eta kideei mugatua; eta beste alde batetik, hizkuntzazko arrazoiak, urruntasun dialektala, alegia.

Aipatuez gain, tratamenduen erabileraren berri emateko, oso garrantzitsua da joera mimetikoa kontuan hartzea[24]. Mimesizko joera zentzu bitan gertatzen da: batzuetan ezohizko edo ausardiazko hitanoari berdin erantzutearren sortzen da *T-T*, biziki gazteagokoaren ausardiari erantzunez edota kideko ezezagunaren joera hikatzaileari erantzunez; beste batzuetan, alderantziz jazotzen da eta, adibidez, adiskideetariko bata, hika mintzatzen ez dakiena edo hala aritzen ez dena baldin bada, *V-V* nagusituko da asimetria faltsu baten desegokitasuna saihestearren.

Psikologiak ere badu eraginik. Begikotasunak, gogaidetasunak eta izakera-berdintasunak elkarrekiko hitanorantz bultzatzen bide dute: solaskidea norberaren araberakoago eta probabilitate gehiago dago *T-T* azal dadin. Gainera, kidetasun psikologikoaren ondorioz azkarrago (afari batean, adibidez, ordu batzuen buruan) gerta daiteke hitanoranzko (*T-T*) aldaketa ezagutu berrien artean.

Tratamendu-aldaketari gagozkiola, lehendabizi, aldaketaren zailtasuna azpimarkatu behar dugu. Ezagutu berriarekin euskaraz ez da aldameneko erdaretan bezain azkar aldatzen lagunarteko tratamendura. Batzuek, elkar ondo ezagutzeko adinako denbora (aski denbora luzea) behar izaten dute hitanora jotzeko eta beste batzuek, sekula ere ez omen dute hika egiten adiskide berriekin. Edozein kasutan ere, beste hizkuntza batzuen aldean, euskaraz *T*-ranzko berezko aldaketa ez bide da hain erraza eta berehalakoa. Bestalde, ez dirudi hizketagaiak tratamendu-aldaketarik eragiten duenik.

13) Singularreko bigarren pertsonako izenordainaren (*hi*) hautaketak nahitaez dakar komunztadura morfologikoa menpekoak ez diren adierazpen-perpausetako aditz jokatuan, komunztadura bikoitza, ekarri ere. Horrek esan nahi du bigarren pertsona alokutiboa adizkeran islatu behar dela, bigarren pertsona argumentala islatzen den bezalaxe. *Hi* izenordainaren aukera eta adizkera alokutiboena ezin askatuzko eran daude loturik euskaldun hikatzailearen gogoan. Hikako tratamenduak (gainerako tratamendu alokutiboek bezala) horixe du bereizgarri, beste hizkuntzetako tratamenduen aldean: aditz jokatuko komunztadura bikoitza.

Aditz alokutiboak badu sintaxizko urrezko arau bat, menpekoak ez diren adierazpen-perpausetan soilik erabiltzen da literatura-tradizio landuan. Oro har, gaurko euskara mintzatuan ere halaxe gertatzen da; salbuespen batez, hala ere. Galderazko perpausetan alokutiboa erabiltzeko joera dago euskalki gehiene-

[24] Ekialdeko behe-nafarrerazko hiztun zenbaitek solaskide kanpotarrekin alokutiboa (xuka nahiz zuka) baztertzeko eta eztabadara jotzeko duten ohituran (infra X. kapt.) beharbada bi aldagaiok dute eragina: joera mimetikoak eta urruntasun dialektalak.

tan, eguzki aldekoetan izan ezik (behe-nafarreran eta zubereran). Gainerakoan, salbuespenak salbuespen, bete egiten da sintaxizko arau edo debekua, menpeko perpausetan ez baita adizkera alokutiborik sartzen. Baldintzazkoetan, hala ere, sarritan urratzen da aipatu legea, gazteen artean batik bat (45 urtez beherakoetan).

14) Beraz, iraganean boterezko berdintasunik eza kodetzeko joera (*T-V*) egun baino askoz handiagoa izan zela onartuz gero, ia-ia bere osotasunean postula daiteke gaur egungo euskararentzat R. Brown eta A. Gilmanen lehen hipotesi diakronikoa (cf. I.1): familiatik kanpo garbiro ageri da *V-V* simetrikoranzko joera; eta familiaren eremuan «boterezko semantika» deiturikoaren aztarnak ugari diren arren —ugariegiak inguruko hizkuntzetakoen aldean—, boterezko asimetriak tratamenduaren bidez (*T-V*) kodetzeko uzkurtasuna, edo hobeto esan, *V-V*-ranzko joera garbia ikusten da neskekiko harremanetan (alaba, iloba eta biloba neskak).

15) Behin simetriazko *V-V* zabaldu eta orokortuta, joera sartaldeko hizkuntzetan *T-T*-rantz dela defenditzen duen bigarren hipotesiari dagokionez (cf. infra. I.1), esan beharra dago, salbuespenak salbuespen, gaurko euskaran ez dela somatzen horrelako bilakaerarik. Gaurko euskaran, maiztasunezko hitano simetrikoa aukera berezi eta markatua da, senidetasunezko harreman jakin batzuetara (haurrideak, lehengusuak eta koinatuak) eta adiskide eta kideen arteko harremanetara mugatua; eta edozein kasutan ere, zalantzaren aurrean *V-V* izaten da aukerarik ohizkoen eta seguruena. Bestalde, sexuzko eta adinezko desberdintasunek, asimetrien eragileak diren neurrian, elkarrekiko hitanoaren aurka eta *V-V* aukeraren alde joka dezakete etorkizunean. Hitz batez esateko, ez dirudi inola ere *T-T* orokortzeko bidean dagoenik. Gainera, bildutako iritzien arabera, gaur-gaurkoz ez dirudi euskaldun hikatzaileak begi onez ikusiko lukeenik —familiartean, behinik behin— *T* simetrikoranzko aldaketarik. Are gutxiago, euskaldun guztiak gogoan hartzen badira, orduan joera garbi-garbia somatzen baita kortesiazko tratamendu elkarrekikoa (*V-V*) orokortzeko.

# VI. TRATAMENDU BAKOITZAREN EREMUA

Kapitulu honetan tratamenduek ezartzen dituzten isoglosez arituko gara, hots, tratamendu bakoitzaren mugarriez eta hauen araberako eremu geografiko dialektalez, oraingoz erabilerari gehiegi erreparatu gabe. Hortaz, tratamenduen zeregin sozialaren edo erabileraren araberako eremuak zirriborratzea eta tratamendu-sistema dialektalak azaltzea geroko uzten dugu (infra X. kapt.).

Tratamenduek, euskalkien arteko mugarri garbiak ezartzen lagun diezaguketen neurrian, garrantzi handia hartu zuten euskal dialektologiaren barruan, batik bat, Bonaparte printzeak burutu eta oraindik ere baliagarri gertatzen zaigun euskalkien sailkapenean. Jakina, tratamendu guztien artetik, batzuek (zuka eta xuka alokutiboak) baino ez dute balio bereizgarria dialektologiaren ikuspuntutik; gainerako tratamenduak, edo hil aginean daude dagoeneko (beroriketa) edo bestela, ez dira bereizgarri erabilgarriak dialektoen eremuak finkatzeko (toketa-noketa). Bestalde, euskara guztien oinarrizko tratamendutzat jo ohi den eztabadaren erabilpen edo erabilpenik eza ere ez da irizpide guztiz baztergarria, sortaldeko dialektoen barnean azpieuskalkiak edota hizkerak bereizteko egokia gertatu izan baita. Azpiatal honetan tratamendu bakoitzaren hedadurak zirriborratzen dituen eremu desberdinak zedarritzen saiatuko gara. Gaia agortzeko inolako asmorik gabe bada ere, esan dezagun zerbait hiketaren lurraldez lurraldeko bizitzaz.

## 1. HIKETA

Jakina denez, hiketa euskararen eremu osoan barrena hedaturik dago; hortaz, gaurkoz inongo euskararen bereizgarria ez den heinean, hiketaren erabilera ez da irizpide oso erabilgarria dialektologiarako. Hala eta guztiz ere, hiketa Euskal Herri osoko tratamendua izan arren, egun, tamalez, ez da euskal herri guztietakoa eta ez dauka bizitza berdina eskualde guztietan, ezta gutxiagorik ere. Izan ere, badira han-hemenka hutsarte batzuk hiketaren eremuan.

Bizkai aldean, esate baterako, lagunarteko tratamendua ia-ia arras galdua dago itsasaldeko herrietan eta biziago eta osasuntsuago irauten du barrualdeko hizkeretan (Markina aldean —Markina, Etxebarri, Bolibar, Barinaga, Ziortza, Munitibar, Aulestia—, Durangaldean —Elorrio, Atxondo harana—, Arratian —Zeanuri, Dima, Igorre, Larrabetzu—, Orozkoko auzoetan, Zeberion, Otxandion eta zer esanik ez, Gipuzkoako bizkaieraren eremuan). Domingo Agirrez geroztik[1] (1864-1920) galdutzat edo erdi galdutzat jotzen da hitanoa Ondarroan eta gaur egun orobat gertatzen da Bizkaiko kostaldeko beste herri batzuetan. Pedro de Yrizar-ek bere berriemaileengandik jasotako informazioaren arabera (Yrizar, 1981: 375-380), Ondarroan ez da bat ere erabiltzen kaletarren artean, Ean gutxitxo erabiltzen da hitanoa, Busturian ozta-ozta zaharren artean, Gernikan, Arteagan eta Mundakan bat ere ez[2] eta orobat Sopelan eta Barrikan; Gernika inguruko auzo-herrietan (Mendata, Arratzu, Forua), Morgan, Zornotzan, Bermeon eta Arrankudiagan zerbait erabiltzen da hitanoa, gizonen artean bereziki; eta gorago esan bezala, Bizkaiko barneko aldean inon baino hobeto atxikitxen da tratamendu laua.

Mende hasieran Azkuek (*Flexionario*) Bizkaiko eskualde gehienetako hitanoa jaso zuela kontuan hartzen bada, susmatzekoa da hitanoaren galera Bizkaian azken mende honetan azkartu dela. Baliteke galtze azkar hori neurri handi batean hitanoaren gainean hedatuta dauden gaitzespenezko aurreiritzien[3] ondorio izatea. Izan ere, hikako tratamenduak —noketak bereziki— ez bide du ospe onegia Euskal Herriko hainbat herritan, ez Nafarroan eta Lapurdin, ez eta bereziki Bizkaiko zenbaitetan. Zentzu horretan guztiz adierazgarria izan daiteke, hitanoa dela eta, Nils M. Holmer-ek Yrizarri egindako aitormena[4].

Yrizar-en arabera, hitanoaren galera zertxobait sartzen omen da Gizpuzkoako kostaldean (Mutriku), baina hortik aparte, gainerako euskalkietan, herri

---

[1] *Kresala* (1901-1905) eleberriaren hitzaurrean hiketa dela eta, honako ohar hau egiten dio D. Agirrek irakurleari: «Beste gauza bat. Danok dakigu iru eratako izketea egiten deutsagula euskaldunok alkarri: *i*-gaz esaten dana lenengoa, *zu*-gaz esaten dana bigarrena ta irugarrena *berori*-gazkoa. Lenengoaren zalea naz, zarrena dalako, ta opa dot bere bizitza luzea; baña antziña il zan Arranondon da orregatik ezta emen agertuko izketa zar ori.»

[2] Oso arriskutsua izaten da baieztapen orokor eta biribilak egitea tratamenduen bizitza oparoago edo makalagoaz, eta are arriskutsuago tratamenduen heriotzaz. Hala eta guztiz ere, tratamendu batez baliatzen dakien lekukorik gutxi gelditzen denean, tratamendua galdutzat eman daiteke, dakienik egon arren, erabili, nekez edo bakanka baizik ez baita erabiltzen delako tratamendua herriko bizitzan eta eguneroko harremanetan. Zentzu zabal horretan esan liteke, agian, Gernikan edo Bizkaiko kostaldeko herrietan hitanoa galdurik dagoela.

[3] Eta itxura guztien arabera, hitanoaren gaineko ospe txarrak ez dirudi atzo goizekoa. Yrizarrek ohartarazten duenez (Yrizar, 1981: 378), Azkueri mende honen hasieran (*Morfologiako* langaiak biltzen ari zela) hurrengo esaera erdeinuzkoez izendatu zioten lagunarteko tratamendua, *motzailleen berbetea* (Nabarnizen) eta *ijitoen izkuntza* (Berastegin).

[4] «Holmer me escribía, desde Bermeo, que el tratamiento "familiar" en Vizcaya es decididamente "agresivo o insultante" y que cuesta mucho sacar las correspondientes formas de los vasco-hablantes; no quieren admitir que tales palabras sean "de aquí" ("¡Son más bien de Guipúzcoa!", decían). Parece —me comentaba Holmer— que es el problema de muchos antropólogos, cuando se trata de términos que, para los indígenas al menos, tienen carácter obsceno.» (Yrizar, 1981: 376). Guk geuk, inkestagintzan zehar hainbatetan egin behar izan diogu aurre Holmer-ek aipatzen duen lotsaren arazo latzari.

batetik bestera erabilerazko eta tratamenduarekiko iritzizko gorabehera handiak badaude ere, ez bide dago Bizkaikoaren moduko hutsunerik edo salbuespenik hiketaren eremuan[5]. Hobeto edo gaizkiago ikusita, erabilera zabalago edo meharragoz, hiketak —toketak bederen— bizirik jarraitzen omen du gainontzeko euskalkien geografian barrena. Zenbait herritan, hala ere, kale edo hiri eta baserriaren arteko bereizketa egin behar izaten da: kaletarren artean hiketa galdua edo erdi galdua dagoen bitartean, baserri-giroan ondo bizirik irauten du lagunarteko tratamenduak[6].

Esanak esan, datu zehatzegirik ez badugu ere, hitanoaren galera askoz ere larriago eta orokorragoa da noketari bagagozkio (cf. infra VIII.2.). Orduan euskalki gehiagotan aurkitzen ditugu erabilerazko hutsuneak. Noketa tratamenduari erdialdeko euskalkietan eusten zaio hobekienik, baina gipuzkera eta iparraldeko goi-nafarreratik kanpo, ez dira asko toka eta noka «normaltasun» osoz aritzen diren herriak. Azken hauen artean, gure erakusgarriaren arabera, Aulestia eta Abadino (Mendiola auzoa) azpimarkatuko genituzke bizkaierazkoetan; bat ere ez Lapurdikoetan; ekialdeko behe-nafarrerazkoetan Amikuzekoak (Amorotze, Gamue) eta agian Ostibarreko Donaixti-Ibarre ere bai; zubererazkoetan, Barkoxe, beste guztien gainetik.

## 2. BERORIKETA

Jakina denez, beroriketa tratamendu errespetuzkoa hegoaldean baino ez da erabili izan eta guztiz arrotza da mugaz bestaldeko euskaldunentzat. Azkueren arabera (1923-25, II: &640, 432) honelako banaketa dialektala du errespetuzko tratamendu «berriak»:

> «Algo más modernamente tal vez que se haya singularizado el pronombre *zu* y nacido el nuevo plural *zuek*, ha brotado otro pronombre personal con significación de vuestra merced, vuestra reverencia, pronombre llamado de tratamiento respetuoso: *ori*, usado en algunos valles navarros, y su sinónimo *berori* (AN, B, G). *Eztut nai ori baizik, ori soilik aski dut* se lee en la *Copla* num. 301 de Lizarraga: no quiero sino a vos, vos meramente me bastáis. De antes sabemos que *ori* y *berori* de suyo significan "ese, ese mismo". En este caso, por *ori* dicen *gori* en Aezkoa, *kori* en Salazar y Roncal. (...)

[5] Dena den, gainerako euskalkietan ere gaur egungo hitanoaren galera, esaten den baino larriagoa delakoan gaude. Lekuan lekuko inkestak beharko lirateke galera eta hutsuneak zenbaterainokoak diren neurtu ahal izateko. Baztanen, adibidez, P. Salabururen arabera (1984, II: 237) Lekaroz da hitanoari ongi eutsi dion herri bakarra.

[6] Baserritar/kaletar-hiritar aldagaiaren araberako hitanoaren erabileraz eta bizitzaz Alberdi (1986b: 471-482) ikus daiteke. Markina aldeko ikerketa hartan frogatu genuenez, oso nabarmena da hiria eta auzoen arteko desberdintasuna hitanoaren erabilerari dagokionez.

> *Ori*, en acepción de vuestra merced, dicen en esos valles sin esas *g* ni *k:* dicen sencillamente *ori.*
>
> Este pronombre respetuoso moderno no está en uso allende el Bidasoa.»
>
> (Azkue, 1923-25, II: § 640, 432)

Nafarroako Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari haranetako xehetasunak eta emaitzak ez datoz bat. Adibidez, *Erizkizundi Irukoitzak* (Echaide -ed., 1984: 224) *berori* forma dakar Uztarrozekotzat II,41,E galderari («usted mismo, vous même») erantzunez, baina Bidankozeko Mariano Mendigacha erronkariarrak «ori» tratamendua ematen dio Azkueri bere euskarazko gutunetan. Hona hemen, pasarte adierazgarri bat:

> *Maitagarrizko Jeina. Bere tenpran ssinzen orren azken Otsailaren 17co. carta; artaz ekustan dud antzinatan diona uskarazko lan andi damanian. (...) Boztario batek artanú orren letrak; (...) Pensamentiuan artruk dakad biardaudala escribitu aldokedan tenpra guciuaz, ilabeteoro; anque ez obro ezik bizi nazala; Orrek eskribibeztad borontate dionian.*
>
> *(Irigoyen, 1957b: 120-121).*

*Eta oraintsuagoko ikerlan batean (Beloqui et alii, 1953: 514) orien* izenordain plural genitiboaren lekukotasuna jasotzen da Isabako hiztun baten ahotik pluraleko bigarren pertsonari dagokiolarik, hots, «ustedes» esanahiaz (*bayá gúk eztigu entelegátan onki orien uskára,*«pero nosotras no entendemos bien el euskera de ustedes»). Bestalde, leku berean zeharka —hirugarren pertsonako adizkeren erabileraz— beroriketaren bizitzaren aldeko lekukotasunak biltzen dira bai Isaban eta bai Bidankozen[7].

Eaurtako Pedro José Samper zaraitzuar apaizak (Samper, 1833), ordea, ez darabil zinezko beroriketarik printzeari zuzentzeko, «erdizkako zutano-berorika» (horrela deitzerik baldin badago) nahasia baizik. Tratamenduaren aldetik oso testu bitxia da, Samperrek, ohartu gabe, tratamendu berri bat sortu zuelako. Eaurtako apaizak «berori» tratamendua eskura baldin bazeukan, aski iruditu ez edo printze bati zuzentzeko eta, «Zure Alteza» titulua, bigarren pertsona erreferentzialari dagozkion hirugarren pertsonako adizkerak eta zutano alokutiboa uztartzen ditu Bonaparte tratatzerakoan. Inguruko erdaretan ohorezko tituluekin ohi denez, *Zure Alteza* titulu hanpatua hautatu izanak hirugarren pertsona erabiltzera bultzatu zuen Samper; baina ez zen horretan gelditu. Hirugarren pertsona erabili arren, zutano alokutiboari eutsi zion, are bigarren pertsona erreferentzialari dagozkion hirugarren pertsonako adizkietan ere (*Zure*

[7] Adibidez, etxeko andre eta neskamearen arteko autuan (ibid.:511 512), lehenak hika egiten dio neskari eta honek berorika erantzun: *-zomát bar diar emón? -B(i)ar díta emón...- Zér egítan dún? Ezdiná errán...? -Bada, xìn bedí béztitrà, eta gúnian xágiren náz.* Orobat, Uztarrozen bildutako beste istorio batean apezak bere iloba hikatzen duen bitartean, honek osaba apezari berorika egiten diola ematen du: *Tiojéina, mertxedez gen za kori* (Ibid.: 527).

*Altezak* etzu *motivoric...*). Begi bistan dago ondorioa: tratamendu berri nahasi samarra, beroriketatik hirugarren pertsonaren erabilera besterik ez duena, ez zutano garbia, ezta beroriketa garbia ere. Horra hor, aipatu gutun osoa:

«Jaurrieta 23 de abril de 1866.
Serenísimo Señor.

(Orai uscaraz, ceren ofrecitua zor baita eta bear pagatu).

Izan zut, shauna, itzez manifesta eztroquetan gozoa errecibitzean Zure Altezaren cartara zuauren bondade andian escribitric ilabete conen amargarnean Londresen ene chiquintarzunari, erranez ellegatu dela Zure Altezara novedaderik bague ciudade cortra, izan baitu ere acaicio aniz eta andi viaje luce eta tembra gastoarequin egin duenean, lecu cuek gaindi.

Aniz alegratu nuzu bada shaquitean ongui itzuli dela Zure Altezara zuauren lecuala. Guisa berean nic seguitzen zut ongui nore osasunaren novedaderik bague nore etse pobre contan, beti beira edo espera noiz escribitzen dadayen Zure Altezaren lagunec, baya orañic etzu oritu nitaz; noizbait aguian oritren tzu; baya beti Zure Altezara len oritu zu ezic urac.

Zure Altezac etzu motivoric niri gracien emateco ceren ene chiquintarzunac guti eguin baitzuen Zure Altezaren obsequiatzeco ez izanaz gauza Zure Altezari corresponditzen zaizconetaric; solamentequi nizun borondatea onic eta contan ez niquezu nai iorc erman laztan bentajaric. Berriz shiten denean edo itzultzen denean Zure Altezara etse pobre contra naí niquezu oron batez len izan avisua. Cala eguin zala Zure Altezac eta orduan icusien zu nola portatzenizan errecibitzeco. Asqui contaz: guacen berze gauza bateala.

Niozu errayatzen paperac itzultzeco uscarala catecismoan eta, eguin ondorean lana edo trabajua, egorrien zut Zure Altezari zuauren Altezac señalatzen dadan modoan eta conductotic nere obrarequin ejemplaret bat Iruñaco Obispo Shaunaren ordenez imprimitu drenetaric, zointaric artu baitut (obedite proepositis vestris) doctrinara guciz conforme Aita Astete añaditutic Luarcac, baya conenean cerbait corregitric (Zure Altezari erranecona bezala nic) Concepcione purisimaren Misterioan eta berze zomait parte chiquinetan, icusien duen(a) bezala Zure Altezac, baya añaditric amasei paginatan aniz oraciorequin.

Nic ez dioquezut atze Zure Altezara beinere, eta cala egonen zu beti deseatuz Zure Altezaren ongui andiena, Zure Capellana beti Zure Altezaren ordenen beira.

Pedro José Samper A.

P.D. Avisa nazala
Zure Altezac ya errecibitzen duen carta cau.»

(Samper, 1833)

Guri Aezkoan (Abaurregainean) eta Zaraitzun (Otsagin) ez digute baieztatu Azkuek *(h)ori* errespetuzko pertsona-izenordainaren erabileraz emandako informazioa; gure lekukoen arabera, *zu* da apaizarekin, maisu-maistrarekin eta jende zaharrarekin erabiltzen den errespetuzko tratamendu bakarra. Aezkerari dagokionez, behintzat, hiperbegirunezko tratamenduaren galera baieztatu du oraintsuko ikerlan batek (Camino, 1995).

Gainerakoan bat datoz gure emaitzak Azkueren argibideekin. Deiturazko aldaera fonetiko desberdinez (*berori, berrori, biorri, bedorri, berorreri...*) bada ere, tratamendua ezagutu, gure sarearen gainerako herri guztietan (bizkaiera, gipuzkera eta goi-nafarrerazko guztietan —hegoaldeko goinafarrerazko Eugi barne—) ezagutzen dute beroriketa tratamendua.

Bizkaierari gagozkiola, esan beharra dago erabili, gaur egun inor gutxik erabiltzen duela beroriketa. Gehienbat zahar-zaharrak —eta ez denak, jakina— izaten dira berorika aritzeko ohiturari eusten diotenak. Salbuespen bakar batez, hala ere. Gure sarean Laukizen elkarrizketaturiko hiru lekukoek (78, 60 eta 34 urteko gizonak) berorika jarduten dute oraindik ere[8]. Gainera, apaiza, mediku, maisu-maistra eta jende ikasiari ez ezik, Jainkoari eta ezagutza egin artean pertsona ezezagunari ere berorika zuzentzen omen zaizkio berriemaileok. Nirekin, esate baterako, zalantzan ibili zen haietako bat (60 urtekoa), aldizka berorika eta aldizka zuka tratatzen ninduela. Bestela, jeneralean lekuko gehienek, lehenagoko garaietan berorika aritu izan badira ere, gaur egun ez dute ezertarako erabiltzen beroriketarik.

Harrigarriena, beharbada, beroriketaren galera azkarra izan daiteke, oraindik denbora asko ez dela bizirik baitzegoen errespetuzko tratamendua apaizarekin hitz egiteko. Aulestian eta Zeberion 30-35 urte inguruko jende gazteak umetan erabili du tratamendu hau; Elorrion, Abadinon, Zeanurin, Larrabetzun, Orozkon, Otxandion eta Eskoriatzan 50-60 urte ingurukoek ondo gogoratzen dute txikitan apaizarekin eta, berorika aritu izana. Gazteek, ordea, omenez —gurasoei entzunda— baizik ez dakite lehenagoko berorikako ohituraren berri.

Gipuzkerari dagokionez, antzeko egoera dugula esan behar da. Bada salbuespen bat (Lasarteko 65 urteko emakume baserritarra), oraindik ere berorika barra-barra aritzen omen dena, baina hortik aparte, gure lekukoek ez dute beroriketarik erabiltzen. Are gehiago, iduri du errespetuzko tratamenduaren galera lehenago burutu izan dela gipuzkeraz mintzatzen den eremuan[9], Bizkaian ez bezala, lekukoetariko askok ez baitute sekula erabili beroriketa, ezta haur-denboran ere.

---

[8] Yrizar-en arabera (Yrizar, 1981: 376), Ondarroan ere ba omen dago bizirik berorikako tratamendua. Agian hitanoaren aspaldiko galerari zor zaio beroriketaren bizitza zabalagoa Ondarroan.

[9] Beroriketa-usariorik ezagutu ez duen Etxarri-Aranaztar baten arabera, edozeinen agurrari erantzuteko esapide ihartu edo klitxetu batean iraun du izenordain galduak: *-Egun on! -Baita biorri ere.*

Goi-nafarrerazko lekukoetan ez dugu aurkitu egun berorika mintzatzen denik; hala ere, herri guztietan ezagutzen dute tratamendua eta lekuko gehienek —adinekoek, behinik behin— ongi gogoratzen dute apaizarekin eta, hala aritzen ziren garaia. Bestalde, gaineratu beharra dago beroriketa hegoaldeko goi-nafarreran[10] sartzen dela, Eugiko gure lekukoek haur-denboran apaizari, jende ikasiari eta batzuek aita-amei eta zahar zaharrei beroriketan egiten omen zieten eta.

## 3. EZTABADA

Eztabada euskararen oinarrizko tratamendua dugu. Hortaz, berez, euskara guztietan ezagutzen eta erabiltzen den tratamendua da. «Berez» esan dugu, ze egitez sortaldeko hizkera batzuetan baztertuxea dute eztabadakako tratamendua, Bonapartek «indéfini» deitua.

Printzeak eztabadari buruz utzi zuen informazioa hurrengo pasarte ilun samarrean bilduta dago:

> «Le traitement en *zu*, lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'est, pour ainsi dire, respectueux quant au sens, qu'en souletin. A Mouguerre, et surtout à Saint-Pierre d'Irube, localités appartenant au sous-dialecte bas-navarrais oriental du Labourd, on se sert de l'indéfini quand on parle en général, et moins souvent du respectueux que de l'indéfini lorsqu'on s'adresse à un supérieur. En roncalais, le traitement en *zu* s'emploie entre égaux, tandis que l'indéfini y est en usage, non seulement quand on parle en général, ainsi que cela a lieu en souletin, mais aussi d'inférieur à supérieur. En s'adrressant à Dieu ou aux Saints, on emploie toutefois le traitement en *zu*. Le traitement respectueux enfin, remplace régulièrement l'indéfini en bas-navarrais oriental, et c'est cela que consiste un des principaux caractères de ce dialecte. Ce n'est que dans certains cas exceptionnels que le traitement indéfini doit y être employé. Nous avons déja vu que Mouguerre et Saint-Pierre-d'Irube forment une exception, et nous ajouterons que Saint-Esteben, Isturits, Ayherre, Hélette et Irissarry en forment une autre; car, quoique le traitement diminutif persiste dans tous ces localités comme preuve qu'elles appartiennent au bas-navarrais oriental, il n'en est pas moins vrai que l'indéfini y domine.»
> (Bonaparte, Le Verbe Basque en Tableaux, XIV. taulako 2. oharra)

[10] *Erizkizundi Irukoitza*ren arabera (Echaide, 1984: 224) ere bai, Xulapaineko Nabaz herrian sartzen baita (*beroi*). Eta orobat iparraldeko goi-nafarrerazko Lizason (*berori bera*) eta Azpirozen (*beorre*).

Printzearen argibideak gaizki ulertu ez baditugu, XIX. mendean sortaldeko euskalkietan hiru eremu desberdinok bereizten ziren eztabadaren erabilerari begira: a) ohizko usarioan maila apalagoko zutano alokutiboaren eta goragoko eztabadaren arteko tratamendu-aurkakotasuna zuten hizkerak (Lapurdiko EB-Nzko Mugerre eta Hiriburu, alde batetik; eta erronkariera, bestetik); b) halako aurkakotasunik ez zutenak, zutano alokutiborik ez zutelako (Arberoako eskualdea EBNren barruan); c) ohizko usarioan halako aurkakotasunik ez zutenak, eztabadaren lekuan ia beti zutano alokutiboa erabiltzen zutelako (EBN gehiena, Amikuze barne; eta zuberera).

Joan den mendearen azken aldera, beraz, ekialdeko behe-nafarrera gehienean zutanoa zen jaun eta jabe eztabadakako tratamenduaren ordez eguneroko mintzairan («Le traitement respectueux enfin, remplace régulièrement l'indéfini en bas-navarrais oriental, et c'est cela que consiste un des principaux caractères de ce dialecte»). Zutanoaren aldeko joera eztabadakako tratamendua ia erabat ezkutatzeraino edo ordezkatzeraino iritsi zen eta ordezkatze hau guztiz hedatua eta bururatua zegoen Bonaparteren garairako eta, itxura denez, zenbait eskualdetan askoz lehenago ere bai[11].

Orain artekoa Bonapartek utzitako informazioaren interpretazioa dugu, funtsean gure inkestagintzaren emaitzekin bat datorrena. Jarraian geure tokian tokiko langintzaren berritasunak eskaintzera goaz.

Lehenengo eta behin, Bonaparteren lehen multzoari dagokionez, aitortu beharra daukagu guk geuk ez dugula aurkitu *modu sistematikoan* zutano/eztabada aurkakotasunaz baliatzen den EBNrik, ezta Bonapartek aipatzen duen Mugerren ere. Ondorioz, bigarren eskuko informazioaren arabera, erronkariera dateke sistematikoki «zutanoa < eztabada» mailaketaz baliatzen den hizkera bakarra.

Bigarrenik, gure emaitzen arabera, Arberoako eskualdean ez ezik (Aiherra, Heleta eta Irisarri), Donibane-Garazin eta inguruko beste herri batzuetan ere (Aizpura, Uharte-Garazi, Arnegi, Lasa, Ahatsa...) eztabadaka mintzatzen dira, esan nahi baita Donibane-Garazi inguru horretan ere ez dutela zutano/eztabada tratamendu-aurkakotasunik ezagutzen. Gure hipotesiaren arabera, emaitzok ez dira mintzo Bonaparteren deskribapenaren aurka, harrezkero burututako bilakabide historiko alderantzizkoaren alde baizik: printzearen garairako zutanoak eztabada ordezkatu baldin bazuen, ordutik hona alderantzizko ordezkapena —eztabadaren aldekoa— burutu da Garaziko eskualdearen hegoaldean.

[11] XVIII. mendean frantses itzulpen batetik abiatuz Amikuzeko (Ostibarreko, zehazkiago) euskarara egindako itzulpena (*Alphonsa Rodriguez, Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccioniaren praticcaren parte bat Heuscarala itçulia, Heuscara bezik eztakitenen daco,* 1782) dugu adibiderik argiena frogatzeko zukaren indar eta oldarra eztabadaren aurrean. Hizkuntza idatzian gutxitan islatzen da aditz alokutiboa eta are gutxiago zukakoa; bada, jakina denez (Bouda, 1948; Videgain, Iker-II), *Alphonsa Rodriguez* salbuespen miragarria dugu, zukako adizkera alokutiboez josirik dago eta.

Hirugarrenik, Bonapartek EBNz ari dela aipatzen duen harako berezitasun hura («Ce n'est que dans certains cas exceptionnels que le traitement indéfini doit y être employé») argitu beharra dago. Izan ere, zein dira EBNz eztabadara jotzeko moduko kasu ezohizko eta salbuespenezko horiek? Gure inkestagintzaren arabera, EBNzko enparatu eremuan egiazkoa da Bonapartek aipatzen duen zutanoaren aldeko «ordezkatzea» eta eztabada oso egoera markatuetan baizik ez da erabiltzen. Esate baterako, Gamarten, Amikuzen (Amorotzen eta Gamuen) eta Beskoitzen[12] ez dira jeneralean —ezta herritar anitzen aurrean ere— eztabadaka mintzatzen, bestelako euskara duen jendearekin izan ezik. Jokamolde mimetiko hau azaltzeko, gamartiar bati emango diogu hitza:

> (Eztabadaz ari dela) *Mintzo denak... hala mintzo bada, tentatia zira berdin emaitea errepostia, bainan guhauren artean ari gira, errain dugu, gu tarteko batek errain du: nuxu.(...) Guretako zu (inkestagileaz ari da) eztabadaka ari zira, tentatiak gira eztabadaka emaitea errepostia. Erretoreari ez eztabadaka, zu, zuka («osaba jin duzu»). Eztabada ezta hemen nun ezten nonbaitekoa jiten...*[13]

Bardozen, Mugerren[14], Urketan eta Donaixtin ere berdintsu gertatzen da; hala ere, joera, eztabadaka aritzekoa omen da anitz jenderi mintzatuz gero edo jeneralean hitz eginez gero. Zentzu honetan egokia da eztabadari «indéfini» edo «neutro» deitzea, halakoetan ez baita benetako tratamendu edo solasmaila, «tratamendu eza» baizik, hots, hiketa, xuka eta zutano tratamenduen neutralizazioaren ondorioa.

Auzi honetan testuingurua erabakigarria da; horrela, mintzalagunak, banaka tratamendu desberdina merezi dutenak baldin badira, eztabada izango da estrategia edo irtenbide seguruena, baina ez bakarra, hala ere[15]. Hona hemen, Mugerreko emakume baten argitasunak neutroaren erabileraz:

---

[12] Zentzu horretan, guztiz adierazgarria da Yrizarren oharkizuna: «X.Diharce nos advirtió que en el pueblo de Briscous las formas usualmente utilizadas son las respetuosas y que les produce extrañeza el empleo general de las indefinidas: *hazpandar gisa mintzatzea zaiote* (Yrizar, 1981, II: 386).

[13] Interesgarria da ohartaraztea gamartiar emakume honen azalpen teorikoa eta jarduna bat datozela, gurekin —herriko eguneroko usariotik aldenduz— eztabadaka mintzatu baitzen elkarrizketaren denbora guztian. Beskoiztar batek elkarrizketaren buruan, denbora guztian gurekin eztabadaka aritu ondoren, aitortu zidan herritarrak ez direla eztabadaka mintzatzen eta orduan hasi zitzaidan zalantza artean niri ere zuka egiten: *Ez dugu neutrorik hemen, badakit erraten dela, orai, bai, zuri mintzatzean, banan herritarrekin hola mintzatuko nuzu.(...) Badakit (herriz kanpokoek) bitxi atxemaiten dutela. Marc-ek ere aita heletarra* du...dizu...

Nolanahi ere den, denak ez dira gai solaskidearen hizkerako eztabadakako mintzamoldeari gisa berean erantzuteko; gurekin dexente izan ziren zuka aritu izan zirenak, gure mintzaira arrotzera ezertarako egokitu gabe.

[14] Mugerren ez dut baieztatu ahal izan Bonapartek dioena, alegia, zutano < eztabada mailaketa. Gure lekukoen arabera, zuka da nagusiagoari zor zaion tratamendua.

[15] Urketar emakume zahar (88 urteko) baten arabera, errespetua zor zaion «tropa» baten aurrean zuka mintzatuko omen litzateke bera (adibidez, ahizpa, aita eta apaizaren aurrean), baina eztabadaka gaztez osaturiko «tropari» zuzentzeko. Ageri denez, uste baino korapilatsuagoa gerta daiteke tratamenduaren hautaketa sortaldeko euskalkietan. Auzi honek tokian tokiko hizkeraren bestelako ikerketa xeheagoa eskatzen du, behaketa zuzenean oinarritua.

*Hanitx jenderi mintzo baniz, «aita jin da». Edo zu edo bertzenaz «jin da».* (Apeza, ahizpa eta senarra batera daudelarik, hirurei zuzentzeko) *Ni mintzatuko nuzu zuka (neutroaz ari da): «izan niz Hazparnen», deneri mintzo bainiz, nola erretorari zuka ariko bainiz eta bertzeri to eta no; deneri «izan niz».*

Bonapartek «Le traitement respectueux enfin, remplace régulièrement l'indéfini en bas-navarrais oriental, et c'est cela que consiste un des principaux caractères de ce dialecte» dioen arren, beste hainbeste esan liteke zubererari buruz. Guk elkarrizketaturiko lekukoetarik bat ere ez da eztabadaka elestatzen Larrañen, Aiñharben eta Espeize-Ündüreiñen; Santa Grazin, Altzürükün, Barkoxen eta Muskildin ber gauza agitzen da; salbuespen bakar batez, hala ere: herriotan badira jende-saldoari mintzatzeko edo zehazki inori zuzendu ezik eztabadaka aritzen omen direnak; hala ere, ohitura hau ez da guztiz orokorra, esan nahi baita herri berean jende aurreko jokamolde desberdinak (eztabadaka/zutanoa) aurki daitezkeela. Lafonek dio berak ez zuela hamar urtetan eztabadarik entzun santagraztarren ahotik, ez bazen herri-ipuinak edo istorioak kontatzeko edota kanta herrikoiak moldatzeko; azken kasu biotan, alokutiboekin batera adizkera neutroak nahastekatzen ziren literaturako zuberera idatzi eta jasoa imitatzearren. Lafonek dioenez jende-saldoari ere zuka mintzatzen zitzaizkion Santa Grazin (Lafon, 1959:123-124).

Altzürükütar batzuek argitu zidatenez, eztabada eliza, irrati edo liburuetako berbaldietan eta inongo solaskide konkreturi zuzendu gabeko jardunetan, hots, jende-saldoari zuzendutakoetan azaltzen da; aipatu salbuespenezko testuinguruetatik at nekez edo ozta-ozta entzuten da eztabadarik herriotako eguneroko buruz buruko harremanetan. Beraz, ageri denez, funtsean Inchausperen (cf. infra) garaitik hona gauzak ez dira hainbeste aldatu, ez bada eztabadakako mintzamoldearen erabileraren kaltetan.

Esanak esan, Nafarroa Beherean —Zuberoan ez bezala— ez zaio eusten era berean zutanoari adin guztietan, zutanoaren galera hasita baitago euskalkiaren eremu osoko «gazteriaren» artean (cf. infra VI.4.). Gauzak horrela, beldur gara etorkizun hurbilean lehengo ordezkatzeari buelta etorriko ez ote zaion, eztabada berriro ere nagusituz.

## 4. ZUKA ETA XUKA ALOKUTIBOAK

### 4.1. L.L. Bonaparte. Zuka eta xuka alokutiboak: isoglosa garbiak

Sartaldeko euskalkietan tratamenduaren aldetik aparteko zailtasunik edo korapilorik ez dagoen bitartean, ez da gauza bera gertatzen sortaldekoetan. Euskal dialektologiaren aitzindari eta aldi berean ia-ia gailurra izan zen Louis Lucien Bonaparte printzeaz geroztik ezer gutxi aurreratu da alor honetan, informaziorik ezarekin batean sarritan baieztapen nahasgarriak atzeman daitez-

keelako. Geure azterketari ekin aurretik, nahi genukeen bezain argigarriak ez badira ere, Bonapartek emandako argibideak aldatuko ditugu hona, gorago aipatu dugun egoera konplexu eta nahasiaren agergarri. Bere *Le verbe basque en tableaux* delakoaren hamalaugarren taula («Quatorzième Tableau Supplémentaire. Verbe Bas-Navarrais Oriental. Indéfinie, respectueux et diminutif») iruzkinduz erantsitako bigarren oharrean luze mintzo da ekialdeko euskalkietako tratamenduen lekuzko banaketaz eta balio pragmatikoaz. Berebiziko garrantzi eta balioa dituelako, osorik aldatuko dugu hona Bonapartek tratamenduen mugez eta haien gizarteko erabileraz diharduen pasarte osoa:

> «Le traitement en *zu*, lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'a lieu qu'en souletin et en bas-navarrais oriental. Irissarry, Hélette, Saint-Esteben, Isturits et Ayherre, localités appartenant à la variété de l'Arberoue, n'admèttent pas toutefois le respectueux, bien qu'ils puissent se servir du diminutif en *xu*. Lorsque la seconde personne entre dans le terminatif comme sujet ou comme régime, tous les dialectes admettent les traitements allocutifs, et non pas l'indéfini, tandis que si c'est la seconde personne du pluriel qui en fait partie, il n'y a qu'un seul traitement pour tous les dialectes. Le traitement diminutif, lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'existe qu'en bas-navarrais oriental, le mixain excepté. C'est ainsi que l'on pourra entendre *dexu* pour *dezu* 'tu l'as' à Cegama, *duxu* pour *duzu* à Hasparren, *xira* pour *zira* 'tu est' à Irouléguy et à Ascarat, dans l'Aezcoa, etc. Le souletin et le mixain, au contraire, ainsi que le baïgorrien et bien d'autres variétés, repousseront toujours le traitment en *xu*. Quand à la formation du diminutif, elle a lieu par le changement du *z* et du *tz* du respectueux, en *x* et en *ch: nuzu, zi, gitzi; nuxu, xi, gichi* 'il m'a (je suis), il l'a, il nous a'.
>
> Le traitement en *zu*, lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'est, pour ainsi dire, respectueux quant au sens, qu'en souletin. A Mouguerre, et surtout à Saint-Pierre d'Irube, localités appartenant au sous-dialecte bas-navarrais oriental du Labourd, on se sert de l'indéfini quand on parle en général, et moins souvent du respectueux que de l'indéfini lorsqu'on s'adresse à un supérieur. En roncalais, le traitement en *zu* s'emploie entre égaux, tandis que l'indéfini y est en usage, non seulement quand on parle en général, ainsi que cela a lieu en souletin, mais aussi d'inférieur à supérieur. En s'adrressant à Dieu ou aux Saints, on emploie toutefois le traitement en *zu*. Le traitement respectueux enfin, remplace régulièrement l'indéfini en bas-navarrais oriental, et c'est cela que

> consiste un des principaux caractères de ce dialecte. Ce n'est que dans certains cas exceptionnels que le traitement indéfini doit y être employé. Nous avons déja vu que Mouguerre et Saint-Pierre-d'Irube forment une exception, et nous ajouterons que Saint-Esteben, Isturits, Ayherre, Hélette et Irissarry en forment une autre; car, quoique le traitement diminutif persiste dans tous ces localités comme preuve qu'elles appartiennent au bas-navarrais oriental, il n'en est pas moins vrai que l'indéfini y domine. Le traitement diminutif en *xu*, qui n'existe qu'en bas-navarrais oriental lorsque la seconde personne ne fait pas partie du terminatif comme sujet ou comme régime, s'emploie non seulement en parlant aux enfants, mais aussi entre égaux. C'est ce qui a lieu en Cize, à Bardos, à Lahonce, à Mouguerre, à Urcuit, en Salazar, et généralement dans l'arberouan. Cependant à Saint-Pierre d'Irube, le diminutif ne s'emploie qu'avec les enfants, et surtout avec les petites filles; à Briscous, plutôt avec les petites filles qu'avec les petits garçons, mais aussi avec les femmes inférieures, entre femmes d'égale condition et rarement entre hommes; à Irissarry, enfin, ainsi qu'à Hélette, à Saint-Esteben, à Isturits et à Ayherre, le traitement en *xu* est en usage avec les enfants, mais surtout avec les petites filles, ainsi qu'entre femmes d'egale condition. Lorsque la seconde personne du singulier entre dans le terminatif comme sujet ou comme régime, l'usage du traitement diminutif reste le même en bas-navarrais oriental. Dans les autres dialectes, en général, il n'est guère usité qu'avec les enfants, mais à Irouleguy, à Ascarat, à Anhaux et à Lasse, localités appartenant au bas-navarrais occidental, on entendra *xira, duxu*, etc. même entre adultes, ce qui est du sans doute au voisinage et à l'influence du bas navarrais oriental.»

Pasarte honetan irakurritakoaren arabera, ez dago zalantza-izpirik Bonapartek tratamenduei aitortu zien garrantziaz. Esan daiteke tratamenduen gaiak isoglosa erabakigarriak eskaini zizkiola printzeari eguzki aldeko euskalkien sailkapenerako[16]. Izan ere, Yrizarrek ongi dioenez, solasaldian zehar hain nabarmena egiten den alokutibotasunak halako kolore bereizgarria ematen dio hizkerari. Hona hemen, hizkuntzalari honen hiru pasarte adierazgarriak Bonaparteren irizpideez:

> «(...) Creemos que la consideración de esta circunstancia [zukako aditz joko alokutiboaren erabilera EBNz] influyó decisivamente en el espíritu del Príncipe para el establecimiento de dos dialectos bajo-navarros independientes.» (Yrizar, 1981, II: 294)

[16] Luis Michelena irakasleak (Michelena, 1988:11) eta Yrizarrek (Yrizar, 1981) azpimarkatu izan dutenez.

> «La consideración de las formas alocutivas respetuosas presenta gran interés y constituyó para Bonaparte base fundamental para su discriminación de los dos dialectos bajo-navarros. Según sus datos, en las siete variedades bajo-navarras orientales se empleaban dichas formas, mientras que en las cuatro variedades bajo-navarras occidentales se desconocían.
>
> También las formas alocutivas diminutivas fueron tenidas en cuenta por Bonaparte para su clasificación lingüística.» (Ibid.: 321)
>
> «Bonaparte señalaba que en las variedades que incluyó en el dialecto bajo-navarro oriental se empleaba el tratamiento respetuoso (y también, excepto en la de Mixe, el tratamiento diminutivo), mientras que, en las que integró en el bajo-navarro occidental, no se empleaban estos tratamientos. Parece que el Príncipe concedía a ello una importancia decisiva para su clasificación dialectal, lo que creemos muy oportuno poner aquí de relieve. Evidentemente el diferente comportamiento en relación con estos tratamientos comunica a las hablas un matiz completamente distinto, que se hace muy patente en la conversación.» (Ibid.: 329)

Beraz, batetik, zuka alokutiboaren erabilerak ezartzen duen isoglosa dugu, eguzki aldeko euskalkiak (Bonaparteren arabera, ekialdeko behe-nafarrera —zaraitzuera barne— eta zuberera —erronkariera barne—) gainerakoetatik garbiro bereizten dituena; bestetik, xuka alokutiboa dugu, ekialdeko behe-nafarreraren bereizgarri aitortu garbiena *(...car, qouique le traitement diminutif persiste dans tous ces localités* [Arberoakoez ari da] *comme preuve qu'elles appartiennent au bas-navarrais oriental).*

Tratamendu bereziok (zuka eta xuka alokutiboak) erabiltzen diren aipatu bi eremuen barruan bi salbuespen nagusi azpimarkatzen dizkigu Bonapartek. Zukaren eremuari gagozkiola, Arberoa eskualdeko herrien salbuespena (Irisarri, Heleta, Donestiri, Isturitze eta Aiherra, besteak beste) dugu azpimarkagarriena ekialdeko behe-nafarreraren barruan. Xukaren eremuari dagokionez, Amikuzeko eskualdea geratzen da tratamendu txikigarriaren hedaduratik kanpo euskalki berean.

Honaino Bonapartek utzitako xehetasun eta argitasunak. Bonaparteren ondotik hurbilpen bat edo beste egin izan da eguzki aldeko tratamenduen gaiaz; hurbilpenok, nolanahi ere, ez dira burutu lekuan lekuko inkestagintzan oinarriturik, bestelako informazio-iturriez baliaturik baizik. Eta hain zuzen horregatik, bigarren eskuko langaiak erabili izanagatik, nahiko ondorio nahasgarrietara iritsi dira gai hau jorratu duten ikerlariak.

## 4.2. Gure inkestagintzaren emaitzak

Bistan denez, Yrizarren azterketa (1981, II: 375-387) eta Rebuschiren ikuspegia (1984: 515-532), biak, kamutsak eta nahasgarriak gerta daitezke datu

enpiriko gezurtatuen ezagatik edo, hobeki esateko, datu enpiriko urri eta mugatuak nolanahi orokortzeagatik eta estrapolatzeagatik.

Bonaparteren deskribapenera itzuliz, gure emaitzek funtsean printzearen ikuspegi orokorra baieztatzen dutela esan beharra daukagu. Gu ibilitako Zuberoako zazpi herrietan bizi-bizirik dago zuka (alokutiboa) eta jende orok erabiltzen ditu adizkera alokutiboak, are manexekin eta gu bezalako euskaldun arrotzekin ere. Bestalde, Rebuschik besterik susmatu zuen arren, zuka bizirik dago eta erabili egiten da ekialdeko behe-nafarreran.

Hala ere, Bonapartek dakarren Arberoako hizkeraren salbuespenaz gain, bada zer esanik euskalki honetako zukaren erabileraz. Lehenengo eta behin, Uharte-Garazi eta Donibane-Garaziko[17] inguru hurbilenean —ez Garaziko eskualde osoan!— ez dirudi zukak bizitza oparoa duenik; alde honetako gure sei lekukoetatik batek ere ez du erabiltzen zukarik eta bai, ordea, eztabada eta xukarik, erruz gainera. Hortaz, gure emaitzen arabera[18], Arberoakoaz gain (Aiherra, Heleta eta Irisarri)[19] beste «soilgune» bat seinalatu behar da Nafarroa Behereko zukako eremuan, Uharte-Garazi eta Donibane-Garaziko herriena, hain zuzen. Bigarrenik, zuka mintzatzen den Nafarroa Behereko herrietan, Zuberoan gertatzen denaz bestaldera, zuka ez da guztiz orokorra, esan nahi baita herritar guztiek ez dutela zuka jarduten. Geuk ikusitakoaren arabera, adinak badu zer esanik galera horretan.

Gogora ditzagun salbuespenak. 56 urteko Gamartiar baten alaba gaztetxoak (8-10 bat urtekoak) ez zekien zukarik eta harriduraz entzun zituen bere aitak apaizari edo adineko jende guztiei zuzenduko lizkiekeen esaldietako zukako adizkera alokutiboak; 31 urteko beste mutil gamartiar batek nahasian erabiltzen zituen eztabadaka eta zukako mintzamoldeak eta herri berean, zuka aritzen ez zen 29 urteko neskatila baten ustetan zaharren zuka mintzatze hori «ezjakintasunari» egotzi behar zaio, eztabadaka elekatzen ez jakiteari, alegia. Amikuzeko Amorotzen eta Gamuen ere gauza bera dugu: launa lekukoetatik, eskolatu gazteenek (25 eta 22 urtekoek, hurrenez hurren) baino ez ziguten huts egin zukako erantzunetan. Bardozeko lau berriemaileen artean bakar bat dugu (56

[17] Bonapartek Garaziko mintzairara eginarazitako itzulpenetan zuka agertzen da. Hala gertatzen da, adibidez, «Parábola del sembrador traducida a los ocho dialectos del vascuence y à cuatro de sus subdialectos» (Londres, 1878) delakoan: *Yalgi zuun behin ereileat ereitea. Eta ereiten zielaik, hazi pharteat eori zuun bidiain gaineat, eta zeruko shoriek yin eta yan zizien...* Printzeak, Donibane Garazi Garaziko hizkeraren eredutzat edo erakusgarritzat (Yrizar, 1981, II: 288) hartu zuela gogoan hartzen bada, garai hartan Nafarroa Behereko hiriburuan zuka (are tratamendu neutroaren ordez ere) egiten zela ondorioztatzen da. Ondorio bera ateratzen da printzea ekialdeko behe-nafarreraz mintzatzen den ohar orokorretik.

[18] Euskaltzaindia burutzen ari den hizkuntza-atlasak (*EHHA-Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa*) zehaztu beharko ditu guk lortutako emaitzak. Agian, baliteke hizkuntzaren estadiorik zaharrena ordezkatzen duten zahar-zaharren artean zukak bizirik irautea.

[19] Baieztatu egin beharko litzateke *Sacaze* atlasak dakarren (salbuespenaren) salbuespena Arberoako hego-sortaldeko Iholdi eta Armendaritzentzat. *Sacaze* atlasaren arabera, herriotan —Arberoako gainerako herrietan ez bezala— 1877 aldera zuka (alokutiboa) mintzatuko zatekeen.

urteko emakumea) zuka egiten ez duena. Beskoitzen 35 urteko neskatila eta 31 urteko mutil alfabetatuak dira zuka aritzen ez direnak. Mugerreko hiru lekukoetatik gazteenak (47 urteko laborariak) dauka galdua zukako tratamendua. Urketan berriemaile «gazteenetariko» bat (57 urteko gizona) da zuka mintzatzen ez den bakarra eta orobat gertatzen da Donaixti-Ibarren ere (35 urteko neska). Dirudienez, herriko lekuko gazteenetan somatzen da inon baino areago zuka alokutiboaren atzerakada.

Gure erakusgarria txikia izanik ere, goiko emaitzak adierazgarriak izan daitezkeela uste dugu. Itxura denez, zukako tratamendu alokutiboari zaharren artean ondo eusten zaion bitartean, ez da gauza bera gertatzen gazteriaren artean eta are gutxiago euskaraz alfabetatutako gazteen artean[20]. Susmoa dugu zuka atzeraka dabilela Nafarroa Beherean eta apurka-apurka eztabada nagusituz joan daitekeela zukako alokutiboa ordezkatzeraino. Izan ere, Bonaparteri sinetsiz geroz, duela ehun eta hogeitaka urte zukako tratamendua guztiz orokorra zen ekialdeko behe-nafarrera osoan, hain orokorra non eztabada ez baitzen erabiltzen bakanka baizik. Gure emaitzen arabera, eztabadak zuka ordezkatu bide du Donibane-Garazi inguruan —ez Garazi osoan!— eta gaude gainerako herri zukazaleetan ordezkatze-prozesu berbera hasita ez ote dagoen. Gure aburuz, nahiko adierazgarria da herri guztietan (Gamarte, Amorotze, Gamue, Bardoze, Beskoitze, Mugerre, Urketa eta Donaixti-Ibarre) zuka aritzen ez den lekukoren bat —nor eta denetarik gazteena gehienetan— aurkitu izana.

Orain artekoan ez dugu Zaraitzu aipatu. Esan dezagun elkarrizketatzea lortu genuen zaraitzuar lekuko bakarrak, 76 urteko Teofilo Eseberri Contin otsagiarrak, zuka hitz egiten zuela, gurekin maiz eztabadaka eta zuka gehiegi bereizi gabe aritzen bazen ere, zaraitzuera nahasi samarra baitzuen.

Halaber, esan gabe doa erronkarierara ere hedaturik dagoela (zegoela) zuka alokutiboa. Hain hedaturik, non ikerlari batzuek lan neketsua izan baitzuten eztabadakako aditz-jokoa biltzeko. Aski da *Erizkizundi Irukoitza*-ko Uztarroze eta Urzainkiko emaitzak arakatzea aipatutako zailtasunaz ohartzeko.

### 4.3. Xuka alokutiboa eta «xuketa» ez-alokutiboa

Xuka, Bonaparteren begietan, ekialdeko behe-nafarreraren (Amikuze salbu eta Zaraitzu barne daudela) bereizgarri nabarmenena da. Xuka alokutiboaren eremuari gagozkiola, funtsean gauzak Bonaparte printzeak ezarritakoaren arabera gertatzen direla esan beharra dago. Hala eta guztiz, zenbait xehetasun gehiago gaineratzea komeni da.

Bonapartek mendebaldeko behe-nafarreraren hego-sortaldeko mugarritzat

[20] Alde horretatik, *Eskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)*-ren emaitzak ez direteke gizarte osoko hizkuntza-erabilera anizkunaren adierazgarri, metodologiaz, ezinbestean hizkuntzaren estadiorik zaharrena ispilatu eta jaso nahi izaten baita halako ikerlanetan.

jarri zituen herri batzuetan xuka alokutiboaz mintzatzen da. Batetik, J.M[a]. Satrustegi euskaltzainak aspaldi argitu zuenez (Satrustegi, 1981), mugaz honaindian Luzaide dugu herri horietako bat[21]. Beste bat, iparralderago, Arnegi dugu; bertan Yrizarrek (1981: 387) dioenez eta guk elkarrizketaturiko lekuko batek argitu zigunez anitz erabiltzen da xukako tratamendua, noketa baino biziki gehiago, behintzat. Eta gorago oraindik, Uharte Garazitik oso gertu (hiruzpalau kilometrora), Lasa dugu; gure berriemaile lasar baten laguntzaz baieztatu ahal izan genuenez, bertan ere xuka mintzatzen da, Garazin bezainbeste. Bonapartek erabili zuen informazioaren arabera, bi behe-nafarrerak bereizten dituen mugako lerro horretan (Irulegi, Anhauze, Azkarate eta Lasa) —ustez, Garaziko mintzairaren eraginez— haurrei ez ezik, berdinen artean ere alokutiboa ez den *xu* tratamenduan mintzatzen zen, baina sekula ez xuka alokutiboan. Jakina, horregatik utziko zituen herriok (Lasa, Arnegi eta Luzaide)[22] Baigorriko hizkeraren barruan mendebaldeko behe-nafarrerarekin batean.

Esan bezala, xukak zaraitzueraren eremua besarkatzen du. Are gehiago, zenbait lekukotasunen arabera, gaur egun zalantza izan genezake ea Zaraitzuko haranean xuka ez ote den erabat nagusitu eztabadaren gainetik eta xukaren iturburua den zuka alokutiboaren gainetik. Zaraitzuerarentzat, aita Inzak (1921: 85) xukako adizkera alokutiboak *(diabexut, dabexu, diabexu, diabexugu, dabezie, diabexie)* dakartza Bonapartek bildu zituen eztabadakakoen *(dabet=diabezut, dabezu, dabe, dabegu, dabezie, dabe)* ordez. Datu horren argitan, ondoko iruzkina egiten du Yrizarrek (1981: 303): «...ponen de manifiesto el uso general, en ese subdialecto, de las formas alocutivas diminutivas, en lugar de las indefinidas». Adierazpen honetatik ezin da ondorioztatu, hala ere, xukak eztabadaka eta zuka erabat ordezkatu eta isilarazi dituenik; xukak zaraitzueran oso bizitza zabal eta oparoa duela esatea gauza bat da eta beste bat, zeharo desberdina, gaur egungo zaraitzueran xuka kortesiazko tratamendu bakarra dela esatea. Gure datuen arabera, Zaraitzun bizirik daude —euskara bera bizirik dagoen neurri apalean, bederen— ekialdeko behe-nafarreran aurki daitezkeen tratamendu guztiak, hiketa (toketa, noketa), zuka, xuka eta eztabada[23]. Xuka egiten dela ez dago zalantzarik; Inzaren (1921) aipamenaz gain, hor ditugu, besteak beste, Mitxelena (1967: 166), *Erizkizundi Irukoitza* (Echaide, 1984[24]) eta Aranzadi Elkartearen *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa —EAEL—* (1983) xukak Zaraitzun bizirik irauten duela frogatzeko. Hiketa, zuka eta eztabada tratamenduei dagokienez, esan dezagun gure Otsagiko lekukoak

[21] Ikus bedi, baita ere, «Manezaundi» luzaidarraren testua (Irigarai, 1958: 19).

[22] Luzaide, Arnegi eta Lasan egin den bezala, interesgarria izango litzateke baieztatzea edo gezurtatzea Bonaparteren informazioa Irulegi, Anhauze eta Azkarateko tratamenduen erabileraz.

[23] Eta Azkueren arabera, beroriketa (*ori izenordainaz*) ere bai, guk geure inkestagintzan horren aldeko lekukotasunik aurkitu ez badugu ere.

[24] Espartzako inkestatuak, besteak beste, xukako hiru adizkerok eman zituen: *xee* (42,A galdera: *lo han bebido, l'ont bu); xu* (42,B: *lo ha bebido, l'a bu); baniakixun* (46,B galdera: *Ya lo sabía yo, je le savait, en effet).* Hauekin batera, eztabadakakoak ere bai: *nazkon* (43,A galdera: *se lo hice, je le lui faisais); edateunt* (59 galdera: *suelo beber, j'ai l'habitude de boir).*

(Teofilo Eseberri Contin) hirurak erabiltzen dituela —azkenengo biak ongi bereizi gabe hala ere— eta Aranzadi Elkartekoek *EAEL*rako galdekatu zuten emakume espartzarrak lau tratamenduak erabiltzen zituela (hika, zuka, xuka, eztabadaka)[25].

Printzearen arabera, xuka tratamendua ekialdeko behe-nafarrera osoan barrena barreiaturik dago, Amikuzeko hizkeran izan ezik. Funtsean hori halaxe da. Hala ere, Amorotze eta Gamueko lekukoetariko batzuek (erdiek) azaldu zidatenez, haur txiki-txikiari xuka (alokutiboaz) mintza dakizkioke, denak hala aritzen ez badira ere. Jakina, haur txikiekiko erabilera hau markatua da, bestelako harremanetan ez baitute xukarik erabiltzen. Beste alde batetik, nahiko logikoa dirudi xukaren agerpenak haur-hizkuntzan, hau ez baita barra-barra erabiltzen den zuka alokutiboari palatalizazio adierazkorra ezartzearen ondorio zuzena baizik.

Ekialdeko behe-nafarreratik kanpo ez dago xukarik (alokutiborik) beste inon, euskal dialektologiaren sortzailearen arabera. Hau egia izanik ere, baliteke salbuespen bat baino gehiago izatea. Guk geuk, salbuespen bitxi bat aurkitu dugu Zuberoan, Aiñharben, hain zuzen ere. Bertan usu erabiltzen dute xuka alokutiboa[26].

Jakina denez eta gure artean Menéndez Pidalek[27] eta Mitxelenak (besteak beste, Michelena, 1964) ezin argiago azaldu izan dutenez, dialektoen mugak aski erlatibo eta badaezpadakoak izan daitezke eta nekez izaten dira erabatekoak edo guztiz irmoak, berez. Hots, hain herriren sailkatzearen inguruko eztabaida alferrekoen gainetik, axola duena bereizgarriaren beraren muga da eta ez hainbeste dialektoarena. Horixe gertatzen zaigu kasu honetan, xuka alokutiboa

---

[25] Espartzako emakumeak era guztietara, nola hel, itzuli ditu erdaratik esaldiak: orain hika, orain eztabadaka, inoiz zuka, sarri xuka; baina maizenik eztabadaka eta xuka. Hona hemen, zenbait adibide tratamendu bakoitzeko:
HIKA: érman zák ógi kori (nº242:emporte ce pain-llévate ese pan»)...
EZTABADAKA: *gisatu du, gisatrik dago* (nº131); *nai dut, nai izan dut* (nº203); *átzo xin zén gízon bat* (nº236); *eun góxian xin da ᵉmazte bat* (nº237); *bíar fánen drá bi emáztiak béren sémekin* (nº239)... zuka: bíar fánen tzú bí gízon (nº238: «deux hommes partiront demain two men will leave tomorrow-mañana partirán dos hombres»).
XUKA: *íkusi txút séi gízon bíde bátian* (nº240: «j'ai vu six hommes sur le chemin»); *étsea xú txíkin* (nº244: «la maison est petite-la casa es pequeña»); *árboliàk txú ándi* (nº245: «les arbres sont grands-los árboles son grandes»); *eztíxu érman máklara* (nº250: «il n'a pas emporté son bâton-he did not carry his stick-no se ha llevado el palo»); *eztíxe érman gamintak* (nº251: ils n'ont pas emporté leurs couteaux-no se han llevado los cuchillos»); *bíar enízu élkiren étserik* (nº252: «je ne sortirais pas de ma maison demain»); *ezgítxu élkien étserík lén ezik ámar égunez* (nº253: «nous ne partirons pas avant dix jours-no saldremos antes de diez días»)...

[26] Eta handik oso urrun ez dagoen Espeize-Ündüreiñen ere, nire harridura eta mesfidantzarako, batek *xu* eztabadakakoa maiz (ez haurrekin bakarrik) egiten zuela adierazi zidan.

[27] Menéndez Pidalen azalpena ekarriko dugu hona, ezin argigarriagoa baita: «Pero sabido es que un dialecto no tiene un único límite fijo como el de una provincia o un partido judicial; los muy varios caracteres que distinguen ese dialecto de los vecinos, no tienen todos en masa una misma extensión, sino que cada uno de ellos alcanza por lo común un límite distinto del de los demás, siguiendo cada uno de ellos direcciones muy diversas...» (Menéndez Pidal, *Introducción al estudio de la lingüística vasca:* 87)

bezalako bereizgarri batek beste euskalki batera luzatzen baititu bere erroak. Edo nahi baldin bada, alderantziz ere adieraz liteke; alegia, Bonapartek Lasa, Arnegi eta Luzaiden xuka egiten zela jakin izan balu, beharbada[28] ekialdeko behe-nafarreraren barruan sailkatuko zituzkeen eta ez mendebaldekoan eta agian gauza bera esan liteke Zuberoako Aiñharberi buruz. Salbuespenok alde batera uzten baditugu, esan behar da printzeak ezarritako mugak gehienetan bat datozela tratamenduen banaketa dialektalarekin. Adibidez, Donaixti-Ibarretik (EBN) Muskildirako (Z) mendi-lepoa gainditzea aski da xuka alokutiboaren arrastorik ez aurkitzeko; edo alderantziz, Hazparnetik Aiherrara, kilometro gutxitan eztabadatik xukara igarotzen gara, e.a.

Aezkoako tratamenduak direla eta, ez datoz bat Loucien Bonaparte eta R.M[a]. Azkue lekeitiarra. Lehenak ohartarazten duenez, Aezkoan sarritan entzun daiteke *xu* izenordaina eta baita *-xu* ere aditzetan, baina beti morfema hori bigarren pertsona aktante edo argumentalari dagokiola. Azkuek, ordea, besterik uste zuen (Azkue, 1927: 287).

Abaurregaineko gure lekukoaren arabera[29], Aezkoan badira *hiketa (toketa, noketa), zuketa* eta *xuketa,* baina —Bonapartek ongi zehaztu zuenez— azkenengo biak ez dira alokutiboak, eztabadakakoak baizik. Itxura denez, oraingoan tratamenduen deitura eta taxonomia herrikoiek eramango zuketen lekeitiarra, bere azken orduko «familiarteko aditz-jokoaren aurkikuntza» eta Bonapartek zorrozki «alokutibo» deiturikoak nahastera. Auzi honetan Yrizarrek Azkueren autoritateari jarraitzen dio, zenbaitetan ustezko edo balizko adizkerak proposatuz aezkerarentzat[30]; dena den, lekeitiarraren aezkerazko testu-bilduman ez da somatzen ez zukarik, ez xukarik eta salbuespen bakarra zaraitzuarren ahotan jarria dago («Aetz ta Zaraitzuarren artean» deritzon XIII. ipuinean). Oso jakitun gaude geure erakusgarriaren tamaina txikiegiaz, baina aezkerazko zuka eta xuka alokutiboen aldeko lekukotasun fidagarririk agertzen ez den bitartean, lehengo ustean jarraituko dugu Bonaparterekin batera (ik. Camino, 1995).

Bukatzeko, esan dezagun herri banaka batzuetan alokutiboa ez den *xu* tratamendua entzun daitekeela eta ez bakarrik haurrekin aritzeko. Berriro ere, gure emaitzak Bonaparterenak baieztatzera datoz; izan ere, Hazparne eta Aezkoako (Abaurregaineko) hizkerek alokutibo ez den tratamendu txikigarria —Abaurregainean *xuketa* deitua— dute bereizgarri[31].

---

[28] Gorago esan bezala, eguzki aldeko euskalkiak sailkatzeko zuka eta xuka alokutiboa bereizgarri erabakigarriak gertatu zitzaizkiola kontuan harturik.

[29] 58 urteko Pascuala Ilintxeta Iriarte gure lekuko bakarraz gain, 81 urteko Casiano Lorea Lorea ere elkarrizketatu nuen eta ez batak, ez besteak ez zidaten zuka edo xukako alokutiborik eman. Bestalde, batak (emakumeak) hika tratatu ninduen, baina zaharra eztabadaka aritu zen nirekin denbora guztian (ordu erdiz edo).

[30] Ik. Yrizar (1981: 319; 289).

[31] Eta agian (?), elkarrizketaturiko lekuko biren arabera, Zuberoako Espeize-Ündüreiñen ere bai.

## 5. ONDORIOAK

1) Hiketaren erabilera edo erabilerarik eza ez da izan irizpide lagungarria euskal dialektologiaren historian, orain dela gutxi arte hiketa, gehiago edo gutxiago, Euskal Herri osoan eta euskalki guztietan barrena barreiaturik egon baita.

Nolanahi ere, badaude arrazoiak pentsatzeko XX. mendean hitanoaren galtzea Bizkai aldean eta agian beste euskalki batzuetan areagotuz joan dela eta gure egunotan azkartzen ari dela. Atzeranzko joera horren lekuko, hor ditugu bizkaierazko eremuan aurki ditzakegun soilgune gero eta zabalagoak (Ondarroa, Lekeitio, Gernika aldea, Bermeo...).

Bestalde, zenbait euskalkitan toketaren erabilerak nozitu duen atzerakada nabarmena baldin bada, are nabarmenagoa da noketa tratamenduaren inguruan gertaturikoa (cf. infra VIII.2). Gaur egun hitanoaren erabileraz hitz egiterakoan, ezinbesteko bihurtzen da toketa/noketa bereizketa; hain desberdinak dira bataren eta bestearen erabilerazko maila eta eremuak.

Lagunarteko bi tratamendu hauen (toketa/noketa) erabileran funtsezko aldakuntzak eta berregituraketak (ekialdeko behe-nafarreraz bururatzen ari dena, adibidez, cf. infra VII. kapt.) mamitzen ari direlakoan gaude. Zentzu horretan, toketa eta noketaren erabilera edo erabilerarik eza euskalkien bereizgarri «berriak» izatera hel litezke denboraren poderioz.

2) Azkueren arabera (1923-25, II: § 640, 432) beroriketaren erabilerak edo erabilerarik ezak —hitanoarenak ez bezala—, bitan banatu izan ditu euskalkiak duela gutxi arte. Alde batetik, beroriketaz baliatu izan diren hegoaldeko euskalkiak ditugu (B, G, IGN, HGN, Aezk., Zaraitz., E) eta bestetik, iparraldekoak, beroriketarik gabeak. Guk jasotako ahozko emaitzen arabera eta bildutako idatzizko lekukotasunen arabera, uste dugu fidagarria dela Azkuek beroriketari ezarri zion dialektozko eremua.

Hala ere, egungo egunean salbuespen dira berorika aritzen diren euskaldunak eta lehenagoko garaietan (haur- edo gazte-denboran) hala aritu izana gogoratzen duen jendearen adinaren eta kopuruaren arabera, beroriketak Bizkai aldean erro sakonagoak izan dituela ematen du.

Nolanahi ere den, hizkuntzazko bereizgarri hau inoiz garbia eta erabatekoa izan dela onartuta ere, bistan da gaur egun ez duela funtsik, salbuespenak salbuespen, gaur egun hegoaldeko euskaran beroriketa hil hurran baita.

3) Gure ustez, XX. mendearen bukaeran funtsean zutik dirau Bonapartek duela mende bat baino gehiago sortaldeko euskalkietako tratamendu-eremuez emandako ikuspegi orokorrak. Printzeak erabili zituen bereizgarri edo isoglosa biek ez dute funtsezko aldaketarik jasan mende baten buruan: alde batetik, ekialdeko behe-nafarrera (EBN) —zaraitzuera barne— eta zuberera (Z) — erronkariera barne— batzen dituen eta aldi berean biak gainontzeko euskalkietatik bereizten dituen zuka alokutiboa dugu; beste alde batetik, sortaldeko eremu

horren barnean xuka alokutiboa dugu EBNren bereizgarri. Geure inkestagintzaren bidez, frogatutzat jotzen dugu Bonaparteren zedarriketa orokorra.

Gure emaitzen arabera, ez dago zalantzapean jartzerik zuka alokutiboaren erabilera zubererazko eremu osoan, ez eta ekialdeko behe-nafarrerazko zati handi batean ere. Zuka barra-barra erabiltzen da zuberera osoan eta orobat gertatzen bide da EBNzko hainbat herritan. Hortaz, ez diogu funts handirik ikusten Yrizarrek (1981, II: 380-387) sortaldeko euskalkientzat (EBN eta Z) proposatzen duen eremu-banaketari, batetik, *Sacaze* atlasaren okerreko irakurketa edo erabilpen batean oinarritua dagoelako eta bestetik, gure inkestagintzak haren ondorioak gezurtatu dituelako.

Rebuschik uste duenaren kontra (Rebuschi, 1984: 515-518), mendebaldeko behe-nafarreran (MBN) ez dago zukarik, ezta antzik ere. Bestalde, ez dugu zalantza-izpirik Rebuschik EBNri ukatzen dion edo zalantzapean ematen dion zuka alokutiboaz.

4) Bonaparterena funtsean deskribapen zuzentzat jotzen badugu ere, beraren garaitik hona tratamenduen aldetiko zenbait mugarri edo bereizgarri zerbait «mugitu» edo aldaratu direlakoan gaude.

Printzeak EBNzko zukako eremutik aparte jarri zuen Arberoa (Irisarri, Heleta, Donostiri, Isturitze eta Aiherra) eta gure inkestagintzak salbuespen berberori baieztatu digu, hots, Arberoa eskualdeko Irisarri, Heleta eta Aiherra herriek osatzen duten eremuaren salbuespena, bertan ez baita zuka alokutiborik erabiltzen. Dena den, Arberoako eskualdeaz gain, Donibane Garazi eta inguruko beste herri batzuk ere (hala nola, Lasa, Arnegi, Aizpura, Uharte-Garazi, e.a.) —ez Garaziko herri osoa, hala ere— salbuespen dira zuka alokutiboaren erabilerari dagokionez. Bonaparteren garaian Donibane-Garazi inguruan zuka mintzatzen zen, printzeak eginarazitako itzulpenak ditugu horren lekuko. Bada, gure lekuko doniandar guztien artean ez dugu aurkitu zuka aritzen denik, denak hika, xuka edo eztabadaka mintzatzen bide dira.

Bestalde, Arberoan eta Donibane-Garazin ez ezik, EBNzko gainerako herri gehienetan ere zuka mintzatzen ez diren salbuespen bana edo aurkitu dugu lekuko gazteenen artean. Halako lekuko «gazteek» eztabada erabiltzen dute herritar adinekoetan ohizkoa dirudien zuka alokutiboaren ordez edo bestela nahas-mahas erabiltzen dituzte tratamendu biak, lar bereizi gabe. Zer esanik ez, eskolak eta, atzerakada horretan baduke eraginik.

Gauzak horrela, pentsatzeko da zuka alokutiboa ekialdeko behe-nafarreran atzeraka dabilela, atzeraka geografia-eremuz eta kezkagarriagoa dena, baita adin-eremuz ere. Lehen zuka alokutiboak eztabada ordezkatu baldin bazuen, mende bat geroago alderantzizko ordezkatzea (zukatik eztabadara) burutu da Garaziko hegoaldean eta gaude gure egunotan eztabadaren aldeko joera hori zukari eutsi dioten EBNzko beste lurralde batzuetara hedatzen ari ez ote zaigun.

Edozein kasutan, zukako mintzamolde edo tratamendua galdu arren, erabileraren ikuspegitik *ordezkatzeaz* hitz egin beharra dagoela uste dugu,

EBNz oro har zuka eta eztabada aurrez aurre edo aurkakotasunean dauden tratamendu edo solas-maila kontrajarriak ez direlako. Funtsean bi mintzamoldeok pareko edo baliokide dira gizarte-zereginari begira eta zentzu horretan formaren ikuspuntutik galera izan daitekeena ez dugu halakotzat jo behar pragmatikaren ikuspegitik; hots, zuka alokutiboaren galerak, ez dakar nahitaez tratamendu-mailaketaren funtsezko berregituraketarik (ik. X. kapt.).

5) Zukaren gailentasuna, hau da, eztabadaren ordez zuka alokutiboa noiznahi eta nonahi erabiltzea EBNren ezaugarritzat dauka Bonapartek. Joera horrekiko salbuespenen artean ondoko herriak aipatzen ditu: Arberoakoak (Irisarri, Heleta, Donostiri, Isturitze eta Aiherra) alde batetik eta bestelako arrazoiengatik, Mugerre eta Hiriburu, bestetik. Bonaparteren arabera, lehenengoetan ez dago zukarik eta bigarrenetan eztabada maiz erabiltzen omen zen jeneralean hitz egiteko eta baita goragokoari hitz egiteko ere.

Bigarren salbuespenari dagokionez, ez deritzogu Mugerre tratamendu aldetiko salbuespena denik inola ere. Bertan denetarik aurkitu dugu: zuka aritzen ez den 47 urteko laboraria eta zuka aritzen diren lekuko zaharragoak; azken hauek goragokoari zuzentzeko ez zuten erabiltzen eztabadarik, zuka baizik.

Bestela, oro har, gure emaitzek baieztatu egiten dute zuka alokutiboaren aldeko joera eta eztabadaren erabilera murriztu edo markatua[32] EBNn. Dena den, ordezkatze hau ez da EBNren bereizgarria[33], gauza bera gertatzen baita zubererazko eremuan. Ipar-ekialdeko euskalki biotan eztabada ez da bakan baizik erabiltzen. Sortaldean, gutxienez, lau jokaera desberdin bereiz daitezke kontu honen aurrean. Batzuek (Zuberoako eta Amikuzeko herri batzuetan, adibidez) ez dute eztabadarik bat ere erabiltzen, ezta jende-multzo baten aurrean ere. Beste batzuek ez dute eztabadarik, *non ez den nonbaitekoa jiten* gamartiar baten hitzez azaltzeko; hots, eztabadaka, herritar ez direnekin-eta mintzatzen dira, inoiz mintzatzekotan. Asko normalean zuka aritzen dira eta anitz jenderi zuzentzerakoan jotzen dute eztabadara (neutrora), baina ez solaskidearen hizkerara plegatzearren. Azkenik, beharbada, kasu bietan (bai jende-saldoari mintzatzeko, bai jende arrotzari mintzateko) eztabadaz baliatzen direnak dituzkegu.

Esanak esan, EBNn eta Zn zuka alokutiboa berdintsu erabiltzen dela onartuta ere, oro har, badirudi errotuago dagoela zuka zubereran ekialdeko behe-nafarreran baino. Izan ere, zubereran ez dugu adinaren edota eremuen araberako salbuespenik bat ere aurkitu.

6) Xuka alokutiboaren eremuari dagokionez, funtsean gure emaitzak eta Bonaparteren deskribapena bat datoz. Xuka ez da EBNren mugaz harantzago

---

[32] Bonapartek dioenez «Ce n'est pas que dans certains cas exceptionnels que le traitement indéfinie doit y être employé.»

[33] «Le traitement respectueux enfin, remplace régulièrement l'indéfini en bas-navarrais oriental, et c'est cela que consiste un des principaux caractères de ce dialecte.» (Bonaparte, 1869).

sartzen. Hala ere, gure ikerketaren arabera, Luzaide, Arnegi eta Lasa (MBN) gaineratu behar dizkiogu sartaldetik eta Aiñharbe (Z) sortaldetik.

7) Aezkoako kasuan, ez deritzogu Azkuek Bonaparteri egindako zuzenketa bat ere zuzena edo fidagarria denik. Aezkeran badira *zuketa* eta *xuketa*, baina printzeak ongi zehaztu zuenez, ez dira alokutiboak.

Alde formaletik begiratuta, Aezkoako *xuketa* eta Hazparnekoa parekoak dira eta pragmatikaren ikuspuntutik, ez dago zalantzarik *xu* «eztabadakakoa» tratamendu berezia dela, ez baita erabiltzen haurrekiko hizkeran bakarrik edo bakanka baliabide adierazkor gisara.

8) Bonaparteren euskalkiz euskalkiko eta are eskualdez eskualdeko eremuzedarriketa funtsean zuzena iruditzen bazaigu ere, lekuan lekuko tratamenduen balio pragmatikoari buruzko adierazpen batzuk nahasgarri gerta daitezkeela deritzogu. Erabileraz beherago sakonago jardungo dugun arren, argi ditzagun Bonaparteren pare bat esaldi nahasgarri.

Berak dioenaren arabera[34], zentzu hertsian zuka alokutiboa zubereraz baizik ez omen da errespetuzkoa. Esaldi hau nola ulertu behar da? Bada, testuinguruaren argitan, adierazpen ilun horrezaz Bonapartek zubereraren eta erronkarieraren arteko aldea azpimarkatu nahi duelakoan gaude. Erronkarieraz (eta kontu honetan erronkarierarekin batera omen zihoazen Mugerre eta Hiriburuko hizkeretan) zuka alokutiboa eztabada baino beheragoko mailan kokaturik dagoen heinean, kontraesana dirudi zuka errespetuzkoaz hitz egiteak, aldamenean errespetu handiagoko eztabada dagoelako. Hortaz, Bonapartek goiko adierazpenaz ez du esan nahi EBNzko zuka errespetuzkoa ez denik. Izan ere, gauzak alderantziz dira. Gure emaitzen arabera, ekialdeko behenafarrerazko zuka alokutiboa zubererazkoa bezain errespetuzkoa dateke, neurri eta molde bertsuan erabiltzen baitira bata eta bestea. Eztabada, euskalki bietan da noizbehinkako tratamendua edo, hobeki esan, «tratamendurik eza»[35], jendesaldoari zuzentzerakoan edota euskaldun kanpotarraren hizkerari jarraitzerakoan erabiltzekoa. Zuka, bietan da errespetuzkoa, apaizarekin eta begirune berezia merezi duten pertsonekin erabiltzen delako. Zentzu horretan gaude Bonapartek dioenaren —ez esan nahi duenaren— alderantzizkoa ez ote dugun: zubereraz hiketa eta zuka alokutiboa tratamendu bakarrak —noizean behingo eztabadarekin batera— diren heinean eta EBNz aipatutakoez gain bitarteko tratamendu bat gehiago (xuka alokutiboa) duten heinean, ekialdeko behenafarrerazko zuka markatuagoa eta «errespetuzkoagoa» dela esatera ausartuko ginateke. Adibidez, EBNzko zenbait lekutan zuka aitonari edo aitaginarrebari baino ez zaio mintzatzen familia barnean; zubereran, ordea, ez dute zuka

[34] «Le traitement en *zu*, lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'est, pour ainsi dire, respectueux quant au sens, qu'en souletin.» (Bonaparte, 1869: Ibid.)

[35] Ik. honetaz Inchauspek (1858ko martxoaren 8ko gutunean) Bonaparteri eman zion azalpena (Irigoyen, 1957: 197-198).

besterik senide nagusiago guztiekin aritzeko. Gauzak horrela, zuka alokutiboak eztabada ordezkatzea EBNren bereizgarritzat jotzerakoan («Le traitement respectueux enfin, remplace régulièrement l'indéfini en bas-navarrais oriental, et c'est cela que consiste un des principaux caractères de ce dialecte. Ce n'est que dans certains cas exceptionnels que le traitement indéfini doit y être employé.») urrunegi ez ote doan gaude, ordezkatze berberori zubereraz ere gertatzen delako.

# VII. EKIALDEKO BEHE-NAFARRERAREN BEREIZGARRIA: XUKA ALOKUTIBOA ETA BERE BALIO PRAGMATIKOA

Kapitulu honek ekialdeko behe-nafarreraren bereizgarri den xuka tratamenduaren erabilera handi-handika ispilatzea du helburu. Xede horri begira, oraingo honetan bazter utziko ditugu xukarik erabiltzen ez duten lekukoen emaitzak. Guztira, beraz, hemeretzi emakumeri eta hogeita bi gizoni egindako berrogeita bat inkesta dira xukaren erabilera argitzeko kontuan hartuko direnak.

Bestalde, orain arte esana kontuan hartzen bada, laster jabetuko gara jarraian aurkeztera goazen emaitzen balio erlatiboaz. Alde batetik, gure inkesta-gintza-sarea, euskalkiaren eskualde nagusietako hizkera guztietara iritsi arren, guztiz zabala da: herri bana, bina edo gehienez ere hiruna herri hizkera bakoitzeko; hortik, tratamenduen isoglosa dialektal zehatza ezartzeko zailtasuna. Beste alde batetik, emaitzok ekialdeko behe-nafarrera osoari dagozkion heinean —Amikuze aldea salbu, han ez baita xukarik—, estrapolazio edo abstrakzio hutsak dira; alegia, euskalkiaren gutxi gorabeherako ispilua izanik ere, zehazki ez dira inongo herritakoak, ezta euskalki osoarenak ere. Izan ere, eskualde batetik bestera —Garazitik Arberoara, esate baterako— alde handia dago tratamendu txikigarriaren erabileran. Beraz, tratamendu bakoitzaren eskualdez eskualdeko erabilera dialektalaz emango diren xehetasunen eta salbuespenen argitan (infra X. kapt.) ulertu behar dira ondoko taulak eta azalpenak.

## 1. FAMILIAREN ESPARRUA: AHAIDETASUNEZKO HARREMANAK

Xuka simetrikoa aski gauza ohizkoa da senar-emazteen artean (%50) eta ezkongaien artean (%54,5). Hala eta guztiz ere, ezin esan daiteke senar-emazteen eta ezkongaien arteko xuka elkarrekikoa gauza orokorra denik euskalki osoan barrena. Xuka simetrikoa guztiz ohizko eta ia arauzkoa da Garaziko mintzairan, baina ez hainbeste gainontzeko eskualdeetako hizkeretan.

Bonapartek ongi ohartarazi zuenez, zenbait eskualdetan (Arberoa eta Beskoitze aipatzen ditu berak) uzkur dira baxenabartar gizonak xuka egiteko beren artean. Gure emaitzek jeneralean baieztatu egiten dute gizonari xuka mintzatzeko uzkurtasunezko joera hori; are ezkondu eta ezkongaiena bezalako harreman guztiz konfiantzazkoaren kasuan ere, non emaztekia dexente gutxiago mintzatzen baitzaio xuka gizonari alderantziz baino.

(EKIALDEKO BEHE-NAFARRERA) SENAR-EMAZTEAK




(EKIALDEKO BEHE-NAFARRERA) SENARGAI-ANDREGAIAK



Garazitik kanpo, parekoen arteko gainerako harremanetan (neba-arrebak, lehengusu-lehengusinak, koinatu-koinatak...) emaztekia nekez mintzatu ohi zaio xuka gizonari, eta zer esanik ez, are gutxiago gizonak elkarri. Horregatik, ezkondu eta ezkongaien kasuan agian beste inoiz baino aiseago gertatzen da emakumea bere gizonari xuka zuzentzea (%50-%52,9) eta horrek argi uzten du tratamendu txikigarriaren maitasunezko, gozotasunezko eta eztitasunezko balioa.

Emazte eta emeztagaiarekiko xuka (%82,5 eta %88,8, hurrenez hurren), aldiz, ia-ia orokorra da tratamendu txikigarria erabiltzen den eremuan.

Beraz, garaztar senar-emazte eta ezkongaien artean elkarrekiko xuka araua den bitartean, handik kanpo ez dago horrelako arau finkorik. Elkarrekiko xuka (%50) aukeraren aldamenean beste bi aukera garrantzitsu ageri zaizkigu: zuka edo eztabada simetrikoa, alde batetik; eta xuka-toka itxurazko asimetria, bestetik (%23,6 ezkonduen artean eta %30,3 ezkongaien artean). Aipaturiko aukera hauen aldean, elkarrekiko hitanoaren aldeko joera (noka-toka) guztiz murritza da senar-emazte eta ezkongaien artean.

Guraso eta seme-alaben artean, hau da gutxi gorabehera tratamenduzko usarioa: gurasoak toka aritzen dira nagusiki beren semeekin (%84,2-%86,8) eta xuka alabekin (%78,9-%74,2); alderantzizko zentzuan, semeak beren aitei xuka dexente gutxiago mintzatu arren (%58,8), oro har esan daiteke seme-alabak xuka aritzen direla maizenik beren gurasoekin (%73,6an batez beste). Gutxi dira alabari noka mintzatzen zaizkionak (bostetik bat edo) eta, noski, gainerako euskalki guztietan bezala, familian oso nekez agertzen da senide nagusiagoenganako hitanorik.

ELKARREKIKO TRATAMENDUA (BINAKA) GURASO ETA SEME-ALABEN ARTEAN

| | HITANOKA *T-T* | HITANO/ZU *T-V* | HITANO/XUKA *T-X* | XUKA/ZU* *X-V* | XUKA *X-X* |
|---|---|---|---|---|---|
| AITA-SEMEA | 1<br>%2,7 | 14<br>**%38,8** | 15<br>**%41,6** | 1<br>%2,7 | 5<br>%13,8 |
| AMA-SEMEA | | 7<br>**%19,4** | 24<br>**%66,6** | 1<br>%2,7 | 4<br>%11,1 |
| AITA-ALABA | 1<br>%2,7 | 2<br>%5,5 | 5<br>%13,8 | 6<br>%16,6 | 22<br>**%61,1** |
| AMA-ALABA | | 1<br>%2,9 | 7<br>%20,5 | 4<br>%11,7 | 21<br>**%61,7** |

ZU*= eztabadaka nahiz zuka

Emaitzok zentzu bietan eta binakoen bidez aztertuz gero, honako ondorio hau ateratzen da (ikus bedi goiko taula): semearekiko harremanean asimetria nagusitzen den bitartean (*T-V: toka-xuka* nahiz *toka-zu* eran mamitua), alabarekiko harremanean joera garbia simetriaranzkoa da, elkarrekiko xukaren bidez.

Sexua kontuan harturik, badirudi gizonen artean biziki gutxiago azaltzen dela xuka, emakumeen artean edo emakume bati zuzentzerakoan baino. Gutxi gorabehera, hurrengo mailaketa somatzen da: hartzaileari bagagozkio, gizonari biziki gutxiago mintzatzen zaio xuka emakumeari baino; eta hiztun edo igorleari bagagozkio, oro har, emakumea gizona baino xukazaleagoa izaten dela dirudi.

Azpimarkatzekoa da gizonen arteko xuka senidetasunezko harremanetara mugatua dagoela (senide nagusiagoekiko harremanetara, hala nola, aita, ama, aitona, amona, osaba, izeba...), familiaz kanpo ez baita bat ere normala gizon batek bera baino zaharragokoari xuka hitz egitea, ezta adiskideak izanda ere. Zentzu hertsi horretan, xuka tratamenduari familiartasun handia datxekiola esan daiteke; hots, familiaren eremuan beste inon baino hedatuago bide dago, are gizonari eta nagusiagoari ere mintzatzeraino. Emaitzok xuka tratamenduaren bitarteko papera frogatzen dute: ez da hitanoa bezain «bortitza» eta aldi berean «zu» izenordaina baino hurbilagoa dirudi.

Esan bezala, ohitura semearenganako hitanoa izan arren, haurra txikia denean (hiruzpalau urte), gurasoak askozaz gehiago mintzatzen zaizkio xuka beren semeari (%52,7). Emaitza honek agerian jartzen du xuka tratamenduak oraindik atxikitzen duen balio maitagarri markatua. Xukak, egun gehienbat neskatila edo emaztekiekin noketaren ordez erabilia izanagatik, ez du galdu jatorriz datxekion adierazkortasuna. Hona hemen, 4. eta 38. galderetan jasotako xukako emaitzak erakusten dituen irudia:

| 4. gald.<br>AITAK SEMEARI XUKA | 38. gald.<br>GURASOEK 3-4 URTEKO SEMEARI XUKA |
|---|---|
| %15,7 (6/38) | %52,7 (19/36) |

Aitona-amonak ere, amonek mutikoekin xukazaleagoak badirudite ere, nagusiki toka mintzo zaizkie beren iloba mutilei (%78,9-%59,4) eta xuka neskatoei (%86,1-%84,2). Behetik gora, ordea, bada aldaketa adierazgarririk gurasoekiko jokabidearen aldean. Alde batetik, gurasoekin baino gutxiago agertzen da xukako tratamendua aitona-amonekin; horrela, biloba mutil eta aitonaren arteko harremanaren kasuan, aitonarenganako xuka (%48,5) ez da garaile ateratzen eztabada eta zuka tratamenduen gainetik (%51,3). Beste alde batetik, datuok agerian jartzen dute tratamenduen arteko mailaketa, xuka euskalkiko jende orori eman ez dakiokeen bitarteko tratamendua (*hi* eta *zu*-

ren artekoa) baita. Bestalde, nokako tratamendua gutxitxok (sei-zazpitatik batek, batez-beste) erabiltzen du bilobekin[1].

Emaitzak binaka arakatuz gero, lehengo ondorioen antzekoak ateratzen dira (ikus beheko taula). Biloba mutilarekin, batik bat *hitanoa/zu* eta *hitanoa/xuka* binakoen bidez gauzatzen den asimetria da nagusi (%79,8 aitonarekiko harremanean eta %63,5 amonarekikoan). Biloba neskarekin, ordea, xuka simetrikoa gailentzen da amonarekiko harremanaren kasuan (%65,6) eta ez hain garbiro aitonarekikoan (%50). Nolanahi ere, adinaren araberako tratamendu-desberdintasunen artean azpimarkatzekoa da biloba neskaren kasuan *xuka/zu* asimetriak hartzen duen pisu nabarmenagoa (%35,2 aitonarekin eta %21,8 amonarekin).

ELKARREKIKO TRATAMENDUA (BINAKA) AITONA-AMONA ETA BILOBEN ARTEAN

| | HITANOKA *T-T* | HITANO/ZU *T-V* | HITANO/XUKA *T-X* | XUKA/ZU* *X-V* | XUKA *X-X* |
|---|---|---|---|---|---|
| AITONA-BILOBA MUTILA | | 17 **%48,5** | 10 **%28,5** | 1 %2,8 | 7 %20 |
| AMONA-BILOBA MUTILA | | 9 **%27,2** | 10 **%30,3** | 2 %6 | 12 %36,3 |
| AITONA-BILOBA NESKA | | 2 %5,8 | 3 %8,8 | 12 **%35,2** | 17 **%50** |
| AMONA-BILOBA NESKA | | 2 %6,2 | 2 %6,2 | 7 **%21,8** | 21 **%65,6** |

ZU*= eztabadaka nahiz zuka

Sexuaren aldetik, lehengo joera edo hurrenkera bera nabari da: hartzaileari gagozkiola, gizonari dexente gutxiago mintzatzen zaio xuka emakumeari baino (ikus bedi beheko taula); eta igorleari bagagozkio, oro har, emakumea gizona baino xukazaleagoa izaten dela dirudi.

[1] Aitona-amonek bilobak haur txikiak direnean ezagutzen dituzte eta agian horregatik aritzen dira gutxiago hitanoka aitona-amonak beren bilobekin, gurasoak beren seme-alabekin baino.

XUKA, HIZTUN ETA HARTZAILAREN SEXUAREN ARABERA
(AITONA-AMONEK BILOBEI)




XUKA, HIZTUN ETA HARTZAILAREN SEXUAREN ARABERA
(BILOBEK AITONA-AMONEI)



Anaien artean ez da xukarik erabiltzen, anaiak hika aritzen direnetakoak baldin badira, behintzat. Anaiak ia-ia beti (%95ean edo) toka aritzen dira elkarrekin. Ahizpen artean, ordea, gure datuen arabera, noka aritzen den ahizpa bakoitzeko (%33,3), bi edo gehiago dira xuka (%66,6) mintzatzen direnak. Joera berdintsuak atzeman ditugu neba eta arrebekiko jokamoldean: arrebari bi bider gehiago egiten zaio xuka (%69,4), noka (%30,5) baino; eta nebarekin toketa izaten da ohitura nagusia (%74,2), emakume hikatzaileen artean, bederen.

Beraz, haurrideen artean tratamendu aldetiko berdintasuna da nagusi, bai sexu bereko haurrideen artean, bai neba-arreben artean. Mutilak toka aritzen dira elkarrekin, neskak xuka nagusiki (bi herenak) eta bakanago (heren bat) noka ere bai. Neba-arreben artean, ostera, hitano eta xuka simetrikoen aldamenean xuka/toka asimetria azaltzen zaigu indar handiz.

ELKARREKIKO TRATAMENDUA (BINAKA) HAURRIDEEN ARTEAN

| | HITANOKA<br>*T-T* | XUKA/TOKA<br>*X-T* | XUKA<br>*X-X* |
|---|---|---|---|
| NEBA-ARREBAK | 11<br>%33,3 | 13<br>**%39,3** | 9<br>%27,2 |
| AHIZPAK | 4<br>%28,5 | — | 10<br>**%71,4** |
| ANAIAK | 21<br>%95,4 | — | 1<br>%4,5 |

ZU*= eztabadaka nahiz zuka

XUKA, HIZTUN ETA HARTZAILEAREN SEXUAREN ARABERA (HAURRIDEEN ARTEAN)



Bistan denez, neba-arreben artean ez ezik, ahizpen artean ere guztiz murritza da noketaren erabilera. Emaitzok, tratamenduen banaketari eragiten dien aldakuntza garrantzitsua iragartzen digute eta alde horretatik guztiz adierazgarriak dira, hitanoa haurrideen artean agertu behar baita, inon agertzekotan. Noketa atzeraka dabil eta ekialdeko behe-nafarreran joera hori areagotu egin da xukaren zabalkuntzaren eraginez. Aski aurreratua dagoen tratamendubakuntze baten aitzinean gaude euskalki honetan: xuka bereganatzen ari da noketaren lehengo zeregin eta gizarte-esparrua eta ondorioz egunetik egunera noketa, funtzionaltasun ezaz, gero eta alboratuago geratzen ari da.

Osaba-izebekiko harremanak gurasoekikoen antzekoak dira tratamenduaren aldetik. Xuka da zentzu bietan nagusitzen den tratamendua, iloba mutikoari zuzentzeko izan ezik, honi toka mintzatzen baitzaio (%78,9-%72,7). Hala ere, goitik behera alabekin baino nekezago gertatzen da noketa iloba neskekin eta ondorioz aiseago jotzen da xukara. Alderantzizko zentzuan (behetik gora), xuka da garaile eta gurasoekiko neurri berdintsuan azaltzen da; hala ere, iloba neska maizago zuzentzen zaio eztabadaka edo zuka osabari (%35), alaba bere aitari baino (%23,6).

Gauzak horrela, iloba mutilarekin *hitanoa/zu* nahiz *hitanoa/xu* binakoen bidez gauzatzen den asimetria gailentzen den bitartean (ikus beheko taula), iloba neskarekin xuka elkarrekikoa nagusitzen da berriz ere (%61,5-%76,6), alabaren kasuan bezalatsu (%61,1-%61,7).

Nolanahi ere, iloba eta biloba neskarekin botere edo adinezko desberdintasuna bestelako asimetria baten bidez azpimarkatzeko joera nabari da, *xuka/zu* tratamendu-asimetriaren bidez, hain zuzen ere. Beraz, mutilekin erabiltzen diren *hitanoa/zu* edo *hitanoa/xu* binako asimetrikoen ordez, *xuka/zu* tankerako asimetriara jotzen da neskatilarekiko berdintasun eza (boterezkoa nahiz adinezkoa) azpimarkatzeko.

Sexuari gagozkiola, lehengo joera bera errepikatzen da (ikus beheko taula).

ELKARREKIKO TRATAMENDUA (BINAKA) OSABA-IZEBEN ETA ILOBEN ARTEAN

| | HITANOKA *T-T* | HITANO/ZU *T-V* | HITANO/XUKA *T-X* | XUKA/ZU* *X-V* | XUKA *X-X* |
|---|---|---|---|---|---|
| OSABA-ILOBA MUTILA | 2 %5,5 | 15 **%41,6** | 11 **%30,5** | — | 8„ %22,2 |
| IZEBA-ILOBA MUTILA | — | 8 **%24,2** | 15 **%45,4** | 1 %3 | 9 %27,2 |
| OSABA-ILOBA NESKA | — | 2 %5,1 | 2 %5,1 | 11 **%28,2** | 24 **%61,5** |
| IZEBA-ILOBA NESKA | — | — | 1 %3,3 | 6 **%20** | 23 **%76,6** |

ZU*= eztabadaka nahiz zuka

XUKA, HIZTUN ETA HARTZAILEAREN SEXUAREN ARABERA
(OSABA-IZEBEK ILOBEI)




XUKA, HIZTUN ETA HARTZAILEAREN SEXUAREN ARABERA
(ILOBEK OSABA-IZEBEI)




Lehengusuen artean, anaien artean bezalaxe, ez dago xukarik, toketa baizik (%91,6). Hala ere, lehengusinen artean xuka da nagusi (%83,3) anitzez ere, noketarik ozta-ozta agertzen da eta; ahizpen kasuaren aldean, beherakada galanta somatzen da hitanoaren erabileran xukaren alde. Are gehiago, lehengusinak beren lehengusuekin nagusiki toka mintzatu arren (%58), biziki garrantzitsua da lehengusuekin xuka aritzen den emakume-kopurua (%35,4). Oro har,

antzeko egoera dugu koinatu eta koinaten artean, orduan noketa are nekezago gertatuz.

Elkarrekiko tratamendua binaka hartzen badugu, zera aurrera daiteke: lehengusuek toka eta lehengusinek xuka jarduten dute beren artean; lehengusu eta lehengusinen artean *xuka/toka* (15=%51,7) asimetriaren aldamenean eta ia-ia orpoz orpo xuka elkarrekikoa dugu (11=%37,9). Jokamolde bertsua errepikatzen da koinatu-koinaten artean (ikus beheko taula).

ELKARREKIKO TRATAMENDUA LEHENGUSU ETA LEHENGUSINEN ARTEAN

| | HITANOKA *T-T* | XUKA/TOKA *X-T* | XUKA *X-X* | ZU* *V-V* |
|---|---|---|---|---|
| LEHENGUSU-LEHENGUSINAK | 1<br>%3,4 | 15<br>**%51,7** | 11<br>**%37,9** | 2<br>%6,8 |
| LEHENGUSINAK | 2<br>%13,3 | | 13<br>**%86,6** | |
| LEHENGUSUAK | 18<br>**%94,7** | | 1<br>%5,2 | |

ZU*= zuka nahiz eztabadaka

XUKA, HIZTUN ETA HARTZAILEAREN SEXUAREN ARABERA (LEHENGUSU-LEHENGUSINEN ARTEAN)



ELKARREKIKO TRATAMENDUA (BINAKA) KOINATU-KOINATEN ARTEAN

| | HITANOKA *T-T* | XUKA/TOKA *X-T* | XUKA/ZU* *X-V* | XUKA *X-X* | ZU* *V-V* |
|---|---|---|---|---|---|
| KOINATU-KOINATAK | — | 15<br>**%44,1** | 5<br>%14,7 | 12<br>**%35,2** | 2<br>%5,8 |
| KOINATAK | — | — | — | 19<br>**%100** | |
| KOINATUAK | 19<br>**%100** | | | | |

ZU*= zuka nahiz eztabadaka

XUKA, HIZTUN ETA HARTZAILEAREN SEXUAREN ARABERA (KOINATU-KOINATAK)




Oso nabarmena da aitagin-amaginarrebei erakusten zaien errespetua, eurekin beste edozein seniderekin baino eztabada eta zuka gehiago erabiltzen da eta; aitona-amonekin baino gehiago. Suhia eta erraina gehienetan *zu* izenordainaz (eztabadaka edo zuka) mintzatzen zaizkie aitaginarrebari (%66,6an suhiak eta %62,1ean errainak) eta amaginarrebari (%66,6an suhiak eta %50ean errainak); amaginarrebari, hala ere, erraina xuka nahiz errespetuzko tratamenduez (eztabadaka nahiz zuka) zuzen dakioke.

Nagusiagoak diren senide hurbilenekin (guraso, aitona-amona, osaba izebekin) xuka jarduten dute senide gazteek, baina beheko taulan ikus daitekeenez, xukako portzentaiak zerbait jaisten dira aitona-amonei zuzentzerakoan eta ikaragarri ezkontza-bidezko senide nagusiagoei zuzentzerakoan. Datu hau xukaren familiartasunaren alde mintzo delakoan gaude; alegia, familiaren eremutik urruntzerakoan halako urruntasun bortitza sentitzen bada, nekez azaltzen da tratamendu txikigarria behetik gora. Goitik behera ere, suhiari askoz gutxiago mintzatzen zaio toka (aitaginarreba %48,5ean eta amaginarreba %20,5ean); eta edozein kasutan ere, suhiarekin uste baino maizago azaltzen da urruntasuna adierazten duen eztabada (%22,8-%35,2). Errainari mintzatzeko, aldiz, xuka da arau orokorra (%86,1) noketaren kaltetan.

SENIDETASUN-MAILAREN GARRANTZIA XUKAREN ERABILERAN NAGUSIAGOEKIN

| | AITARI | AMARI | OSABARI | IZEBARI | AITONARI | AMONARI | AITAG* | AMAG* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| MUTILA | %58,9 | %79,4 | %58,9 | %76,9 | %48,6 | %65,7 | %33,3 | %33,3 |
| | 23/39 | 31/39 | 23/39 | 30/39 | 18/37 | 23/35 | 12/36 | 12/36 |
| NESKA | %73,6 | %82,5 | %65 | %82,3 | %56,7 | %74,2 | %37,8 | %50 |
| | 28/38 | 33/40 | 26/40 | 28/34 | 21/37 | 26/35 | 14/37 | 19/38 |

*AITAG.= aitaginarreba; *AMAG.= amaginarreba

Aitaginarreba eta suhia xuka elkarrekikoaz (%26,4), *zu* elkarrekikoaz (%23,5) eta bereziki *hitanoa/zu* binako asimetrikoaz (%38,2) aritzen dira elkarrekin. Hala eta guztiz ere, seme-biloba-ilobarekin ez bezala, suhiarekin asko leuntzen da asimetriazko jokamoldea; hobeki esan, simetriaranzko joera (xuka eta zu elkarrekikoen bidez) nabari da tratamenduan. Joera hau oso nabaria da amaginarrebarekiko harremanen kasuan, non asimetriarik gutxi gertatzen baita. Bereziki, *hitanoa/xuka* aukeraren murrizketa-desagerpena eta honen ondorio den *zu* elkarrekikoaren agerpen indartsua azpimarkatu behar dira suhiarekiko harremanaren kasuan. Amaginarrebaren eta errainaren artean xuka elkarrekikoa (%57,5) eta simetria (xuka nahiz zuka-eztabadaka) dira nagusi. Aitaginarrebaren eta errainaren artean, ordea, simetriazko jokaeren aldamenean (xuka eta *zu* elkarrekikoen bidez) berebiziko garrantzia hartzen du *xuka/zu* asimetriak (%43,7).

Errainarekin *xuka/zu* binakoan gertatzen den asimetriari nahiko adierazgarria deritzogu, azken batean suhiarekin jazotzen den *hitanoa/zu* asimetria ordezkatzera datorrela ematen baitu. Hots, mutilarekin era batera (*hitano/zu*) eta neskarekin beste era batera (*xuka/zu*), baina edozein kasutan ere, bietan kodetzen dira asimetria eta urruntasuna tratamenduaren bidez.

ELKARREKIKO TRATAMENDUA AITAGIN-AMAGINARREBEN ETA SUHI-ERRAINEN ARTEAN

| | HITANOA/ZU *T-V* | HITANOA/XUKA *T-X* | XUKA/ZU *X-V* | XUKA *X-X* | ZU *V-V* |
|---|---|---|---|---|---|
| AITAGIN.-SUHIA | 13<br>%38,2 | 3<br>%8,8 | 1<br>%2,9 | 9<br>%26,4 | 8<br>%23,5 |
| AMAGIN.-SUHIA | 6<br>%19,3 | — | 2<br>%6,4 | 12<br>%38,7 | 11<br>%35,4 |
| AITAGIN.-ERRAINA | — | 1<br>%3,1 | 14<br>%43,7 | 13<br>%40,6 | 4<br>%12,5 |
| AMAGIN.-ERRAINA | — | — | 9<br>%27,2 | 19<br>%57,5 | 5<br>%15,1 |

## 2. FAMILIAZ KANPOKO HARREMANAK

Familiaz kanpoko gizarteko harremanetan, senitartekoen eremuan ez bezala, oro har ez da erabiltzen xukarik gizonen artean[2], ezta hurbileko adiskide nagusiagoekin mintzatzeko ere. Hauxe da, hain zuzen, bi eremuen artean azpimarkatu beharreko desberdintasunik nabariena.

Familiaz kanpoko harremanetan xuka noketaren ordez, hots, noketaren zereginetan erabiltzen da batik bat. Hortaz, gehienbat kideko emakumeen artean edota kideko emakumeari mintzatzeko erabiltzen da.

Toketaren eta xukaren artean egiten den sexuaren araberako banaketa hori oso garbi ageri zaigu gure galdekizuneko lehenbiziko galderetatik (34 eta 35. gald.). Gorago esan dugunez, xuka tratamendua emaztekiei ematen zaie nagusiki; horrela, ez da oso ohizkoa zazpi edo zortzi urteko mutiko ezezagunari xuka zuzentzea (%31,4), baina bai, ordea, adin bereko neskatila ezezagunari (%92,5). Ikus daitekeenez, inoiz gerta daiteke mutiko gazteari ere xuka zuzentzea, baina edozein modutan ere, hori emakumeen joera izaten da eta ez gizonena. Horrela, adibidez, mutiko ezezagunari xuka zuzenduko omen litzaizkiokeen hamaika lekukoetatik zortzi emakumeak dira. Lehen azpimarkaturiko joera bera dugu berriz ere: oro har, emaztekiek xuka tratamenduaren zaleago dirudite. Emaitza hauek argi uzten dute hitano eta xukaren arteko erabilerazko aldea, sexuari dagokionez.

[2] Salbu eta Garaziko eskualdean, non toka aritzeko bezainbesteko konfiantzarik ez denean, xuka nahiz zuka-eztabadaka egiten baitzaio gizonari.

34. 7-8 URTEKO MUTIKO EZEZAGUNARI.

| 1.Toka | 2.Noka | 3.Eztabad. | 5.Zuka+ | 6.Xuka+ | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| 21<br>%61,7 | | 2<br>%5,8 | | 11<br>%32,3 | 34 |

GIZONEN ERANTZUNAK

| 1.Toka | 2.Noka | 3.Eztabad. | 5.Zuka+ | 6.Xuka+ | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| 15<br>%78,9 | | 1<br>%5,2 | | 3<br>%15,7 | 19 |

EMAKUMEEN ERANTZUNAK

| 1.Toka | 2.Noka | 3.Eztabad. | 5.Zuka+ | 6.Xuka+ | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| 6<br>%40 | | 1<br>%6,6 | | 8<br>%53,3 | 15 |

35. 7-8 URTEKO NESKATOARI

| 1.Toka | 2.Noka | 3.Eztabad. | 5.Zuka+ | 6.Xuka+ | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 3<br>%7,5 | | 37<br>%92,5 | 40 |

Animaliekin oro har toketa (%69,4) gailentzen bada ere, ez da hain ohiz kanpokoa xuka aritzea animalia emeekin (%27,7). Hainbesteraino lotuta daude sortaldeko baxenabartarren gogoan xuka tratamendua eta emetasuna.

Familia barneko harremanetan *hi* eta *zu*-ren bitarteko tratamenduaren zeregina betetzen duen arren, ez da pentsatu behar xuka ia jende orori eman dakiokeen tratamendua denik. 54, 56, 63 eta 94-95 galderetako emaitzek erakusten dutenez, testuinguru formaletan eta pertsona ezezagunen aurrean nekez azaltzen da xuka eta horrek esan nahi du xuka mintzatzeko konfiantzazko edo hartuemanezko gutxienezko oinarria behar dela. Ama batek normalki ez dio xuka egiten maistrari edo institutuko andre zuzendariari (%2,5) lehenbiziko harremanetan (54. galdera), ezta adineko neskame batek bere etxeko andre gazteari (%21,8) hasieran bederen (56. galdera), ez eta bezero emakumeak jatetxeko zerbitzari adintsukoari (%28,5) edota gazteagoari ere (%33,3) lehenbiziko egunean (94 eta 95. galderak).

Eta hain formalak ez diren testuinguruetan ere, elkar ezagutu ezik, dexente jaisten da xukako portzentaia. Horrela, kalean topatzen den ezezagunari (63.

galdera), ez zaio hain erraz xuka mintzatzen (10/40 = %22,5), Garazi aldean edo Donaixti-Ibarre bezalako herrietan ez bada: xukako hamar erantzunetatik zortzi aipatu eskualdeetako lekukoenak dira. Beraz, Garazi eta agian Ostibarre ere salbuespen dira, bertako emakumeek xuka barra-barra erabiltzen dutelako eta ondorioz xuka ia-ia tratamendu neutro edo markatugabetzat jotzen dutelako.

Gauzak horrela, familiatik kanpo xuka —toketa bezala—, konfiantzazko edo lagunarteko tratamendutzat har dezakegu, jeneralean ez baita gertatzen elkarrekiko ezagutzarik eta harremanik gabe.

Bestelako egoera eta testuinguruetan, ordea, xuka gailendu ohi da eztabada eta zukaren gainetik. Ekialdeko behe-nafarreran, hartuemana besterik gabe —adiskidetasunik gabe— ezagutza-oinarri izan daiteke eta ondorioz xukaren —emaztekiari zuzentzeko— eta hitanoaren —gizonari mintzatzeko— eragile bilakatu. Horixe ondorioztatzen da 50 eta 58 galderetako emaitzetatik. Harremana lanekoa eta azalekoa izan arren, etxeko andreak xuka hitz egiten dio bere neskame gazteari (%68,7), berarengandik zuka edo eztabada jasoz (guztira %69,9). Emakume lankideen artean (58. galdera) berebat gertatzen da eta kasu horretan, adiskideak ez izanagatik ere, xuka ia ia arauzkoa dela esan liteke: xuka egiten den eremuan elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetarik hamabost (%78,9), adiskidetasunezko lokarririk gabe ere, xuka mintzatuko omen litzaizkioke adin berdintsuko lankideari.

Aski da 58. galderan gizonen jokamoldea eta emakumeena alderatzea, toketa eta xukaren arteko parekotasunaz jabetzeko. Alegia, toketak gizonen artean betetzen duen zeregin berbera betetzen du xukak emaztekien artean. Gainera, neurri berdintsuan azaltzen dira biak. Ageri denez, noketak ez du tokirik emakume lankideen artean eta bere lekuan xuka gailentzen da.

58. LANKIDEAK: BIAK GIZONAK. ELKARREKIKO TRATAMENDUA

| TOKA | ZU* | OROTARA |
|---|---|---|
| *T-T* | *V-V* | |
| 18<br>%94,7 | 1<br>%5,2 | 19 |

58. LANKIDEAK: BIAK EMAKUMEAK. ELKARREKIKO TRATAMENDUA.

| XUKA | ZU* | OROTARA |
|---|---|---|
| *X-X* | *V-V* | |
| 15<br>%88,2 | 2<br>%11,7 | 17 |

ZU*= zuka nahiz eztabadaka

Adinak zeregin garrantzitsua jokatzen du xukaren erabileran, gutxienez hitanoan jokatzen duenaren parekoa. Horrela, elkar ezagutu ez arren, testuinguru arrunt batean adinekoa aise zuzen dakioke xuka biziki gazteagokoari adinezko nagusitasunaren eraginez (ikus bitez 64. galderari dagozkion taulak). Hitanoarekin gertatzen den bezala, adinezko nagusitasuna arrazoi nahikoa izan daiteke gazteago ezezagunari lagunarteko tratamenduan —xuka, emaztekien artean— mintzatzeko; are gehiago, beheko taulan ikus daitekeenez, solaskidea zenbat eta gazteago, hainbat eta aiseago jalgitzen da xuka.

64. EZEZAGUN GAZTEAGOA KALEAN: BIAK GIZONAK.

| TOKA | TOKA/ZU* | TOKA/XUKA | ZU* | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-V* | *T-X* | *V-V* | |
| 4<br>%25 | 7<br>%43,7 | 2<br>%12,5 | 3<br>%18,7 | 16 |

ZU*= zuka nahiz eztabadaka

64. EZEZAGUN GAZTEAGOA KALEAN: BIAK EMAKUMEAK.

| NOKA/XUKA | XUKA/ZU* | ZU* | XUKA* | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| *T-X* | *X-V* | *V-V* | *X-X* | |
| 1<br>%5,5 | 4<br>%22,2 | 4<br>%22,2 | 9<br>%50 | 18 |

ZU*= zuka nahiz eztabadaka

TAULA: ADINAREN ERAGINA XUKA TRATAMENDUAREN ERABILERAN. XUKA EMAKUME EZEZAGUNAREKIN.

| | G.63A EZEZAGUN ADINEKOARI | G.64A EZEZAGUN GAZTEAGOARI | G.35: 7-8 urteko NESKATOARI |
|---|---|---|---|
| XUKA | %31,5 (6/19) | %72,2 (13/18) | %92,5 (37/40) |

Hitanoarekin gertatzen den bezalaxe, adinezko eta mailazko alde handia izanez gero (50. galdera), xuka ez da erraz jalgitzen behetik gora, baina bai, ostera, alderantziz. Horrelakoetan, xuka (adinezko) nagusitasunaren adierazle

bihurtzen da. Euskalki honetan tratamenduzko desoreka gizonen artean *TO/ZU* (toka/zuka-eztabadaka) eran gauzatu ohi den bitartean, emaztekien artean gehienetan beste era batera mamitzen da. Hots, *NO/ZU* (noka/zuka-eztabadaka) binakoaren aldean, askoz ere normalagoa da *XU/ZU* (xuka/zuka-eztabadaka) asimetria emakumeen artean.

Edozein modutan ere, oro har, tratamenduzko asimetria maizago gertatzen da gizonen artean, emakumeen artean baino. Hau da, gizonen artean maiz jazo ohi den *toka/zu* binakoaren aldean, emaztekien arteko *xuka/zu* asimetria bakanagoa izaten da eta asimetriaren aldeko eragile garbiak agertu ezean (adibidez, 50. galderako etxeko andrearen eta neskame gaztearen artean), ez da indarrez azaltzen. Adinezko desberdintasun soilaren ondorioz, askoz ere maizago sortzen dira asimetriak gizonen artean, emaztekien artean baino (ikus bedi beheko taula).

ADINEZKO DESBERDINTASUNAREN KODETZEA TRATAMENDU ASIMETRIKOAZ

| | GIZONEN ARTEAN ASIMETRIA *(T-V; T-X)* | EMAKUMEEN ARTEAN ASIMETRIA *(T-X; X-V; T-V)* |
|---|---|---|
| EZEZAGUNAK (64) | %56,2 | %27,7 |
| LANKIDEAK (61) | %52,3 | %11,7 |
| ADISKIDEAK (72) | %42,8 | %16,6 |

Nagusi eta langile diren emakume adiskideen artean (52. galdera) xuka da nagusi (%73,6=14/19). Emaitza hauen arabera, xuka gehienbat emakumeen arteko tratamendua dela pentsa genezake. Izan ere, galdera honetan bildutako xukako emaitza guzti-guztiak (14/41) emaztekiek emandakoak dira.

Dena den, emakumeen artean ez ezik, gizon eta emakumeen artean ere agertzen da xukako tratamendua; baina orduan maizenik zentzu bakar batean azaltzen da tratamendu txikigarria: hots, gizonek emakumeei bai, baina xukarik ez edo askoz gutxiago alderantziz. Hau da ekialdeko behe-nafarrerazko joera nagusia, Garaziko eskualdea eta beste herri bakarren bat alde batera utziz gero.

Izan ere, tratamenduen erabilerari eta zehazki xukaren erabilerari bagagozkio, Garaziko eskualdea nortasun berezikoa da ekialdeko behe-nafarreraren barnean. Garazin, Nafarroa Behereko beste inongo eskualdetan baino indar gehiago du xukako tratamenduak. Hain bizitza zabala eta hain erro sakonak ditu, ezen emakumeek gehienetan xuka jarduten baitute gizonekin. Areago, gizonek berek ere inoiz erabiltzen dute —hitanoarekin batera— elkarrekin jarduteko. Garaztarren xukako usadio hau bitxi eta harrigarri begitantzen zaie inguruko eskualdeetako euskaldunei, azken hauen gogoan xukak, oroz gain, emetasunezko edo eztitasunezko konnotazioak baititu. Eta hain zuzen ere, horrexetan aldentzen dira garaztarrak gainontzeko baxenabartarrengandik.

Adibidez, sexu desberdineko nagusi eta langile adiskideen artean (53. galdera) eta sexu desberdineko lankideen artean (60. galdera), binaka, honela geratzen zaizkigu banatuta erantzun seguruak:

53. GALD.:
SEXU DESBERDINEKO NAGUSI ETA LANGILE ADISKIDEAK.

| TOKA/NOKA | TOKA/XUKA | NOKA/XUKA | ZU* | ZU*/XUKA | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-X* | *T-X* | *V-V* | *V-X* | *X-X* | |
| 2<br>%5,1 | 16<br>%41 | 1<br>%2,5 | 10<br>%25,6 | 1<br>%2,5 | 9*<br>%23 | 39 |

SEXU DESBERDINEKO NAGUSI ETA LANGILE ADISKIDEAK GIZONEN ARABERA

| NOKA/TOKA | XUKA/TOKA | ZU* | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *X-T* | *V-V* | *X-X* | |
| 1<br>%5 | 12<br>%60 | 4<br>%20 | 3*<br>%15 | 20 |

SEXU DESBERDINEKO NAGUSI ETA LANGILE ADISKIDEAK EMAKUMEEN ARABERA

| TOKA/NOKA | TOKA/XUKA | XUKA/NOKA | ZU*/XUKA | ZU* | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-X* | *X-T* | *V-X* | *V-V* | *X-X* | |
| 1<br>%5,2 | 4<br>%21 | 1<br>%5,2 | 1<br>%5,2 | 6<br>%31,5 | 6*<br>%31,5 | 19 |

ZU*= eztabadaka nahiz zuka. G= gizona; E= emakumea
*= erantzunok (xuka elkarrekikoaren aldekoak) garaztarrenak dira.

60. GALD.: SEXU DESBERDINEKO LANKIDEAK.

| TOKA/NOKA | TOKA/XUKA | ZU* | ZU*/XUKA | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-X* | *V-V* | *V-X* | *X-X* | |
| 1<br>%2,9 | 12<br>%35,2 | 9<br>%26,4 | 3<br>%8,8 | 9*<br>%26,4 | 34 |

SEXU DESBERDINEKO LANKIDEAK GIZONEN ARABERA

| XUKA/TOKA | XUKA/ZU* | ZU* | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| *X-T* | *X-V* | *V-V* | *X-X* | |
| 9<br>%56,2 | 1<br>%6,2 | 3<br>%18,7 | 3*<br>%18,7 | 16 |

SEXU DESBERDINEKO LANKIDEAK EMAKUMEEN ARABERA

| TOKA/NOKA | TOKA/XUKA | ZU*/XUKA | ZU* | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-X* | *V-X* | *V-V* | *X-X* | |
| 1<br>%5,5 | 3<br>%16,6 | 2<br>%11,1 | 6<br>%33,3 | 6*<br>%33,3 | 18 |

ZU*= zuka nahiz eztabadaka

*= xuka elkarrekikoaren aldeko erantzunok garaztarrenak dira.

Gizonen artean, ostera, ez dirudi xukarik erabiltzen denik. Ez nagusi eta langile adiskideen artean (52. galdera), ez lankideen artean (58. galdera), ezta adiskideen artean ere (67 eta 70), ez da erabiltzen xukarik, toketa baizik. Garazin bertan halakoetan toka mintzatu ohi dira gizonak. Baina norbaiti *to* esateko adinako konfiantza eduki ezik, pertsona ezezagunari adibidez, orduan xuka jardun dezakete garaztar gizonek elkarren artean.

Bestalde, xukako tratamenduaren aldean, noketarik ez da agertzen edo ozta-ozta, kasik salbuespen gisara. Ageri denez, euskalki honetan xukak beregana-tu du noketaren antzinako gizarte-esparrua eta familiaz kanpoko harremanetan ia-ia hau ordezkatzeraino iritsi da. Ez gizonek, ezta emakumeek berek ere ez dute jeneralean noketarik erabiltzen etxetik kanpo.

Iraganeko lekukotasun urrien ondorioz, ez da erraza xukaren sorrera azaltzea. Baliteke noketaren ordezko xukaren erabilera haur txikiekin hastea eta geroago emakumeen artean zabaltzea; edo baliteke gizonen emakumeenganako gizalegezko ahaleginaren ondorio izatea. Hipotesiak hipotesi, ez dirudi xukaren erabilera noketaren ordez atzo goizekoa denik. Gutxienez duela ehun urtetik gora bazegokeen antzeko joerarik, zeren Bonapartek, Arberoako hizkera-ra mugatzen duelarik[3], ordezkapen horren berri ematen baitigu. Gure garaian,

[3] Yrizarrrengandik (1984, II: 380) jasotzen dugun aipuaren arabera, honela mintzo da Bonaparte Donostiriko hizkeraren gaineko eskuizkribu batean: «*chu* seulement avec les petites filles ou **amicalement entre femmes, comme synonyme du traitement féminin,** et ainsi à Hélette, Irisarry, Ayherre et Isturits.»

Beskoitzeko eta Landibarreko berriemaileek joera berberori baieztatu zioten Yrizarri (Yrizar, 1984, II: 380). Eta gure ustez, noketaren ordezkapena gaur egun ez da eremu bakar bateko kontua, gertakari orokorra baizik. Hala ere, horrekin ez dugu esan nahi ordezkapena dagoeneko leku guztietan erabat burutua dagoenik; esan nahi dugu xukaren aldeko **joera** zeharo hedatua dagoela, eta are gehiago familiaz kanpoko harremanetan.

Kasu urri bezain arraroak salbu, lankideen artean ez da noketarik ageri (58. galdera); are gehiago, gizon adiskideen artean toketa guztiz orokorra den bitartean (%100), neska edo emakume adiskideen artean (70. galdera) doi-doi erabiltzen da tratamendu hau (%15,7=3/19). Sexukidetasunik ez badago, are gutxiago erabiltzen da noketa adiskideen artean (71. galdera) eta nagusitzen dena, itxurazko asimetria dugu: gizonak emaztekiari xuka eta honek gizonari toka. Hona hemen, galdera hauen erantzunak binaka multzokaturik:

71. SEXU DESBERDINEKO ADISKIDEAK.

| TOKA/NOKA | TOKA/ZU* | TOKA/XUKA | ZU* | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-V* | *T-X* | *V-V* | *X-X* | |
| 1<br>%3,1 | 1<br>%3,1 | 19<br>%59,3 | 1<br>%3,1 | 10<br>%31,2 | 32 |

SEXU DESBERDINEKO ADISKIDEAK GIZONEN ARABERA

| ZU*/TOKA | XUKA/TOKA | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|
| *V-T* | *X-T* | *X-X* | |
| 1<br>%5 | 15<br>%75 | 4<br>%20 | 20 |

SEXU DESBERDINEKO ADISKIDEAK EMAKUMEEN ARABERA

| TOKA/NOKA | TOKA/XUKA | ZU* | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-X* | *V-V* | *X-X* | |
| 1<br>%8,3 | 4<br>%33,3 | 1<br>%8,3 | 6<br>%50 | 12 |

ZU*= eztabadaka nahiz zuka

72. ADIN DESBERDINEKO ADISKIDEAK.

| TOKA | TOKA/ZU* | TOKA/XUKA | NOKA/ZU* | ZU*/XUKA | ZU* | XUKA | OROT |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *T-V* | *T-X* | *T-V* | *V-X* | *V-V* | *X-X* | |
| 9<br>%24,3 | 6<br>%16,2<br>(6G) | 3<br>%8,1<br>(3G) | 1<br>%2,7<br>(1E) | 2<br>%5,4<br>(2E) | 3<br>%8,1<br>(1G/2E) | 13<br>%35,1<br>(13E) | 37 |

G= gizona; E= emakumea

ADIN DESBERDINEKO ADISKIDEAK: BIAK GIZONAK

| TOKA | ZU*/TOKA | XUKA/TOKA | ZU* | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| *T-T* | *V-T* | *X-T* | *V-V* | |
| 9<br>%42,8 | 6<br>%28,5 | 3<br>%14,2 | 3<br>%14,2 | 21 |

ADIN DESBERDINEKO ADISKIDEAK : BIAK EMAKUMEAK

| ZU*/NOKA | ZU*/XUKA | ZU* | XUKA | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| *V-T* | *V-X* | *V-V* | *X-X* | |
| 1<br>%5,5 | 2<br>%11,1 | 2<br>%11,1 | 13<br>%72,2 | 18 |

ZU*= eztabadaka nahiz zuka

## 3. ONDORIOAK

1) Lehenengo eta behin, esan dezakegu xuka tratamendua «familiartekoa» dela, eta hori hitzaren zentzu hertsienean; hau da, familiaren esparruan edo senide hurbilen artean beste inon baino areago erabiltzen da xuka. Zentzu horretan, familiarteko esparruaren eta familiaz kanpokoaren arteko bereizketa guztiz lagungarri bihurtzen da, noraezeko ez esatearren. Familiartean, gizarteko bestelako harremanetan ez bezala, xuka goitik behera eta behetik gora erabiltzen da, adinezko desberdintasuna gorabehera. Hortaz, erabilerazko berezitasun honek mugarri nabaria ezartzen du senitartearen eta gainerako esparruen artean eta zentzu horretan xuka berariaz eta oroz gain «familiarteko» tratamendua dela esan dezakegu.

2) Familian, goitik behera hitanoa mutikoekin erabiltzen da eta xuka neskatoekin. Bestalde, gazteek ere senide nagusiagoekin xuka jarduten dutenez, ondorioa desberdina da sexuaren arabera: mutikoekin T/V (TOKA/XUKA...) asimetria nagusitzen den bitartean, neskatoekin joera simetriaranzkoa da, elkarrekiko xukaren bitartez (XUKA/XUKA). Hau, euskalkien arteko konparazioaren ikuspegi orokorretik, ekialdeko behe-nafarreraren bereizgarria dateke.

3) Edozein modutan ere, goranzko xuka ez da neurri berean erabilgarria familiako harreman guztietarako eta senidetasunezko harremanetan urrundu ahala (aitona-amonak, aitagin-amaginarrebak), gorako zentzuan xukako joera ahulduz eta zuka-eztabadakakoa indartuz doala dirudi. Emaitza honek agerian jartzen du xukako tratamenduaren bitarteko balio pragmatikoa, familian *HI* eta *ZU* izenordainen artean kokaturik ageri baita: *HI* goitik behera eta kidekoen artean, *XU* hurbileko senide nagusiagoekin eta kideko neskekin eta azkenik, *ZU*, bereziki aparteko errespetua zor zaien senide nagusiagoekin.

4) Aurreko puntuan aipatutako joeraren ondorioz, XUKA/*ZU* asimetriazko joera nabari da aitonaren eta biloba neskaren artean eta orobat aitaginarrebaren eta errainaren artean. Hortaz, badirudi mutilekiko TOKA/*XU-ZU* binakoen aldamenean, XUKA/*ZU* binako asimetriko berriaren beharra sentitu dutela halako kasu berezietan. Nolanahi ere den, kasu bereziotan ere maizago kodetzen da asimetria mutilekin, neskekin baino.

5) Familiako pareko edo berdinen arteko harremanei gagozkiela, zera esan daiteke: kideko gizonen artean eta kideko gizonei mintzatzeko toketa da nagusi eta sekula ez xuka, salbuespenak salbuespen; emaztekien artean edota emaztekiei zuzentzeko, ostera, xuka erabiltzen da ororen gain eta noketa ozta-ozta ahizpen artean (hirutik bat, batez beste).

Horrela, ahizpak, lehengusinak eta koinatak gehienetan xuka aritzen dira elkarrekin eta, era berean, arrebari, lehengusinari edo koinatari xuka mintzatzen zaizkio gizonak. Anaia, lehengusu eta koinatuek, ordea, toka hitz egiten dute elkarren artean eta emaztekiek tratamendu berbera erabiltzen dute nagusiki neba eta lehengusuari mintzatzeko eta zerbait gutxiago koinatuari zuzentzeko.

Deskribatutakoaren arabera, kideko sexukideen artean simetria gailentzen den bitartean (XUKA/XUKA emakumeen artean eta TOKA/TOKA gizonen artean), gizon eta emakumeen artean asimetria formala gailentzen da TOKA/XUKA binakoaren bidez: emakumeak toka egiten dio gizonari eta honek xuka emakumeari.

Dena den, toketak eta xukak hartzailearen sexuaren araberako banaketa osagarria dutela kontuan harturik, neba-arreben artean-eta jazotzen den TOKA/XUKA asimetria eta horren modukoak itxurazkoak direteke eta ez mamizkoak, frogatu nahi dugun hipotesiaren arabera ekialdeko behe-nafarreran xuka noketaren lekuan eta zereginetan, hots, lagunarteko tratamenduaren zereginetan zabaldu baita.

6) Esanak esan, bada senide kidekoen artean pare bat salbuespen xukaren erabilerari dagokionez. Izan ere, ezkongaien artean eta ezkonduen artean indar handiz altxatzen da xuka elkarrekikoaren aukera (XUKA/XUKA), TOKA/XUKA binakoaren aurrez aurre. Kasuok markatuak dira eta sexuaren araberako lege orokorra baieztatzen duten salbuespentzat hartu behar direlakoan gaude. Hots, salbuespenok, xuka tratamenduak jatorriz duen balio adierazkor, hurbilgarri eta maitasunezkoa ez dela erabat ezabatu frogatzen dute gure ustez; hau da, xukak noketaren ordezko zeregina bereganatu duen arren, ez du galdu bere sorreraren arrazoia izan zen ahalmen adierazkorra[4].

7) Gizarteko harremanetan noketaren agerpena bazterreko gertakaria da, are emakume adiskideen artean ere (%22,2=4/18, 67. galderako aspaldiko adiskideen artean). Hortaz, familiaren barnean noketa gutxitan erabiltzen bada, familiaz kanpo are gutxiago.

8) Familiaz kanpoko harremanetan xukak betetzen du noketaren funtzioa eta funtsean ordezko zeregin horixe dagokio eta ez beste. Hau da, xukaren erabilera askoz ere murritzagoa da familiaren esparrutik kanpo: familiatik kanpo, familiartean ez bezala, ez dago xukako joera garrantzitsurik gizonen artean, ez eta adiskide diren gizon nagusiagoekin ere.

Xuka gehienbat emakumeen artean edota emakumeei zuzentzeko erabiltzen dela onartuta ere, erabilerazko ondoko murrizketa gaineratu behar da: hitanoak bezalaxe, zenbait testuingurutan ez du tokirik. Adibidez, ez da bat ere erabiltzen testuinguru formaletan (eskolako edo institutuko zuzendariarekin hasieran, ezta etxeko andrearen eta neskame gaztearen artean edo jatetxeko zerbitzariarekin ere lehen egunean bederen) eta gutxitan elkarrekiko ezagutzarik edo harremanik gabe.

Hala eta guztiz ere, hitanoarekin gertatzen den moduan, harremana eta elkarren ezagutza, azalekoak izanda ere, xukaren eragile garrantzitsuak izaten dira eta, zer esanik ez, are gehiago adiskidetasuna.

Bestalde, adinezko nagusitasun hutsak xukaren erabilera eragin dezake eta sarritan tratamenduzko asimetriak (xuka goitik behera eta *zu* alderantziz) ere bai. Bestelako desberdintasunek, ostera, ez dute halako asimetriarik eragiten: mailazko nagusitasun hutsak (48. galderako nagusiaren eta langilearen artean), esate baterako, ez dakar xuka/*zu* tankerako binako asimetrikorik.

9) Beraz, esandakoaren arabera, familia barruan xukak zeregin bikoitza betetzen duela dirudi: bitarteko tratamendu hurbilgarriaren zereginaz gain (konfiantzazko senide nagusiagoekin), lagunarteko tratamenduarena (kidekoen artean). Familiatik kanpo, ordea, erabat lagunartekotzat jo daiteke, nagusiki

[4] Adierazkortasun bera nabari da guraso eta hiruzpalau urteko seme txikiaren arteko harremanetan, xukako joera halakoetan semea hazita dagoenean baino askoz handiagoa izaten baita.

noketaren ordez erabiltzen baita. Zentzu horretan guztiz egokia da Lafitteren oharkizuna, xukari familiartasun handia datxekiola dioenean[5].

Itxura guztien arabera, xukaren erabilera noketaren ordez ez da kontu berria. Hala ere, Bonaparteren garaitik hona asko zabaldu da xukako joera; gaur egun, noketaren ordezkapena eta xukaren aldeko joera ez da Arberoako hizkeraren ezaugarria, gertakari nahiko orokorra baizik.

10) Familiaz kanpoko harremanetako xuka lagunarteko tratamendu lautzat hartuta ere, esan beharra daukagu baduela berezitasunik toketaren aldean. Gizonen artean, asimetria ugari (ehuneko berrogeita hamarrean, batez beste) sortzen dira adinezko desberdintasunaren eraginez; emakumeen artean, aldiz, elkarrenganako tratamendu-berdintasuna edo joera simetrikoa da nagusi.

Beraz, ez dirudi xukaren bidez eta eraginez gauzatzen ari den noketaren ordezkapena, sistema-mailan ondoriorik gabekoa denik. Hots, xuka nokaren ordez zabaltzerakoan, simetriarantz edo, hobeto esan, adinezko desberdintasuna tratamenduaren bidez kodetzeko joera ezabatzera jo dute baxenabartar emazteek.

11) Sexuaren aldetik, bistan da xuka nagusiki (familiako senide nagusiagoen salbuespenaz) emaztekiei ematen zaien tratamendua dela eta, hortaz, hartzailearen sexuak duela ardura eta ez hainbeste hiztunarenak. Hala ere, hiztunaren sexua kontuan hartzen bada, badirudi jeneralean emaztekiek xuka tratamenduaz baliatzeko joera handiagoa agertzen dutela.

12) Xuka mintzatzen den eremuan bada nortasun bereziko eskualde bat, zenbait kontutan orain arte eskainitako ikuspegitik aldentzen dena, Garazi inguruko herriek eta agian beste herriren batek ere osatzen dutena, hain zuzen ere. Eskualde honetan (Donibane-Garazi, Uharte-Garazi, Aizpura, Lasa, Arnegi, Gamarte...) familiatik kanpo ere xuka mintza dakieke eta mintzatzen zaie gizonei.

Tratamendu txikigarria, maizenik, gizon eta emakumeen artean suertatzen da, XUKA/XUKA eran; adinezko desberdintasuna gorabehera eta zenbaitetan konfiantza gorabehera, xuka elkarrekikoa maiz gertatzen da sexu desberdinekoen artean. Horrela, adiskideak izanik ere, ez da harritzekoa TOKA/XUKA binakoaren aldamenean, xuka elkarrekikoa gertatzea gizon eta emakumeen artean.

Gizonen artean xuka bakanago gertatzen da. Kideko gizonen artean inoiz gerta daiteke xuka aritzea (XUKA/XUKA), elkar ezagutu artean bederen. Eta maiztxoago gertatzen da gizon ezezagun nagusiago bati mintzatzeko.

Gauzak horrela, eskualde honetan xukak noketaren ordezko tokia barik, *HI* eta *ZU* izenordainei dagozkien tratamenduen bitarteko tokia betetzen duela esan daiteke. *ZU* izenordaina oroz gain egoera eta testuinguru formaletan

[5] Hona hemen, bere hitzak: *Le chouchoiement suppose une grande familiarité: il est à peine plus respectueux que le tutoiement français* (Lafitte, 1944: 362).

erabiltzen da, *HI* batez ere gizonen arteko harremanetarako gordetzen da eta *XU* gainontzeko testuinguruetarako (emakumeen artean, gizon eta emakumeen artean eta inoiz gizonen artean ere bai). Beraz, xuka Garaziko mintzairan ez da «hain lagunartekoa» eta, euskalkiko beste eskualde batzuetan gertatzen denaz bestaldera, ez dago hitanoaren parean jartzerik. Ez da ahaztu behar hainbat emakume garaztarrentzat xuka ia-ia tratamendu bakarra dela familiaz kanpoko eguneroko harremanetan eta beraz, xuka halakoentzat ia-ia tratamendu neutroa dela, urruntasunezko eta formaltasunezko *ZU* izenordainaren aldean.

# VIII. HIKETAREN ERABILERA: EUSKALKIEN ARTEKO KONPARAKETA

Ikerketa honetako erakusgarria eraikitzeko, batez ere, Bonapartek aurreko mendearen azken aldera euskalkiez egin zuen sailkapenean oinarritu ginen. Zehazkiago esateko, gure erakusgarria gidatu zuen irizpide nagusia «herri bat hizkera bakoitzeko eta lauzpabost lekuko edo berriemaile herri bakoitzeko» izan zen, beti ere, printzearen euskalki, azpieuskalki eta hizkerei buruzko sailkapenari jarraituz. Sortaldeko euskalkietan (EBN eta Z) Bonapartek zedarritutako hizkera baino herri gehiago hautatu ziren, bertako tratamenduen inguruko iluntasun eta nahasmena zertxobait argitzearren.

Erabilitako irizpidearen ondorioz, batetik, desoreka handi xamarra dago euskalki desberdinetako erakusgarrien artean konparaketa sendo eta seguruak egin ahal izateko eta, bestetik, zenbaitetan inkesta-kopurua ez da agian oso adierazgarria (L eta MBNren kasuetan beharbada) edo ez da bat ere adierazgarria (HGN, Aezk. eta Zar.-ren kasuetan, inkesta banarekin). Hala eta guztiz ere, aipatu hutsuneok gorabehera, gure emaitza mugatuetatik ondorio jakingarriak atera daitezkeelakoan gaude.

Orotara, beraz, zazpi euskalkiok osatzen dute gure erakusgarria:

| | |
|---|---|
| – Bizkaiera (B) ..... | 44 inkestaz osaturik. |
| – Gipuzkera (G) ..... | 30 inkestaz osaturik. |
| – Iparraldeko goi-nafarrera (IGN+HGN) .... | 27 inkestaz osaturik. |
| – Lapurtera (L) ..... | 17 inkestaz osaturik. |
| – Mendebaldeko behe-nafarrera (MBN) ..... | 13 inkestaz osaturik. |
| – Ekialdeko behe-nafarrera (EBN) ..... | 50 inkestaz osaturik. |
| – Zuberoera (Z) ..... | 29 inkestaz osaturik. |
| OROTARA ..... | 210 inkesta |

## 1. TOKETAREN ERABILERA EUSKALKIZ EUSKALKI

### 1.1. Toketa familia barruko harremanetan

Beheragoko datuek erakusten dutenez, familiaren eremuko ahaidetasunezko harremanetan oso alde handia dago euskalki batetik bestera. Oro har, toketa erruz erabiltzen den eremu zabala agertzen zaigu sortalderantz, ekialdeko behe-nafarreraz eta zubereraz osaturik; euskalki biotan gainerakoetan baino dexente gehiago erabiltzen da toketa. Hau izan daiteke emaitza orokor nabariena, euskalkien arteko konparaketari dagokionez.

Bestalde, familiako harremanekin jarraituz, euskalkien artean gutxi gorabeherako honako hurrenkera ezarriko genuke (ikus bedi beheko taula): adin bereko eta gazteagoekiko harremanetan, oro har, denetarik zuberotarrak dira alde handiz toka gehien edo errazen aritzen direnak (%89,1); ondoren, ekialdeko behe-nafarrera dator (%71), zenbaitetan zubererarekin orpoz orpo badabil ere; gero, mendebaldeko behe-nafarrera (%60,4) eta gipuzkera (%57) genituzke bateratsu; jarraian bizkaiera (%43,5) eta iparraldeko goi-nafarrera (%38,7) eta azkenik, lapurtera (%29,4). Beraz, mutur batean joera hikatzailerik handiena duen zuberera dugu; eta beste muturrean, lapurtera, gure erakusgarri murritzaren arabera, hikako joera uzkurrena duena.

TAULA: TOKAKO BATEZ BESTEKOAK[1] FAMILIAN KIDEKO ETA GAZTEAGOKOEKIN

| B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|
| %43,5 | %57 | %38,7 | %29,4 | %60,4 | %71 | %89,1 |
| L < | IGN < | B < | G < | MBN < | EBN < | Z |
| %29,4 | %38,7 | %43,5 | %57 | %60,4 | %71 | %89,1 |

Xehetasunetan sartuta, berdinen arteko harremanak (haurride, lehengusu lehengusinak eta koinatu-koinatak) eta gazteagokoekikoak (seme eta ilobak) konparatuz gero, beherakada harrigarriren bat edo beste atzeman daiteke euskalki batzuetan.

[1] Familiaren eremuko hamasei galderatan jasotako tokako emaitzen batez bestekoa eginez, atera dugu euskalki bakoitzaren hikako portzentaia orokorra. Kideko eta gazteagoekiko erabilera islatzen duten galderak hartu ditugu kontuan, nagusiagoekin («behetik gora») ez baita hitanorik erabiltzen jeneralean.

## TOKAKO BATEZ BESTEKOAK FAMILIAKO KIDEKO ETA GAZTEAGOEKIN




Goiko irudiko zutabe bien arteko konparaketak agerian jartzen du hurrenkera desberdina; nolanahi ere, ez da hori desberdintasunik nabariena. Gure ustez, daturikazpimar kagarriena euskalki batzuetan somatzen den beherakada dateke. Familiaren barruan kidekoei mintzatzetik gazteagoei mintzatzera, 17 puntu jaisten da hitanoaren erabilera gipuzkeraren kasuan, 22,7 puntu esparru berean IGN-renean eta 8 puntu Lapurterarenean. Beherakada honi bi irakurketa desberdin eman dakizkioke gutxienez: bata, euskalkiotan, adinezko nagusitasunari datxekion boterea tratamenduaren bidez kodetzeko halako uzkurtasuna sentitzen dutela argudiatzea eta ondorioz, toketa gogokoago dutela kidekoekin aritzeko; bestea, hiketaren jarraipena etxeetan edo familietan eteten hasi dela litzateke. Guk geuk, bigarren interpretazioari deritzogu sinesgarriagoa. Izan ere, etxe frankotan somatu genuen hitanoa belaunaldi gazteagoei helarazteko soraiotasuna; etendurazko joera hau egiazkoa baldin bada, nahiko adierazgarria izan daiteke tratamenduaren iraupenaren ikuspuntutik begiratuta, hitanoaren galera maiz familiatik bertatik hasten dela esan nahiko bailuke. Itxura batean, bizkaieraz eta sortaldeko euskalkietan (MBN, EBN, Z) ez dago horrelako beherakadarik; alegia, batez beste, senide gazteagokoekin, kidekoekin bezainbeste mintzatzen bide da toka.

Bestalde, goiko tauletan ageri denez, Zuberoan ia-ia orokorra da tokako tratamendua —batez beste, %95,6an— familiako berdinen artean (haurride, lehengusu-lehengusina eta koinatu-koinatak) eta orobat —batez beste, %95,4an— gazteagokoekin (seme eta ilobekin). Senide nagusiagoekin (aita, aitona, osaba eta aitaginarrebarekin), ordea, ez da erabiltzen hitanorik, salbuespenak salbuespen. Ematen du salbuespenen artean Barkoxe aipatu behar dela. Herri honetan beharbada beste inon baino biziago dago hitanoa eta itxura

guztien arabera, erabilerazko gizarte-eremu gero eta zabalagoa bereganatuz joan omen da aspaldi honetan; horregatik bertan ez da harrigarria seme batek bere aitari *to* esatea[2].

Nafarroa Behereko sortaldean anitz mintzatzen da toka familian, baina ez Zuberoan bezainbeste. Hala ere, bada hika (*to* ez ezik, *no* ere) erruz erabiltzen den eskualde bat, Amikuzekoa, alegia. Hango hitanozko joera indartsua bertako hiztunen bereizgarri deigarria da Lapurdi eta Nafarroa Behereko gainontzeko euskaldunentzat.

Nafarroa Behereko sartaldean ere franko erabiltzen da toketa gizonen artean, Gipuzkoako hiztunen artean baino dexente gehiago. Berdinen artean (anaia, lehengusu eta koinatuen artean) eta semearekin, batik bat (%100ean), beste inon baino hikatzaileago ageri dira mendebaldeko behe-nafarreraz mintzatzen diren hiztunak.

Euskalkietako usariozko berezitasunei gagozkiela, oso nabarmena da ezkonduen artean hika mintzatzeko «debekuaren» urratze garbia sortaldeko euskalkietan; hain da sendoa hikatzeko joera ekialdeko behe-nafarrerazko eta zubererazko hiztunen artean. Zuberoan toketa da usariorik zabalduena (%75) senarrarekin eta orobat jazotzen da Nafarroa Behereko beste zenbait eskualdetan (Amikuzen, esate baterako), behe-nafarreraz oro har tokako joera senarrarekin hain nabaria ez bada ere (%40,4). Antzeko jokamoldea erakusten dute senargaiarekin (EBNz %51,1 eta Zz %81,4), azken kasu honetan «debekua» euskalki gehienetan laxoagoa izan arren. Beherago ikusiko denez, teorian sortaldeko eremuotako ezkonduen artean hika zentzu bietan ager daitekeen arren, maiz gertatu ohi dira asimetriak noketaren galeraren ondorioz.

TOKAKO PORTZENTAIAK EUSKALKIZ EUSKALKI FAMILIAKO KIDEKOEN ARTEAN

| GALDERA | OROT. | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SENARRARI 3B | %21,4 | %2,2 | %3,4 | %3,7 | — | %7,6 | %40,4 | %75 |
| SENARGAIA 29B | %33,5 | %20,9 | %36 | %4 | — | %8,3 | %51,1 | %81,4 |
| ANAIARI 12 | %90,3 | %73,6 | %88,8 | %92,5 | %88,2 | %100 | %95,6 | %100 |
| NEBARI 14B | %72,3 | %48,6 | %76,9 | %69,2 | %52,9 | %80 | %79,5 | %100 |
| LEHENGUSU 19A | %84,2 | %74,3 | %80 | %79,1 | %60 | %100 | %91,1 | %100 |
| «(KUSINAK)20B | %51,4 | %31,5 | %68,4 | %33,3 | — | %36,3 | %65 | %93,1 |
| KOINATUARI 26 | %84,3 | %73,1 | %91,3 | %79,1 | %43,7 | %100 | %95,4 | %100 |
| «(KOINATAK)28 | %46,7 | %42,5 | %56,5 | %23 | — | %37,5 | %56,8 | %80,7 |

[2] Barkoxeko lau lekukoetatik hiruk (emakumeak izan ezik) eman zidaten ohizkotzat toketa, aitari zuzentzeko. Hortaz, hikako emaitza altu honek ez dirudi halabeharraren fruitua.

TOKAKO PORTZENTAIAK EUSKALKIZ EUSKALKI GAZTEAGOKOEKIN

| | OROT. | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEMEARI 4A | %69,8 | %53,4 | %65,3 | %51,8 | %35,2 | %100 | %87,2 | %96,4 |
| « (AMAK) 6A | %63 | %40,4 | %45,8 | %44 | %35,2 | %72,7 | %89,3 | %96,5 |
| BILOBARI 8A | %64,9 | %40,5 | %66,6 | %41,6 | %41,1 | %80 | %80,8 | %96,5 |
| « (AMONAK)10A | %51 | %35,8 | %40,7 | %22,7 | %29,4 | %50 | %65,2 | %93,1 |
| ILOBARI 15A | %70,3 | %60 | %78,5 | %47,8 | %37,5 | %72,7 | %80,8 | %96,2 |
| « (IZEBAK)17A | %54,5 | %40 | %50 | %16,6 | %23,5 | %72,7 | %76,1 | %92,5 |
| SUHIARI 22A | %43,9 | %38,4 | %39,1 | %12 | %25 | %33,3 | %55,8 | %87,5 |
| « 24A | %26 | %21,9 | %28 | — | — | %15,3 | %26,5 | %36,7 |

## 1.2. Familiaz kanpoko harremanak: adinaren garrantzia sortaldean

Familiatik kanpo ere lehengo joera berdintsuak azaltzen zaizkigu, zuberera eta ekialdeko behe-nafarrerazko hiztunak hikatzaileenak («tokatzaileenak») izanik. Beheko taulako emaitzek erakusten dutenez, aldea batez ere (ezezagun) gazteagoekiko harremanetan da nabarmena. Izan ere, bi euskalki hauetan, gainerakoetan ez bezala, aski da adinaren alde handi samarra ezezagun gazteagoarekin toka jarduteko (34 eta 64. galderak).

TAULA: GIZONEN TOKAKO EMAITZAK EZEZAGUNEKIN, EUSKALKIZ EUSKALKI

| GALDERA | OROT. | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| MUTIKOA (34) | %45,7 | %35,7 | %39,2 | %20 | %7,1 | %36,3 | %64,2 | %85,7 |
| GAZTEAGOA (64A) | %43,2 | %17,3 | %37,5 | %25 | — | %50 | %77,7 | %71,4 |
| ADINTSUKOA (63A) | %24,3 | %13 | %25 | %12,5 | %11,1 | %16,6 | %40,7 | %35,7 |

Ildo beretik jarraituz, zera gaineratu beharra dago: adinak paper garrantzitsuagoa jokatzen bide du sortaldeko euskalkietan, sartaldekoetan baino. Beheko irudian ikus daitekeenez, EBNz eta Zz beste inon baino asimetria gehiago sortzen dira adinezko desberdintasunaren ondorioz.

TOKETA ADINAREN ARABERA EZEZAGUNEN ARTEAN
(EUSKALKIKA)




ASIMETRIAK ADIN DESBERDINEKO GIZONEN ARTEAN




## 2. NOKETAREN ERABILERA EUSKALKIZ EUSKALKI

Gizarteko harreman desberdinetan eta euskalki desberdinetan noketa zenbateraino erabiltzen den aztertu aurretik, funtsezkoa iruditzen zaigu oinarrizko datu bat ematea tratamendu honen galeraz.

Gure lekuko guztiek, norbaitekin toka aritzen zirenak izan behar zuten, baina ez nahitaez nokako hiztunak. Izan ere, bigarren baldintza hori (noka mintzatzea) ezinbestekotzat hartu izan bagenu, lan gaitza izango genukeen Euskal Herriko hainbat herritan geure erakusgarriaren araberako lau lekukoak (gazte eta adinekoak, gizon eta emakumeak) aurkitu ahal izateko. Hortaz, gure lekukoen artean denetarik aurkitzen da, toka eta noka aritzen direnak eta toka baizik jarduten ez dutenak. Lehenbizikoek gure erakusgarriaren gehiengoa osatzen duten arren, franko (%34,3) dira toketa besterik erabiltzen ez dutenak. Hona hemen, lortutako nokako mintzatzaileen banaketa euskalkiz euskalki:

TAULA: NOKAKO HIZTUNAK EUSKALKIZ EUSKALKI

| | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NOKA | %61,3 | %100 | %85,1 | %52,9 | %61,5 | %54 | %48,2 | %65,7 |
| BAI | 27/44 | 30/30 | 23/27 | 9/17 | 8/13 | 27/50 | 14/29 | 138/210 |

HURRENKERA: G > IGN > MBN > B > EBN > L > Z
%100 %85,1 %61,5 %61,3 %54 %52,9 %48,2

NOKAKO HIZTUNAK EUSKALKIZ EUSKALKI




Ez dago esan beharrik goiko banaketa dialektala halabeharraren ondorio dela eta ez aurretiazko irizpideren baten emaitza. Hain zuzen horregatik, uste dugu banaketa hau nahiko adierazgarria izan daitekeela. Gipuzkera eta iparralde-

ko goi-nafarrerazko hikako hiztunen artean gauza arrunta da bi mintzamoldeak —toketa nahiz noketa— erabiltzeko usario eta gaitasuna; gainerako euskalkietako hiztun hikatzaileen artean, aldiz, ohiturarik ez dutelako edo hala aritzeko gaitasunik ez dutelako, asko (batez beste, hirutik bat edo zerbait gehiago) dira noketa sekula erabiltzen ez dutenak.

Emaitza honi interesgarria deritzogu, toketaren aldean noketa tratamenduak duen bizitza makalagoa agerian jartzen duelako. Tokako tratamendua euskaldun guztiena ez baldin bada, noketa are hiztun-kopuru murritzago baten ahoan dabilela ematen du.

## 2.1. Noketaren erabilera euskalkiz euskalki

Gure inkestagintzak, zabaleraz eta kopuruz mugatuegia bada ere, zenbait argitasun eskaini digu noketaren herriz herriko bizitza eta erabilera orokorrari buruz. Ikus dezagun, bada, euskalkiz euskalki eta herriz herri ea zeintzuk eta nolakoak diren gorago aipatu erabilerazko hutsuneak eta berezitasunak.

### *ZUBERERA*

Gu ibili garen zazpi herrietatik batean (Barkoxen) du bizitza oparoa nokako tratamenduak, beste batean (Santa-Grazin) aski bizitza zabala, hirutan (Aiñharbe, Altzürükü eta Muskildin) doi-doi eusten zaio adinekoetan eta bitan (Larrañe eta Espeize-Ündüreiñen) erdi galdutzat eman daiteke. Gauzak horrela, noketa Zuberoan koloka eta atzeraka dabilela esan dezakegu. Salbuespenak salbuespen, gazteriak galduxea du tratamendu hau eta ondorioz, nekez itxaron daiteke etorkizun onik edo pizkunderik noketarentzat.

### *EKIALDEKO BEHE-NAFARRERA*

Ekialdeko behe-nafarrerari dagokionez, ez dirudi noketak bizitza askoz ere oparagoa duenik. Salbuespen nabarmenena, Amikuzeko eskualdea dugu; izan ere, alde horretan (Gamue eta Amorotzen, gure sarearen arabera) anitz erabiltzen da hitanoa, bai familian, bai familiatik kanpo; eta seme-alabak beren gurasoekin noka aritzen entzutea ere ez da hain harrigarria parajeotan.

Nokako tratamenduari ongi eusten zaion beste herri bat, Donaixti-Ibarre dugu. Berau da, tratamendu guztiek (beroriketak ezik, noski) bizi-bizirik eta osasun ezin hobeaz irauten duten herri bakarretariko bat. Bertan erruz aritzen dira noka familiako emakume kidekoekin (haurrideekin ez ezik, lehengusina eta koinatekin ere, adibidez), ez hainbeste gazteagokoekin (alaba, biloba eta ilobekin) eta dexente gutxiago herritar adiskideekin. Izan ere, azken kasu horretan tratamendu txikigarria eskura dutenez gero, normalean emakumeekiko harremanetan xukara jo ohi dute gizonek.

Ondoren, Arberoako herriak (Aiherra, Irisarri eta Heleta) letozke eta beharbada hauekin batera, Arnegi eta Lasa ere bai. Herriotan oraindik ere eusten zaio noketari, erabilera-eremu murriztuago batean bada ere. Donaixtin

bezalatsu dira gauzak, baina noka nekezago erabiltzen da harreman jakin batzuetatik kanpo. Adibidez, familia barruan, mintzatzekotan, alabarekin, arrebarekin eta bereziki ahizpekin mintzatzen dira noka, baina nekez gainerako senideekin (biloba, iloba, lehengusina edo koinatekin). Familiaren eremutik kanpo, oso gutxi (zenbat eta gazteago orduan eta gutxiago) mintzatzen dira noka eta eskuko hatzamarrez zenbat daitezkeen betidaniko adiskideekin baino ez.

Jarraian, euskara bera koloka edo bere azken hatsetan duten herriak aipatu behar dira; Lapurdin, Atturri ibaitik urrunegi ez dauden Beskoitze, Mugerre, Urketa eta Bardozez ari gara. Inguru horretan noketaren erabilera —sarritan, hizkuntzarena berarena bezala— familiaren eremura murrizturik dago.

Azkenik, Garaziko eskualdean, Uharte-Garazi eta Gamarte ditugu. Alde horretan, familia barruan ere salbuespenak dira noka aritzen direnak. Oso bakan erabiltzen da noketa eta Uharte-Garazin, beharbada, inon baino gutxiago.

Esanak esan, ohartarazi behar da ekialdeko behe-nafarreraz —Amikuze aldean izan ezik— familiaz kanpoko gizarte-harremanetan noketa batik bat emakumeen artean gauzatu ohi dela eta oso nekez sexu desberdinekoen artean.

Berariaz multzokatu eta aipatu ditugu euskalki honetako herriak egin dugun moduan eta ez bestetara. Izan ere, bada hurrenkera horretara bultzatu gaituen arrazoi bat, xuka eta noketa tratamendu lehiakideen arteko korrelazioa, hain zuzen. Honako irizpide orokorra ezar genezake noketaren eremuzko banaketaren berri emateko: xuka tratamenduak zenbat eta bizitza oparoagoa, hainbat eta gertagarriagoa da noketaren atzerakada eta are desagerpena ere. Non gordetzen da hobekienik noketa? Non eta xukarik ez daukaten mintzairan, Amikuzekoan, alegia. Non dago murriztuen noketaren erabilera? Non eta xukak gartsuen irauten duen aldean, Garazi aldean bereziki. Non eusten zaio noketari? Xukak erabilerazko eremu handiegia bereganatu ez duen eskualdeetan, Arberoan, bereziki.

Xuka eta noketaren arteko norgehiagokan, lehenak du irabaztekoa. Xuka dagoen leku guztietan, atzera egiten ari da noketa eta hori oso nabarmena da hiztunen adinari erreparatuz gero. Zenbat eta gazteago, orduan eta probabilitate gehiago noketarik ez erabiltzeko.

Noketa eta xuka aspaldidanik ari dira elkarren lehian, baina beharbada gaur sekula baino nabarmenagoa da desoreka. Pentsatzeko da hasiera batean xukak gizarteko erabilerazko esparruak «jango» zizkiola noketari, besterik gabe; baina denboraren poderioz, erabilerazko esparruen jate hori noketa bera ordezkatzeraino iritsi da zenbait eskualdetan. Zehazki zergatik ez dakigula, zenbait eskualdetan ordezkatzea burutzen ari da tratamendu maitagarri eta txikigarriaren alde. Gure datuen arabera, aspaldi honetan ikaragarri azkartzen ari da noketaren galera, xukaren eraginaren ondorioz. Ordezkatze honen arrazoiak askotarikoak izan daitezke, baina nolanahi ere den, baduke zerikusia noketak euskalki orotan duen izaera markatuarekin.

## *MENDEBALDEKO BEHE-NAFARRERA*

Gu ibiliak garen herri apurretan (Baigorri, Hazparne eta Uztaritze) ez dugu aurkitu noketak «normaltasun» osoz korritzen duen herririk. Alde honetan, jeneralean, familia barruan (alaba, iloba, haurride edo lehengusinekin) erabiltzen da tratamendu hau, erabiltzekotan, noski. Familiatik kanpo, bakan agertzen da eta normalean emakumeen artean soilik, haurdanik jostetan eta elkarrekin ibilitako emakume kidekoen artean batik bat. Bada, hala ere, Euskal Herriko hainbat lekutan bezala, sexuari dagokion erabilerazko hutsune azpimarkagarri bat gizarteko bizitzan: salbuespenak salbuespen, familiaren eremutik kanpo gizonak ez zaizkie noka zuzentzen emakumeei, ezta eskola-lagunei edo betidaniko adiskide minei ere.

Gaineratu beharra daukat Hazparnen badela noketari atzera eragiten dion beste tratamendu bat, «*xu* eztabadakakoa», hain zuzen. Tratamendu hau, haurrekin ez ezik, emakumeekin ere erabiltzen da hurbiltasuna eta konfiantza erakusteko. Erruz erabiltzen da, gainera, eta beldur gara, ekialdeko behenafarrerazko eremuan gertatu eta gertatzen ari den antzera, tarteko tratamendu honen sorrerak ikaragarrizko eragina izan duela eta izango duela noketaren atzerakadan.

## *LAPURTERA*

Lapurdin toka gehiegi egiten ez baldin bada, ez dago esan beharrik noka are biziki gutxiago erabiltzen dutela, gure sarea osatzen duten herrietan behinik behin (Sara, Ainhoa, Urruña, Arbona eta Senpere). Aitzinohar honen ondoren, eman dezagun ikuspegi orokorra tratamenduaren bizitzaz.

Lapurtarren artean nahiko gaizki ikusia dago nokako tratamendua familiatik kanpo; euren hitzez esateko, «itsusi egiten du» noka aritzeak. Hortaz, esan daiteke dakitenek —anitzek ez baitaki—, gehienbat familiaren eremura mugatua dutela noketaren erabilera. Familia barruan, batez ere, haurrideak aritzen dira noka; oso bakan gertatzen da noketa gainontzeko senideekin, alaba, biloba, iloba, lehengusina edota koinatekin, adibidez. Familiatik kanpo, lehenagoko adiskide apur batzuekin soilik mintzatzen dira noka eta ez bestelakoekin.

Sexu eta adinari gagozkiela, gehienbat adineko lapurtarrek eusten diotela esan beharra dago; zehazkiago esateko, emakumeek. Gizonen artean badira noka aritzen diren banaka batzuk, adinekoak gehienetan; edozein kasutan ere, gizonok familiaren eremuan baino ez dute noka hitz egiten. Bestalde, gazteriak (40 urtetik behera, gutxi gorabehera), mutiko edo neska izan dadin, ez du erabiltzen noketarik, jakin ere, ez daki eta.

## *BIZKAIERA*

Euskalki honetan ere noketak ez du bizitza oparoegia. Gure sarea osatzen duten herrietatik ondokoak dira nokako tratamenduari ondoen eusten diotenak: Aulestia, Abadino (Mendiola auzoa), Bergara eta Otxandio. Aulestian eta

Bergaran, adibidez, «normaltasun osoz» (hots, toketa bezalaxe!) eta erruz erabiltzen da noketa, bai familia barruan, bai familiaz landako adiskideen artean; hortaz, sexukide izan edo ez, adiskideak eta senideak maiz aritzen dira noka beren artean. Abadinon eta Otxandion nokako tratamenduari eusten bazaio ere, ez da aipatu herri bietan bezainbeste erabiltzen.

Gure sarearen gainerako herrietan (Laukiz, Zeanuri, Orozko, Zeberio eta Eskoriatza) noketa atzeraka dabil eta ozta-ozta eusten zaio adinekoen artean. Oro har, oso gutxi erabiltzen da familian eta are gutxiago familiaz kanpo, batez ere sexukidetasunik ez badago. Gure lekukoen arabera, herriotan arrebari berari ere zuka mintzatzen zaio jeneralean eta, zer esanik ez, gizonek ez dute erabiltzen noketarik adiskide emakumeekin jarduteko.

Esandakotik, noketa herri hauetako euskal bizitzan aski kontu marjinala eta noizbehinkakoa dela ondorioztatzen da. Beraz, Aulestia eta Bergara bezalako salbuespenak alde batera utzita, esan dezakegu bizkaierazko noketak ez duela bat ere osasun onik.

## *IPARRALDEKO GOI-NAFARRERA*

Gu ibilitako iparraldeko goi-nafarrerazko herrietan (Auza, Lekaroz, Arantza, Oiartzun, Baraibar eta Leitza), oro har, aski bizirik irauten du nokako tratamenduak, familian batik bat. Haurrideak noka aritzen dira beren artean, sexukide izan edo ez; baina ez da gauza bera gertatzen familiatik kanpo. Horrela, etxean arrebari noka zuzendu arren, gehienetan gizonek ez dute ohiturarik emakume adiskideekin noka mintzatzeko[3] eta ondorioz noketa emakumeen artean egiten da nagusiki.

Leitza eta Oiartzun izan daitezke salbuespena, noketaren galtzea bi herriotan aurreratuago dago eta. Herriotan, noka askoz ere gutxiago egiten da familian eta doi-doi etxez kanpo.

## *GIPUZKERA*

Zalantzarik gabe, denetatik gipuzkera dugu nokako tratamendu markatuari hobekien eusten dion euskalkia. Beste euskalkiekin konparatuta, esan daiteke noketak bizi-bizirik irauten duela, bai familian eta bai familiatik kanpo. Bizitza zabal eta osasun erlatibo horren ondorioz, familiaren eremuan harreman askotara (alaba, haurride, iloba, lehengusina, koinata) hedaturik dago eta gainera sexuzko murrizketarik gabe. Hau da, enparatu euskalkietan ez bezala, sexuzko kidetasunik ezak ez du aparteko «debekurik» ezartzen noketaren erabileran, ez familia barneko harremanetan, ezta familiatik kanpokoetan ere.

[3] Salaburuk (1984:237) Baztango hizkeraz diharduela dioenez «Mutilek elkarren artean hitzegiteko erabiltzen dute hiketakoa. Nik ez dut inoiz ere ezagutu emazteki gazteei horrela mintzatzerik eta gainera, nahiko itsusitzat hartuko genuke hori. Hala ta guztiz, noizbehinka entzun daitezke hitanoka 50 urtetik gorakoak, herrietan bizi ez badira, batez ere. Dena den, pertsona hauek nahiko bakanak dira.»

## 2.2. Noketa familia barruko harremanetan

Euskalki desberdinetako hiztunek ez dute jokabide bera hikako bi mintza-moldeen aurrean. Horrela, toketan zuberotarrak hikatzaileenak diren arren, ezin esan daiteke gauza bera noketari buruz. Izan ere, gipuzkerazko hiztunak dira noketa gehien erabiltzen dutenak, alde handiz gainera (%47,4an, batez beste, kideko eta gazteagoko senideekin); beste muturrean lapurtarrak ditugu, noketa erabiltzeko uzkurren agertzen direnak (%13,8an eremu berean) eta tartean (%21etik 28ra bitartean) gainerako guztiak (B, MBN, Z, IGN eta EBN).

Ageri denez, erabilerazko beherakada ikaragarria —gipuzkerazko hiztunen artean neurri apalagoan, hala ere— nabari da toketatik noketara euskalki guztietan.

TAULA: NOKAKO BATEZ BESTEKOAK[4] FAMILIAKO KIDEKO ETA GAZTEAGOKOEKIN

| B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|
| %22 | %47,4 | %22,5 | %13,8 | %21 | %27,4 | %22,3 |
| L < | MBN < | B < | Z < | IGN < | EBN | < G |
| %13,8 | %21 | %22 | %22,3 | %22,5 | %27,4 | %47,4 |

NOKAKO BATEZ BESTEKOAK FAMILIAKO KIDEKO ETA GAZTEAGOEKIN




[4] Familiaren eremuko hamasei galderatan jasotako nokako emaitzen batez bestekoa eginez, atera dugu euskalki bakoitzaren hikako portzentaia orokorra. Honako hauek izan dira kontuan hartu diren galderak: senarrak emazteari (3A), aitak alabari (5A), amak alabari (7A), aitonak bilobari (9A), amonak bilobari (11A), ahizpen artean (13), nebak arrebari (14), osabak ilobari (16A), izebak ilobari (18A), lehengusinen artean (20A), lehengusuak lehengusinari (21A), aitaginarrebak errainari (23A), amaginarrebak errainari (25A), koinaten artean (27A), koinatuak koinatari (28A), senargaiak emaztegaiari (29A).

Gorago aurreratu dugun bezala, zubereraz hautsi egiten da gainerako euskalkietan arau orokorra dena, emazteari eztabadaka edo zuka mintzatzeko usario derrigorrezkoa, alegia. Beheko taulako portzentaien arabera, iduri du emaztearekiko nokako ohitura, zuberotarren gutxiengoarena (%34,4) den heinean, gaizki ikusia egon behar duela, baina ez da horrela. Gure erakusgarrian, noketa erabiltzen duten 14 zuberotarren artetik 10ek (%71,4) bere emazteari noka egiten diola kontuan hartzen bada, berehala ohartuko gara ez dagoela halako debekurik senar-emazteen artean hika aritzeko. Oker ez bagaude, gaur egungo noketaren galera edo erabilerarik eza izaten da maizenik zuberotarren artean emazteari noka ez mintzatzeko arrazoi nagusia[5]. Praktikan, egungo egoera honen ondorio garbia, zuberotar senar-emazteen arteko tratamenduzko asimetria izaten da askotan. Bestalde, gaineratu behar da senar-emazteen arteko hikako ohitura hau Nafarroa Behereko zenbait eskualdetara zabaltzen dela, Amikuze eta Ostibarre aldera[6], zehazki. Aipatu eremuotatik kanpo, ezkonduen arteko hitanoak salbuespenezko izaera du inolako zalantzarik gabe.

NOKAKO PORTZENTAIAK FAMILIAKO KIDEKOEN ARTEAN EUSKALKIZ EUSKALKI.

| GALDERA | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EMAZTEARI 3A | %2,2 | %6,8 | %3,7 | — | %7,6 | %20,4 | %34,4 | %12 |
| ANDRE-GAIARI 29A | %18,6 | %40 | %4 | — | %8,3 | %24,4 | %28,5 | %20,1 |
| AHIZPARI 13 | %34,3 | %83,3 | %63,6 | %42,8 | %45,4 | %48,7 | %30,7 | %49,4 |
| ARREBARI 14B | %42,1 | %76 | %70,8 | %26,6 | %45,4 | %44,4 | %29,1 | %48 |
| LEHENGUSI-NARI 20A | %30 | %78,9 | %33,3 | %11,7 | %27,2 | %28,2 | %16 | %31,4 |
| (Lehengusuak) 21A | %25 | %76,1 | %25 | — | %15,3 | %21,4 | %25 | %27,2 |
| KOINATARI 27A | %30 | %75 | %20,8 | — | %12,5 | %20,9 | %23 | %27,1 |
| « (Koinatuak) 28A | %24,3 | %58,3 | %16 | — | %9 | %18,7 | %14,8 | %21,8 |

[5] Gure emaitzen arabera, Santa-Grazin lautatik hiru mintzatzen zaizkio noka emazteari eta orobat gertatzen da Muskildin ere. Beste erantzunak Larrañen (1), Altzürükün (1) eta Barkoxen (2) jaso genituen. Kasu gehiegi iruditzen zaizkigu kasualitate hutsa izateko.

[6] Amikuzen (Amorotze eta Gamuen, gure erakusgarrian) guztiz orokorra dirudi elkarrekiko hitanoak senar-emazteen artean eta Ostibarreko Donaixti Ibarren bietara egiten omen da, bai xuka eta bai hika. Nafarroa Behereko gainontzeko eskualdeetan, ezkonduen artean toketa gerta badaiteke ere, noketarik ez edo oso nekez.

NOKAKO PORTZENTAIAK FAMILIAKO GAZTEAGOKOEKIN

| GALDERA | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALABARI 5A | %15,9 | %40,7 | %29,6 | %5,8 | %27,2 | %36,1 | %22,2 | %26,5 |
| « (Amak) 7A | %26,1 | %41,6 | %28 | %5,8 | %36,3 | %38,6 | %25 | %29,8 |
| BILOBARI 9A | %25,6 | %37 | %16,6 | %5,8 | %44,4 | %28,8 | %28,5 | %26,4 |
| « (Amonak)11A | %23 | %30,7 | %20,8 | %6,2 | %27,2 | %28,2 | %27,5 | %24,6 |
| ILOBARI 16A | %19,5 | %50 | %16 | %5,8 | %18,1 | %27 | %20,8 | %23,4 |
| « (Izebak)18A | %17,5 | %45,4 | %12 | — | %12,5 | %23,2 | %25 | %20,9 |
| ERRAINARI 23A | %6,9 | %11,5 | — | — | — | %16,2 | %3,7 | %7,2 |
| « (Amak) 25A | %12,1 | %8,3 | — | — | — | %13,9 | %3,7 | %7,3 |

Goiko irudiko zutabeak konparatuz gero, behe-nafarrera bietako eta zubererazko hiztunen artean izan ezik, senide kidekoei mintzatu edo gazteagokoei mintzatu, noketaren erabileran beherakada nabarmena gertatzen dela ikusten da. Sartaldeko euskalkiotan (bizkaiera eta lapurteran eta bereziki noketari orain arte ongien eutsi dioten nafarrera eta gipuzkeran), noketa dexente gutxiago erabiltzen da familiako senide gazteagoekin (alaba eta ilobekin) kidekoekin (ahizpa, lehengusina edota koinatarekin) baino. Oraingoan ere, beldur gara beherakada hau neurri handi batean tratamenduaren jarraipenaren etendurari zor ez ote zaion. Hau hala izatera, nokako tratamendua modu azkar batez atzera egiten ari dela pentsatu beharko genuke[7].

## 2.3. Noketa familiaz kanpoko harremanetan

Oro har, Euskal Herri osoan noketa oso gutxi erabiltzen da familiaz kanpoko harremanetan. Gizonen artean ez bezala, emakumeen artean kidetasuna

[7] Hitanoa kalean barra-barra erabiltzen duten herri gero eta bakanagoetan izan ezik. Halako herrietan ez dago zertan beldurrik eduki, kalea baita hikaren erakusle eraginkorrena. Aulestia edo Azpeitia bezalako herrietan, esate baterako, etxean irakatsi ez arren, haurrek nahi gabe kalean edo eskolan ikasten dute, hobeto edo traketsago, hitanoa.

NOKAKO BATEZ-BESTEKOAK FAMILIAKO KIDEKO ETA GAZTEAGOEKIN (EUSKALKIKA)




ez da izaten aski pertsona bati noka mintzatzeko; noketa, adiskideen artean egiten da batik bat eta orduan ere, ez maiztasun handiz euskalki guztietan. Oro har, gipuzkerazko hiztunen artean gordetzen da ondoen nokako tratamendua. Adiskidetasunezko harremanari gagozkiola (ikus beheko taula, 70. galdera), gipuzkera eta goi-nafarrerazko hiztunak dira (%78,5 eta %72,7, hurrenez hurren), zalantzarik gabe, noketa maizen erabiltzen duten euskaldunak; ondoren bizkaierazkoak letozke (%47,6) eta azkenik, gainerako guztiak, nokako portzentaia apalegiez.

## 3. SIMETRIA ETA ASIMETRIA EUSKALKIAREN ARABERA: ASIMETRIARANZKO JOERA EKIALDEKO EUSKALKIETAN

Emaitzak banaka aztertu beharrean, binaka arakatzen baditugu, eguzki aldeko euskalkietako joera asimetrikoagoa azaltzen zaigu nabarmenki.

Hasteko, guztiz azpimarkagarria da zubereraz eta ekialdeko behe-nafarreraz *T-T* aukeraren aldamenean ageri den joera asimetrikoa *(T-V, X-T, X-V)* sexu

NOKETA EMAKUMEEN ARTEAN FAMILIAZ KANPOKO HARREMANETAN (EUSKALKIKA)

| GALDERA | OROT. | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADINTSUKO EZ-EZAGUNARI (63A) | %2 | — | — | — | — | %14,2 | — | %6,6 |
| 7-8 URTEKO NESKATO EZEZAGUNARI(35) | %10,3 | %9,3 | %22,2 | %7,6 | — | — | %12,5 | %10,7 |
| ETXEKOANDREAK NESKAMEARI (50A) | %14,7 | %18,1 | %16,6 | %14,8 | — | %15,3 | %18 | %10,9 |
| GALDERA | OROT. | B | G | IGN | L | MBN | EBN | Z |
| LANKIDEARI (58) | %22,2 | %33,3 | %28,5 | %18,2 | %12,5 | %28,5 | %13 | %20 |
| NAGUSI ADISKIDEARI (52A) | %25,2 | %28,5 | %50 | %27,2 | %12,5 | %28,5 | %17,3 | %13,3 |
| LANKIDE ADISKIDEARI (70) | %43,4 | %47,6 | %78,6 | %72,7 | %12,5 | %28,5 | %30,4 | %26,6 |

desberdineko parekoen artean. Adibidez, asimetria ugari gertatzen da ezkondu eta ezkongaien artean, neba-arreben, lehengusu-lehengusinen eta koinatu-koinaten artean; eta familiaz kanpo orobat gertatzen da sexu berekoak ez diren lankide edota adiskideen artean. Bistan denez, kasuotan guztiotan tratamenduzko simetriarik eza sexu-desberdintasunak eragindakoa da. Izan ere, gorago esan bezala, toketa eta noketa tratamenduen erabilera ez da erabat parekagarria euskalkietan barrena. Sortaldeko euskalkietan sexuzko diferentziak asimetria ugari eragiten ditu, toketa erruz eta noketa oso neurri apalean erabiltzen direlako.

Noketaz bakan baliatzen diren euskalkietan (B, L, MBN, EBN, Z) sexuzko desberdintasunak benetako auzia dakar tratamenduaren ikuspuntutik begiratuta. Bi aukera agertzen zaizkigu aurrez aurre: *V-V*ren bidezko tratamendu berdintasuna eta asimetria formala *(T-V, T-X)*. Interesgarria iruditzen zaigu arazo hau konpontzeko euskalkiaren arabera hautaturiko soluziobide desberdina azpimarkatzea: eguzki aldeko euskalkietan (EBN eta Z, batez ere) tratamenduzko asimetriaren alde makurtu diren bitartean, gainerako euskalkietan (bizkaieraz eta lapurteraz, batik bat) *V-V* simetrikorantz jo dute.

ASIMETRIAK EZKONDU ETA EZKONGAIEN ARTEAN (EUSKALKIKA)




ASIMETRIAK SEXU DESBERDINEKO SENIDE PAREKOEN ARTEAN (EUSKALKIKA)



ASIMETRIAK SEXU DESBERDINEKO LANKIDE ETA ADISKIDEEN ARTEAN (EUSKALKIKA)




Sexuak ez ezik, adinak ere berebiziko garrantzia du ekialdeko euskalkietan simetriari begira. Familia barruan, adibidez, eguzki aldeko euskalkietan (mendebaldeko behe-nafarreran eta batez ere ekialdekoan eta zubereran) beste inon baino maizago gertatzen da asimetria eta gauza bera etxetik kanpo, adinkide ez diren ezezagun, lankide eta adiskideen artean.

## 4. ONDORIOAK

1) Hitanoaren erabileraz jeneralean hitz egitea nahasgarri gerta daiteke, deitura horren pean oso erabilera desberdina duten bi tratamendu kontrajarriak biltzen direlako: toketa eta noketa. Bereizketa hau funtsezkoa da euskal tratamenduen erabilera aztergai duen ikerketa batean eta are funtsezkoagoa bihurtzen da azterketa euskalkien arteko konparazioaren ikuspuntutik burutzen denean.

2) Toketaren erabilerari gagozkiola, denetatik zubererazko eta ekialdeko behe-nafarrerazko hiztunek dirudite hikatzaileenak. Oro har, bi euskalki hauen eta gainerakoen artean alde nabarmena dago, bai familiako harremanetan, bai familiaz kanpokoetan.

3) Familiako kideko eta gazteagoekiko harremanetan, mutur batean joera «tokatzaile» handiena duen zuberera dugu (%89,1), ondoren EBN (%71), MBN (%60,4), G (%57), B (%43,5) eta IGN (%38,7) ditugu eta beste muturrean lapurtera, hikako joera uzkurrena duena (%29,4).

4) Senide nagusiagoekin ez da inongo euskalkitan erabiltzen hitanorik, ezta joera hikatzaileena erakusten duten zuberotarren artean. Hala ere, kontu

honetan bada salbuespen bat edo beste. Zuberoan Barkoxe izan daiteke haietako bat eta Nafarroa Beherean Amikuzeko eskualdea (Amorotze, Gamue) beste bat. Herriotan hitanoa barra-barra erabiltzen da eta ez da bat ere harrigarria seme-alabek gurasoekin hika (toka nahiz noka) jardutea.

5) Teorian sortaldeko euskalkietan ez bide dago halako ohiturazko debeku irmorik senar-emazteek eta senargai-emaztegaiek elkarrekin hika jardun dezaten.

Zubererazko hiztunen artean, esaterako, toketa izaten da tratamendu ohizkoa senar eta senargaiarekin (%75 eta %81,4). Eta alderantzizko zentzuan ere gauza bera gertatzen da, baldin eta hiztuna noka mintzatzen dakiena bada (noka aritzen diren gure lekuko zuberotarren arabera, hamalautik hamarretan gertatzen omen da senarra emazteari noka zuzentzea).

Ekialdeko behe-nafarreraz, tokako joera hain garbia ez bada ere, ez da inola ere gutxiestekoa: %40,4 senarrarekin eta %51,1 senargaiarekin. Eta euskalki berean guztiz berezia dugu Amikuzeko eskualdea, bertan hitano elkarrekikoa baita arau orokorra (%100) ezkondu eta ezkongaien artean. Eta neurri apalagoan bada ere, antzeko joera nabari da Ostibarreko Donaixti-Ibarren.

Euskalkiotan, teorian senar-emazteen arteko hitanoaren aurkako ohiturazko eragozpenik egon ez arren, praktikan maiz gertatzen dira tratamenduzko asimetriak noketaren galeraren ondorioz. Horrela, oro har, toketa/noketa simetriaren aldamenean, maizago ditugu toketa/zuka binakoa zubereran eta toketa/xuka ekialdeko behe-nafarreran.

6) Familia barneko harremanekin jarraituz, kidekoei mintzatu (haurride, lehengusu eta koinatuak) edo gazteagokoei mintzatu (seme, ilobak), beherakada harrigarria nabari da zenbait euskalkitan (gipuzkeraz eta iparraldeko goi-nafarreraz batik bat eta neurri apalagoan lapurteraz) toketaren erabileran. Datuaren irakurketa baten arabera, baliteke beherakada horrek hitanoaren jarraipenaren etendurarekin zerikusia izatea. Hau da, familian bertan uzkurtasun edo soraiotasunezko jarrera legoke nagusien aldetik belaunaldi gazteagokoei hitanoa helarazteko. Etendurazko joera hau egiazkoa balitz, hitanoaren galera maiz familiatik bertatik hasten dela pentsatzen hasi beharko genuke.

7) Familiaz kanpoko harremanetan, orobat, zubererak eta ekialdeko behe-nafarrerak jarraitzen dute izaten «tokatzaileenak». Gainera, sortaldeko bi euskalki hauetan adinak paper garrantzitsuagoa jokatzen bide du. Adibidez, adinezko nagusitasun hutsa aski izan daiteke ezezagun gazteagoekin toka jarduteko. Ondorioz, oro har, sortaldeko euskalkiotan gainerakoetan baino maizago gertatzen dira adinak eragindako tratamenduzko asimetriak (goitik beherako *T* eta alderantzizko *V*).

8) Sortaldeko euskalkietako hiztunak tokatzaileenak badira ere, ezin esan dezakegu gauza bera noketari bagagozkio. Noketak hegoaldeko erdialdeko euskalkietan irauten du hobekien.

Gipuzkera eta iparraldeko goi-nafarrerazko hikako hiztunen artean gauza arrunta da hikako bi mintzamoldeak erabiltzeko usario eta gaitasuna; aitzitik, gainerako euskalkietako hiztun hikatzaileen artean, ohiturarik ezagatik nahiz gaitasunik ezagatik, asko dira (hirutik bat edo gehiago, batez beste) noketa sekula erabiltzen ez dutenak.

Emaitza hau guztiz adierazgarria da eta noketa tratamenduaren bizitza makalago eta izaera markatuagoa azpimarkatzera dator. Toketa euskaldun guztiena ez baldin bada, nokako tratamendua are hiztun-kopuru murritzago baten ahotan dabil.

9) Denetarik gipuzkerazko hiztunak dira hikako bi tratamenduak (toketa eta noketa) «normaltasunez» edo sexuaren araberako murrizketarik gabe erabiltzen dituzten bakarrak. Gainerako euskalkietan noketaren erabilerak era guztietako murrizketak eta hutsuneak izaten ditu: eremuzkoak (eskualde batzuetan bai, beste batzuetan ez; familian bai, baina familiatik kanpo ez), adinezkoak (adinekoen artean bai, gazteen artean ez), sexuzkoak (emakumeen artean bai baina gizonek emakumeei ez), e.a.

Noketaren euskalkiz euskalkiko bizitzaz eta erabileraz ondoko emaitza azpimarkagarriak gogoratu behar dira.

Zuberoan aztertutako zazpi herrietatik batean (Barkoxen) du bizitza oparoa noketak, beste batean (Santa-Grazin) aski bizitza zabala, hirutan (Aiñharbe, Altzürükü eta Muskildin) doi-doi eusten zaio adinekoen artean eta bitan (Larrañe eta Espeize-Ündüreiñen) erdi galdutzat eman daiteke. Ondorioz, Zuberoan noketa atzeraka dabil eta gazteriak galdua duen neurrian galbidean barrena abiaturik dago.

Ekialdeko behe-nafarreran antzeko joera nabari da (cf.VII. kapt.), baina oraingoan xuka tratamenduarekiko lehiaren ondorioz galtzen ari da noketa. Bi tratamenduok aspaldi sartu ziren lehian eta dagoeneko zenbait eskualdetan ordezkapena burutzen ari da tratamendu txikigarriaren alde. Euskalki honetan gaur egun noketaren etorkizuna eta bizitza xukaren etorkizunari eta bizitzari estekaturik daudela esan daiteke. Noketak, xukarik ez den lekuan irauten du hobekien (Amikuzeko eskualdean) eta xukaren oldar kementsua jasan behar duen eremuan (Garaziko eskualdean) gaizkien; bi mutur hauen artean gainerako eskualdeak ditugu (Arberoa, Lapurdiko EBN...). Oraingoz noketa eta xuka ondo gordetzen dituen Ostibarreko eskualdeak (Donaixti-Ibarre) etorkizunean bi tratamenduen arteko borroka nozi lezake, Zuberoako Aiñharben gertatu den antzera.

Mendebaldeko behe-nafarreran noketak batez ere familia barruan eta familiatik kanpo emakumeen artean soilik irauten du bizirik; hortaz, gizonak ez dira aritzen noka emakume adiskideekin, ezta adiskide minak izanda ere.

Lapurdin ere antzeko egoera dugu, noketa galtzeko arriskua handiagoa izanik.

Bizkaierazko eremuan, batetik Aulestia eta Bergara eta bestetik Otxandio eta Abadino herri nokazaleak kentzen baditugu, noketa bakan erabiltzen da: batez ere familia barruan; familiatik kanpo zerbait betiko emakume adiskideen artean. Galduz doa gazteen artean.

Iparraldeko goi-nafarreran hobeto eusten diote noketari, bereziki familia barruko harremanetan. Bestela, familiaz kanpokoetan emakumeen artean soilik egiten da noka.

10) Euskaraz, oro har, familiako kide eta gazteagoekiko harremanetan noketa bi bider gutxiago (%25,2an batez beste) erabiltzen da toketa baino (%55,5ean batez beste). Toketatik noketara nabari den erabilerazko beherakada hau, gainera, gehiago edo gutxiago, euskalki guztietan gertatzen da; are gipuzkerazko hiztunen artean ere (%57tik %47,4ra).

Edozein modutan ere, toketa eta noketaren arteko desoreka edo beherakada muturretako euskalkietan (B, MBN, EBN, Z) ageri zaigu beste inon baino garbiago. Sartaldeko bizkaierazko hiztunen artean toketatik noketara erdira (%43,5etik %22ra) jaisten da hikako portzentaia familian eta sortaldeko hiztunen artean oraindik beherakada larriagoak gertatzen dira sexuaren arabera: MBNz %60,4tik %21era; EBNz %71tik %27,4ra eta zubererazko hiztunen artean %89,1etik %22,3ra.

11) Gipuzkerazko hiztunak dira familiako kide eta gazteagokoekin noketa gehien erabiltzen dutenak (%47,4an batez beste); beste muturrean lapurtarrak ditugu, noka aritzeko ohitura apalena dutenak (%13,8an batez beste); eta tartean (%21etik %28ra bitartean) gainerako euskalki guztiak ageri zaizkigu (B, MBN, Z, IGN, EBN).

12) Behe-nafarrera bietako eta zubererazko hiztunen artean izan ezik, senide kidekoei mintzatzetik gazteagokoei mintzatzera asko jaisten dira nokako portzentaiak. Goragoko seigarren puntuan iradoki dugun ildotik, hiketaren oraingo beherakada honek ere noketaren jarraipenaren etendurarekin zerikusirik izan dezakeela pentsatzera makurtzen gara. Irakurketa hau egiazkoa izatera, lagunarteko tratamenduarekiko utzikeriazko edo soraiotasunezko jarrerak eta eragozpenak etxetik bertatik hasten direla pentsatu beharko genuke.

13) Oro har, Euskal Herri osoan noketa oso gutxi erabiltzen da familiaz kanpoko harremanetan. Gizonen artean ez bezala, emakumeen artean kidetasuna edo harremana besterik gabe ez da izaten aski hika jarduteko.

Erabiltzekotan, noketa adiskideen artean erabiltzen da eta orduan ere, ez maiztasun berberaz euskalki guztietan. Erdialdeko euskalkietako (G eta IGN) hiztunek halako egoeretan noketa maiztasun handiz (%78,6 eta %72,7) erabili ohi duten bitartean, gainerako euskalkietan adiskideen arteko nokako joerak zerbait markatua izaten jarraitzen du.

14) Oro har, ekialdeko euskalkiak —EBN eta Z bereziki— dira asimetriaranzko joera handiena erakusten dutenak. Asimetriok, maila desberdineko

senideen artean ez ezik, sarri kideko edo parekoen artean ere gertatzen dira, nagusiki sexuzko edota adinezko desberdintasunen ondorioz.

Sexuak zeregin garrantzitsua jokatzen du euskalki gehienetan simetriari begira. Hala ere, emaitza edo ondorioak desberdinak dira euskalkien arabera: erdialdeko euskalkietan (G, IGN) sexuzko desberdintasunak ez du asimetria edo auzi larregirik eragiten parekoen artean eta halakoetan *T-T* izaten da soluziobide arrunta; sortaldekoetan (EBN, Z) auzia emakumearen aldeko asimetriaz konpondu ohi da (*T-V* nahiz *T-X*); eta gainerakoetan (B eta L bereziki) sexuzko berdintasunik eza, hitano asimetrikoaren aukera (*T-V*) baztertuz eta *V-V* neutroaz erabakitzen da.

Era berean, adinezko desberdintasunak nonahi asimetriarik eragin dezakeen arren, eguzki aldeko euskalkietan gainerakoetan baino garbiago eta nabarmenago ageri zaigu joera asimetrikoa. Gauzak horrela, ematen du Brownek eta Gilmanek «boterearen semantika» deritzotenaren aztarnak agerikoagoak direla sortaldeko euskalkietan gainerakoetan baino.

# IX. EMAITZEN AZTERKETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

## 1. EMAITZAK SEXUAREN ARABERA

Kapitulu honetan sexuaren arabera zehaztuko dira lehengo emaitza orokorrak (V. kapt.). Bereziki, euskaraz lagunarteko tratamenduaren mailan *(T)* kokatu ohi diren bi tratamenduen arteko aldea azpimarkatu nahi dugu, hots, erabileraz hain bestelakoak diren toketa eta noketaren arteko aldea jarri nahi dugu agerian. Dena den, sexuaren aldetik hikako eta xukako tratamenduetan dauden joera aurkakoak erakustearren, hitanozko emaitzekin batera *(T)*, *X* (xuka alokutibo edo ez-alokutiboa) eta *V* (eztabada, beroriketa eta zuka) tratamenduei dagozkienak ere eskainiko ditugu.

Ikerketaren diseinua azaltzerakoan esan dugun bezala, guztira 210 lekuko elkarrizketatu genituen, sexuaren araberako hurrengo banaketaz: 112 gizon eta 98 emakume. Xukari bagagozkio, alde batetik, EBNz xuka aritzen diren 22 gizon eta 19 emazteki ditugu; bestetik, kopuru horri Aiñharbeko lau hiztun zuberotarrak (bi gizon eta bi emakume) eta xuka ez-alokutiboaz baliatzen diren hazpandarrak (bi gizon eta bi emakume) eta emakume aezkoarra gaineratu behar zaizkio: orotara, xuka aritzen diren 50 lekuko ditugu, haietarik 26 gizonak eta 24 emakumeak[1].

### 1.1. Toketa eta noketa: lagunarteko tratamendu parekoak ote?

Ikuspegi linguistiko formaletik begiratuta, toketa eta noketaren arteko

[1] Emaitzen aurkezpen orokorrean (V. kapt.) bezalaxe, portzentaiak galdera bakoitzean lortutako erantzun-kopuruaren arabera ematen dira eta ez elkarrizketaturiko populazio osoaren arabera. Xukako tratamenduari dagozkion emaitzak bi eratara eskainiko ditugu: lehenik, parentesi artean, xukak populazio «xukariaren» artean (50 hiztun = 26 gizon/24 emakume) hartzen duen zabalera ehunekotan eskaintzen da; ondoren, xukaren pisu orokorra (erantzunen guztizkoaren arabera) ematen da.

parekotasuna onartu ohi da: *hi* izenordainari dagokion lagunarteko tratamenduaren mailan *(T)* jartzen dira biak, hartzailearen sexuaren arabera automatikoki bata edo bestea hautatzea zilegi balitz bezala. Hots, hartzailearen araberako aldaera osagarri eta guztiz baliokideak bailiran aurkeztu ohi dira gramatikaliburuetan. Dena den, orain arte behin eta berriro azpimarkatu denez, erabilearen ikuspegitik begiratuta bata eta bestea ez dira erabat parekoak, ez behintzat euskalki gehienetako (supra VIII. kapt.) hiztun askorentzat.

Toketa eta noketa mailaz berdintzen dituen —biak dira *T*— irizpide gramatikal soilaz *(-k/-n...)* ezin da esplikatu zergatik egiten dion aita batek hika bere semeari eta zuka edo eztabadaka bere alabari, edo zergatik egiten den hika askoz maizago anaien artean ahizpen artean baino. *To* eta *no,* biak, lagunartekotzat *(T-tzat)* hartzen ditugun arren, bistan dago biek ez dutela modu berean funtzionatzen gizartean. Noketa, toketaren aldean, tratamendu markatua dela esan daiteke, hiketa, eztabada edo zukaren aldean, tratamendu markatua dela esaten dugun era berean. Bestela esan, oro har, noketa *lagunartekoago*tzat jo genezake, maiztasun urriagoa duelako.

Gauzak horrela, sexu aldagaiaren garrantzia azpimarkatu beharrean gaude; baina auzi honetan batez ere hartzailearen sexua da axola duena, eta ez hainbeste sexu-kidetasuna edo hiztunaren sexua. Irizpide horrexen arabera makurtzen da balantza *T*-ren edo *V*-ren aldera. Anaien artean (T=%90,3) eta ahizpen artean (T=%49,4), esaterako, sexu-kidetasuna egonda ere, oso bestelako neurrian azaltzen da lagunarteko tratamendua kasu batean eta bestean.

Konparaketetan sartu baino lehen, aski izango da hurrengo datu adierazgarria ematea noketaren bizi-arnas makalagoaz konturatzeko: gure inkestagintzako populazioa hikatzailea izanik ere, haietariko multzo handi samarrak (%34,3) ez du noketarik sekula erabiltzen. Hortaz, euskaldun hikatzaileen kopurua neurtzeko moduko datu atsolutu edo erlatibo fidagarririk inon ez badago ere, gure inkestagintzak noka aritzen diren euskaldunen kopuruari buruz datu erlatibo adierazgarria eskaintzen duelakoan gaude: populazio hikalariak osatzen duen multzo txiki eta neurgaitzaren %65,7 soilik mintzatzen da noka (euskalkiz euskalkiko banaketarako ikus supra VIII.2.1). Alderantzizko kasurik ez dugu aurkitu, ordea: ez dugu noka bai, baina toka jarduten ez duen lekukorik. Horrexegatik diogu noketa tratamendu markatua dela.

Bestalde, beheko tauletan ageri den konparaketak lehengora garamatza. Arazoa ez da bakarrik noka euskaldun gutxiago (%65,7) aritzen direla, aritzen direnak askoz ere egoera gutxiagotan aritzen direla baizik. Horixe ondorioztatzen da beheko emaitzetatik. Toketaren aldean, noketaren erabilerak kantitatezko —hiztun gutxiago— eta kualitatezko —testuinguru gutxiago— murrizketa pairatzen du. Esate baterako, tokako portzentaia anaien artean %90eraino iristen den bitartean, nokakoa %50ren inguruan dabil kasurik onenean eta gainerako harremanetan ere oso antzera dabiltza proportzioak.

TOKA/NOKA FAMILIAKO KIDEKOEN ARTEAN

| TOKA | | | NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| (3b) | senarrari | %21,4 | %12,5 | emazteari (3a) |
| (29b) | senargaiari | %33,5 | %21,1 | emaztegaiari (29a) |
| (12) | anaiak | %90,3 | %49,4 | ahizpak (13) |
| (14b) | arrebak nebari | %72,3 | %50,2 | nebak arrebari (14a) |
| (19) | lehengusuak | %84,2 | %31,4 | lehengusinak (20) |
| (21b) | neskak lehengusuari | %51,4 | %27,7 | mutilak lehengusinari (21a) |
| (26) | koinatuak | %84,6 | %27,1 | koinatak (27) |
| (28b) | koinatak koinatuari | %46,7 | %21,8 | koinatuak koinatari (28a) |

TOKA/NOKA FAMILIAKO GAZTEAGOEKIN

| TOKA | | | NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| (4a) | (aitak) semeari | %69,8 | %30,3 | (amak) alabari (7a) |
| (6a) | (amak) semeari | %63 | %28 | (aitak) alabari (5a) |
| (8a) | (aitonak) bilobari | %64,9 | %24,6 | (amonak) bilobari (11a) |
| (10a) | (amonak) bilobari | %51 | %26,4 | (aitonak) bilobari (9a) |
| (15a) | (osabak) ilobari | %70,3 | %20,9 | (izebak) ilobari (18a) |
| (17a) | (izebak) ilobari | %54,5 | %23,9 | (osabak) ilobari (16a) |
| (22a) | (aitak) suhiari | %43,9 | %7,3 | (amak) errainari (25a) |
| (24a) | (amak) suhiari | %26 | %7,2 | (aitak) errainari (23a) |

Familiaz kanpoko harremanetan are nabariagoa da lagunarteko bi tratamenduen erabilera desorekatua. Adibide esanguratsu batzuk besterik ez ditugu emango noketaren maiztasun urriagoa erakusteko. Gure erakusgarriaren arabera, mutiko ezezagun batekin (34.gald.) hika %45,7 arituko liratekeen arren, portzentaia hori laurdenera (%10 inguru) jaisten da neskato ezezagunaren (35.gald.) eta ezezagun gazteagoaren kasuetan (64.gald.); lehengusu edo lehengusin ezezagunarekin (39.gald.) ere beherakada bera somatzen da toketatik noketara (%44,1etik %9,4ra). Lankide gazteago batekin (61.gald.) lautik hiru gizon baino gehiago (%83,4) aritzen omen da toka, baina kasu berean lautik emakume bat soilik (%26,9) mintzatzen da noka; sexu bereko lankidearekin (58.gald.)

noka aritzen den emakume bakoitzeko (%27,2) hiru dira toka aritzen diren gizonak (%87,8) eta proportzio berean azaltzen dira toketa (%84,3) eta noketa (%30,2) nagusi adiskidearekin hitz egiterakoan (52.gald.). Adiskide batekin (70.gald.) %96,2 gizon aritzen dira toka, baina portzentaia hori ia erdira jaisten da emakumeen artean (%54,6). Eta ezezagun bati (63. gald.) %25,9 gizonek hika egingo lioketen bitartean, kasu horretan emakume ezezagunen artean noketarik ozta-ozta (%2) azaltzen da.

Gainera, nahiko deigarria da noketa eta xuka tratamenduen arteko erlazio eta banaketa osagarria EBNz. Izan ere, gorago erakutsi denez (VII. kapt.), euskalki horretan xuka noketaren erabilerazko hutsunea betetzera etorri da: gizonetatik emakumeetara hiketak behera egiten du eta, hain zuzen horregatik, noketaren hutsarte hori betetzeko edo, xukako tratamenduaren erabileran alderantzizko joera nagusitu da.

Hain zuzen, noketaren erabilera markatuagoak esplikatuko lituzke sexu desberdineko parekoen artean (neba-arreben artean, lehengusu-lehengusinen artean, koinatu-koinaten artean, lankideen artean, adiskideen artean...) gertatzen diren asimetria ez ugariegi baina bai esanguratsuak (*T-V, T-X*); izan ere, halakoetan (infra V. eta VII. kapt.) gauza jakina da T gizonarentzat dela eta kortesiazko tratamendua (*V, X*) emakumearentzat.

Gauzak horrela, zenbaitetan funtsezkoa iruditzen zaigu toketa/noketa bereizketa lagunarteko T-ren barruan. Euskalkiz euskalkiko jokamoldeak aztertzerakoan, adibidez, errealitatea ongi islatuko bada, ezinbestekoa dugu aipatu bereizketa egitea. Horrela, toketari bagagozkio, ikusi dugu zubererazko hiztunak direla hikatzaileenak, baina ezin horrelakorik esan noketari buruz, berau hil aginean dutelako (ik. VII.2).

Noketaren izaera markatua sexuari lotua dagoen heinean, erabilera murritzagoa emakumeenganako kortesiari edo agian hitanoarekiko gaitzespenezko jarrerari zor zaiola pentsa liteke. Dena den, gaitzespenezko jarrera oro har hitanoarekikoa izanik, gauza bitxia da beti eta euskalki guzti-guztietan lagunarteko tratamendu bietatik noketa izatea galtzaileen edo atzeratuena. Galera uniforme hau azaltzeko, emakumearenganako kortesiazko «sentiberatasun» berezia izan duen gizartekera berbera postulatu beharko genuke Euskal Herri osorako, Espainiako Bizkaitik hasi eta mugaz bestaldeko Zuberoaraino. Hots, kultura-sustrato bateratuaren ondorio dateke noketa galtzen uzteko joera. Ildo horretatik joan liteke azalpen soziolinguistiko edo etnolinguistikoa.

Dena den, Lafon (1957: 8-9)-k bere buruari galdetzen dio ea betidanik *-k/-n* aurkakotasuna sexuari lotua egon ote den eta hipotesi gisa honako aukera hau luzatzen du: antzinako garaietan *-k* markak (*-t* aldaeraz, *tori*) ez zukeen maskulinoa bakarrik adieraziko eta *-n* ezaugarria hasieran maitasunezkoa edo txikigarria izan zitekeen. Kultura-sustrato bateratuaren azalbidea ezertarako ukatu gabe, uste dugu Lafonen hipotesiak noketaren erabilera murritz eta markatua ulertzen lagun lezakeela. Hipotesiak hipotesi, kontua da euskalki

guztietan toketa, bere ahultasunean, noketa baino askoz ere indartsuago eta sendoago dagoela.

### 1.2. Emaitza orokorren banaketa lekukoen sexuaren arabera

Orain arte esana kontuan hartzen bada, hasierako aurkezpenean egindako zenbait baieztapen orokor sexuaren arabera xehatu beharrean aurkitzen gara.

Lehenengo eta behin, emaitzen azterketa orokorrean kidetasuna eta adiskidetasuna elkarrekiko *T* eragiteko moduko aldagaiak direla esan dugu. Oro har baieztapen hau onargarria izan daiteke; ez, ordea, sexua aintzakotzat hartzen bada. Sexua kontuan harturik, goiko baieztapena erabat baieztaturik geratzen da kasu batean eta erdi gezurtaturik bestean. Izan ere, sexuaren arabera bi jokaera oso bestelakoak ageri zaizkigu: gizonen artean hitanoa nagusi dadin kidetasuna (58a.gald.) aski izaten bada ere (%87,8), ezin gauza bera esan emakumeei buruz, emakume lankideen artean *V-V* (%53,4) binakoa askoz gailentzen baita *T-T* (%27,2) aukeraren gainetik.

58A-IKASKIDE EDO LANKIDEARI:

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GUZTIZKOAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **T*** | **87** | **%87,8** | **24** | **%27,2** | **111** | **%59,3** |
| X* | 0 | %0 | 17 (%70,8) | %19,3 | 17 (%34) | %9 |
| V* | 12 | %12,1 | 47 | %53,4 | 59 | %31,5 |

T*=HIKA (TOKA, NOKA); X*=XUKA (ALOK.+-); V*=EZTABADAKA, ZUKA, BERORIKA.

Badirudi, beraz, adiskidetasuna ezinbestekoa dela emakumeen artean hitanoa nagusituko bada. Are gehiago, emakume adiskideen artean (70.gald.), gizonen artean ez bezala (T-T= %96,2), ez da hain segurua nokako tratamendua (%54,6) eta gainera mailaren edo adinaren aldea eragozpen nahikoa izan daiteke hitanoa V aukeraren atzean ostenduta gera dadin. Horrela, nagusi adiskidearekin (52.gald.), adibidez, hamar emakumetatik hiru soilik arituko lirateke hika (%30,2); eta adiskide zaharrago batekin (72a) V dirudi aukera nagusia (%58,4).

Noketaren izaera markatura itzuliz, azpimarkatu beharra dago kasu guztiotan emakumeak aiseago aritzen direla hika gizonekin, beren sexukideekin baino; hots, emakumeak berak ere —sexu-kidetasunari bizkar emanez edo— gehiago edo errazago aritzen dira toka, noka baino.

Gizonen artean, oro har, kidetasuna behar da norbaitekin hitanoka aritzeko. Hala ere, adinaren alde nabarmen soila, elkarren ezagutzarik gabe, arrazoi nahikoa izan daiteke goitik behera hitanoa (toka) gailen dadin; zazpi zortzi

urteko mutikoari zuzentzerakoan, adibidez (34.gald.), hiketa (%56,1) da aukerarik gertagarriena gizonen artean (*V* = %39,7). Emakumeek, ostera, *X* nahiz *V* (%91) hautatuko lukete neskatoari hitz egiteko; areago, mutiko ezezagunari ere *V* tratamendua (%55,4) emango liokete nagusiki, *T* aukeraren gainetik (%34,7). Bistan da zein den esandakoaren ondorioa: adinaren aldeak biziki gehiagotan eragiten ditu tratamenduzko asimetriak (toka-*V*) gizonen artean eta sexu desberdinekoen artean, emakumeen artean (noka-*V*) baino. Joera berbera ageri da gazte ezezagunarekin aritzean (64.gald.).

### 1.3. Gipuzkerazko hiztunen jokamoldea noketari buruz bestelakoa ote?

Gure inkestagintzan %34,3 lekukok noketarik sekula ez dutela erabiltzen kontuan harturik, galde diezaiokegu geure buruari ea zenbateraino diren egiazkoak noketa tratamenduaren erabilera markatuari buruzko orain arteko emaitza eta ondorioak. Alegia, pentsa genezake hartutako erakusgarri desorekatuak (denak «hikalari», baina bi herenak besterik ez —%65,7— «nokalari») nokako hizketaren irudi itxuragabetua eman digula; hots, pentsa genezake noketaren izaera markatuaren teoriak oro har balio dezakeela, baina agian ez gipuzkera bezalako euskalki batean, gipuzkerazko euskaldunek hobeki eutsi baitiote noketari. Izan ere, gure erakusgarriaren arabera (supra VII.2), euskalki guztietan gertatzen dira hutsune edo salbuespenak (B=%38,7; IGN=%15; L=%47,1; MBN=%38,5; EBN=%46; Z=%51,8) noketaren erabileran, gipuzkeran izan ezik. Gipuzkerazko lekuko guztiak noizbait noka aritzen diren horietakoak dira, hots, ez dago haien artean noketaz baliatzen ez den lekukorik.

Esanak esan, ez dirudi noketa erabiltzerakoan gipuzkerazko hiztunak gainerako euskaldunengandik funtsean aldentzen direnik. Inon baino maizago aritzen dira noka, baina hala eta guztiz ere, toketaren aldean noketak tratamendu markatua izaten jarraitzen du. Familiako kidekoen artean alde nabarmenegirik ez badago ere, goitik behera (seme-alaba, biloba, iloba eta suhi-errainekin) beherakada ohargarria nabari da toketatik noketara eta beste hainbeste esan daiteke familiaz kanpoko harremanez. Hortaz, goiko 1.1. eta 1.2. ataletan esandakoak erabat balio du gipuzkerazko hiztunentzat. Hona hemen, gipuzkerari dagozkion emaitza adierazgarri zenbait:

GIPUZKERA: TOKA/NOKA FAMILIAKO KIDEKOEN ARTEAN

| TOKA | | | NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| (12) | anaiak | %88,8 | %83,3 | ahizpak (13) |
| (19) | lehengusuak | %80 | %78,9 | lehengusinak (20) |
| (26) | koinatuak | **%91,3** | **%75** | koinatak (27) |

GIPUZKERA: TOKA/NOKA FAMILIAKO GAZTEAGOEKIN

| TOKA | | | NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| (4a) | (aitak) semeari: | %65,3 | %41,6 | (amak) alabari (7a) |
| (8a) | (aitonak) bilobari: | %66,6 | %30,7 | (amonak) bilobari (11a) |
| (15a) | (osabak) ilobari | %78,5 | %45,4 | (izebak) ilobari (18a) |
| (22a) | (aitak) suhiari | %39,1 | %8,3 | (amak) errainari (25a) |

GIPUZKERA: TOKA/NOKA FAMILIAZ KANPOKO HARREMANETAN

63A-EZEZAGUNARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 4/16 | %25 | %0 | — |

64A-EZEZAGUN GAZTEAGOARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 6/16 | %37,5 | %14,2 | 2/14 |

34/35- ZAZPI-ZORTZI URTEKO MUTIKO/NESKATO EZEZAGUN BATI:

| | MUTIKOARI= TOKA | | NESKATOARI= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 11/16 | %68,7 | %42,8 | 6/14 |

39-SEXU BEREKO LEHENGUSU EDO LEHENGUSIN EZEZAGUNARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 7/16 | %43,7 | %21,4 | 3/14 |

58A-IKASKIDE EDO LANKIDEARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 11/16 | %68,7 | %28,5 | 4/14 |

61A-LANKIDE GAZTEAGOARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 10/16 | **%62,5** | **%21,4** | 3/14 |

70A-LANKIDE ADISKIDEARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 15/16 | **%93,7** | **%78,5** | 11/14 |

52A-NAGUSI ADISKIDEARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 16/16 | **%100** | **%50** | 7/14 |

68A-NAGUSI GAZTEAGO ETA ADISKIDEARI:

| | GIZON.= TOKA | | EMAKUM.= NOKA | |
|---|---|---|---|---|
| T* | 12/16 | **%75** | **%57,1** | 8/14 |

### 1.4. Iritzia hitanoaren erabilera ausartei buruz sexuaren arabera

Bestalde, beheko tauletan ikus daitekeenez, badirudi euskal emakumeek oro har gizonek baino jarrera atzerakoiagoa dutela hitanoaren erabilera ausart eta berritzaileei buruz. Batetik, zorrotzagoak dira hitanoaren erabilera iraultzaile hipotetikoak (37.gald.) eta ez hain hipotetikoak (78.gald.) juzgatzerakoan; bestetik, kontuzago ibiltzen dira tratamenduz aldatzerakoan.

37-GAIZKI IRITZI SEME-ALABEK GURASOEI HIKA EGITEARI:

| | GIZON. 80 | | EMAKUM. 81 | | GUZTIZK. 161 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GAIZKI | 45 | **%56,2** | 56 | **%69,1** | 101 | %62,7 |
| EZ | 35 | %43,7 | 25 | %30,8 | 60 | %37,2 |
| EE | 30 | | 19 | | 49 | |

78-NOLA DERITZOZU ZURE ADINEKO EZEZAGUN BATEK HIKA EGITEN BADIZU?

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GUZTIZKOAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ONGI | 87 | %80,5 | 53 | %60,9 | 140 | %71,7 |
| EZ ONGI | 21 | %19,4 | 34 | %39 | 55 | %28,2 |

80-EZAGUTU BERRI BEGIKOAREKIN ZUKATIK HIKARA AZKAR LERRATUKO ZINATEKE?

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GUZTIZKOAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BAI | 68 | %62,9 | 40 | %41,2 | 108 | %52,6 |

Labur bilduz, gizonek ausartago eta emakumeek kontuzago jokatzen bide dute hitanoa hautatzerakoan. Emakumeek hitanoa adiskideen multzora, edo hobeto esateko, adiskide-multzo baten esparru txikira murrizten dutela ematen du, harreman jakin horietatik kanpo aukera segurutzat *V* dute eta.

### 1.5. Sexu-kidetasuna eta sexu-desberdintasuna

Orain arte toketa/noketa bereizketaren eta hartzailearen sexuaren garrantziaz aritu gara, noketaren erabilera markatuago edo murritzagoa behin eta berriro azpimarkatuz. Behin *T*-mota bien arteko aldea argituta, esan dezagun hiztunaren sexua kontuan hartzen bada, honako joera hau somatzen dela: oro har, sexu-kidetasunak elkarrekiko hitanoaren alde eragiten du eta alderantziz, sexuzko desberdintasunak *T*-ren erabilera gutxitzen du; hau da, oro har, gizonak emakumeak baino aiseago aritzen dira toka eta era berean emakumeak aiseago aritzen dira noka. Honako hau izaten da maiz joera edo hurrenkera, xukarekikoaren alderantzizkoa (supra VII. kapt.), hain zuzen ere:

| TOKA | | | NOKA | | |
|---|---|---|---|---|---|
| G --> G | > | E --> G | > | E ---> E | > | G ---> E |

G = GIZONA; E = EMAKUMEA.

Sexu-kidetasunak *T*-rako bidea errazten duela baieztatzean, ez dugu esan nahi sexu berekoekin aritzerakoan nahitaez sexu desberdinekoekin aritzerakoan baino *T* gehiago sortu behar denik; emakumeak, esate baterako, batez beste

aiseago aritzen dira hika gizon batekin (toka) emakume batekin (noka) baino. Hots, sexu-kidetasuna baino lehen, toketa/noketa oinarrizko bereizketa dago.

## 2. EMAITZAK ADINAREN ARABERA

Gure ikerketarako elkarrizketaturiko 210 lekukoak, adin-hurrenkeraren arabera lau multzo desberdinetan sailkatuta daude: 18 urtetik 30 urtera bitartekoak, 31tik 45era bitartekoak, 46tik 60ra bitartekoak eta 61 urtetik gorakoak. Adin-tarte horietako bakoitza izendatzeko «belaunaldi» terminoa erabiliko dugu, hitza zentzurik zabalenean hartuz. Gure 210 lekukoak, bada, honelaxe daude banatuta belaunaldika: 18-30 urte bitarteko 42 lekuko (%20), 31 urtetik 45 urtera bitarteko 50 lekuko (%23,8), 45-60 adin-tarteko 65 lekuko (%30,9) eta 61 urtetik gorako 53 lekuko (%25,2).

Atal honetan, bada, hitanoaren erabileran adinaren arabera izan daitezkeen desberdintasun nabariak jaso nahi dira. Horretarako, hikako emaitza esanguratsuak ehunekotan eskainiko ditugu belaunaldiz belaunaldi. Belaunaldi batetik bestera alde handi samarra dago lekuko-kopuruan eta horregatik gure portzentaiak ez dagozkio inkestaturiko populazio osoari, belaunaldi bakoitzari baizik; adibidez, 58. galderan, 18-30 urte bitartekoen zutabeko %51,2 portzentaiak adierazten du, ehuneko 51,2 gazte hika aritzen direla (sexu bereko) lankideekin.

1961ean Brown eta Gilman-ek aurreratutako hipotesien arabera, alde batetik, mendebaldeko hizkuntzetan tratamendu-asimetriatik (*T-V*) tratamendu berdintasunerantz (*T-T* nahiz *V-V*) ari dira aldatzen usario zaharrak eta, beste alde batetik, aurrerago doan bigarren joera bat ere ba omen da tratamendu-simetriazko bi aukeretatik (*T-T*/*V-V*) lagunartekoa (*T-T*) orokortzeko. Ikerketa askoren arabera gazte jendea izaten da «aurrerakoiena» tratamenduen arloan; horrela, aldameneko hizkuntzetan gazte jendea izan da eta da oraindik ere aipaturiko bi joera aurrerakoien bultzatzaile edo bizkortzaile nagusia. Azter dezagun euskararen kasuan zenbateraino betetzen den iragarpenek diotena, hots, zenbateraino den euskal gazteria aurrerakoia auzi honetan.

Hasteko aurreratu beharra daukagu gazteriak izaten omen duen joera aurrerakoiari buruzko hipotesia, erdizka baizik ez dela betetzen gazte euskaldunen artean.

Lehenengo eta behin, esan beharra dago gazteenak (18-30 urte bitartekoak) ez direla hikatzaileenak, ezta gutxiagorik ere. Familiaren esparruan, esaterako, belaunaldika joera orokor garbirik ez badago ere, gauza bat aurrera dezakegu: oro har, gehiago aritzen dira hika belaunaldi zaharragoak (31-45, 46-60, +61) gazteen belaunaldia (18-30 urte) baino. Hortaz, etxeko berdinen artean ezin esan daiteke gazteenek hitanorako isuri nabarmena dutenik. Familiaz kanpoko harremanetan ere, ez dirudi gazte-gazteek (18-30 urte bitartekoek) hiketarako joera berezia dutenik. Gainera, badirudi gazteek hitanoaren erabilera batez ere

adiskidetasunean oinarritzen dutela eta ez hainbeste kidetasunean. Horrela, gazteen belaunaldiak adiskideekin joera hikatzaileena duen bitartean, lankideekin, ostera, bitarteko belaunaldiek (30-45, 46-60) baino biziki gutxiago erabiltzen du hitanoa. Labur bilduz, gure artean oro har ez dira gazte-gazteak izaten hitanorako joera errotuena dutenak.

## JOKAERA HIKATZAILEA ADINAREN ARABERA (FAMILIATIK KANPO)

63-EZEZAGUNARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %17,5 | %24,4 | %9,5 | %8,1 | %14,3 |

58A-LANKIDEARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %51,2 | %69,7 | %65 | %48,8 | %59,3 |

70A-ADISKIDEARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %84,6 | %72 | %80,7 | %74,4 | %77,7 |

## JOKAERA HIKATZAILEA ADINAREN ARABERA FAMILIAKO BERDINEN ARTEAN

12-ANAIAK:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %78,3 | %91,4 | %93,4 | %94,1 | %90,3 |

13-AHIZPAK:

| | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %40,6 | %46,1 | %58,8 | %47,8 | %49,4 |

14A-ARREBARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %36,1 | %46,6 | %61,4 | %51 | %50,2 |

14B-NEBARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %48,6 | %71,7 | %72,4 | %89,3 | %72,3 |

19-LEHENGUSUAK:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %65,7 | %97,8 | %83,6 | %85 | %84,2 |

20-LEHENGUSINAK:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %25,7 | %30,9 | %43,1 | %23,4 | %31,4 |

21A-LEHENGUSUAK LEHENGUSINARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %25 | %25,5 | %36,3 | %21,7 | %27,7 |

21B-LEHENGUSINAK LEHENGUSUARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %37,5 | %61,9 | %50 | %52,1 | %51,4 |

26-KOINATUAK:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %82,8 | %91,6 | %78,9 | %84,4 | %84,3 |

27-KOINATAK:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %32,2 | %32,6 | %32,7 | %13 | %27,1 |

28A-KOINATUAK KOINATARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %27 | %23,4 | %25,8 | %12 | %21,8 |

28B-KOINATAK KOINATUARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %48,5 | %61,7 | %35,1 | %43,4 | %46,7 |

Bestalde, adina jaitsi ahala joera gutxiago bide dago jatorri desberdineko asimetriak tratamenduaren bidez kodetzeko. Alde horretatik, gazteriak jokaera «aurrerakoiagoa» duela esan daiteke, tratamendu-berdintasunerantz (*T-T* nahiz *V-V*) jotzen duelako.

34, 61 eta 72. galderetako emaitzek agerian uzten dute adinaren aldeak belaunaldiz belaunaldi jokatzen duen zeregin desberdina. Adinaren aldeak, oro har, asimetria gehiago (*T-V*) eragiten ditu zaharren artean gazteen artean baino; are gehiago, hurrengo joera nabari da asimetriari dagokionez: adinean beherantz joan ahala, belaunaldiz belaunaldi behera egiten du asimetriazko joerak; eta alderantziz, lekukoa zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta tratamendu-desoreka gehiago sortzen da adin desberdineko solaskideekin mintzatzean. Bestela esateko, tratamenduari begira adinaren aldeak pisu handiagoa bide du zaharren artean, gazteen artean baino.

## ADINAREN ALDEA ETA ASIMETRIAK BELAUNALDIZ BELAUNALDI

34-ZAZPI-ZORTZI URTEKO MUTIKO EZEZAGUNARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %31,5 | %43,1 | %50,8 | %52,9 | %45,7 |

61A-LANKIDE GAZTEAGOARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %45 | %63 | %60,3 | %58,3 | %57,2 |

61B-LANKIDE GAZTEAGOAK ZURI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %35,8 | %48,8 | %28 | %10,4 | %29,9 |

72A-ADISKIDE ZAHARRAGOARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %62,1 | %57,7 | %40,9 | %17 | %43,1 |

72B-BERAK ZURI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %72,9 | %68,7 | %68,3 | %44,8 | %63,4 |

Mailazko desberdintasunak ez du inongo belaunalditan eragiten tratamenduzko asimetriarik (52. gald.); hala ere, gazteenen belaunalditik (T=%75) zaharrenen belaunaldira (T=%36,7) alde izugarria dago hitanoaren erabileran. Oso hurrenkera adierazgarria somatzen da emaitzetan belaunaldiaren arabera, nagusi adiskidearekin hitanoak behera egiten baitu adinean gora joan ahala. Hots, adiskidetasuna gorabehera, zaharrentzat nagusiak «nagusi» izaten jarraitzen du eta, ondorioz, halakoetan mailazko desberdintasuna eragozpen larria izaten da elkarrekiko hitanoa nagusi dadin; gazteenek, ordea, ez bide diote hainbesteko garrantzirik ematen estatusari. Joera berbera nabari da nagusi adiskide gazteagoaren kasuan (68.gald.). Hemendik atera daitekeen ondorio orokorra lehengo ildoan kokatu behar delakoan gaude: mailazko desberdintasuna gutxiago kodetzen bide da gazte jendearen artean (edozein kasutan *V-V* simetrikoaz eta tratamenduzko asimetriarik sortu gabe, hala ere) eta alderantziz, zenbat eta zaharrago, orduan eta oztopo larriago bilakatzen da elkarrekiko hitanorako.

## MAILAZKO DESBERDINTASUNAREN ERAGINA BELAUNALDIZ BELAUNALDI

52A-NAGUSI ADISKIDEARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %75 | %68 | %56,4 | %36,7 | %57,7 |

52B-BERAK ZURI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %75 | %68 | %57,3 | %38,7 | %58,5 |

68A-NAGUSI ADISKIDE GAZTEAGOARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %80,6 | %61,2 | %50 | %44,6 | %56,7 |

Adinaren arabera, antzeko jokaera ageri zaigu sexu-desberdintasunaren aurrean (60, 71. gald.). Belaunaldien artean alde nabarmenegirik ez bada ere, oro har, esan daiteke gazteagoek jokaera hikatzaileagoa dutela beste sexukoekin aritzerakoan. Nolanahi ere, belaunaldiaren araberako aldea ez da sexuari buruzko ondorio orokorra aldarazteko modukoa: gazte nahiz zaharren artean, sexu-desberdintasuna eragozpen galanta izaten da elkarrekiko hitanoa gailentzeko.

60A-SEXU DESBERDINEKO LANKIDEARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %36,5 | %31,9 | %29,3 | %26,6 | %30,8 |

71A-SEXU DESBERDINEKO ADISKIDEARI:

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| T* | %56,7 | %46,8 | %43,1 | %48,8 | %48,1 |

Gauzak horrela, adinaren araberako jokamolde irekiago edo itxiagoa neurtzerakoan gutxienez bi alde bereizi behar direlakoan gaude: batetik, tratamenduzko asimetriarako joera neurtu behar da belaunaldiaren arabera; bestetik, ohitura edo jokaera hikatzaile orokorra neurtu behar da. Lehenengo alderdiari bagagozkio, egia izan daiteke euskal belaunaldi gazteak «aurrerakoiagoak» direla, desberdintasunak (adin, maila eta sexuzkoak) tratamenduaren bidez kodetzeko joera apalagoa dutelako. Joera hikatzaile orokorrari bagagozkio, badirudi gazteenen belaunaldia ez dela besteak bezain hikatzailea (familian edo lankideen esparruan, adibidez). Hots, euskal gazte jendea, agian, hiketazaleena izan daiteke, baina ez hikatzaileena. Horregatik, esan dugu hasieran euskal gazteriaren jokaera hitanoaren aurrean ez dela guztiz aurrerakoi edo iraultzailea.

Hain zuzen ere, gazteriaren jarrera hiketazalea 78, 79 eta 37. galderetan geratzen da baieztatuta. Hitanoarekiko jokaera ausartek (ezezagun, ezezagun zaharrago eta gurasoekin) oniritzi apalagoa dute lekuko zaharragoen artean eta kontrara, harrera hobea belaunaldi gazteagoen artean. Horrela, zaharrenek (%79,4k) gurasoekiko hitanoa garbiro gaitzesten duten bitartean, gazteenek ez bide diote hain gaitzesgarri irizten; adinarekin batera jarrerazko irekitasuna gainbehera doa guztiz balizkoa den erabilera iraultzaile horren aurrean.

Labur bilduz, oraingo emaitzak lehengo ondorio orokorrak sendotzera datozela uste dugu. Joera orokorra euskaraz *V-V* aukera simetrikoak tratamenduzko desberdintasunak (*T-V*) pixkanaka-pixkanaka alboratzea da; eta hain zuzen, simetriaranzko joera horren eragile eta akuilatzaile nagusia euskal gazteria dela erakusten digute oraingo emaitzek. Bestalde, oro har, ez dirudi inondik inora hitanoa zeinahi harremanetarako zabaltzeko bidean dagoenik; aitzitik, bat nagusitzekotan, bietatik V-k izango luke nagusitzeko probabilitaterik handiena. Alde batetik, gazte hikalariek ez bide dute adinekoek bezainbesteko joera hiketarako; beste alde batetik, gauza jakina eta frogatua da (besteak beste, ikus Alberdi, 1986b) adineko jendeak hobeki eutsi diola hiketari[2].

## IRITZIA ETA JARRERA ADINAREN ARABERA

### 78-EZEZAGUN BATEK HIKA EGITEN BADIZU... ZER DERITZOZU?

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| ONGI | %75 | %84,4 | %70,4 | %59,1 | %71,7 |
| GAIZKI/... | %25 | %15,5 | %29,5 | %40,8 | %28,2 |

[2] Geure tokian tokiko langintzako eskarmentua dugu galera horren frogarik agerikoena. Izan ere, inkestagintzan zehar hainbat herritan lanak izan genituen lekuko gazte hikalariak topatzeko eta zer esanik ez, are lan handiagoak neska gazte hikalariak topatzeko.

79-EZEZAGUN GAZTEAGO BATEK HIKA EGITEN BADIZU... ZER DERITZOZU?

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| ONGI | %62,5 | %65,9 | %38,3 | %20,4 | %45 |
| GAIZKI/... | %37,5 | %34 | %61,6 | %79,5 | %54,9 |

37-ZER DERITZOZU SEME-ALABAK BERE AITA-AMARI HIKA EGITEN BADIO?

| ADINA: | 18-30 | 31-45 | 46-60 | +60 | OROT. |
|---|---|---|---|---|---|
| GAIZKI | %46,8 | %59,5 | %62,5 | %79,4 | %62,7 |
| EZ GAIZ KI | %53,1 | %40,4 | %37,5 | %20,5 | %37,2 |

Ondorioz, etorkizunari begira, pentsatzekoa da hiketak erabilerazko eremuak eta hiztunak galtzen jarraituko duela.

## 3. HIPOTESIA KALETAR/BASERRITAR ALDAGAIARI BURUZ

Ikerketari buruzko xehetasunak ematerakoan azaldu dugun bezala, ikerketan kontrolatu zen aldagai kolektiboetako bat lekukoaren bizigiro edo jatorria izan zen; aldagai honen arabera, hiztunak bi multzotan sailkatu genituen: kaletarrak, alde batetik; eta baserritarrak edo baserri-girokoak, beste alde batetik.

Egia esateko, lortutako erakusgarrian kaletar/baserritar aldagaiaren inguruan zenbait eragozpen eta alderdi txar ikusten ditugula aitortu behar dugu. Hasteko, askotan ez da bat ere erraza hiztuna multzo bietariko batean sailkatzea; ondorioz, 210 lekukoetatik 32 (%15,2) sailkatu gabe gelditu dira. Jarraitzeko, puntu honetan nahikoa aldendu ginen aurretiazko erakusgarritik (lau kaletar eta baserritar bat herri bakoitzeko) eta, ondorioz, ez dago parekotasunik bi multzoetako populazioen artean: elkarrizketatuetarik 61 kaletarrak dira eta 117 baserritarrak. Bukatzeko, azkenik, batzuen eta besteen banaketa lurraldez lurralde ez da bat ere orekatua. Ondorengo taulan ikus daitekeenez (parentesi arteko portzentaiak), kaletarrak batez ere mendebaldeko euskalkietan pilatuta daude (B+G+IGN= %88,3) eta baserritarrak ekialdeko euskalkietan (MBN+EBN+Z= %58,1).

## LEKUKO KALETAR ETA BASERRITARREN BANAKETA EUSKALKIZ EUSKALKI

| | B 44 | G 30 | GN 27 | L 17 | MBN 13 | EBN 50 | Z 29 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KALE. 61 | 22 %50 (%36)* | 22 %73,3 (%36) | 10 %38,4 (%16,3) | 2 %11,7 (%3,2) | 2 %15,3 (%3,2) | 3 %6 (%4,9) | — |
| Base. 117 | 21 %47, (%17,9) | 5 %16,6 (%4,2) | 8 %30,7 (%6,8) | 15 %88,2 (%12,8) | 11 %84,6 (%9,4) | 44 %88 (%37,6) | 13 %44,8 (%11,1) |
| SG.32 | 1 | 3 | 9 | 0 | 0 | 3 | 16 |

B=BIZKAIERA; G=GIPUZKERA; GN=GOI-NAFARRERA; L=LAPURTERA; MBN=MENDEBALDEKO BEHE-NAFARRERA; EBN=EKIALDEKO BEHE-NAFARRERA; Z=ZUBERERA.
KALE.= KALETARRAK; BASE.= BASERRITARRAK; SG.= SAILKATUGABEAK.
*OHARRA: PARENTESI ARTEKO PORTZENTAIAK ZEHARRETARA IRAKURRI BEHAR DIRA.

Gauzak horrela, erakusgarri honetatik abiaturik, neurri handi batean kaletarren jokabidea mendebaldeko hiztunena izango da; eta alderantziz, baserritarrez ondorioztatzen dena eta iparraldeko hiztunez esandakoa ez dira elkarrengandik urrutiegi ibiliko. Hots, gure erakusgarrian kasu honetan aldagai kolektibo independiente bi ez dira hain independienteak, dialekto eta kaletar/baserritar aldagaiak nahiko bateratsu doazelako (mendebaldea = kaletarra; ekialdea =? baserritarra).

Hona hemen, hikako emaitzak (toketa eta noketa) familiaren esparruan. Jatorri/euskalki aldagaien arteko korrelazioaz ohartzeko, kaletar/baserritar aldagaiaren araberako emaitzen aldamenean, emaitza orokorrak eta euskalkikakoak eskaini ditugu.

## TOKETA FAMILIAN «KALETAR/BASERRITAR» ALDAGAIAREN ARABERA

### 4A-AITAK SEMEARI:

| KALET. | BASER. | OROK.* | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %49,1 | %71,1 | %66,1 %69,8 | %53,4 | %65,3 | %51,8 | %35,2 | %100 | %87,2 | %96,4 |

KALET.=KALETARRA; BASER.= BASERRITARRA; OROK.=OROKORRA.
*PORTZENTAIA OROKORRETAN, GOIKOA LEKUKO-KOPURU OSOAREN ARABERA (210 LEKUKO) ETA BEHEKOA LORTUTAKO ERANTZUNEN ARABERA KALKULATU DIRA. KONPARAKETARI BEGIRA, GOIKOAK DU LEHENTASUNA GAINERAKO ZUTABEETAKO PORTZENTAIEK GUZTIZKOEN ARABERA KALKULATU DIRELAKO.

6A-AMAK SEMEARI:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %31,1 | %65,8 | %58,5<br>%63 | %40,4 | %45,8 | %44 | %35,2 | %72,7 | %89,3 | %96,5 |

8A-AITONAK BILOBARI:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %42,6 | %64,1 | %59<br>%64,9 | %40,5 | %66,6 | %41,6 | %41,1 | %80 | %80,8 | %96,5 |

10A-AMONAK BILOBARI:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %27,8 | %49,5 | %46,1<br>%51 | %35,8 | %40,7 | %22,7 | %29,4 | %50 | %65,2 | %93,1 |

12A-ANAIAK:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %68,8 | %88,8 | %84,2<br>%90,3 | %73,6 | %88,8 | %92,5 | %88,2 | %100 | %95,6 | %100 |

14B-NEBARI:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %49,1 | %67,5 | %64,7<br>%72,3 | %48,6 | %76,9 | %69,2 | %52,9 | %80 | %79,5 | %100 |

15A-OSABAK ILOBARI:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %59 | %66,6 | %64,2<br>%70,3 | %60 | %78,5 | %47,8 | %37,5 | %72,7 | %80,8 | %96,2 |

17A-IZEBAK ILOBARI:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %31,1 | %52,9 | %48<br>%54,5 | %40 | %50 | %16,6 | %23,5 | %72,7 | %76,1 | %92,5 |

19A-LEHENGUSUAK:

| KALET. | BASER. | OROK. | B | G | GN | L | MBN | EBN | Z |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %65,5 | %75,2 | %73,8<br>%84,2 | %74,3 | %80 | %79,1 | %60 | %100 | %91,1 | %100 |

Esanak esan, eta gure erakusgarri desorekatuak puntu honetan sor dezakeen desbiderapena ezertarako ukatu gabe, uste dugu goiko emaitzen arabera, baserritarren eta baserri-girokoen jokaera hikatzaileagoaren —toketari dagokionez, bederen— aldeko hipotesia postula daitekeela. Nolanahi ere den, gure lagin eta emaitzak ez dira auzi hau erabakitzeko modukoak; izan ere, zalantza dugu hikako (tokako) emaitza garai hauek, baserritar gehienak (%58,1) eguzki aldeko euskalkietan hartu izanaren ondorio ez ote diren.

Zalantza hau argitzeko, bizkaierazko emaitzetara joko dugu. Euskalki horretan kopuru berdintsua hartzen dute kaletarrek (22=%50) eta baserritarrek (21=%47,7). Kopuru txikiegia (44 lekuko guztira) izanik ere, zenbait harremanetan oso garbi azaltzen da lehengo joera berbera: baserri-girokoen artean hikako joera handiagoa somatzen da gurasoen eta semearen artean eta anaien artean. Gainerako harremanetan ez dago halako joera garbirik, hala ere.

## BIZKAIERA: TOKETA «KALETAR/BASERRITAR» ALDAGAIAREN ARABERA

4A-AITAK SEMEARI:

| KALETARRAK 22 | BASERRITARRAK 21 | OROKORRA 210 |
|---|---|---|
| 10/22 %45,4 | 13/21 %61,9 | 139/210 %66,1 (%69,8) |

6A-AMAK SEMEARI:

| KALETARRAK 22 | BASERRITARRAK 21 | OROKORRA 210 |
|---|---|---|
| 5/22 %22,7 | 12/21 %57,1 | 123/210 %58,7 (%63) |

12-ANAIAK:

| KALETARRAK 22 | BASERRITARRAK 21 | OROKORRA 210 |
|---|---|---|
| 11/22 %50 | 16/21 %76 | 177/210 %84,2 (%90,3) |

Bestalde, noketari bagagozkio, berriz ere aitortu behar dugu lorturiko erakusgarria ez dela errepresentagarria. Izan ere, noketari hobekien eutsi dioten euskalkiek (G eta IGN) baserritar guztien %11 soilik osatzen dute; eta alderantziz, noketa galtzen ari diren ekialdeko euskalkiek (EBN eta Z) ia elkarrizketaturiko laborarien erdia (%48,7) osatzen dute.

Labur bilduz, ezin ukatuzkoa da, oro har, hitanoa —euskara bezalaxe— baserri-giroan hobeki gordetzen dela. Nolanahi ere, hitanoa biziago egoteak (hiztun gehiago izateak) ez du esan nahi baitaezpada erabilerazko eremu zabalagoa (testuinguru gehiago) izan behar duenik. Bigarren auziari dagokionez, lorturiko erakusgarriaren desorekagatik ezin dugu frogatutzat eman baserri-girokoen jokaera hikatzaileagoa. Dena den, gure emaitza mugatuegiak hipotesi horren alde mintzo direla uste dugu.

## 4. ONDORIOAK

1) Eztabada edo zukaren aldean hiketa tratamendu markatua dela diogun era berean, noketa ere toketaren aldean tratamendu markatutzat jo behar dela uste dugu. Hau da, hiketa biak —toketa eta noketa— lagunarteko tratamenduak izanik ere, ez dira zeharo parekoak, noketa «lagunartekoagoa» delako. Noketaren izaera markatua alde bitatik dator: hiztun gutxiago izatetik (euskaldun hikatzaileen %65,7) eta testuinguru gutxiagotan erabilia izatetik. Hortaz, toketa/noketa bereizketa ezinbesteko bihurtzen da euskal tratamenduen erabilera aztertzerakoan.

Korapilatsuagoa da noketaren gaurko izaera markatuaren arrazoiak eta jatorria argitzea. Noketak euskara guztietan izan duen galera edota erabilerazko eremu-galtzea, euskaldunok izan dugun emakumeenganako kortesiazko joera bortitzaren ondorio izan liteke, hots, kultura-sustrato bateratuaren ondorio. Bestalde, aurreko azalbidea ukatu gabe eta hipotesi gisa, noketaren izaera markatua antzinatik ez ote datorkeen pentsa genezake, toketa/noketa aurkakotasuna betidanik hartzailearen sexua adieraztekoa izan ez balitz (Lafon, 1957: 8-9).

2) Alde handia dago gizonetatik emakumeetara hitanoaren erabileran; horrela, gizon lankideen artean maizenik hitanoa gertatzen den bitartean (%87,8), hori ez da joera nagusia emakume lankideen artean (T=%27,2). Emakumeek, gizonek ez bezala, gehienetan adiskidetasunezko lotura behar

dute izan beren solaskidearekin hitanora jotzeko eta orduan ere hitanoaren erabilera ez da bat ere gauza segurua izaten (T=%54,6).

Gaineratu beharra dago, bestalde, emakume adiskideen artean mailazko edota adinezko desberdintasuna eragozpen larriak izaten direla hitanorako; horrelakoetan *V-V* aukera simetrikoa nagusitu ohi da *T-T* eta *T-V* aukeren gainetik. Gizonen artean, ostera, hitano simetrikoa gailentzen da nagusi adiskidearekin eta, asimetriak asimetria, baita adiskide zaharragoarekin ere.

3) Mailazko desberdintasunak ez du asimetriarik eragiten, ez gizonen artean, ezta emakumeen artean ere. Baina adinaren aldeak (mutiko eta neskato ezezagunaren kasuan, adibidez), noketaren izaera markatuagatik, askoz ere asimetria gehiago (*T-V*) eragiten ditu gizonen artean emakumeen artean baino.

4) Gipuzkerazko hiztunen artean ez dago hutsunerik noketaren erabileran, hots, gure lekukoen artean ez dago hika bai baina noka aritzen ez den lekukorik. Hala eta guztiz ere, noketak tratamendu markatua izaten jarraitzen du, toketak baino erabilera-esparru eta maiztasun murritzagoa duelako.

5) Lehenbizi hartzailearen sexuari begira egiten den bereizketa dugu, hots, toketa/noketa tratamenduen arteko aldea argitzen duen bereizketa. Behin noketaren erabilera murritzagoa agerian jarrita, hiztunaren sexua kontuan hartzen bada, honako joera hau somatzen da:

| TOKA | | | NOKA | | |
|---|---|---|---|---|---|
| G --> G | > | E --> G | > | E ---> E | > | G ---> E |

G = GIZONA; E = EMAKUMEA.

Oro har, sexu-kidetasunak elkarrekiko hitanoaren alde eragiten du eta alderantziz, sexuzko desberdintasunak *T*-ren erabilera gutxitzen du; bestela esateko, oro har, gizonak emakumeak baino aiseago aritzen dira toka eta era berean emakumeak aiseago aritzen dira noka. Sexu-kidetasunak *T*-rako bidea errazten duela baieztatzean, ez dugu esan nahi izan sexukideekin mintzatzerakoan nahitaez sexu desberdinekoekin mintzatzerakoan baino *T* gehiago sortu behar denik; emakumeak, esate baterako, batez beste gehiago aritzen dira hika gizon batekin (toka) emakume batekin (noka) baino. Hots, sexu-kidetasuna baino lehen, toketa/noketa oinarrizko bereizketa dago.

Egia baldin bada hika batez ere gizonei egiten zaiela eta gizonak direla hikatzaileenak, komeni da gogoraztea ekialdeko behe-nafarreraz alderantziz gertatzen dela xukarekin: xuka emaztekiei mintzatzen zaie gehien eta emaztekiak dira xukazaleenak.

6) Emakumeek jarrera eta iritzi itxiagoak agertzen dituzte hitanoaren erabilera ausart eta berritzaileei buruz (ezezagun edota gurasoekin hika aritzea

edo zukatik hiketara aldatzea) eta orain arte esan dugunaren arabera, oro har, kontuzago ibiltzen dira hitanoa hautatzerakoan. Labur esateko, emakumeek hitanoarekiko jarrera eta jokaera «gordetzaileagoa» dute.

7) Adinari dagokionez, ondoriorik interesgarriena gazteenen (18tik 30 urtera bitartekoak) jokaerari buruzkoa da. Izan ere, aldameneko hizkuntzetan *T-T*ren aldeko joera eta bilakaera gazteriaren eskutik eta eraginez gertatu baldin badira, ez dirudi euskal gazteria antzeko bilakabide baten bultzatzaile eraginkorra izan daitekeenik. Hitanoarekiko jokamolde irekiago edo itxiagoa neurtzerakoan gutxienez bi alde hartu behar dira kontuan: batetik, tratamenduzko asimetriarako joera neurtu behar da; bestetik, benetako ohitura edo jokaera hikatzailea neurtu behar da. Irizpide hauen arabera, gure arteko gazteenen (18-30 urte bitartekoak) «aurrerakoitasuna» tratamenduen arloan badaezpadakoa edo erdizkakoa baizik ez da. Lehenengo irizpideari lotzen bagatzaizkio, belaunaldi gazteek «aurrerakoiagoak» dirudite, desberdintasunak (adin, maila eta sexuzkoak) tratamenduaren bidez (*T-V*) kodetzeko joera apalagoa dutelako eta hikako erabilera ausart eta berritzaileak begi txarrez ikusten ez dituztelako. Benetan duten ohitura edo joera hikatzaileari bagagozkio, ordea, gazteenen belaunaldia ez da gainerakoak bezain hikatzailea. Hitz gutxirekin esateko, gazteenak hiketazaleenak izan daitezke agian, baina ez hikatzaileenak.

Labur bilduz, oraingo emaitzak lehengo ondorio orokorrak sendotzera datoz. Batetik, gaurko euskaran *T-V* aukera asimetrikoa galtzen uzteko joera garbia ageri da; eta hain zuzen, simetriaranzko joera horren eragile nagusia euskal gazteria dela erakusten digute oraingo emaitzek. Bestetik, bigarren urratsari dagokionez, hau da, *T-T* eta *V-V* aukera simetrikoetatik lehena nagusitzeko posibilitateari dagokionez, guztiz ezkor azaltzen gara euskararen kasuan, bai baitirudi euskaraz bat nagusitzekotan bigarrena nagusituko litzatekeela. Oraingo emaitzak *V-V* aukeraren alde mintzo dira: lehenik, gazteek adinekoek baino hiketarako joera apalagoa dutelako; bigarrenik, tokien arabera, adin jakin batetik beherako gazteen artean hiketa galtzen ari delako. Ondorioz, etorkizunari begira, pentsatzeko da hiketak erabilerazko eremuak eta hiztunak galtzen jarraituko duela.

8) Kaletar/baserritar aldagaiari dagokionez, ezin ukatuzkoa da, oro har, hitanoa —euskara bezalaxe— baserri-giroan hobeki gordetzen dela. Nolanahi ere, hitanoa biziago egoteak (hiztun gehiago izateak) ez du esan nahi baitaezpada erabilerazko eremu zabalagoa (testuinguru gehiago) izan behar duenik. Bigarren auziari dagokionez, lorturiko erakusgarriaren desorekagatik ezin dugu frogatutzat eman baserri-girokoen jokaera hikatzaileagoa. Dena den, gure emaitza mugatuegiak hipotesi horren alde mintzo direla uste dugu.

# X. TRATAMENDU-SISTEMAK ETA AZPISISTEMAK: MENDEBALDEA ETA EKIALDEA

## 1. SOLAS-MAILA (TRATAMENDUA) ETA ALOKUTIBOTASUNA

Oihartzabalek (1992) dioenez, «solas-maila» eta alokutibotasuna (bigarren pertsonako indizea adizkeran, nahiz eta bigarren pertsona hori, berez, aditzari dagozkion argumentuetariko bat ez izan, hots, nahiz eta perpauseko aktante edo parte hartzailea ez izan) bi gauza desberdin dira eta horregatik ez da komeni bi terminoak nahaste erabiltzea. Bere hitzez esateko «adizkera alokutiboa solas mailari lotua agertzen den arren, hartarik bereizi behar da». Hots, berez eta zentzu hertsian, «alokutiboa» ez da solaskideen arteko gizarte-lotura adierazten duen tratamendua, komunztadurazko gertakari gramatikal hutsa baizik. Hau da, lehenbizi tratamendu-hautaketa dago (*hi/xu/zu/berori*) eta gero, hautaketa honi loturik edo hautaketa honen ondorioz alokutibotasuna —pertsonazko komunztadura bitxia adizkeran— datorke edo ez, tratamendu, euskalki eta hizkeraren arabera. «Solas-maila» adigaia soziolinguistika edo pragmatikari lotua ageri zaigu eta hiztunen arteko harremanaren nolakotasunarekin (konfiantza, hurbiltasuna...) nahiz gizarte-loturarekin (nagusitasuna, mendekotasuna...) du zerikusia; «alokutibotasuna», aldiz, gramatikaren mailakoa da, formala, alegia. Bereizkuntza honen beharra azpimarkatzeko hurrengo argudioak ematen dizkigu Oihartzabalek: a) hitanoak, nonahi, nahitaez dakar itsatsita bezala aditz alokutiboa, beraz, hor solas-mailari begira garrantzitsuena izenordaina da eta ez alokutibotasuna, berau zerbait erantsia baita, izenordainaren ondorio, alegia; era berean, ekialdeko euskalki batzuetan gauza bera gertatzen da *xu* (EBN) eta *zu* (Z) izenordainekin, hauen erabilerak nahitaez aditz alokutiboarena dakarrelako; b) hikako solas-mailan (berdin ekialdeko xuka edo zukakoan) alokutiboekin batera adizkera ez-alokutiboak agertzen dira menpeko perpausetan eta adierazpenezkoak ez direnetan.

Solas-maila eta alokutibotasunaren arteko bereizkuntzaren beharra ukatu gabe, guk geuk uste dugu zenbaitetan alokutibotasuna (baia/eza:+/-) ezaugarri

pisudun bihur daitekeela solas-mailak elkarrengandik bereizteko. Azter dezagun auzia hurbilagotik.

Oihartzabal-ek dioenaren arabera, alokutibotasuna gorabehera, soziolinguistikoki edo pragmatikoki, bigarren pertsonako izenordain adina solas-maila dituzkegu euskaraz eta ez gehiago. Honako laurok, gehienez ere: *hi*-ka, *zu*-ka, *xu*-ka, *berori*-ka.

Ikuspegi linguistiko formal batetik, bi tasun edo aldagai kontuan izatea interesatzen zaigu. Bi tasunak hurrengoak dira: batetik, bigarren pertsonako izenordain eta adizkera (*hi haiz, zu zara, xu xira, berori/ori da*) eta bestetik, alokutibotasuna (+/-). Bi aldagaiok konbinatuz, teorian egungo euskaran solaskide bakarrari zuzentzeko izan litezkeen «mintzamolde» guztiak sortzen zaizkigu. Zortzi mintzamoldeok honakook ditugu:

I. TAULA

| II.perts. *IZAN* | | III.perts. *IZAN* | alok. (+/-) | MINTZAMOLDEA |
|---|---|---|---|---|
| 1. | hi haiz | hura da | (-) | —(?) |
| 2. | hi haiz | hura duk/n | (+) | hitanoa (tokanoka) |
| 3. | zu zara | hura da | (-) | eztabada |
| 4. | zu zara | hura duzu | (+) | zuka alok. |
| 5. | xu xira | hura da | (-) | xuketa= xuka ez alok. |
| 6. | xu xira | hura duxu | (+) | xuka alok. |
| 7. | berori da | hura da | (-) | beroriketa |
| 8. | berori da | *hura du | (+) | — |

Bistan denez, posibilitate guztiak ez dira gauzatu eta litezkeen zortzi mintzamoldeetatik sei baino ez dira mamitu euskal hizkeraren batean gaurko eguna arte: hitanoa edo tokanoka, eztabada, zuka alokutiboa, xuketa edo xuka ez-alokutiboa (Aezkoan eta Hazparnen, adibidez), xuka alokutiboa eta beroriketa. Goiko taulako lehen eta azken mintzamoldeen laukiak hutsik daude: beroriketa alokutiborik ez da sortu eta ez dugu uste, ezta salbuespen gisa ere, inongo testutan ageri denik[1]; hitano ez-alokutiboari (*hi haiz-hura da*) dagokionez, badira han-hemenka posibilitate horren ale bakan batzuk, besteak beste, Rebuschik (1984:500-501) aipatzen dituenak, Azkuek *Euskalerriaren Yakintza*n bildutako ipuin bateko esaldi bat (*Ongi da, ekarzkik*) eta *Auñamendiko Lorea*, zeinetan Domingo Agirrek (geroagoko *Garoa*-n ez bezala) tratamendu

[1] Gorago ikusitako P.J. Samper zaraitzuarraren (supra VI.2) tratamendu berria (*Zure Altezak etzu motivoric...*) ez da teorian espero genezakeen berorikako alokutiboa (**berori da-hura du*), beroriketa eta zuka batuz sorturiko tratamendu nahasia baizik.

«berri» hau barra-barra erabiltzen duen. Gure ustez, kontu honetan bi kasu desberdin bereizi beharra dago: gauza bat da, hikako hizketaldi batean zehar inoiz hiztunari eztabadakako (bigarren pertsonaren indizerik gabeko) adizkeraren bat edo beste itzurtzea (*lapsus* modura ulertu beharrekoa?); besterik da, *Auñamendiko Lorea*ren kasua, non sistematikoki *hi haiz-hura da* bide berrizaleari eusten zaion. Gu geu, gaude eleberri horretan D. Agirrek Azkueren aurreiritzi linguistikoari jarraitu ez ote dion (Alberdi, 1986a:184-185): alokutiboa, euskal aditzaren irregulartasun askoren eragilea eta nahasgarria datekeelako, begi onez ikusi ez eta horregatik, *hi*-ren aldeko jarrera hartu zuen, bai, baina bigarren pertsona argumentalari dagozkion adizkerak soilik onartuz (*hi haiz, hik dakik/n*...bai, baina hura etorri *duk/n, nik zeki(n)at* bezalako adizkera alokutiborik ez). *Auñamendiko Lorea* bere garaiko testuinguruan uler daitekeelakoan gaude: hizkuntza aldarazteko saio ugari egin zen mende-mugako garai eta giroaren barruan, XIX.aren bukaeran eta XX.aren hasieran[2], hain zuzen. Hortaz, gure ustetan ale bakan horri eta bere gisakoei ez litzaieke balio ereduzkorik eman behar, idazle zaharrenetatik hasita, euskal literatura-tradizio onenean nekez aurki daitekeelako hitano ez-alokutiboaren aldeko lekukotasunik eta euskal herri guztietako gure lekuko guzti-guztiek posibilitate hori zalantzarik gabe ukatu digutelako.

Alokutibotasunaren balio soziolinguistikoaz hitz egin ahal izateko, izenordain berberaren gainean eraikitako *solas-maila* alokutibo eta ez-alokutiboa aurrez aurre (hots, aurkakotasunean goiko taulako 1/2 edo 3/4 edo 5/6 edo 7/8) dituen euskalki-hizkerarik egon beharko luke. Horra hor, lehenbiziko galdera: ba ote da halako hizkerarik? Batetik, 1/2 eta 7/8 aurkakotasunak ezinezkoak dira, 2 eta 8 bezalakorik ez dagoelako. Bestetik, 5/6 aurkakotasuna ez da inongo euskalkitan gauzatzen: bata duenik bai (EBN), bestea duenik ere bai (Hazparne, Aezkera), baina ez biak dituenik. Hortaz, 3/4 aurkakotasuna duen euskalkia bilatu beharko genuke.

Demagun Zuberoako herri batzuetan bizirik daudela biak (zuka alokutiboa eta eztabada); galdera da ea zubererazko eztabada zinezko solas-maila edo tratamendutzat har dezakegun ala ez. Eztabada elizan, liburuetan, ahozko nahiz idatzizko literaturan, irratian eta hartzaile jakinik gabekoetan (soilik?) erabiltzen dela kontuan izanik, mintzamolde hau tratamendutzat barik, ez-tratamendutzat hartzera makurtuko ginateke. Hots, gure lekukoen arabera, ez dirudi eguneroko harreman pertsonaletan eztabadaz baliatzen direnik. Zubererarena, beraz, ez litzateke agian alokutibotasuna solas-mailari uztartuta aurkezteko arrazoi nahikoa.

EBNz, ordea, badira —gorago azaldu denez— zuka eta eztabada, zein bere zeregin pragmatiko bereziaz erabiltzen dituzten hiztunak. Halakoak jabetuta daude beren mintzamoldearen berezitasunaz eta ohartuki, eztabadara lerratzen

[2] Giro honetaz, besteak beste, ondokoak ikus daitezke: Villasante 1988 (39-53), Alberdi 1986a (177 eta hurr.), Alberdi 1989, Laka 1986a, Laka 1986b, Laka 1986c.

dira beste eskualdeetakoen mintzairara egokitzearren. Kanpokoekiko erabilera honek, markatua izanik ere, uste dugu justifika lezakeela solas-maila desberdinez hitz egitea.

Honetaz gain, bada (edo bazen), zuka alokutiboa eta eztabada sistematikoki gizarte-balio desberdinaz erabiltzen dituen beste euskalki bat: erronkariera. Euskalki honetan zukako tratamendu alokutiboa hitanoaren eta eztabadakako tratamenduaren bitartean kokaturik dago; bertan, eztabadaren erabilera ez da ekialdeko behe-nafarreraz bezala zerbait desohizko eta markatua, kortesia edo errespetu piska bat erakusteko solas-maila guztiz ohizko eta arrunta baizik. Artolak (1991: 251-252) azaltzen duenez, behetik hasita honako lau tratamendu edo solas-maila hauek daude erronkarieraz (Uztarrozekoan, behinik behin): a) anai-arreben arteko giroan mintzatzean hiketa (*xin zia*=«etorri zen»); b) konfiantza gutxiagoko jendearekin mintzatzean zuka alokutiboa (*xin zunien*); c) guraso, aitona-amona, apaizarekin... eztabada (*xin zen*); d) eta azkenik, Fidela Bernat berriemailearen hitzetan «a un mayor-mayor *xín zren òrren ekústra:* vinieron a verla a usted», hots, beroriketa.

Ikus daitekeenez, beroriketa errespetu handia agertzeko solas-maila markatua da; eztabada kortesiazkoa da eta hori mendebaldekoentzat izan daitekeen baino neurri handiagoan; zukako tratamendu alokutiboak, ekialdeko hizkera gehienetan ez bezala, lagunarteko hiketaren eta kortesiazko eztabadaren bitarteko zeregina betetzen du, Artolaren lekukoak ongi azaltzen duenez «*xin zuntién*...es a una como yo, y... a otra que es algo más que yo pero es así; ya ni es de *usted* ni es de *tú*, más que... ya otro hablar». Azkue ere iritzi horretakoa da erronkariera ikertzerakoan (Azkue, 1931:241); berak dioenez, zukako solas-maila «familiar» da baina eztabadaren kortesiaz kutsatua («*nuzu* es familiar, mezclado de cortesía, de *naz*»)[3]. Eta Aita K. Izagirreren azalpena ere —zuka eta eztabada bereizi ez arren— zentzu berean ulertu behar delakoan gaude:

> «*Yi* eta *zu* erderazko *tú*-ren ordez ematen dituzte erri auetan. "Nosotros tenemos dos *tú*" esaten zuten. Onegatik *zuk erran tzu ta yik erran duk* biak berdin erderatzen ditut, berak bezela: "tú lo has dicho". Baiña bien artean aldea badago: zu kanpoko berdinsamar batekin, lengusu batekin edo, erabiltzen omen dute».
>
> (Izagirre, 1959:280)

Gauzak horrela, erronkarieraz garbiro eta ekialdeko behe-nafarreraz izaera markatuaz, berez solas-maila bakarra zenaren —*zu*-kako tratamenduaren— bikoiztea ageri zaigu alokutibotasunaren arabera. Kasu biotan, gainera, alokutiboari «beheko maila» eta ez-alokutiboari «goiko maila» eratxiki zaio eta ez

[3] K. Artolari gehiegi iruditzen zaio erronkarierazko zuka alokutiboari «familiar» deitzea; dena den, mintzamolde honek lagunarteko eta kortesiazkoaren bitarteko papera jokatzen duen heinean eta, beraz, bietatik zerbait duen heinean, ez da erraza izendapen egokia bilatzea tratamenduen sailkapenerako ohizko deituren artean.

alderantziz. Joera horrelakoa dela ikusita, alokutibotasunari halako hurbiltasun-edo lagunartekotasun-kutsua datxekiola, edo behinik behin, halako konnotazioak erantsi zaizkiola pentsa daiteke (Rebuschi, 1984: 516, 539). Joera hau guztiz logikoa da eta bat dator teoria linguistikoaren aurrikuspenekin: bigarren pertsonaren indizeak edo komunztadurak aditzetan hiztunen arteko hurbiltasuna azpimarkatzen du behin eta berriz. Bestalde, «*zu zara-hura da*» mintzamoldea elkarrizketan erabiltzen ez duten hizkeretan (zubereraz, esaterako) zentzu hertsian nekez esan dezakegu tratamendu edo solas-maila hori daukatela; halakoetan badago eztabadakako aditza, baina ez eztabadakako benetako solas-mailarik edo tratamendurik. Halako hizkeretan zukako alokutiboa elkarrizketako mintzamoldea den bitartean, eztabadak batez ere goiko zereginak betetzen ditu, hots, elkarrizketaz landakoak (irratian, elizan, literaturan eta hizkuntza idatzian oro har) edo «ez-tratamenduarenak»; hots, erabilera goitar-jasook ere eztabada goiko solas-mailatzat hartzearen alde eragiten dute gure ustez.

Hain zuzen ere, alokutiboaren izaera elkarrizketatuari zor zaizkio gure artean hainbestetan gertatu diren terminologiazko eta taxonomiazko nahasteak. Bonapartek, esaterako, zukako alokutiboari «respectueux» deritzo eta eztabadakakoari «indéfini»; Azkuek bere *Morfología Vasca* (§ 836, § 837) idatzi zuenean besterik uste zuen: «Entre vascos orientales, que no conocen esas mercedes [mendebaldeko beroriketaz], es más respetuoso decir *gu xinen gira* "nosotros vendremos", que *gu xinen gituzu* "nosotros vendremos". Lo último, más que respeto, indica confianza, cariño, familiaridad.» Dena den, uste dugu auzi honen gakoa euskalki-mailako tratamenduen taxonomia desberdinean dagokeela: Azkuek arrazoi du erronkariera bezalako euskalki bati bagagozkio eta Bonapartek beste hainbeste Zubereraz ari bagara. Horregatik dio Bonapartek,

> «Le traitement en *zu*, lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'est, pour ainsi dire, respectueux quant au sens, qu'en souletin.»

Segituan eztabadakako mintzamoldea zukakoa baino goragoko solas-mailatzat, errespetuzkoagotzat duten erronkariera eta Mugerre[4] eta Hiriburuko kasuak aipatuz:

> «A Mougerre, et surtout à Saint-Pierre-d'Irube, localités appartenant au sous-dialecte bas-navarrais oriental du Labourd, on se sert de l'indéfini quand on parle en genéral, *et moins souvent du respectueux que de l'indéfini lorsque on s'adresse à un superieur.* En roncalais, le traitement en *zu* s'emploie entre égaux, tandis que *l'indéfini y est en usage, non seulement quand on parle en général, ainsi que cela a lieu en souletin, mais aussi d'inférieur à superieur.*»

[4] Aitortu beharra daukagu gure Mugerreko lekukoek ez dutela eztabada zukakoa baino errespetu handiagoko solas-maila berezitzat hartzen. Bertan, adinaren arabera, mintzamolde bata (eztabada gazteek) edo bestea (zuka adinekoek) erabiltzen dute errespetu bera adierazteko.

Hortaz, Bonapartek ekialdeko tratamenduez diharduela zubererazko erabileraz dioena, alegia, zuka alokutiboak errespetuzko balioa euskalki honetan soilik duelakoa, Erronkariko kasuari kontrajarriz ulertu beharra dago; zentzu honetan, zuberera eta EBN oro har bat datoz, EBNzko zuka alokutiboa Zuberoakoa bezain errespetuzkoa edo errespetuzkoagoa (Gamarten edo Ostibarren, esaterako) delako.

Ondorio gisa honako hau esango dugu: Oihartzabalekin batean alokutibotasuna funtsean gertakari gramatikal edo formala dela eta besterik gabe solasmailatzat hartzerik ez dagoela onartuta ere, uste dugu hizkera batzuetan (erronkarieraz eta EBNzko eskualde batzuetan) ezaugarri gramatikal honen agerpena edo agerpenik eza bereizgarri edo pisudun izan daitekeela solasmaila edo gizarte-tratamendu desberdinak (*zu*-kako tratamendu alokutiboa/ *zu*-kako ez-alokutiboa = eztabada) elkarrengandik bereizteko. Ondorioz, solasmaila edo tratamenduen berri ematerakoan kontuan hartu beharreko ezaugarria dela deritzogu.

## 2. TRATAMENDU-SISTEMAK: TIPOAK REBUSCHI-REN (1984) ARABERA

Rebuschik (1984:531) tratamendu-sistema desberdinen berri eta haien arteko parekotasunen berri («ce n'est qu'une construction abstraite, qui permet simplement d'établir des correspondances interdialectales objectives, utiles par exemple à la traduction ou à la adaptation d'un locuteur à un nouveau milieu géographique et humain», ibid.535) eman nahi duen ondoko taula proposatzen du (era egokituan aurkezten dugu, lehenbizi tratamenduak eta ondoren «tipoak» edo tipologia):

II. TAULA

TRATAMENDUAK

| *IZAN* | 2.perts. IZAN | 3.perts. |
|---|---|---|
| TOKANOKA | *hi haiz* | *hura duk/n* |
| ZUKA | *zu zara* | *hura duzu* |
| XUKA | *xu xira* | *hura duxu* |
| EZTABAD. | *zu zara* | *hura da* |
| BERORIKA | *berori da* | *hura da* |

«TIPOAK» (Rebuschi, 1984)

| «TIPOA»==> | «A» Lap. | «B» B-G | «C» BN | «D» Zub. |
|---|---|---|---|---|
| 1 TOKANOKA | lagrt. | lagrt. | lagrt. | lagrt. |
| 2 ZUKA/XUKA | — | — | kortes. | kortes. |
| 3 EZTABADAKA | kortes. | kortes. | urrunt. | — |
| 4 BERORIKA | — | erresp. | — | — |

Lap.= lapurtera; B-G = bizkaiera-gipuzkera; BN = behe-nafarrera; Zub.= zuberera. lagrt.= lagunartekoa; kortes.= kortesia; urrunt.= urruntasuna; erresp.= errespetua.

Rebuschik taula honen bidez eman nahi duena ez da euskalkiz euskalkiko jokamolde guztien deskribapen zehatz-zehatza, dialektozko posibilitate abstraktu nagusienen irudikapena baizik; hau da, «tipo» edo sistema desberdinak zeintzuk diren argitu nahi du goiko irudiaren bidez. «A» tipoaren ordezkaritzat lapurtera jartzen du, «B» tipoaren erakusgarri bizkaiera-gipuzkera ematen ditu, behe-nafarrera litzateke «C» tipoaren eredua eta —Lafonek utzitako informazioaren arabera— Santa-Grazikoaren moduko zuberera «D» tipoarena. Rebuschik dioenez euskalki, azpieuskalki eta hizkera guztiak goiko lau tipo nagusietara («A», «B», «C», «D») bil daitezke: bizkaiera-, gipuzkera- eta goi-nafarrera-mota batzuetan, lapurteraz bezala, «A» tipoaren arabera jokatzen da beroriketa galdu delako; Santa-Grazikoa ez bezalako zubererak, hots, eztabada ere badutenak, «C» eredura bil litezke behe-nafarrerarekin batean; eta, azkenik, beroriketa duten goi-nafarrerak «B» tipora biltzen dira.

Ikus daitekeenez, goiko taulako tipo edo sistema konplexuenak («B» eta «C») gehienez ere hiru solas-maila edo tratamendu besterik ez ditu. Zuka eta xuka alokutiboak batera inongo euskalkitan (behe-nafarreraz oro har) gertatzen ez direlako hipotesian oinarrituta, biak maila berean jartzen ditu: bata edo bestea gerta daiteke, baina ez biak batera; ondorioz, zukari nahiz xukari maila berbera legokioke, hots, bitarteko maila kortesiazkoa. Honaino Rebuschiren proposamena.

Orain, euskalki eta hizkera guztiak kontuan izanik, ikus dezagun gure inkestagintza eta informazioaren arabera kontuan hartu beharreko datu guztiak hizkeraz hizkera (ikus beheko III. taula).

## III. TAULA

## GURE INKESTAGINTZAREN EMAITZAK: TRATAMENDUAK HIZKERAZ HIZKERA

| «Tratamenduak» | 2.perts. *IZAN* | 3.perts. *IZAN* |
|---|---|---|
| 1 TOKA<br>2 NOKA | *hi haiz*<br>*hi haiz* | *hura duk*<br>*hura dun* |
| 3 EZTABADAKA | *Zu zara* | *hura da* |
| 4 BERORIKA | *berori da* | *hura da* |
| 5 ZUKA | *zu zara* | *hura duzu* |
| 6 XUKA | *xu xira* | *hura duxu* |
| 7 XUKA EZ-ALOK. | *xu xira* | *hura da* |

B, G, IGN, HGN: _____ 1/2 < 3 < 4

| | |
|---|---|
| 1-2: HITANOA (1.TOKA/2.NOKA): | *hi haiz-hura duk/n* |
| 3 EZTABADAKA: | *zu zara-hura da* |
| 4 BERORIKETA (galtzear): | *berori da-hura da* |

L, MBN: _____ 1/2 < 3

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA (1.TOKA / 2. NOKA): | *hi haiz-hura duk/n* |
| 3 EZTABADA (neutroa): | *zu zara-hura da* |

MBN-Hazparne _____ 1/2 < 7 < 3

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA: | *hi haiz-hura duk/n* |
| 7 XUKA EZ-ALOKUTIBOA: | *xu xira-hura da* |
| 3 EZTABADA: | *zu zira-hura da* |

Aezkera _____ 1/2 < 7 < 3 < 4 (galdua gaur egun)

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA: | *hi haiz-hura duk/n* |
| 7 XUKA EZ-ALOKUTIBOA: | *xu xira-hura da* |
| 3 EZTABADA: | *zu zira-hura da* |
| 4 BERORIKETA*: | *ori da-hura da* |

* Gaur egun galdua.

EBN-1: Arberoa (Irisarri, Heleta, Aiherra...); EBN-2: Donibane-Garazi ingurua (Uharte-Garazi, Aizpura... +MBN: Lasa, Arnegi, Luzaide).

EBN-1/2: _____ 1/2 < 6 < 3

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA: | *hi haiz-hura duk/n* |
| 6 XUKA ALOKUTIBOA: | *xu xira-hura duxu* |
| 3 EZTABADA: | *zu zira-hura da* |

EBN-3: Garaziko eskualdearen iparraldea (Gamarte...), Ostibarre (Donaixti Ibarre...); EBN-4: Lapurdiko EBN (Beskoitze, Mugerre, Urketa ...), Bardoze eta Zuberoako Aiñharbe.

EBN-3/4: _____ 1/2 < 6 < 5 < (3)

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA: | *hi haiz-hura duk/n* |
| 6 XUKA ALOKUTIBOA: | *xu xira-hura duxu* |
| 5 ZUKA ALOKUTIBOA: | *zu zira-hura duzu* |
| (3 EZTABADA: | *zu zira-hura da)* |

ZUBERERA, + EBN-Amikuze* _____ 1/2 < 5

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA: | *hi haiz-hura duk/n* |
| 5 ZUKA ALOKUTIBOA: | *zu zira-hura düzü* |

*Amikuzeko xuka tratamendu markatua (haurrekikoa) alde batera utziz.

ZARAITZUERA _____ 1/2 < 6 < 5 < 4? < (3)

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA: | *hi haiz-hura duk/n* |
| 6 XUKA ALOKUTIBOA: | *xu xira-hura duxu* |
| 5 ZUKA ALOKUTIBOA: | *zu zira-hura duzu* |
| 4 BERORIKETA?: | *ori da-hura da ?* |
| (3 EZTABADA: | *zu zira-hura da)* |

ERRONKARIERA _____ 1/2 < 5 < 3 < 4

| | |
|---|---|
| 1-2 HITANOA: | *hi haiz-hura duk/n* |
| 5 ZUKA ALOKUTIBOA: | *zu zara-hura duzu* |
| 3 EZTABADA: | *zu zara-hura da* |
| 4 BERORIKETA: | *ori da-hura da* |

Rebuschi-ren «A», «B» eta «D» tipoak bat datoz gure datuekin eta ez dugu ikusten, oro har, inolako eragozpenik hirurak bere horretan onartzeko. Ez dugu uste, hala ere, «C» tipoko zubererarik dagoenik, gure lekukoen arabera ezpaita elkarrizketa-tankerako jardunetan (eliza, irrati, literatura eta halako salbuespenak alde batera utzita) *zu zira-hura da* gisako tratamendu edo solas-mailarik. Honekin ez dugu esan nahi eztabadakako aditza ager ezin daitekeenik, jende-saldoari zuzentzerakoan, esaterako; baina azken hau ez da aski hirugarren tratamendu edo solas-maila batez hitz egin ahal izateko, halakoetan eztabadakako aditza, pluralean euskalki guztietan gertatzen den tratamenduen neutralizazioari zor zaiolako (singularreko *hi/zu/xu* hirukoteari *zuek*bakarra dagokio pluralean).

Hirugarren tipoa («C»), ordea, ez zaigu egokiegia iruditzen EBN osoaren berri emateko. Ekialdeko behe-nafarreran errealitate guztiz nahasia aurkitzen dugu tratamenduen erabileraz bezanbatean. Nahasmena, noski, ez dago hainbeste tokian-tokiko usario berezi bakoitzean, usario-aniztasunean eta honen azpian batasuna bilatzeko ahaleginean baizik. Euskalki-mailako egoeraz egin daitezkeen baieztapen gehienek orokorregiak izateko arriskua dute, esan nahi baita tokian tokiko erabileratik urrun gelditzeko arriskua dutela. Xehetasunetara joz gero, eskualde bakoitzak eta are herri bakoitzak ere bere berezitasunak dituela jabetzen gara. Areago, tokian tokiko errealitate berezi hori ez da egonkorra inola ere, biziki aldakorra baizik. Horrela, herri berekoak izanik ere, hiztun edo berriemaileen arabera desberdintasun garrantzitsuak atzeman daitezke. Oro

har, tratamendu aniztasun handia bakuntzeko joera somatzen da gazteriaren artean.

Teorian euskalki honetan beste inongo euskara bizitan baino tratamendu gehiago metatzen dira hiztunaren eskura, tratamendu-hautaketa kanpotarrari ilun eta nahasi samarra irudituz. Izan ere, ekialdeko behe-nafarreran toketa/noketa eta eztabadaz gain, badira, izan, bi tratamendu gehiago, xuka eta zuka alokutiboak, hain zuzen. Hortaz, teorian lau tratamendu lituzke aukeran ekialdeko baxenabartarrak eta aniztasun hori korapilatua begitantzen zaio kanpoko euskaldunari. «Teorian» esan dugu behin eta berriz, zeren izatez tratamendu-andana hori (toketa/noketa, eztabada, zuka eta xuka tratamenduez osatua, alegia) ez da ekialdeko behe-nafarreraz mintzatzen den eskualde edo hizkera guztietakoa, ezta sistema laukoitza erabiltzen den herrietako hiztun guztiena ere. Tratamendu-sorta laukoitz hori aukeran duten eskualdeen aldamenean, badira zukarik gabeko (Donibane Garazi eta inguruak: toka/noka, eztabadaka eta xuka) edo xukarik gabeko sistemen jabe direnak (Amikuze: toka/noka eta zuka) eta baita xukak noketa ordezkatu duen edo ordezkatzeko bidean dagoen sistema hirukoitzaren jabe direnak ere (Garaziko eskualdean herri asko eta Arberoan hiztun ugari: toka/~~noka,~~ xuka eta eztabadaka). Hortaz, eskualde eta herriaren arabera, bi, hiru eta are lau solas-mailako sistemak aurki daitezke ekialdeko Nafarroa Beherean gaindi, hizkuntza-ekonomiagatik eremu eta jendarte gero eta zabalagoetan tratamendu-sistema gero eta bakunagoak hedatzen ari direlarik.

Hortaz, «C» tipoa ez zaigu iruditzen zuzena zenbait arrazoirengatik: lehenik, EBN batzuetan (Ostibarre, Gamarte, Bardoze, Beskoitze, Mugerre, Urketa...) egin, egiten den zuka (+alok.)/xuka (+alok.) bereizketa edo aurkakotasuna jasotzen ez duelako eta ondorioz, EBNri sistema laukoitzaren posibilitatea ukatzen diolako; bigarrenik, euskalki honetako eztabadari omen dagozkion tokia eta zeregina («urruntasuna») zehazki zein izan daitezkeen argi ikusten ez delako; hirugarrenik, «hitanoa < zuka < eztabada» tratamendu-mailaketa hirukoitza garbiro EBNzko inongo hizkeratan agertzen ez delako. Azter ditzagun korapilatuak diren puntuok.

Guk EBN-3 eta EBN-4 deiturikoetan, hiketa, xuka eta zuka dira solas-maila nagusiak eta hiru hauei eztabadaren posibilitatea gaineratu behar zaie kanpotarrekiko harremanen kasurako besterik ez bada ere, salbuespen gisa beraz, eta horregatik, bere izaera markatua adierazteko, parentesi artean sartua. Rebuschi-k EBNrentzat hipotesi gisa aurkezten duen sistema laukoitzaren aukera (1984:541-542), ez da balizko zerbait, errealitate hutsa baizik, hori bai, eskualde, herri eta hiztun batzuen esparrura mugatua. Halako hizkera batean joera mimetikoa da eztabadaren zergatia eta bere zeregina guztiz berezia. Onar daiteke ezohizko tratamendu hau hiztunen arteko «urruntasuna» edo «haustura» adieraztekoa dela? Agian, bai, baina «mintzaira edo euskalkizko urruntasunaren» zentzuan edo hermetismo linguistikoaren zentzuan bakarrik: hiztuna jakitun dago bere mintzaira bitxi gertatuko zaiola arrotzari eta horregatik bestearen

mintzamolde neutrora jotzen du berea ezkutatuz. Azken hau eztabadaren atzean ezkutatzen den «urruntasun» berezi-berezia dugu, aski ezohizko eta markatua, Arberoakoarekin eta Garazikoarekin, hots, kortesia edota errespetuarekin zerikusirik ez duena. Joera mimetiko hau zubereraz ere badagoela baieztatuko balitz, zubererarentzat ere sistema hirukoitzaren posibilitatea onartu beharko genuke ohizko hiketa eta zuka alokutiboez osaturiko sistema bikoitzaren parean.

Eztabadakako solas-mailaren zeregina guztiz bestelakoa da Arberoako herrietan, eskualde honetan kortesia eta sexuari lotua baitago: emazteak senarrari (batzuetan baita alderantziz ere), aitari (semeak batik bat), aitonari, osabari, izebari (mutilak), aitagin-amaginarreba eta suhi errainen artean, koinatuari (koinatak), nagusiari, irakasleari, emakumeak gizonari oro har (lankideari eta are adiskideari ere), ezezagunari, gizon gazteak zaharragoari... Gizonari hiketa eta eztabada tratamenduak ematen zaizkio, baina nekez xukarik. Eta alderantziz, xuka gehienbat emakumeari zuzentzen zaio: erruz, beraz, xuka simetrikoa emakumeen artean; eta ugari xuka/eztabada edo xuka/toketa asimetriak sexu desberdinekoen artean, baldin eta emakumea guztiz ezezaguna eta askoz zaharragoa ez bada; emakume ezezagunen artean ere daitekeena da eztabada agertzea.

Ageri denez, hizkera honetan eztabada bi gauzaren seinale izan daiteke: gizonari zuzentzerakoan, konfiantzarik ezaren edo mendekotasunaren seinale; eta emakumeari zuzentzerakoan, batez ere konfiantzarik ezaren seinale, adinezko asimetria askoz ere gutxiago kodetzen delako (nahiz eta adin-desberdintasun handia izan, xuka simetrikoa gailentzen da emakume ezagunen artean, familian, esaterako). Gauzak horrela, Arberoako hizkerari bagagozkio, ez dugu uste errealitatea eta Rebuschiren «C» tipoa bat datozenik. Alde batetik, hizkera honetako eztabada eta mendebaldekoa (Rebuschiren «A» edo «B» tipoetakoa) pragmatikaren ikuspegitik nahiko parekoak eta, ondorioz, biak «kortesiazkotzat» har daitezkeela deritzogu. Beste alde batetik, EBN-klase honetan xukak noketaren espazioa bereganatu duela kontuan harturik, gure ustez ez dihoazkio oso ongi «kortesiazkoa» deitura eta sailkapena: xuka bitarteko tratamendua da, goiko («kortesia») eta beheko (lagunartekoa) funtzioak betetzen dituena.

Donibane-Garazi inguruan Arberoan bezalatsu banatuta daude tratamenduak: toketa/noketa (azken hau galduz doa), xuka eta eztabada. Baina hizkera honetan xukak eremu are zabalagoa bereganatuta dauka eta ondorioz eztabadak zeregin murritzagoa du, hau da, Arberoan baino bakanago azaltzen da, markatuagoa da eztabada. Familiaren esparruan ez dago eztabadarik, hiketa (toketa batik bat) eta xuka besterik ez baita eta —Arberoan ez bezala— xuka da tratamendu ohizkoa senide nagusi gizonei zuzentzeko: aitari, osabari, aitonari... Are gehiago, familiatik kanpo ere —Arbelan ez bezala— emakumeak xuka egin diezaioke bere adineko gizonari eta gizonak eurak ere elkar ezagutu ezean xuka arituko dira elkarrekin, orobat, gizon bat bere adiskide biziki zaharragoari ere xuka mintzatzen zaio. Beraz, eztabada batez ere kasu berezi

batzuetan eta egoera formaletan ager daiteke, hala nola, langilearen eta nagusiaren artean, guraso eta irakasleen artean, guztiz ezezagunen artean, etxekoandrearen eta neskamearen artean, Jainkoarekin... Donibane-Garazi inguruko hizkeran xuka benetako tratamendu kortesiazkoa da eta eztabada tratamendu markatua, ezohizkoa, «errespetua edo urruntasuna» adieraztekoa.

Beraz, labur bilduz, esan dezakegu tratamenduari begira EBNren barruan gutxienez honako lau eskualde eta hizkera desberdin hauek bereizi behar direla:

a) Amikuze eskualdeko hizkera (Ostibarre kenduta),
b) Arberoakoa,
c) 1. Batetik, Donibane-Garazi ingurukoa (zukarik gabea).
   2. Eta bestetik, Garazi eskualdearen iparraldekoa (Gamarte...) eta Ostibarrekoa (zukaduna).
d) Lapurdiko EBN (Mugerre, Beskoitze, Urketa) eta Bardoze.

Amikuzen (a) ez dago hitano eta zuka alokutibo besterik (Rebuschiren «D» tipoa, beraz). Arberoan (b) toketa/noketa (azken hau atzeraka xukaren erasoaldiaren ondorioz), xuka eta eztabada bereizten dira, eztabada kortesiazkoa eta xuka erdi lagunartekoa erdi kortesiazkoa direla. Donibane-Garazi inguruan (c1), orobat, toka/noka (azken hau galtzeko zorian, xukaren erasopean), xuka eta eztabada bereizten dira, baina xuka hemen, aurrekoan ez bezala, tratamendu kortesiazko ia-ia neutroa dugun bitartean, eztabada «errespetua» adieraztekoa, ezohizko eta markatua da; Garaziko gainerako herrietan (c2) xukak eremu berdintsua du, baina eztabadaren ordez zuka erabiltzen da errespetuzko tratamendu gisa. Azkenik (d), xuka/zuka aurkakotasuna duten Lapurdiko EBNzko herrietan eta Bardozen, funtsean Arberoakoen antzera aritzen dira, baina eztabadaren lekuan zuka alokutiboaz baliatzen direla kortesia adierazteko. Aipatutakoez gainera, «c2» eta «d» eremuetan eztabadakako laugarren tratamendu bat ere badute eskura kanpotarrekiko harremanetarako.

Rebuschiren «C» tipoko eztabadari dagokion «urruntasuna» zein eratakoa da edo zein zentzutan ulertu behar da? Urruntasun linguistikoaren zentzuan («c2», «d»...)? Kortesiaren zentzuan Arberoan bezala (b)? Errespetuzko urruntasunaren zentzuan Donibane-Garazin bezala (c1)...? Gure ustez ez dago «C» tipoaz EBN osoaren berri ematerik eta edozein kasutan ere, EBN-klase jakin batez ari garela onartzekotan, hirugarren tratamenduari eratxikitako «urruntasunezko» balioa nola ulertzen dugun zehaztu behar genuke.

Orain arte esandako guztiak hiru galdera iradokitzen dizkigu: a) aski dira Rebuschiren lau tipoak euskal tratamendu-sistema eta azpisistema guztien berri emateko? b) zein da euskalkiz euskalki tratamendu bakoitzak hartzen duen gizarte-balioa? c) zeintzuk dira euskalkietako tratamenduen arteko parekotasun edo kidetasunak? (Rebuschik goiko II. taularen bidez bilatzen duena, hain zuzen: «ce n'est qu'une construction abstraite, qui permet simplement d'établir des correspondances interdialectales objectives, utiles par exemple à la traduction ou à la adaptation d'un locuteur à un nouveau milieu géographique et humain»,

Rebuschi, 1984:535). Hiru galdera hauei hurrengo ataletan saiatuko gara erantzuten.

## 3. EUSKAL TRATAMENDU-SISTEMAK: LEHEN HURBILBIDEA (IKUSPEGI FORMAL ETA PRAGMATIKOA)

Lehen galderari dagokionez, bistan da tipo gehiagoren beharrizana aezkera, zaraitzuera eta erronkarieraren berri eman nahi badugu; are gehiago, EBNz salbuespen gisa lau solas-mailako tipoa (tokanoka, xuka, zuka eta eztabada) egon daitekeela onartuta ere, ikuspegi soziolinguistiko edo pragmatikotik ez dago tipo hirukoitz (toka-noka, xuka/zuka, eztabada) *nagusi* eta *bakun* batez hitz egiterik.

Gure ustez, auzi honetan ikuspegia erabakigarria da eta gutxienez badira bi modu tratamenduen gaia aztertzeko. Ikuspegi formaletik goiko taulako bederatzi sistema eta azpisistemak genituzke euskaraz. Baina gure ikerketan erabilerak formak adinako garrantzia du eta horregatik hurrengo taularen bidez ikuspegi formal eta soziolinguistikoa uztarturik euskal tratamendu-sistema eta azpisistema garrantzitsuenen berri eman nahi dugu.

Beheko taulan zutabe bakoitzaren bidez tratamenduen «continuum» edo alor osoa adierazi nahi da. Euskalkiz euskalki eta hizkeraz hizkera alor hori era askotara zatikatuta ager daiteke eta hau ispilatzeko, hots, tratamenduen alorraren zatikatze dialektal desberdin hau ispilatzeko, euskalki bakoitzeko solas-maila bakoitzari tarte luze edo laburragoa eman diogu hizkera horretan tratamenduak bereganatzen duen gizarte-eremu zabal edo meharragoaren arabera. Esate baterako, tipo guztietan, baina batez ere «A» eta «B» tipoetan, hitanoari tarte txikia eskaini zaio eztabadaren aldean tratamendu markatua delako; gisa berean jokatu dugu gainerako tratamenduekin. Bestalde, azkenengo lerroan eta bereiz, urruntasun linguistikoaren ondorioz, joera mimetikoaren ondorioz edo bestelako arrazoiengatik euskalki batzuetan («E», «G», «I» eta «J»? zutabeak) gerta daitekeen «zuka alokutiboa ---> eztabada» aldaketaren berri emateko «eztabada urruntasunezkoa edo mimetikoa» deritzoguna sartu dugu; dena den, azpimarkatu beharra dago kanpotarrekiko eztabada berezi eta ezohizko hau tratamendu markatu-markatua dugula.

Rebuschiri jarraituz (Euskaltzaindia, 1987:390), zutabe bakoitza zatituta ageri den maila bakoitzari, bereganatzen duen gizarte-eremuaren arabera, hurrengo deitura adierazgarri hauetako bat ezarri diogu: lagunartekoa, bitartekoa, kortesiazkoa, errespetuzkoa eta «urruntasunezkoa». Edozein modutan ere, azpimarkatu nahi dugu ez dagoela deitura edo izendapen egoki edo ez hain egokian korapiloaren giltza, maila bakoitzaren «luze-laburrean» baizik. Azken batean, solas-maila jakin bat era batera edo bestera bataiatzeagatik ez da erabilera gehiegi argitzen, ezta iluntzen ere, behin baino gehiagotan izendapen

# IV. TAULA

## TRATAMENDU-SISTEMAK ETA AZPISISTEMAK (FORMA + ERABILERA)

| «A» L, MBN | «B» B,G GN | «C» Aezk. | «D» EBN-2 | «E» EBN-3 | «F» EBN-1 Arb. | «G» EBN-4 Lap. | «H» MBN-Hazp. | «I»* Zar. | «J» Z Amik. | «K» Er. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1-2 lagrt. | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt | 1-2 lagrt |
| ------ | ----- | ----- | ----- | ----- | ----- | ----- | ----- | ----- | ----- | ----- |
| | | 7 bit-kort.? | | | 6 bit. | 6 bit. | 7 bit. | 6 bit. | | 5 bit. |
| 3 kort. | 3 kort. | ----- | 6 kort. | 6 kort. | ----- | ----- | ----- | ----- | 5 kort. | ----- |
| | | | | | 3 kort. | 5 kort. | 3 kort. | 5 kort. | | 3 kort. |
| | | | ----- | ----- | | | | | | |
| | | 3 err. | 3 err. | 5 err. | | | | | | |
| | ----- | ----- | | | | | | ----- | ----- | ----- |
| | 4 err. | 4? | | | | | | 4 ? | | 4 err. |
| — | — | — | — | (3) urr. | – | (3) urr. | — | (3)? urr. | (3)? | — |

* Zalantza dugu zaraitzueraz xukak eremu handiagoa hartzen ez ote duen eta ondorioz euskalki hau Garazikoarekin («E»=«EBN-3) batera sailkatu behar ez ote den; gure lekuko bakar eta hizkeraz nahasiaren (Iratin eta Zuberoan barrena anitz ibilia) argitasunak ez dira aski auzia erabakitzeko.

TRATAMENDUAK:
1= toketa, 2= noketa; 3= eztabada; 4= beroriketa; 5= zuka alokutiboa; 6= xuka alokutiboa; 7= xuka ez-alokutiboa; (3)= eztabada ezohizko eta mimetikoa, «urruntasun linguistikoa» (ik. infra) adieraztekoa.

EUSKALKI ETA HIZKERAK:
L= lapurtera, MBN= mendebaldeko behe-nafarrera; B-G-GN= bizkaiera-gipuzkera goi-nafarrera; Aezk.= aezkera; EBN-2= Donibane-Garazi inguruko behe-nafarrera (Donibane-Garazi, Uharte-Garazi, Aizpura... +MBN: Lasa, Arnegi, Luzaide); EBN-3= Garaziko eskualdearen iparraldea (Gamarte...), Ostibarre (Donaixti Ibarre...); EBN-1= Arberoa eskualdeko behe-nafarrera; MBN-Hazp.= mendebaldeko behe-nafarrera, Hazparnekoa; EBN-4= Lapurdiko ekialdeko behe-nafarrera eta Zuberoako Aiñharbe; Zar.= zaraitzuera; Z= zuberera; Amik.= Amikuze (EBN); Er.= erronkariera.

BALIOAK:
lagrt.= lagunartekoa; bit. = bitartekoa; kort.= kortesiazkoa; err. = errespetuzkoa; urr.= «urruntasun linguistikoa» (ohituraren aurka zukaren ordez eztabada erabiltzea hiztunaren mintzamoldera egokitzeko).

erdi arbitrario eta erdi esanguratsuok arriskutsu eta nahasgarri gerta daitezke eta. Esate baterako, «F», «G», «H» eta «I» sailetako xuka (6/7) sexuaren arabera (emakumeekin) erabiltzen den neurrian, tentatuak gara halako tratamendu bati «kortesiazkoa» deitzera; baina deitura hori emanez, ilundu egiten dugu xukaren errealitatea, beronek zerikusirik gutxi duelako «A» eta «B» sailetako «kortesiarekin».

Gure «A» (L, MBN), «B» (B, G, GN) eta «J» (Z) sailetan ez dago aldakuntzarik Rebuschiren tipologiaren aldean. Gainerakoetan, ostera, bada berrikuntzarik. Ikus ditzagun banan-banan.

Lapurteraz eta mendebaldeko behe-nafarreraz bi tratamendu besterik ez dago: lagunarteko eta markatua den hiketa eta neutrotzat jo daitekeen eztabada. Bizkaiera, gipuzkera eta goi-nafarreraz teorian hiru tratamendu bereizten dira: markatutzat jo daitezkeen lagunarteko hiketa eta errespetuzko beroriketa, eta kortesiazko eztabada; hiru euskalkiotan beroriketa galzorian dagoela kontuan izanik, praktikan «A» tipoaren bidez eman liteke mendebaldeko euskararen berri. Bestalde, hitanoa eztabadaren aldean markatua den era berean, lagunarteko tratamenduan noketa markatutzat jo daiteke toketaren aldean; honek guztiak esan nahi du galtzekotan, solas-maila markatuek dutela galtzeko edota atzera egiteko arriskua. Hortaz, oro har sistema bikoitz edo hirukoitza onartuta ere, mendebalde osoan (L, MBN, B, G, GN) eztabadakako tratamendu bakarraz edota noketarik gabeko sistema bikoitzaz (toketa/eztabada) baliatzen diren hiztunak anitz direla gaineratu beharra dago.

Aezkerari dagokion «C» sailean galdutzat jotzen dugu beroriketa egungo erabileran (ik. Camino, 1995:509) eta funtsean hiru solas-maila hauek bereizten dituzte[5]: lagunarteko hiketa, sexuaren edota herriaren arabera bitartekotzat edo kortesiazkotzat jo dezakegun xuketa ez-alokutiboa eta errespetuzko kutsua hartzen duen eztabada. Euskalkia gorde dutenen artean ondo eutsi zaio toketa-noketari lagunarteko giroan baina ez hainbeste familian, hortik kanpora emakumeen artean eta familian xuketa (ez-alokutiboa) da ohizko tratamendua eta eztabada erabiltzekotan begirunea zor zaion jendearekin (askoz zaharragoekin, aitona-amonekin, apaizarekin, nagusiarekin, maisuarekin, kanpokoekin) erabiltzen dute. Familian xuketak tokia kentzen dio hitanoari (noketari, batik bat, baina baita toketari ere) eta horregatik jarri dugu hitanoaren maila mendebaldeko euskalkietan baino gorago; hitanoaren marra gorago jarriz, xukak hitanoari eremu-zati bat kentzen diola adierazi nahi da.

«D» zutabea Donibane-Garazi inguruari (Donibane-Garazi, Uharte-Garazi, Aizpura, Lasa, Arnegi, Luzaide) dagokio. *Hi, xu* eta *zu* izenordainez baliatzen dira hiru solas-maila bereizteko: lagunarteko hiketa, *xu* neutro edo kortesiazkoa eta eztabada errespetuzkoa. Donibane-Garaziko *xu* izenordainari dagokion

[5] Hemengo iruzkinak Abaurregainean bildutako datuen ondorio dira, ondorio «arinegiak» beharbada, lekukotasun gutxi batzuk baitituzte euskarri. Herri, adin, sexu eta bestelako aldagaien araberako xehetasunetarako, ik. Camino 1995.

tratamendua alokutiboa da eta Aezkoakoa ez. Solas-mailari gagozkiola, Aezkoako eztabada eta Donibane-Garazikoa gutxi gorabehera berdintsuak dira; xukak, ostera, gizarte-eremu zabalagoa du Garazin Aezkoan baino (xehetasunetarako ik. Camino, 1995: 509-516).

«E» saila xuka/zuka alokutiboak gordetzen dituzten Garaziko eskualdearen iparraldeari (Gamarte...) eta Ostibarreri (Donaixti-Ibarre...) dagokie. Ikus daitekeenez, Donibane-Garazi inguruko sistemaren pare-parekoa da, formazko desberdintasun batez, hala ere: Donibane-Garazi inguruan zuka alokutiboaren lekuan eztabada nagusitu den bitartean, Garazi eskualdeko beste herri batzuetan zuka alokutiboari eusten zaio oraindik ere. Nolanahi ere den, alde hau gorabehera, pragmatikaz nahiko kidekoak ditugu Garaziko hizkera biak («D» eta «E») eta erabilerazko alde bakarra «E» tipoko «eztabada urruntasunezkoaren» posibilitatean legoke. Gainerakoan, Garaziko eremuan halako batasuna dagoela esan daiteke: noketa batez ere eta toketa bera ere familian atzeraka dabiltza xukaren oldarraren pean, xuka alokutiboa barra-barra erabiltzen da tratamendu neutro edo kortesiazkoa izateraino eta eztabada/zuka tratamenduak normalean begirunea adierazteko (oso zaharrei edo guztiz ezezagunei, esaterako) edota testuinguru formaletarako (langile/nagusi, guraso/irakasle...) gordetzen dira. Horrek esan nahi du Garaziko eremuan xuka indartsuen dabilela eta ez dagoela hala mintzatzen ez dakien hiztunik; badira, ordea, toka aritzen ez direnak eta, zer esanik ez, noka ez dakitenak.

«F» saila Arberoak EBNri dagokio eta bertan Donibane-Garazi inguruko («D» saila) tratamendu berberak erabiltzen diren arren (hiketa/xuka/eztabada), erabileraz ezin dira parekatu solas-mailak. Arberoan xuka zerbait sartzen da mendebaldeko euskalkietako («A» eta «B») hiketa eta eztabadaren lekuan, baina edozein kasutan, Garaziko eskualdean baino biziki gutxiago. Batez ere noketaren lekuan sartzen da, baina ez —ez behintzat Garazin bezainbeste— familiako toketaren lekuan. Xuka oroz gain sexuaren arabera baliatzen da Arberoako herrietan, hots, nekez ematen zaio gizonari. Eztabadak bizitza aski zabala du eta ondorioz, Garazin ez bezala, ezin eman diezaiokegu errespetuzko balio goren eta markatua. Gauzak horrela, xukari bitarteko tokiaren araberako balioa dagokio, bietatik, lagunartekotik eta kortesiazkotik zerbait badu eta. Gainera, hizkera honetan badira, noski, hutsuneak sistema hirukoitzari buruz: ugari dira noketarik gabeko sistema hirukoitzaz (toketa/xuka/eztabada) baliatzen diren hiztunak eta ez dira falta hitanorik gabeko sistema bikoitzaz (xuka, eztabada) baliatzen direnak ere, batez ere nesken artean.

«G» tipoa Lapurdiko EBNri (Mugerre, Beskoitze, Urketa), Bardozeri eta Zuberoako Aiñharberi dagokie eta aurrekoarekin duen desberdintasun nagusia kortesiazko zuka alokutiboa da eta honen ondorioz eztabada «urruntasunezkoa» edo mimetikoaren aukera. Hemen ere, hutsarterik egotekotan, lagunarteko solas-mailari (noketari toketari baino aiseago) dagokio hutsunea.

Tratamenduari dagokionez, Hazparneko euskarak («H») Arberoakoarekin duen alde nagusia xukako solas-mailaren alokutibotasunik eza dateke. Gainera-

koan ez dago desberdintasun funtsezkorik; xuka hizkera bietan sexuaren arabera erabiltzen da eta bitarteko tokia betetzen du. Hemen ere, daitekeena da lagunarteko solas-mailaren laukia (batez ere noketarena) hutsik egotea.

«I» tipoa zaraitzuerari dagokio eta gure lekukoaren arabera, Lapurdiko EBNren («G» tipoaren) antzekoa litzateke. Zaraitzun (Otsagin), Aezkoan bezalatsu, beroriketaren galera burututzat jo daiteke, 76 urteko Teofilo Eseberri gure lekukoak haren aditzerik edo gogorapenik ere ez baitzuen. Dena den, oraingoz zaraitzuerarentzat ematen dugun sistemaren egituraketa badaezpadakotzat jotzen dugu; gaude datu eta lekukotasun egokiago eta ugariagoek «E» (Garaziko eskualdearen iparraldea eta Ostibarre) tipoarekin parekatzera eramango ote gintuzketen.

«J» zutabea zubererari eta Amikuzeko EBNri dagokio eta funtsezko bi solas-maila bereizten ditu: hiketa eta zuka alokutiboa. Erabilerari bagagozkio zubererazko zuka alokutiboa eta mendebaldeko euskalkietako eztabada erabat parekoak dira. Gure lekukoek ez digute baieztatu eztabada mimetikoaren posibilitatea, Nafarroa Beherean ez bezala, zuberotar guztiak zuka mintzatu zaizkigulako; nolanahi ere, litekeena da hirugarren aukera hori inoiz gauzatzea (galde-ikurrak zalantza hauxe adierazten du). Maiz lagunarteko noketaren hutsunea gertatzen da eta oso bakan toketarena.

Azkenik, erronkarierari dagokion «K» tipoa dugu, aurrekoak ez bezalakoa. Euskalki honetan hitanoari lagunarteko maila dagokio, zuka alokutiboari bitarteko balioa (lagunartekotasun leundua edo nahi bada, kortesia ahuldua), eztabadari kortesiazkoa eta beroriketari errespetuzko maila. EBN batzuetan (EBN-3, EBN-4) ez bezala, eztabada tratamendu ohizkoa denez eta zuka alokutiboaren aurrez aurre dagoenez, ez dago «eztabada mimetikoa» deitu dugunarentzako lekurik.

## 4. EUSKAL TRATAMENDU-SISTEMA NAGUSIAK ERABILERAREN ARABERA: EREMUAK ETA KIDETASUNAK

Forma (alokutibotasuna bai ala ez) alde batera utzi eta erabilerari lotzen bagatzaizkio, ez dago hainbeste tiporen beharrik euskal tratamendu sistema garrantzitsuenen berri emateko. Horretarako, alde batetik, baztertu egingo dugu berorikako tratamenduaren aukera gaurko aezkera eta zaraitzuerarentzat; beste alde batetik, «eztabada mimetiko» tratamendu markatuaren abstrakzioa egingo dugu gerta daitekeen euskalkietan (EBN-3, EBN-4 eta zaraitzueran). Bakuntze honen ondorioa beheko V. taulan ikus daiteke.

Lehengo hamaika tipoak («A»...«K») bost eredu pragmatiko nagusitara bildu ditugu. Lehenengoan (I), lapurtera eta mendebaldeko behe-nafarrerarekin batean zuberera eta Amikuzeko hizkera sartu dira, funtsean batzuek eta besteek jokamolde bikoitz berbera (*HI/ZU*) dutelako; *HI/ZU/BERORI* hirukoteaz hornituriko bigarren multzoan (II) (B,G,GN) ez dago aldaketarik; hirugarren

## V. TAULA

## TRATAMENDU-SISTEMA NAGUSIAK: EREMUAK ETA KIDETASUNAK

| I | II | III | IV | V |
|---|---|---|---|---|
| «A»<br>L, MBN<br>Z, Amik. | «B»<br>B,G,GN | «D» «E»<br>EBN-2 EBN-3<br>GARAZI | «C» «I»* «F» «G» «H»<br>Aezk. Zar*. EBN-1 EBN-4 MBN-<br>Arb. Lap. Hazp. | «K»<br>Er. |
| HIKETA<br>1-2<br>lagrt.<br>--------<br>EZT/ZUKA<br>3/5<br>kort. | HIKETA<br>1-2<br>lagrt.<br>-------<br>EZTAB.<br>3<br>kort.<br>-------<br>BERORI<br>4<br>err. | HIKETA<br>1-2<br>lagrt.<br>----------<br>XUKETA(-)/<br>/XUKA(+)<br>6 (7: Aezk.)<br>kort.<br>----------<br>EZTABADA/<br>/ZUKA<br>3/5<br>err. | HIKETA<br>1-2<br>lagrt.<br>----------<br>XUKETA(-)/XUKA(+)<br>6 (7: Hazp.)<br>bit.<br>----------<br>EZTABADA/ZUKA<br>3/5<br>kort. | HIKETA<br>1-2<br>lagrt.<br>------<br>ZUKA<br>5<br>bit.<br>------<br>EZTAB.<br>3<br>kort.<br>------<br>BERORI<br>4<br>err. |
| — | — | EZTAB.<br>«MIMETIKOA»<br>-/(3) urr. | -/(3) urr. | — |

* Zalantza dugu zaraitzuera Garazikoarekin (III) batera sailkatu behar ez ote den; gure lekuko bakar eta hizkeraz nahasiaren (Iratin eta Zuberoan barrena anitz ibilia) argitasunak ez dira aski auzia erabakitzeko.

TRATAMENDUAK: 1= toketa, 2= noketa; 3= eztabada; 4= beroriketa; 5= zuka alokutiboa; 6= xuka alokutiboa; 7= xuketa edo xuka ez-alokutiboa; (3)= eztabada ezohizko eta mimetikoa, «urruntasun linguistikoa» (ik. infra) adieraztekoa.

EUSKALKI ETA HIZKERAK: L= lapurtera, MBN= mendebaldeko behe-nafarrera; B-G-GN= bizkaiera-gipuzkera-goi-nafarrera; Aezk.= aezkera; EBN-2= Donibane Garazi inguruko behe-nafarrera (Donibane-Garazi, Uharte-Garazi, Aizpura... +MBN: Lasa, Arnegi, Luzaide); EBN-3= Garaziko eskualdearen iparraldea (Gamarte...), Ostibarre (Donaixti-Ibarre...); EBN-1= Arbela eskualdeko behe-nafarrera; MBN-Hazp.= mendebaldeko behe-nafarrera, Hazparnekoa; EBN 4= Lapurdiko ekialdeko behe-nafarrera eta Zuberoako Aiñharbe; Zar.= zaraitzuera; Z= zuberera; Amik.= Amikuze (EBN); Er.= erronkariera.

BALIOAK: lagrt.= lagunartekoa; bit. = bitartekoa; kort.= kortesiazkoa; err. = errespetuzkoa; urr.= «urruntasun linguistikoa» (ohituraren aurka zukaren ordez eztabada erabiltzea hiztunaren mintzamoldera egokitzeko).

sailean (III) *HI/XU/ZU* hirukoteaz jantziriko Garaziko hizkera guztiak (Donibane-Garazi ingurukoa eta bestelakoak, Ostibarre barne) batu ditugu, *XU* neutro edo kortesiazkoaren eta *ZU* errespetuzkoaren arabera; laugarren sailean (IV) hirukote berberaz (*HI/XU/ZU*) jokatzen duten gainerako EBNak (Arberoakoa eta Lapurdikoa), Hazparne, aezkera eta zaraitzuera bildu ditugu, aurreko tipotik bereiz, hala ere, *XU* mugatuago eta *ZU* zabalago baten arabera aritzen direlako; azkenik eta aldaketarik gabe, erronkarierari dagokion bosgarren tipoa (V) dugu, eguneroko harremanetan *ZU* alokutiboa (zuka) eta *ZU* ez-alokutiboa (eztabada) ohizko tratamendu gisa erabiltzen dituelako eta biak elkarrengandik bereizten dituelako.

Gure ustetan, V. taulan egin dugun soiltze edo bakuntzea nahiko adierazgarria da, halako eremu geolinguistiko batzuk bereizteko lagungarri gertatzen zaigulako. Alde batetik, hedaduraz hain barreiatua dagoen ekialdeko behenafarrerak badu halako batasuna tratamenduari begira: *HI/XU/ZU* banaketaren araberako sistema hirukoitza (Amikuzeko salbuespenaz). Beste alde batetik, hirukote horren erabilerari bagagozkio, euskalkia bi eremutan zatituta bezala ageri zaigu: a) *ZU*-ren «kaltetan» (markatu-errespetuzkoa), *XU*-z (neutro-kortesiazkoaz) erruz baliatzen den hegoaldeko eremua (Garaziko eskualdea); b) *XU*-kako tratamendu bitartekoa eta *ZU*-kakoa (kortesiazkoa) «oreka handiagoan» bizi diren iparraldeko eremua (Arberoako eskualdea eta Lapurdiko EBN). Ekialdea (Amikuze), azkenik, beste kontu batzuetan bezala (hala nola, seigarren bokala: [ü]), zubererarekin batera doala dirudi. Bestalde, EBNren iparraldeko eremuak Hazparne (MBN) bereganatu du mendebaldetik eta EBNren hegoaldeko eremu xukazaleak inguruko zenbait herri eta hizkera: Lasa, Arnegi eta Luzaide (MBN) eta agian zaraitzuera eta aezkera ere bai.

Uste dugu gure tratamenduen mailaketak argitasuna dakarrela zuka/eztabada mintzamoldeen arteko banaketaren auzira. Erronkarieraren kasua eta EBNzko eztabada mimetiko eta markatuaren aukera alde batera uzten bada, oro har, eztabada arrunta eta zuka alokutiboa ez daude maila desberdinetan edo aurkakotasunean, banaketa osagarrian baizik. Hots, batak eta besteak ez dute solas-maila edo tratamendu berezirik osatzen. Parekotasun horrexek esplikatuko luke joan den mendetik hona EBNz gertatu den bilakabidea: batetik, Bonaparte printzeak Donibane-Garaziko euskarara eginarazitako itzulpenetan agertzen den zuka alokutiboak eta *Le Verbe Basque en Tableaux*-eko argibideek mintzamolde honen bizitza sendoa frogatzen duten arren, gure lekuko donibane-garaztarretariko batek ere ez du zukako alokutiborik erabiltzen; bestetik, gure inkestagintzak, Garaziko eskualdearen ipar eta ipar-ekialdean (Gamarten eta Ostibarreko Donaixti-Ibarren) zuka alokutiboari eusten zaiola eta Amikuzen eta Lapurdiko EBNz gauza bera gertatzen dela frogatu digu. Hala ere, zuka alokutiboari eutsi dioten EBNzko herri guztiotan, zukatik eztabadaranzko aldaketa nabaritu dugu gazteriaren artean (zenbaitetan adinekoetan ere bai). Gauzak horrela, mende baten buruan Donibane-Garaziko euskaran zukatik eztabadarako bilakabidea burutu dela pentsatzea dateke hipotesirik

sinesgarriena eta ez Bonaparteren deskribapena zalantzan jartzea. Uste dugu, gainera, zuka alokutiboa eztabadaren alde galtzen uzteko joera berber hori pixkanaka-pixkanaka EBN osora zabaltzen hasita dagoela: eskolatua den gazte jendeak bereziki gurasoek ez bezala hitz egiten du, eztabadaka, alegia. Kontuan hartu behar da eztabadaranzko joera honek ez dakarrela inolako tratamendu galerarik pragmatikaren ikuspegitik, alokutibotasuna gorabehera, *zu* izenordainean oinarrituriko tratamendu edo solas-maila bakarra dagoelako. Hortaz, Rebuschik nahi duenaren aurka (supra, II. taula), ekialdeko behe-nafarreran zuka eta xuka bi solas-maila desberdintzat jo behar dira, eskualde edo hizkeraren arabera ez baita zuka/xuka parekotasunik, zuka/eztabada alternantzia baizik.

Pareko mintzamoldeetan (zuka/eztabada), bakuntzea hizkuntza-ekonomiagatik gertatu ote den pentsa liteke; dena den, ez dugu uste azalbide funtzionalari gehiegizko pisurik aitortu behar zaionik, gerora begira, zukako alokutiboaren galeran eskolako eta komunikabideetako hizkuntzaren estandarizazioak eragin handiago eta bortitzagoa izan dezakete eta. EBNn —Zuberoan ez bezala— hizkeraren arabera balio bereko eztabada eta zuka txandakatzen dira eta epe ez luzeegian eztabada nagusi daitekeela susmatzen dugu.

Egoeraren ikuspegi orohartzaile eta bakuntzailea eman nahirik, II tipoko euskaretan (B, G, GN) beroriketa galtzear dagoela eta erronkariera (V) ia-ia euskalki hila dela kontuan izanik, esan genezake bi (makro)sistema nagusi ditugula gaur egungo euskaran: bata, *HI/ZU* aurkakotasunean oinarritua, geografikoki eta soziolinguistikoki hedatuena (goiko I eta II, hots, L, MBN, Z eta B, G, GN); eta bestea, *HI/XU/ZU* hirukotearen gainean eraikia, era batera edo bestera (*xu* laxoago edo meharragoaz) baliatzen den ekialdeko behe-nafarrerari eta inguruko hizkeraren bati dagokiona. Bestalde, iragarkizunetan sartuta, bihar-etziko euskara baliteke sistema bakunagoetarantz joatea lagunarteko solas-mailako noketaren galeratik hasita. Hainbat lekutan, dagoeneko, hautsita dago lagunarteko mailan toketa eta noketaren arteko oreka eta EBNz, xukako tratamendu bizi-biziak bultzatuta, noketaren galera azkarragoa iragar daiteke.

## 5. ONDORIOAK

1) Oihartzabalek dioenez, alokutibotasuna komunztadurazko gertakari gramatikala da izatez eta tratamendu edo solas-mailari lotua agertzen den arren, hartarik bereizi behar da. Hala ere, ez dugu uste beti gertakari gramatikal huts eta esanahirik gabekoa denik, zenbait hizkeratan (hala nola, erronkarieran eta izaera markatuaz EBN-mota batzuetan) solas-maila alokutibotasunaren arabera erabakitzen baita. Alokutibotasuna eta tratamendua (edo solas-maila) izaera edo maila desberdineko bi adigai desberdin dira: lehena formazkoa da eta harreman gramatikalen mailakoa, hots, linguistikoa; bigarrena, gizarteko harremanen (hurbiltasuna, urruntasuna, lagunartekotasuna, kortesia, errespe-

tua...) kodetze linguistikoari dagokio, hots, soziolinguistikoa da. Ondorioz, bi adigaien arteko bereizkuntzaren beharra onartuta ere, tratamenduaren gaia erabileraren ikuspuntutik ikertzerakoan ezinbesteko deritzogu alokutibotasuna edo tasun honen eza ere kontuan hartzeari. Zuka alokutiboa eta eztabada bereizten dituzten hizkeretan alokutiboari «beheko maila» eta ez-alokutiboari goiko maila esleitu zaio.

2) Dituen pertsona-izenordainen arabera (*hi, xu, zu, berori*) eta alokutibotasunaren arabera euskarak sor zitzakeen zortzi mintzamolde edo tratamenduetatik sei soilik garatu ditu: hitanoa (tokanoka alokutiboa), eztabada, beroriketa, zuka (alokutiboa), xuka (alokutiboa) eta xuketa ez-alokutiboa. Ez dago beroriketa alokutiborik eta hitano ez-alokutiborik ere ez; azken honen kontradibide gisako testuren bat edo beste aurki daitekeen arren, literatura-tradiziorik onena, gure inkestagintza eta hiztunaren euskal sena aukera sortu berri horren aurka mintzo dira. Litekeena da «hitano aizun hori» (eztabadakakoa) mende-mugako aurreritzi linguistiko batzuen giroan sortua izatea.

3) Rebuschik (1984) proposatzen duen euskal tratamenduen «tipologia» ez zaigu egokia iruditzen euskalki guztien berri emateko. Desegokitasuna hiru aldetatik dakusagu: a) tipo-kopuruaren aldetik, erronkariera edo ekialdeko behe-nafarrera bezalako euskalkien berri emateko tipo gehiagoren premia ikusten dugulako; b) mailaketaren aldetik, EBNz maila berekotzat jotzen dituen zuka/xuka mintzamoldeen lekuzko banaketa osagarria onartezina delako, hau da, EBNzko hizkera batzuetan bikote hori aurkakotasunean dutelako; c) bere hirugarren tipoko solas-maila bakoitzari emandako balioaren aldetik, EBN batzuetan zuka errespetuzkoa delako eta eztabadari omen dagokion «urruntasuna» balioa argi ez dagoelako. Ondorioz, Rebuschiren tipologia hankamotz geratzen da bere helburu behinenari dagokionez, hots, sistemen arteko kidetasun edo parekotasunen berri ematerakoan.

4) Tratamenduen alderdi formalaz gain (pertsona-izenordaina eta alokutibotasuna), erabilerazkoa ere azalduko bada, hamaika tiporen beharrizana ikusten dugu euskalki, azpieuskalki eta hizkera nabarmenen berri emateko (goiko IV. taula). Taulan ikus daitekeenez eta gorago azaldu denez, berritasunak aezkera, EBN *desberdinak,* Hazparneko hizkera, zaraitzuera eta erronkarieraren berri ematerakoan sortzen dira.

5) Erabileraren ikuspegitik eta alokutibotasunaren abstrakzioa eginez, lehengo eskema korapilatuko hamaika sistema eta azpisistemak hurrengo bost tipo nagusietara bil daitezke (ik. V. taula): lehena, L, MBN, Z eta Amikuze biltzen dituen sistema bikoitza, *HI* eta *ZU* izenordainetan oinarritua; bigarrena, mendebaldeko euskalkiak biltzen dituen sistema hirukoitza, *HI, ZU* eta *BERORI* izenordainez hornitua; hirugarrena, Garaziko eskualdeari dagokion sistema hirukoitza (leku batzuetan inoiz laukoitza izan daitekeena), *HI* meharraz, *XU* laxo-zabal eta kortesiazkoaz eta *ZU* mehar-errespetuzkoaz osatua; laugarrena gainerako EBNei dagokie eta formaz aurrekoaren berdina bada ere, erabileraz XU mugatuago batez eta ZU zabalagoaz bereizten da aurreko EBNtik; bosgarre-

na, azkenik, erronkarierarena da eta guztiz berezia da aurrekoen aldean, ZU alokutibo/ZU ez-alokutibo aurkakotasunean oinarritzen den sistema laukoitzaren jabe delako (hitanoa, zuka, eztabada eta beroriketa).

Etorkizunari begira eta ikuspegi orohartzaile-bakuntzaile batetik, funtsean bi tratamendu-sistema nagusitzen ari direla ematen du: EBNzkoa, *HI, XU* (zabalago edo meharragoa) eta *ZU* (zabalago edo meharragoa) hirukotean oinarritua, alde batetik; eta gainerako euskalkiena, bestetik, *HI* eta *ZU* bikoiztasunaz.

6) EBNz tratamenduen erabilera guztiz korapilatua eta aldakorra den arren, halako gune edo eremu geolinguistiko nagusi batzuk ondoriozta daitezke aurreko eskematik (V. taulatik, alegia). Batetik, hegoalderantz eta nortasun handiz Garaziko eskualdea ageri zaigu, beragana inguruko hizkerak (MBN-Lasa, MBN-Arnegi, MBN-Luzaide, EBN-Ostibarre... eta agian zaraitzuera bera ere) erakartzen dituela; bestetik, iparralderantz, Arberoa eskualdeko eta Lapurdiko EBN nabarmentzen dira, haien jokamoldera MBN-Hazparne hurbilduz; ipar-ekialderantz, azkenik, Amikuzeko eskualdea dugu zubereraranzko joeraz.

7) EBNz, oro har, eztabada eta zuka alokutiboa maila berekotzat jo ditzakegu; hots, bata edo bestea gerta daiteke leku eta hiztunaren arabera, baina normalean bien artean tratamendu aldetiko bereizkuntzarik egin gabe. «Normalean» esan dugu, zeren zuka alokutiboaz baliatzen diren herrietan (esaterako, Gamarten edo Beskoitzen), eguneroko jokaeratik aldenduz, eztabadara jo dezakete egoera berezi batzuetan —kanpotarrekiko harremanetan, adibidez— beren hizkera berezia ezkutatzeko[6] edota solaskidearen mintzamoldera egokitzeko. Halako erabilera markatuen arabera, EBNz ere sistema laukoitzaz hitz egin liteke beharbada; dena den, argi utzi beharra dago laugarren aukera hau gutxitan gauzatzen dela, lehenik, hiztun askok aukera horretan erreparatzen ez dutelako eta, bigarrenik, egoera hori egunero gertatzen den horietakoa ez delako.

Beharbada funtzionaltasun ezagatik edo bestelako arrazoiengatik, Bonaparteren garaitik hona zukatik eztabadaranzko aldaketa burutu da Donibane-Garazi inguruan eta gure egunotan antzeko bilakabide baten atarian gaude EBNzko gainerako herrietan, gazte jendea oharkabean edo ohartuki eztabadarantz jotzen ari delako. Eskolak eta hizkuntzaren estandarizazioak bilakaera horren alde eragin dezaketelakoan gaude.

[6] Ez da ahaztu behar alokutiboari (hikako, zukako eta xukakoari) leku batzuetan erantsi zaizkion konnotazio txarrak («buhameen hizkuntza»ren kontua eta abar).

# XI. ONDORIOAK

Lehenik, euskal tratamenduen gaia diakroniaren eta tipologiaren argitan aztertu nahi izan dugu. Oro har, euskal tratamendu-izenordainen bilakaera, Headek (1978) «hizkuntza-unibertsal» gisa aurkeztu nahi dituen joeren arabera burutu da (cf. III.1.1). Badira arrazoiak (cf. III.2.1) pentsatzeko lehen berrikuntza antzinako *zu* izenordain ustez pluralaren singulartzea izan zela (gure hipotesiaren arabera honelaxe burutua: *II'[1] ===> *II'/II-begirunezkoa ===> II-begirunezkoa). Begirunea adierazteko pluralera jotzea aski fenomeno hedatua den arren, ez litzateke harrigarria euskarak T/V bereizketa Erdi Aroan ukipenean zituen hizkuntza erromantzeen eraginez garatu izana. Behin pluraltasunaren baliabidea kamustuta eta higatuta, begirunezko tratamendu-premia berririk sortuz gero, hurrengo urratsa pertsona-aldaketa izaten da, hots, bigarren pertsonatik hirugarrenera aldatzea; ziklo hau hizkuntza indoeuroparretan bete bide da ondoen (Joseph, 1987) eta hegoaldeko euskarak hurrenkera diakroniko berber horri jarraitu dio bere bilakabidean. XVI. mendeko euskaran, garaiko gaztelaniaren eredu hanpatuegiari jarraituz seguruenik, hirugarren pertsonako adizkerez eta izen-esapideez osatutako tratamendu jasoak (*zure mesedeori, zure mesedea, zure senoria...* + 3As) erabili izan ziren; eta gure hipotesiaren arabera, agian hurrengo mendean izen-esapide horiek, $berori_1$ erakusle indartu eta anaforikoaz ordezkatuz[2] sortuko zen hegoaldeko euskaran izenordain hiperbegirunezkoa ($berori_2$). Nolanahi ere den, *zu* izenordainaren singulartzea, $berori_2$ hiperbegirunezkoaren sorrera baino biziki lehenago gertatu zela uste dugu: lehen bilakaera Erdi Aroan-edo gauzatuko zen; bigarrena, aldiz, XVII. mendean edo goitik jota XVI.ean.

---

[1] Rebuschiren notazioari jarraituz, zenbaki erromatarrez baliatu gara pertsona erreferentziala adierazteko eta ['] ikurraz pluraltasuna adierazteko; II' zenbakiaz, adibidez, pluraleko bigarren pertsona erreferentziala adierazi nahi da. Bestalde, [*] ikurraren bidez formaren edota bilakaera-urratsaren izaera hipotetikoa azpimarkatu nahi dugu.

[2] Capanagaren hurrengo adibideak erakusten duenez: *Alan daukat konfianzea zure Illustrisima Señoriak¡ faboreziduko dabela bein berorren¡ besoetara egotzi ezkero.*

Tratamendu guztiak kontuan harturik, honako hurrenkera diakronikoa eman daitekeelakoan gaude: 1) antzina batean hitanoa izango zen tratamendu bakarra; 2) ondoren, *zu* izenordainaren singulartzeaz T/V edo hitanoa/eztabada bereizketa sortuko zen; 3) hurrengo berrikuntza zutanoarena da, honek, XVI. mendeko testuetan agertzen duen egonkortasun ezagatik, geroagokoa izan behar du-eta; 4) beranduago, XVII. mendean-edo, beroriketa sortuko zen; 5) eta azkenik, XIX. mendean edo agian zerbait lehenago, xuka alokutiboa. Bestalde, funtsean geure egiten dugu Schuchardtek euskal alokutibotasunaren sorreraz ematen duen interpretazioa; horren arabera, aditz-joko alokutiboa, jatorriz, solaskidea hizketaldiaren harira biltzeko zeregina duen eta bizirik dirauen enuntziazio-eragiketa adierazkor baten emaitza ihartua dateke.

Euskal tratamendu-izenordainen sistemak ez dauka berezitasun nabarmenegirik sartaldeko beste hizkuntza batzuenaren aldean. Dena dela, hala hegoaldeko euskalkietan nola EBNz nahiko deigarria da singularrean egin daitekeen bereizketa hirukoitza (*hi/zu/berori* eta *hi/xu/zu*), paradigma hirukoitza inguruko hizkuntza ezagun gutxitan ageri baita. Aditzaren arloan, ordea, bada zer esanik. Euskaraz, komunztaduraren ondorioz tratamendu-hautaketa nahitaez agertu behar da aditz jokatuaren inflexioan. Eta alde horretatik, ezin ukatuzkoa da euskal komunztadura-sistemaren berezitasuna: batetik lagunarteko tratamenduan solaskidearen sexua bereizten delako; bestetik, aditz-joko alokutiboen bidez, bigarren pertsonarekiko komunztadura bigarren pertsona argumentalera mugatuta ez dagoelako. Hika, zuka eta xukako aditz-joko alokutiboak[3] euskararen bereizgarri nagusietako bat dira inolako zalantzarik gabe.

Comrieren (1976) hiru ardatzen eta hiru ohoragarri-moten teoriaren arabera[4], euskarak salbuespena dirudi bere inguruko hizkuntzen aldean, hiztunak T/V sistemaren barne solaskidearenganako begirunea adieraz dezakeelako eta alokutibotasunaren bidez (+/-: baia/eza) sistematikoki horixe egiten duelako solaskidea erreferentetzat hartzeko beharkizunik gabe. Alde horretatik, solasmailak bereizteko baliabideari begira, nahiko harrigarria da japonierazko eta euskarazko perpaus kopulatibo batzuen arteko parekotasuna (cf. III.3.2.2). Kidetasunak kidetasun, euskara ezin da jarri 'solaskidearekiko ohoragarriez' horniturik dauden sortaldeko hizkuntzen maila berean. Eta hori arrazoi nagusi batengatik, hots, 'alokutibotasuna' eta 'tratamendua' maila desberdineko nozioak direlako edo, beste hitzez esateko, aditz joko alokutiboak berez tratamenduak ez direlako (cf. X.1). Gauzak horrela, oro har, argi dago euskal T/V sistema berezia dena: batetik, inguruko hizkuntzetan aurki daitezkeenen tankerakoa da, izenordainetan-eta 'hiztun erreferente' ardatzaren arabera eraikitzen delako; bestetik, badu Asiako hego-sortaldeko hizkuntza batzuen antza, aditz-joko

[3] Hau da, «bigarren pertsonari dagokion pertsona-indizea agertzen dutenak, bigarren pertsona hori, berez, aditzari dagozkion argumentuetarik bat izan gabe».

[4] Hots, trataera-moten sailkapen hirukoitza: a) hiztun-solaskide ardatzaren araberako 'solaskidearekiko trataerak'; b) hiztun-erreferente ardatzaren araberako 'erreferentearekiko trataerak'; c) hiztun-zirkunstante ardatzaren araberako 'hirugarrenekiko trataerak'.

alokutiboen bidez 'hiztun-solaskide' ardatzari sarbidea ematen diolako. Beraz, euskal tratamendu alokutibodunak, oro har, ez lirateke bete-betean Comrieren lehen sailean sartuko (hiztun-solaskide ardatzaren araberako 'solaskidearekiko trataerak'), ezta bigarren sailaren barruan ere (hiztun-erreferente ardatzaren araberako 'erreferentearekiko trataerak'). Hau da, Comrieren lehen eta bigarren ohoragarri-motetatik zerbait duen bitarteko eredua litzateke euskararena eta hain zuzen ere, horrexetan datza euskal alokutibotasunaren berezitasuna.

Bestalde, gure ikerlanaren bigarren gunea euskal tratamenduen erabilerari buruzko ikerketa sinkronikoa izan da. Bigarren kapituluan ikusitakoaren arabera, euskal tratamendu-usarioen lehen gauza harrigarria familiaren esparruan maila desberdinekoen artean irauten duen asimetriazko joera (T-V, T-X, X-V) da. Joera hau gordetzailea delakoan gaude, hots, iraganeko euskal kulturaren eta gizartekeraren hondarra, eta aski bitxia iruditzen zaigu, bertako albohizkuntzetako gaurko joera simetrikoaren nagusitasuna aintzakotzat hartzen badugu. Esanak esan, etxeko eta senideen artean maila-desberdintasuna kodetzeko ohitura ez da inola ere orokorra: alde batetik, gehienbat, hitanoari eutsi dioten familietara mugatuta dago; beste alde batetik, euskalki guztiak kontuan harturik, joera asimetrikoaren nagusitasuna tokako tratamendura mugatuta dago, hau da, mutilekiko tratamendura. Familian hikako joera simetrikoa parekoen artean gertatzen da, baina orduan ere sarritan hitanoa (T-T) ez da izaten aukera segurua, ezta hiztun hikatzaileen artean ere: esate baterako, kasurik onenean, anaien artean, ehuneko laurogeita hamar inguru aritzen dira hika elkarrekin. Oro har, familiaren barruko tratamendu-usario markatugabeen berri emateko, gutxienez, ondoko aldagai nagusiak kontuan hartu behar dira: adina, sexua, ahaidetasun maila eta harremanaren maiztasuna.

Familia barneko harremanekin jarraituz, hitanoak debeku dituen bi erabilera-eremu gogoratu nahi ditugu, beste hizkuntzen ikuspegitik nahiko deigarriak diren bi ohitura, alegia: alde batetik, senar-emazteen arteko zukako (V-V) joera-legea, ezkongaien artean ere —salbuespen gehiagoz bada ere— betetzen dena; eta beste alde batetik, seme-alaba txiki-txikiari (hiruzpalau edo bospasei urtekoari) hika egiteko debekua. Ez batak, ez besteak ez dute esplikazio garbirik, baina bigarrena azaltzeko agian arrazoi psikolinguistikoekin batera —haurrak oinarrizko tratamendua ikastea, hots, helduari eman beharreko tratamendu zuzena— «elkartasun-arrazoiak» (Rijk, 1991) ere kontuan hartu behar lirateke, hau da, behin umea koskortuz gero, ordura arte izan ez den halako elkartasun- edo kidetasun-oinarri bat sortzen da agian.

Oro har, familiaz kanpoko harremanetan hitanoa tratamendu markatua da Vren aldean. Beti ere, euskaldun hikatzaileek osatzen duten gutxiengoari gagozkiola, ondoko datu orokorrak azpimarka daitezke. Elkarrekiko hitanoak (*T-T*), sexu eta adin bereko adiskideen artean du azaltzeko probabilitaterik handiena (%76,3). Lankide eta ikaskideen artean ere *T-T* erabiltzen da nagusiki (%59,4 inguruan), baldin sexukide eta adinkideak badira. Bestela (adibidez, adiskideak sexu-desberdinekoak izatera), hitano simetrikoaren aukerak nabar-

menki egiten du behera. Hortaz, aipatu bi kasuez landa (lankide eta adiskideez landa), ez da bat ere ohizkoa hiketa simetrikoa. Guzti honetatik, euskal gizarteko harreman gehienetan kortesiazko tratamendu simetrikoa (*V-V*) jaun eta jabe dela eta hitanoa aukera markatua dela ondorioztatzen da.

Familiaren eremutik at, honako hauek dira tratamenduaren erabilera neutro edo markatugabea baldintzatzen duten aldagai nagusiak[5]: kidetasuna, adiskidetasuna, adina, sexua eta maila. Kidetasuna ezinbesteko baldintza dugu elkarrekiko hitanoa (T-T) maiz gerta dadin; adiskidetasuna, hikako maiztasunaren faktore areagotzailea da; eta adin, sexu eta mailazko desberdintasunak faktore eragozle garbiak izaten dira hitano simetrikorako. Gainera, azpimarkagarria da sexuzko eta adinezko desberdintasunek eragiten duten asimetria-kopuru handi samarra; mailazko desberdintasunak, berriz, ez du asimetriarik eragiten. Esanak esan, gizarteko harremanetan, familiakoetan ez bezala, tratamenduzko asimetria ez da sekula nagusitzen aukera simetrikoen gainetik.

Beraz, iraganean boterezko desberdintasunak kodetzeko joera (*T-V*) egun baino askoz handiagoa izan zela onartuz gero, badirudi, erdizka bederen, Brown eta Gilmanen (1960) lehen hipotesi diakronikoa betetzen ari dela gaurko euskaran: familiatik kanpo garbiro ageri da *V-V* simetrikoranzko joera; eta familiaren eremuan «boterearen semantika» deiturikoaren aztarnak ugari diren arren —ugariegiak inguruko hizkuntzetakoen aldean—, *V-V*ranzko joera garbia ikusten da neskekiko harremanetan. BG ereduaren bigarren hipotesi diakronikoari dagokionez, esan beharra dago, salbuespenak salbuespen, gaurko euskaran ez dela somatzen horrelako bilakaera baten zantzurik, ezta joera horren eragile izan ohi den gazteriaren artean ere. Gaurko euskaran, hitano simetrikoa aukera berezi eta markatua da, senidetasunezko harreman jakin batzuetara (haurrideak, lehengusuak eta koinatuak) eta adiskide eta kideen arteko harremanetara mugatua; eta edozein kasutan ere, zalantzaren aurrean *V-V* izaten da aukerarik ohizkoen eta seguruena. Bestalde, sexuzko eta adinezko desberdintasunek, asimetrien eragile diren neurrian, elkarrekiko hitanoaren aurka eta *V-V* aukeraren alde joka dezakete etorkizunean. Hitz batez esateko, ez dirudi inola ere *T-T* orokortzeko bidean dagoenik. Gainera, bildutako iritzien arabera, gaur-gaurkoz ez dirudi euskaldun hikatzaileak begi onez ikusiko lukeenik —familiartean, behinik behin— *T* simetrikoranzko aldaketarik. Are gutxiago, euskaldunen multzo osoa gogoan hartzen bada, orduan joera garbi-garbia somatzen baita kortesiazko tratamendu elkarrekikoa (*V-V*) orokortzeko.

Vren aldean hitanoa tratamendu-aukera markatutzat jo behar bada, toketarekin alderatuz gero beste hainbeste esan daiteke noketari buruz. Hau da, hiketa biak —toketa eta noketa— lagunarteko tratamenduak izanik ere, ez dira zeharo parekoak, nolabait esatearren noketa «lagunartekoagoa» delako. Noketaren izaera markatua alde bitatik dator: hiztun gutxiago izatetik (euskaldun hikatzaileen %65,7) eta testuinguru gutxiagotan erabilia izatetik. Hortaz,

[5] Ez dirudi gizarte-maila aldagai garrantzitsua denik.

toketa/noketa bereizketa ezinbesteko bihurtzen da euskal tratamenduen erabilera aztertzerakoan. Gainera, emakumeen bakarrizketak eta animaliekiko jokaerak noketaren izaera markatuagoa frogatzen digute. Lagunarteko bi tratamendu hauen (toketa/noketa) erabileran funtsezko aldakuntzak eta berregituraketak (ekialdeko behe-nafarreraz, adibidez) mamitzen ari direlakoan gaude. Zentzu horretan, toketa eta noketaren erabilera edo erabilerarik eza euskalkien bereizgarri «berriak» izatera hel litezke denboraren poderioz. Sortaldeko euskalkietako hiztunak tokatzaileenak badira ere, ezin esan dezakegu gauza bera noketari gagozkiola. Noketak hegoaldeko erdialdeko euskalkietan irauten du hobekien.

Beroriketa hikako tratamendu biak baino are markatuagoa da. Iparraldean ezezaguna den tratamendu hau galdutzat eman daiteke, zahar-zahar batzuetatik kanpo inor gutxik erabiltzen duelako. Salbuespenak salbuespen, gaur egun, apaizarekin baino ez da erabiltzen, baina duela zenbait hamarkada zabalagoa izan omen zen bere erabilera-eremua (mediku, albaitari, maisu eta gainerako jende ikasiak osatua). Beroriketak, euskararen gainontzeko tratamendu guztiek ez bezala, nahitaez islatzen du mailazko menpekotasuna, beroriketa simetrikoa ez baita aukera erreala edo gertagarria. Tratamendu honi asimetria datxekio, inoizko asimetriarik handiena, hain zuzen ere; eta seguru asko izaera asimetriko horrek bere zabalkundearen aurka jokatuko zuen. Bere iraganaz ezer gutxi dakigun arren, azken mende honetako galtze-bilakaera azkarra ikusita, zalantzan gaude beroriketak inoiz erro sakonak izan ote dituen euskal gizartean.

XX. mendearen bukaeran, funtsean, zutik dirau Bonapartek duela mende bat baino gehiago sortaldeko euskalkietako tratamendu-eremuez emandako ikuspegi orokorrak. Geure inkestagintzaren bidez, frogatutzat jotzen dugu Bonaparteren zedarriketa orokorra, zenbait xehetasunez, hala ere. Batetik, mende baten buruan Donibane-Garazin eta inguruko zenbait herritan galdu egin da zutanoa eta ekialdeko behenafarreran atzeraka dabilela ematen du, gazteriak eztabadara lerratzeko joera garbia baitu; bestetik, xuka alokutiboaren eremuari Luzaide, Arnegi eta Lasa (MBN) gaineratu behar dizkiogu sartaldetik eta Aiñharbe (Z) sortaldetik. Bestalde, Aezkoan badira «zuketa» eta «xuketa» tratamenduak, baina Bonapartek zehaztu zuenez ez dira alokutiboak.

Xuka alokutiboaren balioari bagagozkio, lehenik, esan dezakegu tratamendu «familiartekoa» dela, eta hori hitzaren zentzu hertsienean; bigarrenik, salbuespenak salbuespen (ezkondu eta ezkongaien kasuan bezala edo bestelakoetan Garaziko eskualdean) emakumeei zuzendutako tratamendua dela azpimarkatu behar da. Azpimarkatzekoa da, era berean, xukako tratamenduan askoz ere asimetria gutxiago gertatzen direla adin-desberdintasunaren ondorioz. Familian, adibidez, mutikoekin T/V (TOKA/XUKA...) asimetria nagusitzen den bitartean, neskatoekin joera simetriaranzkoa da, elkarrekiko xukaren bitartez (XUKA/XUKA). Oro har, familia barruan xukak zeregin bikoitza betetzen duela dirudi: bitarteko tratamendu hurbilgarriaren zereginaz gain (konfiantzazko senide nagusiagoekin), lagunarteko tratamenduarena (parekoen artean). Familiatik kanpo, ordea, erabat lagunartekotzat jo daiteke, nagusiki noketaren ordez

erabiltzen delako. Zentzu horretan guztiz egokia da Lafitteren oharkizuna, xukari etxekotasun handia datxekiola dioenean. Itxura guztien arabera, xuka noketaren ordez erabiltzea ez da kontu berria. Hala ere, Bonaparteren garaitik hona asko zabaldu da xukako joera; gaur egun, noketaren ordezkapena eta xukaren aldeko joera ez da Arberoako hizkeraren ezaugarria, gertakari nahiko orokorra baizik.

Izenordain-kopurua (*hi, xu, zu, berori*) eta alokutibotasuna (+/-) kontuan harturik euskarak sor zitzakeen zortzi tratamenduetatik sei besterik ez dira garatu: hitanoa (tokanoka alokutiboa), eztabada, beroriketa, zutanoa (alokutiboa), xuka (alokutiboa) eta xuka ez-alokutiboa. Ez dago beroriketa alokutiborik eta, kontradibideren bat edo beste gorabehera, hitano ez-alokutiborik ere ez, literatura-tradiziorik onena, gure inkestagintza eta hiztunaren euskal sena aukera sortu berri horren aurka mintzo baitira. Sei solas-maila hauek kontuan harturik, hamaika tiporen beharrizana ikusten dugu hizkera-aniztasunaren berri emateko (cf. X. kapt. IV. taula). Dena den, erabileraren ikuspegitik eta alokutibotasunaren abstrakzioa eginez, lehengo eskema korapilatuko hamaika sistema eta azpisistemak hurrengo bost tipo nagusietara bil daitezke[6] (cf. X. kapt. V. taula): lehena, L, MBN, Z eta Amikuze biltzen dituen sistema bikoitza, *HI* eta *ZU* izenordainetan oinarritua; bigarrena, mendebaldeko euskalkiak biltzen dituen sistema hirukoitza, *HI, ZU* eta *BERORI* izenordainez hornitua; hirugarrena, Garaziko eskualdeari dagokion sistema hirukoitza (leku batzuetan inoiz laukoitza izan daitekeena), *HI* meharraz, *XU* laxo, zabal eta kortesiazkoaz eta *ZU* mehar-errespetuzkoaz osatua; laugarrena gainerako EBNei dagokie eta formaz aurrekoa bezalakoxea bada ere, erabileraz *XU* mugatuago batez eta *ZU* zabalagoaz bereizten da aurreko EBNtik; bosgarrena, azkenik, erronkarierarena da eta guztiz berezia da aurrekoen aldean, *ZU* alokutibo/*ZU* ez-alokutibo aurkakotasunean[7] oinarritzen den sistema laukoitzaren jabe delako (hitanoa, zutanoa, eztabada eta beroriketa). Bestalde, etorkizunari begira eta ikuspegi orohartzaile-bakuntzaile batetik, funtsean bi tratamendu-sistema nagusitzen ari direla ematen du: EBNzkoa, *HI, XU* (zabalago edo meharragoa) eta *ZU* (zabalago edo meharragoa) hirukotean oinarritua, alde batetik; eta gainerako euskalkiena, bestetik, *HI* eta *ZU* bikoiztasunaz osatua.

[6] Nolanahi ere, ohartarazi beharra dago hizkera baten barruan hiztunaren arabera paradigma-aniztasuna dagoela; hots, hiketa eta beroriketa tratamenduen bizi-arnas ahularen ondorioz, hizkera guztietan badira paradigma «soildu» edo «bakunduez» baliatzen diren hiztun ugari.

[7] EBNz ere aurkakotasun hori inoiz gertatzen da, baina izaera berezia du: zutanoaz baliatzen diren herrietan, eguneroko jokaeratik aldenduz, eztabadara jo dezakete egoera berezi batzuetan —kanpotarrekiko harremanetan, adibidez— beren hizkera berezia ezkutatzeko edota solaskidearen mintzamoldera egokitzeko.

# BIBLIOGRAFIA


ALBA DE DIEGO, V.; SANCHEZ LOBATO, J. (), «Tratamiento y juventud en la lengua hablada. Aspectos sociolingüísticos», *Boletín de la Real Academia Española,* 95-129.

ALBERDI, J. (1986a), «Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat», Donostia, *ASJU,* 149-202.

— (1986b), «Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II. Markinaldeko kasua», Donostia, *ASJU,* 419-486.

— (1989), «Euskararen morfologiazko ikerketak (1900-1936)», *ASJU,* XXIII-3, 769-796.

— (1991), «Hikako tratamenduaren balore sozio-afektiboak», *Fontes Linguae Vasconum, Studia et Documenta,* 1993, 64, 425-442.

— (1994), «Euskararen tratamenduak: bilakaera», *Fontes Linguae Vasconum, Studia et Documenta,* 1994, XXVI, 67 zk., 401-433.

— (1995), «The Development of the Basque System of Terms of Address and the Allocutive Conjugation» in J.I. HUALDE (arg.) *Towards a History of the Basque Language,* J. Benjamins, Amsterdam-Philadelphia. 275-293.

ALCOVER, A.M. (1930), *Diccionari català-valencià-balear,* Palma de Mallorca, Mn. Alcover.

ALRABAA, S. (1985), «The Use of Address Pronouns by Egyptian Adults: A Sociolinguistic study» in *Journal of Pragmatics,* 9, 5, Nov, 645-657. (Netherlands).

— (1987), «Social Usage of Address in Egypt: A Sociolinguistic Study» in *Zeitschrift fur Arabische Linguistic,* 16, 123-129.

ALTMANN, G. AND RISKA, A. (1966), «Towards a typology of courtesy in language», *Anthropological Linguistics,* 8, 1-10.

ALTUBE, S. (1934), *Observaciones al Tratado de «Morfología Vasca» de don R.M. de Azkue,* (Azkueren *Morfologia Vasca*ren 1969ko argitarapenean, 3. liburukia).

ALTUNA, P. (1980): ikus Etxepare (1545).

ALTUNA, P. (1992), «Cortesía», *ASJU,* XXVI-1, 119-143.

ALTZIBAR, X. (1984), «Mogeldarren alegiak», BATZUEN ARTEAN, *Euskal alegigintza,* Bilbo, Labayru, 87-99.

— (1992), *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, idazlanak, grafiak,* Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia.

ALLIERES, J. (1960-61), «Petit Atlas Linguistique Basque Français Sacaze», *Via Domitia,* VII (1960), 206-211 + 15 mapa, VIII (1961), 82-126, I-IX + 68 mapa.

ANDRY, M. (1692), *Réflexions ou remarques critiques sur l'usage présent de la langue françoise* (2ond ed., Paris).

AÑIBARRO, P. (-1820), *Gramática Bascongada (-1820),* L. Villasanteren edizioa, ASJU, III, 1969.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, ETONOLOGI MINTEGIA (1983), *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa -EAEL-,* Muniberen eranskina, Donostia.

ARTOLA, K. (1977), «Erronkariko uskararen azken hatsak...oino're», *FLV,* 25, 75-107.

— (1991), «Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra», *FLV,* 247-281.

AULARD, A. (1914), *Etudes et leçons sur la Révolution française,* Paris.

AZEVEDO, M.M. (1981), «Sobre o emprego de vôce no português brasileiro actual», *Hispania,* USA, 64, nº2, 273-278.

AZKUE, R.M. (1891), *Euskal Izkindea-Gramática Eúskara,* Bilbo, José de Astuy.

— (1905-1906), *Diccionario vasco-español-francés,* 2 liburuki, Tours. (2. argitaraldia, Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca).

— (1923-25), *Morfología Vasca (Gramática básica dialectal del euskera),* [=Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca].

— (1927), «Aezkera», *Euskera,* 8, 179-300.

— (1932), *Particularidades del dialecto roncalés,* Bilbao. (ikus 31-37.orr.)

— (1935, 1942, 1945, 1947), *Euskalerriaren yajintza,* 4 liburuki, Espasa Calpe, Madrid. 2. liburukia (*Ipuin ta irakurgaiak*), (2. argitaraldia, Madrid, 1966).

BADIA I MARGARIT, A.M. (1962), *Gramática catalana,* Madrid, Gredos. [Inoiz, 1980ko argitaralditik aipatzen da].

— (1974), «Procés i objectius de la sociolingüística catalana», *Iberromania,* 1, 19-30.

BAKOS, F. (1955), «Contributions à l'étude des formules de politesse en ancien français», *Acta Linguistica Hungaricae,* 5, (1955), 296-367.

BARRENETXEA, A.M. (1964), *El pronombre y su inclusión en un sistema de categorías semánticas,* Buenos Aires: CEFYL-FUBA, N°5, S.F.

BARTHES, R. (1971), «Ecrivans, Intellectuels, Professeurs», Tel quel, n° 47, automne.

BASTO, C. (1931), «Formas de tratamento em português», *Revista Lusitana,* 29, 183-202.

BATES, E. AND BENIGNI, L. (1975), «Rules of address in Italy: a sociological survey» in *Language in Society,* 4(3), 271-288.

BAUMGARDNER, R.J. [résumé de thèse par l'auteur] *Dissert. Abstr. internat.,* USA, 1982, 43, n°3, 785. BAUMGARDNER, R.J., *Sociolinguistic Aspects of Person Pronouns of Address: A Macro/Micro Analysis.* Univ. of Southern California, 1982.

BAUMGARDNER, R.J. (1982), *Sociolinguistic Aspects of Person Pronouns of Address: A Macro/Micro Analysis.* Univ. of Southern California.

BAUTISTA, M^ L.S. (1980), «Address in Pilipino Radio Dramas: Alternation and Co-occurrence Rules» in *Philippine Journal of Linguistics,* 11, 2, Dec, 44-63.

BEFU, H. AND NORBECK, E. (1958), «Japanese usages of terms of relationships» in *Southwestern Journal of Anthropology,* 14, 66-86.

BELOQUI, J.J., ELOSEGUI, J., SANSINENEA, P. ETA MICHELENA, L. (1953), «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», *BAP,* 9, 499-536.

BELLEGARDE, L'abbe de [J. B. Morvan de] (1697), *Réflexions sur le ridicule,* 2ond ed., Paris.

BENVENISTE, E. (1946), «Structure des rélations de personne dans le verbe», *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris,* 43, 1-12 (Baita in Benveniste (1966), *Problèmes de linguistique générale,* 225-236).

BENVENISTE, E. (1964), *Problèmes de linguistique générale,* NRF.

BLANCO BOTTA, I. (1982), «El voseo en Cuba: estudio sociolingüístico de una zona de la isla» *Beiträge zur Romanischen Philologie,* DDR, 21, n° 2, 291-304.

BONAPARTE, L.L. (1862a), *Langue basque et langues finnoises,* Londres, 1862.

— (1862b), *La prophétie de Jonas,* Londres.

— (1869a), *Le verbe basque en tableaux,* Londres.

— (1869b), El salmo quincuagésimo, Londres.

— (1878), *Parábola del sembrador,* Londres.

BOUDA, K. (1948), «Les formes respectueuses du verbe mixain», *Eusko Jakintza,* 2, 595-615.

BRAUN, F.; KOHZ, A.; SCHUBERT, K. (1986), *Anredeforschung. Kommentier-*

*te Bibliographie zur Soziolinguistik der Anrede,* in the series Ars Linguistica 16, Commentationes analyticae et criticae, ed. by Werner Winter, published in 1986 by Gunter Narr Verlag of Tübingen.

BRAUN, F.; KOHZ, A.; SCHUBERT, K. (1988), «Supplement to Braun/Kohz/Schubert 1986». In Friedricke BRAUN, *Terms of Address: Problems of patterns and usage in various languages and cultures.* (Contributions to the Sociology of Language, no.50). Berlin: Mouton de Gruyter, [333-365].

BRAUN, F. (1988), *Terms of Address: Problems of patterns and usage in various languages and cultures.* (Contributions to the Sociology of Language, no.50). Berlin: Mouton de Gruyter.

BRYAN, A.M. (1972), «Le 'tu' et le 'vous'», *The French Review,* XLV, 5, april 1972, 1007-1010, USA.

BROUWER, D. (1982), «The influence of the Addresse's Sex on Politeness in Language Use», *Linguistics. An Interdisciplinary Journal of the Language Sciences,* La Haya, 20, nº11-12, 697-711.

BROWN, P. AND LEVINSON, S.C. (1987), *Politeness: Some Universals in Language Usage,* Cambridge University Press, 03/.

BROWN, R.; GILMAN, A. (1960), «The pronouns of power and solidarity» in T.A.Sebeok (1960, 253-276). Baita in P.P.Giglioli (1972, 252-282). Gu geu bigarren argitarapen honetaz baliatu gara.

BROWN, R.; FORD, M. (1961), «Address in American English» in *Journal of Abnormal and Social Psychology,* 62, 2, 375-385. [Baita in Dell Hymes (ed.), *Language in Culture and Society,* New York-Evanston-London, 1964, 234-244].

BROWN, R. AND FORD, M. (1964), «Address in American English», (D.Hymes (ed.), *Language in Culture and Society,* Harper and Row 1964, 234-244.

BROWN, R. (1965), *Social Psychology,* New York, Free Press. [Ikus «The basic dimensions of interpersonal relationship» kapitulua]

— (), «Los pronombres de poder y solidaridad», *Psicolingüística,* México, Trillas, 301-330.

BRUNOT, F. (1966), *Histoire de la langue française,* Paris.

BUXO REY, M.J. (1973), «Procesos de cambio y regresión en formas apelativas: un modelo analítico en Cataluña», *Etnica* (Barcelona) 5, 17-59.

BYRNE, SISTER ST G. (1936), *Shakespeare's use of the pronoun of address,* dissertation (tesi argitaragabea), Catholic University of America, Washington.

CALVET, L.J. (1976), «A tu et a vous» in *Le Français dans le Monde,* 1976, 15, 118, Jan, 14-18.

CAMINO, I. (1995), *Aezkera: Dialektologi Azterketa, Gasteiz.* Doktorego Tesia (argitaragabea).

CAPANAGA, O. (1656), *Exposición breve de la doctrina christiana,* Bilbao.

CAPART, L. (1857), *Tutoiement et vouvoiement,* Paris.

CAPDEVILLA, A. (1927), «El *tú* y el *vos* en América», *La Prensa,* Buenos Aires, 20 febr. 1927.

— (1929a), «El embrollado problema del *tú* y el *vos*», *Babel y el castellano,* 2ª ed., Buenos Aires, 69-80.

— (1929b), «El *tú* y el *vos* en los clásicos», *Babel y el castellano,* 2ª ed., Buenos Aires, 81-94.

— (1929c), «El *tú* y el *vos* en la Argentina», *Babel y el castellano,* 2ª ed., Buenos Aires, 95-108.

CASTILLO MATHIEU, N. DEL (1982), «Testimonios del uso de 'vuestra merced', 'vos' y 'tu' en América (1550-1650)» in *Thesaurus,* 37, 3, Sept-Dec, 602-644.

CICCUTTO, M. (1976), «C.r. de: NICULESCU, A., *Structure allocutive pronominalli reverenziali in italiano».* L.S. Olschki, Firanze, 1974. 168 p. Annali della Scuola Normale Superiore di Pisa, Pisa, Ital. (1976), 6, nº4, 1509-1511.

CINTRA, L. (1967), «Origem do sistema de formas de tratamento do português actual», *Broteria,* 84, 49-70.

— (1972), *Sobre «formas de tratamiento» na língua portuguesa*[2], Lisboa (2. argitaralditik —1986— aipatzen da).

CLEMMER, R.O. (1968), «German pronominal address» in J.Helm, *Proceedings of the 1967 Spring meeting American Ethnological Society,* Georgetown University Press, 76-110.

CLYNE, M. (1973), «On some patterns of communicative competence in West Germany», in AUMLA. *Journal of the Australian Universities Language and Literature Association,* 40, 211-218.

COMRIE, B. (1975), «Polite plurals and predicate agreement», *Language* 51 (2), 406-418.

— (1976), «Linguistic politeness axes: speaker-addressee, speaker-referent, speaker-bystander», Cambridge, Univ. of Cambridge, (Department of Linguistics), Pragmatics Michrofiches, 1.7.A3.

— (1981), *Language Universals and Linguistic Typology. Syntax and Morphology,* Chicago, University of Chicago Press.

COMRIE, B.; STONE, B. (1978), *The Russian Language since the Revolution,* Oxforf, Oxford University Press.

CONANT, F.P. (1961), «Jarawa kin system of reference and address», *Anthropological Linguistics,* 3, 2, 19-33.

CONSTABLE, D. (1980), «Power and Solidarity in Francophone Africa: The case of Mali» in *Indian Linguistics,* 41, 1, MAr, 16-20.

CORBETT (1976), «Address in Russian», *Journal of Russian Studies,* 31, 3-15.

COROMINAS, J. (1980-1991), *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico,* Madrid, Gredos. [ik. «vos» sarrera].

CURME, G.O. (1905), *A grammar of the German language,* New York, Macmillan.

CHAHO, Y.R. (1956), «Chinese terms of address», *Language= Journal of the Linguistic Society of America,* Volume 32, number 1, 217-241.

CHANDRASEKHAR, A. (1972), «Personal pronouns and pronominal forms in Malayalam», *Anthropological Linguistics,* 12, 7, 246-255.

CHART, J.E. (1943), «The *voseo* and the *tuteo* in America», *MLF (The Modern Language Form,* Los Angeles, California), XXVIII, 17-24.

CHATELAIN, E. (1880), «Du pluriel de respect en Latin», *Revue de Philologie,* vol.4, pp. 129-139.

DABA, H.A. (1987), *Sociolinguistic Study of Address Terms in Hausa (Muslim),* The University of Wisconsin- Madison (0262) Degree:PHD.

DANESI, M.; LETTIERI, M. (1983), «The pronouns of Address in Italian: Sociolinguistic and Pedagogical Considerations» in *Studi Italiani di linguistica teorica e applicata,* 12, 1-3, 323-333.

DAS, S.K. (1968), «Forms of address and terms of reference in Bengali», *Anthropological Linguistics,* 10, 79-95.

DAUZAT, A. (1912), *La défense de la langue française,* Paris.

DELISLE, H.H. (1986), «Intimacy, Solidarity and Distance: The Pronouns of Address in German» in *Die Unterrichtspraxis,* 19, 1, spring, 4-15.

DOS SANTOS LUZ, M. (1956), «Fórmulas de tratamento no português arcaico», *Revista Portuguesa de Filologia,* 7, 251-263.

DUARTE, C. (1986), *Llengua i administració,* Barcelona, Edicions de la Magrana.

DUARTE, C.; BROTO, P. DE (1990), *Introducció al llenguatge jurídic,* Generalitat de Catalunya.

DUNY PETER, P. (1959), «Trois textes folkloriques basques de Basse-Navarre Orientale», *BAP,* XV (1959), cuaderno 1°, 47-60.

ECHAIDE, A.M. (ed.) (1984), *Erizkizundi Irukoitza. Triple Cuestionario. Triple Questionnaire* (euskara 1925), Bilbo, Euskaltzaindia.

ERVIN-TRIPP, S. (1972a), «On sociolinguistics rules: alternation and coocurrence» in J.J.Gumperz and D.Hymes (1972), *Directions in Sociolinguistics,* 213-250, Holt, Rinehart, Winston.

— (1972b), «Sociolinguistics rules of address» in J.B.Pride and J.Holmes, *Sociolinguistics,* 225-240, Penguin Books.

ETXEPARE, B. (1545), *Linguae Vasconum Primitiae,* P. Altunak paratutako edizio kritikotik aipatzen da (1980, Bilbao, Mensajero).

EUSKALTZAINDIA (1981), *Iker-1,* Bilbo.

— (), *Iker-2,* Bilbo.

— (1985), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak,* Iruñea, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

— (1987), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-II,* Bilbo, Euskaltzaindia.

— (1993), *Euskal Gramatika: Perpaus Bakuna,* Bilbo, Euskaltzaindia.

EVANS-PRITCHARD, E.E. (1948), «Nuer modes of address», *The Uganda Journal,* 12, 166-171. (Baita ere, D.H.Hymes (comp.) (1964), *Language in culture and society: A reader in linguistics and anthropology,* New York: Harper and Row, 234-244.)

EVANS, W. (1977), «You and Thou in Northern England», *Papers in language variation,* 93-102, ed. by David Shores and Carol P. Hines. SAMLA-ADS Collections. University: University of Alabama Press.

EYSENCK, H.J. (1957), *Sense and Nonsense in Psychology,* Harmondsworth, Middlesex, Penguin.

FABRA, P. (1912), *Gramática de la lengua catalana,* Barcelona, Massó, Casas, y Ca.

FABRA, P.; COROMINAS, J. (1990), *Gramática catalana,* Barcelona, Teide (14. argitaraldia).

FAGOAGA, B. (1961), «Algunas frases inéditas del euskera antiguo», *Euskera,* 6, 27-29.

FANG, H.Q. AND FEN, J.H. (1983), «Social changes and changing address norms in China» in *Language in Society,* 12(4), 495-509.

FAY, P.B. (1920), «The use of tu and vous in Molière», *University of California Publications in Modern Philology,* vol.8, Berkeley, 227-286.

FINKENSTAEDT, T. (1975), *You and Thou,* Oxford University Press, London.

FISCHER, J.L. (1964), «Words for self and others in some Japanese families» in *American Anthropologist,* 66 (6), part 2, 115-126.

FLORISTAN IMIZCOZ, A. (1993), «Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos», *FLV,* 63, 177-219.

FORD, J.C. (1974), «The Semantics of Directs Address Pronouns in French», *The French Review,* 47, 1.142-1.157.

FOSTER, J.F. (1976), «Linguistic universals and the tenacity of *thou*»,

Paper presented at the 75th Annual Meeting, American Anthropological Association, Washington, D.C., 21 Nov. 1976.

FOULET, L. (1918-1919), «Le tutoiement en ancienne français», *Romania,* 45, (1918-1919), 501-503.

— (1951), «Sire, messire», *Romania,* 71 (1951),, 328, 528.

FRIEDRICH, P. (1962), «The evolution of Russian kinship», MS.

FRIEDRICH, P. (1964), «Semantic structure and social structure: an instance from Russian», in Ward H. Goodenough (ed.) (1964), *Explorations in Cultural Anthropology, Essays in Honor of George Peter Murdock,* New York, McGraw-Hill, 131-166. or.

— (1966), «Structural Implications of Russian Pronominal Usage» in W.O.Bright (1966), *Sociolinguistics,* The Hague-Paris, Mouton, 214-259.

— (1972), «Social context and semantic feature: The Russian pronominal usage». *Directions in Sociolinguistics. The ethnography of comunication,* ed. by John I. Gumperz and Dell Hymes, New York: Holt, Rinehart and Winston, 270-300.

GARCIA AZURMENDI, R.; ARREGI URIZAR, K. (1981), «Hikako aditz-joko alokutiboa bizkaieraren ekialdeko subeuskalkian (Markina aldea)», *FLV,* 38, 23-65.

GARZIA, J. (1992), «Usarioarekin borrokan», *Euskaldunon Egunkaria,* 1991-9-13, 2. orr.

GARDNER, E.F.; MARTIN, S.E. (1952), *Honorific and Familiar Speech in Japanese,* New Haven, Connecticut, Yale University.

GAVEL, H. (1928), «Appendice: Note additionnelle au § 117. Usage du traitement et du pronom zu», *Grammaire Basque* 1.lib. (Aipamena Gure Herria VI, 555-559.)

GEDIKE, F. (1794), Uber «Du» und «Sie» in der deutschen Sprache, Berlin, Unger.

GEREÑO, X. (1992), «Hitanoa», *El Mundo del País Vasco,* 24-9-1991.

GOLD, D.L. (1978), «Pronouns of Power and Solidarity in Six Jewish Languages: Hebrew, Aramic, Yahudic, Dzhudezmo, Yiddish, and Italkian: A preliminary Statement» in *Geolinguistics,* 4, 59-76.

GOODY, E.N. (1978), *Questions and Politeness: Strategies in Social Interaction,* C. University Press; Cambridge Papers in Social Anthropology; N° 8.

GRAND, C. (1930), *'Tu, voi, lei': étude des pronoms allocutoires italiens,* Inge(n)bohl, P.Theodose.

GRANDIA, M. (1901), *Gramàtica etimològica catalana,* Barcelona.

GREGERSEN, E.A. (1974), «The signaling of social distance in African languages», *Language in its social setting,* ed. by Gage (1974), 47-55, Washington, D.C.

GUITER, H. (1959), «L'extension sucessive des formes de politesse», *Actas I, 9th Congreso Internacional de Linguística Românica, [=Boletim de Filologia,* 18, 1959; = Lisboa; Centro de Estudos Filológicos, 195-202].

HAMMERMÜLLER, G. (1980), «Vôce é estrubaria?», Iberoromania, Alemania, nº 12, 30-40.

HASSANAIN, K.S.A. (1988), *A Sociolinguistic Study: Address Rule System in the Western Region of Saudi Arabia,* University of Illinois at Urbana-Champaign (0090) Degree: PHD.

HAUGEN, E. (1975), «Pronominal address in Icelandic: From you-tow to you all», *Language in Society,* 4, 323-339.

HAUGEN, E. (1978), «Norwegian forms of Address» in *Studia Linguistica,* 32, 1-2, 91-96.

HEAD, B.F. (1976), «Social factors in the use of pronouns for the addressee in Brazilian Portuguese», Readings in Portuguese Linguistics, ed. by J. Schmidt-Radefeldt, Amsterdam: North-Holland, 289-348.

HEAD, B.F. (1978), «Respect degrees in pronominal reference» in J.H. Greenberg and C.A. Ferguson and E.A. Moravcsik, *Universals of human language,* 3, 151-211.

HENRIQUEZ UREÑA, P. (1921), «Distribución geográfica del voseo» en «Observaciones sobre el español en América», RFE, VIII. 389-390.

HEYMAN, M. (1972), «Qualche osservazione sull'uso dei pronomi allocutivi nella lingua parlata di oggi», *Moderna Sprak,* 66, 54-63.

HILL, J.H. AND HILL, K.C. (1978), «Honorific usage in modern Nahuatl: the expression of social distance and respect in the Nahuatl of the Malinche. Volcano Area», *Language,* 54 (1), 123-155.

HOBEN, S. J. (1976), «The meaning of the second-person pronouns in Amharic», *Language in Ethiopia,* ed. by Bender et al., 281-288.

HOLLOS, M. (1977), «Comprehension and use of social rules in pronoun selection by Hungarian children» in S.Ervin-Tripp and C. Mitchell-Kernan (1977), *Child discourse,* 211-223, New York.

HOOK, D.D. (1974), «Sexism in English pronouns and forms of address» in *General Linguistics,* 14, 2, Sum, 86-96.

INOUE, J. (1971), «Innovating Uses of Japanese Honorifics and Polite Forms» in *Papers in Japanese Linguistics,* 3, 19-41.

INZA, D. DE (1921-1922), «Naparro'ko aditz laguntzallea. Zuketako esakeran», *Euskera,* II (1921), 2º, 3-35; *Euskera,* III (1922), 2º, 65-92.

IONESCU-RUXANDOIU, L. (1982), «Some Lingyuistic Problems of the Address Forms in Romanian» in *Revue Roumanie de Linguistique,* 27, 3, May-June, 249-253.

IRIGARAY, A. (1933), «El euskera en Zufía», *RIEV,* 24, 34-36.
— (1934), «Promesa de matrimonio en euskera», *Yakintza,* 81, 130.
— (ed.) (1958), *Prosistas navarros,* Iruñea, institución Príncipe de Viana.

IRIGOYEN, A. (1957a), «Cartas de Inchauspe al Príncipe Bonaparte», *Euskera,* 2, 171-260.
— (1957b), «Cartas de Mariano Mendigatxa a D. Resurrección Mø de Azkue. Escritas en vascuence roncalés y en castellano», Euskera, 2, 119-170.

ISAZA CALDERON, ISAZA ( ), «Orígen Español del Tratamiento de Vos», *Yelmo,* 19, 39-40.

IZAGIRRE, C. (1959), *Erronkari.*

JAIN, D.K. (1969), «Verbalization of respect in Hindi» in *Anthropological Linguistics,* 11 (3), 79-97.

JENSEN, J.B. (1981), «Forms of address in Brazilian Portuguese: standard European or oriental honorifics?» in *From Linguistics to literature: romance studies offered to Francis M. Rogers,* Hg. Bernard H. Bichakjian. Amsterdam, Benjamins, 45-66.

JOHNSTON, O.M. (1904), «The use of "ella", "lei" and "la" as polite forms of adress in Italian», *Modern Philology,* vol.1, 469-475.

JONES, G.E. (1984), «L2 Speakers and the Pronouns of Address in Welsh», *Journal of Multilingual and Multicultural Developement,* 5, 2, 131-145.

JOSEPH, J.E. (1987), «Subject Relevance and Deferential Address in the Indo-European Languages», *Lingua,* NLD, 73, nº 4, 259-277.

JUCQUOIS, G. (1977), «Variants sociolectiques du système pronominal de la deuxième personne en français contemporain», *CILL 4 (1977),* 3-4, 115-118.

KANY, CH.E. (1945), «The *voseo*» in Ch.E. Kany, *American-Spanish Syntax,* Chicago: Univ. of Chicago Press.[= bigarren argitaraldia 1951, hirugarrena, 1963]

KARUNATILLAKE, W.S. AND SUSEENDIRARAJAH, S. (1974), «Pronouns of address in Tamil and Sinhalese. A sociolinguistic study», *International Journal of Dravidian Linguistics,* 4, 83-96.

KELLER, G.D. (1974), «La norma de solidaridad y la de poder en los pronombres de tratamiento: un bosquejo diacrónico y una investigación del español de Nueva York» in *The Bilingual Review/ LA revista bilingue,* 1, 1, Jan-Apr, 42-58.

KEMPF, R., (1985), «Pronouns and terms of address in Neues Deutschland», *Language in Society,* 14, 223-237.

KENDAL, M.B. (1981), «Toward a Semantic Approach to Terms of Address: A Critique of Deterministic Models in Sociolinguistics» in *Language and Communication,* 1, 2-3, 237-254.

KENNEDY, A.G. (1915), *The Pronoun of Address in English Literature of the Thirteenth Century,* Stanford University Press.

KESS, J.F. (1973), «Respectful address in Tagalog: A preliminary study», *Cahiers linguistiques d'Ottawa* VII, 17-24.

KESS, J.; JURICIC, Z.B. (1978), «Slovene Pronominal Address forms: Rural vs. Urban Sociolinguistic Strategies» in *Anthropological Linguistics,* 20, 7, Oct, 297-311.

KIDDLE, L.B. (1954), «Some Social Implications of the Spanish voseo», *MLJ (Modern Language Journal,* National Foundation of Modern Language Teachers Association, Menasha, Wisconsin), XXXVII, 50-54.

KINTANA, X. (1992), «Anuntxi Aranari emalegez», *Euskaldunon Egunkaria,* 1992-IV-1, 3.or.

KIRK, R.Y. (1979), [tesi-laburpena] Dissertation *Abstracts International,* Section A, USA, 1979, 40, n° 3, 14446-1447. Tesia: KIRK, R.Y.: *Forms of Address in Russian: a Sociolinguistic Analysis,* Etats Units: Univ. of Pennsylvania, 1979, 385 p.

KIRK, R.Y. (1979), *Forms of Address in Russian: a Sociolinguistic Analysis,* Etats Units: Univ. of Pennsylvania, 1979, 385 p. PH.D.

KISANG, L. (1973), «Algunos aspectos sicolingüísticos y sociolingüísticos en el lenguaje de cortesía del idioma japonés» in *Lenguaje y Ciencias* 1973, 13 (1), 19-22.

KNÖRR, E. (1977), «Hiketa edo hitanoaz zenbait argi», *Euskera,* 2, 701-719.

KOCHER, M. (1967), «Second person pronouns in Serbo-Croatian» in *Language,* 43, 725-741.

KRIDALAKSANA, H. (1974), «Second participant in Indonesian address», *Language Sciences,* 31, 17-20.

KROEBER, A.L. (1909), «Classificatory systems of relationship» in *Journal of the Royal Anthropological Institute,* 39, 77-85.

LABOV, W. (1966), *The social stratification of English in New York City,* Washington, D.C. Center for Applied Linguistics.

LAFITTE, P. (1977), «Koska eta entterka Heletan», *Euskera,* 22, 138-139.

— (1944), *Grammaire Basque,* (berrargitaratua, Donostia, 1979, Elkar).

LAFON, R. (1943), *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* (2. argitaraldia, Zarautz, 1980, Elkar).

— (1947), «La catégorie de genre grammatical en basque», *Bulletin Hispanique,* 373-394.

— (1951a), «Quelques traits essentiels de la langue basque», BAP, 7, 13-24.

— (1951b), «La langue de Bernard Dechepare», *BAP*, 7, 309-338.
— (1952), «Notes pour une édition critique et une traduction française des Linguae Vasconum Primitiae de Bernard Dechepare, BAP, 8, 139-180.
— (1957), «Remarques sur l'emploi du masculin et du féminin en Basque», *Via Domitia*, 4, 1-10.
— (1959), «Place de la 2e personne du singulier dans la conjugaison basque», *Bulletin de la Sociète de Linguistique*, 54, 103-129.

LAKA, I. (1986a), «Manuel Arriandiagaren berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaieraren Historiaz IV)», *ASJU*, XXI-2an.
— (1986b), «Sabino Arana Goiri eta hiperbizkaiera. (Hiperbizkaieraren historiaz III)», *ASJU* XXI-1.
— (1986c), «Euskal-aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa. (Manuel Arriandiagaren eskuizkribu argitaragabea)», *ASJU*, XXI-3.

LAMBERT, W.E., (1967), «The use of "tu" and "vous" as forms of address in French Canada: a pilot study» in *Journal Verbal Learning Verbal Behavior*, 6(4), 614-617.

LAMBERT, W.E. AND TUCKER, G.R. (1968a), «A social-psychological study of interpersonal modes of address: II. a French illustration», mimeo.
— (1968b), «A social-psychological study of interpersonal modes of address: III. Forms of interpersonal address in Spanish-speaking America. A Colombian survey», mimeo.

LAMBERT, W.E. AND TUCKER, G.R. AND VIERA, S. (1968c), «Asocial-psycological study of interpersonal modes of address: IV. A Puerto-Rican illustration», mimeo.

LAMBERT, W.E. (1970), «A social-psychological study of interpersonal modes of address: III. An illustration from St. Pierre-et-Miguelon», mimeo.

LAMBERT, W.E. AND TUCKER, G.R. (1976), *Tu, vous, usted: a social psychological study of address patterns*, Rowley, Massachusetts.

LAPESA, R. (1962), *Historia de la lengua española*, [Madrid, Gredos, 1980]
— (1969), «Las formas verbales de segunda persona y los orígenes del "voseo", *Actas del tercer Congreso internacional de Hispanistas*, México, 519-531.
— (1970), «Personas gramaticales y tratamientos en español» in *Homenaje a Menéndez Pidal, IV, Revista de la Univ. de Madrid*, 19, 141-167.

LARRAMENDI, M. (1728), *De la antigüedad y universalidad del bascuenze en España*, Salamanca.
— (1729), *El imposible vencido*, Salamanca (Hordago, Euskal Klasikoak, 23).
— (1745), *Diccionario Trilingüe del castellano, vascuence y latín*, 1. liburukia, Donostia, Bartolomé y Montero Impressor.

LÁZARO CARRETER, L. (1990), «La extensión del tuteo» in *El Correo-Español-El Pueblo Vasco* egunkaria, 1990-I-14.

LIN, W.C.J. (1983), «Teaching the Current Pekingese Terms of Addres: A Situational approach» in *Journal of the Chinese Language Teachers Association,* 18, 3, Oct, 71-79.

LIND, G. (1971), «A preliminary study of the pronouns of address in Swedish», *Stanford Occasional Papers in Linguistics,* 1, 101-130.

LITTRÉ, É. (1882), *Dictionnaire de la langue française,* vol.4, Paris [geroago-ko argitarapena, Paris, Welter, 1900].

LIU, CH.A., (1981), «Chinese kinship Terms as Forms of Address» in *Journal of the Chines Language Teachers Association,* 16, 1, Feb, 35-45.

LOMBARD, A. (1974), *La langue Roumaine: une présentation,* Paris, Klincksieck.

LOUNSBURY, T.R. (1913), «Pronouns of address», Harper's Monthly Magazine, 126 [=65, Europeean Edition], 200-206.

LOVE, N. (1987), «Why TU Rather than Vous, in Chretien de Troyes' Le Chevalier de la Charrette?» in *Linguisticae Investigationes,* 11, 1, 115-127.

MAC, M^.I.G. (1967), *El voseo en la literatura Argentina,* Cuadernos del Instituto de Letras, Facultad de FilosofÆa y Letras, Sta. Fe: Universidad Nacional de Litoral.

MALEY, C.A. (1974), *The pronouns of address in Modern Standard French,* Romance Monographs, Incorporated. (Romance Monographs, N° 10)

MALINOWSKI, A. (1983), «The pronouns of Address in Contemporary Judeo-Spanish» in *Romance Philology,* 37, 1, Aug, 20-35.

MARIN, D. (1972), «El uso de Tú y Usted en el español actual», *Hispania,* 55 (december), n°4, 904-908.

MARTIN, S. (1964), «Speech levels in Japan and Korea» in D.H. Hymes (comp.), *Language in culture and society: A reader in linguistics and anthropology,* New York: Harper and Row, 234-244.

MAUPAS, CH. (1618), *Grammaire et syntaxe françoises,* 2. argit., Orléans.

MAYER, G.L. (1975), «The use of *Ty* and *Vy* in Modern Standard Russian», *Slavic and East European Journal,* 19 (4), 435-442.

MBAGA, K.; WHITELEY, W.H. (1961), «Formality and informality in Yao speech», *Africa,* 31, 135-146.

MCLEAN, A.C. (1973), «Modes of address in Nepali» in *Archivum Linguisticum NS* 4, 89-102.

MEDEIROS, S.M.O. (1985), *A Model of Address Form Negotiation: A*

*Sociolinguistic Study of Continental Portuguese*, The University of Texas at Austin (0227) Degree: PHD.

MEHROTRA, R.R. (1977), «Some Common Honorifics in Hindi Address Forms» in *The Eastern Anthropologist*, 30, 4, Oct-Dec, 461-464.

METCALF, G.J. (1938), *Forms of Address in German (1500-1800)*, Washington University Studies, New Series: Language and Literature nº 7.

MICHELENA, L. (1961/1977), *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián. (2. ediziotik aipatzen dugu, Donostia, 1977, Exma. Diputación de Guipúzcoa).

— (1964), *Sobre el pasado de la lengua vasca*, San Sebastián.

— (1964), *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Minotauro.

— (1967), «Notas fonológicas sobre el salacenco», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (ASJU)*, 1, 163-177.

— (1977), *La lengua vasca*, Bilbao, Leopoldo Zugaza.

— (1982), «Un catecismo salacenco», *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 39, 21-42.

— (1986), *Lenguas y protolenguas*, Salamanca, Ediciones Universidad de Salamanca, reimpresión 1986.

— (1987), *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbao, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, Edit. Desclée de Brouwer, S.A. y Ediciones Mensajero, S.A.

— (1988), *Sobre historia de la lengua vasca*, I, Donostia, Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» 10. (2 lib.).

MICOLETA, R. (1653), *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* (2. argitaraldia, Sevilla, 1897, Establecimiento Tipográfico de Francisco de P. Díaz).

MILLS, C. (1988), «In the Social Register: Pronouns Choice in Norwegian and English», *Kansas Working Papers in Linguistics*, USA, 13, 82-94.

MITCHELL, S.A. (1979), «Address and Decision-Making in Modern Swedish», *Anthropol. Ling.*, USA, 21, nº2, 61-69.

MITXELENA, K.: ikus MICHELENA.

MOLES, J.A. (1972): *«Speak as You Can»: Classification of and Behavior Toward Other Persons by Quechua-Spanish Bilinguals in Peru*, unpublished Ph.D. Dissertation, Standford University.

— (1974): «Decisons and Variability: The Usage of Address Terms, Pronouns, and Languages by Quechua-Spanish Bilinguals in Peru» in *Anthropolgical Linguistics*, 16, 442-463.

— (1978), «The Influence of Differential 'Power' and 'Solidarity' upon the Predictibility of Behavior: A Peruvian Example» in *Anthropological Linguistics*, 20, 1, Jan, 38-51.

— (in press, 1978) «What Does One Say to a Naked Lady? Validity, Variability Data Collection, and Behavior: A Peruvian Example», *Journal of Anthropological Research*, 34(2).

MONTAGUT, M. (1973), *Els tractaments en el català medieval,* Barcelona, University bachelor's thesis.

MORRISON, I.R. (1988), «Remarques sur les pronoms allocutifs chez Rabelais» in *Zeitschrift fu Romanische Philologie,* 104, 1-2, 1-11.

MOTA, ATICO F. VILAS BOAS DA (1972), *Fórmulas de tratamento nas línguas românicas:; português e romeno,* Unpublished PH.D. dissertation, University of Sâo Paulo.

MULLER, H.F. (1914), «The use of the plural of reverence in the letters of Pope Gregory I», *The Romanic Review,* vol.5, 68-89.

NAKHIMOVSKY, A.D. (1976), «Social distribution of forms of address in contemporary Russian» in *International Review of Slavic Linguistics,* 1, 79-118.

NATHAN, N. (1956), «Pronouns of Address in the Friar's Tale» in *Modern Language Quarterly,* 17, 39-42.

NELLIS, J.G. (1947), «Sierra Zapotec forms of address» in *International Journal of American Linguistics,* 13, 231-232.

NEUSTUPNY, J.V. ( ), «Politeness patterns in the system of communication» in *Proceedings of the eight international congress of anthropological and ethnological sciences,* 412-419, Tokyo and Kyoto.

NICULESCU, A. (1974), *Structure allocutive pronominalli reverenziali in italiano,* L.S. Olschi, Firanze.

NYROP, K.R. (1925), *Grammaire historique de la langue française,* Paris.

OBILADE, A. (1979), «Pronoun Choice and Social Semantics in a Bilingual Situation with Specific Reference to Nigerian Pidgin and Yoruba», *Africana Manburgensia,* Margburg-AELIA, 1972?, 12, n° 1-2, 3-19.

OIHARTZABAL, B. (1992), «Hikaren morfologia (aurkezpenerako materiale batzuk)», Arrasateko San Frantzisko Xabier ikastolak antolatutako «Hika tratamenduari buruzko ihardunaldietan» emandako hitzaldia (1992-V-25).

— (1993), «Verb Agreement with Non Arguments: On Allocutive Agreement» in J.I. HUALDE (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics,* Amsterdam-Philadelphia, John Benjamins.

OÑEDERRA, L. (1990), *Euskal Fonologia: Palatalizazioa, Asimilazioa eta Hots Sinbolismoa,* Servicio Editorial Universidad del Pais Vasco-Argitarapen Zerbitzua-Euskal Herriko Unibertsitatea.

OREGI, J. (1977), «Birrazterpen bat: hiketa eta zuketa», *Euskera,* 22, 685-699.

PAEZ URDANETA, I. (1981), *Historia y geografía hispanoamericana del voseo,* Caracas, La Casa de Bello.

PALAKORNKUL, A. (1975), «A Socio-linguistic Study of Pronominal Usage in spoken Bangkok Thai» in *International Journal of the Sociology of Language,* 5, 11-41.

PARKINSON, D.B. (1985), *Constructing the Social Context of Communication: Terms of Address in Egyptian Arabic,* Mouton de Gruyter, 12/1985. (Contributions to the Sociology of Language Ser.; Vol.41).

PASQUIER, E. (1621), *Les Recherches de la France,* Paris.

PAULSTON, C.B. (1975), «Language Universals and Socio-Cultural Implications in Deviant Usage: Personal Questions in Swedish» in *Studi Linguistica,* 29, 1-2, 1-15.

— (1976), «Pronouns of Address in Swedish: Social Class Semantics and a Changing System» in *Language in Society,* 5, 359-386.

PENG, F.C.C. (1973), «La Parole of Japanese Pronouns», *Language Sciences,* 25, 36-39.

— (1982), «Sex-Differentiation in Language Variation: A sociolinguistical Contribution to the Language Sciences» in *Language Sciences,* 4, 2 (56), Oct, 131-154.

PÉREZ BOTERO, L. (1975), «Problemas de tratamiento en Español» in *Yelmo,* 23, Apr-May, 32-35.

PHILIPSEN, G. AND HUSPEK (1985), «A bibliography of sociolinguistic studies of personal address», *Anthropological Linguistics,* 27, 94-101.

PINKERTON, A. (1986), «Observations on the Tu/Vos Option in Guatemalan Spanish» in *Hispania,* 69, 3, Sept, 690-698.

PLA CARCELES, J. (1923), «La evolución del tratamiento de Vuestra Merced», *Revista de Filología Española,* 10, 245-280.

POEDJOEDARMO, S. (1968), «Javanese speech levels», *Indonesia,* 6, 54-81.

POP, S. (1948), *Grammaire Roumaine,* Berne, Francke, S.A.

PRINDLE, T.K. (1981), «Polite Forms of Japanese Speech» in *Anthropological Linguistics,* 23, 5, May, 209-214.

REBUSCHI, G. (1981), «Autour des formes allocutives du basque» in Euskaltzaindia, *Iker-1,* 307-321.

— (1984), *Structure de l'énoncé en basque,* Paris, SELAF.

RESTREPO, D. (1948), «El *tú,* el *vos* y el *usted*», *RIEd (Revista Interamericana de Educación,* Bogotá), VII, 20-35.

RHOLFS, G. (1966; 1968; 1969), *Grammatica storica della lingua italiana e dei suoi dialetti,* I (1966), *Fonetica,* II (1968) *Morfologia,* III (1969) *Sintassi e formazione delle parole,* Torino.

RIERA, B. (1935), *Nous estudis de gramàtica catalana,* Barcelona, La Renaixença.

RIJK, R. DE (1991), «Familiarity or Solidarity: The Pronoun *hi* in basque» *RIEV*, 1991-2, (Año 39), XXXVI, 373-378.

ROBERT, C.M. (1917), *Etudes d'idiome et de syntaxe*, Groningue,.

ROBERTSON, J.S. (1982), «The History of the Absolutive Second-Person Pronoun from Common Mayan to Modern Tzotzil» *International Journal of American Linguistics*, 48, 4, Oct, 436-444.

ROBINSON, J.L. (1978), [tesi-laburpena] *Dissertation Abstracts International*, Section A, USA, 39, nº 2, 855. ROBINSON, J.L. (1978), *Verbal Deference in Catalan: a Sociolinguistic Investigation of the Pronouns of Address.* Stanford Univ., 1978, 204 p.

ROBINSON, J.L. (1978), *Verbal Deference in Catalan: a Sociolinguistic Investigation of the Pronouns of Address.* Stanford Univ., 1978, 204 p. (PH.D.)

ROS, A. (1986), «Aditz morfologia historikorako ohar kritikoak: alokuzioa», *Enseiucarrean* 2 (5-54).

ROTAETXE, K. (1988), *Sociolingüística*, Madrid, Síntesis.

RUBIN, J. (1962), «Bilingualism in Paraguay» in *Anthropological Linguistics*, 4, 1, 52-58.

RUSSELL, H. (1981), «Second Person Pronouns in Japanase» in *Sophia Linguistica*, 8-9, 116-128.

SABATINI, F. (1980), *Lingua e linguaggi: Educazione, linguistica e italiano nella scuola media*, Torino, Loescher.

SALABURU, P. (1984), *Arau Fonologikoak. Hizkuntz Teoria eta Baztango Euskalkia: Fonetika eta Fonologia*, 2 lib., Bilbao, EHU,

SAMPER, P.J. (1833), «Curiosidades euskaras. Carta escrita en el subdialecto salacenco al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, por D. Pedro José Samper, Abad de Jaurrieta, acompañada de notas gramaticales redactadas por aquél ilustre bascófilo», *Revista Euskara*, 6, 322-336.

SATRUSTEGI, J.Mª (1977), «Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga», *FLV*, 9, 109-114.

— (1981), «Xukako aditz-joskera Luzaideko mintzairan» in Euskaltzaindia, *Iker-1*, 343-354.

— (1993), «Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI», *Fontes Linguae Vasconum, Studia et Documenta (FLV)*, 64, 443-475.

SCHLIEBITZ, V. (1886), *Die person der Anrede in der französischen Sprache*, Breslau.

SCHOCH, M. (1978), «Problème sociolinguistique des pronoms d'Allocution: *tu* et *vous*. Enquête à Laussanne», *Linguistique*, Fr., 14, nº 1, 55-73.

SEGUROLA, I. (1992), «Gizon, gizarte, gizagaixo» *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-4-30, 26.or.

SILVERBERG, W.V. (1940), «On the psychological significance of Du and Sie», *Psychoanalytic Quarterly,* vol.9, 509-525.

SLOBIN, D.I. (1963), «Some aspects of the use of pronouns of address in Yiddish» in *Word,* 19, 193-202.

SLOBIN, D.I.; MILLER, S.H.; PORTER, L.W. (1968), «Forms of address and social relations in a business organization» in *Journal of Personality and Social Psychology,* 8, 3, 289-293.

SCHUCHARDT, H. (1947), *Primitiae Linguae Vasconum,* espainierazko argitalpena, A. Yrigarayk prestatutako ohar eta iruzkinez hornitua eta Urkijoko jaunaren sarrerako gutun batez, Salamanca, C.S.I.C.

— (1893), *Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco,* (Angel Goenagak prestaturiko espainierazko argitalpena -Baskische Studien I, Viena 1893koarena-, BAP, 28, 1972, 217-337).

SOHN, H.M. (1981), «Power and Solidarity in the Korean Language», *Papers in Linguistics: International Journal of Human Comunication,* 14 (3), 1981, 431-452.

SOLÉ, Y. (1970), «Correlaciones socio-culturales del uso del 'tú'/'vos'y 'usted' en la Argentina, el Perú y Puerto Rico» in *Thesaurus,* XXV, 161-195.

— (1978), «Sociocultural Determinants of Symmetrical and Assymmetrical Address Forms in Spanish» in *Hispania,* 61, 4, Dec, 940-949.

STIDSON, R.O. (1917), *The Use of YE in the Function of Thou in Middle English Literature from Ms. Auchinleck to Ms. Vernon: A Study of Grammar and Social Intercourse in Fourteenth-Century England,* Stanford University Press.

STOFFEL, G.M. (1983), «Forms of Address amongst German-English, Bilinguals in New Zeeland» in *General Linguistics,* 23, 2, summer, 79-93.

STONE, G. (1977), «Address in the Slavonic Languages» in *The Slavonic and East European Review,* 55, 4, Oct, 491-505. (COUNTRY OF PUBLICATION: United Kingdom)

TILAKARATNE, S. (1988), «Social Deixis in Sinhalese: The Pronoun System», *Kansas Working Papers in Linguistic Studies,* USA, 13, 174-190.

TISCORNIA, E.F. (1930), «Geografía del voseo» in *La lengua de Martín Fierro,* Buenos Aires, 1930, 119-137; 161-191M; 289-290.

TIUGAN, M. (1984), «Aspects of the Verbal Behaviour in an Urban Community. The Usage of the Personal Pronouns of Direct Address» in *Revue Roumaine de Linguistique,* 29, 3, May-June, 203-219.

THORNE, B.; HENLEY, N. (1975), *Language and Sex,* Rowley, Mass., Newbury House.

TORREJON, A. (1986), «Acerca del Voseo Culto de Chile» in *Hispania,* 69, 3, Sept, 677-683.

TRASK, R. (1981), «Basque verbal morphology» in Euskaltzaindia (1981), *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak. Iker-1,* Bilbao, 285-304.

VENKITACHALAM, S. (1981), «Personal Pronouns and Pronominal Forms in Malayan», *International Journal of Dravidian Linguistics (IJDL),* Ind., 1981, 10, nº1, 140-159.

VIDEGAIN, L. (), «Alokutiboa LOPEZengan (1782)», in Euskaltzaindia, *Iker-2,* 625-646.

VILLASANTE, L. (1961), *Historia de la Literatura Vasca* (Burgos, 1979, Edit. Aranzazu).

— (1988), *Euskararen auziaz,* Colección Eleizalde 9.

WALES, K.M. (1983), «Thou and You in Early Modern English: Brown and Gilman Re-Appraised» in *Studia Linguistica,* 37, 2, 107-125.

WARREN HAMPTON (1974),«On teaching "tú" and "usted" to the beginner», *Hispania,* 57, sept., 478-479.

WEINBERG, B.F.; NAJT, M. (1969), «Los pronombres de tratamiento en el español de Bahía Blanca», *Universidad Nacional del Sur,* 1969.

WEINBERG, B. (1970), «La evolución de los pronombres de tratamiento en el español bonaerense» in *Thesaurus,* XXV, 12-22.

WEINERMAN, C. (1976), *Sociolingüística de la forma pronominal,* México, Trillas.

WITTEMANTS, E.P. (1967), «Indonesian terms of address», *Social Forces,* 46, 48-51.

WOLFF, P. (1988), «Nouvelles recherches sur le voivoiement: quatre poèmes épiques, quatre formes d'addresses, quatre tempéraments nationaux?», *Académie des Inscriptions et Belles-Lettres, Comptes Rendus des Séances de L'Anné,* FRA, nº 1-3, 58-74.

YANG, Y.L. (1988), «The English Pronoun of Address: A Matter of Self Compensation», *Sociolinguistics,* NLD, 17, nº 2, 157-180.

YASSIN, M.A.F. (1975), *A linguistic study of forms of address in Kuwaiti Colloquial Arabic,* Leeds University (Ph.D. Dissertation).

YRIZAR, P. (1949), «Los dialectos y variedades del vascuence», *Homenaje a Don Julio Urquijo,* San Sebastián, I, 275-424.

— (1975), «Aditza euskalki guzietan», *Euskera,* 20, 407-451.

— (1981), *Contribución a la dialectología de la lengua vasca,* 2 liburuki, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.